

Jose M. Satrustegi

euskal
testu
zaharrak

I

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA
IRUÑA 1987

174 6757

euskal
testu
zaharrek

I

Azala: Jose Ramon Anda

© Jose M. Satrustegi
Nafarroako Gobernuaren Dirulaguntzarekin
Argitalkide: Euskaltzaindia
Argitaldaria: Mintzoa, S. L.
Inprimategia: Imprenta Popular, S. L.
Fotokonposaketa: Composiciones RALI, S. A.
ISBN: 84-85479-40-8 (O.C.)
ISBN: 84-85479-41-6 (T. I)
D. L.: NA 714-1987

Jose M. Satrustegi

euskal
testu
zaharrak

I

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA – EUSKALTZAINDIA
IRUÑEA 1987

*Nafarroako Gobernuko
Hezkuntza eta Kultur Sailak
euskaraz argitaratuz
1986an emandako laguntzarekin
argitaratua.*

Euskal izkribu zaharren bilduma honen osotzea ez da bapatean edo goizetik gauera gertatu. Itzul-inguru askoren urrats galduak daude barruan uste gabeko aurkipen pozgarriekin batera. Baina, batez ere, nere deiari erantzunez lagundu nauten adiskide askoren emaitza da. Testu bakoitzaren lorpenak badu bere historia ttipia. Nola nahi ere, euskararen alorra aintzinako gauzetan basamortu gorria zelako ustearekin hasitako amets hura, lorategi ez bada ere belardi emankor behintzat gertatu dela, esan dezakegu.

Bederatzi urtez (1955-1964) ibili nintzen Ibañetako portuan gora eta behera, Luzaiden egon nintzen denboran. Halako batean, zertara nindoan jakin gabe heldu nintzen Iruñera, On José Goñi Gaztambide nere irakasle izandakoak niretzat zerbait ba omen zuela jakinerazita. Katedraleko artxibuko arduradunak euskarazko izkribu zahar batzu zeuzkan nehoi eman gabe, misterio haundiarekin jasorik:

—Zuk argitaratuko dituzu, esan zidan fermuki.

Nik, ezetz; lanik aski banuela berririk hartu gabe. Gogor ekin nion ezeko neure jarrerari.

Baina, Goñi Gaztambide historilari ospetsua ez da bere asmo tinkoetatik erraz desbideratzen den gizona, eta isilune bakoitzaren ondoren lelo bera zuen beti nere gogo-ezaren argudio guzientzat:

—“...hala ere, egingo duzula uste dut“.

Ia arratsalde osoa galdu genuen deman eta goibel, kezkatu, igaro nuen ilunabarrean Ibañetako kaskoa auzi-paper zaharren bilduma mardula neurekin eramanez. Ezin bestekoa zitzaidan inoiz ikasi gabeko gauza batean ofizio-rik gabe eta gogoaren aurka sudurrak sartzen hastea.

Baina uretan sartu aurreko bustialdia izan ohi da beti hotzena. Tolosako bertsu zaharren itzulpena izan zen nere lehen saioa¹ eta beldurra galdu nion ur berrietan igeri egiteari. Iruñeko Amendux gaztearen olerkia izan zen nere

1. “Versos satíricos vascos del año 1619” *Príncipe de Viana* 78-79 (1960), pág. 137.

maisugandik bereala jaso nuen beste eskaintza². Geroztik bide askotatik heldu zaizkit argitaragabeko euskal testuak etxera.

Hogeita zenbait urteotan ahalegindu naiz paper zaharrak argitaratzen eta ez da hain erraza orain non diren aurkitzea. Hori dela eta behin baino gehiagotan gertatu ohi da testu horien berri jakin nahi dutenei banan - banan erantzun beharra. Euskal izkribu zahar gehiegirik ez dugularik, neuk argitaratuen bilduma egitea izan zen lan honen lehen asmoa.

Berehala konturatu nintzen gero helburu horren moztasunaz, emanak baino askoz ugariago zirelarik eskuartean nituen testu argitaragabeak. Lan zabalagoa burutzea izan zen orduan azken erabakia euskal Filologia nahiz euskara bera landu nahi dutenen baliagarri.

“Euskararen Lekukoen” bilduman sartzea izango zen Euskaltzaindiaren aldetik hurrengo pausua.

Testuen hautaketa eta traskribapen lana amaitu orduko, Nafarroako Gobernuak euskarazko argitalpenei laguntzeko azken urteotan egin ohi duen deialdia zabaldu zuen, eta bere horretara aurkeztu ondoren dirulaguntza bat jaso zen.

Hau izan da, hitz gutxitan esanda, bilduma honen argital - aurreko bide luzea.

Iturriak

Berrogeita hamar ataletan banatu dira ia beste horrenbeste herritako testuak. Adibide bat baino gehiago duen hiriren bat edo beste bada, hala nola, Intza, Iruñea, Lakuntza eta Muruzabal.

Bilketa lana Nafarroan egin da eta horrexegatik, behar bada, izkribu hauen %-tik 95eko kopurua lurralde honetan jasotakoa da. Beste herrialdeetan bildutako eskuizkribuak ez dira asko: Gipuzkoan Berastegikoak, Bilboko Azkue bibliotekan neuk aurkitutako amodiozko leloa, eta Lafitte adiskideak emandako predikuen bilduma.

Baliagarri gertatu diren artxibu nagusiak hauek dira:

Iruñeko Elizbarrutiko artxibua; Nafarroako Artxibu Orokorra (Iruñea); *Katedraleko artxibua* (Iruñea); *Baztango Udal artxibua* (Elizondo).

Baina herriz-herri banatuta dauden elizetako liburu eta paperetan joan dira, batez ere, uste gabeko izkribuak agertzen. Horien artean, gaur euskara

2. “Hallazgo de una elegía vasca del año 1564”. BAP. (1963) C 1, pág. 63.

galdua den tokitakoak ere badira, hala nola, Bakedano, Beorburu, Esparza (Galarkoa), Iruñea, Larrasoaña, Muruzabal, Ororbia, Orrio, Urdanoz, Uterga eta Zufia.

Horrek ez du esan nahi mintzaira aldetik beste euskalkietakorik azaltzen ez denik. Nafarroako auzi-gaietan, adibidez, Gipuzkoa ere barne da; eta mugako udal-artxibuetan Iparraldeko zenbait udal-mezu, ohar eta euskal gutun bada. Orohar, Nafarroa garaiko nahiz beheko lekukotasunaz bestalde, Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko adibiderik ere ikus daiteke bilduman. Arabako mintzairaren eredu zehatzik lortu ez den arren, Langarikako arabar baten euskal izkribu sorta gertatu da bertan emankorrenetako bat. Zuberoa da, beraz, inolako agerpenik gabe gelditutako lurralde bakarra.

Hainbeste izkribu zerrenda batean ikusita lan arruntetako har lezake norbaitek. Bilketa lanean saiatu denak badaki, noski, testu zaharrak urri direla euskararen munduan. Banan-banako etorkin murrizta izan ohi da gehienetan eta edozein aurkipean, den txikienak ere, begia alaitzen dio biltzaileari.

Noizean behin, basamorturik gorrienean ere harrapagai baliotsuren bat edo beste sortzen zaio ehiztariari, eta uste gabeko zenbait paper mordo bildu dut bazterretan.

Jakingarrienak aipatuko ditut:

1) *Orreaga*. Ez nuke esango udaberria zen ala negua. Emaitzari dagokionez udazkena izan zaitekeen. Orreagako plazaren erdian su-garretan erretzen ari ziren, Nikolas Polit (1834-1906) bertako nagusi ospetsu izandakoaren hondarkinak. Ohe-zura eta oihal zaharrak erre arren, paper guztiak norbaitek jasoak zituen niretzat. Hala beharrez, inork deitu gabe suertatu nintzen han. Orohar, 334 orrialdeko 71 euskal izkribuak jaso nituen arratsalde hartan. Haietatik 52, Nikolas Polit zenak bere izkirione ederraz idatzitakoak dira, eta hiru egilerenak, besteak. Izengabeak izan arren, zenbait zehaztasun aurkitu dut.

Lesaka eta Zugarramurdi. Herri hauen izena daramaten testuak hamar dira eta 78 orrialde osotzen dute. Berrietan agertzen den datari jarraituz, Anastasio Echeverri (1822-1907), elizondokoa, dela egilea ikasi dugu. Pare bat urte Lesakan egon bazen ere, 1858tik 1907raino Zugarramurdiko apaiza izan zen. Gurasoak aezkoarrak zituen eta bere izkribu gehienak Zugarramurdiko parrokiari daude³.

Zaraitzu. Bilduma honetako beste bi sermoi Zaraitzuko eskualkikoak dira, baina ez dute inolako zehaztasunik ematen. Ez dakigu beraz norenak diren. Prediku horietako bat osorik dago; bestea ez⁴.

3. "Textos dialectales de documentos religiosos vascos" 1 Lesaca; 2 Zugarramurdi. FLV. 48 (1986), pág. 289-314.

4. "Textos salacencos del año 1780" *Symbolae L. Mitxelena* (1985), pág. 1023-1043.

Elkano. Joakin Lizarraga, Elkanoko apaizaren prediku bat ere bazegoen Orreagako paperetan. Zazpi orrialdeko moral - azalpena da dantzei buruz⁵.

2) *Muruzabal.* Ilzarbe bailarako Muruzabalen jasoak dira 312 orrialdeko 53 prediku hauek. Paper zorro arruntarekin inguraturik zeuden eta, gaineran zioenez, Langarikako Felix aita kaputxinoaren bilduma zen. Askorenak dira baina egileen izenik ez da agertzen. Prediku horietako bat Larrasoañan eman zen eta beste zazpi Ororbiakoak dira. Zaharrenak 1743ko data darama.

Surako bilduta zeuden unean jaso zituen Pedro Izu apaizak.

3) *Lafitte jaunaren bilduma.* Hemeretzigarren mendeko 30 prediku eman zizkidan 1977an P. Lafitte euskaltzainak. Horietako hamarrek urtea daramate eta 1854etik 1867ra bitartekoak dira. Sermoi bat Irungo Junkaleko elizan emateko egina da eta beste batek Hondarribia aipatzen du.

Bataz beste, Bidasoa kostaldeko mintzaira dute.

4) *Arruazu.* 977 orrialdeko 162 sermoi dira Arruazukoak. Gehientsuek urtea ezarria dute, 1833tik 1881era bitartekoak direlarik. Askorenak. Goldarazkoak daude alde batetik, horrela bait diote oharretan. Egilleta ere agertzen da, baina ez dakigu herri-izena den edo egilearena. Arruazuko hizkera garbi adierazten da batzutan, eta Nafarroa garaiko mendebaldean egiten zena, Arakilgoa alegia, nabarmentzen da beste batzutan. Gipuzkoako aditza sartzen duenik ere badago. Euskalkien muga dago Arruazu eta ez da harritzekoa aldamen herrietako esakerak hain bereziak izatea.

5) *Intza.* Bilduma hau ez da haundia, baina 132 orrialdeko lantxo bat bada, Practiquec izenekoa. "Enfermoac visitaceco, eta ongi illcen lagunceco Laugarren librué" esaten du. Eskuz idatzirik egon arren, argitaratutakoren batetik hartua dirudi. Ama Birjinaren jaiot-eguneko hiru sermoi, 1801, 1808 eta 1825ean emanak dira, eta beste hiru izkribu laburretan XVIII.mendekorik ere bada.

Araitz bailarako euskara da bertan agertzen dena eta 1801eko sermoiak "Elordi" dio amaieran. Izen hau Aralar mendiko toki-izen ezaguna da eta ez dakigu egileak abizena zuen edo ezizena.

Kasimiro Saralegi adiskideari zor dizkiot Intzako testuok.

Bilduma hauen berri emana dut orain baino lehen⁶. Testuen ereduak agertzearekin urrats haundia izango da aztertu nahi dituztenentzat.

5. "Nuevo documento no catalogado de Joaquín Lizarraga sobre los bailes" FLV. 23 (1976), pág. 205-236.

6. "F. Ondarra euskaltzain berriari erantzuna" *Euskera* XXVI (1981-2), Bilbo. 651-660 or.

Lakuntza. Beste sorta aipagarri bat agertu da, geroztik, Lakuntzako parrokian. Zenbaketa eta aurkezpena Eugenio Ulayar eta Luis Igultz jaunek egina dute⁷. Euren lanaren ildotik berri hauek ditugu:

Juan Migel Gastesi, Irañetako semea, 1826etik 1861era izan zen Lakuntzako erretore. 78-ren bat sermoi utzi zituen, hala nola “Mariaren hilabetea” edo maiatzeko loreetako irakurgaiak, bi liburutan. Gaztelerazko liburu baten itzulpena da, ez badu beti haren eredia hitzez-hitz jarraitzen ere; zenbait atal bereak dira.

Mariano Percaz, larraundarra, Oderitzen jaio zen eta 1826tik 1877ra egon zen Lakuntzan. 43 prediku utzi zituen.

Martin Otermin Aldaya, Intzakoa, araitarra beraz, 1877tik 1883ra eduki zuen bere gain Lakuntzako elizaren ardura. 15-en bat sermoi dira bereak.

Mende honetan, Blas Alegria euskal idazle lakuntzarrak zirriborro asko utzi du bere herrian.

Izengabeko lanen artean badira, galdera-erantzunez buruturiko sei orrialde Elizaren aginduei buruz, euskara garbi eta idazkera txukunez eginak. Beste sei orri, esperantzaren doktrinaz.

Manuel Iriarte, Lakuntzako apaizkideetan jarlekua zuen benefiziatuak beretzat idatzitako Asteteren kopia bat 1338koa da.

Hau da eskuratutako bilduma nagusien zerrenda. Baina bada horietaz bestalde, han-hemenka jasotako paper solterik ere.

Hautapena

Izkribu hauek guziak ezin ziren, noski, liburu soil batean ez bietan sartu. Nolabait sailkatzeko bereizketa behar-beharrezkoa zen eta horretarako helburuak finkatu behar lehenik.

Testu zaharrenak kronologikoki har eta beste guziak baztertzea izan zitekeen bide bat. Izkribu jator eta baliotsuenekin bilduma txukunago bat eskaintzea izango zen beste irtenbidea.

Bildumen kopurua eta orri askoren mordoilokeria ikusita denak dauden-daudenean argitaratzeak ez zuen gogo haundirik ematen, alde batetik; eta gehienen literatur mailako balioa, bestetik, ez da hain eredugarria gertatzen, egile bakoitzak bere eguneroko langaitzat egin baitzituen, eta ez sorketa lanaren ikuspegi edertzaletik begiratuta.

7. Luis Igultz. “Blas Alegriaren liburu eta esku-izkribuez”. *Euskera* XXVIII, (1983-2), Bilbo. 336-339 or.

Noiz eta nongoaren lekukotasuna dela uste dut orri hauen baliapen xumea eta, ahal balitz, egilearen zehaztasunak argitzea hizkuntzaren aldagaiak hobeki aztertzeko. Euskaltegi eta Filologiako ikastaroetan ikergai izan daitezkeen eta hain beharrezkoak diren izkribu zaharrak eskaintzea da, besterik gabe, lanaren helburua. Baina gai asko zegoenez, irakurketa orokor baten ondoren hautapen lana etorri zen eta, lekukotasunari begira, herrialdeka ahal bezain toki gehienetako ereduak jasotzeari ekin zaio, bizpahirutako mordoe-kin liburua betetzea baino adierazgarriago izan daitekeelakoan. Hori dela eta, hogeit, hogeita hamar edo berrogei iturri desberdinetako ereduak sartu dira. Euskararik mintzo ez den herri askotako adibideak gerta daitezke jakingarrienak.

Zer esanik ez, tokian-tokiko esaera eredugarriak, hiztegiaren berezitasunak, morfologiako aldagaiak, aditza eta hizkuntzaren bizitasuna kontutan hartuz aukeratu dira testuak. Bigarren maila batean, izkribuen edukina edo gaiari ere begiratu zaio, erakusgai desberdin eta irakur-errazagoak emateko, batez ere.

Bide honi jarraituz, testu laburrak edo hamar-hamabost orrialdetaraino-koak oso-osorik jaso dira. Sermoi askoko bildumetatik hiru hitzaldi hartzen dira soil-soilik.

Data ez da beti agertzen eta paperaren ezaugarri edo markaz baliatu gara, batzutan, noizkoa izan daitekeen jakiteko.

Traskribapena arretaz egiten ahalegindu gara testuen fidagarritasunak inolako zalantzarik sortu ez dezan. Esandakoe-kin erraz uler daiteke, ez dela euskal testu horien aurkezpen kritikoa lanaren helburua, aztergai izan daitezkeen materialen bilduma eskaintzea baizik. Nola nahi ere, ikerleen lagungarri, dagokion herriaren azalpen labur bat ematen da testu bakoitzaren aurretik, hala nola iturriak, non dagoen orijinala eta, argitaratua baldin bada, bere bibliografia guziaz testuaren atzetik. Edozein ikaslek behar dituen oinarriko norabideak.

Sailkapena

Metodologia aldetik, noiztasun edo paperen kronologiari eman zaio lehentasuna, mendez-mende eta, ahal den neurrian, urtez-urte egin da berorien sailkapena. Baina denbora berean, herriaren izena darama izenburutzat euskalkiaren adierazgarri, gaia bigarren mailakotzat utzirik edo aintzat hartu gabe.

Aipamenak nahiz hitzen eta esaldien aurkipena errazteko, atal bakoitzak zenbaki bat badu, eta lerroak ere bost eta hamarnaka berzenbaturik daude.

Laguntzaileak

Ezin ditut aipamenik gabe utzi bilketa lanetan lagundu didateneen ize-nak. Euren laguntza baliotsu hori gabe ezinezkoa gertatuko zen bilduma honen osotzea.

Artxibu nagusietako berri eman dutenak: *Jose Goñi Gaztambide*, Iruñeko katedralekoaren zuzendaria, eta *Jose Luis Sales Tirapu*, Iruñeko Elizbarrutikoaren arduraduna.

Herrietako elizetxeetan aurkitutakoak honako apaizlagun hauei zor dizkiet: *Jaime Andonegi* (Irurita), *Pello Apezetxea* (Etxalar), *Bitorio Apeztegia* (Orreaga), *Fermin Ixurko* (Huitzi), *Pedro M. Izu* (Carcastillo), *Pierre Lafitte* (Uztaritze), *Leonides Sagues* (Lizaso), *Javier Sanzberro* (Zugarramurdi), *Casimiro Saralegi* (Iruñea) eta *Eugenio Ulayar* (Lakuntza).

Era berean, *Javier Alvarez* Nafarroako Artxibu Orokorreko lankideak, *Ana M. De la Quadra-Salcedo* andereak eta *Jose M. Pastor* “Artzai”, adiskideak, beren osagarriak bidali dizkirate.

Denei nere esker ona.

LABURPENAK

A.S.J.U.	<i>Anuario del Seminario “Julio de Urquijo”.</i>
E.A.M.	<i>Ene aditzale maiteac.</i>
E.A.S.C.	<i>Eliza Ama Santu Catolicoa.</i>
E.A.S.C.A.E.	<i>Eliza Ama Santu Catolico Apostolico Erromacoa.</i>
F.L.V.	<i>Fontes Linguae Vasconum.</i>
M.S.	<i>Maria Santissima.</i>
M.S ^{en}	<i>Magestades Santuaren.</i>
N.A.D.	<i>Nere aditzale debotuac.</i>
N.A.V.	<i>Nere aditzale vibotzecuac.</i>
N.C.	<i>Nere Cristauac.</i>
N.C.C.	<i>Nere Cristau Catolicoac.</i>
N.C.T.C.	<i>Nere Cristau ta Catolicoac.</i>
N.C.T.E.	<i>Nere Cristau ta entzunleac.</i>
S.S.	<i>Scriptura Santua</i>

XVI. MENDEA

1. IRUÑEA (1501)
2. BEORBURU (1536)
3. UTERGA (1547)
4. OLAZAGUTIA (1548)
5. BAKEDANO (1550)
6. ZUFIA (1552)
7. ESPARZA (GALAR, 1557)
8. AMENDUX (1567)
9. AZKOITIA (1596)

1. IRUÑEA (1501)

Gaur-egun *Orduen liturgia* esan ohi zaio elizgizonen otoitz liburuari, betidanik ofizialki *Breviarium* izan arren. Iruñeko Sinodoak 1499-an honelako liburu bat argitaratzea erabaki zuen eta 1501ean plazaratu. Erdi aldera, 175.orrian festaburu eta astegunen egutegia dakar. Latinez ezarritako hilen egunak euskarara itzuli zituen eskuz norbaitek. Orain arte ezagutzen den hilen zerrendarik zaharrena delakoan jaso dut.

Hauek dira bertan agertzen diren hitzak:

1. *Yçozilla*. (Yçozill(e)a?). Januarius, Urtarrila.
2. *Oçalla*. (Oçall(e)a?). Februarius, Otsaila.
3. *Marchoa*. Martius, Martxoa.
4. *Aprilla*. Aprilis, Apirila.
Oriaro(?), *Ostaro*(?). Ilun dago.
5. *Mayaçã*. Majus. Maiatza.
6. *Garaguarçilla*, orri buruan.
Gaengarzila, beherean. Junius, Ekaina.

Uztailak eta abuztuak ez daramate inolako euskal izenik.

7. *Urrilla*. Septenber, Iraila.
8. *Laztalla*. October, Urria.
9. *Açaroa*. Nouenber, Azaroa.
10. *Auendua*. Decenber, Abendua.

Bibl.:

Incipit breuiarium secundum consuetudinem ecclesiae et diocesis Pampilonem, de Fernando de Vaquedano. Pamplona, Arnaldo Guillén de Brocar, 1501. en 4.º (31 x 13 cms.) I-458 hojas. Biblioteca de la Catedral de Pamplona.

J. M. SATRUSTEGUI: "Nueva contribución al fondo de textos antiguos vascos". ASJU XV (1981) pág. 6.

2. BEORBURU (1536)

Oso berandu arte iraun du euskarak Iruñerriko zenbait herriretan. San Kristobal mendi hegalean mendebaleruntz dagoen Beorburu, esate baterako, euskaldun agertzen da 1904-eko parrokien zerrendan. 1935-ean, hogeita hamar urtez gorakoek bakarrik mintzo zuten, eta gure egunetan denek galdua dute arbasoen hizkuntza.

1536-ean Beorburuko Maria batek, Belaskoingo Martin Beltzunze auzitigira eraman zuen, biek isilian hitzartua zuten ezkontza onartzeko eskatuz. Izan ere, bederatzi bat urtez senar-emazte bezala bizi ondoren, Belaskoingo Maria Arraizarekin elizaz ezkondu zen gizona.

Aurreko egoeraren lekuko, adibide ugari azaltzen du Beorburuko emakumeak eta, besteak beste, bien artean erabilitako zin hitzak euskaraz:

*nyc Martin ematen derauçut neure fedea
çurj Maria vici naycen artean
çuçaz verce emazteric ez egujtegujteco
eta ez çuri vici naycen artean faltaceco.*

Andreak esandako hitzak ia berdinak dira:

*nyc Maria çuri Martin ematen derauçut ene fedea⁵
vici naycen artean
çuçaz verce senaric ez (egujteguo) egujteco
eta çuri ez faltaçeco. (f. 10)*

Markalain-en zegoen neskame une hartan, eta bere senarra ikustera joan zitzaion batez, gauez eta besteren etxean neskamea ikustera etortzea ez zela itxura oneko gauza, bota zion aurpegira etxeandereak. Senarrak, orduan, ezkonduak zirela erantzun omen zion eta, bada ezpada, eskuineko eskutik hartuz, honako esatera honen bidez berriztatu zuen fedea:

*nyc Martin çuri Maria
ematen derauçut neure fedea¹⁰
çuçaz verce emazteric ez egujteco. (f. 10 v.º)*

Era berean ihardetsi zion emazteak. Harremanetan bada, halere, oztoporen bat, eta emakumearen urduritasunez ala beldurrez ez zuten inoiz horren ekintzarik burutu, eta beste batekin joan zen gizona.

Aldaketa txikiren bat gora-behera, honela jasoak dira beste orri batzuetan lehen esandako hitzak:

*nic Martin ematen derauçut neure fedea
çuri Maria viçi naiçan artean
çuçaz verce emazteric ez egujteco
eta ez çuri viçi naiçan artean faltaceco.*¹⁵

*nic Maria çuri Martin ematen derauçut neure fedea
çuri Martin viçi naiçan artean
çuçaz verce senarric ez egujteco. (f. 12)*

*njc Martin çuri Maria
ematen derauçut neure fedea*²⁰
*çure senar yçayteco.
njc Maria ematen derauçut çuri Martin
neure fedea çure emazte(s) yçayteco. (f. 17 v.º)*

*njc Martin çuri Maria ematen derauçut
neure fedea çuçaz verce emazteric*²⁵
*vici naycen artean ez egujteco
eta ez çuri faltaceco. (f. 19 v.º)*

*njc Martin çuri Maria
prometacen derauçut neure fedea
çure senar yçayteco*³⁰
*eta çuçaz verce emazteric ez egujteco
eta vici naycen artean ez faltaceco.
njc Maria çuri Martin pr(o)metacen derauçut
neure fedea çure emazte yzayteco
eta çuçaz verce senaric ez egujteco*³⁵
*eta vici maycen artean ez faltaceco
eta lealqujro mantenaceco. (f. 21)*

Auzia latinez idatzirik dago oso-osorik eta emaztearen aldeko epaia izan zuen, gizonak elizaz egindako bigarren ezkontza ezeztatuz.

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Matrimonial. Belascoain-Beorburu, 1536, C 42, n. 15.

J. M. SATRUSTEGUI. "Nueva contribución al fondo de textos antiguos vascos". ASJU XV (1981) pág. 7.

3. UTERGA (1547)

Iruñeritik gertu, Nafarroako Ilzarbe bailaran aurkitzen da Uterga. Bertan apaiz izandako Beriaingo Juanek euskaraz eta erdaraz idatzi zuen doktrina batengatik ezagutua da herri hau euskal idazleen munduan.

Auzi honetan direnak, Utergako Juana eta Adiosko Martin Azterain, elkarrez gustatutako bi gazte dira. 1547-ko San Pedro hirugarrenean, Teileria izeneko dermioan topo egin ondoren mutilak eskutik hartu eta honela eman zion andregaiari ezkontzako fedea:

*nic Martin y Joanna arçenaut
neure alaroçaçat
eta hic arnaçan yre esposoçat
eta prometaçen dinat
ez verçe emazteric eguiteco y vayçen⁵
viçinayçen artean
eta guardaçeco lealtadea
ala fedee, ala fedee, ala fede.*

Era berean, emaztegaiak honela erantzun zion Azterain mutilari:

*nic Joanna y Martin arçenaut
neure sposoçat¹⁰
eta hic arnaçac eure sposaçat
eta prometaçen diat
ez verçe senarric eguiteco
viçinayçen artean
eta guardaçeco lealtadea¹⁵
ala fedee, ala feede, ala fedee.*

Arazoa ez zen hitzetan gelditu eta eskupekoren batzu eskaini zizkioten elkarri senar-emazte bezala bizitzen hasteko.

Urte pare baten buruan, izkutuan ezkontutako Martin hori beste emakume batez gustatu eta elizaz ezkondu zen Zizur-en.

Juanak euron aurreko egoera salatu zuen auzira eramanez bere senarra. Gizonak dena ukatu zuen eta garrantzizko arrazoirik ezean, epaileak ez zuen aintzat hartu Utergako Juanaren salaketa. Horrela, alargun eta ezkongai gelditu zen andrea.

1. y *Joanna* hitzen órdez, *yri Joanna* idatzi zuten lehenik. Beltzez ezeztatu ondoren y bakarrik agertzen da. Emazteak ere y *Martin* dio bere fedean.

5. Bietan agertzen da *vayçen* hitza: *ez verçe emazteric eguiteco y vayçen vayçen*. Gero lehenengoa gainmarratu eta bigarrena bakarrik gelditu da.

Hiketari eta noketari mintzo dira neska mutil hauek euskaraz emandako fedean.

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Matrimonial, 1549, C 230, n. 9.

J. M. SATRUSTEGUI. "Promesa matrimonial del año 1547 en euskera de Uterga". FLV 25 (1977) pp. 109-114.

Tx. PEILLEN. "Gonzalo de Berceo eta Zuberoko euskara". FLV XII (1980), pág. 42. *alaroça* arabiar hitza dela aditzera ematen du.

I. SARASOLA. "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos". ASJU XVII (1983), pág. 103.

4. OLAZAGUTIA (1548)

Une batez, edozein garai eta toki on zen bi maitale isilka elkarrekin ezkontzaz elkartzeko. Horretaz baliatu nahi izan zuen Juan Ibañez olaztiarrek bere herriko neskato batekin ezkondurik zegoela auzi mahaian salatzeko.

Udazkenean, igandearekin, urrak eta martotsak biltzen ari zen Paskuala bere bi lagunekin, mutila joan zitzaionalarik ondora. Bost bildots galdu zituela esan zion lehenik eta haien bila atera zela. Besterik zen halere artzaiaren asmoa, eta bertan eman ziola andregaiak ezkontzeko fedea, aitortzen du epailearen aurrean.

Ez du hala uste Paskuala gaixoak, oso larrialdi estua eman bait zion bere salatzaileak. Indarkeriaz eraso ondoren, arto-hondo batekin lepotik hartu eta ito beharrean eduki omen zuen, fede hori lortu nahirik. Ihes egin zuelarik, zaparretan larruturik eta egoera txarrean iritsi izan behar zuen neskatoa etxera.

Hori dela eta, ezkontzako hitz hauek jasotzen dira auzi paperetan:

*Vada njc ematenderauçut
çuri Pascoala neure fedea
senarrac eta emazteac
ematen duten vequala
eta arcen çajtut neure emazteçat⁵*

Andregaiak gero honela erantzun omen zion:

*bada niquere ematenderauçut
Johane neure fedea
senarrac eta emazteac
ematen duten bequala
eta arcen çaytut senarrçat Johane.¹⁰*

Hitz hauek berak honela jasoak dira beste orri batean:

*nic Joes çu Pascoala
arcen çaytut emazteçat
senarrac eta emaz(i)eac
elcararcen oyduen vequala.
alaber njc Pascoala çu Joannes¹⁵
arcençaytut neure senarçat
eta ematen derauçut neure fedea
senarrac eta emazteac
ematen oyduen vecala*

Eta hirugarrenez:

*nic Joannes çu Pascoala²⁰
arçen çaytut emazteçat
senarrac eta emazteac
elcar arçen oy duen becala
eta ematenderauçut neure fedea.
alaber nic Pascoala çu Joannes²⁵
arcen çaytut neure senarçat
eta ematenderauçut neure fedea
senarrac eta emazteac oyduen becala.*

Paskualak dena ukatzen du, noski, eta berak dakien gauza bakarra zera da, laguntza eskatzen zuela garrasiz eta negarrez. Bere hitzak honako hauek dira:

ay! vidus ta borssa eguiten didate²⁹

Latinez emandako itzulpenari jarraituz *vidus/bildur* eta *borssa/bortxa* bezala uler daitezke.

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Matrimonial. Olazagutía, 1548. C 45, n. 11.

J. M. SATRUSTEGUI. "Nueva contribución al fondo de textos antiguos vascos". ASJU XV (1981), pág. 14.

29. *violenter et vi et metu duxerunt eas*, dio latinez auzi-agiriak.

5. BAKEDANO (1550)

Udaberriko maite-minduen gertakizuna da Amezkoa-beheko hau. Mar-
txoaren 25-ean, Ama Birjinaren eguna seinale, adostasun osoan eman zioten
elkarri ezkontzeko fedea Bakedanoko Juan eta Teresa ezkongaiak. Inoren
lekukotasunik gabe, besarkada estuaz baieztu zuten bien arteko lokarria.
Zilarrezko eraztunak eta “bitxiak” izeneko otoitz batzu ere eskaini zizkioten
elkarri loreberri amultsuaren lokarri.

Zoritzarrez, ekaitzak eraso zion gero eta maitaleen zorionak ez zuen
asko iraun. Isilkako andere esposaren aurka ekin zuen senarrak epaileen auzi
mahaian. Epaileek ez zuten ezkontza ontzat eman.

Urbasa mendiaren hego-hegal honetan euskara zen nagusi, noski, 1550-ean
eta euskaraz eman zioten biok elkarri fedea. Mende honen hasieran, 1904.eko
Nafarroako parrokien zerrendan, erdalduntzat ematen da Bakedanoko jendea.

Dena dela, hemen ditugu orain Amezkoako euskararen lekuko, XVI.mendean
gazteok elkarrekin erabilitako hitzak.

*nic çuri Joaneç emaytenderauçut
neure fedea / çuri Theresa
çure senar yçayteco
eta ez çuçaz verce emazteric eguiteco.
nic era verean çuri Joaneç⁵
ematenderauçut neure fedea
ez verce senarric eguiteco çuçaz verceric.*

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Matrimonial. Baquedano, 1550. C 46, n. 7,
Ciordia.

J. M. SATRUSTEGUI. “Nueva contribución al fondo de textos antiguos
vascos”. ASJU XV (1981), pág. 18.

6. ZUFIA (1552)

Estelleriko euskara aspaldi joana da pikutara. Zufia herriskan Diego eta
Marimigel maitaleek egunero euskara mintzo zuten elkarren artean eta, euron

1. Senarraren hitzok ilunak dira: çuri Joaneç... çuri Theresa, agertzen denez, lehen kasuan ez du inolako zentzurik.

amodioaren ezaugarri, geure mintzaira zaharra utzi ziguten lekuko. 1550. urteko Gorputz Kristi egunean eta andregaiaren etxean hitzartu zuten ezkontzako fedea. Andere esposberriarekin eta bere ahizparekin lo egin zuen senarrak, ohe berean, handik aurrera.

Gizonaren familiari ez zitzaion ongi iduritu aukera, gutxiagotzat zeukatelako edo emakumearen alderdia, eta auzira eraman zuten arazoa.

Iruñeko epaileek ontzat eman zuten senar emazteen hitzarmena, baina Zaragozako auzi-mahaira jo zuten galtzaileek eta han ez zeudela ezkondurik erabaki zen.

Honelako gertaeretan esku izkuturen bat agertu ohi da batzutan. Metautengorretor zen gizonaren osaba apaiza, eta oso haserre zebilen kontu honekin. Emakume horrekin ezkontzen bazen etxetik botako zuela esana zion.

Auzi honen berri A. Irigaray jaunak eman zuen lehen aldikoz, baina aurkipenaren zehaztsunik gabe. Artxibuko zenbakia eta orain arte egin diren aipamenak gehitzen dizkiogu.*

Emaztearen alderdiko aitormenak dira, noski, hemen datozen euskal hitzak. Marimigelenak lehenik, eta lekukoenak gero.

*nic Diego de Çufia ematen drauçut neure fedea
çuri Maria Miguel ez verçe emazteric eguiteco.*

*alauer nic Mari Miguel ematen drauçut çuri Diego
neure fedea ene senarçat
eta ez verçe senarric eguitecoz, çu bayzi.⁵*

*nic ematen drauçut neure fedea
valdin valdin jo baneça
aren senar yçateco.*

*nic fede ematen drauçut
ez verçe emezteric eguiteco çu bayce.¹⁰
nic alafede emayten diçut ez verçe senarric*

*ez eguiteco çu baycic.
nic fede ematendrauçut
ez verçe emazteric eguiteco
eta arçendut emazteçat.¹⁵*

*nic ematren drauçut neure fedea
çuri diego de Çufia
ez verçe senarric eguiteco
arçendut senarçat.*

Bibl.:

- Arch. Dioc. Pamplona. Matrimonial. Zufia, 1552. C 54, n. 9, Sec.". Giordia.
- A. IRIGARAY. "El euskera en Zufia". RIEV 24 (1933), pp. 34-36.
- APAT-ECHEBARNE, A. *Noticias y viejos textos de la "Lingua Navarrorum"* (1971), pág. 13.
- B. FAGOAGA. "Algunas frases inéditas del euskera antiguo", *Euskera* (1946), pág. 27.
- L. MICHELENA. *Textos arcaicos vascos*. (1964), pág. 149.
- J. M. SATRUSTEGUI. "Contribución al fondo de textos antiguos vascos". ASJU XII-XIII (1978-1979), pág. 8.
- I. SARASOLA. "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos". ASJU XVII (1983), pág. 104, n. 5.

7. ESPARZA (GALAR, 1557)

Nagusien baratzean azak hartzen ari zela Taxonarko Maria, aspaldian bere atzetik zebilen Joanis Ramiriz, etxeko semea, amodiotan hurbildu zitzaion elkartu nahian. Neskatoak haren eskariei ezetza eman zion, ezkondu aurretik ez zuela egingo, esanez.

Geroago, abenduaren 13-an Santa Luziakari, Iruñeko eritetxean gertatu ziren biak neskatoaren izeba baten ikusten. Han eman zioten euskaraz elkarri ezkontzeko fedea eta bertan oheratu ziren.

Hauek dira auzian agertzen diren euskal esaerak latinezko bilduman.

<i>Njc draudaçut fede çu emazte arçeco alaber çuc arçenauçu çenarçat? njc alaber arçen çaytut.</i>	<i>Nic draudaçut fede çu emaztearçeco alaber çuc arçenauçu senarçat? nic alaber arçençaytut.</i>
<i>Joannis çuc arçen duçu⁵ Mariorj çure emazteçat? vayez.</i>	<i>Joannes çuc arçen duçu^{5a} mariori çure emazteçat? bayez.</i>
<i>alaber çuc Maria arçen duçu Joanisori çure çenarçat? vayez.¹⁰</i>	<i>alaber çuc maria arçenduçu Joannis ori çure senarçat? bayez.^{10a}</i>

*Njc arçen çaytut çu Maria neure emazteçat
eta egun eta neure viçian ez verçe emaztericegyteco
p(ro)metaçen drauçut çu biçi çaren artean
erromaco echesanduac mandaçen duen veçala.*

njc arçen çaytut¹⁵
neure sposaçat eta emazteçat
erromaco echesanduaç
virtute duenas
eta p̄metaçen drauçut
çubiçi çaren artean²⁰
eta nj biçi nayçenartean
ez berçe emazteric eguiteco
ala ene fedea, ala ene fedea
ala ene fedea.

njc arçençaytut^{15a}
neure emazte eta sposoçat
erromaco echesanduaren
virtuteas
eta p̄metaçen drauçut.
çu biçi çarenartean^{20a}
eta nj biçi nayçenartean
ez berçe senarric egujteco
ala ene fedea, ala ene fedea
ala ene fedea.

Bibl.:

- Arch. Dioc. Pamplona. Matrimonial. Esparza de Galar, 1557. C 48, n. 1. Sec.º Ciordia.
 B. FAGOAGA. "Algunas frases inéditas del Euskera antiguo", *Euskera* VI (1961), pág. 27.
 L. MICHELENA. *Textos arcaicos vascos*. (1964), pág. 152.
 J. M. SATRUSTEGUI. "Anotaciones al proceso matrimonial vasco de Esparza de Galar (1557)". *FLV* 26 (1977), pp. 259-269.
 I. SARASOLA. "Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos". *ASJU* XVII (1983), pág. 104.

8. AMENDUX (1567)

Gaizki hazitako gazte baten bertso ederrak dira. Ez dugu bere jaiotegunaren berri zehatzik, baina bizpahiru urterekin umezurtz gelditu zela badakigu. Iruñean sendagile zen bere aita eta Gazteluko plazaren atzean, Nabarrerian izeneko auzoan zuen familiak etxea. 1547an galdu zuen aita eta urte baten buruan itzali zitzaion ama. Gurasoen hutsunea nabarmena da bere heziketan.

Horrelakoetan ohi denez norbaitek jabetu behar zuen umezurtzaz eta amaren aldeko aitona, Pereton de Garro-k, eskaini zion legezko babesa. Erriberan bizi zen osaba barbera bat agertzen da, halare, arazo guzien ardurdun. Hamabi edo hamahiru urtetan Zaragozara eraman zuen ofizioaren bat ikastera, eta oihaigintzan ari zen ugazaba baten etxean sartu zen mutil. Dendan egindako lana doan egin eta berrogei libera ordaindu behar zizkion, urtesari, nagusiari. Horrezaz kanpo, bere kontura jantzi behar zuen eta bere sakelatik oinetakoak erosi.

^{16a} emaztearen ahoan *senarra* behar luke izan bigarren alderdia.

Lehen saio hau gaizki atera zitzaion. Bost urterako hitzarturik bazegoen ere, urte baten buruan eritu eta bere etxera eraman behar izan zuen Baltierrako barberak. Ebakuntza baten ondorez hilabete asko igaro zuen ohean.

Aurreko lanpostura itzuli zuen gero bere osabak, baina gaztea ez zegoen Zaragozan egoteko. Hamalau urte bazituela esanez, utzi zuen alde batera osaba. Lope de Echebelz izeneko beste ahaide batengana jo zuen orduan.

Dirudienez, sosegu gutxiko ibiltaria zen mutila. Echebelz jaunak emandako diruaz baliaturik, Sevillara aldegin zuen morrontzan bizia ateratzeko asmoz:

“A servir amos”, dio auzi-paperak. Sakelakoa xahutu bezain laster itzuli zen etxera. Flandes-era bidali zuen gero, baina lau hilabeteren buruan etorri zen handik ere, “...y assi no tenia quietud ni hazia asiento en parte que lo enviasen”.

Echebelz esku zabala agertu zen mutilarekin eta botiga bat ireki zion Iruñeko *Chapitel* kalean, 400 dukaten balioko salgai onak barne zirela. Gezurra badirudi ere, gutxi iraungo zion altxorrak: urte batean dena janik, zorpean galditu zen botiga.

Bidegabekeria guzien emaitza presondegia izan zuen mutilak. Zortzi hilabete itzalpean zeramatzalarik, honela salatu zuen bere egoera 1567-ko irailean: “...demas de la costa que tiene en la carcel padece mucha hambre y necesidad y dolencias en su persona”.

Iritsi gara, beraz, bertsoetan garraztasun biziaz adierazitako etsipenaldira.

Botigako zorra nolabait ordaintzeko etxea eta lurrak —ardantzeak— saldu behar izan zituen lege gizonen aginduz.

Bertsoen egilea

Amendux, Iruñeko sendagileak, hartzekorik ere bazuen heriotzeko orduan. Larru-azalez inguratutako liburuska batean utzi zuen bezero zordunen zerrenda. Zorria baino pobrego ikustean bere burua, eskuartean zukeen semeak diru kontuen liburua. Abere goseak zaldalea amets.

Bi izkribu mota oso desberdinak badira orri horietan: sendagintzako aburu asko, eta sendagilearen diru gora-beherak, alde batetik; eta han-hemenka sartutako zenbait ohar, olerkia bera barne dela, bestetik. Auzi bilduma orriz-orri ikustean, Amendux gaztearen zenbait firma aurkitu genituen agintariei egindako eskarrietan. Lekukotasun uka-ezina begien aurrean genuela zalantzarik gabe jakin genuen Amendux gaztea zela bertsoen egilea.

Laguntzailerik ere bazukeen mutil hezikaitzak. Korteak deitutako Legebiltzar Nagusiko alguazil, ertzain antzeko zerbait, izendatu zuten espetxetik atera ondorean. Barne ilun haietako ate sendoen giltzak bezero berrientzat astintzen zituen bakoitzean, bazekikeen berak ongi baino hobeki hango ordu beltzen berri. Fraile baino lehen izana zen sukaldari.

*Hemen naça orçiric / noyzbait gozo ericiric,
Erioac huste gabe dolorosqui egociriq,
Ene anima Jāgoycoagana beldurriqui partituric; /
Lagungabe bide lusean peril asco pasaturic
Honac eta horrac bertan mu(n)duac edequiric⁵
Plazerac azqueno asegabe biurturic. /
Haydeac eta adisqueideac urtes gutis acenduric
Ycusetut ysuriric; / arrece(re) gusia deseginic,
Argi gabe, yllunbitan, hustel eta quirasturic,
Nigar begi bapederac bere aldias oroyturic:¹⁰
Niore ere isanen estu ni(c) estudan partiduric.
Ene anima duçuen gomendatu, garitates mobituric.
Çarrayzquidate gioco, bertan yçoc ongi notaturic:
Josafat(en) baturen gara judicion elcarrequi.
Bitarteo lodagigun, baquea dela gusiequi.¹⁵*

Bibl.:

- Arch. Gen. de Navarra. Proceso 14.852. (605 folios).
 J. M. SATRUSTEGUI. "Hallazgo de una elegía vasca del año 1564". BAP (1963), 1, pág. 63.
 A. IRIGARAY. "Nota sobre la elegía vasca". BAP (1963), pág. 85.
 A. IRIGARAY. "Sobre la elegía vasca de 1564". BAP (1963), pág. 217.
 L. MICHELENA. *Textos arcaicos vascos*. (1964), pág. 217. *Enciclopedia General ilustrada del País Vasco*. Edit. Auñamendi. Literatura I, pág. 60.
 J. M. SATRUSTEGUI. "La elegía vasca de Juan de Amendux". FLV 19 (1975), pág. 75.
 J. M. SATRUSTEGUI. "XVI.mendeko medikuntzaz zenbait berri". A. Irigaray zenari omenaldia. Eusko Ikaskuntzaren argitalpena. (1985), 673-682.or.

9. AZKOITIA (1596)

Isabel Lobiano Ibissate neskaitilla bederatzi urtetan gelditu zen aitarik gabe munduan eta Mutrikuko Santa Katalina monjetxean sartu zuen bere amak. Familiak bazituen Sevilla aldean ondasunak baina bera gaztea zenez

ama arduratzen zen denetaz. Barnetegiko laugarren urtean Pedro Idiaquez arzkoitiarrak ezkontzaz elkartzeko asmoa jakinerazi zion, baina mutila ez zen amaren gogokoa.

Debako aita-alaba batzu gertatu ziren gazte bien ararteko. Juan Urrutiak alaba zuen komentu hartan monja eta beronen bidez helduarazten zizkion mutilaren mezuak Isabeli, eta alderantziz. Besteak beste, monjetxetik ateratako azken mezuak zioen, “josirik zegoela oihala eta ostegunean joateko biltzera”.

Zaratatsua gertatu zen ostegun hura eta zeharo hautsi zuen komentuko giro paketsua. Behin eta berriz jo zuten eskaleek goiz hartan komentuko atea eta, elkar hartuta, bezala, ogia eta sagardoa eskatzen zuten denek. Josten ari ziren serorek beste zerbait ere hauteman zuten: gizon arrotzak ikusi zituzten etxe inguruko zuhaitzen atzean estaltzen eta oihuka hasi ziren, lapurrak zebiltzela aditzera ematen. Ez zuen horrek kanpokoan lana erreztu.

Bazkal ondoko soseguaz baliatu ziren Isabel eta bere lagunak andregaia plazaratzeko. Atezainak giltza sarrailan utzi zuen unetxo batean iritsi zen neskatilla bere galaiaren besoetara eta gain-jantzian inguratuta eraman zuen zaldiz Deba aldera.

Beste istilu asko sortu zuen honek. Santa Katalina komentuko monja itxiak kalez-kale abiatu ziren oihuka laguntza eskatzen. Mutrikuarrak berehala atera ziren zaldun ausartaren atzetik, baina alperrik. Uste gabeko istripu batek zailago ezarri zituen gauzak, meza emateko zegoen zestoar gazte bat ito baitzen Deba ibaiia igarotzean.

Gazte maiteminduak, bitartean, Zestoako Lilitarren etxean afaldu ondoren lasai joan ziren Azkoiti aldera. Zabala familiaren etxean igaro zuen gaua Idiaquez zaldunaren anderegaiak.

Idiaquez gaztearen ausardia ez zen horretan gelditu. Ezkontzako paperak eta elizako beste joan-etorriak huskeria hutsak ziren zaldun trebearantz, eta biharamonean bertan aurkitu zuen emaztea etxeratzeke lasterbidea. *Landazaranda* izeneko bere baratzean handi-mandi eta adiskideen agurra jasotzen zuen bitartean, herriko apaizak sar-atera bat egin zien han igarotzean. Elizgizonarengana hurbilduz, besterik gabe andregaia eskutik hartuta ezkonfedea eman zioten elkarri bi ezkongaiak. Ez zuen ezer balio erretorearen gaitzespen eta urduritasunak: lekuko zen han bildutako guziak bezala maitale biek elkarri emandako hitzaz. Horrela, legez kanpo hasitako lana legebide guzien aurka burutu zuen azkoitiarrak.

Trentoko Biltzar nagusiaren ondorez balio gabekoak ziren era honetako ezkontzak eta zigor haundienekin eragotzi nahi zituen Elizak. Idiaquez gaz-

tearen amodio kontuan asko ziren ekintza zigorgarriak eta denetarik aşke ateratzea lortu zuen mutilak. Jauntxokeriaren indarra.

Zailago gertatu zitzaiokeen bere hutsa zuritzea andere gaztea monjetxetik ihes egiten lagundu zuen serorari. Amaigabeko gutun baten zirriborroa harra-patu zioten bere gelan eta auzi paperetan dator salatari. Doi-doia letrak elkartzen dituen pertsona baten lerroak dira. Irakurtzeko zaila bezain iluna da mezua. Izkribuaren kopia ematen dut ikerleek azter dezaten. Debako alaba zen egilea.*

Nik honela irakur nezake:

*curemesedeoriec bida(l)du cjdan cartaren
herrepustaric heliyeun ecjegina(ga)tj
bida(l)dubhotjgot curemesede oregana
daducadan ob(l)igacjoagatj
ta heginten det nergar⁵
dan guctja daquidala
herregelaen costra eginten dena
baja ectygot ecjco argatjc
curemesedeori serujceary betjco
segituac ar(r)ya conujrtjtu ljqiuiala¹⁰
daducat espera(n)cea yca(n)go dala
curemesedeorj sup(l)icacen djgot
cergatjc ecary deuan gactjgatu begit
gaquj bei ece gurie
negocjoac guera d(a)dyna daduca one¹⁵
mesedeonec guc(i)cac*

Idazkera gaurkotuan honela eman genezake: “Zure Mesede horrek bidaldu zidan kartaren erreputarik herenegun ezin eginagatik, bidalduko digot Zure Mesede horregana dadukadan obligazioagatik, ta egiten det negar dan guztia dakidala heregelaen kontra egiten dena. Baia eztigot etsiko hargatik Zure Mesede horri serbitzeari betiko. Segituak harria konbertitu likiala dadukat esperantzea izango dala. Zure Mesede horri suplikatzen digot zergatik

* Nota judicial que figura al pie de página: “Dentro de la Iglesia del Monast^o de Santa Catalina de Areycieta de la villa de Motrico a ocho de Abril de mil y quinientos nouenta y seys años doña placida de gamboa priora del dicho Monast^o en virtud de mandato que le ha sido notificado exiuio ante nosotros los comisarios nombrados por el Señor Vicario Gral. el comienço de la carta de arriua en onze renglones escrita por Ana de Urrutia monja professa del dicho Monast^o. Y en fee dello lo firmamos. Joan Ibañez. Pedro de Çalua, not.” (f. 87).

1. *cure mesedeori*. Erdarazko Vuestra Merced.

2. *heliyeun*, herenegun?

15. *guera dadina daduca ona*. Arazoa gelditzea izango litzakeela ona.

ekarri deban gaztigatu begit. Jakin bei ece gure negozioak gera dadina daduka ona mesede honek guzizak...”.

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Azcoitia 1596. C 150, n. 7. Sec.º Garro. f. 87.

J. M. SATRUSTEGUI. “Informe sobre el matrimonio de D. Pedro de Idiaquez con doña Isabel de Lobiano, en 1596”. Homenaje a J. Ignacio Tellechea Idígoras. *Boletín de estudios históricos sobre San Sebastián*. 16-17 I (1982-83).

uremese de orrec bi da dujdan cartayen herre
 ustarié sehye an egeginat, bida du setigot
 uremese de orregana da duca dan obligacioa
 etz ta egintan det nergandanguetia.
 Aquidala herregelaen contra egintendena
 Raja setigot egi argatje uremese de ori serujce
 ny setico segitua arya conuirtitu. Equi
 la da du kat esperacea ycagodala uremese
 eoz supicacendjgot cergatje ecarj de uan
 acty gatubegit gaqy beiete guri negociou
 ueradina da duca one mese de orrec gucia

XVII. MENDEA

10. TOLOSA (1619)
11. AZPEITIA (1622)
12. BILBO (16..)
13. LEITZA (1626)
14. OIARTZUN (1664)
15. URRIZOLA (16..)
16. URDANOZ (1687)

10. TOLOSA (1619)

Olazabal-dar Antonio eskribaua zen eta, dirudienez, Tolosako jauntxoetariko bat: “de los honrados y principales de Tolosa”.

Etsairik bazuen, noski. Hainbat lekukok dioenez, dirugose, bere-bere iritziekilakoa, auzi-mauzien sortzaile eta zikoitza: “hombre de estrecha condición, aborrecido por los mas de sus vecinos y a quien todos los de la Villa le tienen enemiga y odio”. Auzietako salaketa hauek ez dira beti fidagarriak izaten.

Dena den, 1619-ko irailaren 27-an zaratarik entzun zen tolosako kaleetan. Lau edo bost gizon sartu ziren gauetz Igerondoko bidetik eta, euskal kantuak abestuz, Nafarroako atetik Santa Klara eliza aldera jo zuten eta handik kale Nagusira, lekuko batek zioenez. Biharamunean bertso paperak agertu ziren Nafarroako atean —Torrachon de Navarra—, kale Nagusiko Juan M. Yurramendiren etxe aurrean, eta “Traviesas” izeneko kalean. Antonio Olazabal eta Maria Lopez de Vidaror senar-emazteen izenak iraintzeko asmoz eginak ziren.

Olazabal jaunak auzitara eraman zuen arazoa eta horregatik gorde zaizkigu bertso paperak. Inguru-herrietako zenbait apaizen susmoa zuen berak. Leaburu, Lizartza, Ibarra eta Elduayengo abadeak salatu zituen zuzenean. Bi azkenekoak berehala askatu bazituzten ere, beste bientzat bazen aitzakirik. Egilearen atzetik, Lizartzako apaiz etxera iritsi ziren. Ba omen zuen nafartarren bat erdi bertsolaria, “se preciaba de saber alguna poesia”, dio paperak. Ez dute argitasun haundirik ateratzen, eta Leaburuko erretoreari egotzen zaizkio salaketarik gogorrenak. Juan de Otazu, Leaburuko apaiza, delako Olazabal iskribauarekin haserretu omen zen Leaburun, eta elizgizonak han esandakoak agertzen omen dira bertso paperetan. Etxea miatzekoan, bestalde, erdaraz Tolosan agertutako zenbait bertso azaldu ziren paperen artean. Otazuk zioen, Tolosan ikasi zituen norbaitek emanak zirela.

Olazabal jaunaren ahaleginak hobendua zigortzeko orduan ez zuen nahi zuenik lortu. Auzia amaierarik gabe dago eta ez zen, beraz, epairik eman.

Bertso paper hauek izan ziren euskal testu zaharretan lehenengo nik argitaratuak. Ez nuen noski horrelako lanetarako zaletasunik eta izkribu zaharrak arrotz ziren niretzat. Luzaiden nengoen orduan eta neure irakasle izandako José Goñi Gaztambide historiagile ospetsuak bultzatu ninduen —edo behartu— lan honen egitera.

Ezjakina itsua bezala da eta, itsu-itsura, oso gogo txarretik hartu nuen irakurketa eta itzulpena egiteko agindua. Eskerrak damatzot gaur bultzatu ninduen maisuari, denborarekin hainbeste izkribu zaharren bidea ireki baitzidan.

I

Adarrac emaiten dira Miraballesen
Dozena milla florinen
Ceruetaric etorri da Moissen
Eguia esatera Errazquinen
Miravallesco echeorri⁵
Leen oi ceriçan Çapatari
Orañ eman dio dordo borec ycen onori
Anrreoi eraquisteco dançori
Adarrac emaiten dira eche orretan
Nori bere diruetan, arrasshetan¹⁰
Argaitic oi daviñ puñalcho paseaetan
pordoechoa duela escuetan
Mirabalesco Jaunarenean
Adarrac ematen dira gotaric eztuanean.
Gota duen orduan buru chipia oy daduca choruan¹⁵
Echecoac lari oi daro corruan.
Andaraz beteric magalac
Sendaceco Belaunac
Joan oi çarizca anrreac;
Atera oy dira andic vustiric veguiac²⁰
Consolatu oy da proffetissarequin
Escuren duela alferiz Machin
Ascotan sartu oy çaçã abbadesaquin
Andre ederroc orduan danzatu oi dira vesterequin.
Gosetez artu oi ditu andre ederrac²⁵
Arla equsiric aren begui ederrac
Enbidiosoac dira Chavirayaren veguiac
Alacoac dira aren eguinac.

II

In Dei nomine. Amen.

*Misterioc cetuc (eçtuc?) erreguen ofrendac
Ecin esan niazcaquec Miravallesco gauçac:³⁰
In habent humana misteria
Veguietan daquila Beteria*

*Y eçaneyc or edatera
Chapoequin barazcaritara
Adaroqui gosaritara³⁵
Arrassean, oaque olloquin afaritara.*

*Estu egungo aiz oen glosacen
Ançarac vaceaquic deadarr eguiten;
Salamancaco çuloan egondu inçan ycasten
Hicaragoa aiz oen egu(i)ten.⁴⁰*

*Reçata esque oy abil galdua
Gotac onestic galuo;
Educac gueldiric porrua
Eta janeguiç sagar eldua.*

*Vztec gueldiric vesterenari,⁴⁵
Celestinac esanagatic vai;
Iracurrieçac ondoa hai
Edo eguingo dec boean ai.*

Bibl.:

Arch. Catedral. Pamplona. Procesos, 1620.

J. M. SATRUSTEGUI. "Versos satíricos vascos del año 1619". *Príncipe de Viana* 78-79 (1960), pág. 137.

L. MICHELENA. *Textos arcaicos vascos* (Madrid, 1964), pp. 127-131. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*. Auñamendi (1964), "Pasquines de Tolosa". In "Arte, Lengua, Literatura", I, pág. 67.

11. AZPEITIA (1622)

Maitale erasotuen arazoa. Lortia izeneko sendagileak Errexilgo apaizaren iloba gaztea sendatzera joateko deia jaso zuen Tolosan. 1622ko garizuma

sarreran zen eta Mariana Arzallus, neskaren izena. Etxaide oneko alaba bakarra, argia eta ikuste onekoa, medikuaren aitortzari bagagozkio, elkarrekin ezkontzea erabaki zuten.

Arzallus jaunak ez zuen begi onez ikusi alabaren erabakia eta beste senargai bat begistatua zuenez harentzat, sekulako oztopo eta trabak ezarri zizkion bidean. Lortia nafartarra zen, irunshemea, eta jatorri garbiko agiriak eskatu zizkion, besteak beste, aitagarrebagaiak. Bitartean bizi txarra ematen zion alabari, zigortuz eta giltzapean atxikiz.

Ordurako, maitaleek meza bat agindu eta entzuna zuten Errexilgo elizan, eta bertako seroraren aurrean elkarrenganako ezkontza fedea baieztua.

Geroko egoera larria ikustean, Mariana aitaren etxetik ateratzea agindu zuen elizbarrutiko epaileak. Ama hila zuen anderegaiak, eta Azpeitiko komentuan sartu nahi zuen Arzallus jaunak bere alaba.

Monjetxeko burua Marianaren izeba zen eta bere alde agertzen da. Hiru gutun idatzi zizkion euskaraz senargaiaren berriak eta aitarekin izandako hitzak errepikatuz. Bere anaiari erantzun zion behin komentuan sartuz geroz bizi guzirikako gelditu beharko zukeela.

Tira-bira askoren ondoren, Iruñeko gotzaiak agindu zuen Mariana Nafarroako hiriburura eraman zezaten bertan ezkontzeko. Hala amaitu zen maiteminduen gurutzebidea.

Euskarazko hiru gutun hauetaz bestalde, neskak bere senargaiari ezkuntuan igorritako erdal gutunak ere badaude bilduman.

I

Jesus, Ma[ria], dirala guerequin, amen. çure bentura bada mendicuarequin ezcoçea ygraçria ecarri beça leen; guero gucioc ayta orri eraguingo diogu antonioc ta don martin eta or perdicacen deban erretoreac. monja da estadu andiena; nay badeçu nic eztiçuç eragocico. çuc vste deçu monjac debela contentu gucia: ae[n] artean ere bada çerbayt. çeuze çeuze ayta ory ondoena beratuco deçu, ondo esan eguiocu beti. nic yraglia dacarenean eraguingo diot. ba dacar bitartean ayta oren esanac soffri yçaçu pacienciarequin Jaungoicoaren amoreç. ezteu emen çer ybili mendiccuac. yragria datorrenean estuco degu ayta ory. badaquiçu çer esaten dan gure¹⁰ artean: lenena ba da guiçon ondradua, bigarrena odol garbia. au danean ezta beste bearic. egun osteguna. çure maria de Jesus.

II

Jesus A. dala gurequin. nic, vste deçu, lecu[a] dedala escribicecoç; argatic yceç esan nion, madalenchori eman. mesede eguin digue igaroç dotoreac ta aytac ta arebac, guciac modu onecoac. ostegunean emetic ygaroco dira tolosara. dotoreac esan dit escribi deguiçudala çuri; ala au eguiten det. çure carta rrecibidu çebala; ez nabrabendasunic yçateagatic eztebala erançun. au da, ondo pensatu, guichitan bitartecoac adicea. orayn pacienciarequin ygaro yçaçu. aurqui carçela oretatic ateraco çera. egun astelena.²⁰ çurea mari de Jesus.

III

Jesus M.^a dirala gurequin. amen. carta bidaldu niçunnean esaten niçun ayta jaun orrec çer esan cidan. emen asco igaro degu. nic esan diot çuc monja nay deçula gatzigatu didaçula. esan dit çatoçela egun baçuetan egotera. nic erançun diot baçatoç ona ez çerala esse onetatic ceure bician ateraco. au esan diodanean aserratu da; ea ynor daducan çuç bayce besteric. nic esan diot yralgria ondo probatua ecarrico debala dotoreac. au esan diodanean asi da gayzqui esaten. nic esan dio[t] eztebala dotoreac culparic; erregen alaba albaleu edoçeynec nay leuqueala. esan dit çuc deçula³⁰ beraç culpa. bayez esan diot. esan dit, pagua eman dioçu. esan diot ezatala orregati pagu gayztoric; beguitaco sua gayzto dala amodioa, ychua dala. esan dit gatziga deguiçudala nay (e)z tebala monja çeran. bera orayn serbideçaçula ta yceguiuçu; ez çaytu joco onegui deriçu. antonioc diona bada estuco da. çuc barric, euci ecynda baletor, orducoç, yralgria nay neuque. çuc ezconduta berori juango liçay(o)te. gure jaunac animaoi confridanaç probey gayzçala. aguindo serbicen, bioç osoaç eguingo det. egun ostiralea. çurea maria de Jesus.

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. C 658, n. 1, Régil 1624, Sec^o Ollo.

A. IRIGARAY. "XVII garren mendeko iru eskutitz". *Egan* (1955) 1-2, 10.or.

J. M. SATRUSTEGUI. "Tres cartas vascas del año 1622" *FLV* (1979) 31,59.or.

12. BILBO (16..)

Mateo Zabalaren mendeurrenkari Bilbon bildu ginelarik 1977.eko azaroaren 24ean, Erribera kaleko liburutegian nengoen batzarkideen zai. Denborapasa, itxura txarreko liburu zaharkildu bati bota nion eskua. Behereko

apalean zegoen 1558.eko latin-hiztegi hura *Calepino* mardul bat zen. Egurrezko azal sendoak osorik baldin bazeuden ere, jostura guzien hariak agerian zeuzkan, larrua saguek-edo janik.

Azken orrian, eskuz idatzitako olerkitxo bat aurkitu nuen, itxuraz niork ezagutzen ez zuena.

Amodio gaia izan ohi da edozein hizkuntzetan olerkarien lelo erabiliena edo arruntena behintzat, eta nolabaiteko maitemina dario Bizkaiko izkribuari. Mintzaira aldetik ez du zailtasunik sortzen eta idazkera ere aski argia da, hitzen bat edo beste salbu.

Lau kopla eta errepika dakartza. Azken hau, hain zuzen ere, Lope de Vega-k “Los ramilletes de Madrid” izeneko erdal antzerkian jasotakoaren antzekoa da:

*Zure vequi ederroc,
Ene lastaná,
Cativaturic nave
Librea ninzaná.*

Une hartan ahoz-aho zebilen leloa ote?

*Catigatu ninduçun librea ninçana
Niças eras daiçu gura doçuna.*

*Çurea ičanagas nago contentu
Alan gura dot viçi çuc gura badoçu;
Baquit orain ondo il vear dodana⁵,
Niças (eras daiçu gura doçuna)*

*Ausençia triste gogor cruela
Nolan ilgo noçu orain onela?
Despedidan indaçu lastan bat lastana,
Niças (eras daiçu gura doçuna)¹⁰*

*Egüterren ondo cure agindua
Tristeric vaia noa neure angerua;
Dolorea ta penea da ene laguna,
Niças (eras daiçu gura doçuna)*

*Laster etorri nadin guraco aldoçu¹⁵
Il vaino leenago çacusquidan çu?
Vaquiçu çurea orain gustiau nasana
Niças (eras daiçu gura doçuna).*

Bibl.:

- Azkué Bibliotekan. Ribera 6, Bilbo. *Dictionarium Ambrosii Calepini, iterum nunc supra omnes hactenus euulgatas accessiones*, etc. Basileae ex officina Hieronymi Curionis, impensis Henrichi Petri, mense Martio, anno MDLVIII. Liburu honen azken orrian dator euskal testua.
- J. M. SATRUSTEGUI. "Poesía sentimental en dialecto vizcaino (s. XVII)" FLV 28 (1978) p. 63. Aurkipenaren lehen berria.
 – "Niças en el poema vizcaino del siglo XVII" FLV 29 (1978), p. 309.
 – "Amodio leloa". *Punto y Hora de E.H.* 22-28 de junio de 1978, p. 19.
- A. IRIGOYEN. "Canción antigua de amor vizcaína" FLV 30 (1978) p. 453.
- Lelo zaharrari buruz ikus: L. MICHELENA. *Textos arcaicos vascos* (Madrid 1964), 3-1-23, p. 123.
- A. LEGARDA. *Lo 'Vizcaino' en la literatura castellana* (Sn Sn. 1953), p. 161.
- J. de URQUIJO. "Sobre unos versos en vascuence citados por Lope de Vega" RIEV (1924), p. 642.

13. LEITZA (1626)

Elizetako karguak baliotsuak ziren Berpizkunde garaian eta haserre bide gerta ohi ziren behin baino gehiagotan elizgizonen artean. Horrela da, adibidez, Leitzako kasua. Valcarlos abizeneko apaiz bat izendatu zuen Iruñeko gotzaiak 1626an Leitzako erretor, baina bazen beste norbait karguaren atzetik zebilena. Erroman bere lanpostua eduki arren. Leitzan ezarriak zituen begiak Martin Alduncinek eta bidegabekotzat salatu zuen gotzaiaren izendapena, parrokia horren babesleei zegokiola esanez.

Botua emateko garaian, beste Alduncin bat zen herriko alkatea eta ez zitzaiokeen oso zaila gertatu, Chopillo alkateordea, Zumarrista zapataina, Arraras burniola-gizona eta Martixa zurgina bereganatzea. Denbora haietako ohituretan, herriko artesauen eskuetan zegoen Leitzako abadea izendatzeko ahalmena, eta ez gotzaiaren aginte edo manuan.

Ez genuen euskal izkribu zaharren zerrendan gertakizun xume honen berri ematerik izango arazoa horretan bakarrik gelditu balitz; Baina isun gogorra egotzi zioten garaileek Valcarlos jaunari eta, ordaindu ezinik edo legezizonen eskuetatik izkutatzeke, ihes egin zuen norabait.

Hori dela bide, aurkiketako auzi-agiria zabaldu zuen epaileak apaizaren aurka. Erdaraz idatzitako testua euskarara itzuli zuten mezako ofertorioan herritarrei jakinerazteko. Itzulpenaren bi kopia gorde dira auzipaperen bilduman.

Izkribua ez da, noski, baserritarrek erraz ulertzekoa. Auzi-gaiak badu bere hizkuntza berezia eta itzulpena mintzaira horretan oinarritzen delarik, ezin argia izan. Baina izkribuak berez, euskararen eredugarri ez izan arren, urteen zama berekin du. Nola nahi ere, erdal testua oharretan doa ikerleen lagungarri.*

Leitza ezaguna da Euskal Herrian. Gulinako forua eman zion Santxo Jakintsuak 1192an. Giputzen muga-arazotan galdu zen agiria 1445ean eta urte gutxiren buruan eman zitzaion 1462ko forua. XIX.mendearen hasieran 110 etxe eta 1459 biztanle zituen.

I

“Obec dira Letra Aptc^o vaçuec, sacra Rota Aguinduac, çeñac vaitira sententia vat atra içan dudena Don Martin de valcarlosen contra, eta bachiller Don Martin de Aldunçinen fauorez. Ceñec aguinçen baitu edequi daquiola possessioa abbadia eliza onetacoa D. Martin de Valcarlosy, eta eman daquiola bachiller D. Martin de Aldunzini, Vere amarren, eta vezte gauza guztiaquin, excomecaçioaren penaren azpian, eta verreun ducaten penan edequizen, eta erreboçazen dioe D. Martin de Valcarlosen fauorean atreazen sententia lendabiçico ynstançian.— Letra Apostolico oec presentatu yzandu dira officiale Jaunaren aurrean Juez Aptc^o negocio onetaco, çeñec aguinçen baytu guardadila emen essaten duen guztia eta condezen du costu guztietan D. Martin de Valcarlos, eta eztiázola eragozi niorc.— eta erresebázen duela¹⁰ verezat, edo vere superiorearen (zat) onen Absoluçioa.— eta ala adbertiçen, eta asseguracen dut, dagola arturic ongui possessioa bachiller D. Martin de Aldunzinen partes. eguiten dut publicacio au, eta iminico ditut elizaco atarietan Letra hoec, Guztiei notorio den.”

* “Estas son vnas Letras apostolicas, emanadas de la sacra Rota de Su Santidad en que vna sententia de ella se manda quitar en la possession de la Abbadia desta yglesia y lugar a Don Martin de balcarlos que la obtuvo por sententia en primera instancia dada por el señor probisor y Vicario General deste obispado y se manda poner en ella a Don Martin de Alduncin presbitero como a presentado por la mayor parte de los patronos y que se le acuda, o, a su procurador con todos sus frutos diezmos y otras cossas a ella pertençientes y le condena en costas al dicho Don Martin de balcarlos y haviendose presentado ante el Sr. Oficial principal deste obispado las dichas Letras apostolicas Juez delegado apostolico las manda poner en execucion conforme a su thenor sopena de excomunion y de ducientos ducados ynbiendo a cualesquiera personas a que no lo impidan y Reserba en si, o, en su Superior solamente la absolucion de ella. Ago esta publicacion y las afixare en las puertas principales desta Yglesia para que a todos conste de ello aduerto que le esta dada asi quenta del dicho D. Martin de Alduncin legitimamente la dicha possession.”

II

“Obec dirade Letra Apostolico baçuec executorialeac, probeituac Matheo Burato jaunac jueza aitasantuac señalatua sacra Rotaco, erri onetaco Abbadico auçiagatic çeña baitarame bachiller D. Martin de Alduncin eta D. Martin de Valcarlosen artean. Aguincen du Juezac pagadizala D. Martin de Balcarloshec bachiller Aldunçiny, edo haren procuradoreari amaborz egunen barrenean: borzetan eun, eta berroquey²⁰ eta amalau erreal alde batera, eta verroquei eta amar ezcutu, amarna erralecoric, eta gueyago sey ezcutu moneda veretic. gustiac causa, eta razoe expresaçen Diranengatic Letretan eta gueyago pagatu bear ditu justamente çordituen costuac; aperçebimenturequin pagazen ezpaditu termionetan, prozeditucodela aren persona presso arzera, eta aren aziendac, eta rentac consignazera eta secrestazera, eta abec saldu, eta pagu eguitera. Recrezicen dirade derecho eta costu guztiequin. Eta zerren eguin ditudan diligencia necessarioac yruñean eta emen notificazeco Letraoec verepersonan, eta ezin aurqitu dudan, eguitendut publicaçio au eliza onetan, eta yminicodut Letrac eta trasladua eliza onen ateari erasidich guztien notorio den, eta datorren abbadearen notiçiarara, eta gueyago aperçebiçen dut emanen diodala trasladu fede eguiten³⁰ duena, escazen duten personaci, emateco noticia Abbadeari.”

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Leiza 1626, C 490, n. 2. Sec^o Mazo.

J. M. SATRUSTEGUI. “Contribución al fondo de textos antiguos vascos”. AS JU XII-XIII (1978-1979), p. 13.

14. OIARTZUN (1664)

Lapurdikoko mutil gazte bat Ipar aldeko bi maitale sutsuren gandik ihes, Oiartzuna iritsi zen. Bere amodiotako Domenja Txurio azkaindarrarekin ezkontzera abiatu zen, baina beste maitale baten salaketak trabatu zuen aldareko bidea preguetan zeudela.

Ez zen lehen aldia Juanes-haurrari honelako gauza bat gertatzen zitzaiona. Kanboko *Elizaintzineko* semea Donibane Lohitzunen egona zen harategi batean morroi, eta etxeko alaba Mariatoaz gustaturik, haur bat izana zuen berarengandik. Mariatorekin ezkontzeko eliz-preguak iragarri bezain laster, Domenja Txurio, bigarren aldiko andregai, izan zen ezkontza hura eragotzi zuena.

Tirabira horretan galgaturik dagoelarik mutilaren bihotza, Donibane Lohitzuneko Mariatoa maiteminduk bereganako amodioaren lehentasuna agertu nahi du auzian, eta Juanes-haurraren gutun batzu aurkezten ditu. Lekukotasun garrantzitsua da, noski, gutun hauena, baina ez dira ahulagoak beste alderdiko arrazoiak eta horrela azken epairik gabe gelditu zen arazoa; edo epaia eman bazen ez da auziko agerpenen bilduman esaten.

Lau dira auzi honetako euskal testuak.

I

Lehen izkribua laburra da eta senargaiak Donibane Lohitzuneko Mariatoa emaztegaiari emandako ezkontza fedea birresten du.

Maiyazaren 13 garen egunean eta 1662.garren vrtean donibaneco erriyan eman yzan diot Promes nore fedeá esconzeczozat Maria de Etcheuerri ri eta hala emaste presturen ainziñean eta nago hartan betiere fin. Jean de Perusquy (f.42)³

II

Donibane Lohitzuneko maitaleari mutilak egindako gutunaren kopia. Badoa eta helbide berria bialduko diola hitzematzen dio.

Ene espos maitea otoi adineçaçu bizgutis çeren ezpaitut denboraric nahibeçala çuri neure sentimenduyac erateco. Mariatoa ene maitea biozes minçonaçaizu eta çure⁵ baitan dudan esparaņas otoi eguiten deraçut hardeçaçun haxeguin otoi çuc harçen baduçu nic hartuco dut hori halada segur. otoi bada, gastiçatuco derauçut non bainiz handic neure berri. çuc ere bitartean harçazu aseguin; çure senarra naiz. Jean de Perusquy. (f.44)

III

Hirugarren testua da luzeena eta Mariatoa anderegaiari ez baino, beronen ahizpa bati zuzendu zion. Bilbora joateko xedea agertzen du, gero bidean gelditu bazen ere. Zalantzarik gabeko espos-fedea aitortzen du lerro hauetan.

Domeins Andrea.¹⁰

Yaquinzazu eta segurazaitte erraten derauzudala biboz ossoas neure sentimenducac nola neure yende gustiac ditudan fidel neure gogara; hartaracozat nitan

denaz guerostic seguraçaitte çuc nahi duzuna nahidudala niq, es berçeriq, seguraçençaitut. yaquin zazu nola nizen peril handitan çuqdaquizon beçala, bainan consideraturiq hobedudala seguratu exaietariq eta yende gaisto horietariq hala lehen gastiगतunerauçun bezela noba gencoac nahibadu bilbaura herrico mercatari batequin; ceren yqustenduçu lapurdin es bassanauarren eçin egonez Prebostari emanic esqudaudela ene Partidac. hartaracazat aitaren grazia ere nahiz ceren aitac promes eta seguridada baiteraut çurequin bat yzateco, halatan bada, çuq ere asayatuco çare eguinahalaren eguitera. badiquit damu hartuco duçula çeren çurequin minzatu gabe yoateas,²⁰ bainan yencoac badaqui borondatea, esnuyen denborariq. Presentean baldin badut niboroni egonen naiz abertituya. Segur otoy betiere nago çure berri onnen beguira. daquçuña naiz ni, çuro manuco nais eta yzanen erebai hala sabelean dudano estabala otoi gorainçi çure aizpa eta ene emaste egiyazco dudan nari, ene espos maiteari. biossean min dudala vsten dudala adios erangabe beguiyen bista. halaber gomendacen derauçut Mariatoa çeiña baita ene emastea yçanen ere bai secular. otoi arapostuya arrapet estutut lequriq nahi bezala gastiगतeco neure berriyac beiñan comoritate gustias yaquinduru eguinen çaitut; çuc ere halaber eginen nauçu. otoi barca diezadaçu estut denboraric nahi beçala egiteco. Gorainci ene espos Mariatoari secular yçanen dudanari erraten dut eguia nola nahi baitut yeincoagana çure çerbiçariya.³⁰ Jean de Perusquy. Domeings andrea lehen comoritatean gastiगतuco derauçut nore beri eta cere behar niçen gomendaçen niçazu otoi eta... (f.45)

IV

Eskaintzarik hoberenak Mariatoa Etxeberri lohitzundarrarentzat, eta azkain-darrarekin gero eta lotuago bihotza. Hau da auzi honetako arazo nagusia eta epaileek ez zuten erabakirik berehalakoan hartu.

Maria andrea eta Ene maitea:

Yaquin eçaçu nola naizen basanabarren eta nola naizen ossasunarequin yenquoari esquer eta nola dessirazen çurea ere halaber duçun. ene maitea yaquin çaçü nola naizen onsa alde bates beiñan es ordean berceas cerdut falta çure berric ezin yaquiñez dut falta eta naiz triste bada nere falta da çurea baisziq nola esnaizen alegeracen nola tristeçia huntariq aterazen, ala galdu duzun eneganaco esparança, alacer erranen dut otoi bada çure baitan dudan esparanças. otoi eguiten derauçut otoi nauzun gaquinduru eginen ezertan zaren eta çer quraia duçu otoi çuru berriac gastia diezadaçu otoi faltatugabe esta gastia dieçadaçu ea cer⁴⁰ nahicinuqueyen ea cer desira cenuquyen ene baitan ortic eta yaquinduru eguiten nazu otoi esta estut faltatucó Prometacen derauçut çuq nahi duçun gustiaren eguitera. nago betiere ni orai eta sequlan

egonen ere bai byci niçeno çure alderat fin sequlan. naiz çure ze(r)biçaria eta fidela eta zure senarra. Jean de perusquy. (f.48)

Bibl.:

- Arch. Dioc. Pamplona. Causa matrimonial pendiente. Oyarzun 1666, C 1071, n. 27. Sec.º Oteiza.
- J. M. SATRUSTEGI. "Documentos vascos del año 1664 en un proceso matrimonial de Oyarzun". FLV 33 (1979), p. 529.

15. URRIZOLA (16..)

Urte asko du olerki honek nere eskuetan dela. Ez naiz segur nork eman zidan, eta zalantzak ditudanez ez dut izenik emango.

Iruñean 1609.ean eraturako Sariketan honelako gaiak erabili ziren. Ansa-ren izena nunbait agertzen ote den begira ibilia naiz, baina ez dut ezer aurkitu. Ezin dugu esan, beraz, lehiaketa harekin zerikusirik baduen.

Idazkerari begiraturaz, XVII.mendearen bigarren erdialdekoa iduri du zirri-borroak. Papera tolesturik egon da eta zenbait lerro erdi galduak aurkitzen dira. Orijinala neuk daukat. Urrizolan aurkitu nuen eta latinezko "Sacrís Solemniis" kantuaeren doinuarekin abesten da.

*Norc siñesta lezaque
Ezpaliz fedea
Gaurco misterio
Maravilles betea;
Jaune Zu izanic⁵
Guzion Javia
Zaude orrela vmillaturic.*

*Ceru andietan
Cabitu eziñic
Ostie batean¹⁰
Zaude gaur jarriric,
Acidenten azpien
Ongui estaliric
Aldare sanduorretan.*

*Marabille ortara¹⁵
Zerc ecarri zaitu?*

Zerc Jaune ortara
 Obligatu zaitu?
 Ay nere semea,
 Esaten didazu²⁰
 Dizuden Amorioa.

Jaquiñiquen laster
 Ilbear nuela
 Ta zuen ertetic
 Juan biar nuela²⁵
 Asmatu yzen nuen
 Jarzea onela
 Zuequin beti egotera.

O cer cuidadao
 Baine aiñ andie³⁰
 O! amorioa
 Abrasagarrie,
 Bioceco suen
 Aaiñ erraz jequie
 Jesus choil maitagarrie.³⁵

Ogueyte amiru urte
 Munduen pasaturic
 Asco pena tristes
 Izardis beteric,
 Ainbeste azote⁴⁰
 Aranzas josiric,
 Juruzean ilzen gure gatic.

Bada orrengatic
 Ala nai izandu
 Zure onagatic⁴⁵
 Obrabat eguin du;
 Jaquinsu izanic
 Verac pensatudu
 Gurequin nola gelditu.

Au bai pasioa⁵⁰
 Dolores vetea
 Baiñe cariñoa
 Gañiquen gauia;
 Zure oficioa

*Da ongui eguitia*⁵⁵
Jesus gure amantia.

Iru personata
Jangoico bacarbat
Juc Jaune Verorri
*Escacendiogu*⁶⁰
Bsite gaicela (sic)
Guc amatu nola
Erredentore gurea.

Eta guie gacela
*Dagon lecure*⁶⁵
Bere bide zucen
Argui arretatic
Eternidadean
Gozatu dezagun
(Gloria eta ceru eternoan).

Juan Martin de Ansa

Bibl.:

J. M. SATRUSTEGI "Hemeretzigarren mendeko kateximak". EGAN 1-6 (1966) 67.or.

16. URDANOZ (1687)

Jauntxoan ohorea ez zen makala izaten bazterretan. Elizako aulkietan jarleku bereziak eta begiramendu apartak lortu zituzten garai batean. Hori dela-eta istilurik ez zen faltatzen herrietan.

Urdanozko Jauregian Goñi-tar ospetsua zen nagusi 1687-an, eta Graziosa Larrainzar zeritzaion bere emazteari. Bazuten jarraulki berezia elizan eta herriko gizonen baino lehen ematen zion "pastekum" mezakoan apaizak. Era berean, emakumeetan lehena zen beti Jauregiko etxeanderea.

Herriko abadeak ez zuen begi onez ikusten amari zegokion lehentasuna alabei ere ematea eta, Garatabidea sakristauari agindu zion alabenganako begiramendua moztea. Gizona ez zen ausartu eta lanpostua galdu zuen elizan. Zortzi urteko mutiko koskor bat bialdu zuen, gauzak nola egin behar zituen eskolaturik. Jauregiko etxeandeari eskaini zion lehenik "santu txikiarekin" pakea eta, alabak gerorako utzirik, herriko beste emakumei ematen jarraitu zuen.

Graziosa andereak ur bedeinkatu-ontziaren aldera bota zuen zaplastakoz mutikoa eta zarata sortu zen elizan mutikoaren negarrekin batera*.

Apaizak, orduan, oharren bat egin zuen aldarean zegoen tokitik. Berta-koak ez datoz bat apaizaren esana errepikatzerakoan, eta iritzien zerrenda hau agertzen da:

Escu libertatua. (f.16)

*Eliza Sandu ontan escu egosten duenac
Jaincoac valemoque castigu.* (f.18 v^o)

*Jangoico onipotentec daqui castigazen
escu libertatuac lecu ontan.* (f.24 v^o)

*zaute isilic, esta au lecu jarduquiceco,⁵
castiguac bearbadire campoan beardire.* (f.28 v^o)

*esta au puesto orlaco gauzac eguiteco
eta escu libertatuac
badaqui Jangoicoac castigacen.* (f.30 v^o)

*esta au lecu jarduquicecoa¹⁰
eta gure Jangoicoac badauzqui castiguac
escu libertatuen
vere eche sanduen castigaceco.* (f.35)

*lecu ontan escu libertatuac
vadaquizqui Jaun Diuinoac castigacen.* (f.37 v^o)¹⁵

*desbergonzatua
acordatu veardun egungo egunas.* (f.39)

*vego isilic esta au puesto jarduquiceco,
desbergonçatu den vezala jarduquizen du.* (f.42)

*çaute ysilican eci escu libertatuen daco²⁰
Jaingoicoac badauzqui castigoac.* (f.55 v^o)

*escu libertatu oyeq
vadaqui Jangoico Onipotentec, castigacen.* (f.56 v^o)

Buru hainbat aburu. Baina, horretan datza gertakizun xume honen aberastasuna. Goñi-ibarreko euskalki desagertuaren lekuko bizia, herrikoia, agertzen du.

Bailara osoan euskara mintzatzen zen eta inguruko lurraldeetan ere bai. Bidaurretako nekazari bat zegoen meza entzuten eta erdararik ez zuela ulertzen aitortzen du.

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Urdanoz 1687, C 1179, n. 16. Secº Lanz.

J. M. SATRUSTEGI. "Nueva contribución al fondo de textos antiguos vascos" AS JU XV (1981), p. 27.

Voce sinestalezague
Erpaliz Tedeari
Gauzco misterio
Marabiller Bebea
Taume Zu Txanuz
guzion Tavia
Zaude orre la Vmilla turuc. 1.

Ceru Andetan
Cabou Eriñic
ostie Bateari
Zaude opua Tauruc

Acident ten arpien
Onqui, estaluc

Alvare sanduoretan. 2.

XVII. MENDEA

17. LARRASOAÑA (17..)
18. LASARTE (1716)
19. MURUZABAL (17..)
20. MURUZABAL (1743)
21. ETXALAR (1749)
22. ORRIO (1750)
23. MURUZABAL (1751)
24. ORORBIA (1758)
25. DONOSTIA (1761)
26. MURUZABAL (1761)
27. ETXARRI (Larraun, 1762)
28. BERASTEGI (1763)
29. INTZA (1772)
30. SARA (1773)
31. HONDARRIBIA (1778)
32. LANGARIKA (17..)
33. ZARAITZU (1780)
34. DONIBANE LOHIZUNE (1788)
35. ARRUITZ (17..)

17. LARRASOÑA (17..)

Nafarroako Esteribarren, Iruñetik 15 kilometrora dago Larrasoña. Zubiri eta Erro-ren erdian. Aipatua izana da bere eritetxea Santiago bidean. Erdi aroan bazen han San Agustin izeneko monastegi bat eta bertan eskolatu zuen Santxo Peñalengoak, 1072an, bere alaba Urraka.

Arga ibaiaren eskubi aldean, 32 etxe baizik ez zeuzkan zuti 153 biztanleentzat, XIX mendearen hasieran; eta beste hamahiru erorita. Frantziako Iraultzaren ondorioak. Gaur-egun 187 arima ditu.

Euskarari buruz, 1904an egin zen elizbarrutiko herrien zerrendan euskaldun egertzen da. Duela urte gutxi arte mintzatu da inguru horretan euskara.

Prediku hau Muruzabalgo izkribu bilduman agertu da. Ez da egilearen izenik azaltzen. San Nikolasetan, herriko festa nagusian emandako hitzaldia da. Sandu honen berri gutxi badugu ere, munduan zehar bada sineste, ohitura eta esames ugari bere inguruan. Tokian tokiko aipamen bereziak egin obi dira laugarren mendeko gotzai honetaz bazter guzietan. Larrasoñan ere bazen, noski, sineste zahar horietakoren bat predikariak hitz hauetan laburtzen duena: “bada egun da eguna ceñetam continuacen da gure memoriam San Nicolasen festari munduan eman cequion lendabico paisua”.

Homo quidam peregre proficiscens

vocavit servos suos et tradidit illis bona sua.

Mathei. 25.

Dichososo Erria, dichosoa diot dela Larrasoña. dichosoa? bai, baita egun egumbat, ceñetam mundu guciac eman baidizazquiquezu aimbat dicharem ordu onac; bada egun da eguna ceñetan continuacen da gure memoriam San Nicolasem festari munduan eman cequion lendabico paisua; egun da eguna, ceñetan arguitasun ederrenac equarri baitigu mundura dembora dichosoena; eta finalmente egun da eguna ceñetan gustos beteric correspondacen baitiote Larrasoñaquet agradecimentuarequi. Orrengatic guciac alegraditezque egungo egunean. Alegra daitezque egungo eguneam aurrac alegra daitez-

que gasteac, alegradaitezque virginidadia guardacen dutenac, alegre¹⁰ daitezque zarrac, eta finalmente igon guelditube chiqui eta andiac egungo egunean negociyos betedaitezque. Aybezate nola erratenduen San Pedro Damianoc: *letentur pueri, iubenēs gratulentur honorent(u)r Virgines, senes exilarentur et omnis etas personanter aludat* alegre bedi bada mundu gucia allegatu vaice egun ura, ceñetan planeta lucituenaren paisuaren contra, icusten dire vere raiuen su dichosoac bada egun veneracen ditu admiracioerequi munduac labraturic San Nicolasen debotoendaco (labraturic) gloriaco coronac (icusten duelaric claroqui ceruco videa, esiric lurretic allegatu arteo Trintate Jaun poderosoaren Jaureguiraño) alaba dizagun bada gucie erraten du San Pedro Damianoc San²⁰ Nicolas Glorioso, bada guciec dugu obligacio alabaceco; ala erratendigu San Pedro Damianoc *unusquique enim haber materiam gaudiorum ut laudens pueri puerum (..) iubenēs iubenem liberantem, virgines virginum infamiam redimentem, senes senis inopeam miserantem et virgines senes cum iunioribus, laudent nomem Domini huius.*

Ezta San Nicolasen elogio admiracen dudanic eta ain guti gloria estrañacen dudanic: cergatic egungo eguna da egum bat cenetam zaticen delaric esphira celestiala, ustenda veneracera Jesus gure Redemtorearen elizaren ceruam goico Apez Andia, Christioen consejazale³⁰ fiela, gobernu espiritualaren Maistruem maistrua, Vervo divinoarem dispoicioarem Prefectoa, Trintate Jaun Poderosoarem oraculoa; Elizarem Espectaculo gozoa; gentilidadearem destrui-zalea, eta Zeru eta lurrarem erederu universalala: egum veneracen da Eliza militanteam, (Apostoen firmamentua) Zeruco Jauregico Maistrua, confirmacen duena dudas veteric dagona, gorazenduena eroriric arquicendena, eta finalmente conservacen dena Jangoicoarem servizu sanduam firme ongui vicidena; egun veneracenda penitencia eguiten dutenem egemplúa, vecatariem adisquide eguinzalea, Jesus gure redentorearequi vici derem muralla eta finalmente digno dena gucis gucis alabatua izateco zeruan eta lurream. Au guciau da San⁴⁰ Nicolas gure Patronoa.

Goacem esplicatus. Presente daucagu (fielac) egun dichoso ura, ceñetan Eliza guciac consagracen dizquio cultu obligacioscoavec San Nicolas gure Patronari, ceñen doctina hizanduce guretaco ceruco arguitasun maravilloso batem raiu bat, ceñec emantendigularic ezaucera munduco Redentorea, causatuzue gure viocetan San Pablaren vaitan oñastura milagroso arc causatu zuen efectu Maravilloso ura: *subito circum fulsit eum lux ce celo.*

Eztadiela gloriatu España gloria andi ayes, ceñec eguiten dutelaric dichoso munduco estimacioetam, eztire cabicem miarem iz edo⁵⁰ espresionetam, erratendu Claudianoc: *quid dignum memorare tuis Hispania terris mens humana valet* ez vere animale generosidadeas, campoem emateas vere metalarem

preciosidadeas, eta finalmente aimbat Principe Andirem piedadeas, *dives equis, frugum facilis, pretiosa metalis* cergatic nola guizon ura vaice ain soberanoa, naizue iduritu gauza gucietan dibinoa; celarican guizona ematen zuenean eta Jauna escacen zuenean, orzicenzuelaric Magestadea, eguiten zuen ondasuna-requi idurituvearzuenean lucituric guelditu vear zuela, eta esplicacen celaric Magestuosoa talentuac cobraeco desoarequi, iduricenzuenean ocultatucenzuela Magestadea.⁶⁰

Modu Prodigiosoau bada practicatu zue San Nicolas gloriosoac eta icus dezatem claro ai bezazquite bi sucesso prodigioso. Jaquindu zue San Nicolasec iru nescacha castidadea guardazem zutenec peligrzentutela bere honrram conveniencia faltas eta bereala remediatu zue necesidade ain andi ura (parazenzuelaricam) egosten zuelaricam bere capam dirua aien dotearem daco baña eguinzue ocultazem zelaricam gure sandua egecutatu baizue gauas obra prodigiosa gura. Berze ocasio bateam tratazenzelaricam egiteco miraco obispoa zein baize bere erria bera goanze obispoem congregatoria mitraraco ofrezizem zem bezala: (con que) bai bada claro dago San Nicolasec nain izandu zuela iduritu obispo eta⁷⁰ princepa zemeam guizona; eta nai izanduela iduritu guizona bilatu izanduzeneam obispo eta principetaco eguia da iduritubearbaizue San Nicolasec guizona guizona ezeneam, eta izandu bea baizue gueiago idurizem ezuzeneam.

Modu ontam bizi izanduzue San Nicolas gloriosoa mundu ontam soberanoa bezala eta entendazenzituelaric discretoac bezala munduaren gezur fabulosoac ala tratazue apartazem zituelaric bere gama munduarem onrra eta gustoac baita precisso ustea onem ondasunac llorearem erdechizeco.

Uzizeitue christo gure jaunarem discipuloec christo gure jaunarem⁸⁰ izari obedienteac bezala erreteac eta erraten digu testuac zeucatem guzia uzitutela apostoloec: *reliquimus omnia*, guzia iduquizendu oñem azpian, despreziazen duenac erretebat, bada errete guezurti bazuetara dago reducituric fortunaric andiena. Eztu ezaucen fortunarem Reynua verze vasalloric vaicicam nobleza, fama eta ondasunac; ondasun evec guciac dire errete engañazale vazuc cautibazen baytituzte veren enganuequi vorondateac idalguaren erretean eroricen dire gende andiac, abrastasunarenean avariciosoac, eta fama edo estimacioareneam, eroac, orla estu dudaric idalguia, fama eta ondasunac direla errete enganazale vazuc, cautibacem baitire guizon guciac.⁹⁰

Hucicitue errete guezurti evec San Nicolasec, hucivaicitue nobleza edo idalguiaondasunac eta onrra: andia izanduzue vere nobleza, jaiovaice Loriaco gende estimatuenetatic . Vere fama allegatuze ocupacera aimbat templo, nola meregitu vaizue vere anditasunac oraculo, vere ondasunac izanduzue choil

andiac, baña despreciatu citue nobleza fama eta ondasunac, ezautubaizue guciac cirela guezurtiac.

Talentuen amplicacio estrordinario bat paracenda egun veguien aurean affectu humanoetan; guizon batec ederqui ereparticen ditu vere mutileri vere ondasunac. Lendabicoari ematen dizquio borz porcione, vigarrenari bi, eta irugarrenari bat; borz talentu artucituena¹⁰⁰ salbacen da. Artucituena bi logracenda, eta bat artu zuena condenacen da, lendabicoa bieci empleatu vaicituzte desinteresatuec vezala talentuac; bana irugarrenac guardatuzue aimbat, eci eguin vaizue lurreco negositari desenganatu bat *abscondit talentum in terra* eta guardacen dituenac talentuac condenacenda, erreparticendituen salbacenda, baita ez galceco vedia erreparticea.

Isurizue San Nicolasec idalgoen talentua gueyago estimatuvaizue¹¹⁰ humilequi contacea eci ez idalgoen patioac paseacea, despreciatucitue vere famaren talentuac, veti beguiratuvaizue fortunarem favore falta dadequena vezala; finalmente hisuricitue vere ondasunem talentuac veguiracen cituelaric aficio-nerequi munduac, hizandu vaizue escu gueyago emateco eci ez vesu erdichiceco.

Ordua da ya descubridezagun despreciace modu au arguitasun eder baten arguiarequi. Igance Moises Sinay deycenden mendibaten goienara, eta chauchice aimbat arguitasunequi vere aurpeguian, eci idurutubaizue evasi cizquila ilarguiari vere raiuac; *erat lunata facies moise*. Ilargui ura bera icusizue San Juanec Andre batem oñen¹²⁰ azpian, *et luna sub pedibus eius*, gauza au idurituquequo ceruco prodigio andi bat *signum magnum aparuit in celo*, bada nola ezue iduricen Moysesec milagro ain andia, cergatic cirelarican bazuc arguitasunac, choil apartatuac cire escuac. Chauchicenzue Moysesec ilarguia, ceucalaricam corona ederbat vezala: San Juanec icusizuen Andreac ceuca ilarguia oñen azpian, ala nola valiza ausa, *sub pedibus eius* da ilarguia ondasunen ispilu claro bat baita inconstancia guciem representacio iduritu bat; eta nola andreac despreciacembaizue aimbat, idurituzue portento estrordinario bat, baita virtute omnipotentarem milagro prodigioso bat, arquicea avaricia humano bat¹³⁰ ain desinteresatua eci despreciacenbaititu ondasunac ausa direm vezala.

Bibl.:

Muruzabalgo bilduma (JMS).

Argitaragabea. 215 x 155 mm. (lau orrialde).

18. LASARTE (1716)

Lasarteko Juan Etxeberría eta María Asentzio, bere emazteak, auzitegira eramán zuten 1716an herriko abadea. Izan ere, urte horretako pazko biharamunean aitortzako sakramenturik gabe bialdu zuen Etxeberría hori elizatik apaizak. Brijida santuaren monjetxean konfesatu eta bere parrokian pazkoak egin nahi izan zituen, baina ukatu egin zion komunioa ere herriko apaizak. Iraindua senditu zen gizona eta bere izen ona zaintzearren jo zuen epailearengana.

Beste tirabirarik ere bazen bien artean, baina ia larogei urteko elizgizonaren aitzakia, oraikoan, herrian zabalduetako bertso trakets batzurená izan zen. Sermoi batean aditzera eman zuenez, familia zintzo eta paketsu baten aurka gezurrez ateratako esamesek minduta zeukaten eta edozein gauza egiteko gertu, ahotan zebilen gizona. Etxeberría zen, bere ustez, bertsoen egilea eta pakeak egitea eskatzen zion apaizak.

Norbaiten izena kopletan agertzea gauza beldurgarria zen euskaldunen-tzat. “Bertsoak paratzea” bizi guzírako itzala pertsona bati leporatzea izan ohi zen askotan eta hortik datorkio arazoari bere garrantzia.

Lasarteko bertsoak ahoz-aho kaleratu ziren lehenik. Donostiara esnearekin egunero joaten ziren neska gazteen taldean abestu zituen Etxeberríaren neskameak.

Pedro Aguado apezpikuaren heriotzaren ondoren (1713-1716), hutsik zegoen Iruñeko gotzai-aulkia une hartan. Auzian agertzen diren lekuko gehienen ustez, Etxeberría zen bertsoen egilea. Juan Martín Gorostiaga apaizaren jokabidea, hala ere, ez zuen ontzat eman epaileak eta bere etxean atxilotu zuten, parrokian meza ematera joateko baimenik ere gabe. Apaiz eta erretor zenez, bere eginkizunak ongi betetzea agintzen zaio sakramenturik inori ukatu gabe eta, azkenekoz lau dukat ordaindu behar izan zituen auzi-gastuen sari.

“Santo Oficio” delakoaren ordezkaria izateak ez zion asko baliatu Lasarteko erretor zaharrari.

Hauek dira kaleratutako bertsoak:

*Oraziobatt esango degu Credoá beçain eguia
mundu gusia(c) Ycasidu Juanes gure berria.*

*Andre attorran Sarttuasaude Juanes Maria Latasa
Yraquitean egosi dittusu ogueitabi mattasa.*

égosteorí ézer ézanda Jonay sinduan Arrian⁵
guison gusien desonrragarri asco Serade errian.
Zuri Andreac ézatten disu nere J(o)anes Leorra
Saldiac maysaq Jandiuscutta Arren dacargun beorra.
Sure abereac nondiqbaytue Otea Bastimentua
Santtanttonetan Ysandudesu ayesas Ecarmentua.¹⁰
esquadrian Ypinisinduan Yruol zaspi besoan
Plomoan ongui asentattuta Erresisuen ausoan.
experansaric asco daducatt, Zeruco Jaun altua
Andre Anttoniac Emango digu Otajoseco Lecua.
Yresatt Trosac éguitecosatt Ecarridiat Carisa¹⁵
Beti sualdian orraza dirudiala Marisa.
Errionettan Bisininzan Bacarriq ongui ninsala
Sori madaricagaistoan neresatt Jayo Ynzala.
Daga Espataq eraguin ditut Armero baten echean²⁰
Agustinacho Ybillico nais Surequin nere gaisean.
Agustinacho goasemasu Loyola Aldera Yguesi.
Bay espaligu mundu gusiaq gure verria Ycasi.
Ermitachoan Jaribasinade chopin erdia jocasen
Eziran guisonaq Jarrico Orazioaq ezetten.²⁵
Jhs Joanes obero noa miña sentisen det Buruan
Medizina bat Arren Yndasu nere bigarren Leyoan.
Berealasen eranzun sion non ote da mesorquillea
nere cucharen Cuchatelan maneabidi Arguia.
Cana battean Jaso situan bere chuparen besoaq³⁰
Sin duda Uste esuan bayan Sentitusuan ausoaq.
Medizinori eman etta Lendabisico berbea
Ay Sen galanqui emandidasun Juanes nere Jabea.
Orazio au ecarridue Zeruan diran Yzarraq
Joanes Leorraq atteraseco tiraca bere bisarraq.³⁵
Plaza batean esangodittutt egundañooco gusiaq
estaquienac Ycasi biza Ysangodira eguitaq.
Yresatt Trosac éguitecosatt Ecarridiat Carisa¹⁵
Beti sualdian orraza dirudiala Marisa.

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Lasarte 1716, C 1420, n. 20.

J. M. SATRUSTEGUI. "Lasarteko bertso paper zahar bat (1716)". IKER-2 (1983) 571.or.

19. MURUZABAL (17..)

Ilzarbe bailaran Iruñetik 15 kilometrora dago Muruzabal izeneko herria Nafarroan. Obanos eta Uterga-ren artean. Eunate ermita erromaniko oso ezaguna dauka bere lurraldean. Iruñetik Lizarrara doan Santiagoko bidea bertatik doa.

Izkribu hauen denborako herriari bagagozkio, XIX.mendearen hasieran 54 etxe zeuzkan 274 biztanlerekin.

Lurralde honetan oso berandu arte iraun zuen euskarak. Nere aitona 1881ean etorri zen mundura eta gazte denborako lanbideetatik ongi ezagutzen baitzuen Ilzarbe alde hori, garestarren esaera zorrotzak kondatzen zizkigun hango mintzaira berezian. Jakina da, bestalde, mende honetan itzaliak direla Obanosko azken agure euskaldunak.

*Muruzabalgo euskaldunen berririk ez badugu ere, euskal izkribuen bilduma jakingarri bat aurkitu dugu bertan. Pedro Izu adiskideak eman zidan eskura. XVIII eta XIX. mendeko elizagaiak dira eta erdiak baino gehiago Felix A. Luzuriagak bere eskuz eginak zituen. Ikus arabar bonen lana **Langarika**-ri dago-kion atalean.*

Orri horietan azaltzen diren ohar eta aipamenetatik, Ororbian emandako zazpi hitzaldi eta Larrasoñako San Nikolasetakoa berezi abal izan ditut.

Baina esanak esan, bada bestalde inolako ezaupiderik sortzen ez duen paperik ere. Hauen artean lau bat idazleren izkirioneak badirela, esango nuke nik. Eta idazkera ezik, mintzaira bera ere desberdina dute. Tankera bakoitzaren eredu bat hartu dut hemen.

Bistan dago ez ditudala Muruzabalgo mintzairaren lekukotzat ekartzen, han aurkitutzat baizik. Nere ustez, Luzuriagak han-hemenka jasotako izkribuak datez-ke. Atal honetakoak adibidez, biltzailea sortu baino lehenagokoak dira.

1) Garizumako lehen igandekoa, **Ductus est Jesus in desertum**, XVIII.men-dearen hasierakoa izan daiteke. Ez dakar, noski, urterik ez egilearen izenik, baina izkirione zaharra ematen du eta ber-idatzia izan dela aditzera ematen du; **trasla-dado**, dio lehen orrian. Sermoi honen bi kopia aurkitu ditut, bata 1748koa eta 1762koa bestea. Horregatik diot orijinala mende hasierakoa izan daitekeela. Pepera-ren markak honela dio: P.SALANAVE. BEARN.

2) *Sail honetako bigarreneredua, Pasce oves meas dioena, apaiz baten parrokiako lehen aurkezpena da. Ez du aurreko izkribuaren egilearekin loturarik eta ezaugarri nagusia bitzen laburpena izan daiteke. Honek ere kopiak izan ditu eta idazkera ulergaitza zitzaion lehen aldian aldatu zuenari.**

I

Sermon del Primer Domingo de Cuaresma

Ductus est Jesus in Desertum, á Spiritu ut tentaretur á Diabolo: Mathei Capite 9.

Egungo egunean proponizen digu Evangelista Sagraduac Sn. Matheoc, vatalla fuerte gogor bat Christo gure Jaunaren artean, eta Demonioaren artean; Christo gure Jauna pelezzen Demonioarequiñ, eta Demonioac procurazen duela Venzuzea Vere tentacio fuerteaquiñ Christo gure Jauna: Vaña Sartuzan aren Magestade divinoa vatalla onetan seguridadearequiñ venzutuco zuela Demonioa, eta enaiz admiracen Sarcea Seguridadearequiñ Zergatic guiatu izan duzuen Vatalla onetara espiritu divinoac, espiritu soberanoac: *ductus est Jesus in Desertum á Spiritu, ut tentaretur á Diabolo.*

Vatalla onetaco lance guztiac ordenatu ziraden gure¹⁰ exemploagatic, edo guri eraqusteagatic, ezen ala nola venzutu zuen christo gure Jaunac Demonioa ala guquere aren Majestadearen exemploarequiñ Icasí dezagun Venzuzen Demonioa, ala esaten digu Hugo Cardenalac: *tentacio Christi, et eius victoria nobis proponitur in exemplum ut sicut ipse superavit omnem tentationem, discamus et nos suo exemplo vincere.*

Lendabizico vateria edo tentacioa proponitu ciona Demonioac, christo gure Jaunari izandu zan paracea bere aiziñean cantidade bat arri, esaten ciola: *dic ut lapides isti panes fiant*, ea converti izazu arrioriec oguitan: Barutu izanduzuen Christo gure Jaunac Desiertoan²⁰ berrogei egunean, eta berrogei gauean, eta baru abetaz naturalmentu izanduzuen gossea: *cum ieunasset quadraginta diebus, et quadraginta noctibus, postea esuriit*; eta apenas iquasi zuen

* Adibidez, izkribu zaharrak hau dio: "Cein guti joan ce Ainguerua novedade eta embajada onequi Herodesengana, eta Jerusalengo jendeengana?" Itzultzaileak honela ikusi zuen:

"Cein guti Joanes Anguiruen novedadea eta embajada onequi Herodesengana, eta Jerusalengo genden gana?"

Erderazko erduan: "Qué poco fue el Angel con las nuebas a Herodes y a los escribas de Jerusalem?"

Demonioac christo gure Jauna gosearequin, non bereala tentatuzuen esaten ciola, convertizizala arri ayec oguitan: *dic ut Lapides isti panes fiant*; eta valdin Demonioac tentazen badu Desierto batean, nola tentatuco du, Poblaturan? nola tentatuco du erri batean?, nola tentatuco du conversacioco lequan, eta tabernaco lequan?, tentazen badu Jangoicoa bera, nola tentatuco du pecado-rea?; guelditu zan venzuturic Demonioa tentacio onetan, vada eresponditu zion christo gure Jaunaren³⁰ Majestadeac, ezen ezala guizonaren sustentua solamente oguia sino es orrez gañera Jangoicoaren Iza ere bai: *Inon in solo pane vivit homo, sed in omni verbo quod procedit de Ore Dei*:

Iqusi zuenean Demonioac venzuturic lendabizico tentacio onetan; abiatuzen vigarren aldian tentazera eta onetaracoz eramán izan zuen christo gure Jaunaren Majestadea temploaren eleuacioric andienera, edo ezquilla torrearen gañera, eta esan cion botazezala andic bera bere burua: *Mite te deorsum*, vada esana zegoela eta escriptua, ezen etorrigo zirala Aingueruac eta ereceitutuco zutela veren esquetan: *Scriptum est Angelis suis Deus mandavit te ut Custodiant te in omnibus*⁴⁰ viis suis: erepara ezazute oraiñ zenbat gauzac concurritu zuten Demonioaren tentacio onetan: Jangoicoaren echea, Aingueruac, eta Videac: eta valdin Demonioac tentazen badu, Jangoicoaren echean, Zer eguingo du juramentu eta maldicioco echean? Zer eguingo du murmuracioco echean? Zer eguingo du lujuria eta desonestidadeco echean? eta valdiñ tentazen vaditu Aingueruac, nola tentatuco ditu pecadoreac, eta beti vicioetan sarturic daudenac? Tentazen badu Jangoicoaren videetan, nola tentatuco du pecatuco vidietan, vicioco vide etan eta araguizco vide liquisetan? .Guelditu zan bigarren tentacio onetan ere Demonioa venzuturic, vada éresponditu cion christo⁵⁰ Jaunaren Majestadeac: *vade retro sathana, Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies*: Oa emendica Sathanas gaistoa, vada adoratutuco dec eta seruitutuco dec ire Jauna, eta Jangoicoa.

Iqusiric Demonioac ezen gueldituzala venzuturic lendabizico eta bigarren tentacioan, abiatu zan Irugarren aldian furia andiarequiñ esaten zuela: yaque lendabizico eta vigarren tentacioan ateratu ez naizan ezquero vitoriarequiñ, irugarren tentacioan atera bear det vitorio. Onetaracoz eramán izandu zuen christo Jaunaren Magestadea mendi andi baten gañera; eta mendiarren alturacic andienetic eraqusi izandu ziozcan mundu guztico éreinuac, gloriac, eta grandeza guztiac:⁶⁰ *ostendit omnia regna mundi, et gloriam eorum*; eta esan cion ea mundu guztico ereinuac, gloriac eta grandezac eta ondasunac abec guztiac emango dizquizut valdiñ beraurico paratuta adorazen banazu: *hec omnia tibi dabo si cadens adoraberis me*; eta valdiñ ondo considerazen vadegu, zer eguiten duen Demonioac tentacio onetan christo gure Jaunarequiñ, arqututuco degu, ezen portatu zala Demonioa tentacio onetan, mun-

duan contratazen dutenac, vezala, vada abec considerazen dute lenago ondo eta espacio andiarequiñ, zer ematen duten, eta zer éreceuicen duten, ematen duten gauzagatic; alachen portatu zan egun Demonioa, christo gure Jaunarequiñ tentacio onetan; ematen cion mundu⁷⁰ guztia vere gloria guztiaquiñ, vere grandeza guztiaquiñ, vere éreiñu guztiaquiñ, eta vere Monarquia guztiaquiñ, eta zergatic? christo Jaunac emateagatic edo eman ciozan vere Anima vada auzan Demonioac pretendizen zuena, eta deseazen zuena adoracio artan: *haec omnia tibi dabo si cadens adoraueris me:*

Vaña nola zequien christo gure Jaunac zer balio duen Anima batec, eta zer trauaju andiac costa zizaiozcan despreciatu zituen éreiñu guztiaquiñ eta vere gloria guztiaquiñ Demonioac ofrezizen ziozcanac botazen zuela valore andiarequiñ vere presenciatic: *vade retro Sathana*, gueldizen zala Christo gure Jauna Victorioso, edo Vitoria andiarequiñ⁸⁰ tentacio abetaco vatallan:

O zenbat christauec ez consideratuaz zer balio duen vere animac, eta zer precio andiarequiñ erosia izandu zan (vada izandu zan erosia aiñ precio andian: *empti enim estis pretio Magno*, nola dan Jesu Xpto. Jaunaren odol preciosissima vera: *redemisti nos Domine in Sanguine tuo*) Salzen diote Demonioari gusto liquis batengatic, apetitu ziquiñ batengatic, eta mundu miserable engañoso onetaco deleite eta piacere ziquiñengatic! Salcen diote Demonioari amistade indecente batengatic! murmuracio batengatic! enemistade eta venganza batengatic! Da posible iduquizea zuec, zuen anima oriec aiñ estimacio guichian entregazen⁹⁰ diozcatutela Demonioari, Dadiua batengatic, interes vil liquis batengatic, gusto ziquiñ batengatic, galduric orregatic beticoz, zuen Jangoicoa, eta zeruco gloria soberano andi ura?

Zenbat bider zuc, o emaque tristea, saldu diozu Demonioari zure anima eta corpuza entregaturic, edo emanic desonestidade eta lujuria, gusto vil liquis batengatic? zenbat vider zuc guizona saldu diozu Demonioari zure anima, eta corpuza zure progimoaren contra dituzuen odio, enemistade, venganza, eta erencore oriec dirala medio? ;eta zenbat vider murmuracio gaisto oriec dirala medio? eta au guztiaquiñ zer dala causa?, ez consideratuaz ondo zer valio duen zure animac, ez¹⁰⁰ consideratuaz ondo zenbat costa zizaion christo gure Jaunari eredemicea zure anima; ez consideratuaz ondo eta espacioarequiñ zer ematen dezun eta zer precioagatic ematen dezun?

Saldu izan cion Esauec vere anaia Jacobi vere Maiorazgo andia catillu bat illarregatic, edo elzeriagatic, eta éreprendizen du gogortasun andiarequiñ escritura Sagraduac Esau: *abiit parui pendens quod primogenita vendidisset*; salzen du Maiorazgo bat aiñ andia apetito vil batengatic, eta gusto aiñ laburragatic, eta dijoa consideratu vague, zer eguiñ duen; eztu éreprendizen aiñbeste salcea, nola dan ez consideracea zer ematen zuen, eta zer precioagatic

ematen¹¹⁰ zuen; salduzuen munduan zan Maiorazgoric andiena, ez considera-tuaz Zergatic salzen zuen vada izanduzan Catillu bat illarregatic, edo elzari-gatic ez pensatuaz ondo zer eguiten zuen:

Veguiria ezazu vada christaua zergatic salzen diozun Demonioari zure anima vada costatu izan zizaion christo Jesus diuinoari vere vicia, eta vere odol preciosissimoa! gusto vil liquis batengatic galzen dezu zure anima tristea, valio duena mundu guztiac baño gueago, galzen dezu Zeruco gloria soberanoa, galzen dezu seculaco Jangoicoaren Ama Santissimaren eta Aiñgue-ruen Compañia dulce amorosoa; considera ezazu ondo, eta espacio andiare-quiñ Demonioaren engaño onetaz, eta¹²⁰ allegazen zaizunean tentacera ofre-cimentu engañosoaquiñ, consentizecoz peccaturen batean eguiñ bear dezu christo gure Jaunac eguiñ zuena egungo egunea(n) Demonioarequiñ allegatu zizaionean tentacera vere ofrecimentu engañosoaquiñ; vada zer eguiñ zuen? zer? votacea valore andiarequiñ vere presenciatic esaten ciola oa emendic Sathanas gaistoa: *vade retro Sathana*: eta vereala igues eguiñ zuen Demonioac, eta jachi ziraden Aiñgueruac Zerutic contacera gala vitoriacoa: *tunc reliquit eum Diabolus, et ecce Angeli accenserunt*.

Adizazu oraiñ zer esaten dizun Espiritu santu Jaunac: *Memento creatoris tui, qui te fecit de nihilo ad imaginem suam*;¹³⁰ acordazaitzela zure criadore eredemptore diuinoaz equiñ izandu ziñduena, ezerez batetic, vere imagiñara, eta semejanzara; eta d' esatea (dio Aita San Agustiñec) ezen acorda zaitzela Jangoicoac eguiñ dizquizun fauore eta veneficio andiaz, orrequiñ agradezitu-ric correspondi diozazun seruizen dezula, amazen dezula, guardazen dituzula vere mandamentu santuac, eta cuidazen dezula zure animaren salbacioaz; ezaitzela izan ez ingratoa vere veneficio diuinoaquico, zergatic izatea chris-taua ingratoa Jangoicoaren fauore eta Beneficioaquico, da gauza bat aiñ aborreciblea Jangoicoaren beguietan, ezen esaten du Aita San Bernardino de Senac, dala aize abrasadore bat,¹⁴⁰ guztia abrasazen eta consumizen duena, aliqueta leortu arte Jangoicoaren iturri misericordiac, eta graciacoac: *est enim ingratitude* (dio Santu onec) *Ventus urens, et desicans fontem pictatis, et fluenta gratiae Dei*:

Arquizen zala Christo gure Jaunaren Majestadea eriozaco agonia triste andi ayetan, esan cion vere Aita Eternoari: *Pater mi si possibile est, transeat a me Calix iste*; Nere Aita amantissimoa, valdiñ posible vada pasaeza, edo que benza neregandic, caliz aiñ samiñau, vada valdiñ zegoenean aren Majestade diuinoa clauaturic gurucean, esan bazuen: *Sitio* zuela egarria, eta egarri zue-nau esaten badute expositore¹⁵⁰ Sagraduac, zala edatea Caliz Samiñan pena, eta tormentu andietacoa, guizonen éremedioagatic: *Sitio, id est maiora tormen-ta?* Nola bada oraiñ érepugnazen du edo nai eztu edan caliz samiñau?

transeat á me Calix iste? eztegu jaquiño Caliz aiñ samiña andi au, zer Caliza dan, nai eztuena edan gure Jesus diuinoac? bai, esaten digu Aita San Ambrosioc zer Caliza dan au: *Calix iste, erat ingratitudinis humanae*; Caliz aiñ Samiñandi au zala gure ingratitudecoa, eta au dà anbeste érepugnacen duena, edo eziñ edan duena gure Jesus diuinoac:

Vada esaten cion vere Aita Eternoari: Nere Aita Amantissimoa, padezidizadala nic guizonen éremedioagatic, eta salbacioagatic penac,¹⁶⁰ tormentuac, doloreac, afrentac, desprecioac, azoteac, eta erioza guruze batean, vaña an beste padecitu aiengatic aiñbeste fauore eta beneficio eguiñ, eta correspondicea guero niri guizonac pecatuaquiñ, eta ofensaquiñ, correspondicea ingratitudeaquiñ, au da Caliz aiñ samiña eziñ sufritu duena nere Vioz amorosoac, au da caliz aiñ samiña guizonen ingratitudecoa eziñ edan dena: *Calix iste erat ingratitudinis humanae*; eta ala quen beza, edo pasa beza neregandic Caliz samiñe guizonen ingratitude andi au: *transeat á Me Calix iste: Calix iste erat ingratitudinis humanae*: orregatic vada esaten du Aita San Bernardino de Senac, eztala gauzaric aiñ aborrecibleric Jangoicoaren¹⁷⁰ beguetan eta ez gueago senticen duenic aren Majestade diuinoac, nola dan gure ingratitudea Jangoicoaren beneficioai eta fauoreai!

Esan nazazu zuc orain Pecadorea zenbat beneficio eta fauore éreceuitu dituzu Jangoicoaren esqu liberalissimotic? Zoaz contazen: Lendabizicoa: Criatu izandu ziñduen Aren Majestadeac ezerez batetic: *ex nihilo efecit ut essemus, et produxit*, esaten du Aita San Basilioc: eguiñ izandu ziñduen criatura racionala, capacidadearequiñ alcanzazecoz Zerua, vada zure descansuracoz formatu zuen, edo eguiñ zuen! Zuri zizun amori andiagatic, Zerutic jachizan lurrera, eta eguiñ zan guizon eta illzan guruze batean clauaturic; Jaio zaitu eta criatu¹⁸⁰ zaitu, edo azi zaitu christauen lurrean, edo lequan, zeñetan dago clarao facilla eta aguertua Zeruco videa; au da beneficio bat eta fauore bat guztiz andia, zergatic zer izango zan zuzaz, valdiñ jaio izan baziña, eta vici izan baciña eregeen artean, Paganoen artean, Moroén artean, Turcoén artean? (O gure Jangoico amantissimoaren fineza andia!) Aniz eta aniz pecatu mortal bat eguiñ zutenagatic votatu dé infenuetaco tormentu andietara seculaco condenaturic, eta zuc eguiñ dituzula anbestere pecatu Aren Majestade Santissimoaren contra, ezaitu botatu tormentu andi ayetara sino que vere misericordia infinitoarequiñ sufrizen dizu, eta ematen dizu denbora penitencia¹⁹⁰ eguitecoz, eta arrepentizecoz? (O piedade andia gure Jangoico maitearena!) Aniz, eta aniz iqusten dituzu tulluturic eta valdaturic, beste aniz afligituric trauaju andiaquiñ, eta beste aniz ichuturic eztutela zer jan, eta zu libratu zaitu trauaju orietatic, eta quiza merci zenuela zuc obetoago oriec guztiac baño; eta finalmente criatu zinduen, edo eguiñ zinduen vere imagiña eta semejanzara: *Creavit Deus hominem ad imaginem et similitudinem suam*:

zen zauren viozac Dabid Profetac bezela J(ai)ncoa servizezera, amazera eta arren legue s(a)nduen goardazera? *p(ro)pter retributionem* glorie eternoco premio andi arren esperanzarequi, cein beite arimen alimentu eta vestidure?. Badaquize Cer(e)ngatic? Cer(e)ngatic ezpeituze c(on)sideratzen estuze ezauzen glorieco premio andi ore, eta no(la) ezpaituze ezauzen, orrengatic estuze c(on)sideracen eta apeticicen; billececo bicioac aborrecicarequi eta J(ai)nco servizecarequi obra onen medios.

Desenguenetu zeiste Ctio fielac, eta ezauzaze, eze c(on)sideratu faltas glorieco premio eternoa, daudela infernuco videac eiñ²⁰⁰ freq(u)entaturic eta argatic ain alegre eta al c(on)trario, glorieco videac eiñ desamparaturic, Jeremias Profetac erran zuen bezela bere trenoetan eta argatic negarres beteric. Eta esta lastime andie egotea infernuco vide illuneyec eiñ beteric, eta glorieco vide alegreayec eiñ des(a)mparaturic negarres? Beñe prosequiceco escazogun becatore arrep(e)ntitu gucion Ama oni, digule b(e)re grac(ia). Ave Maria.

Domine bonum est nos hic esse (Math. 17)

San Matheoc egungo evangelio Sanduen erraten digu: eze Sn. Pedro Apostoloac icusi zuenean Jesu Xrto. gure Erredem(ptore)a bere transfiguracioau eimberze glorierequi Taboreco oyanean, erran zuela: D(omin)e bonum est nos hic esse: Jaune onda emen egotea eta emen²¹⁰ bizizea. Eta Sn. Ag(usti)n eta Sn. J(ua)n Dam(ascen)oc tratacen dute Sn. Pedro neciotaco, Sn. Pedro necioa? Bay por cierto. Es citue oreño pasatu Apostol Glorioso arrec padecitu bear cituen trabajuec, eszue oreño eman bere vicio guero eman zuen bezela J(a)ngoicoaren amoreagatic; eta nola deseacen baizue glorie trabajua pasatu edo padecitu beño len, argatic tratacen dute neciotaco. Sn. Agustin glo(rioso)a(c) erraten digu, eze mundu ontaco alegrie, gusto, c(on)tentu, eta c(on)veniencie guciec direla miserablen c(on)sueloac eta ez bienaventuretuenac: *omnia huius mundi gaudia sunt solatia miserorum, non beatorum*. Eta alare cembat arq(ui)nzen dire eiñ²²⁰ afanaturic mundu ontaco gauzengatic, eiñ itsuturic beren gustu eta vicio gueistoequi; eiñ acenduric J(ai)ncoas eta beren arimes erraten dutela Sn. Pedroc bezela, bonum est nos hic esse: on da mundu ontan egotea eta emen bicicea. Au beite alare necedade andie, eta Sn Pedrona beño andiegoa; cer(e)ngatic Sn Pedroc desseatu barimezuere demborra beño leen glorie, desatu zue glorie celestiala, bene becatoreac azenduric berze munduco glorie verdaderas sollic vici dire mundu miserable ontaco eta desterrontaco glorie vanos oreituric.

Bada cerda beici glorie verdaderas azenduric vizizea, aizea, cembeit temerarioc edo desalmatuec erraten dutena descaroatequi?²³⁰ be(r)ceinberce ponderatu bague gure salvacio, e(ta) Jangoicoa barimedago salvatu bear garella,

salbatuco gara, eta berzela c(on)denatuco gara; cerue esce in astoendaco, beici gend(e)ndaco.

Ebec eta b(e)rze aniz orlaco desatino erraten tuste beren salbacioas descudeturic eta acenduric bizi direnec. Beñe ssaquin beaurze, Xstio fielac, ece J(ai)ncoac nei duela gucioc s(a)lvacea; Jaun divinoaren partetic esta faltatuco, beñe da preciso guc gauren partetic aleguiñe itea, vicioac aborrecicea, amacea J(ai)ncoa, eta cumplicea gucioc gauren estadoac manazen digune, eta berzela esta salbaciuric. Cierito da lo mismo, ece glorie edo Cerue escela ein²⁴⁰ astoendaco, beicic gendendaco; beñe galdeñen nioq(ue)te nic alaco desalmatueiegui: eta infernue norendaco ein ze? Astoendaco? Ez por cierto, beicic becatore glorie ver(dader)oas azenduric, eta beren salvacioas acenduric edo descudeturic, beren becatues arrep(e)ntitu nei estutenendaco. Bada nontaco cer errespondatu? Esta posible. Orei galdin neicodere zuetatic norbeitec Sn Lucasec bere Evangelio S(a)nduen amiruguerren cap(itulua)n erraten digune: galdin ciotela Jesu Xtori; *Domine si pauci sunt qui salvantur* Jaune errancio batec Jesu Xtri, estire erranen diren guti salbacen direnac? Cer nauze Xstio fielac, cer nauze nic errespondazaten preg(u)nte oni? Erraten badizet²⁵⁰ direla aniz salbazen direnac, eguie erranen diet, bada erraten digu Sn J(ua)n Evangelistec cece icusi zuela J(ai)ncoan aurrean eimb(e)rze b(ie)naventuretu, cece eszeiquiela c(on)tatu iorc: *quam dinumerare nemo poterat*. Beñe erran baneza g(uti) ece b(ie)nab(e)nturetu ayec ezin c(on)tatu barimecice iz(en) g(uti) ere c(on)denatuec beño iago direla es niqueze erranen eguies, cergatic Jesu Xstoc, cein ezpeiteq(ue) engañetu, dio ece direla aniz deituec gloriera, beñe guti direla escogituec: *Multi sunt vocati, pauci vero electi*. Eta au estio bein sollic, beicic bi aldis: Sn Matheoc ogueigaren, eta ogueita bat garren capituloetan; berla gutiego dire escogituec edo salbacen²⁶⁰ direnac ecce c(on)denacen direnac. Erranen duze, ece cierto dela direla gutiego salbacen direnac, ece c(on)denacen direnac, c(on)paracen barimedire salvacen direnac gende guciequi, Xstio, gentil, judio, turco, moro eta b(e)rze gende guciequi? bada evec gucioc direla deituec servizezeco mundu ontan Jan(goi)coa, eta gozazeco b(e)rze munduan glorie; eta cierto dela cece ebetati gucietan iquenec aniz deituec, iquein direla guti escogituec edo salbatuec eta modu ontan, eta modu ontan, ent(e)ndazen dela Jesu Xstoren sentencie, aniz direla deituec eta guti escogituec *Multi sunt vocati etc*. Beñe Jesu Xston sent(e)nciau estela ent(e)ndazen christioetatatic sollic,²⁷⁰ cerengatic Xstioetatic gueago direla salvacen direnac, ece c(on)denacen direnac au erranen duze.

Jangoycoari nei dequiola: Jesu Xstoren s(e)nt(e)nciau, direla gutiego salvacen direnac ece c(on)denacen direnac estadien ent(e)ndatu Christioetatic sollic, beicic g(e)nde gucietatic. Jangoicoari nei dequiola, nic plazer hau izenen dut orla iquen dadien. Beñe cierto aseguren dizet, beldurtassun

andibet ematen dire sentencie terrible au entendazen dela Xstioetatic sollic, icussiceac, ece aimberze Eliceco Sandu eta Doctorec assegueren dutela.

Consultezen batugu Sn Nilo, Sn Theodoro, Sn Bassilio, Sn Efren,²⁸⁰ Sn Jn Chrissostomo eta berze aniz, arquituco dugu guciec assegueren dutela, ece Xstioetatic sollic iago direla c(on)denacen direnac, ece salvacen direnac, eta ala Jesu Xston s(e)ntencie terrible ore, aniz direla deituec eta guti escogituec, sollic entendazen dela Xstioetatic, Paganoac, turcoac, moroac eta gentillec c(on)tatu bague. Dictamen terriblea da au guretaco Xstio fiela! eta aimberze S(a)ndurena.

Sn Gregorio gloriosoac dio claroqui: *ad fidem plures veniunt, ad regnum celest(ialem) pauci producentur*. Federa aniz eldu dire, beñe erreinu celestialera edo gloriera guti joaten dire. Federa etorcen²⁹⁰ direnac sollic dire Xstioac, eta argatic deicen gara fiela edo siñestacen dutenac, cer(e)ngatic, (cer(e)ngatic) siñestazen tugun fedeco misterioac; ebetatic bada, dio sandu gloriosoac, direla guti salbacen direnac, c(on)denacen diren c(on)paracioan. Lo mismo dio Sn Anselmoc; lo mismo dio Sn Agustinec, itz abequi: *ipsi boni verique Xstiani qui per se ipsos multi sunt in c(on)paratione malorum, falsorumque Xtia(norum) pauci sunt*. Xstio onac eta verdaderoac, dio Sandu gloriosoac, dire aniz, beñe c(on)paraturic Xstio gueistoequi, eta falsoequi, ciertamente dire choil guti. Eta Abulense Andieac, Jesu³⁰⁰ Xston sentencie, guti direla escogituec expliquecen du modu ontan: *pauci sunt electi, quia de Xstianis pauciores salvantur*, guti dire escogituec, edo salvacen direnac, cengatic Xstioetatic beitre gutienac salvacen direnac eta berac asegueren du dictamen ontacoac direla Sandu eta Doctore guieienac.

Eta erreparacen bangu ongui Xtio gucien edo gueyenen descuidoa beren salvacioaren gueiñen, experienciec erramaracico digu guciogui s(a)ndu gloriosoac erraten dutena. Veguirezaze ongui eta arquituco duze virtutea p(e)rseguituric, vicioac eta maldicioac alabaturic eta estimeturic: Ycusico tuze abrasac, nausi eta echeco andrea³¹⁰ despreciazzen tustela beren nirabeac eta peonac eta tratacen tustela Xstioac estiren bezela, aniz itz injurioso eta afrentosoequi iten dizquotela neitusten agrabioac beren soldadetan eta jornaletan: aytuco tuze jornaleroac eta nirabeac m(u)rmurecen abratses eta beren nausi eta echeco andres; eta icusico duze estirela trabajacen obligacio duten bezela irebeciceco beren soldata eta jornaleac, beicic sollic tirecen dutela egunen pasacera: icusico tuze nausi echeco andriac, aite eta amac, eta berze aniz, errespeto, at(e)ncio, reverencie eta obedientie zorzeyotenac (desobedecituric) desobedituric, deserrespetaturic eta desprecieturic, mutil eta³²⁰ nescato, seme eta alaba J(ai)ncoren beldurtasunic bague, eta gueizqui aziric daudenagatic, norc du culpe? Berec ezpeituste azizen J(ai)ncocoac manacen duen bequela, cer significa-

cen du, Xstio fielac, beicic descuido andi bet s(a)lvacioen queñean icusicea, ez sollic astregunetan beicic aun sseietan ere ain desamparaturic eta acenduric t(e)mplo s(a)nduan mezacoan eta vezperetacoan eta eiñ gendes beteric larreiñ oiec, eche oiec eta loc(al) oiec, ya barajarequi, ya murmurecen eta aniz gaste J(ai)ncoaren of(e)ndicen llanezequi eta norc du culpe? Lendabissicoa echen jabec lecu emateas, bigarrena aite ta amec ta nausi ta echecoandrec ez ecarriaraciceas beren nirabeac eta³³⁰ beren humeac meza nausire, eta Vezperetara; beñe cer milagro da ez etorzea zuen humeac eta nirabeac ezpazarate etorcen zauroc. Eta ebetas landara dute culpa Ezinegozi Jaunec ez embarazazetas plazaco eta eche secretuetaco eta sospechosoetaco diversioac oficio divinoen demboran eta lo mismo arrastan zorrietatic landara egoin diren bazela aniz aldis, bedrazi amarrac artio eta ollarrac ersonatu artio arquizen ezpazayote quimerarembat iqueteco occasioarequi, eta quimera iquen edo ez iquen, dute obligacio estrechoa ecinegoci Jaunec embarazazeco diversio guciec zorrietatic landara. Ssaquin beaurze Xtio fielac cece ssayec disponitu cituen J(ain)ncoaren Magestadeac ez diversioraco eta³⁴⁰ ssauzqueraco sollic beicic aste gucico partes J(ai)ncoa sevizezeco eta aste gucico becatues c(on)fesio dolorosoaten medios Jaun divinoari misericordie escazeco, eta bueltaren bat edo berze divertizeco eta recreaceco animoa, beñe J(ai)ncoa ofenditu bague; divertitu bear da purezarequi eta onestidadearequi, beñe embatec estute bereric iten ssayeco egunean, beycic enzun meza bat prisecan, etorri azquenac eta atra lendabissicoac, eta ojala, ojala, ezpalezaquete anitzec ofenditu iago J(ai)ncoa ssayeco egunetan, astregunetan baño.

Erranen duze acaso ece clarosco expliquetu neizela, beñe au de ene ogliuecicoa. Sn Paulo Apost(olua)c erraten dire ece, *sapientibus³⁵⁰ et insipientibus debitor sum (ad Rom cap. 1)*. Nei du erran Apostolo gloriosoac, ece sabioegui eta ignorantegui, abrasegui eta pobregui; chiquiegui eta andiegui dutela obligacio errateco c(on)venizeiotena, nic cumplitu bear dut neure obligacioarequi oyec, zuec, aprovechaceco eta ezpazarate aprovechacen desengaño ebetas ebec izanen dire Juicioco egunean zuen fisquelie eta acusazaleric andiena Jesu Xsto gure Erred(e)ntorearen tribunalean.

Eta cer erranen dugu deshonestidadeas? Ha! vicio infame eta torpea! Onen medios c(on)denacen dire guciec edo gueienac, apenas escapacen daquio ior, ez guizonic eta ez andreric, ez zarric eta³⁶⁰ gasteric; guciec arrepacen ditu vicio itsusi onec. Au de sare barredera garbizen duena glorieco videa eta betecen duena infernuco vide zabal eta illen ore. O desgracie! Eta esta erremedioric? Bay por cierto, eta da Jesu Xsto gure Erredentorea: berac erraten digu aizea, eta itea *c(on)tendite intrare per angostam portam; quia multi, dico vobis, q(ue)runt intrare et non poterunt*; trabajazeiste cuidadorequi dio Jesusec, sarceco glorieco atari mearretic, cerengatic ssaquin aracitcen ditzet,

ece anizec sartu neico dutela eta ecin sartuco direla. Sn Efrenece erraten digu, ece salbatu nei duenac bici bear duela apliquecio eta cuidado andierequi salvacioaren gueiñen sarzeco³⁷⁰ glorieco atari mear eta erchitic; cergatic ala nola pasaceco inguirit(en) vgolde andi bet den preciso inguiritecea cuidado ta exfuerzo andierequi eta i(n)guiritecen esta ongui uren c(on)tra, den preciso vndicea eta itozea aniz aldiz icusi den bezela, lo mismo dio S(a)ndu glorioso arrec, da preciso peleacea cuidedo ta esfuerzo andierequi pasione apetitu eta inclinecio gueistoen c(on)tra, ez erorzeco becatu(an) ta ez undizeco infernu(an).

Eta nola Xstioetan beitre gutienac peleacen direnac vicioen c(on)tra eta seguicen dutenac cuidedorequi virtutea, argatic erraten dute Sandu eta Elizeco Doc(tore)c ece Xtioetatic direla gutienac³⁸⁰ salvacen direnac, estuze ezauzen Catholicoac ece orein Xstioac vizi dire descuidoarequi beren salvacioas arrazio dauquetela S(a)nduec errateas ece Xstioetatic gutienac direla salvacen direnac? O eta combat dauquete! *Prob dolor!* O dolorea, o desgracia mereji duena odolesco lagrimequi negaritea? ecce Xstioetatic, J(ai)ncoaren seme adoptivoetatic, arren Pueblo escogititic, eimberze galdu bear direla, eimberze c(on)denatu bear direla! Iduquitzes Jaune misericordie, Jaune bere huma(n)os, arquitu bezozquite zenzuec, or icusi bezote, instruitu bezazqui ta mogui bezazqui berorrec Jaune even viozac inspirecio edo aviso f(ue)rte ta eficacequi eta ezpadire ebec asqui³⁹⁰ urriqueriarazizeco, castigue bezazqui mundu ontan; *in virga ferrea* azote gogor batequi, eritasunerequi, diot Jaune, miserierequi ta trabajuequi irequiarazizezoten castigo abec, Sn Gregorioc dion beq(e)la becatuec erchiric eta itsuturic dauzquiten beguieci, erre ta egosi beigueza(goque). Ezzagule barcatu mundu ontan deusere, nola barcatu dezazquigun eternidadean: *hic vere, hic seca, hic non precas etc.*

Bibl.:

Muruzabalgo bilduma (JMS).

Argitaragabeak. 210 x 155 mm. 4/5 orrialde.

24. ORORBIA (1758)

Aipagarria da benetan, ezaugarri gabeko beste izkribu askoren artean, Muruzabalgo sermoi baten barruan aurkitutako oharra: func. Ororbia 28,29 de este mes, dio hitzez-bitz. Idazkera berdina duten zazpi prediku badira bilduman eta horietako biru dakartzat hemen.

Iruñetik bederatzi kilometrora dago, hego-mendebaldean, Ororbia izeneko herria. Etxauriko bidean aurkitzen da, Arazuri eta Iberoren artean. Arga ibaiaren eskubi-

ko aldean kokaturik, Oltzako ehuntada edo cendea lurraldeko partaide da adminis-
tralgo aldetik, 1908ko egoeran 54 etxe eta errota bazituen bere 274 biztanleentzat.

Paper zaharrek diotenez, Aragoiko Ramiro erregeak Tafallako gataskan galdu-
tako zaldia bertan eskaini omen zion Antso Fortunez zaldunak, Nafarroako errege
Santxo VI garrenari; eta honek herria eman zion, esker onez aurkezleari.

Aukeratutako biru izkribuak zoin bere urtearekin datoz. Lehenengoa, Tunc
ductus est Iesus a Spiritu in desertum, garizumaren leben igandekoa da eta,
amaieran, 1756.urtea ipinia du. Bigarren testua, surrexit non est hic. Piztuera
igandekoa da, eta azalean 1758koa dela dio. Hirugarrena honora Patrem tuum,
Jainkoaren legeko laugarren aginduari buruz emana 1769.urtean.

Berak erabilitako iturrien berri ematen du egileak, Parra, Echeverz, Moreno
eta Carabantes, batez ere.

I

Domingo primero de Quaresma

Evangelium Matth. 4

Tunc ductus est Iesus a Spiritu in desertum, ut tentaretur a diabolo. Math. 4.

Evangeliste San Matheoc erraten digu egun evangelio sanduen, ece
(apenas) Jesu Christo gure Erredentorea errecibitu orduco bautismo Sandue
San Juan Bautis(taren) escu(eta)tic, Jordan çeriçon Vgelde batean, berla guietu
zuela Spiritu Sanduec desierto atera, tentacezan an demonioac. Tentatu cue
bada demonioac Christu gure Erredentorea iru aldiz. Cegó Christo gure
Erredentorea, berrogei egunes, eta berrogei gaues barutu ondoan, goseac,
desierto artan, eta aparecitu ceiquio demonio, eta tentatu cue gulerequi,
erraten ciola: *si filius Dei es,¹⁰ dic ut lapides isti panes fiant.* Jan Goicoaren
semea barime zara, erranzazu arribec conberti deizela oguien. Neicue demo-
nioac, nola beicego Christo gure Erredentorea, einberçe egunes, eta gaues
barutu ondoan, goseac, ssanceçan bear beño iago, eta incezan becatu; beñe
garaituce demonioa Christo gure Erredentoreac, errespuesta onequi: *Non in
solo pane vivit homo;* esta gizona oguierequi sollic bici: *sed in omni verbo quod
procedit de ore Dei.* Beicic Jan goicoaren içerequi, eta doctrinerequi bicide
arime, eta aniç aldiz corpuçere bai, bada Escriture Sagratuec erraten digu,
Moises egon cela berrogei egunes ssan eta edan bague, eta mantenatu zuela
bere arime, eta gorpuçe ere²⁰ bai Jan goicoan içerequi, eta Doctrinerequi.

Garaituric demonioa tentaciontan acometitucio berçabatequi; lendabissi-
coa iquence gulequi eta biguerna soberbierequi, bara apareçitu ceiquio, gui-

zon deboto, eta piadosoaten figuren, demonioa, Jesu Christo gure Erredentoreari Jerusalengo Elicebaten, (eta) eramozu lecu altoatera, eta erran cio: *si filius Dei es, mitte te deorsum*. Jan Goicoaren Semea baimezara, egoçiçezu ortic Zaure buruori, eta estuçu miñic artuco, cerengatic atracodaquizquizu Eingiruec, airean artuco ceituste, eta guardatuco ceituste miñi arçetic, Jan goicoac manaturic dauzquien bequela: *quia Angelis suis mandavit de te et in manibus³⁰ tollent te*. Eta cer uste duce pretendiçen zuela demonioac tentaciontan? pretendicen cue Christo gure Erredentoreac egoçiçezan altoartatic bere burue, eta geldicedien miñic artugabe, alaba cezaten icusten cuten gendec Sandue bequela, desbanecitu cedien agatic edo ensoberbiecetu, cediengatic Christo Jure Erredentorea: intencionequi tentatucue demonioac biguerren aldien Soberbierequi. Beñe tentaciontan errespondatu cio Christo Gure Erredentoreac, berce Escriture Sagratuco textoatequi: *Scriptum est: non tentabis Dominum Deum tuum*, escriture sagratuec erraten du: estuçu tentacuco caure Jaun eta Jan Goicoa. Emancio entendaçera demonioari, ece çozquelaric escalerac cheisteco⁴⁰ lecu alto edo goitiartatic, egoçiçea bere burue Eingeruec eirean arreatuco zutelaco deseoarequi, cele Gan Goicoa tentaça. Eta ocasionequi erraten digu guri guciogui San Agustin gloriosoac: *pertinet ad Sanam doctrinam, ut quando habet, quod faciat homo, non tentet Dominum Deum suum*. Doctrine sanoa da: ez escaça Jangoicoari milagroric, gauren necesidadetan, erremedietu alzazquigunean gauren industrierequi, eta gauren partetic aleguiñe itearequi; bada balego bat gueizqui, eta ezpalezaque artu medizineric, eta pretenditu baleçaque cureça gaiçartatic, milagros erremedioric inbague, iquenen liçeque tentaça Jan Goicoa.⁵⁰

Garaitu çue Christo gure Erredentoreac Demonioa biguerren tentaciontan, beñe orgatic esçue desistitu bere empeñotic, bada da demonioa choil porfietu bere tentacio gueistoetan, tentatu cue iruguerren aldien, eta artaco eramozue Christo gure Erredentorea oian alture anditecoatera, eta andic eracussi cizquiu Munduco erreñu guciec edo gueienac, eta erran cio, ea an dauquezu Indie, an Inglaterra, an Espaiñe, an Francie, eta berce erreñu guciec, *et gloriam illorum*, eta Erreinu eitaco glorie gucie, cein beitiire urre, ciller, eta gueiñeraco riqueza guciec, ebec dire Munduonequi isuturic daudenen glorie, urrea, cillerra, eta berce intresac; eta gauzabec gucioc eracussi ondoan⁶⁰ errancio demonioac, Christo gure Erredentoreari: *Haec omnia tibi dabo, si cadens adoraberis me*. Ebec gucioc eman dizquizut, cheisten bazara ene oñetara, eta adoracen banauçu. *Haec de arrogancia dicit*, au guciau erran zue demonioac soberbies, eta arrogancies beteric, cergatic demonioa esçe Munduonen jabe ofrecituçeco Christo gure erredentoreari. Beñe soberbies beteric, adoracezanagatic, ofrecitucio Mundu gucie christo Gure Erredentoreari, berea iquen bague. Eta christo gure Erredentoreac, ez sufriceagatic,

einberçe atrebimentu eta soberbie demonioari, egoçicue nora mala eta erresponditucio: *Vade retro Satana*. Goie nora mala Satana. Gangoicoa sollic serbicetuco duc, eta adoratuco⁷⁰ duc. *Dominum Deum tuum adorabis, et illi soli servies*. Emen eracusten digu Christo gure Erredentoreac ece sufritu beartugule gaurogui itendaquizquigun agrabioac beñe ez Jan Goicoari itendaquizquionac. Au de egungo Evangelioac erraten digune, eta acertaçeco Evangelioaco doctrine escaçoğun Maria Ssri. asistiçegule Vere gracierei. *Ave Maria*.

Nolunt culpae suae tribuere culpam suam. Aug. in Psal.7

Esta becatoren ermean gaue comunegoric, eta iago useçendenic, nola egoçiça beren⁸⁰ becatun culpec demonioari, escuseçagatic beren buruec. Estute nei becatorec egoçi beren becatun culpe beregui. Dio San Agustin gloriosoac. *Nolunt culpae suae tribuere culpam suam*. Eta au de itsutasun andibet becatorendaco, eta ez embarazo chiquie arrepençiçeco deberas becatorea. Au de embarazo andibet billeçeco becatorec beren erremedioa! Egungo egunean, Christio fielac, desegueñetu bear ceistet, eta beaircet paratu consideracion, ece becatu iten duenac, berac duela culpe, eta ez demonioac; bada dio San Agustiñec ece demonio dela catea batequi loturic dagon chacurre becela, eta argatic aunquie inçeuela, beñe eç çaquela ozcariz iñ, beicic bere borondates arrimecen ceionari sollic: *latrare potest⁹⁰ mordere autem non potest nisi volentem*. (S. Aug). Beñe erran çaqueze, ece demonioan podorea, eta astucie dela ssoill andie, eta ainberçe, ece estela Munden podoreric, eta fuerzaric demonioan podorearequi, eta arren fuerçequi compara deitequenic. Job Patriarca Sanduarrec erran zun bequela. *Non est super terram potestas, quae comparetur ei*. Eguie da, christio fiel, Job Patriarca sanduarrec erran zue ece eççela Munduen fuerzaric, eta podoreric demonionanequi compara deitequenic, eta ongui zequienac bequela erran zue, bara progatucue bereac asqui. Beñe noiz erran zue Jobec, Christio fielac? Jobec expliquetu cue demonioan astucie, eta podorea, christo gure Erredentorea Mundure¹⁰⁰ etorri beño len, eta eguie erran zue orden Jobec, ece cela eiñ andie demborartan demonioan astucie, eta podorea, ece eççela arquiçen Munduen norequi comparatu, bada cebille ordun demonioa libre, eta suelto, Munduco Principe Soberano becela, eta Mundu gucien jabe liçequen becela. Venie orain? Christo gure Erredentorea Mundure etorri esqueros, ya dago demonioa errendituric, humilleturic, abatituric, eta catea batequi loturic. Espiritu Sanduec guietu cue Christo gure erredentorea desier(t)orea; badaquize cetara? Deabruac tentacera, erranen duce *ut tentaretur a diabolo*, bay aigui da. Beñe cetaco uste duce permititu çiçquio-la, christo jure Erredentoreac demonioari¹¹⁰ tentacio ayec? Permititucizquio, dio San Gregorioc, christoren tentacioequi, eta vitoriequi garaitu guenzague-nagatic, guc, demonioa, gauren tentacioetan; eta logratu guenzague-nagatic

aniç vitorie, demonioaganic: *ut sic tentaciones nostras, Suis tentationibus vinceret*; Ea christio fielac, anime zaiste, eta peleeizte valore andierequi, demonioa zauren enemigoaren contra, bada da ssoil cobardea, eta pendejoa, eta estauque batere fuerzariquic.

Aicece nola confesacen duen berac. Aparecitu ceiquio ocaisoates demonioa San Antonio Abad Gloriosoari, eta in zizquio queja andiec, Sandu Gloriosoarren discipuloen, eta christio gucien contra, ece¹²⁰ becatu iten zuten aldiero, egosten çïçen disquio aniz maldicio deabrueren contra, eta erraten dutela *Maldittoa iquendadiela deabrue*, deabruec du culpe nic becatu itea, eta ofendicea Jan Goicoa. Eta estauquete sopra arracio? erran cio Sandu Gloriosoarrec. O Antonio, Antonio! errespondatu cio demonioac. Ssaquin beaurru ece cuen Erredentoreac vçininduela batere fuerzaric bague. Esçaquet dausere iñ; neiz miserable bat, eta derdichetuet: fuetequi egocinazaqueze neibauce. Cer nauze iago, christio fielac? nola confesaçea demonioac bere agos vere flaqueza.

Dabid Profetac, oguei, eta amargarren salmoan, erraten digu:¹³⁰ obraçace valore andierequi, conforta çazquice çauren vioçac, eta anime ceiste; *viriliter agite, et confortetur cor vestrum*; Eta San Geronimoc ematen digu motiboa. *Quia debilis est hostis, non potest vincere nisi volentem* Cerengatic cuen enemigoa, da inutile, eta flacoa, eta esçaque gareitu, bere borondates gareiçera ustendiona ez berçeric. Eta bercela discurriçegun, eta icusegun nola tentatu çuen egun Christo gure Erredentorea demonioac, cergatic moduartan berean tentaçen gaitu guere beti. Lendabissicoan paratu cizquio arribeçuc aurean eta erran cio. *Si filius Dei es, dic ut lapides isti panes fiant*. Jan Goicoaren semea barimezara erran çazu arribec converti deiçela oguien. Yncio¹⁴⁰ acaso fuerzaric tentaciontan?, ez por cierto dio San Juan Chrisostomoc. Biguerren tentacion eramozue Eliceo paraje goiti betera, eta erran cio: *Mitte te deorsum* Egoçiçezu zaure buruori ortic. Emancio bulquezonembat? esçaque dio San Geronimoc: *Persuadere potest, praecipitare non potest*. Persuadituçequc aconsejaçaque, eta tentaçaque, beñe esçaque fuerzaric iñ. Yruguerren tentacioan, eracutsi cizquio oian altoatetic Munduquo grandeza guciec, eta erran cio Christo gure Erredentoreari: eiec gu(c)iec eman cezquiola ssarriçen bace arren oñetan, eta adoraçen bacue: *Haec omnia tibi dabo sicadens adoraberis me*. Eta incio emen fuerzaric? ez por cierto antes modu¹⁵⁰ andierequi errancio, nei becue adonatu, emanen zizquiola riquezaaieç guciec. Ea estuce icusi nola demonioac bere tentacio gucietan esçaquen berçeric iñ, beicic tentatu, incite-tu, proponitu, eta errerepresentatu? Beñe acaso vecaturic iñaraçiçoque nei estu enari? cer bear du iñaraci, escaque esparimedu nei becatoreac berac. Bada argatic, becatorea carela a(n)drea, edo gizona, ofendiçen duçunean Jan Goi-

coa, estucu ofendicen demonioan tentacioaren medios, beicic, caure borondate geistoaren medios, tentacio gueistoa consenticearequi.

Erregue Espeñecoa viçizen cenean Valladolid dariçon ciudedean nescato gaste bat cidoie Erregueren Cortera, an bere vicie obequi¹⁶⁰ atraco zuelaco intencioarequi, erri chiqui betetic. Encontratuce bidean gizon batequi, eta galdin cio gizonarrec nora cidoien, eta errespondatucio nescato gastearrec, Erregeren cortera cidoiela, erran cio gizon arrec esçuela cer joan, ece joaten bace galduco cela; beñe esçio casoric iñ nescatoarrec, eta joance Erregueren cortera, eta an dembora labur galducue Jan Goicoaren gracie, eta bere corpuceco preñaric oberna, eta icusi cuenean bere burue embarazaturic elduce bere errire alquegorrituric. Encontratucue bideartan, eta parajeartan berean gizonore, eta assiceiquio cargu iten, cerengatic, esçuen iñ arrec errana, beñe nescatoore escuseçeagatic bere burue assi¹⁷⁰ demonioari culpen egoçicen, eta erran cio: demonioac du culpe ni orla egotea, bada tentatu nindue, eiñ fuerte becaturre, ece garaitu nindue; eta orduen gizona cirudielacoarren, emancio errebes bat, eta erran cio gezurre dion, ece ni naun demonioa, eta nauronec erran niñe, ezala cer joan Erregueren cortera ece joaten bainçe galduco inçela; eta alare, christio fielac, egoçico disquioze demonioari zauren becatuen culpec? Ssaquiençece bara emendic aurrera, çauroc tucela zauren becatuen culpe, eta ez demonioac, eta procureçade garbicea çauren arimec becatuen machetatic, confesiom baten medios, eta serbiçezace Jangoicoa obequi emendic aurrera, neibaue logratu Jaun Divino arren gracie, eta¹⁸⁰ glorie. *Ad quam etc.* 1756.

II

Dominica Resurrectionis D. J.C.Xti.

Surrexit, non est hic. Marc, cap. 16

Ya, Christio fielac, arguitu ceio mundueri egun dichoso eta deseatu au, Jesu Christo gure Jaunen erresurecioco egun alegre au. Loresco Bazcoa egune, eta erraten digu bere lorequi, ece pasatucela ia Christo gure Jaunen pasioco negu penoso gogor, eta tristeore. *Iam hyems transijt* Au de Xto gure Jaunen (Jangoicoan) egun propioa, cerengatic egun guciec barime dire ere Jangoicoanac, cerengatic incituen, au especialquiro deiçen da Jangoicoan egune, bada (cergatic) Jaun Divinoarrec bete cue egun andiau diches, eta bedecios: *Haec diesquam fecit Dominus* Egun andionengatic, erran zue Dabit Profetac, ece onec sollic, iago balio duela,¹⁹⁰ ece onec sollic, iago balio duela, ece berçe egunetatic aniç millec. *Mellior est dies una in atrijs tuis super millia* (Psalm. 117).

Au de gucion daco egun alegre, eta dichosoa; da alegrea Xto gure Jaunen daco, Maria Santissimendaco, Eingeruendaco, Apostolo endaco, Justoen daco, eta becatorendaco. Dabid Profetac erran zue Xto gure Erredentorean nombrean, ece Jaun divinoarrec bere pasio Santissimoan padecitu cituen trabaju tristeza, eta congoja guciec, convertitu cequizquiola gozo, eta alegrie andi betean, erresucitu çenean eimberce Glorie requi, egungo egunean: *convertisti planctum meum in gaudium michi* (Psalm. 29). Beñe nola da posible expliqueçea Maria Santissimec²⁰⁰ egungo egunean idugui zuen gozoa, eta alegrie? Cego Ama Santissimau bere oratorioan erretireturic oracio iten, deseo, eta Esperanza andiequi icusiçeco bere Seme Santissimoa erresuciteturic: Eman zizquio bere Amari Xto gure Jaunec dulzure andibeçuc, confortatu cue aurretic, manifestaçeco bere Ama Santissimeri eimberçe Glorie, eta eimberçe hermosurerequi (edertasunequi); eta cegolaric moduontan disponituric, eta prevenituric Maria Santissime, sartuce Xto gure Salbadorea bere amangana erresuciteturic, eta Glories beteric, acompeñeçen zutela Eingeruec, eta Sandu, eta Patriarca guciec. SSarrice belauriquo Maria Santissime, eta adoratucue bere Seme Santissimoa; eta Jesu Xtoc goratucue bere Ama Santissime, eta abrazatucue: gueldituce Maria Santissime bere Semean corpuçe erresuciteturic icuçearrequi iago²¹⁰ contentu, gozo, eta alegries beteric; ece pena, congoja, eta dolore idugui cuen, guruçe sanduen ondoan (azpien) bere Seme Jaune Xto gure Erredentorea padecicen icusi zuenean. Modu ontan egoncire Ama eta Semea aniç demoras, coloquio, edo conversacio dulce bacuten. Au de lendabissico aparecimentue Erresucitetu esqueros, gure Salbadoreac bere Amari inciona. Beñe falta dire içec, eta esta Entendimenturic, expliqueçeco, eta entendaçeco, cer favoreac incizquion, eta cer misterioac comuniquetu cizquion Xto gure Erredentoreac bere Ama²²⁰ Santisimeri ocasio ontan. Orla contacen du Maria Santissimen Secretaria andiarrec, Maria de Jesus Agredaco Venerableac, Barcabçada Ama Santissime, indut aleguiñe, beñe eciñ expliquetu dut obequi lance tierno au...

O cembat motibo dauquegu alegraçeco! Argatic gure Eliz Ama Sanduec combideçen gueitu eimberçe aldis alegraçera egun dichoso, eta pribilejietu ontan: *Haec dies quam fecit Dominus, exultemus et letemur in ea* (Psalm. 117). Egun triunfeçen du gure Erredentoreac bere enemigos, eta gures, bada garaitu citue guciec. Egun triunfeçen du gure becatu gucies, bada borratu ditu bere odol preciosissimoarequi.²⁵⁰ Egun triunfeçen du becatuen erioçeas: *ero mors tua o mors*(Oseas 13). Egun destruitu ditu gure Eredentoreac Limboco atariec, bada libratu ditu an preso zauden Profeta, Patriarca, eta Sandu Gloriosoen arimec. Eta ez sollic destruitu ditu Limboco atariec, beicic iregui-ditu ere Glorieco atariec par en par. Zaude Ceruco atariec erchiric, gure Aite Adanec becatu iñ esqueros, eta Xto gure Erredentoreac iregui dizquigu egun,

bere Pasio eta erioçarequi eta erresucitecearequi. Ycusece bada, cembat motibo dauquegun egun dichoso ontan alegraçeco. Alegragueiçen bada egun ontan, Jangoicoan egun andi ontan: *exultemus, et laetemur*: Beñe ezcarela alegratu bear, dio San Gregorio Nisenoc,²⁴⁰ munduco alegrie indecente, torpe, bano eta viciosoequi; ez ssatearequi eta edatearequi (sateas eta edateas) escesorequi, ez danza, eta cantaçe deshonestoequi, eta ein guti conversacio, eta bufonerie probocativoequi, Jangoicoan ofensetan, eta Xtoren Ilaga Santissimoen erronobaçen, aniçec iten duten becela Bazco abetan; bada lo mismo da cembeitendaco Garizume Sandue acabaçea, nola içulçea, lenagoco vicio eta becatuetera. Alegria gueiçela ordu onean, dio San Juan chrisostomo Gloriosoac, beñe alegrie Espirituale, Sagratu, eta Virtuosoarequi: *Laetitiam dicit Spiritualem, laetitiam mentis, laetitiam animi*: Eta iquen dadien gure alegrie, sandu Andionec diseaçen duen, eta²⁵⁰ obligueturic gaudembecela, Sargaicen consideraçera, cembeit egungo misterio eta acertaçeco eta frutu edo probechu atraçeco escaçagun Maria Santissimen medios Jangoicoan Gracie. AVE MARIA.

Surrexit, non est hic. Marc. 16

Maria Magalena, Maria de Jacob, eta Maria Salome, iru Maria ebec, erosi çituste balsamo edo unguendu preci(os) eta urriñ anditecoaçuc unticeco edo untececo Jesus Nazareno, Orçillerean orçi zutenan corpuçe, eta joan cire Yguende goicean, egungo egunerequi argui astean²⁶⁰ (eguzquie atra orduco berla, *Orto iam sole*). Monumenture, edo Jesusen corpuçe cegon obire; Sartucire andre piadosa aiec Monumentuen: *et introeuntes in monumentum, (viderunt iubenem sedentem in dextris coopertum estola candida)*, eta icusi zute gaste galardoat, neidu erran Eiñgueruet ssarriric cegola monumentuen Escubico aldean, elurre bequein churi cen bestidure batequi, claridade, hermosure, eta erresplandore andi betequi, ematen çuela entendaçera bere, eta gure alegrie, Jesu Xtrn Erresurecio Gloriosoan. Eta consolaçeco andre piadosa aiec aurreratu cequiote Einguere, eta erran ciote, badaquit billeçen ducela Jesus Naçareno Crucifiquetue, emen orçi zutena: *Iesum quaeritis Nazarenum, crucifixum*; Ssaquinçece bada, ece erresucitudela, eta estagola emen: *surrexit non est hic*: ona non dauquece orçizuten²⁷⁰ lecue, eta icusece nola estagon emen: *Ecce locus ubi posuerunt eum*: Sartu cire andre piadosa aiec monumenture icusiçera, beñe eçute topatu Jesu Christoren gorpuçe, cerengatic, Einguerec erran ciotem becela, erresucituce orduco. *Surrexit non est hic*.

Erresucitetu cela christo gure Erredentorea, ill eta iruguerren egunean, berac erran zuen becela, articulo fedecoa da, credoan eta articuloetan eracusten daquigun becela; eta lo mismo asegureçen digute Einguerec, eta Evangelistec, erran zute aniz demboras lenago Sibilec, eta profeticetu cute Ysaías, Jeremias, eta berçe Profetec, Yru Maria piadosa aiec, eta Apostol Gloriosoec

asegurecen digute beregui²⁸⁰ aparecitu cequiotela, Santo Thomas Apostoloac icutu cizquio escuerequi christo gure Erredentoreari, berac manaturic erresucitetu esqueros, bere costadoco, eta oiñ escuetaco lllagac, asegurececo, eta siñestaceco erresucitetu cela: *Deinde dicit Thomae: infer digitum tuum huc, et vide manus meas, et affer manum tuam, et mite in latus meum, et noli esse incredulus, sed fidelis.*(Ioam 20). Eta por fin siñestatu bear da, eta suponiçen dut, ece gucioc siñestaçen ducela, ece christo gure Erredentorea Erresucitetu cela. (*Surrexit non est hic.* Marci. 16)

Aniç cause eta motivo iduguicue christo gure Erredentoreac Erresucitetuce, beñe principalquiro erresucitetuce, eracutsiçeco²⁹⁰ guri nola vici bear dugun, nola bear tugun errenobatu gauren costumbreac, aborreciçen tuguleric vicioac, eta amaçen tuguleric virtuteac: Dio San Paulo Apostoloac. *Quoniam christus surrexit a mortuis ita et nos in novitate vitae ambulemus.* (Rom.6). San Buenabenturec erraten digu, ece erresucitetu bear direla gure arimec, becatuen erioçeti, gracien bicire, christo erresucitetucen becela. Eta nola erresucitetu ce christo? Erresucitetuce, ez berris ilçera içuliçeco. *Christus resurgens ex mortuis iam non moritur.* (1. Corin. 15). Lomismo inbeaurzu zuc becatorea, erresucitetu beaurzu becatuen erioçetic, Jangoicoan graciera, ceimbeite arimen bicie, ez berris³⁰⁰ illçeco, ez becatuic iteco, ceimbeite arimen erioçea; beñe cembat erresuciten dire, ez Christo becela ez berris illçera içulliceco; beicic Lazaro, eta berçe aniç erresucitetu cirem becela. Erresucitetu ce Lazaro, beñe berris illçeco: *Lazarus surrexit, sed iterum moriturus.* Lomismo iten dute aniç becatorec: confesaçen dire erresuciteçen dire becatutic graciera, confesorean absolbioan medios, baldiñ ongui confesatu barime dire, beñe berla ilçen dire, berla içulçen dire becatuere, eta cerengatic? cerengatic erresucitetu beicire, ez Christo becela, ez berris illceco, beicic Lazaro becela, berris illçera içuliçeco. *Lazarus surrexit sed iterum moriturus:*³¹⁰ Ebengati erraten du Isaias Profetac: *in circuitu impij ambulat:* impioac, becatoreac inguruquen, eta bueltacan dabilçela, becatuti confesiora, confesioti becatuere, ill arime, eta erresucitetu, erresucitetu, eta içuli berris illçera.

Cer Sacrifioac iten dituste aniçec confesaçean, eta começaçean Aste Sanduen, eta Bazcoa abetan! Bazcoac celebraçen dire, ez sollic alabaçeco agos Jangoicoa, beicic erenobaçeco Arimec, eta ercibiçeco Christo Sacramentatue, disposicio onarequi, começaçear equi.

Yruguerrena: Bazcoa Garizumecoan Começaça, erraten digu, gure Eliz Ama Sanduec bere irugueren Mandamentuen. Eta cumpliçen da ongui³²⁰ Mandamentu onequi? O cein perezosoac egoten dire aniç? Eta cein disposicio gutirequi começaçen dire berçe aniz! Aite Sanduec dauque declaraturic, estele cumpliçen, nolanei começaçear equi; beie dela preciso, começaça, dis-

posicio onarequi, cumpliçeco Eliçeco Mandamentu Sandu onequi. Eta ceriñen dugu ongui começaçeco eta cumpliçeco Mandamentu onequi? Nic erranen dicet, bada importaçen du aniç, alçaqueden claridadearequi, eta trebedadearequi.

Comecaduren frecuenzien preparacio, eta efetoen gueñen, ssaquiñ beaurce, Christio fielac, ece Elice fundetu ondoan Xto gure Erredentoreac bere pasio Santissimoarequi gu erredimitu eta berlaco³³⁰ dembra eietan, comecacen cirela christioac egunoro, Apostol Gloriosoen obretan erraten dem becela: *erant omnes perseberantes in doctrina Apostolorum, et communicatione fractionis panis. (Scilicet comunione)*. Guero aniç demboram buruen sollic começaçen cire Ygende oro; eta argatic costumbre arren memorie-taco eta oreiçeco ematen da orai Parroquie gucietan *ogui bediquetue* Yguendeoro. *Hoc persuadetur, dio Pataviensac, ex comuni ritu ecclesiarum Parrochialium in quibus in fine Missae porrigitur unicuique panis benedictus a Sacerdote in rememorationem praedictae sumptionis eucharistiae sacramenti:*(Patav. in S.1 die S. Pasch.). Guero erresfrietu ce³⁴⁰ debocioa, eta ferborea, eta esçire começaçen eiñ meiz, eta argatic Manatucue gure Eliz Ama Sanduec, excomecacioan azpien, começaçeçela guciec, urtean iru aldís. Bazcoa eguerrietacoan, Maieçecoan eta Garizumecoan, iru Bazcoetan. Decreto onec dion becela: *Seculares, qui in Natali Domini, Pascha et Pentecoste non communicaverint, catholici non credantur, nec inter catholicos habeantur*. Nei du erran, ece urteco iru Bazcoetan siquiera, começaçen esçirenac, esçirela idugui bear catholicotaco, eta esçeiquietela permititubear, tratacea christioequi, cerengatic zauden excomecaturic. Veguireçace ceiñ rigore andierequi manaçen cuen gure Eliz Ama Sanduec, icusiric christioac³⁵⁰ tibiza andierequi, eta debocio gutirequi, eta orai? O eta cembat erresfrietu de devocioa!

Ycusiric ceiñ dificultoso iten cequioten anis christio egui cumpliçea urtean iru aldís começaça, manaçen cuen Mandamentu onequi, icusi de preciseturic gure Elize Ama Sandue manaçera atraçegatic christioac Mandamentu au austeco peligrotic, ece siquiera confesa deiçela guciec, urtean beñ berare eta começa deiçela Bazcoabetan, eta au manaçen du excomecacioan azpien. Beñe beti deseçaçen du eta nei du Gure El(i)z Ama Sanduec meiz confesaça eta começaçeco. Ycusegun orai, nola bear den disponitu eta preparatu ongui começaçeco.³⁶⁰

Començaçeco disposicio onarequi, dio San Paulo Apostoloac, ece purifiquetu bear duela becatoreac bere arime, eta garbitu bear duela becatuen manchetati: *expurgate vetus fermentum, ut sitis nova conspersio* (1. Cort. 5). Garbitu duzu zaure anime becatorea? confesatu zara ongui? Erresucitetu zara christo becela? Christo Erresucitetu ce, berac erran zuen becela: *surrexit sicut*

dixit: Zuc erran cindio confesoreari cumplitu cindule penitencie, examiñetu cinduela ongui zaure concienzie, eta cindoacela confesaçera dolore, urriquitmentu eta damutasun verdaderoarequi, eta proposito firmearequi, ez iago Jangoicoa ofendiçeco, eta ez becatuic iteco; eta eguie da erran³⁷⁰ cinduen? Cuc erran cindio confesoreari galdicizunean bacindauquen iago becatuic confesaçeco, guciec confesatu cindituela: eta eguie da? çure concienziec estela eguie dio; eta uçi cindituela ceimbeit becatu itsusi alques, confesatu bague: au beite eguie: confesa çazquizu bada lenbeñolen, eta garbiçezu zaure arimori, becatuen manchetati: ex purgate betus fermentum ece au de lendabissico circunstancie preciso, eta necesario dena começaçeco ongui Bazcoa abetan, eta edoceiñ demoras, eta imiteçeco christoren Erresurecioa, garbiçea arime, diot, becatuen manchetati, eta gracien joatea começaçera.

Biguerren circunstancie, joateco preparaturic, eta disponituric,³⁸⁰ ongui começaçera, da ssaquitea ongui, eta sinestaçea, cer doien errecibiçera. Badaquizu christio fiela nor errecibicen duzun começacen zarenean?. Erranen duzu, ece Aldareco Sacramentu Sandue Errecibiçen duzule. Orla errespondacen dute aniçec. Beñe nor dago Aldareco Sacramentu sanduen? Ostie consagratue erraten dute berçe baçuc. Eta nor dago ostie consagratuen. Jesu christo gure Jaune, Jangoico eta gizon verdaderoa. Acabaçazu beingoas. Lendabissico aldien errespondatu cinducie ori. Beñe estute errespondaçen aniçec, cerengatic bici beitre Misterio, eta Sacramentu Sanduonen ignorancie andi betequi. Ni expliquetuco neiz, eta atendiçece. Começaçen denean bat, errecibiçen³⁹⁰ du Xto Jure Jaune enteroa, eta verdaderoa, viciric, corpuçe eta Arime eta Divinidadeta, edo Jangoicoa. Beñe ostie consagratuen principalquiro dago Jesu Xtren corpuçe. Cerengatic Sacerdoteac, ostien edo oguien guënen erraten dituen consagacioco itcen medios, ogui ore convertiçen da Jesu Xto Gure Jaunen corpuçen, beñe nola beite corpuz ore, biciric dagon gizon batena, daude corpuçen acompeñeçen, Jesu Xtren odol precioso eta Arime: *per concomitantiam immediatam*: erraten dute Doctorec. Eta nola Xto gure Jaune beite gizon, eta Jangoico verdaderoa, argatic dago ostie consagratuen Divinidadeta ere. Eta errateco itç betes: (christio fiela), começaçen zarenean, christio⁴⁰⁰ fiela, ematen ceizu, eta errecibiçen duzu Jesu Xto gure Jaune enteroa, eta verdaderoa, viciric, corpuçe eta Arime eta Divinidadeta, edo Jangoicoa, Cerengatic au guciau arquiçen da ostie consagratuen, dela andie, edo dela chiquie, eta neiz partidezatela mille particuletan, lomismo dago parteric chiquienean, nola andienean. Eta caliz consagratuen dago principalquiro Jesu Xtren odol precioso, cerengatic consagracioco itçen medios ardo converticen da Jesu Xtren odol preciosoan, eta lomismo daude odolarren acopeñeçen Xren gorpuçe, arime eta Divinidadeta, edo Jangoicoa. Entendatu duce ongui? Ssaquin cece bada iago; ece ostie consagratuen, estagola oguien substencie-

ric,⁴¹⁰ beicic sollic daudela acidenteac, ceimbeitire oguien colorea, Vrrriñe, eta gustoa: eta ein guti caliz consagratuen arquiçen da ardoan, substencieric be(c)ic sollic acidenteac; ardoan colorea, gustoa, eta Vrrriñe, beñe estago ardoan substencieric; cerengatic sacerdoteac itc consagracoac erratean medios, oguien subste(n)cie convertituce Xtoren corpuz preciosoan, eta lomismo ardoan substencie, consagracoa itçen medios, convertituce Xtren odol preciosoan. Argatic sollic gueldiçen dire acidenteac, Vrrriñe, colorea, eta gustoa. Au guciau da preciso ssaquitea, eta ez uçi acençera...

Au ssaquin bearda ongui, eta siñestatu bearda firmequias, eta⁴²⁰ avivetu bearda fede au, principalquiro comecatu bear denean: eta consideracen dularic batec, aldebat bere miserie, eta bajeza andie, eta berçe alde Jesu Xtren grandeza, eta Magestadea, erran beardio Centurionac becela: *Domine non sum dignus etc.*Jaune ni esneiz digno, estut mereji oren Divina Magestadea Sardadien ene ostatu pobre ontan, ene corpuç becatariontan, beñe alare orren itç Sandue erran esqueros, siñestaçen dut firmequiro, ece ene becatuec iquenen direla barcatuec, eta ene arime iquenen dela Sana, eta Salba eta erran bearda afectoarequi, fedearqui, humildadearequi, eta fervore andierequi, beñ, bi, iru eta aniç aldis; ece cembatenas iago disponituric doien⁴³⁰ bat, iago gracie, eta aniç iago favore errecibituco du Xren ganic, bada Jaun Divino ore da ur bicien iturrie: eta ala nola iturri betetic cembatenas gurbille, edo ferrata andiego eramoçen duen batec, ecaricen duen ur iago, lomismo cembatenas bat obequi disponiçen den começaçeco, iago gracie errecibiçen du, eta preveniçen dicet, ece baru naturalen comecatu bear dela, naut erran, ece gauesco amabietatic aurrera, den gauceric chiquiena ssan, eta edan bague comecatu bear dela; eta au de iruguerren circunstancie ongui disponituric comeceçeco. Eta comecatu ondoan, esta atrabear berla Eliceti, aniç debocio baguecoec, eta desatentoec, edo errespeto baguecoec Jesu Xto errecibitu dutunari,⁴⁴⁰ iten dutena becela. Detenitu bear da graciem ematen espaciorequi (ordu erdi bates, edo gutiena ordu quartoates) ofreciçen Jangoicoari bere bioça, eta bere arime: escatu bear dio Jaune Divinoarri comecatu denac, emançola bere gracie, perseberancie, caridadea, humildadea, paciencie, eta bere necesidade guciem erremedioa; bada dio Jangoicoac: escaçogule, eta emein ceigule, edo errecibituco dugule: *petite, et accipietis* Eta comecatu ondoan da demboraric oberna, escaçeco Jangoicoari eta alcançaçeco necesiteçen dugun gucie.

Sacramentu Sandu onen efectocac dire aiñ andiec, eta admirableac, ece esteiteçque ez eran eta ez expliquetu. Ematen du cembeit aldis⁴⁵⁰ lendabissico gracie. Expliquetuco neiz. Erran dut lenago, ece começaçeco, edo errecibiceco sacramentu sanduau disposicio onarequi, graciem joan bear dela. Sucedicen da ceimbeit aldis confesaçea bat bere ustes ongui eta arrepeniçea deberas; eta ez iquetea dolore ore berdaderoa: eta nola dolore edo damutasun verdadero-

ric bague ezpeiteque barcatu becuric gueldiçen da confesaçen den ore bere ustes graciën ; beñe errealidadean becatu mortalen comecacen da, eta sacramentu sandu onec supliçen dio, confesaçean faltatu cequion dolore verdadero ore, eta ematen dio confesioan errecibitu bear cuen gracie. Beñe au entendaçenda, confesaçen denean bat bere ustes ongui, eta⁴⁶⁰ joaten denean começaçera bere ustes graciën; cerengatic daquielaric gueizqui confesatu dela, começaçen barimeda, ez sollic, estio emanen sacramentu sandu onec graciëric, beicic iñendu becatu mortale andibet, eta Sacrilejioat, modu ontan começaçen denac. Barcacen ditu sacramentu sandu onec, becatu confesaturiquequoen gatic, mundu ontan, edo purguetorioan padecitu bear ciren penen parte andibet. Purifiquecten du, edo garbiçen du arime becatu benialen manchetati, arrepençiçen bada começaçen dena becatu beniales. *O quale donum, ubi Deus datur semetipsum* O cer favorea, eta Beneficioa Jangoicoa bera ematea! dio San Vicente Ferrer Gloriosoac. Berçe Sacramentuetan ematen da gracie, beñe⁴⁷⁰ Sacramentu ontan, começaçean diot, graciërequi batio ematen da sacramentu guciën jabea, Jangoicoa bera. Libraçen du arime Purgatorioco penetati, dio Santo Thomas de Aquinoc.

Eta nola beite alimentu espiritualea, corpuçeco alimentuec becela, sustentaçen, aumentaçen du fortaleçiçen du, eta alegraçen du arime Sacramentu sanduonec: *Sustentat, auget, et delectat*: dio San Vicente Ferrer gloriosoac. Bene sacramentu sanduonen efecto principalena da: *transformatio hominis in Deum*. Uniçeça arime Jangoicoarequi, aumentaçeça virtute guciëc, eta errecobraçeça, becatuen medios, galduriquequo lenagoco obra onguçiën merejimentuec. Eta por⁴⁸⁰ fin Jangoicoac berac dio: *qui manducat hunc panem vivet in aeternum* (Ioan 6 v. 59); ogui espiritualeau ssaten duena vicico da eternidade guciën: beñe ssan bear du disposicio onarequi, graciën dagolaric, cerengatic disposicio gueistoarequi, edo becatuen dagolaric ssaten duenac, começaçen denac becatuen neidu erran, ssaten du bere juicioa, eta condenacioa, dio San Pauloc Apostoloac: *Qui manducat indigne, iudicium sibi manducat*; esneiz iago deteniçen, exemploetara joateagatic. Aniz exemplo arquiçen dire probaçeço Xtren erresurreccioa, beñe usten ditut, cerengatic gure fedeac ezpeitu bear exemploeric, siñestaçeço Artículo au.⁴⁹⁰

Conveni dena, eta importaçen dena da, erresuciteçeça Xtorequi. Bazcoa abetan, eta imiteçeça Xtoren erresurreccioa; erresucitetu, becatutic graciera, ez berris becatue iculçeço. Comecatu concieñcie puroarequi, fedearrequi, devocioarequi, eta deseo fervorosequi, errecibituçeço Xto sacramentatue, bada Jangoicoac aiçen ditu deseo verdaderoac, etc.

Omnia sub correctione sanctae Romanae Ecclesiae.

III

Quarto Mandamiento. De la obediencia a los Padres. Año de 1769.

*Honora Patrem tuum, et Matrem tuam, ut sis longevus super terram, quam Dominus Deus tuus dabit tibi (Exod. 20. cap. 12.)*⁵⁰⁰

Jangoicoan disposicios, Jangoicoac ala neiduelaric, Madril gure Ereguen Cortetic, urruti vici garenoc, esçaquegu logratu, eta alca(n)zazu Jangoicoac Mundu ontan eman cigun gauren Jaun eta Jabea, gure Erregue icustea, ore amaças eta serbiçças bere personan, iquenen ginduquen gozoa, alegrie, eta contentue; beñe faltau suplicen da paraçarequi dosel eder baten azpien Erregueren quadroa, cortetan iten debecela, aparato, Magestade eta grandeza, Erregue berari correspondicen ceionarequi; eta quadro arri, guciec ecarçen diote errespeto, atencio, eta erreberencie andibet. Eta errespeto, eta atenciore gucie, ecarcen ceio quadro arri beregatic?, ez; Ytenceio⁵¹⁰ quadro arri eimberçe erreberencie, pinturen coloren gatic? ein guti. Bada cerengatic ecarçen ceio quadro arri eimberçe atencio, cerengatic itenceio eimberçe erreberencie? cerengatic quadro arrec oreicen geituen Erregueren personas, cerengatic erreprentaçen digun quadro arrec Erregue bera. Argatic guciec itendiote erreberencie andi bet, guciec ecarçen diote errespeto, eta atencio andibet. Xtio fielac, ceruen dauquegu Erregue bat, Jaunbet, Aite bat, ematen digune, dugun iquetea, ematen digu sustentoa, edo alimentue, ematen digu atsarça, eta vicie, ematen digu garen gucie, eta dauquegun gucie; eta presente barimeda-gore lecu gucietan, eta gure beiten arquicen barimeda ere,⁵²⁰ esçaquete icusi gure beiguie, cerengatic beite espiritu purissimoa, edo espiritu utse, edo gorpuz baguecoa, eta argatic paratu cigu gauren aurean bere imagen bat, gorpuz dune, eta guc icuseque gune, paga çogunegatic, Jangoicoari bere imagen ontan, zordizquiogun atencio, obediencie eta errespeto guciec. Eta cein dire Jangoicoan erretrato abec, cein dire gure Aite Cerucoan imagen abec, Dosel eder batean bequela, errespetatu, eta obeditu bear ditugun abec? Oiec dire gure Eite, eta Amac, ebequi deitu ciote Platonec, Jangoico Munducoac, ebec, Eite eta Amac, deiçen tu (Estobeoc) biguerren criadoreac, Jangoicoa den bequela lendabisico criadorea: Filonec deiçen ditu Jangoico⁵³⁰ icusten direnac, bada Jangoico berdaderoa esçaquegu icusi; eta Catecismo Romanoac eracusten digu, Eite eta Amac direla, gure Eite Jangoicoa erreprentaçen diguten imagenac. *Sunt enim Parentes immortalis Dei, quasi quaedam Simulachra* Plutarcoc erraten digu, Jangoicoas landara Eite, eta Amigui zorçietela atencio, errespeto, eta obediencie gucie. Santo Thomas gloriosoac eracusten digu, gauce guciec beño iago, bear dugule erreberencietu Jangoicoa, eta Jaun divino ones landara Eite, eta Amac direla, iago errespetatu bear direnac. *Pos Deum est homo maxime debitor Parentibus.* Jangoicoas landara, ioregui estiola

eimberçe zor humebatec, erraten digu Sandu⁵⁴⁰ glorioso onec. Bada eimberce atenciorequi erresetacen barimedugu, eta beardugu, Erregue munducoaren quadroa edo imagena ceñ atencio andierequi erresetatu, eta obeditu beartugu, gure Aite Jangoico Ceruco Erreguean imagen biciabec, ceñ beitre Aite, eta Ama? Eta ezauçeceñagatic obequi, cembat zor diozen espiritu sanduec berac, erraten du *Memento quoniam nisi per eos natus non fuisses* (Eccles. 7). Orai ceite, ece Aite eta Amengatic ece eșçinela ssaioco. Orei ceite erraten dizut nic ebegui zor diotezule, duzun icetea, osasune, vicie, eta dituzun ondasun guciec. Eta ezauçeeco obequi, cembat zor ceioten Aite eta Amegui, Jangoicoac bere beaçarequi escribitu zuenean bere⁵⁵⁰ Legue Sandue, lendabis-sico iru madamentuetan escaçen digu viotz gucie, beraren amaçeço, escaçen dizquigu gauren mie, eta itz guciec, beran alabaçeço, eta escaçen dizquigu gauren obra guciec, Jaun Divinoaren adoraçeço, eta erreberencieçeço; eta berla laugueren mandamentuen manaçen gueitu Aite eta Amac honrratu, obeditu, eta erresetata çazquigule. *honora Patrem tuum et Matrem tuam*; cerengatic esta asqui Jangoicoa amaça, eta honraça bera sollic, beicic amatu, eta honrratu bear digu bere imagen biciabetan, cein beitre Aite, eta Amac. Esta asqui honraça Erregue Espeiñeco, Madrillen bera icusten dutenec; honrratu beaur digu guc ere, emen, bere imagen vicietan,⁵⁶⁰ ceimbeitire Bisorreie, eta gueiñeraco Erregue errepresentacen duten Ministroac. (San Lucas Evangelistec erraten digu) Eta ala iduquece por cierto, ece Aite eta Amac honraçen estuenac, eiñ guti honrratuco tuela Jangoicoa eta proximo lagunec. Nola honrratu beartu proximo lagunec? Aite, eta Ama lendabissico proximoac iquenic, honrracen estuenac? eta nola honrratuco du Jangoicoa icusten estuena, despreciçentuenac Aite eta Ama, cein beitre Jangoicoan imagen viciec, eta Jangoicoan lecuen bere aurean dauzquinac? Erraten digu San Juan Evangeliste gloriosoac. *Qui enim non diligit quem videt: Deum quem non videt quomodo potest diligere?* (Ioan 4, v.26). Bada ezparimeda ona, ez⁵⁷⁰ Jangoicoandaco, eta ez proximo lagunendaco, Aite eta Amac, honraçen eta erresetacen estuena, norendaco iquenen da ona? infernureco sollic, Ebaguçezu besoat gorpuçeti, cer iquenen da beso ore? usteltasune, arrac, eta corronpicioa. Ebaçuçezu arrama bat arboleti, cer iquenenda arramore?, egur seco pusque bat, suendaco beicic, balio estuena. Bada ori berori de hume gueistoat, Aite, eta Amac, herespetaçen eta honraçen estuena, erraten digu San Pedro chrisologo gloriosoac. *Sic separa filium a devotione paterna, et iana non est filius*. Beñe hume gueistoa, semea, edo alaba, erreñe, edo suie, edo cein zarala, aicezu atencio andierequi, espiritu sanduec berac,⁵⁸⁰ erraten dizune. *In omni opere et sermone et in omni paciencia honora patrem tuum*. Honrratu beirtuzu, ene seme, Aite eta Amac, obras, itçes, eta paciencie andierequi. Au erraten dice seme, alaba, suie, eta erreñe guciogui Espiritu Sanduec berac, eta cumpliçen duçe? ceñ guti! Proseguçeço, escaçogun Maria Santissimeri bere gracie. Ave Maria.

Honora Patrem tuum, et Matrem tuam, ut sis longevus super terram, quam Dominus Deus tuus dabit tibi (Exod. 20 cap. 12).

Berla danic, confesaçen dut, gana gueistoarequi sarçen neizela Mandamentu sanduonen expliquecioan, cerengatic iduri ceide ece sollic atraco dutela obliguecio abetas oreitu arastearequi iquetea zuen⁵⁹⁰ becatuec iago, eta andiegoac: (cerengatic) bada aniçec estuce berdiñ cumplituco zauren obliguecioequi. Eimberçe hume gueisto icusten da, Aite eta Amac errespetaçen estutenac; eimberçe Aite, eta Ama arquicen dire humen ongui aciçias, casoric iten estutenac: humeac eiñ atrebituec, eiñ atencio bagueac gureatsoequico; Gureatsoac, (alde bat) eiñ desconsalutiric, aflighturic, ordu onic estutela, eciñ burutus beren humequi: Nic estaquit, edo diren humeac gueistoago, beren desverguenzas, eta errespeto faltas, Gure atsoequico, edo Gure atsoac diren gueistoagoac, beren descuido eta assolacabeas, beren humequico. Ycusten dugune da, aniç seme, alaba gueistoac, atrebituec eta⁶⁰⁰ desvergonzatuuec: Eta aniç gure atso gueisto, beren humen ongui aciçias, casoric iten estutenac. Eta alare, ez batac, eta ez berçeac, gucien comun, estire acusecen becatu horrible abetas. Ene beldurre da, gure atsoac, humengatic, eta humeac gure atsoengatic galdu deiçen seculuco.

Expliquetuco dizquicet guciogui zauren obliguecioac, esçacen iquen escuseric Jangoicoan tribunalean. Asico neiz, humen obligeciotatic, guero expliquetuco ditut gure atsoenac. Jangoicoa lagundaquigule, acertaçeco. Honrratucotuzu zaure Aite, eta Ama, vici lucea iquen zazun mundu ontan. Ytzabequi eracusten digu, eta manençen⁶¹⁰ digu Jangoicoac bere legue sanduco lauguerren mandamentue: *honora Patrem tuum et Matrem tuam, ut sis longevus super terram*: honrratucotuzu Aite, eta Amac; cerengatic dio honrratucotuzu? eta cerengatic estigu erraten amatuco tuzu? Badaquice cerengatic erraten digun honrratucotuzu? Cerengatic honraçean dagon gucie comprehendituric. Honrratucotuzu zaure Aite eta Amac, erraten digu lauguerren Jangoicoan Legueco Mandamentu sanduec. Ytz laburrabetan ençerracen dire lau obliguecio, erraten digute Eliceco Doctorec. Obliguecio abec dire. 1. obediencie. 2. erreberencie. 3. amorea, eta 4. alimentue edo sustentoa. Beñe hume batec gureatsoategui zor dizquion lau obliguecio⁶²⁰ abetatic, sollic expliquetuco dut gaur lendabisicoa, ceim beite obediencie.

San Paulo Apoloac erraten digu humec obeditu bear diotela Gureatsoequi. *Filij (sto) obedite parentibus vestris* (Ad Eph.6). San Anselmo gloriosoac expliquecen du eta erraten du ece Gureatsoequi, obeditu bear ceiotela, Jangoicoan servioraco, Jangoicoan Lege Sanduen gordaçeco, eta echearen eta familien ongui governaceco diren gauçe gucietan (obeditu bear ceiotela gureatsoequi) eta gauçe abetan gucietan, ez obedicea gureatsoequi, ebec manaçen

dutena, gauce grabea denean, beti de becatu mortalea. Eiñ puntual egon beaurte humec,⁶³⁰ gureatsoec manaçen dioten gucie itera, ece gure atsoec manaçen dioten gucie inveaurte Jangoicoac berac manatu balioquete becela. Jeremias Profeta gloriosoac erraten digu, Jonadabec manatu ciotela bere humegui, es cezatela ardoric edan beñere, *Pater noster precepit nobis dicens: non bibetis vinum*, eta iquen cire eiñ obedientac Jonadaben humeac, ece San Agusti gloriosoec erraten digu, obeditu ciotela, eiñ gogotic beren Aiteri, nola Jangoicoari berari, eta ala eçutela beñere ardoric edan. *acceperunt tamquam praeceptum a Domino Deo suo*. Eta arraciorequi, cerengatic hume onac, hume obedienteac, guardatu eta obeditu beirtu gureatsoac manaçen dizquion guciec, eiñ ongui eta⁶⁴⁰ puntual, nola Jangoicoac berac manatu balezozquioque; eta ez sollic iñ beaurte hume onec gureatsoec manaçen dioena, beicic manatu bague siñuetes entendaçera ematen diotena. Dichosoac eta bienabenturetuec hume obedienteac! Bada ecbec, ez sollic dire beren gurasoen humeac, beicic Jangoicoan hume erregalatuec. *Eris tu velut filius Altissimi obediens*. Erraten digu espiritu sanduec. Yquenen zara obedienta, Jangoicoan humea becela. Bai por cierto, cerengatic gureatsoegui puntual, eta gogotic obediçen diotenec, estirudite gizonen humeac, beicic Jangoico Altissimoaren humeac.

Beñe esta faltaco acaso hume gueistorem bat erran duena ece⁶⁵⁰ obediçea guisontan gureatsoegui origueilçendela aurren daco seme alaba gasten daco; beñe anditu esqueros, estado artu esqueros, humes beteric dagon bat, nausi edo echeco andre denean, seme bat edo alaba bat egon bear du Aite zarbaten chocho viurturic dagon baten eta Ama zar impertinente oñen gueinen iciñ dagoquen baten sugecioan, eta obediencien? Ha Jaune! Cembat seme, eta alaba gueisto arquiçen dire, au erraten dutenac?, eta ez sollic erraten dute beicic ala iten dute. Cembat hume gueisto arquiçen dire, Aite eta Ama zarres echecoac ezipalire beño iago, casoric iten estutenac?. Bai Jaune, Alaba gueistoatec seme guestoatec suie eta erreñe Jangoicoan beldurric⁶⁶⁰ estuten baçuc, gu gara nausi, eta echeco andre, erratearequi iñ eta desiñ beaurte Aite eta Amequi comunicetu bague, daustes conturic eman bague; den eta esten gucie arreatu bear dute, eta Aite eta Amec estute iquen bear erral baten jabe, estiren beño iago. Eta au pasacenda Munduen! Siñesta deiteque au guertaçen dela Xtioen erthan! Ojala ezipaledi ala gertatu! Estuce ezauçen Xtio fielac lendabissico nausi eta echecoandreac, Aite eta Amac direla ducen eta estucen gucie ebena dela? Bada nola correspondiçen duce, nola duce valoreric eiñ queiçi portaçeco! Emenda ceiste, iregui ceizquece veguieç Jangoicoan castigoa espermentatu beñolen. ha, cembat Aite eta Amec erraten dute⁶⁷⁰ bioçeco miñerequi: humeac aci eta gueiçec vici!, eta arraciorequi; cerengatic aniç hume eiñ gueizqui portaçen dire, ece consolatu eta alibietu bearrean beren Guratsoac, Jangoicoac zarzaroan medios, neque eta trabajus beteric ematen

dizquioten beren azqueneco urte eta egunetan afligiçen eta mortifiquecen tuste iago, beren desairequi, accione gueistoequi, veguireçe zorroçequi; eta gueñeraco içes eta obras iten dizquioten accione gueisto eta laburegui: eta pasarasten dizquiote gure Atso tristegui beren azqueneco egunec melancolies, penas, suspiros eta congojas beteric, eciñ gorzaquetela aniç aldís⁶⁸⁰ gueisoece nei baute ere viotça Jangoicoagana, pena, congoja eta mintasuneren medios. Eta gucie, hume gueisto desagradecituengatic! Non da Jangoicoan leguea, non da Lauguerren mandamentu sanduen humegui gureatsoequico manaçen ceioten honrraçea, eta obediçea? Aniç barbaroec, eta gentillec, federic esçutenec, Jangoicoa ezauçen esçutenec ere, obequi obededitu eta errespetatu zituste beren guratsoac, ece orai Xtioen ertean obediçen eta errespetaçen tusten cembeit umec. Aiçece Xtio fielac, aiçece hume gueistoac! nola portatu çen gentil bet. Decio ceriçon, Emperadoreac nombratu zue bere lecuen, seme bat emperadoretaco, beñe semeac esçue nei iquendu admititu⁶⁹⁰ emperadorean dignidade andiore. Badaquice cerengatic? Aiçece hume gueistoac, eta alquetu eta confundi ceiste; estut iquen nai emperadore edo erregue, cerengatic emperadore edo erregue iten baneiz, esneiz portatuco naure Aiterequi obliguocio duten, humildade, errespeto eta obedienciarequi; eta ala, niego dut galdu emperadoretasune, ece galçea naure Aiteri, humildadea, errespeto, atencioa eta obediencie. *Malo non esse Imperator, et humilis filius, quam Imperator et filius indevotus.* Ha, cer itçec! ha, cer semea gentille barimecere! Estimeçea yago, bere Aite errespetaçea, eta obediçea, ece Emperadore edo Erregue icetea; bada iago estimetu zue Aite errespetaçea, ece Emperadorearen⁷⁰⁰ Corona gozaçea. Esçara alqueçen alaba gueistoa, esçara alqueçen seme gueistoa, estarate confundiçen suie, eta erreñe Jangoicoan beldurric estucenac, gentillonec eracusten dicenarequi?. Eta alare pretendituco duce orai artio becela itea eta desitea echean zauren antojure Aite eta Amequi comunicetu bague; eta Aite eta Amac daudela issillic, sufriçatela, aguanta dezatela eta ler inçetela sentimentus? Xtio fielac, Xtio fielac, nic estaquit norc emandicen Jangoicoan leguean dispensau? Estaquit norc dispensatu ceitusten Aite eta Amegui zor dizquiocen atencio, errespeto eta obediencieti? Norc semea eta alaba, suie eta erreñe, andiego eta zarrago barimedire ere; Nausi eta⁷¹⁰ echecoandre barimedire ere, humes beteric barime daude ere, norc dispensatu ditu Jangoicoan legue sanduti, eta Aite eta Amegui zor dioten errespeto eta obediencieti? Yorç ez, ezpeiçaque iorc dispensatu. Esta berçeric, beicic beren atrevecie, eta Aite eta Amegui sopra escu arçea, eta Jangoicoa ofendiçea. Beñe beldur neiz Aitec eta Amec berec dutela culpe gucie!: gueizqui aciçen tuste, sopra maitecen tuste, sobre libertade ematen diote, gaste zututic, eta guero humeac anditu eta gogortu, eta eciñ sugetatu; eta motibo ones gure Atsoec eramoçen tuste sentimentuec eta pesalombrec, eta hume gueistoec ofendiçen dute

Jangoicoa eta galçen tuste beren arimec.⁷²⁰ Beldur neiz, Xtio fielac, gureatsoec humengatic, eta humec gureatsoengatic berçe munduen paga dezaten guciec.

Yduquiçece por cierto, ece humeric maitena ganic, eramo beairtuçela sentimenturic eta pensalombritic andienac; eta bercela erreparaçace gucien comun, humeric maitena itendute gure Atsoec eredere, eta erriontan, aldemenecoan eta berçetan, icusten dugu ece, guciec edo guciec, ezpada ere gueienac, gueizqui proçedicen dutela, desagradecituec direla, eta estiotela ecarcen errespetoric gure Atsoegui: berla goraçen dire hume gueistoac echeco manejoarequi, eta esçaqueti iñ cerengatic gure Atsoegui toçaçen beiceiotec echeco maneju⁷³⁰ azqueneco atsarçereño. Eta au clara da, bada contratoetan ezarçen dute gure Atsoec eredereac itentustenean, iten dutela eredere beren semea edo alaba, beren suiarequi edo erreñerequi, eta erreserbaçen dute berendaco bici diren artioco echeco señoia, manejoa eta itea eta desitea, au ezarçen da contrato gucietan; eta au eiñ clarõ egonic ere, hume gueistoec, hume desobedientec, errespeto baguecoec, iqueten dute atrebimentue equençeco gure atsoegui drechoat ein clara, berec iñ eta desiten dutela gauce gucies, gureatsoequi comunicetu bague, eta iduqiçen dituste desprecieturic campocoac lirequen becela, marabiten jabe estirela gureatsoac. Au cabicen da Xioen ertean! Au de Jangoicoan⁷⁴⁰ Leguea? ez, beicic lucifer infernuoan leguea da. ha, hume gueistoac, noizbeit damutuco ceice, provechuric bague. Gure atsoac affligiçen tuena, eta mortifiqueçen tuena, iquenen dela desgracietue, eta desventuret(u)e, erraten digu Jangoicoac verac: *Qui affligit Patrem, et fugit Matrem ignominiosus, et infelix erit* (Levit. 20). O cembat aniç urtes vici bear cirenac gureatsoen desobeciengatic, ill dire, gaste zuten adiñic obernan, desprecieturic afrenta publicoan! Jangoicoan castigoa da, hume desobedientac, guti biciçea, eta beren vici laburre mille neque eta penen ertean pasaçea: Eta au asco exmpleorequi provaleiteque.⁷⁸⁰

Al contrario hume humillegui gure Atsoac honraçen, hobedicen eta errespetaçen tustenegui, ofreciçen diote Jaun Divinoarrec vici luce eta diches beteriquecoa: eta au ez beiñ sollic, beicic bi aldiz: *honora Patrem tuum et matrem, sicut praecepit tibi Dominus Deus tuus, ut longo vivas tempore*. (Deut.5 v.16); (Exod 20. cap. 12). Aiçece Spiritu sanduec erraten digune. Aiçezquizu ene seme (erraten digu Jaun amorosoarrec) zaure Aiten consejuec, eta obediçozu zaure amari, manaçen dizun gucien: *Audi fili mi, disciplinam Patris tui, et ne dimittas legem Matristuae*. (Prov. cap.1 v.8). Ceiñ ongi eitu zue espiritu sanduen consejuau Erregue San Fernando gloriosoac! Erran⁷⁶⁰ ciotec Sandu glorioso oni, bere Erreñucu Grandec, Marques, eta Duque ec esçirudiela ongui Erregue batec obediçea eimberçe bere Amari: Errespondatu cue inquietaturic: Cer, Erregue iquen agatic, ez nago obliqueturic obediçera naure Amari? Erregue iquenagatic ez nau obliqueçen Jangoicoan Legue Sanduec

errespetaçera eta obediçera naure Amari? Ycusten duce hume gueistoac, nola errespetaçen eta obediçen tusten gure Atsoac, Erregue Jangoicoan beldur direnec? Eta alare, seme eta alaba gueistoaçuc, usteco dute ece cerengatic dauden ezconduric, cerengatic intusten erederu beren gure atso oneguiec, estaudela obliqueturic errespetaçera eta obediçera gureatsoegui? Obligueturic⁷⁷⁰ daude eta egonen dire azqueneco atsarçereño.

Xtio fielac, eituçe nola obediçen cion San Fernando Erregue andiarrec bere Amari? eta eșçarate confundiçen eta eșçarate alqueçen zauren gureatsoequico desobediencies, eta errespeto faltas! Bada esta icendu Erregueau bacarric bere Amari obediencie andie ecarridiona; lomismo iten zue San Luis Francieco Erregue andiarrec, eiñ puntual obediçen cio bere Ama D. Blanca, Espeiñeco Ynfanta andiarri, ece murmureçen zute bere basalloec sobre obediçen ciola, eta sandu gloriosoarrec errespondaçen ciote: Erregue barimece ere, eșçuquela iñ berçeric, beicic obeditu bere Amari, ez iqueteagatic seme gueistoa.⁷⁸⁰ Estire asqui exemploabec, Erregue sandu abec ematen dizquicenac, zuec emendaçeco, zuec errespetaçeco eta obediçeco zauren guratsoac? Ez? Eičeçe bada, Erregue gucien Erregueac, Xto gure Erredemptoreac, Jangoico eta guizon verdaderoac, ematen dicen exemploa eta eracusten dicen obediencie, zauren gureatsoequico, Evangelio Sanduec erraten digu obediçen ciotela bere Ama Marie Santissimeri eta San Jph bere Aite ordeari; *et erat subditus illis*. Eta cetan usteduce obediçen ciotela? Pensa aldeitequen gauceric menosenetan, eta humillenetan. Bada San Vicente ferrer gloriosoac, erraten digu bere Ama Marie Ssri, obediçeagatic echea chauçen zuela. Jango gizona escoa bat escuen artu,⁷⁹⁰ eta echan chauçen! Eșçara arriçen hume desobedientea! Bada gucie in zue zuri eracusteagatic, nola obeditu bear diotezun gaucе gucietan zaure gureatsoegui. San Bernardo gloriosoac erraten ditu: errepara çaçe norc obediçen duen eta nori obediçen dion? *Quis quibus?* Norc obediçen du? Jangoicoac berac, Nori? criatureguei, Jangoicoan pean eta azpien daude criature guciec. Jau(n) Divino oni obediçen diote Einguereuc, Serafinec, Querubinec eta criature guciec ere bai. Eta zuri erascusteco nola bear diotezun obeditu zaure gureatsoegui eta gueñeraco obediencie zor diotezunegui, obediçen dio Marie Santissimeri, eta obediçen dio San Jph., bere Aiteordeari. Yquesazu⁸⁰⁰ gizona obediçen Jangoicoa ganic. *Disce homo obedire*. Jangoicoa humilleçen da obediçera, eta zuc soberbies beteric estiozu obedituco Jangoicoan lecuen dauquezun, zaure gureatsoari? *Deus se humiliat, et tu te exaltas?* Yquesazu gangoicoaganic obediçen, zuc guizona, lurre, autse, soberbioa, eta alquetu ceite zaure soberberbies, Jangoico guizonac eracusten dizun humilidadearequi. *Disce pulvis obtemperare, erubescere superbe cinis* (Bernard. Homil 1 *super Missus est*). Obediçotezu Xtio fiela, zaure gureatsoegui, eta gueñeraco obediencie zor diotezun guciegui, Jangoicoac eracusten dizun becela; eșçaquezu

iñ gauce andiagoric eta zure arimeri iago valietuco daquionic, nola⁸¹⁰ obedi-
cea. Jangoicoac berac erraten digu, neiego duela obediencie, ece sacrificio
guciec. *Melior est obediencia, quam victimae.* Eta Jaun Divinoarrec obedientegui
ofreciçen diote aniç gracie cantaçeco ebec aniç victorie. *Vir obediens loquetur
victorias.* Al contrario desobedientegui amenazaçen diote Jaun divino arrec
vici laburre, mille plaga, desgracie, pena, trabaju eta desdiche: *Irruat super eos
formido, et pavor: fiant immobiles quasi lapis* (Exod. c.15). Desobedienten gañen
erori beiç, dio Jangoicoac berac, beldurtasune, sustoa, espantue eta gueldi
deiçela ecin mogitus, arriec bequela.

Bibl.:

Muruzabalgo bilduma. Ororbia.

Argitaragabeak. 150 x 210. 8, 10 eta 11 orrialde (JMS).

25. DONOSTIA (1761)

*Bi gazte maiteminduren amodiozko gutunak zor dizkiogu 1761eko auzi batean
erabilitako paper bildumari. Jose Manuel Zaldua, donostiar gazteak, pazko bibara-
mun batez ezagutu zuen Maria Josefa Agirre, Altzokoa, eta bat-batean sortu zen
bien arteko adiskidantza. Hiri barresien ondoko pasealekua aipu dute gutunetan.*

*Mutilaren familiak ez zuen begi onez ikusten adiskidantza hori eta aitzaki
askoren bidez eragotzi nahi izan zuen ezkontza. Besteak beste, odol garbia eta
familia bien arteko maila desberdina aipatzen dira donostiarren kezka nagusitzat.*

*Neskatoari ez zitzaion asko gosta pundu hori argitzea. Bere aita-amak jato-
rriz goizuetarrak ziren, familia onetakoak eta karguetan zeudenen senideak.*

*Epaiak baieztu egin zuen gazteen eskubidea anderegaiari arrazoia emanez,
baina mutila desagertu egin zen. Ameriketara joan ote zen zioten batzuek, eta
Frantzian izkutaturik zegokeen beste batzuren ustez. Horrela amaitu zen, ezkontza-
rik gabe, asmo politen egoera liluragarria.*

Orohar zazpi gutun dira; neskarenak bi eta mutilarenak beste bostak.

I

Nere pepe Maittea zuc nai vadesu, eguina dago Jauza, Justiya zu uirme,
egotearequin, sure ychean eta nic eguingo det emen vear dan Justiya Santer-
moco, braileaquin egingo det apaisuc eta ynor qansatu gave Jastu gustiya,

Neronec eguingo det, Saude quidado gaue ni uchi vaninduzuque uesela triste zeriyo zeronec, daquizu sure, echeco, geniyoa eta zaude, naizun besela echean, banon beguirosu sure, yzean, birme, saude neronec gustura eguingo det.(f. 97) Su, bazera mutila zure ychean, uirme zaudena Bigaldu bear dirazu papera zure esqus eguina uirmachen, desula birmesa Justiyarequin pepe Sergatic Uestela ere Braileac ezan dirate¹⁰ espenza ecarcheco Uear dela esconcheco papera ecarico digutela ynorc estaquiyela espenza suregan dagoela uirme egotea echaitesela yzutu aMadreac orela aMenazatuagatic estizute echetic aterachea besteric eguingo zu non egon yzango da demostraciyoric aundiye-na eguingo dizute echetic aterachea esta importa orregatic zu non egon yzango da. (f. 97). Jangoicoari graziyac nere Contra zure aMadrea paratu vadute Muriyetan, Necoac estute nichas zer esan nic oraindic esnais, zure coñataren aMandrea ybilzen chan besela ybili pepe eta zu mutilla, vasera orain, portatuco zera zure ychean eta papera eguitean nai uadesu eta nai espadesu ere²⁰ estizut uchico. Jaur gero niyere Comonicatu nais norvaitequin vanon vadarichat echerala mudatuco aMadreac orela esanagatic Jisona izango zerala. Zenec estimachen zaituen, sure querida Maria Jossepha, antonia de Aguirre ge. Ds. Ms. años como deseo Us. Sn. Sn. por de Pallata. Joseph Manuel antonio Zaldua y murguia agur ondo uizi ecuci yartean Jaicoac nai uadu atos al uadesu laster onara. (f. 98) Josseph Juaquin estatorenean bagalchasquizu erespuestac Madalenequin Mandazayarequin zin falta. (98 v.)

II

pepe estesu, pensatu uear, zuc, yngainatu, vear, nazun³⁰ nescacha modua, naizala suc, nere gandic, asiyendac ditusu geyago estesu besteric Cartau eguiten dizut, onean eta gaichean obligachen, naisan, besela aita frailearequin bigalchera Carta au eta orain ecusico det, ser gastigatuco, desun baldin, nai uadesu onean ybili nerequin eta nere aita Jaunarequin gastigazasu eguin desala seroni bacina, besela Justiya sergatic dago, zure rezuleciyoaren begira bere bereala Plan Plonara juateco (f. 99) suc Jastigatu senidan bigaramunean escribituco, zenyola, niri eta aita Jaunari eta orain encargachen zaitut esin⁴⁰ escribitu badiyosu, bigalchazu sinale bat, naizuna edocen gauca fraile onequin eta bereala Juango da, nere aita Plan Plonara eta esconduco gera ynorc estaquiyela isilic, orduan botaco ditugu empenoac aMandreari eta aita Jaunari zuri echean oroidua emanagatic aMandreac echera mudatuco Juiciyoric bate-re badesu (f. 99 v.).

zure aManrreac, omendiyo amauost urte ditusula oraindic esconcheco bada niq ere, estitut, emezorchi urte besteric banon badarichat pepe echerala mudatu pencachen degu estesula, lecuric escribicheo, letraric batere banon

oro, bata, fraile onequin⁵⁰ yches isilic gastigachea naizun escondu edo es estirazazula pena geyago eman eman dirazun banon egun obetacoac dira bastante, estet, beste penaric munduac Jaquindu duela eta mudachen, bacera ere orenchengatic estisut uchico estago remeriyoric. (f. 100).

oraingo, aldian Jangoicoari gracyac Jastigatu nisun yru bider nichala persona pobrea solamente aita yralgoaren alaua gaur ero biar ucatuco bacendu ere nere cartac bici dira esaten deran eguiya edo esaten dera gesura Joisean bost orduetaco moralan garichen chinaneco Cariñoa badaucasu eche-
ra mudatuco eta mudachen bacera era oro bat ysingo desu nerequin orayngo bueltan bigar⁶⁰ egun erdiya luceena gaquingo det mudatu ceran edo esen. Sure respuesta ecuci artean pepe Maria Jossepha antonia de Aguirre, Joseph Manuel antonio Zaldua y murguia Por de Plata. Sn. Sn. Aguirre y Zaldua (f. 101 v.)

III

Nere bioceco prenda eder maite maitea, nere biozaren consola garria, nere eder gozo maitea, Maria Jossepha Antonia herecevitut det cure carta, bada bacuec ibilcen dirade Aberaz billa besteac pobre billa, eta besteac cu bezalaco eder guizen galantac (certaco dira aberazac flacac, aieri cenarac estiiote gutoric arcen) bañan zu bezalacoac estira re diruz pagacen, cergatic⁷⁰ cenarrai guzto obea emanten zaien, bada zuquere niri ala echean emango dirazu igandean esta posible San Franciscura ateracea orduan intentancen degu ernanira Juatea, eta bacarric banis bizitatuco cinuquet bañan esta posible (f. 115).

es beldurric iduqui ni erbitan nabillela elbarrituco nazala cuidado oriec laga eguin bear dira. Zure buruadi ondocho eguin nere biozeco prenda maitea, es penza gero, ni muratuco nazala nic det iz bat vra il bai bañan faltatu es, orain aDs. nere biozeco prenda maitea, nere guizen maitte maite maitea nic chit egon nai nuque zurequin egon zurea pepe.⁸⁰

nere biozaren conzologarria nere uzapetaundia, Jossepha. (f. 115 v.)

IV

Nere Biozaren erdico prenda eder maitea, azo ezan posible bacarric egotea es bada deseoren faltan, bañan ygandean egongo gera bioc, azo zu arritu ciñan ni icuzi ninducunea bada uste cabececo jonnara egin nuen, ygande juan danean egun guapoa pasatu nuan, esta posible giago escribicea

vrren artea nere biozeco prenda eder maite maite maitea, aDios nere biozaren erdico egusquia. Zurea pepe, nere biozeco prenda maitea Jossepha (f. 118).

V

Nere maitea Jossepha errecevit det cure gilcurriña chit zuen⁹⁰ gusto ederra, zure escutic besalacoa; Libru guapoa bidaldu dirazute eta esaziozu Martinchori çeçulan estuela cer esperatu: eta esayosu astelegunean es etorceco, jaiean nai duenean. Gastiatu zarazu carta aizparena ondo zegoan edo gaisqui segoan. Igandean guruze Santuaren eguna degu, eta albadesu atos Lezora, ni an izango naiz, eta bueltan det asmoa Juateco Passaiera Don Rramonengana eta iz eguingo diot, materiaren gañean ni ya zure miñes il naiz ni firme egongo naiz, nere maitea, nere biozaren consolagaria, urrengo orreda noanean eman beara dirazu Laztan bat, bestela ilco naiz beste mingabe, ni emen nago echean¹⁰⁰ cartuta, cer egin estaquirala, ygande arracean zurequin amezetan ibilli ninzan bañan vra alacoc bioc chit geunden gustora; ojala orain ere ala bageunde, orain aDs. nere maitea ecusi artean, baldin portaleric espagendu gavero ecusico siñuquet, emen bidalcen dicut nere bioza, zurea bañon firmeagoa (bihotz bat) correoac presa du, zurea nai dezun gustia eguiteco pepe. nere biozeco egusquia nere maite maite maitea, Jossepha. (f. 110)

VI

Nere viozeco prenda eder maitea, artu det sure carta chit gusto andi batequin, ni ondo nago Jaincoadi graciac, alde batera, bestera es nago ain ondo ere cergatic zure compañian bici enacan;¹¹⁰ bada zurequin chit egon nai nuque bacar bacar bacarric, or bidalcen dicut arroza bat, obea izandu bazan gusto giagoadequin bidalduço nizuque, gastiatu bear dirazu cer jaquindu dezun neregatic, eta penzamentu charac uci bear dira alde batera eta zure buruadi ondocho (f. 121) eguin, baldin penzamentu charac buruan arcen badituzu, galduco zerare nere biozaren igusqui soragarria, orain aDs. nere maitea ecusi artean, Ygandean etorico nas, or bidalcen dicut nere bioza zurea bezain firmea (bihotz bat) orain emenchen nago echean jarita, es nora juan daquit es cer eguin daquit coco onetan cartuta egon aDs. nere¹²⁰ maitea ygande artea, Zurea pepe. nere maitea Jossepha (f. 121 v.).

VII

Nere biozaren erdico egusqui soragarrisco Amante nerea, alegracen nas su osazuna enteroadequin hegotea, ni enago ain ondo here cure compañian cergatic enagoen, baldin cure compañian banego gizenduco nincaque ecin

guiyagoan Joseph Juaquiñec esan ciran cure mandatua; bara Antiguada Juan-giñanean, bueltan esango nisula gelditu nincan eta bueltan nescameagatic gelditu nincan esangave; bada ygandean nolabait escapatuco nas ni emendic, eta egongo gera bioc mateir orren gañean (f. 124), bada nic dicut cariño aundi bat esin giago esan nesaqueana bada¹³⁰ cure cariñoa eta nerea padacen bagenu pisuan equisico cenuque galcen cenduquela ygandean bien artean disponituco degu; ercibitu ditud cure obleac, eta polvora, erbi ilceco egualdi gaistoac eguiten ditu, bada chit nai nuque il zuri vracen emateagatic, egun oen batean ni ta beste lagun bat goas ernanira baserrida sagardoa probacera eta nago diruan escascho eta bidaldu bear dirazu bost pesetacocho bat cergatic ecin atrebitu nas echecoai escacera biurtuco dicut cin falta; orain aDios nere bioceco amante firmea (f. 124 v.), ecusi artean Jaincoac nai badu nere bioceco egusqui consolagarri Amante firme firme¹⁴⁰ firmea, nere esperanza eta alivioa, nere prenda maite maite maitea, aDios, aDios aDios ezin despeditu nas escrivicetic nere soragarrisco egusqui maiacecoa; Zurea da nere bioza re emen bidalcen dicut (bihotza) orra nere cariñoa cembateraño allegacen dan nere aingeru maitea, zurea Pepe. nere egusqui nere biozaren consolagarria nere maite biozaren erdicoa Maria Josepha Antonia de Aguirre. (f. 125).

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Proceso matrimonial Sn Sn (1761) C 1682, n. 13.

J. M. SATRUSTEGUI. "Epistolario vasco del siglo XVIII". AS JU XVII (1983) pp. 5-24.

26. MURUZABAL (1761)

Muruzabalgo bilduma emankorra gertatu da eta eredu asko eman dugu orain arte euskal testu hauetan. Izan ere, idazle askoren lan eta gaiek osatzen dute.

Oraiko adibidea beste euskalki batekoa da eta gipuzkera nabarmentzen da lehen idazkeran. Dirudienez, beste norbaitek baliatu nahi izan zuenean, arrotz zitzaizkion zenbait hitz eta esaera bere lanerako, eta aldatu egin zituen.

Bereiztasun horrengatik bakarrik merezi zuen bilduman sartzea, dialektologia saioetarako aztergai. Oinarrizko hitza dagoen-dagoenean jaso da eta zuzenketa parentesi artean doa bere ondoan.

Papera aztertuz, XVIII.mendearen bigarren erdialdekoa dela esan daiteke eta, zehatzago, 1761.urtekoa. Testua ere inguru horretakoa izango da.

SERMON DEL MANDATO

Cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Joan Cap. 13

Ceritzaion Claudiano ari, ecin elcarrequin junta litezqueala Majestadea, ta amoriuu, Anditasuna, ta Cariñua; *Non bene combeniunt neque in una sede morantur maiestas et amor.* Bañan ecusten degu gaurco egunian utzicen duela guezurtaturic Jesuchristo gure Jaunac, Claudianoren maxima, edo esan comun au; Gaur elcarcen ditu batian Amante Divino orreq Anditasunac, eta finezac; bada ecusten ditubedian bere escubetan Ceruco eta lurreco ondasun guciyac: *omnia cedit ei Pater in manus* orduban aguercen ditu fineza ta cariñoric andienac, orduban ecusico dezute ecin ponderatu ditequen humildade eta cariñoarequin garvicen dituela bere Discipuluen oñac. Orduban icusico dezute gueicen¹⁰ diozcala lenago izandu duen amorioari, fineza verri batzuec. Ezagaturic Job Santubac, ceñ andiyac diraden Jesuchristoren amorioaren finezac, gaurco gabeen guciya admiracioz beteric, esan cion Jangoicuari: *Quid est homo quia magnificas eum? Quare aponis erga eum cor tuum?* Cer dira Jauna Guizonac Zuc aimbeste honrraceco, magnificaceco eta anditasunez betececo? Cer dira Jauna Munduco Criaturac Zuc abei (hoqui) aimbeste amorio manifestaceco (agertzeco)? Cergatic Jauna ipincen (paratzen) dezu abetan (otan) zure viotza? Adverti izazute nere Christabac Santu onen esplicaceco moduba. Gauza Comuna da, aditcera eman nai dubedian Persona batec besteari dion²⁰ amoriuu, eta cariñua, esatea vere viotzian daucala amacen duen Persona ura. Bañan ezta baliacen Job Santuba, esateco modu Comun onetaz, ezti galdecen Jangoicuari cer motivoren gatic dauzcan vere viotzean guizonac, baicic cergatic ipincen (edo paratzen) duben guizonetan vere viotza? (cergatic) itz eguiten zuben (nere Aditzaleac) Santu onec, gaurco gabeen Jangoicuaren Magestadeac, bere Criaturai eguin biar cien finezetaz, itz eguiten zuben Sacramentu Divino ori instituitu zuenean manifestatu bear zuben amorio andi artaz, bada emen publicacen du amacen gaituela, ez solo sarcen gaitubela(ric) vere viotzean, baicic ala amatzea asqui ezpaliz bez(a)la amacen gaituela, ematen gaituelaric³⁰ vere viotza, vere gorputza, eta vere anima sacramentu Divino orretan.

Beste misteriotan declarazen zaigu Jaun Divino arc amatu gaituela Guizonac amatu hoi duten bezala, au da, amatu gaituela geundezcalaric bere viotzian; bañan gaurco gabeen publicacen du amacen gaituela (Guizonac amacen hoi duten bezala baicic), beste amorio fiñago batequin, ematen digularic vere gorputza eta viotza. Veste misterioac izandu ciraden (Jangoico) medio batzuec, Guizonac Jangoicuaren gana hallegatzeco. Bañan Sacramentu Divino ori da, Jangoiqua guizonaquin juntaceco. Beste misterioac izandu

ciran Jangoico Omnipotentearen⁴⁰ maravillac andiac, bañan au da prodijio bat, ceñean eguiten den maravilla gucien memoria: *IMemoriam fecit miravilium suorum* Au da prodijio bat obracen dubena Jangoicuaren amoriuac, piedadeac, eta misericordiac: *Miserator Dominus escam dedit* Bada piadosuac eta misericordiosuac esan nai badu Miserableai viotza ematen dutena, gaur Jaun Divino orrec eguiten du bere amorio, piedade, eta misericordiaren ostentacioric andiena, ematen dielaric guizon miserableai, bere viotza eta gorputz preciosua. Ecusi zazute emen nere Christabac amaceco modu berri bat aditu eta ecusi eztena munduban. Zelebra bezate Historioac,⁵⁰ Viteloren amoriua, ceñac libracea gatic eriotzetic Panomion bere Nagusia, janci cituben onen soñecuac eta atera cen Panomionen etsaien videra, abec pensaturican Panomion cela, quendu cioten viciya; Ponderatu beza famac, Sila cerizan capitan valeroso aren finezac, ceñac defenditu ezquero bere erriya, garaicen citubela bere etsayac erida ascoren costura, ya arquicen cenian agonian (escatu zuen) eramam cezatela Martirien Elizara, edo templora, eta zulaturic aren gorpuceco zañac, atera cezotela bere odol guciya, gueldi cedien Eliza artan depositatuba, eta izan cedien aren fineza andiaren memoria.

Accio andiyac izandu ciran abec dudaric batere bague, bañan⁶⁰ eztute cerequin, eta ecin ecarri ditezque comparacioan Jesu Xto gure (Jaunaren) Divinoaren obra eta finezaquin. Bada Jaun Divino au ezta contentacen Sila bezala, bere odola isurcearequin gu defendiceco, ez eta ere utzicearequin Eliza Santuban depositatuba bere odol preciosua, bada orretaz guciac gañera utzicen du bere gorputz santissimua gu alimentaceco. Ezta contentacen Vitelo Bezala gure naturalezaren soñequac janciric, gure gatic eriotza errecivitu arequin baicic, ematen digu bere viotza Sacramentu admiragarri orretan. Or ematen dizquigu ondasun ta vendicio guciac, dicha ta felicidade guciac. Or ematen digu bere Thesororic andiena; ceña dan gracia: Ave M.⁷⁰

Cum dilexisset suos, in finem dilexit eos. Joa c.13

Amorioa esaten du Senecac dela chit valientea eta animosua; Amorioa ezta beñ ere lotsacen, ezta beldurcen: *Amor nec timet nec rubescit*: Senecaren sententia discreto au confirmacen du Jesu Christoren Magestadeac gaurco gabea, cergatic aren afectoa ez lotsacen da bere discipuluen oñac garbicen, eta ez beldurcen da campañara ateracean, bada ecusten dubenian hallegacen zaiola mundu onetatic, vere Aita eternoaren gana juateco orduba: *Sciens Jesus quia venit hora eius, ut transeat de hoc mundo ad patrem*: orduban asicen du aren amorioac vere contienda ta pelea. Bañan norequin aviacen du pelea⁸⁰ ta contienda au? Gure ingratitude andiarequin: *contra nostram ingratitudinem*:

esaten du espositore Devoto batec, au berau da nic ponderatu nai dizutedana Jesusen amorioaren ordu onetan. Nai dut ecusi dezazuten nola peleacen den Jesusen (ydea) amorioa gure ingratitude andiarequin. *Asicen naiz:*

Amoriyo fin̄ eta constante eta (eguiazco) bat erretrataceco pintatu zuen Discreto batec viotz bat egalaquin eta beguiyaquin. Pintura onequin aditzera ematen zuben baldin amorioa izango bada fiña eta constantia, preciso cela izanditzan veguiyac ecusteco eta egalac egazteco. Cergatic uste dezute nere christabac direla munduco⁹⁰ amorioac, eta afectoac aiñ inconstanteac? Motibua da cergatic badituzte ere egalac egasteco, eztute veguiric ecusteco esaten duben vezala Albatoc. *Tella alasque tenens lumina nula tenet* Norc veatu dezaque nere Christabac, baldin asco personeen viotzetan (viotzac) balitusquete veguiyac ecusteco nor amaten duten, ez liraquela izango aien amorioaren girac aiñ andiyac. Bañan nola muguicen diran amatzera veguiric bague, argatic ascotan amacen dituste persona aiec, gauza aiec ceñac aborrecituco lituzqueten, baldin ezagucen balituzquete. Ezta mota onetaqua Jesu christoren amoruia; onec ditu chit vista oneco veguiyac: *stiens Jesus*: Onec amacen ditu bere criaturac jaquiñic ongui¹⁰⁰ oquen correspondenciac diradela ingratitudeac. Bañan ezaguera onec eztu guchicen Jaun Divino orren afectoa, eta cariñua; baicic gueicen du gueiago, ta gueiago bere amorioaren suba.

Chit celebratuba izan du zen Poeten artean Elia cerizan Emacube baten vorondatea, cergatic noiz eta bere Amanteac (Galaic) eguiten ciozcan desaireac, desvioac, eta desdenac orduban eguiten ziozcan onec fiñezaric andienac. Desprecioac ciraden motibuac gueiceco aren cariñuac. Au bera guertacen da Jesu christoc bere chriaturai dien amorioan; icusten ditu aben ingratitudeac, bañan abec dirade motibuac gueiceco aren amorioaren suba, cergatic esaten duen bezala¹¹⁰ Villarroelec peleacen ciran Jesuchristoren viotzean, aren amoruia eta Guizonen ingratitudea, eta ateraco bazen amoruia victoriarequin preciso cen gueicen cenian ingratitudea gueicea gueiago ta gueiago, fineza ta cariñua. Ezaguceco pelea ta contienda andi au; ecusteco Jesusen Amorioaren victoria ta tri(u)nfo abec, pasa zaitetzte nere christabac Cenaculo artara, non arquicen den Jesus Divinua vere amavi Discipulo aquin; an ecusico dezute amorioric andiena peleatzen, obstinacioric gogorenarequin; an adbertituco dezute amorioac errendituric (garvituric) botacen duela (dituela) Jesusec bere escubac guizonic ingratoenaren oñetara. Cerubac admira zaitetzte! gorde¹²⁰ zaiteste odeien artean, ez ecusteco cer pasacen den Cenaculo artan. Aingueru Santubac apartazazute zuben aurpeguia, excusatu nai badezute, artuco dezu-ten pena ta sentimentuba ecustez amorioaren eta humildadearen exceso andi bat correspondicen etzaiona zuben Jangoicuaeren anditasunari. O Ceruco Erreguiña sobera arquicen cerana Misterio soberano abetan, erretira zaitte pisca bat ecusi nai ezpadezu Zure Seme estimatuba Satanasen oñetan, esclabo

baliz bezala. Bañan ez, eztezazutela gorde zuben aurpeguia. Aingeru santu-bac asistizazute zuben erreguiñarequin batean (humiltasunaren miragarri) espetaculo artan; ceñac beteco zaitusten admiracioz. Veguira zazute, ceru gucia¹³⁰ erorcen dela, ingrato (esquer bague) baten eta traidore baten oñetara. Adberti izazute Aita Eternoaren Seme bacarrá, arquicen dela belaunicaturic Judas infamearen oñetan.

O Guizon cruela! nola eztu beracen zure viotz ori Jesusen demostracio cariñoso orrec? Nola etzaitu errendicen (garaitzen) humildade andi orrec? Posible da determinatu cezula salcea etsai cruel batzubei zure Maisu amoroso ori? Siñistu deiteque etzaituela (ya) combertituco oraiñ ematen dizun exemplo andiyac? (Ni oroitzen) Pintatu zuen Discreto batec Diamante bat, eta aren gañian Matrillu bat, golpe andiyac ematen ari cela. Bañan diamante arc zeucan letra bat esaten¹⁴⁰ zuena: *semper idem*; beti naiz ni lenagocua; cergatic Orijenesec esaten duen bezala, Diamantean golpeac mellaric (impresioric) eztute eguiten (nigan); *Nulla conteritur maleo*. Diamante guciyac baño gogorra-goa cen dudaric batere bague Judas Traidorearen viotza, bada Jesus Divinuac eguin ciozcan fineceen golpeaquin ezta beratzen, eta beti gueldicen da len bezala: *Semper idem*: Cer fineza eta cariñoaren golpeac eman etziozcan Jesus amorosuac Judasen viotzari? vialdu cion inspiracio (argui) andi bat (bere becatuba ezagutu cezan), bañan izandu zen fruturic bague. Determinatu zuen (Jaun Soberanoac) Jesus Divinuac eguitea Judasi azqueneco demostracioa, onequin errendiceco espiritu¹⁵⁰ rebelde ura; sarcea Judasen pechuban obeto beraceco viotz gogor ura, bañan izandu cen alferric; bada gueiago obstinatu zen Judas. Iduricen zait esango zuela Aita amoroso orreq viotzeco sentimentu ta pena andiarequin: Ha nere Discipulo estimatuba! cer erresistencia da ori aiñ andiya eguiten diozuna nere amorio fiñari! O Cein guchi ezagucen dezun, cembat balio duben zure anima orreq! Orretaz enamoraturic arquicen naiz ni, empeñaturic nago eztudala ori galdu bear. Aimbeste estimacen dut nic Zure anima ori, ecic determinaturic nago ematera nere odol guciya, galdu eztadien gatic. Ez Judas, ez nere Discipulo estimatuba, eztut sufrituco galdu zaitezen. Cer esango du nere Aita¹⁶⁰ Eternuac, Ceñac nic adiña estimacen zaituben, utzicen badut eguin bague oraindic falta zaidan diligencia bat, zu irabasteco? Nai dut belaunico jarri zure oñetan abec garbitzeco, eta musu cariñosoac emateco.

Eguin cituben Maisu Divino arc Discipulo ingrato onequin demostracio abec guciyac. Jo zuben traidore onen viotza aimbeste fineceen golpeaquin, bañan onequin guciarequin guelditu zan bere gogortasunean. Emen nere christabac erorcen zaitzquio San Juan Chrisostomori veguietatic negarrac, indignaturic Judasen contra cergatic beracen etzan aren viotza, ecusiric Jangoicua bera aren¹⁷⁰ oñetan belaunicaturic. Bañan negar eguizu zuc an O

Chrisostomo, Judasen obstinacioaz nic emen (negar) eguiten dudan vitartean, aimbete Christabetaz diranac Judas baño gaistoagoac, maldadeetan. Negar eguizu zuc chrisostomo ecusteaz Jangoicoa bera belaunicaturic bere etsaiaren oñetan; bada negar eguitemo motibo gueiago dut nic, ecusteaz, ceñ frutu guchi ematen duen christaben artean exemplu onec. Aterazazu Viotzetic suspirio tristeac chrisostomo, ecusiric Judasen viotza ain gogortuba Jesus(en) (Divinuac eguiten diotzcan) mesete ta fabore andi(yaquin), bada chit tristeagoac atera biar nituque nic, nere viotzetic, ecustean christabtzat preciacen direnac, eguiten diela¹⁸⁰ ecin gueiagoco resistencia Jangoicuaren graciari. Bustizazu chrisostomo zure silla zure negarraquin Judasen temeridadeaz, bada nic nere negarrequin (nereaquin) bustico dut Pulpito au, negar eguiten dudaloric consueloric batere bague, ecusiric pecatariac beren pasio gaistoen medioz, salcen dutela Jesuchristo. Juntatu (elcar) ditzagun chrisostomo, zure negarrac, eta nereac batean, viyac negar eguin dezagun Judasen obstinacioaz, eta christaben gogortasunaz; eta zubez nere christabac vizquitartean admiratu zaitezte Jesusen amorio andi onetaz eta onec obligaturic eguiten dituben finezetaz alaco ingratituderequin pelezeco.¹⁹⁰

Bañan ecusiric nere christabac Jesusen amoriyo andiya Judasen ingratitudearequin peleacen pensatuco dezute zubez, emen acabatu (fiñitu edo) cela Jaun Divino orren contienda eta pelea guciya? sinistuco dezute etzela pasatu ematera oraindic, vere amorioaren señale claroagoac (agueriagoac) Zaudeste oraindic piscabat eztezazutela izan prisaric aiñ laster ateraceco Cenaculo artatic; bada oraindic falta zaio (gure salvatzalle Divino orri) ematea bere fineza andiaren azqueneco prueba. Esan zuben Jaun Divino onec ocasio batian, ecin allega diteque amante baten cariñua andiagoo izatera eman ezquero ya vere adisquidea gatic vere viciya. *Maiorem charitatem nemo habet,*²⁰⁰ *ut animam suam ponat quis pro amitiis suis:* Badaqui Jaun onec, bere ordu onetan ya ematera dijuala vere viciya gure gatic (ezagucen du) au dela amante batec bere adisquideagatic eguin dezaquen demonstratoric andiena; bañan ezta emen gueldicen (pausatzen) aren cariñoaren suba (anditasuna); cergatic posible ezpada ere viotz amante baten balentiya aurrerago pasacea, gaurco gabeen juntacen (vilcen) zaio valentiari, saviduria edo jaquintasun Divinua, eta arquicen du oraindic aurrerago pasaceco moduba. Celebratubac dirade munduban Cadiz ondoco columna edo Pillare famatu aiec, ceñetan Hercules valienteac (indartsuac) paratu cituben letra Abec: *Non plus ultra:* aditzera emateco an acabatzen zela²¹⁰ lurra; eta andic aurrera pasacea cela valentiaric andienarenzat gauza imposiblea; bañan Herculesen valentiari iduritu batzitziaon ere imposiblea gure (Españiaco erregueac) erreguearen jaquintasunac eguin zuen bosiblea, cergatic descubrituric rumbo edo mundu berriyac, paratu citusten. Letra abec: *Plus ultra:* au da, andic aurrera pasaceco aguertu dela

moduba. Au bera da nere christabac pasacen dena Jesus Divinoaren amorioarequin. Onec balientea den partetic, esaten du: *plus ultra*; oraindic bada aurrera pasaceco moduba oraindic eman dezaquet nic, nere amorio andiaren prueba seguruagoa(c). Eta cer eguiten du onetaraco?

Gueldizaiteste admiraturic Ceruco Serafiñac, aiñ amorio andiaz!²²⁰ Arcen du Jesus Divinuac bere escubetan oguiya eta paracen du Calicean ardoa, consagracen ditu ala bata nola bestia, erreparticen ditu bere discipuluen artean, eta esaten die: Arzazute eta jan zazute guciyac, bada au da nere gorpuz; Arzazute eta edan ezazute guciyac, bada au da nere odola. Ni banua ya nere Aita Eternoaren gana, bañan oraindic secular aditu eztan milagro batequin gueldicen naiz dembora berean, zuben artean; ematen dizutet nere amodio muga baguecoaren probaric andiena, usten dizutedanean nere gortza vere vi naturalezaquin; bata divinua eta bestea humanoa, bere atributo ta perfeccio guciaquin. Jangoicua eta guizon eguiazcoa naicen bezala, gueldicen naiz zubequin²³⁰ azquen juicioo egun eraño. Gucia entregacen naiz Deus ere erreserbatu bague; Omnipotentia izanagatic eztut gueiago cer eman, eta zubez ambiciosuac izanagatic eztezaquezute pretenditu gueiago. Au guciya ala denian eguiazqui ala dan bezala, ya atera zaitezquete nere christabac cenaculotic, bada ezta gueldicen gueiago cer ecusi. Jesuchristoc eguiten ditu esclabo villano baten oficioac belaunicaturic Judas alebosoaren oñetan; peletu da Maisu Soberano orren amoriu (onen) Judasen eta gure ingratitudearequin. Eta victoria eta triumfua alcanzatu duen señalear guelditu da Sacramentu Divino orretan; eta ongui jaquiña gatic, christau gaistoac eguingo ciozcaten²⁴⁰ irreverenciatic, desprecioac, ofensatic eta sacrilegioac; nai izandu du gure artean guelditu, beteagatic gure animac, ecin esplica ditezquen felicidade eta dichacquin. Ya au ecusi duenac eztu cer ichodon gueiago ecustea. Bañan zaudeste pisca bat oraindic falta zaitzute ecustea, Cer atseguin andiarequin ateracen den Jesus Divinua Cenaculo artatic, villacera tormentubac eta eriotza, bere amorioa confirmaceco. Ecin gueiagoco alegriarequin encaminacen du Olibeteco mendira bere Etsaieri (quen) esperacera. *exierunt in montem oliveti* :eta nic ecusten dudanian Cenaculotic ateracen dela, ecin utzi nezaque esan gabe: A Dios nere Jesus ona! A Dios nere viotzeco amorio dulcea! A Dios nere esperanza²⁵⁰ gucien seguridadea. Zuaz, zuaz Jauna ordu onean, Gurutze batean viciya ematera Pecatari miserableen gatic! Lograzazu deseacen dezun consuelua! Bañan Jauna, eztadiela gutatic iñor gloriatu zu crucificatubaz. Cer esan esango luque Cerubac, ecusten baluque christabetan pasatu cena Judubaquin? paratuco luque bereala lutu bat bere illuntasun arequin ez precisoqui, cergatic christo illcen den, nola cergatic christabac beren culpaquin berriz crucificacen duten. Cer esango luquete Aiñguerubac? Negar eguingo luquete consueloric bague ecustez christabaren ingratitudea, eta zure amorio andiya. Bañan

eztezatela negarric eguin Aiñguerubac. Eguin bezate guizonac eta²⁶⁰ falta bazaie compasioa, billabezate arrietan, bada abec puscatu ciran penaz eta sentimentoz.

Eta zuc Jesus amorosua, eztezazula permititu zure finezeen ordu onetan guelditu dadien christaben bat zure graciatic campuan. Baldin zu, zure ordu onetan irabastea gatic Viot(z) errebelde bat jarri baciñan belaunico Judasen oñetan; gu pecatariac lograceco zure misericordiac, jarcen guera humildade andiarequin zure oñetan escatzen dizquizugularic pena ta sentimentu andiarequin gure oraiñdarañoco ingratitudez varcaciua. Hai nere christabac, izango da gure artean botaco eztubenic beregandic altaneria, presuncio, eta sobervia guciya,²⁷⁰ ecusi ezquero Jesus Divinua Judasen oñetan? ecusi ezquero Aita Eternoaren Semea esclabo baten oficioa, eguiten? conserbatuco du Zubetatic norbaitec vere correspondencia, mundubarequin eta bere gustu (atseguñ) ciquiñaquin, ecusiric dijuala Jesus vere viciya ematera pena ta tormentuben artean? Baldin zuben artean arquicen bada, penac eta sentimentubac uquicen eztuenic, eman beza ya bere buruba galdutzat; egun onetan, ordu onetan senticen eztubenac bere entrañetan compasio andi bat Jesus Divinuaz, eta aborrecimentu (pena) andi bat bere pecatubaz, consideratu dezaque vere salvacioa deseperazeco puntuban; Ez nere Jaun amorosua, eztezazula permititu ni adicen nauten²⁸⁰ etatic iñor izan dadien aiñ gogorra zure finezai. Nai ditugu corresponditu zure cariñuari aldezagun moduban empleacen garelaric zure servicio santuban, ala logradezagun zure adisquidetasuna, eta gracia; eta ceruban zure compania dichosua etc.

Bibl.:

Muguzabalgo bilduma.

Argitaragabea. (JMS) 150 x 210 mm. Hamar orrialde.

27. ETXARRI (LARRAUN, 1762)

Jesusen Bihotz sakratuaren deboziona asko zabaldu zen XVIII.mendean Euskal Herrian. Duela urte gutxi arte iraun duen Minerva lagundiaren liburua bada parrokia gehienetan. Helburu eta betebeharren arautegia lehen orrietan idatzi ohi da gotzaiaren baimen agiriarekin batean.

Euskarari dagokionez zer gutxi aurki daiteke berrietan, latin eta gaztelaniaz landa. Behin edo beste, Etxarri Larraungo kasu honetan bezala, salbuespena sortzen da eta euskararen lekuko bihurtzen da testua.

Deboziona honen mezulari aipatuena Sebastian Mendiburu misiolari ospetsu eta euskaltzale jatorra izan zen Nafarroan. Agiri honetan hiru aldiz aipu da bere izena.

Nor zatekeen egilea?

Urdiaingo parrokian Mendiburuk berak zinaturiko agirien firmak begiratu ditut eta antza haundia dute testu honen izkirione edo kaligrafiarekin, baina horrekin bakarrik ezin da Etxarriko eskuizkribua berea denik esan.

Grafologoek iker bezate.

Agiria ez dagoela liburu batean jarria, adierazten dit Jaime Andonegi adiskideak, orri berezietan jostorratz eta hariz josita baizik, azalik gabe.

Jesusen biotzaren congregacioco Reglac dire seguicen direnac:

Misione santu bateco frutue eta pensamentu onac conservaceco, eta erregidore, eta vecino Jaunac vicice on bat, eta exemplo onecoa berengan, eta beren puebloco gendean aseguraceco, aita Mendiburu gure Misionistec ongui probaturic daquienac bezala dio; ez dela arquicen medio ta gauza obeagoric, nola baita Jesusen Vioz sagratuaren congregacioa bere Minervarequin, edo ill-oroco siñelacendela Igande bat comuniocoa, eta Indulgencia plenaria irabaztecoa, confesatu, eta comulgacen delaric, eta arrasaldean exerciciora asisticen duelaric. Congregacioa fundaceco, edo parececo, Aita Mendiburuc zuen facultadea misionea eguiten egondu zen dembora gucien eta facultade onen noticie¹⁰ eman cigun, eta galde eguin cigun nai guenuen guc erri onetan funda cedin congregacioa. Guc icusiric eta ezaguturic cein santuec eta ongui ordenatuec dauden congregacio santu onetaco erreglachoac, juicio eguin guenuen guztiz conveni zizagula congregacioa, vicice modu on bana eguiteco; eta argatic eresponditu guenion, gusto aundierequin nai guenuela funda cedin congregacio au gure errien, eta señala cizagula ill-oro eguin bear dugun comunio, eta irabaci bear dugun Indulgencierenzat Igande bat, berac obequi cerizana; eta señala cizquigula edo eman cizquigula congregacio onetacoereglac. Eta Aita Sebastianec, facultadea zuenac bezala, señalatu cigun comunioa²⁰ eguiteco, eta indulgencia irabazteco ill-oroco irugarren igandea eta paratu cizquigun congregacioco erreglac; eta arc paratu cizquigun erreglac dire, Obispo Jaunac onzat emanic, Jesusen viozaren congregacioa fundaturic arquite(n) den lecu guztietan guardacen direnac. Advertitu cigun ez guenuela irabacico indulgencie au, Obispo Jaunac edo Provisore Jaunac ez bazuen aprobacen, eta confirmacen igandearen señalamentue eta arc eman cizquigun erreglac. Argatic bada berac eraman zuen gure congregacioco libru au eta Provisore Jaunari aprobaraciric izuli cigun, eta emen arquicen dire congregacio onetan sartu direnac eguin bear dituzten gauzac, eta guardatu bear diren erreglac;³⁰ eta dire orain esanen ditudanac.

CAP. 1

1. Jesusen viotz-aren congregacioac duen fiñe eta congregacioco cembait erregla explicacen dire lendabico capitulo onetan. Jesusen viotz maitagarriaren congregacioac duen fiñe da guc amore tierno, edo samur batequin correspondicea Jesusec guri digun amore andi comparacioric baguecoari; especialmente eucharistieco Sacramentu Santu onetan adicera ematen digun amoreari, eta gure Jesus onac Eucharistieco Sacramentuen errecibicen dituen injuriec, eta agravioac gure viotz-etaco siñezco lastima, edo compassio batequin ereparacea.

2. Marie Santisimaren viotza da ispillu garbi bat bezala, eta Ama⁴⁰ Viriñaren viotz onetan argui eguiten (resplandecicen) dute Jesusen viotzeco arguitasunec, eta resplandoreac; eta Ama Santisimaren viotz onetan eguiten, edo ematen dute sentimenturic andiena gure Jesus onari eguiten zazquion agravioac, eta ofensac; eta argatic Maria Santisima izanen da Congregacio onen amparazalea eta Protectorea eta defenditzallea.

3. Nola Jesusen viotz amorosoac errecibicen bai ditu, agravioac eta offensac ala guizaquiengandic, nola emaztequiengandic, argatic guizonac eta emacumec guztiec guztiec, bear dute procuratu jesusi eguiten zazquion injurie eta offensac erreparacea len esan dugun amore⁵⁰ tierno edo samur batequin; baita siñezco lastimarequin ere. Eta argatic congregacio onetan errecibicen dire guizonac eta emacumeac, gueroago beste erreglacho batean esanen dugun bezalacoac.

4. Congregacio Santa onec (permanencieraco) eta onen fervoreac iraundu dezan, ez da errecibituco congregacio onetan, aguiz comun edo guejanean congregacioco egunetan assistituco ez duenic (coro) ez eta puebloan exemplo ona ematen ez dutenac-ere, eta aguiz gutiego beren gaizquequin besteri(c) gaiztacen dabilcenac-ere. Congregantean numeroa cembait-eraño bear den disponituco dute congregacioan officioac dituztenac, eta junte componcen dutenac.⁶⁰

5. Congregacioan ez da gasturic bat-ere arguizaguerena baicic, eta au da aguiz guti orain presentean; bañen limosna biltzen (errecogicen) bada arguizariarenzat bear dena baño guejago, eguiñen dugu congregacioarenzat beste gauchecho bat. Congregante on-en viotzac devocio eta fervore guejegora movituco dituenac; eta argatic devocioa duenac ez dezala utci limosna eguiteco.

6. Jesusi dioten (diogun) amoreac bear ditu movitu eta animatu congreganteac erreglacho oei cumplimentue ematera; eta argatic ez da izanen ez becatu mortaleco eta ez venialeco obligacioric erregla oec cumpliceco; eta erregla oetan faltacen denean ez da eguiten becatu mortalic ez eta venialeric-ere.⁷⁰

7. Congregacioan sarcen direnac, sarcen direnean eguin bear dute beren confesio generala, beinzat dembora gutiz lenago eguin ez badute.

8. Osasunac asisticen diolaric eta bere eguitecoac eraguzten ez ba diote, ocupacioac permiticen diotelaric, ez du utcico congreganteac assisticeco congregacioco exercicioetara eta lan-etara; eta noz bait bere descuido de motivo justoric bague uzten baldin badu⁸⁰ gongregacioco exercicioeren bat-era assisticeco, falta onengatic eguiñen du penitenciachoren bat.

9. Congreganteac eduqui bear dute cuidado andi bat bi virtuteren exercicioan cein bai dire humildadea ta mansedumbre christiana; virtute oec bieci dire Jesusen viotz-aren sellue componcen dutenac.

10. Congreganteac adicen dutenean congregacioan sarturic dagoanen-bat arquicen dela enfermo, edo gaizqui, errezatuco dio bacoizac Arrosario bat Maria Santisimari, onec Jesusen viotza dela medio, erdichi dezan Aita eternoagandic, enfermoaren osasuna, conveni ba zajo, eta bestela eriotza on bat.

11. Congregante guztieci procuratuco dute possible den guztie devocio tierno onetara besteac ere inclinaceco, onetaco itzez eta beren exemplo onaz animacen dituztela, maiz Sacramentu Santuec errecibicera eta congregacioetara zuzen puntualidadearequin⁹⁰ assisticera.

12. Congreganteren bat ilcen denean, congregante bacoizac enzunen du Meza bat, aldereac visitatuco ditu bein eta errezatuco du Arrosario bat difuntuaren animaren favoreraco.

BIGARREN CAP.

Urte-oro eguin bear diren gauzac

1. Urte-oro celebratu bear da Jesusen viotza-aren festividadea Meza cantatuerequin eta arras-aldean exercicioarequin. Onetaco egun señalatue da Corpus Christiren octavaren edo zorcigarrenaren urbilleneco ostirela; bañen gende guejegoc asistitu dezan eta solemnidade guejegorequin eguin dedin celebratuco da Octavaren urren Igandean.¹⁰⁰

2. Urte-oro congreganteac eguiñen dute confesio general batna; eta confessio general au bear du izan azqueneco confesio generala eguin zutene-tic assita, len eguin dituzten confesio generaletaco gauzaric berritu gabe, beincet bacoizari bere confessore Jaunac ez ba dio besteric aconsejacen; edo necesidadeac ala escacen ez badu.

3. Eguin ditezque exercicioac sei arras-aldetan, onetaraco arcen direla sei jai egun bata besteari dagozcala edo alcarren ondoren edo eguerrietan edo

urtearen beste demboraren batean. Eguerrietaco dembora ez derizot acomodatue gurezat cergatic dembora onetan arras-aldea chiquie den eta gendeac aciendaz edo ganaduez cuidadue eduqui bear¹¹⁰ duten; eta argatic utcico dugu Majez alde artaraco edo derizagun beste dembora bat-eco.

Urte-oro eguin bear da Jesus-en viotz Sagratuaren Novena asten delaric Jesus-en viotz-aren festividadetico zorci jaiez len-ago eta acabacen dela novena egun artan, cein bai da len esan dugun bezala Corpuschristico Octavaren urbillen Igandean.

IRUGARREN CAP.

Il-oro eguin bear diren gauzac

1. Ill-oroco irugarren igandea(n) izanen da Minervacoa edo indulgenciarena, eta egun onetan arras-aldean izanen da exercicioa Jaun Divinoa manifestaturic orain deraño eguin dan bezala eta¹²⁰ exercicio onec iraunen du ordu erdi batean.

2. Leituco da orainderaño bezala eusquerazco librocho bat eta ondorean eguiñen da gogozco edo memoriazco eta viocezco oracio piscacho bat eta azquenean gozoetaco verso(cho)c cantacen direla, eguiñen da Jaun Divinoaren erreserva.

Indulgencie plenarie irabazten da illeren irugarren Igandean, esan dugun bezala confessioa eta comunioa eguiten direlaric eta arras-aldean gogozco otoiza edo oracioa eguiten (delaric); guertatu (suceditu) litaque nozbait illeren irugarren Igandean exercicioa ez eguita motivo justoren bategatic eta orrela guertacen bada, eguiñen¹³⁰ da exercicioa urbilleneco jai edo Igandean; bañen ecin indulgencie plenarie ir(abaci) diteque illeren irugarren igandean baici, eta argatic indulgencia irabaci nai duenac, illeren irugarren igandean bear du confesatu, comulgatu eta arras-aldean exercicioa izan bagueagatic, eicera etorri eta ordu erdicho bateco demboran oracioa eguin. Bañen confessioa eta comunioa eguiteco eta anima garbiceco eta fortaleciceco edoecin dembora da ona eta ala irugarren igandean confessacen ez dena betor laugarrenean edo al duenean alic lasterrena ta Congregacioaren indulgencia ez irabaciagati, irabaci dezaque indulgenci plenaria. Jaungoicoaren servizera guejeko aplicatu nai¹⁴⁰ dutenac confessatuco dire amabost egunetic amabostera, edo bacoicere bere confessore prudenteac esaten dion bezala.

LAURGARREN CAP.

Aste-oro eguin bear direnac

1. Aste-oroco egun batean procuratuco du congreganteac gorpuzaren sentidoren bat mortificacea penitenciachoren batequin.

2. Al dezaquenac enzunen du Meza halduen egun-oro; eta leicen daquienac eta dembora duenac leituco du pisquecho bat libru onen batean eta eguinen du memoriazco edo gogozco otoitz pisquecho bat.

3. Aldarean sacramentaturic dagoan Jesus maitagarrieri eguinen disquio congreganteac egun-oro al dituen visitec: eta bere¹⁵⁰ espirituarequin edo viotzarequin eguiñen dizquio arquicen den lecuti-c beincet bost visita, ajetatit bacoicean esaten duela: Alabatua izan dedille aldareco Sacramentu Santue eta Jesusen viotz maitea, eta errazatu bereala *Pater noster* eta *Ave Mariacho* bat.

4. Egund-oro errezatuco dute Ama Virginiñeren errosarioa bere misterioaquin edo eucharistico Sacramentu aldarean dagoanean guri Jesusec aguercen digun amoreac Marie Virginari ematen dion consuelo andien pensacen dutela; eta al badute errezatuco dute beren echeco familierequin; cerren compañierequin edo lagunequin eguiten dan oracioac fuerza guejeco duen.¹⁶⁰

5. Egund-oro arras-oro examinetuco dituzte aldiecho batean edo dembora puscacho batean eguneco pensamentuec, itzec eta obrac; eta egunean eguin dituzten obra onac-gatic emanen dizquiete graciec Jaungoicoari; eta escatuco diote barcacia Jaungoicoari egunean eguin dituzten faltac-gatic: eta esaten dutela azquenean Nere Jesu-Christo eguiñen dut acto contriciozco bat edo Jaungoicoa ofenditueren damuzco bat.

6. Au eguin ta ondoan, izulcen direla eleiceraunz edo eleiza-aldera beinzat espirituarequin edo pensamentuarequin adoratuco dute humildadearequin eta amorearequin Jesus Jaungoico eta guizon¹⁷⁰ sacramentatueren viotz sagratue; eta escatuco diote iduqui dezala cuidado especial bat bacoizari bere devocioac agincen diona eguiten (edo praticacen) dutenen gañean.

BOSTGARREN CAP.

Congregacioco officioac edo empleoac

1. Congregacioac izan bear ditu Prefecto bat, zeladore bat, bi consiliario, Limosnero bat eta Secretario bat.

2. Prefectoari tocacen edo correspondicen zajo congregacioa goberna- cea eta congregacioco gauceren baten gañean dudaren bat izaten bada, Prefectoac erresolvitu bear du.

3. Zeladore principalari tocacen zajo congregacioari ongui¹⁸⁰ veguirecea eta congregante bacoizaren ibill-erari contu arcea eta avisioa ematea congrega-

cioco officioac dituztenai, junte officioetacoac eguiten dutenean erremedioa pardezaten ecer erremediaceco gauzaric baldin bada.

4. Consiliarioai tocacen zajea beren conse-juec ematea, congregacioco fervorea conserva dedin bere estaduen eta fervorean.

5. Limosneroac escatu bear du limosna eleiceco atarien gendea ateracen denean egerciciotic, congregacioa edo exercicioa den egunetan; limosna au izanen da Jesusen viotz Sagratuaren arguiarenzat; eta limosneroac cuidatu bear du errecogicen den limosnarequin¹⁹⁰ congregacioco arguizaguie paraceas.

6. Secretarioac escribitu bear ditu junten erresolvicen diren (gaucec) congregacioaren gañeco gauec.

7. Oficio esan ditigunetatic bat duen edocinec du bere vota junte eguiten denean; eta juntec eguiñen dire Prefectoari irudicen zajonean, direla necesario edo conveniente. Oficio oec ematen dire urte bateco, Prefectoarena ateracen dela: eta urte onetaco esen ditugun officio edo congregacioco empleoac eman cequizquien orain esanen ditugun personai. Prefecto nombratu cen Dn. Juan Tomás de Muguiro. Zeladore principal Juan Fermin de Echarri; consiliarioac Juan²⁰⁰ de Barrenechea eta Juan de Echarri. Limosnero Juan Francisco de Azpiroz eta Secretario Dn. Juan Vicente de Muguiro.

Bibl.:

Etxarri Larraungo parrokiako artxibuan.

Argitaragabea. Sei orri hariz josiak. 200 x 300 mm.

28. BERASTEGI (1763)

Gure zaharrei askotan entzuna diet azeria dela animalia guzietan argiena. Artzai batek zioen gizonak baino gebiago zekiela, baina ebiztariak erantzun zion ezetz; gizonak garaitu duela.

Neuk ezagutu ditut, noski, gizonak azeriaren atzetik ibili gabe, azeria berek nabi zuten lekura erakartzen zutenak. Gurasoengandik semeetara isilian gordetako gauzak ziren eta oraintxe galtzeko zorian aurkitzen ziren.

Berastegiko baserri batean jaso zituen Tolosako Juan Garmendia Larrañaga adiskideak bonako orri baliotsu hauek. Hainbeste denboran izkutuko misterioa izana azaltzen dute etnografian oso estimagarriak diren oharrekin.

Zortzi folio ditu izkribuak eta horietako lau orrialde, zaharrenak, euskaraz idatzirik daude; beste lanak erdaraz. 1975ean argitaratu nituen lehenengoz.

Azariac arrapaceco errezeta

Azariac arrapaceco errezeta eusquerara erreducituricaco modue esango degu nola goberna bear dan.

Huquendue nola eguin bear dan cepoari husaia quenzecoa lendabizicoa bear du artu lurrezco cazuela bat berrie ezertan erabili gabeco, eta urez beteta iraraquin quenceco husaia edo portaleza ez dezan manteca penetratu, onela garbituta, gero bear du paratu chopetan prasa ez ain fuertea emequi edo dulzero eta chopetaren ganean paratu len esan degun cazuela eta bear du paratu ganza gezaa edo ganadu belzarena edo olloarena cantidadea moduerequin Iru edo lau zepo baditu manteca bear du arraulza baten bultoa bezala eta urtuzen danean¹⁰ manteca (urtucen) bear du artu zurezco cochare bat eta quendu apara edo gañera berezten dit(uen)... an eta orduen bota iru tipule tajada ecutu lodien tamaña bacoiza eta oic tostacen diraden orduan edo gorrizen diradenean cocharequin atera canpora tipulec eta orduen bear du botiqueco arri bat dericena canfor illarra grano baten tamaña eta mantecaren ercean cocharequin iruzi eta hurtuco da.

Beste aus bat dericena polbos de lirio de florenzia ahu ere botiquecoa onetatic asco da tabacoa bezala bi aldiz arzen duena, eta gañeco azala quendu eta bigarrena arbola bati esaten zaiona Solalum onetatic bear du illarra baten tamaña.²⁰

Eta zazpi edo zorzi tanto zaldi gorozari estutu eta bota era cazuelara.

Eta oiec guzic elcarrequin nastuta iraquin emequi eta iragaci zapi zuri batean talaberazco onzi batera edo quicara batera eta tapatu ezdidin astu, eta Cepoa paraceco toquira joaten danean Senpiterna berde pisco batequin bear du untatu edo iorzi cepoa asco du guti uquendu onetatic.

Eta amabost egunean serbituco du equiñaldi bacoizat eta eguiten danean cazuela garbitu berrizco.

Pazca eguiteco modue. Lendabizicoa eguin bear ditu ogui pusque³⁰ coadroac forma onetacoac eta cepoari erasicecoac bear du izan azala dausquionan, eta erdien arie paraceco coscarequin, eta beste gañeracoac lisoac eta forma berecoac eta, onetaraco bear du artu oguie cepoac cenbat dituen bi ceporenzat hasco du laurden bat libera batena cepo geiego badu conforme.

Ogui pusque oiec guisaceco modue. Lendabizicoa bear du artu zartagui bat eta paratu zartaguien ga(nza).. manteca gezaa gaz gabea eta paratu chopetan prasa ez fuertea dulzero eta hurtuzen danean mantecara bear du bota ezcutu lodieren tamañeco iru tipule pusque eta iraquite onetan emequi emequi dagoela asizen dan orduen tipule⁴⁰ gorrizen edo tostacen zurezco cochare

batequin bear du atera tipulec canpora baita apar mantecac gañera sorzen dituenac ere, eta bota mantecara lirio de florenxia illarra grano baten tamaña bezala eta denbora berean lo mismo beste ainbeste canfor. Onec bear du hurtu zartaguieren contra cargatu cocharearequin da eta bereala bota ogui pusquec mantecara eta botaala pronto pronto nastu zoz garbi batequin eta modu onetan, ogui pusquec bear dire bota mantecara ia hagogzeraño ondar pisco bat ez bestea edaten duten moduen eta denbora artar zartaguieren erditic apartatu, eta bota eztie catillu erdi bat bezala edo conforme nola duen cantidadea eta eztie bigunzen asizen danean⁵⁰ pronto nastu zozarequin eta ezti escas badu bota berriz aliquiqueta ogui pusquet colorea artu arteraño gorri colorea edo tostatu colorea, eta denbora artan mai baten gañean edo ol zabal baten gañean zabaldu papera eta aren gañera atera zartaguitic, eta iduqui oztu arteraño, eta oztu ondoan, caja batean gorde eta serbituco du amabost egunean.

Cepoa paraceo modue. Artu ogui costadun bat eransi cepoari bere eransitoqui artan eta ziquindu ez didin pazca papel pisco batean bildu eta estu ariequin dan(ean)... oculuco ardi gorozarequin eta estali ondoan libratu pazcaa.

Araguierequin azari cepora eracarteco modue. Arateguico idieren⁶⁰ birique edo beste erozein aragui bear du arrastatu edo erabilli eta ogui pusque bear ditu paratu berrogei pausotic berrogei pausora, eta ogui pusque obego da parazea lecu garbien eta araguiec zarzera eguiten duen orduen arma batequin ebaqui edo berritu eta manteca hurtu zartaguieren eta bota mantecara flor de florenxia bi aldiz tabacoa bezala, eta burzine goritu paratu araguiaren gañean burcine eta bota burziner manteca iraqiñe eta iruzi araguie burciñerequin eta berrizen da modu onetan.

Cepoa parazen badu lecu asean jango ditu saguec eta serpienteac pazcac eta ez du probechurican izango bear du paratu lecu garbien⁷⁰ sasiric éztan lecuen.

Cepoa garbizeco modue. Hudaco denboran hurec bero diren orduen garbi diteque edozein hurequin eta ondarra edo surteco hausarequin eta garbitu ondoan legortu zapi zurierequin baina neguco denboran elze batean hureri ausarequin iraraquin eta bear ditu elzean sartu tomillo edo pusque chiqui aiec galdu ez ditecen ari batean estuta eta beste pieza arqueatuac lo mismo bein (bein) punta belarriequin sartu elcean eta (ger)o beste puntarequin eta (sar)tubabe geldizen dana beardu surteco prasan piscacho bat detenituta pasatu eta gero pasa ausarequin edo ondarrarequin legortu ondo zapierequin; bañan eztu bear sartu⁸⁰ erresorte nagusiac bein ere surteco prasan eztaquion tenplea galdu.

Bibl.:

Berastegiko eskuizkribua. J. Garmendia Larrañagak jasoa. Tolosa.

J. M. SATRUSTEGUI. "El cebo para la caza del zorro en un documento vasco del siglo XVIII". FLV 21 (1975), pág. 237.

J. M. SATRUSTEGUI. "La caza del zorro en el País Vasco". CEEN 29 (1978), p. 201.

J. M. SATRUSTEGUI. "Vasc *ezcutu lodia* unidad monetaria y medida de peso", FLV 30 (1978), pág. 447.

29. INTZA (1772)

Iruñeko elizbarrutian gaizki banaturik zeuden, garai batean, elizaren ondasunak, elizgizonen eginkizunak eta berauen bizibidea. Arazoa bideratzeko ahalegin asko eginak baziren ere lehenago, Juan Lorenzo Irigoyen eta Dutari, gotzai baztandarra, izan zen neurri garrantzitsuenak hartu zituen. Bi agindu nagusi azpimarra ditzakegu: 1758an eta 1769an plazaratuak.

Bigarrenaren edukina jasotzen du, itxuraz, Intzako izkribu honek. Elizbarrutiko egin beharrak eta laguntza iturriak orokorki azter nabia agertzen du eta, horrexegatik, egitasmo orokorra deitzen zaio.

Urteari dagokionez, gotzaiak bere eliz-gutuna eman zuenetik bigarren edo hirugarren urtean egindako azalpena dela esaten da izkribuan, beraz, 1772koa izan daiteke.

Ecusiric gure Erreguec arquizen direla elizetaco errentac gaizqui reparturic edo desigual eta motivo onengati erriec, eta Elizec bearlicetean adiñe ministro bague eta oetati bazuec errenta escasaquin eta onen medioz bear ezluquen bideetan, eta indecencietan parazeagati Elize eta errigucietan Ministro bear direnac edo combeni direnac, eta oc errenta suficienteaquiñ alimenta ditezen decencie onarequiñ Jangoicoaren Ministroac bezala, eta eman dezen doctriñe eta exemplo ona beren elizetan eracusten duel(a) Jangoicoaren leguea; ordenatu izandudu errezivizea informacioa obispadu bacoizeari obispoen medioz, Ciudade Ville, edo erri bacoizean zembat Parroquie zembat¹⁰ Abade, Retore edo Vicario diren, zembat Beneficio eta zenbat Cappillanie diren, eta erri bacoizean zembat Abade, Retore, Vicario edo Benfizietu combeni diren, bear diren bidean Sacramentuec sanoai eta enfermoai aministrezeco, eta Evangelio Santuco doctriñe eracusteco eta predicazeco, ordena onequin cumplizeco gure Obispo Jaunec, orain bi edo iru urte escatuzigun Abade, Retore eta Vicario guziei eman giñezola arazoia bacoize bere errietaco Jendearena,

Abadeen, Beneficietuen, eta Capillauen, eta Estudianteena Serore edo Sachristauen, eta Cappellaniena, nor diren errentaen gucien patronoac eta nola pagazen zazkien elizeco Ministroai errentac,²⁰ diruten edo laboretan zembat labore ganadu edo frutu Juntazen den urteoro amarren bacoizean aterazen dela contue bost urteco amarrenac bataz beste componzen direla eta Erri bacoizean labore ganadu edo frutuec zer precio duen urtebatz beste, Elizec vecindaderic lurric, edo zenso beren favorecoric duen edo errico errentetatic probechuric duen urtean zembat persona ilzen diren, eta zembat Jaio eta ezconzen diren erri bacoizean, eta ozaz zer probechu duen elizeco Ministroac eta erri bacoizean zembat apez manten ditezquean dezencierequin, oen guzien arrazoia eman guenauquen alguenzan moduen Obispo Jauneri orduen, bañe nolabaite au gauze bat aiñ importanzie andicoa, ez Egun³⁰ batecoa edo urte bazuetacoa baizi seculcoa, eta pisue naidu gure Obispo Jaunec Juan cuidadu andierequin gauzonetan eta argati bialzendu berriro orain Erregueren ordena publica didiñ Elizetan igandebatean Meza nagusien, adizera ematen dela Jende guzieren aurrean, iñorc eztezan izan ignorancierric.

Erreguerquiñ Obispo Jauneren intencioa da bada, emendi aurrera ordenatu bearduen guziec izan dezen errenta suficientea dezencie onarequin manten ditezquean bezala beren correspondizen zaten familierequiñ, onetara-co escazen du len esan duden bezala informacioa edo arrazoia, lendabizicoa zembat erri diren erri bacoizean zembat⁴⁰ Beneficio, Beneficietuec bertan bizi diren edo zer obligacio duen, zenbat Parroquie Elize edo Capille publico Meza esaten denac diren erribacoizean, Parroquie bacoizean zembat vecino diren; animen cargue duenac zer errenta, amarren derecho, edo probechu duen; Beneficioac eta Capellanie erri bacoizean direnac, edo Patronoac ematen dituen, edo odol bidez datozen oc zer cargaduen, eta zer errenta duen.

Bigarrena Erri bacoizean zembat Abade, Benefizietu, eta Capellan combeni diren eta zeñ Capellanie zeñequiñ unitu ditezquean, zeñ Beneficio zeñequiñ, eta oetati Abadieren errenta asco ezpada; Abadieri zeñ unitu daquidicoan, eta onetaraco Patrono guziec eman dezela beren⁵⁰ consentimentue, eta oraiñdaño Abade Retore Vicario Beneficietu eta Capellanenzat Obispadu gucietan izanduden renten tasa dela laburre edo chiquie oraiñ gauze guciec balio duenarequiñ, eta emandezala Obispoa(c) tasa berrie errentac añañizen zazquiela bacoizeri, demboraotan gauzec balio duen conformean, eta erri guzietan nola ezbaitue igual balio gauzec, errenta ere ez dela facil guzietan, iguala señalazea baizi begiretu gauzen balioari, erri bacoizean apezac duen neque edo trabajueri Sacramentuen amistrezean sanoai, eta enfermoai eta conformidade onetan señaladiezela errenta ere; Abadeac nolabaitue carga eta trabaju geiego⁶⁰ errenta erebear duela geiego trabajuen soportazeco, eta necesidaden socorrizeco beren buruec, alimentazecoaz gañeti izan dezen

zerequiñ socorritu eta erri zeñbeitetan vi parroquie badire eta errenta abade bat bañe geiego combeni badire eta errenta ezpada suficientea eta eziñ compoundu bada bestela añadi daquiola premicietati, Abade bat baizi ezten lecuen onenzat ezpada errenta bastantea oniere añadidaquiola premicieti, edo amarreneti bada eziñ dautequeala erri guzietan Abade bat berere bague eta bestela bi erriteco Abadiez bat compoundadille eta errenta oc onela compoundu, eta Obispoac señalezen duen errentaren irugarren partera allegazen ez diren Beneficio eta Capellaniec izan ditezela escola⁷⁰ maisuenzat Hospitaleenzat, gurasoric eztuen seme edo alaba pobreen dotezat, Elizetaco pobrenzat, edo Egercicio santuec egiteco seminarioenzat, eta oen gucien egiteco ematen diola Erreguec bere escue eta autoridadea Obispo Jauneri, onec avisetu edo zitatu eta bi illebeteren barrunen acuidezzen patrono guciec emen escazen diren gauze gucien declaracioa eguitera eta consentimentue ematera. Ordena onen cumplizeco esaten du Obispoac preciso dela Obispadu gucico erriec ecustea eta nolaberac ezin ecusi baitizeque, partidu gucietara bialduco dituela Sacerdote eta Ministro edo escribau bat partidu bacoizera, oc esamiñe dicen lau testigo erri bacoizean testigooc bear⁸⁰ duela izan ancianoac concienzie onecoac, eta emen escazen diren gauzen arrazoia eman dezaquenac, Araize, Larraune, Aresora, Leyzera, basaburubietara, eta Araquil guzire etorrico dela informacioa arzera Don Tomas de Marzol Aresoco Beneficietue berac naiduen Ministro edo escribauerequin, eta onen aurrean nola testigoac Juramentueren azpien declaracioa eguiten duen ecustera eta berac consentimentue ematera acudidezela Patrono guciec, eta ezpadue nai escumeca dizela eta au asco ezpada Erregeren ordena notificadiezela Justiciei lagun eguiñ diezou Justiziec, eta alaere ezpadue obedecizen eman diezola contu Obispoari onec acudidezan Erregue(ga)na eta guc publica dezagule⁹⁰ iñor eztezan izan ingnoranzieric.

Bibl.:

C. Saralegui apaizak Intzan aurkitua. JMS-k jaso.
Argitaragabea. 300 x 215 mm. Bi orrialde.

30. SARA (1773)

Auzo herriek legezko muga guzien gainetik arazo arruntak izan obi dituzte eguneroko bizitzan. Sarakoek baztango bazkak baliatzen zituzten aspaldidanik, baina 1773an azienda gorria bahitu zieten baztandarrek.

Sarako J.D. Garat jaunak gutun baten bidez arartekotza eskatzen dio Erratzuko eskribaua zen P.J. Etxenike jaunari, Baztango alkatearekin ez-beharra compoundu dezan.

Baztango udalak zioenez, mugaz handikoek ez zuten bitzarmenaren arabera urte horretako abere kopuruaren zerrendarik bialdu eta errudun dira. Isuna ordaintzea agintzen dute, beraz, eta legezko zerrenda berehala igortzea.

I

Jauna

Aspilcuetaco Guizon Bat aguertu caicu hunat Erraiten darocularic Badela asienda adardun Mulzubat Bahituac aspilcoetaco herian. Eta nola Baitaquizu Cuc eta nic Estugula Maite disputaric, othoy Bada Jauna Idy Behy aratche eta Berce gainerateco asiendaric Balinba Esperanza dut, noblequy Libraracico dituzula guziac, eta Emanen diozutela Cure Sembait aBizuon Cuen Baleco alcate Jaunarequin Batean Guerta Estadien amoreac gatic herri hauquien arthean gauza destra ordenarioric Cu eta ny fiador garen arthe huntan. Esperanzadut Eguinen dituzula Behar diren deliquenziac. naiz, Jauna, Cure Serbitzary humila Eta obediencia Juan Dop Garat.¹⁰

Sara de 11 de Julio 1773.

II

Sarako bigarren gutuna 1776koa da eta Baztango alkateari zuzendu zitzaion. Sarako herri-agintariek beren mendietako ezkurraz baliatzeko debekua, jakinerazten diete baztandarrei.

Denbora berean, Olasur aldeko mugan eraiki berria omen zen etxea salatzen dute lapurtarek, gaiztaginen babes gerta daitekeen beldurrez. Etxezain bat izenda dezaten eskatzen diete nafarrei, horrela hainbeste ardi eta bildots gal ez dezaten inguru haietako artzainek.–

Jaunac

Presenteco carta huntaz aditcerat emaiten darozuet nola herri hunec Ezcurra defendatcen duen bere oyhanetan jcanen ducue Jaunac agrada-ble Cuen Valle nobleco Vecinoen avissaceco.

Berce alde Jaunac cuec eguin duzuen Etchea gure muguen Ingu-ruan olhassurgo partean Ceinetan herri huny eta Ingurucoei ezbaiteote on handiric eguiten eta Eguñen asco yende condicione gaichtocoen Ihes lecuca becala baita desiratcen guindunque jaunac emaiten bacindute Maister bat, alamenos ezguendezaque hainbertce²⁰ ardi eta bildox escas atceman gure artaldetan.

Esperanza dugu Jaunac ordena ona emanen duzuela horren ganean eta gare Errespetu handirequin Cuen Cerbitzary. Darroquy Saraco Greffier. Sara y 20 Sbre. 1776. Presenteco carta hau erremetituco cayo Baztango valle nobleco Jaun alcateary. Baztan.

III

1780. Hirugarren eskutitza baztandarrek bahitutako animaliei buruz idatzi zuten Sarakoek. Baztango alkateari eta beste kargudunei zuzendurik dago, eta Etxeberri saratarrak izenpetzen du.

Zerriak Ultzamako basora eramatean desbideratuta harrapatu omen zizkioten nagusiari. Horren ondoren zigor-sari haundia egotzi zioten baztandarrek, eta bederatzi buruetatik lau saltzera beharturik ikusi omen zen, gastuak ordaintzeko. Animalien jabea gizon apala izanki, zigorra arintzea eskatzen du Sarako alkateak.

Sara y 26 xbre. 1780.

Baztango valle nobleco alcate Jaunari eta karguduney

Jaunac 30

Badaquicue azqueneco facerietan nola herri huntaco particular bat plentucen bere acienda Belzac Vtzamoco Ezcurrerat caramatcila escapatu citzaizcola Belateco harlucetic eta bahicunza pagaracy ciotela Bederatcy buruenzat, ceinetan baitziren lau hilcecoac eta Bortz bicitacoenzat bahincunza Choillarentzat 60 Erreal eta Bazcasariarentzat 13 Erreal. Senticen ahal ducue Jaunac Bahicunza hori gogorra dela particular pobre batenzat ceinetan obligatu Ican baitcen lau aciendaburuen Salcerat bertce gaineracoen libratceco. Seguratuac becala gara Jaunac Icanen ducuen Indulgencia, guicon miserable horren alderat Ceinetan baita presenteco Carta ekharcen duena.⁴⁰

Baldin bada yeusic cuen dispositioneary offrey ditaqueyenic herri huntan disposa cacue jaunac Icanen gara bethy Cuen cerbitzari. Bihotz onez, facheria yurat, Etxebery yurat.

Darroquy, Greffier Secretarioa.-

IV

Udazkeneko lanbideetan garrantzi haundia izana du basoak ezkur urteetan. Beste abere guziak baztertu eta txerrientzat uzten zen ezkurra. Horretarako egutegi berezia bazuten herriek, baina bazkak berak markatzen zuen, azken finean, baliapenaren garaia.

Sarako agintariak bazekiten San Migel egunean hasten zela ezcurraren debekua, baina 1781ean aurreraturik etorri zen basoa eta hamar egun lehena-go, irailaren 19an, eman zuten aziendak ateratzeko agindua.

Erabaki honen iragarpena da hurrengo lerroetan datorrena.

Sara y 19 de set. 1781

Jaunac: Othoizten caituztegu Abissu emaitiaz cuen Valle Nobleco vnaiey attencione eman dezaten aciendaric Sar ezdadin herri huntaco oihan barne-tan, ezcur debecua emana dugu: bertce herrieterat orobat escribatu dugu daquigun arren ez decaquegula deffendaric eman San Miguel ondoraino: bainan Icousten duzue⁵⁰ nasquy Cuen herrietan ere bertze vrthetan Baino aurthen Sassoinac goizago direla. Cassua guerthatcen baliz Jaunac cuen partetic guc cembait ordena berry errecibitcea guztu handierequin conforma guintazque cuen ordenanzary: Esperanza dugu abissua emanaracico duzuela cuen Vallean; eta guelditcen gare consideracionerequin Cuen Cerbitzary humillac. Bernardo Etchetto, Alcatea.

Bibl.:

- Baztango udal artxibuan. Elizondo. "Amojonamientos, límites y facerías", Baztan-Sara. (1773-1893), eskutitzak, 16.1bilduma zenb.
- E. ZUDAIRE. "Correspondencia epistolar facera (s. XVIII)". BRSVAP XXIV (1968), pp. 377-383.
- J. M. SATRUSTEGUI. "Correspondencia oficial vasca del siglo XVIII", FLV 47 (1986), pp. 125-149.

31. HONDARRIBIA (1778)

Hondarribiko herri-agintariak ez ziren ongi konpontzen, 1778an, bertako abadearekin. Honek zioenez, bere abotsagatik ezin zuen sermoirik egin, eta ordezeko baten bidez betetzen zuen bere eginkizun hau.

Herri-agintarien ustez, kalte haundia zekarren horrek fededunentzat eta auzitara eraman zuten apaiza. Igande eta festa egunetako predikua artzaiari zegokion lana zela, adierazi zioten epaileek.

Apaizak aitzaki honekin, udalak izendatzen zuen predikaria baztartu eta salatu zutenen aurkako hitzak esan omen zituen pulpitutik.

Udalaren erantzuna, orduan, gaizki esanak epai mabaira eramatea izan zen, eta hori dela bide aurkitu dugu enskarazko testua.

Aguindu cionian Jangoicuac Moyses i predicazi zaiela Isrraelitaqui hurá zela Abrahan, Isac, eta Jacoben Jaungoicua, escusatu zizaion Moyses ezanarequin zela motela, eta zuela traba minganian; baño ezion Jaungoicuac nian ereman achaqui au oñelacoa.

Jangoicuac eman zidan niri here ordena eta obligacioa, eliza onetaco Vicario nere hala biarrac ereguiñ niñ hubenian, zuequi predicazeco, eta adizera emateco gure Jaungoicuaren izatia, eta legue santua, eta ÷te banuen here ÷bligacio ni nai adiña cumplimentu ematen niola nor naiec gustus adilezaquen ordañ baten medios predicatuarequin, batezere mingañian traba eta moteltasuna dudanian,¹⁰ guciac daquizian bezala; baño erri onetaco Capitularrac pleitu emanic ereguiten didate nérezpredicazia.

Au bálizaque, naiagoz nere izac aditu, besterenac vaño gozoagoac eta frutu geiagocoac izango direlaco esperanzarequin, izango lizaque nerezat honrra andia, eta alaco personaquensat Jaungoicuaren bendicioac, baño, pleitu eta tema gucia ni nondic gueiago estutu nola niri gueiago gastarasi, onélatan, urricari ditut pensamenttu onelacotan vici diren personac; nic barcazen diet biozetic, baño estut ÷te ez vician, eta ez eriozian izango dutela sucesso nic. Está gausa francoagoric escritura sagraduan, nola Jaungoicuac eguiñaco castiguac²⁰ bere ministrotas burla eguiten zutenaqui. Beguiac idequi nai baditucia, nic badaquit ecusco dituziala Ondarribian bertan modu au béreco castiguac sacerdotiaqui bidebaguiac eguiten zitien personatan. Au gucia jaquiñic ezaten diciat orañ.

Cristau batec bere fina lograzeco eta saluaseco, biartu lau gausa, señ didaren fedea, esperanza, caridadia, eta obra onac; eta saluaseco biardiren obrac, adizera ematen dire Jangoicuaren legeco amar mandamentu santuetan, S. Agustinec ezaten duben bezala: *ex decem praeceptis omnia quae iusit Deus pendent, si diligenter quaerantur et recte intellegantur*, eta arengatic ondo aurdazen tuena salvatuco da Christo gure Jaunac ezaten duben bezala, *si vis ad vitam ingredi, serva mandata*, nai baldin baduzu Ceruan sart, guardazazu Mandamentuac, ondo guardaseco jaquin biar dire eta aditu; diot jaquin eta aditu Jaincoicuac Mandamentu bacochian ser aguinzen eta ser prohibizen digun: gausa onetan badire inorancia asco, aun gende obligacio dutenetan. Vada, desterrazeco inorancia eta Cerura animac guiaseco, seña den Jaincoicuaren legia, pasazen naiz explicazera amar mandamentu santuac.

Lenbico Mandamentua da, Jaincoicua amazea gausa gustien gañian. Aguinzen du Jaincoicuac adora dezagula, eta seruidezagula ematen⁴⁰ zaigolaric honrra eta respetua sorsaigona, gure Criadoria eta Jauna den bezala. Jaincoicua adoratu ditaque bi aldetara, lendabiscua da barrendic, eta espirotuarequiñ, eta bigarrena Campotic eta gopusarequiñ. Adorazen dugu Jaincoi-

cua barrendic eta espirituarequiñ, juntazen garenian árequin, gure vior gustiarequiñ, gure Jauna eta Nagusia dén bezala, fede esperanza eta Caridadesco actuaquiñ senac diren iru virtuteac deizen diogunac theologalac. Adorazen dugu Jaincoicua Campotic gorpuseco accio edo movimentu bazubequiñ adizera ematen dugunian errespetu sordioguna; eta ala obligatuac gaude ematea Jaincoicuari reverencia varrendic eta campotic, serengatic gure⁵⁰ gorpuza tocazen zaigon Jaincoicuari gure espiritua bezala, eta ala arrazoia da onrrazia eta adoracia Jaincoicua espirituarequiñ baitare gorpusarequiñ. Vi adoracio otatic Jaincoicuari gueiena agradazen zaigona, eta escazen duena especialidariarequin da, barrendican esperituarequiñ ematenzaigona, vano orregatic estugu lajatu biar Campotic ematen zaigona, vada ála eguin zuben Christo gure Jaunac, eta vere Apostoluac, S. Juanec ezaten duben bezala, eta ala veti. Gorpuzeco adoraziua Juan viar du acompanatua barrengo humildadiarequiñ; vada ematea Jaincoicuari Campotic adoraciua eta reuerencia eta ez barrendic da hipocresia eta embusteria onélaco⁶⁰ guendiaz formazen tu quexa ándiac. Jaincoicua Escritura Sagraduaren parte ascotan, Munduco amoriuac dominazen tuen gende aiec didare hipocritac Jaincoicuaen aurrian jarriver direnian, eta ezaten diotenian adorazen dutela. Serengatic esta adorazen Jaincoicua espiritua eta eguiarequiñ, ezada amazen denian S. Agustinec ezaten duben bezala, eta munduco amoriuac etu ser ecuzi Jaincoicuarenaquiñ, segun adizera ematen digun Christo gure Jaunac S. Matheoren medios: ‘sembat amante tuen Munduac, eta zen guchi Jaincoicua! O gure miseria. Aimbeste amorio Criaturaqui, pompa, vanidadia, eta interesari, eta añ guchi Jaingoico on bati. Au da gausa bat chit lastimagarria eta⁷⁰ comunqui Munduan suzedizen dena. Ojala ála expaliz.

Orañ pasatuco naqiz explicazera gaurco Evangelia.

Erat Jesus eyciens demonium et illud erat mutum (Luc. cap. undécimo). Christo gure Jaunac predicatu eta erecuzi esguero vere Discipuluaqui eta gende seguizen ziotenaqui, nola oraciua eguin biar zuten, eguin zituen milagro bazuec dotrina confirmaseco eta sinistuarazozeco; eta beste ascoren artian eguin zuen gaur Eliza Ama Santuac proponisen diguna eta S. Lucas Evangelistac referizen duena, au da quenzia demoniua Gezn baten gorpusetic seña zeucan es bacarric mututua, S. Lucasec ezaten duen bezala, baicican izutua S. Matheoc⁸⁰ ezaten duben bezala baitare gorra Tertulianoc, Eutimoc, eta S. Juan Crisostomoc ezaten dutenez. Vada miserable oni demoniua izi zitzen bere auxilioco ate gustiac remedioric izan ezezan: orobat eguiten du peccadoriarequiñ; eta botatu zubenian Demoniu, Gizon mutuac iz eguin zuen. Animatic botazen vada peccatuaren sursaia contricio, eta emendazeco proposituarequin ondo iz eguingo du peccariac, lenago mutua zegonac eta lozas peccatuac lajazen cituenac; vaño, espatu botazen bere animatic bere passio

char, venganza, odio murmuracio, bere projimua ezin icusinaia, estú ondo iz eguingo, eta ala gueldituco da mutua; iz eguiten ecuzi zutenian mutu ura gendiac admiratu ziren.⁹⁰ Vaño aietatic bacuec, oc dire Escribac, eta Farisiuac (edo subec ezaten ducian bezala, gende andi mandiac, edo errico aguintariac, eta ez gende chiquiac, edo sensilluac, erritan batere aguizen estutenac) ezan zuben: ónec (au dá Christo gure Jauna) botazen tu Demoniuac, Belzebu Demoniuaguen Principiaren virtute eta podoriarequiñ; eta bestiac tentazen zuten Christo gure Jauna eta escazen citiosten Ceruco Señaliac argan siñisteco: emen agerzen dire caluniataco bi genero: batengatic atribuizen cioten Christo gure Jaunari demoniuac botazeco milagro urá, ezubela eguiñ vere virtutiarequin, baisica diaurrarenaquin, ezaten zutelatic, Belzebu Demoniuaguen Pricipiaren¹⁰⁰ virtutiaren medios botazen zituela. Bigarrenagatic caluniazzen zuten, aren malagruac sirela chiquiac, eta comunac vada ziren gorpseco zazunaren gañean, eta ala escazen cioten Ceruco milagro ándiac, nola diren eguskia gueldizia, Josueren denboran bezala, edo zuba Cerutican abajacia, abajatu zen bezala Eliasen denboran; vaño Christo gure Jaunac ezituben eguiñ izandu, serengatic despreciatuco zitusten, eta ala responditu zien ezizai-guela emango señaleric, baisica Ninibita eta Sabá Erreguinarena, señac izango ziren Juiziuac aien contra. Vada Ninibitac aun gentillac izanagatic conuertitu ziren Jonaren predicacioarequin, eta aiec izanican Ebreoac eta Jaincoicuaren Erri¹¹⁰ escojitucac eziren conuertitu Mesiaren predicasiuarequiñ, eta Sabá Erreguiña etorrizen Munduaren cabutic Salomonen jaquiundia adiziagatic, eta aiec izanican an, denican Salomon ónena Maizuzat, seiñ zen Jaquinzun gustia, ezuten aditu nai sinisteco, eta beren buruac conuertizeco, baizica hurá reprendiseco eta haren dotrinaz murmurazeco; Vaño Christo gure Jaunac ezagaturic aien barrenac, responditu zien eta ezan zien: diuiditua dagon erreinu gustia bere artian, izango da destruitua, eta erorico da iche bat bestiaren gañera. Vada Satanas (au da, aren Inperiuac) diuiditua bádago bere artian, halaco modus, non demonio basuec dauden bestien contra nola¹²⁰ iraungo du aien ereinuac? Eta Erri batian, edo familia batian badire pandillac, edo bandac, (serengatic gustiac aguindu nai duten) noiz artian iraungo du erri edo familia arc? Eta zer gausa on izan alditaque Erri edo familia artan? baisic chismiatic, enrreduac, naigabiatic, ezin ecusiatic, pleituac, adula-ciucac, venganzac, odiuac, enfermedadiatic, miseriac, laseriac, eta passio charrac? Eta nic, prosequizen du Christo gure Jaunac, zubez ezaten ducian bezala, botazen batut Demoniuac Belbezuren virtutearequiñ zubén seméac (emen iz eguiten du Apostoluacatic, señec ere botazen situsten Demoniuac, eta deizen tu semeac, au da zuben naciocuc Judienac subec bezala)¹³⁰ noren virtutiarequiñ botazen tuste.

Au zen argumentu fuerte bat, serengatic Hebreoac confesazen zuten Apostoluac botazen zistutela Demoniuac Jaincoicuaren virtutearequiñ eta

Christo gure Jaunac argumentu eguiten die modu onetan: zuben seme oriec, senac diren nere Discipuluac botazen batuste Demoniuac Jaincoicuaren virtutiareguin, zubez confesazen ducian bezala; Ni aien Maizua izanica, nola estitut bota biar Demoniuac Jaincoicuaren virtutiareguin, baizic Belzeburenareguin? Vada ecuzia zagon, onec conuencitu biar zituela. Au da gaurco Euangeliuac adizera ematen diguna, eta, orandaraño izandu bagara mutuac, pecatuac confesoriari¹⁴⁰ confesaseco, aberra procuradezagun mututazun au quencia (vada nai dugun gausetaco quenzen dugu); nela eguiten badugu Mundu onetan pecatuac ñdo confesatuta, guero conseguituco dugu beste Munduan Ceruco gloria. Ala izan dadilla.

Bibl.:

- Arch. Dioc. Pamplona. "Proceso criminal de la ciudad de Fuenterrabía contra el vicario". Fajo único. Pendientes, Fuenterrabía 1780. Sc.º Moreno. 184 folios.
- J. M. SATRUSTEGUI. "Plática vasca del año 1778 en un proceso de Fuenterrabía". CEEN 32 (1979), pp. 287-302.

32. LANGARIKA (17..)

Felix Antonio Lz. de Luzuriaga 1756ko uztailaren 20an sortu zen Arabako Langarika herritxoan. Aguraindik gertu dago Gereñura doan bide sabetsean. Gaur egun ia husturik gelditu bada ere, XIX.mendearen hasieran bazituen 22 familia 18 etxetan bizi zirenak eta 112 biztanle. Nekazari herria zen. Udalez Azilu lurraldeko bederatzi herrietako partaidea eta elizaz Calaborrako barrutikoa zen une hartan.

Jatorrizko abizena utzi eta bere sorterriaren izena hartu zuen 1776an, kaputxi-noen arroparekin batera. Felix de Langarica dio berak niregana iritsitako eskuizkribu bildumaren estalki zorroan.

Frantsesen gerra denboran gaxozain agertzen da Elizondo, Bertizarana eta Marcillako eritetxeetan. Itxuraz, herriren batean erretor egon zen eta parrokiari sartu zen eguneko aurkezpen hitzaldia utzi digu. Beste apaizen baten sarrera-bitzak izan daitezke. Nondik edo nola ez dakigula, Muruzabalgo apez-etxean agertu da bere izena daraman eskuizkribuen bilduma. 312 bat orrialde osatzen duten 75 prediku dira, orohar, eta gehien bat euskaraz daude. Hiruzpalau egileren lanak dira, nabiz Langarikaren iskirionea nagusi den.

Euskaldun zaharra ote zen arabar hau? . Galdeerak badu bere garrantzia gaztedaniko kutsurik badukeen jakiteko. Felixen aita eta aitonak biak Langarikan sortuak ziren, Agurainen alboan. Ama Heredierra zuen, eta amona biak, Araia-koa bata eta Ozaetakoa bestea. Berandu arte gorde da euskara lurralde hauetan.

I

Dominica 2. Quaresma. Numero de los que se salvan.

Asumpsit Iesus, Petrum, Iacobum, et Ioannem etc.

Mat. Cap. 17

I

Antioquiaco ciudadea cen dembora batean Christiandadean lembisicoa, cergatic paratu cituen an San Pedroc erreligio Catholicoaren cimenduec, eta ala ciudade artan vici cirenac, icendu ciren eliceco lembisico Christioac: *ita ut cognominarentur primum Antiochie discipuli Christiani*: Ciudade ontan erraten du Eusevioc, arquicen cirela sei eun mille christio, bada ciudade andi ontan prediquecen zuelaric San Juan Chrisostomo gloriosoac erran cituen itz batzuec, ceñec nai nuque arguicen balituque zuen entendamentuec. Ciudade ontan vici direnetatic, cembat pensacen duce salvatuco direla? Nic erranen dutena, badaquit etzaicela quadratuco, bañe ala ere, ecin¹⁰ utzi dezaquet erran bague; aimberce mille Personen artean, ecin arquitu deitezque eun, salba deitezquenac; eta eun ayetas ere, dudedecen dut. O Jangoico Soberano! cein gauec terriblea! Norc erraten du au? Espiritu Sandueren organo batec. Nori erraten dio? Christio ayegui, ceñec icendu zuten beren Maistru San Pedro bat, eta guero San Ignacio Martir glorioso, eta cer erraten du? Sei eun mille Christioen ertean, dudedecen duela, eun vacarric salvatuco ote diren. Sentencie ecin gueiagos terriblea da au nere Christioac, bañe nic icusten dut, duela bere prueba gaurco Evangelioan: onec erraten digu, arquicen cela Jerusalenen Piscina, edo Butzuet, ceñeren urec Ainguiru batec²⁰ moguicearequin, edo nastearequin ematen zuen osasune: Bañe advertitu bear dugu, arara acudicen zuten eri gucietatic, bat bacarra cela, sendaturic gueldicen cena: *sanabatur unus*: Anitz ciren ur ayetara juaten cirenac: *Multitudo languentium*: eta aimberceren artean, solo batec logracen zuen osasune; eta ontan erreprentacen zaigu: erraten dute Doctore Sanduec, anitcen ertean, bacarrac direla salvacen direnac; guciec deseacen dute salvacea, eri ayec deseacen zuten bezela osasune, bañe bacarrac dire salvacen direnac, bacarra cen bezela, ur ayetan sendacen cena. Au gucie da erratea, gueiago direla condenacen direnac, salvacen direnac vaño; gueiago ciren bezela Piscine artan eri³⁰ gueldicen cirenac osasune logracen zutenac vaño: Estut emen itz eguiten ez oraiñouso arraciora hellegatu bague, bataieturic illcen diren aurretas, bada ayec ecin juan deitezque infernure, cergatic ecin eguin dezaqueten becuric. Bacarric itz eguiten dut, uso arraciaoan sartu diren Christioes. Asunto, edo idea izugarrie idurico zeice zuegui, dela au, bañe adverti zace, bentures infernuen

errecen deuden aietatic, cembeit salvatuco cirela, egui au aitu icen balute. Au prediquetuco dicet nic batere ponderacioric bague, zuen provechureco. Asicen naiz.

Viejerem bat eguin naiduelaric batec, hellegacen bada videas⁴⁰ galdeitera eta errespondacen badiote experimentatu dutenac, dela arec galdeiten duen vide ore, gucis mearra, eta ongui idequi baguea, estut beala ezautuco, guti direla, vide aren barrena ibilcen direnac, eta ala guti hellegacen direla Ciudade artara, noraco den vide ori? Esta ontan duderic. Bada nere Christio maiteac, certaco, bear dire prueba, eta argumentuec jaquiteco, guti direla hellegacen direnac Ceruco Ciudade Sandu artara aicen dugunean Jesu-Christoren Magestadeac verac, ceñec ongui eracusiric, eta ibilliric deuquen vide ore, erraten badigu, dela mearra, eta guti direla ori topacen dutenac? Cer necesidade dugu, examinececo gueiago, edo gutiago diren salvacen⁵⁰ direnac, asegurecen digunean Jaun arec verac, galceco vide, cein den infernucoa, dela gucis zabala, eta anitz direla an sarcen direnac. Bañe desengaña zeisten obequi, parazace zuen consideracioa David Erreguearen itz aubetan: *Domine a paucis de terra divide eos*: Jaune erraten dio David Jangoicoari; Infernuco videan davilcen becatari gaisto oyec, beresi zazu lurrean arquicen diren guciatic: Bañe nor dirade, icenic estuten guti oyec? nor? guti oyec, guti icenic, nombratu bear esta, ezauceco, oyec direla justoac, Ceruco videan davilcenac; eta esta au guti izetea Justoac, eta guti salvacen direnac? Estaquit nic iorc dudetu dezaquen, anitz gueiago direla⁶⁰ condenacen diren Christioac, salvacen direnac vaño.

Bañe icusi dezagun, egui onen iduri claro bat Escriture Sagraduen. Atra ciren sei eun mille guizon Egiptotic, yoateco promisioneco lurrera; Guizon oyetan deude errerepresentaturic Christio guciac; cergatic pasatu zuten icheso gorrie, ceñec errerepresentacen duen Baupismo Sandue, non sarcen gaden Christio guciac. Cembat uste duze bada sei eun mille guizon aietatic hellegatu cirela sarcera, promisioneco lur artan, ceñec errerepresentacen duen Cerue? Erdiec? iru partetatic bat? edo mille bat guciatic? Ez eta ere berrogei eta amar. Vi persona bacarric hellegatu ciren aimberce eun milletatic,⁷⁰ Caleb, eta Josue bacarric icen ciren logratu zutenac diche ore. Orai erraten du San Pabloc, ayegui guertatu ceitquotena, dela, guri guertatuco zaigun iduri bet: *Hec autem omnia in figura contingebant illis*: Bada orai nere Christioac, aimberce eun milletatic, vi bacarric hellegacea lur artara, bada, guri guertatuco zaiguneren aviso bat, cembat icenen dire, aimberce mille Christiotatic hellegatuco direnac Cerue? Aguirien dago, cein guti izenen diren. Eta au aituric, nola vici zaitezque becatarie, ain seogu andien, bacindoque bezela Cerue escueren ondoan, nai duzunean arrepacoco, zure antojora vici esqueros? Esta ez, zuc uste duzun bezeñ erras Cerue hellegacea; au obequi⁸⁰ ezaturic,

desengañetu ceitecen, aizazu caso au. Aite Sanduet, ceñes, etzuen iorc pensacen, uts eguin zuela bere obligacioetan, eta vicitu cen escandaloric eman bague, arquicen celaric illceco peligroan, deitu zuen bere Confesorea, eta oni eman cion, berac zuen potestade gucie; Confesatu cen onequin, Confesatu, eta beala illcen. Aite Sandu au ill, eta ceimbeit egunen buruen, descuideturic cegonean Confesorea, ara non aguirtu ceiquion aurpegui triste batequin, eta figure izugarri batequin. Galdin cion Confesoreac, ya ure cen, arec Confesaturic, absolviaoa eman cion Aite Sandue, eta erran cion bayetz ure cela, eta arquicen cela infernure condenaturic. Nola da posible ori, erran cion⁹⁰ Confesoreac, etzara confesatu, estuzu artu absolvicio plenario bat zure becatuetas, ala da, errespondatu cion; bañe Juez Divino arec bere juicio justoen gatic, eta ez topatues ni ongui preparaturic, estu aceptatu nai icendu, eta itz aubec erraten cituela jaichicen infernuco calabozoetara. O nere Christioac, Jangoicoaren disposicioa icendu cen, guc jaquitea Aite Sandueren condenacioa: guc jaquin dezagun estela ascoc pensacen duten bezein erraz salvacea, eta guciec considera dezaten Aite Sandu onen fin miserablea, aimberce facultaderequin absolviaoa artu bazuen ere. Jaquin dezagun bada nere Christioac, salvacen direnac, estirela aimberce, nola condenacen direnac; eta au¹⁰⁰ jaquiñic, nola vici zarate ain descuideturic!

Arquicen garelaric Elicen ontan, aguircen baliz Ainguru bet, erraten diguleric, becatariac jarri zeiste ongui Jangoicoarequin, cergatic orai etorrico da Cerutic su gaisto bat, eta illic utcico ditu ogeui persona, au aitu esqueros ez guiñeque guciec bildurtuco? Bada cer icenen litzeque, erraten balu Aingurubec emen gaudenetatic, gueienac abrasatuco gaituela su arec? Naiz erraten balu ere, bat vacarric illic gueldituco dela, izenen litzeque motivoric asqui, gucie izuceco, eta beldurceco. Bada becatari miserablea, ez Aingueru batec, beicic Ainguiruen Jaun eta Erregue Soberano arec erraten digu, anitz¹¹⁰ direla deituec Cerureco, bañe guti salvacen direnac, eta ala gueiago direla infernuco su arec errecen dituenac; eta icenen da zuen ermean, izucen, lotsacenc, eta bildurcen estenic? Orai contuen obequi arceco; obequi ezautu nai baduze, cein guti diren Christio etatic salvacen direnac, condenacen diren comparacioan, aizace San Vicente Ferrer glorioso. Gaistoen engaño andie da, guciegui fiezea Jangoicoaren misericordien pensaturic Christio guciec salvacen direla. Ojala amar partetatic bat salvacen balitz; beguire zace nere Christioac, esta au nic asmacen duden pensamentue: San Vicente Ferreren sentencie da; bada nere Christioac, solo amar partetatic, bat salvazeas, contentatuco¹²⁰ balitz Sandu au, bel deiteque aimberce ere estirela Christioetatic salvacen direnac. Bada cer desgracie andiagoric au baño? fundamentu, eta motivo andiec izendu dituste ala Sandu onec, nola berce ascoc, Theologoac, eta expositoreac, errateco gueiago direla Christiotatic condenacen direnac;

fundamentu oietatic bat da; etorri cenean Jesu-Christo mundure, solo guardacen cen, Jangoicoac Moisesi eman cion Leguea Ebreon ermean, oyec bacarric veneracen zuten Jangoicoaren icen Sandue; Erreinu ore cen solo Jangoicoac escogitue. Eta cembat uste dute salvatu cirela Erreinu escogitu artan? Aizace Ysaías, eta San Pablo: *Si fuerit numerus filiorum Ysraael tan quam arena Maris;*¹³⁰ Reliquiae salve fiant : Ychesoan ondar dine badire ere Ysraaelgo Humeac, ondarrac bacarric salvatuco dire. Oguei izendu ciren Judaco Erreguiac, iru eun, lau etan oguei, eta amavi hurtes eta ayetatic vortz bacarric salvatu ciren, amiru condenatu ciren, eta verce vietas estaquigu cer icendu cen. Au guertatu cen Erreinu artan, cein gloriecen cen, guardaceas Jangoicoaren Leguea, eta izeteas Jangoicoac escogitue. Atoste orai, Jangoicoac legue graciezcoan escogitu duenetara, ceñec diren Christioac; eta icusico duze aimberce misterio, aimberce erremedio, eta Sacramentuen ermean, nola eman ditzquigun Jangoicoac, andiangoac, edo aiñ andiec direla Christioen becatuec, eta¹⁴⁰ ingratitudeac, nola gende aienac; ezaun zace bada emendic, ya gueiago, edo gutiago diren condenacen diren Christioac. Eztuce ya ezaucen? Etzarate ya desengañacen? Eta ezaucen baduzu, nola etzara beldurcen.

Naiz jaquiten baziñuque ere, Christio gucietatic bat bacarra condenatuco dela, izutu bear ciñuque, bada erran cionean Jesu-Christoc bere amavi Discipulo egui, aietatic bat izenen cela, ure salduco zuena, eta condenatuco cena, etcen icen ayen ermean, beldurtu etcenic, concienec eracusten bacioten ere libre zeudela; bada cer beldurtasune estute artu bear, culpe duten ayec, eta beren concienec eracusten dioten ayegui, anitz becatueren jabe arquicen direla? Bañe o¹⁵⁰ lastime! pensacen dute becatariac, beren gustora vici esqueros, vicio ta maldadetan sarturic egon esqueros, beren vicio pasatu esquero! deus ere eguin bague, garaiceco beren pasio gaistoac, quenceco jurementu, eta maldicio eguiteco duten costumbre gaistoa proximoa engañaceco, eta luxurico ciquinquiric eguiteco duten inclinico gaistoa, logratuco dutela Ceruco glorie. O engañu terriblea! ongui erreprendicen duena, Espiritu Sanduec verac erraten duenean; arquicen dire becatari batzuec ain seguro vici direnac, balaquete bezela Justoen obra onac. Becatu mortales cargaturic, eta esperanza falso bates beteric, fieturic salvatuco direla. Jangoicoa servicen dutenac bezain ongui. Advertizace¹⁶⁰ bada alaco becatariac, cer erraten duen Jesu-Christoren Magestadeac. Ceruen sartu nai dutenac, eguin bear du guerra beren pasione, eta inclinacion contra. Estu Ceruen Corona logratuco, valorearequin pelean cen estuenac bere vicioen contra.

Au ala delaric, jarri gaitecen nere Christioac consideracen, cembat becatari arquiteco diren vicioen contra ala pelean dutenac, inder andie eguiten diotenac beren pasione, eta eguin al gucien procurecen dutenac beren costumbre gaistoac garaitzea? Esta gauce andie izenen, topazea, eun Christioeta-

tic bat? Guacen Escriture Sagradure, eta andic ezautuco dugu. Deseacen zuen Gedeon erraten cen¹⁷⁰ Capitan baleroso arec, garaicea Madianitec, eta erraten ciolaric Jangoicoac berac, escogitu zezala, oguei eta amavi mille soldadotatic valientenac, eta peleatu cezaquetenac; pasatu cen escogicera, guardacen zuelatic puntualqui, Jangoicoac eman cion señalea, ezauceco cein ciren escogitu bear cituenac. Orai bada, cembat topatuco cituen Capitan arec capaz cirenac peleaceco? Soldado ayetatic erdiec? Ceñec beitre amasei mille? Ez eta ere mille, etciren pasatu iru eun etatic. Yru eun oyec bacarric arquite ciren, oguei eta amavi mille soldadoen ermean, capaz cirenac valorerequin peleaceco, eta etsaie garaiceco. Bada cer icendu cen au sentido moralean, beicic paracia Jangoicoac¹⁸⁰ gure considracion, cein guti diren vicio, pasione, costumbre gaistoen contraco guerran animecen direnac peleacera, garaizera eta victorie alcanzacera. Bada emendic ezautu bear dugu anitz edo guti icenen diren Ceruen sartuco direnac, beren vicioetas victorie logratuic, norc estu confesatuco beala, direla gutienac? Eta cer milagro icenen da nic erratea eun Christioatic, apenas bat salvatuco dela?.

Beren vicio, eta costumbre gaistoegui guerra eguiten estiotes becatari aiec dirade Christioetatic gaienac guise berean gaienac icenen dire, vici direnac becatutic, confesiora, confesiotic becatue, bein ere emendatu bague. Eta cer erranen dugu oyetas? Gueienac¹⁹⁰ condenacen dire? Ez solo gueienac, beicic siñestatu deiteque, oyetatic bacarrac direla salvacen direnac; Eguie da alaco becatariac confesacen direla, eta Confesio on bat asqui dela Diabruen izen agatic, Sanduet eguiñic gueldiceco, cergatic alaco gracie, ta virtutea duen confesio on batec, bañe nola gueienac diren confesio gaistoac eguiten ditustennac, emendic eldude gueienac condenacea. Nic badaquit compondu deitequela confesio ona izetearequin berris becatue izulcea, bañe au izenen da, cembat demboraren buruen, edo uste bagueco ocasioren baten medios, edo tentacio gaistorem batec garaituic; bañe viciea erorcen eta alchacen, bein ere emmiendaric bague, ya costumbre eguiñic nola²⁰⁰ compon deiteque confesio onarequin? fedea eguin dezaquetenac puntu ontan dirade Doctore Sanduec: Aizace bada: Erran zadazu San Ambrosio gloriosoa cein de eguiasco penitencie? Da ure ceñeren medios usten den becatu eguitea; au de señalea ezauceco eguiasco dolorea izendu dela. Erran zaguzu San Agustin gloriosoa, cein de? len erran duzun ori bera; Cergatic confesio ure ceñean izulcen den becatarie len utzi duenera, esta confesioa, beicic desprecioa; estu quencen beicic gueldicen ditu becatuec. Erran zazu zuc San Gregorio gloriosoa; Ure bacarric erraten du eguiasqui urriquericen da, ceñec pena eta dolorea icen esqueros becatues, estu guero eguiten, certas pena ta urriquimentu artu. Au de²¹⁰ nere Christioac Sanduec erraten dutena; gueros, zuc becatarie, gueldicen badituzu becatuec, ez paduzu usten costumbre gaistoac, berris egui-

ten baduzu, urriquericeco etzarare viocetic arrepenticen; estu zure penitencie eguiascoa, eta zure Confesioac estire onac, beicic sacrilegoac, eta frutoric bagueac.

Ori gucie ala da Aite, bañe alaco becatariac illeco trancean confesacen dire eta siñestatu deiteque confesio ore dela bear bezelacoa, eta ala salvacen direla; Desengaña gaitecen nere Christioac; beti ibilli dena Ynfernucio videan barrena,²²⁰ fiñean arquicen da Ceruco Atarien; Ala bada icusten da mun- duen; Yruñe videan barrena doiena, baldin ion gueldicen ez pada, Yruñen arquiteco da, bada au bera, guertacen da gure casoan, gaizqui vici dena gaste demboran aficione, edo costumbre ayequin, arquiteco da guizona denean, eta gaizqui vicitu bada guizona cenean, orbat izenenda zarcen denean; eta errecivitu agatic erioceco orduen Sacramentu guciec, nola osasune zuenean, gaizqui errecevicen cituen, orbat guertatucio zaiõ trance peligroso artan, eta ala gaizqui illenda. Aizace San Gregoriorien sentencie au: *Vix de centum millibus hominum, quorum mala fuit vita semper, meretur habere indulgentiam unus*: Erran naidu: Eun mille personetatic, ceñec gaizqui vicitu diren, apenas bat bacarra salvatucio dela; Eta emendic seguicen da atracea consequencie au, gutiaco direla Christioen ertean salvacen direnac, condenacen direnac baño. Eta acabatu dezaten aizace caso au.

Arcediano batec, Francieco Erreinuen, utzi zuen bere dignidatea, eta erretiretu cen Desierto batera penitencie eguitera; illcen Arcediano au San Bernardo gloriosoa ilcen egunean, eta aguircen celaric bere Obispoari erran cion guisse ontan, ni ill nicen ordu artan berean, ill ciren oguei eta amar mille persona, oyetatic San Bernardo eta ni juañ gara Cerure, iru juañ dire Purgatoriora, eta berce guciec jaichi dire Ynfernure. Cer dioce orai nere Christioac?²⁴⁰ iduri zeice guti direla, oguei ta amar milletatic ez salvacea vi beicic? Aizace bada berce caso bat: Alemanien prediquecen cegolaric Frai Bertoldo San Francisco conventuacoa, guelditu cen derepente illic Andre bat Elicen dolore eta urriquimentu eren pasios; guciec veala oracio eguin zuten Andre onen favoretan, eta veala vicire izuliric erran zuen gucien aurrean; ni presentatu naicenean Jangoicoaren tribunalean, demborra berean presentatuec icendu dire, berroguei ta amar mille persona, oyetatic iru juañ dire Purgatoriora, eta berce gañeraco guciec condenatu dire: O Jangoicoaren Juicioaren anditasune! O aicen duzun becatarie! Cer ari zara! nola vici zara? Cer esperacen²⁵⁰ duzu zure vici modu gaisto orrequin? Nora zuas vide ortatic? Ai Aite, Ynfernucio videan barrena ibilli naiz, eta nai nuque orai Ceruco videan artu; naiguindueque Aite jaquin cer eguin bear dugun salvaceco; Zuen escuetan dago salvacioa nere Christioac, cergatic orai eguin dezaquece, guero erioce onbat esperatu dezacen; orai artio icen baduce vicice galduet, izuli zeiste orai, vicice berri batera, confesio on baten medios; dudoso a icendu

bada orai artio zuen salvacioa, asegure zaci garaicen duzelaric zuen apetitu, eta inclinacio gaistoac, au da erremedioric obrena, arcea, zuen escuen dago, deicen duzelaric viocetic Jangoicoari, orai Jaun onec despachatuco ditu zuen²⁶⁰ memorialac, bada zuen alde dago aren piedade gucie; orai da dembora orai da ordue. Ea Jesusen hume estimetuec, erresolbitu ceiste Jaun Divino onen gracie logracera; laster eguin zace galdu estadien ocasio au. Demonio Ynferralna Ainguiru errebeldea, Criature gucien desprecioa zarena, zu ecin izuli zeitezquena ya Ceruco videra, zu ecin hellegatu zaitezquena Cerure; Atrazaitte beala Elice ontatic, utzi nazadazu ni bacarric becatari aubequin. Ea Anime Christioac! Nai duze joan Cerure, edo Ynfernure; Cerure nai dugu guciec, estuce cer negar eguin, gueldicen bada becatarirem bat Ynfernuco videan; salva bedi aldeitequena, eta icen bedi beala, eguin dezagun acto Contriciosco²⁷⁰ bat, convertitu garen guciec, erraten duguleric Jesu-Christoren aurrean J.N.J.

II

SERMON DE LA SAMARITANA

Fatigatus ex itinere sedebat etc.

Jn. 4,6.*

Orai artio erran diren, eta escritu diren gauec admiregarrietan gue(yena) admiretu dezaquena da, San Agustin gloriosoac erraten, eta escrivicen duena. Ga(ur) erraten du, asicen dire Jangoicoaren prodigioac, maravillec, eta milagroac. Gaur erraten du asicen direla omnipotencie Divinoaren misterioac: *Iam incipiunt misteria*. Ytz eguiten du Sandu onec egun artas, ceñean sartu cen Jesu-Christo Samarieco Ciudadean. Bañe cer? estire icusi munduen lenago prodigio, eta maraville andiec? Etorri cenean Jesu-Christo mundure, icusi cen au²⁸⁰ prodigios veteric, iguesi joan cenean Erodosen Crueldadetic Egiptora, icusi ciren an, ecin gueiagoco maravillec. Bada nola erraten du San Agustinec, gaur asicen direla Jesusen milagroac? Orai gueiago admirecen naiz, Evangelista Sagraduec erraten duenas. Gaur necacen da, erraten du, gaur fatiguecen da, gaur icerdicen da Jesu-Christo gauec baten eguiteco: *fatigatus ex itinere etc.* Bada ez pacen Jangoicoa batera necatu criececo Cerue, eta Lurre, vere criature guciequin, cer gauec izen deiteque ure, ceñen eguiteco ala fatiguecen den gaur Jaun Soberano ore? Da converticea Andre desonesta bat, converticea Samaritana miserable ore: *Mulier Samaritana*. Au da prodigio bat

* Mat. cap. 11, esaten du izkribuak.

ain andie, bada onen comparacioan, estute iduricen prodigioac, berce guciec. Da gauce bat andie, obliguecea persona desonesto, eta luxurioso bat utcicera bere desonestidadeac, bada au logracea, costa zaio Jesu-Christori, necacea, eta izerdicea. Emen eldu zaide escuetara, luxurieren vicio gaisto onen gañen itz eguiteco dembora. Bañe ascoren bearri garviec ofendiceco veldurrec, arqitu faltas, bear bezelaco terminoac, ponderaceco vicio condenagarri onen anditasuren, inclinecen nicen, ez arcera au asuntotaco; Ala ere icusiric, cein comune den vicio au munduen, determinetu dut, onen gañen itz eguitea. Sermon au prediquetu bear litzeque belo belz batequin aurpeguie³⁰⁰ estaliric, eta ala ez padut bear bezelaco garvitasunerequin itz eguiten, escusetuco nau asunto beraren itsutasunec; au icenen da ponderacea, cein anitz diren luxurieren suac abrasacen dituen animec, eta cembat asarracen duen vicio onec Justice Divinoa.

Ain universal da nere Christioac luxurieren sue, bada Job Sanduec erraten duen bezela, gucie abrasacen du, eta guciec errecen ditu: *Ignis est usque ad perditionem devorans, et omnia eradicans genimina*. Ala icusten dugu, experienciec verac eracutsiric; bada aurretan apenas aguircen den uso arraciosa, beala itsuturic utcicen du³¹⁰ pasio gaisto onen itzelac: pasacen dire aurrerago adiñen, eta odolaren berotasunean, isequicen da gueiago luxurieren sue. Zarretan conservacen da su onen arrautse ille urdiñen autserequin estaliric; Doncellaric errecatatuena; Alargunic erretiretuena; Ezconduric honestoena; Sacerdoteric modestoena; eta Personaric cuidadosoena, guciec guciec icusten dire uquituric su onen chispes. Yor ere esta vici seguro su ontatic, cergatic de onen garra ain universal, bada guciec, errecen ditu; bañe nola abrasacen ditu, utcicen dituelaric itsuturic entendamentuec, eta illunduric animec, icusi estezaten onen gustoac berequin dacarten ondoan miñec. Estuce cer pensatu, erraten du³²⁰ Oseas Profetac, Persona desonestoac paratuco ditustela beren pensamentuec Jangoicoan, eta procuretuo dutela izulcea beren Criazalearen gana; cergatic auben pensamentu gucie ocupecen da, discurricen moduec, beren pasione eta gusto gaistoa lograceco; (pensacen nola logratuco duen ala Nescatoa, eta obliguetuco duen consenticera bere deseo torpequin, pensacean nola egonen ote den bacarric, eta disimulorequin bere adisquide arequin, iorc ere icusi bague) discurricean, nola satisfaccio emanen dion bere pasione gaisto ari, persona ezconduerequin contacen due-laric aren senarraren pausuec, noiz ichetic atracen den, noiz ló eguitera joaten den campora,³³⁰ votaceco bere torpezaren lancea. Ontan pensacen du, ontan discurricen du, ontan deueque paraturic bere pensamentuec,(bere) potenciec, eta sentidoac; estute empleacen ez beren pensamentuec (..)an Jangoicoas, eta ezaucean onen gandic errecevitusten favoreac, (cons)ideracean bere anime-nen peligroa, eta cein contu erchie escatuco (dion) Jangoicoac bere tribuna-

lean, eta discurricean ya arquicen direla Ynfernure erorceco peligroan. Gauce aubec guciec deuquece acenduric, bein ere ill bear ez paciñuquete bezela. Estute berce cuidadoric, beicic nola gueiago nasico diren beren torpezaren loi ciquiñean.

ü Nai badugu jaquin, cein den aimberce desdicheren motivoa, ^{erranen}³⁴⁰ digu San Pabloc desonestidadeac utcicen duela guizona viotcic bague: *fornicatio, et ebrietas auferuntcor*: Desonestoa esta bere viozaren jabea, cergatic deuen depositeturic bere adisquide artan; ure da onen Jangoicoa, ure da onen amorioaren jabea, ure onen afecto gucien centroa. Bada Desonestoa arquicen bada viotzic bague, nola amatu dezaque Jangoicoa? Nola convertituco da Jangoicoaren gana? Ha becatari infamea! Ha vicio madariquetue! Posible da, izen bear duela guizona ain itsue, bada estiola utzi bear Jangoicoari, aren viocean egotera, entregaceagatic persona becatari beti? Posible da, escacen dionean Jangoicoac viotza, an paraceco bere asientoa, uquetuco diola,³⁵⁰ ematea gatic bere adisquide madariquetu eri? Posible da, ebasi dezoquela Jangoicoari viotza, aimberce titulos arena dena, ematea gatic Andre, edo Nescato infame bati? Eta gueiago estimetu dezaquela persona ciquiñ eren adisquidetasune, Jangoico aren edertasune baño. O desdiche lastimegarie (erraten du San Agustiñec) quencea desonestoac Jangoicoari onec bere odol preciosoarequin erosi zuen anime, eta salcea Demonioari desonestidade baten precioan! Bañe esta au desdicheric andiena, orai andiagoo da izetea³⁶⁰ ain comune maldade au, eta ain universalaluxurieren vicio au, guizonetan, eta andretan. Guti dire, su infernucio ontan errecen

estirenac. Solo crieture bat izetea rebeldea bere Criezale ari, da ecin sufritu deitequen ingratitueda; bañe izen deitequela errebeldeac direnac bere Jangoicoari, icen deitecela, ecin contatu ala traidoreac bere Jauneri, au de ecin sufritu deitequena. Baldin Erreiñu batean balitz basallo bat bacarra, dena traidorea bere Erreguearen contra, guciec conjuretucio lireque aren contra, eta quenducio lioquete vicio, bada nola sufricen du Munduec aimberce desonesto, traidoreac, aimberce amanzebatu alebosoac. Aimberce Andre ta Nescato infameac? Nola estitute tragacen lurrec! Nola estituste abrasacen suec! Eta estugu jaquiñen, nondic elduden izetea maldade au ain universalal? Bai nere Christioac, bata bercean³⁷⁰ ercean confianza, eta libertadea sobra irugicea, au da motivoa, erraten du San Geronimoc, ain ireguiric egoteco luxurieren sue. Andrea, eta Guizona, erraten du Sandu onec, direla sue eta lastoa bezela, eta Demonioa beti dago su oni aice ematen, bistu dadien lastoan; Gauce erraza bada iseguicea lastoan sue ain erraz, edo errazago da iseguicea luxurieren sue tratacearequin Guizonac Andreaquin, eta Andreaquin Guizonarequin.

Aicen baditugu atencio arequin San Agustiñen itz batzuec, ezautucio dugu egui au: Siñestatu naza daze nere Anaye maiteac, (erraten du Sandu

onec) bada experienciec eracutsiric, itz eguiten³⁸⁰ dut, testigo da Jangoicoa eguie erraten dudela. Ycusi ditut contemplacio anditaco personac, vicede penitente bat pasatu dutenac, virtute, edo santidade andi batean vicitu direnac, ceñen erorceas es nicen ni veldurcen, San Ambrosio, eta San Geronimo bates vaño gueiago; eta ala ere icusi ditut, eroriric eta vicio onec garaituric, ez apartatues Andrein tratotic. Au aitu esqueros, nor izenen da ain presumitue, fietuco dena, Emacumequin tratao icen esqueros libratuco dela erorceco peligrotic? Norc estu ontatic iguesi eguiñen, naiz izenagatic Sacerdoteric modesto, eta venerableena; Erreligiosoric exemplareena; Andreic errecatatue-na, Eta Nescatoric honestoena?³⁹⁰ Baldin virtutes, mortifiquecios, eta santidades beteric deudenac, errendicen badiu ocasioaren inderrac, eta seguro ez padode su ontatic, cer eguiñen du Mutill viciosoac, cer Nescato ariñec?. eta Jangoicoaren veldurric estuenac? Ona da ure berez, eta berez ona da lurre, bañe aubec viec elcarrequin juntecearequin eguiten da loie; Guizon, eta Mutill anitz bacarric baleude, izenen lireque ur puro, eta garbi bazuec. Andre, eta Nescato anitz izenen lireque lur virgiñe; vañe ez apartacearequin, bear den contu, eta errecato arequin, ez vicedearequin, eguiten dire luxurieren loi infamea.⁴⁰⁰

Eslitzeque izenen ain comune desdiche au, arcen baguiñuque Espiritu Sanduec ematen digun consejue, erraten digunean; aparta ceite guizona, aldezaquezun gucie andrearen gandic: Longe fac ab ea viam tuam: veguirezazu dela lazo gaisto bat, guardaturic dagon peligro bat, non anitz diren galcen direnac. Bentures siñestacen dute egui au alaco Persona ayec, zañec arturic pretextotaco, Hermiteren batean arquicen den Ymagineren bati dioten devocioa, edo eguin dioten promesa, joaten dire arara, sarcen direlaric lembisico pausuen, peligro ontan? Vide artan, Hermite artan, egun artan esta icusten berkeric, beicic elcarrequin davilcela Mutill libreac Nescato lotsabaguequin, anímele⁴¹⁰ brutoac lirequen bezela; nic icusi dut, eta estu illebete anitz nere veguieac maldade au icusiric; arcen dute Nescatoac, eta Mutillec devocio ore alcabuetetaco, icen deitecen icusiec, eta villetuec, eta Mutillec Nescatoequin beren libertadera ibilceco. Cembat Hermite estire desonrratu, cembat Elice estire ciquindu Devocio onen pretextoarequin? Eta norc dute desorden auben culpe? Gurasoac, eta Nausi icheco Andreac; cergatic utcicen ditusten ichetic beren Humeac eta nirebeac. Usten duenean Aitec, edo Amac bere alaba doyela alaco Hermitera, estacioa eguitera, orduen ofrecicen da, ez Jangoicoari, beicic Demonioari; bada estu arara eramocen devocioac, beicic⁴²⁰ desonestidadeac. Au pasacen bada Devocioaren pretextoaren azpien; cer guertatuco da libertadea den lecuen? Cembat dire vici direnac amancebaturic beren vici guicien?, cembat adulterio estire arquicen ezconduen ercean?, cembat sacrilegio , cembat torpeza estadoric sanduenean. Solo desonesto bat asquide erri

betean, gucie cutseturic utciceco. Argatic erran zuen ocasio batean Demonio batec; arec etzuela faltaric eguiten desonestoac arquicen diren lecuen, eta ongui erran zuen. Cergatic desonesto batec, Demonio batec diñe calte eguiten du erri betean; bada aren libertadea, eta luxurie asqui de guciec galceco. Cer peste icen deiteque, aimberce calte eguin dezaquena⁴³⁰ gorputcean, nola eguiten duen vicio madariquetu onec Animetan; Desonesto batec bacarric eguiten badu Demonio batec diñe calte, cer calteac estire icusico, desonesto anitz arquicen diren Erri artan? Alaco lecuten estute ez faltaric batere eguiten Ynfernuc *Etaie*c, vicio ontara incitececo, errambeza bercela desonesto, eta luxuriosoac, cembat persona galdu diren aren exemplo gaisto arequin? Cembat aur gastec etzuten jaquiñen cer cen becatue, baldin arec irequi ez pazioten veguieci? Cembat Nescato conservatuc ciren garviec, arec incitetu ez palitu maldadera? Cembat ezcondu icenen ciren fielac beren Senarrequi, arec probocatu ez palitu? Cembat Mutill ez lireque⁴⁴⁰ ibillico ain pausu gaistotan, arec eracutsi ez paciote videac? Cembat escandalo estituste eman, beren sartu atrarequin, beren paseo, eta galanteoquin? Cembat murmuracioen motivoac estituste eman Errien? Cembat celo ezconduen ertean? Cembat discordie familiaritan? Bada cer da au, beicic galcea Errico guciec, bere vicice desonestoarequin, eta au ala izenic, esta eguie, vicio au dela peste general bat, gucie cutseturic utcicen duena? Bada erranen dut berris ere, estutela etsayec faltaric eguiten, aubec deuden errien, eramoceco animec Ynfernure.

Ya emen aguircen da, cembat cuidado paratu bear duten Gurasoac,⁴⁵⁰ iduquicean beren compañien beren Seme Alabac, galdu esteitecen berac, eta galdu araci estezaten berceac. Eta estela gutiagocoa Justicieren Cargue dutenac, icen bear duten cuidadoa evitececo culpe auben dañuec. Auben cargueri dagoquio errondacea carriquec; erregistrecea icheac; jaquitea nola vici diren Errien gendeac; cer pausu etan dabillen persona luxurioso ore; cer vici modu duen Andre, edo Nescato luxurioso arec; desterraceco erritic persona gaste escandalosoac, eta aimberce calte eguiten dutenac. O cembat arracio arequin erran zuen Casiodoroc, guti salvacen direla, eta anitz condenacen direla luxurieren vicioagatic; bazuec condenacen dire, eguin ditusten becatuen gatic,⁴⁶⁰ berceac ontaraco eman duten ocasioagatic; berceac, cergatic erremediecen estitusten. Ezaucera emateco nere Christioac, ofrecitu diceten bezela, cembat irritecen duen vicio onec Jangoicoaren Magestadea, asqui de paracea zuen veguien aurrean, Justice Divinoac eguin dituen castigoac luxurieco becatu ... gatic. Erram beza mundu guciec, cein utci zuen destruituric Diluvio universalarequin, cergatic entregatu ciren guciec desonestidadera. Vicio infame onen gatic etorricen Cerutic sue, eta abrasatu cituen Sodomita guciec. Onengatic galdu zuen Jangoicoac Siquengo Ciudadada, eta Erreinu gucie. Onen gatic vicie quendu cioten egun acar batean oguei ta lau mille⁴⁷⁰ Ysraelitegui.

Onengatic ill ciren desdiche andierequin Zambri, eta Madianita ore, becatu eguiteco dembora berean. Onengatic ill cen derepente Onas, bere gorputcerequin gusto arcen cegolaric. Onengatic vície quendu cion etsayec Sararen zazpi Senarregui; eta en fin, onengatic ill ciren Campañen vi Sacerdote luxurioso ayec Ofni, eta Finees; castigo aubec guciec contacen ditu Escriture Sagraduec, eguin cituela Jangoicoac luxurieco becatuen paguen.

Cembat Erreinu estaude galduric vicio onen gatic. Norc galdu zuen Fedea Ynglaterran, beicic Enrique zorcigarrenaren desonestidadeac. Norc sartu cituen Eregeac Alemanien, Suecien eta Dinamarcan, beicic⁴⁸⁰ Luteroren libertade ciquiñec; Norc idequi zioten videa Moroegui, sarceco Españen, beicic erregue Don Rodrigoren torpezac; galdin zace lecu gucietan, eta apenas arquituco duze bat, non experimentatu estuten desonestoac Justicie Divinoaren

Azotea. Pasa gaitcen personetara; cembat arquicen estire galdu ditustenac beren icheac, ondasunec, eta haciendac, cergatic entregatu diren vicio gaisto ontara? Cembat bere torpezen excesoen gatic icusten dire, honrraric, diruric, eta osasuneric bague? Colorea galduric, ustelduric ala animen, nola gorpucean. Au gucie erraten du San Pabloc, dela Justicie Divino aren rigorea; ceñequin castigecen dituen modu ontan torpeac,⁴⁹⁰ eta desonestoac. Esta contentacen Jangoicoa castiguecearequin desonestoac leneco demboretaco castigoarequin, beicic icusiric egunero aumentacen dela luxurie, vielcen du Justicie Divinoac castigoac, trabajuec, eta miseriec. Uquetu dezaquezu zuc Guizon torpea, Andre desonestoa Jangoicoaren asarre aubec estirela zure contra? Erran zadazu, cembat desgracie estuce experimentatu, pausu gaisto oyetan zabilcen esquerostic? cembat descreditu zure honrran, cembat murmuracio errien, zure vície gaistoas; cembat calte zure animen, cembat erremordimentu zure concienzien, cembat pena zure viocean? Ycendu duzu bentures ordu beteco descansoric; guertatu zaizu zure⁵⁰⁰ gaucec zure deseoa- ren neurrire? ez por cierto, alo contrario bai, bada gucie icendu de experimentacea cuidadoac, sobresaltoac, desdichec, eta miseriec. Aite Eternoa asarratu duzu, cergatic desonrratu duzunaren Semea, juntecearequin persona luxurioso arequin. Jesu-Christo arquicen da indigneturic, cergatic berris paratu duzun gurucean zure desonestidadequin. Espiritu Sandue deuquezu irriteturic, cergatic ciquindu duzun zure indecenciequin zure anime, cein beite aren temploa. Bada trinidad gucie deuquezu asarraturic, noren gana joanen zara, lofrageco zure maldade oyen barcacioa? Marie Santissimaren gana? Ainguiru guardaco aren gana? Esta ere. Ceruco Sandu, ta Santen gana?⁵¹⁰ Gutiago. Bada guciec deude zure contra. Bada Jangoicoa Ama Virgine, eta berce gañeraco zure vitertecoac arquicen badire asarraturic, errambeza arracio

arequin San Pabloc ya desterraturic zeudela Cerutic: Omnis fornicator, aut immundus non habet hereditatem in Regno Christi et Dei.

Advertizace estuela erraten desterratuco dituela Jangoicoac desonestoac Cerutic, beicic asegurecen du, ya desterraturic deudela, cergatic consideracen dituen, gogortuec, obstinetuec, eta errebeldeac. Aubec burle eguiten Predique-doreas, despreciecen dituste Confesoreac, estute casoric eguiten Jangoicoaren juicioas; estitu veldurcen ilceac,⁵²⁰ eta infernuec. Ytsuturic deude beren desonestidade, ta loiquerietan, beti gogorturic arriec bezela. Aubec dire Erodosen lagunec; vicicen au amancebaturic, prediquecen cion San Jaun Baustistec, eta aicen bacituen ere Sermonac gustorequin: *libenter eum audiebat*: alabacen, eta estimecen bazuen ere Prediquedorea, etzuen utci beren trato gaistoa, etcen apartatu Andre desonesta aren gandic. Cer importacen da, O desonestoac, nic logracea, muguicea zuen viotzac, ni gloriecea icusteas, gustorequin aicen naucela, alabacen eta estimacen nauzela, baldin alcanzacen ez padut zuec emendacea, eta apartacea vicio gaisto ortatic? Zuec etorcen zarate Sermonetara, zuec admirecen zarate; bañe⁵³⁰ elizetic atra, eta beala, berce gaucec (dire) zuen conversacio ayen asuntoac; atracen duze Elicetic admirecioa, eta onequin batean infidelidadea, eta ala gueldicen zarate obstineturic.

Ha Desonesto miserableac! zuec siñes, edo viozetic determinecen baciñuquete emendacea, nic paratuco nuque zuen veguien aurrean, zuen Aite piadosoa, cein arquicen da escuec, eta onec josiric guruce batean, zuegui esperacen. Nauzu utci zuc Nescato ciquiñe zure adisquide ori M.Ssrem. Semea gatic? Baldin utcicen baduzu, desposatuco da Jesus zurequin; zuc Guizon desonesta cein estimecen duzu gueiago? M. Santissime, edo Nescato gaisto ore? Nor nauzu gueiago Andre torpea,⁵⁴⁰ Jesu-Christo, edo Galan ore? Nai duzu atra dezaten zuen aurrera Jesu-Christo? Vañe hay! beldur naiz, presentacen bada pulpito ontan, gueldituco dela desaireturic. Beldur naiz, gueiago dezaquela norbeiten viozean bere adisquide aren amorioac, Jesusenac vaño. Posible da, becatarietec ain estimecio guti eguin dezaquela zure gatic isuri cen odol precioso artas. Cembat aldiz crucifiquetu duzu berris zure culpequin Jaun Divino ure? Cer dire zure itz torpeac, cer zu bacarric zeude-nean izeten dituzun tocamentu ciquin oyec? Cer zure pensamentu desonestoac, beicic icetea Jesusen daco penac, tormentuec, eta gurucea. Eta anime cruela, iduri bazaizu, estuzule oraño asqui⁵⁵⁰ ofenditu, ona non presentacen zaizut veguire zazu nola paratu duzun zure becatuequin. Advertizazu dagola burutic asi, eta oñetaraño, llaga bat eguiñic, zu salvaceagatic, eta erran zadazu orai, norc mereji du amorio gueiago, Jaun onec, edo Adisquide arec? Nortas eguin bear duzu caso gueiago, zure gustoas, edo Jaun onetas? O Jesus Divinoa cein ingratoa den becatarie! Naiago du Nescato arec bere Galan ori, zu vaño. Naiago du Mutill arec bere adisquide ore, zure Ama SSma. vaño. O

Ceruco Erreñe, misericordieren Ama maitea, veguirezazu Anime auben gatic; zure humeac dire Señora, vera dezazu auben viotz gogorrac. Ea Christioac, veguire zace M. SSri. belorico paraturic, escacen⁵⁶⁰ dicetela, estezacela gueiago ofenditu aren Semea; utci dezacela vicio gaisto ori; apartatu zaistela ocasio artatic, convertitu zaistela, eta orai eguiasco contricio arequin, erran zace nerequin batean J.N.J.

III

Sermon de Animas.

Erat quidan languens Lazarus etc.

Joan. cap. 11

Ceiñ ederqui acomodaturic elduden gaurco Evangelioa, nic devocioac muguituric, escogitu duten asumpto edo gayerequin. Esta Escriture Sagra-duen gauceric aiñ ongui acomodatu deitequenec. Purgatorioco Anime gaisoe-gui, nola Lazaroren historie, ceiñ presentacen digun gaur Evangelio Sanduec. Onec pintecen digu Lazaro eritasun andi batequin: erat quidan etc. eta guciec daquite Purgatorioco Animec direla, padecicen deuden Pobre bazuec. Artas erraten digu cituela vi Arreba Marta, ta Maria, eta guc confesacen dugu,⁵⁷⁰ Purgatorioco Animec acompañacen ditustela Jangoicoaren graciec eta esperanzac. Lazaro bacen Jesu-Christoren Adisquidea, Purgatorioco animec dire Jangoicoaren escogituec. Arquicen cen Lazaro sepulturen escuec, eta oñec loturic, eta anime triste aiec consideracen dire loturic deudela; bada ecin eman dezaquete pausuet cerureco, eta ecin eguin dezaquete vicice eternoa meregi dezaqueten obraric. Azquenean Baldin Jesu-Christoc erresucitetu bazuen Lazaro; Purgatorioco Animec libracen dire pena terrible ayetatic, Aite Eternoari ofrecicen zaion Sacrificio Sandueren virtutes apliquecen duelaric Sacerdoteac ayen favoretan Aldarearen mai soberanoan, declaraturic deuquen bezela⁵⁸⁰ Concilio Trentocoac. Gaur bada nere sermonaren asumptoa izein de zuegui ematea entendacera, cembat padecicen, eta sufricen dute Anime triste ayec, anime zeisten ayen socorrícera zuen obra onequin: Asicen naiz:

Estuze cer pensatu nere Christioac empeñetu neicela pintecen, diren bezela, Purgatorioan Animec padecicen ditusten penac. Guti de erratea San Agustinequin Purgatorioco suac ventaja eguiten diotela mundu ontan, Personaren batec padecitu dituen pena guciec. Estut erranen Purgatorioco penaric chiquiena dela andiagoo, munduco penaric andiena vaño. Au gucie da guti erratea. Nic agoat eta mi bet duten bezala, vanoque eun ago eta mi, ecin espliquetu nezaque bearden bezela⁵⁹⁰ Purgatorioco Animec sufricen ditusten

penac, bañe ya que empenñetu naicen esqueros muguicera zuen vioza ayetas lastime, eta compasione izetera, escandicet pensatu dezazela Anime triste ayec errecen dituen su artan. Ventures pensacen duze su ore dela, mundu ontaco sue vezela? O cembat diferencie doayen batetic bercera. Mundu ontaco sue eguin zuen Jangoicoac, gure utilidade ta provechureco, Vañe Purgatorioco sue eguin zuen becatariac castiguececo. Zuec erreparatu vide duze, ceñ difirencie andie guardacen duten ebaquicean Barberac, eta Borrero edo Berdugoac; onec, cergatic egecutecen duen Juezaren sentencie, estu beguirecen, ceñ dolore andie eran dezaquen arec eguiten dituen⁶⁰⁰ llagac. Bañe Barberac neurricen du ongui golpea, procurecen du miñic gutiena ematea, cergatic aren intencioa da curecea eta on eguitea, eta ez afligieca eta atormentacea. Bada Guizonari vere servicioraco eman cion munduco sue, eta onec aimberce pena eta tormentu ematen badu, cer tormentu ta pena estu emanen Justicie Divinoac isiqui duen su arec? Guri entendacera emateco ceñ andie den su aren inderra eta arec ematen duen pena ta tormentuec erraten du San Gregorioc, condenatuec Ynfernuen errecen duen suac bera(c) purifiquecen dituela Purgatorioan Animec. Ecarri zace gogora, Eliasec Cerutic ecarri zuen su terrible ore; pensa zace ceñ andie izenen den su ore, ceñec abrasatu cituen⁶¹⁰ Pentapolico ciudade andie. Junte zace batean Besubio eta Etna erraten cioten oyan bazuec, ceñec despeicen zuten suesco llamac, eta bolcanac eta munduco su guciec, O ceñ terriblea izenen lizequen, su aubetatic atraco lizequen verotasune. Bada estu cer icusi onec Purgatorioco suerequin. Solo istante batean, gueyago erracen eta abrasacen du Purgatorioco suac, ece munduco su guciec mille hurtes. O Anime tristeac, cer pena icein de zuena alaco sueren ertean! Baldin Daniel bat guelditu bacen desmayeturic solo icustearequin Jangoicoaren aurpeguitic atracen cen sue ceñec San Agustiniñen plumen errerepresentacen zuen Purgatorioco sue: *Ego Daniel territus sum*: Baldin Aite San⁶²⁰ Franciscoc icusiric burrin gorivet, ceñequin eman bear cioten cauterio veguieac sendaceco, alaco moduen izutu bacen, bada erran cion sueri artas piedade izen cezala; Cer eguiñen du anime tristeac abrasacen duenean Purgatorioco su arec, ceñen comparacioan den, su pintatuet mundu ontacoa?

Emen ezautu dezaquete cembat arracioarequin otoiz eguiten duten anime triste ayec: *Miseremini mei, miseremini mei saltem vos Amici mei etc.* Yzen zace nites piedade zuec nere adisquideac, cergatic Jangoicoaren escuec uquitu nauben. Cer erraten duzu anime tristea! Dembora batean Jangoicoa asarraturic castiguetu zuen Tarcion erraten⁶³⁰ cioten guizon errebelde bat plaga eta desdiche terrible ayequin, eta au icusiric, erran zuten guciec, au da Jangoicoaren beaza: *Digitus dei est hic*: Arracioarequin deicen diote beaza, cergatic imposible izein de mundu guciec sufricea aren golpe izugarrie, baldin descargacen balu Jangoicoac vere escu gucie. Bada cer izeinde sufricea Purgatorioco

Animec, Jangoicoaren escuec jocea? Otoiz eguiten dute, eta pasacen baute istante bat aitu bague ayen suspiroac, iduricen zayote sigloat pasatu dela. Contacen du San Antoninoc Guizon virtuoso batec libracea gatic enfermedade andibetic, escogitu zuela padecicea iru egunes Purgatorioan Cumplitucion Jangoicoac bere deseoa, eta Ainguiru⁶⁴⁰ guardacoac eramau zuen Purgatorioco pena ayetara. Lembisico egun artan berean Jan cequion Ainguirue visitecera, ta galdeitera nola ciduaquion. Nola joanen deaide erran cion Ainguirueri, nola joanen ceide zuc eguin direzun favore laburrerequin. Da posible zuc ofrecitu esqueros iru egunes sollic egoin nicela Purgatorioan iduqui nauzule emen aimberce mille egunes? Cer errespondacen duzu erran cion Ainguiruec, aimberce demvora uste duzu dela padecicen dituzule pena aubec? Bada jaquin bear duzu, ain dembora guti dela emen sartu zarela, bada oraño estute zure gorputze enterratu.

Siglo luce bat iduri zayote Anime triste ayegui momentu, edo⁶⁵⁰ instante bacocho, eta ala izen deitezela Christioac, lucecen dutenac socorricea pena ayetan? Animelerembat erorcen bada zuloren batean, veala acudicen dute, peligro artatic atracera, eta utcicen ditugu pasacera egunec lagundu bague Anime triste ayegui atra deitecen su terrible artatic? Aicen denean sue dela Ycheren batean, soñecen dire ezquillec, guciec laster eguiten dute, guciec apliquecen dire itera aldezaqueten gucie, sue izelceco, bazuec igueten dire telletuetara, peligros casoric eguin bague, berceac eramocen dute ure, sentitu bague trabaju ore; eta berceac fervore andierequin sarcen dire garraren erdien, verce San Juan de Dios vezela. Eta deudelaric zuen⁶⁶⁰ Aite, Ama, Anaye, eta Aideac errecen eta abrasacen su terrible artan, posible da ez eguitea aleguiñe ayec libraceco? Posible iceiñde cruelac, eta piedaderic bagueac vezela utcico dituzela su artan alivioric bague? Ayec escacen dize zuegui piedadea, eta compasionea, eta zuec eguiten zarate gogorrac aiceco ayen lamentuec. Esta egunic, erraten du San Geronimoc ceñean otoiz eguiten estuten Anime afligitu ayec. *Clamant quotidie, qui iacent in tormentis*: Zuegui otoiz eguiten dice, O hume esquer baqueac zuen Gurasoen animec, escacen dizelarie socorricetu dezazela Mezaco Sacrificio Sanduerequin, ofrendequin eta berce gañeraco obra onequin. Escacen dize procuretu dezazela pagacea⁶⁷⁰ testamenuen utzitusten zorrac, atracea len bayo len señalatu citusten Mezac; bada obliguecio onequin utci ciñusten Ychearen, eta haciendaren heredero, eta ez empleadezazun aren icerdie vanidadetan, jocuen eta ordiquerien; otoiz eguiten dute Anime triste ayec veren Adisquidegui alivietu dezaten pena, ta tormentu ayetan. Bañe galdeiten dut, aicen tuste humeac beren Gurasoen clamoreac? Aicen tuste Andreac Senarrarenac, eta Aideac beren Aidenac? Ez, ez, erraten du San Geronimoc: *clamant et ululant, et non est, qui consoletur eas*: eta icusten direnean Anime triste ayec aiñ deseparatuec beren persona

propioetatic izulcen dire Adisquidetara escacen diotelaric, iruqui⁶⁸⁰ dezaten compasione cerbeit ayen penetas: *Miseremini mei etc.*

BaÑe consolatu zeiste Anime afligituec, etorrigo da demhora, zaÑean atraco zaraten garcele ortatic Jangoicoa icustera, joanen zarate ondasun eterno ore gozadera. BaÑe noiz? Ha nere Christioac, advertitu zaze, esperanza luce onec afligicen dituela anime gaiso ayec, suac berac baÑo gueyago. Gu becatari miserableac, gu gada eroac, edo juicioa galcen duten persona ayec bezelacoac. Aubec estute bein ere egarriric senticen, cergatic humore gaistos beteric deude auben estomagoa, galcen dute sentido gucie, eta gu eroturic mundu ontaco ondasunequin, estugu Jangoicoa icusteco egarriric, duten vezela⁶⁹⁰ Justoen animec. Veguire zazu David vati. Onec erraten du ala nola oriÑec deseacen duen ureren iturrire hellegacea. Ala nere animec deseacen zaitu zu , nere Jangoicoa. Nere negarrac dire nere oguie, gaubes eta egunes, erraten duten vitartean non da zure Jangoicoa. Veguire zazu Santa Theresa bati, eta icusico duzu abrasaturic, Jangoicoaren aurpeguie icusteco deseoa, cela aren daco eriotze bat ez len bayo len illcea. Ecin ezautu dezaquegu nere Christioac, ecin comprenditu dezaquegu, cein andie den Purgatorioco Animec dute deseoa icusteco Jangoicoaren aurpeguie. Deudelaric aseguretutic Jangoicoaren Adisquideac direla, daquitelaric ciertoqui gozatu bear dutela, da cein⁷⁰⁰ ponderatu deitequen martirioat, demhora gutien lucecea. Estitu aimberce abrasacen Purgatorioco suac, nola atormentacen dituen Jangoicoa gozaceco deseoa, erran dezaquetelaric ya logratu dut, eta estut utzico bein ere: *tenui eum, nec dimitam*: Guac galdeiten baguiÑuque Purgatorioco Animegui cerc afligicen zaituste gueyago, bentures da su terrible ore gueyago atormentacen zaitustena? , edo dire verce tormentu oyec, ceÑequin purguecen zeitusten justicie Divinoac, gueyago afligicen zeitustena? Errespondatuco liguquete, duderic batere bague: *In amaritudinibus moratur oculus meus*: Gure veguieac deude penas, eta dolores beteric, cergatic icusten estugun⁷¹⁰ aurpegui eder ore, cein aimberce deseacen duten icustea, ceruco Ainguiruec. Noiz etorrigo naiz, eta presentatuco naiz Jangoicoaren aurpegiaren aurrean. *Quando veniam, et aparebo ante faciem Dei*: Egui onen probaraco nai dicet ecarri memoriera, Anime Dichoso batec Santo Thomasi eman cion errespuesta. Presentatu ceiquion Sandu oni Anime bat argui eder bates inguretutic, eta Jangoicoaren Ymagera batean transformaturic, ezautu zuen Sanduec eta admiretutic aimberce edertasunes eta glories erran cion. Erran zadazu nere Adisquide meitea, cein dire Ceruco gustoac, eta alegrie?, eta errespondatu cion anime arec: *videmus Deum*: estizut gueyago erraten Thomas, Ceruco⁷²⁰ glories beicic, icusi dezagule Jangoicoa. Ala nere Christioac ez luquete berce gauzeric errespondatuco Purgatorioco Animec galdeiten bacin dioce ango pena, ta tormentues, beicic erratea estugu icusten Jangoicoa. Galdeiten bacin dioque, erran zadazu

Anime tristea, da Purgatorioco garcel ori gogorraoa, San Pedro cateas loturic egondu cen ore año? Errespondatuco luque. Hai estugu icusten Jangoicoa. Erranzadazu, su ori da aiñ fuertea, nola den, Erroma gucie abrasatu zuen ore? Errespondatuco luque, estugu icusten Jangoicoa, ceñeren edertasune den, gauce eder gucien principioa. Au da tormenturic andiena. Ay noiz sartuco naiz Jangoicoaren Palacio artan; noiz⁷³⁰ logratuco dut arguitasun eterno ore. Christioac compadecitu zeiste garcel ontas, atra nazace len bayo len zuen sacrificioequin icustera nere Jangoicoa. Bada au icusi bague Cerue bera da destierroat.

Eta zuec Christio devotoac, etzarate compadecicen Anime triste ayec, padecicen duten egarri ontas, icusteco eta gozaceco Jangoicoaren aurpeguie? Zuen gogortasunes padecitu bear dute tormentu au, ceñequin ecin comparatu deiteque mundu ontaco tormentu guciec. Ay! Ay! Zuen infelicec! bada neurri onequin berarequin neurrituco zeituste zuec ere. Etorrico da dembora ceñean escatuco duzen zuec ere piedadea eta estice iduguico compasioneric. Nor da zuen ertean nere Christioac,⁷⁴⁰ vici dena pensaturic libratuco dela Purgatorioan sartu bague. Ni es naiz atrevicen erratera, badela zuen ertean esperanza vano au duenic. O ceñ mancha chiquiec debecacen duten Ceruen sarcea. Nai duze erran dezaten, bada jaquin bear duze Cisterco Religioso batec padecitu cituen Purgatorioco penac, cergatic necesidaderic bague, erran cituen itz bazuec Elicen, eta berce anitz aubec baño falta chiquiangoac gatic, egondu dire Purgatorioan padecicen. Bada O Jangoico Soberanoa! Baldin aiñ falta chiquiec debecacen badute Ceruen sarcea, purguetu bague Purgatorioco garcelean, norc espera dezaque libratuco dela pena terrible ayetatic? Yorc ere ez. nai duze bada orai jaquin nor izein de⁷⁵⁰ pena ta tormentu gutiago padecituco duena Purgatorioan? eta norc gueyago? Bada erranen dicet arrec padecituco duela gutiago, ceñec mundu ontan empleatu den socorricen sufragioequin anime triste ayec: *Beati misericordes quoniam ipsi misericordiam consequuntur*, eta mundu ontan Anime ayetas casoric eguiten estuenac, ayetas acenduric vici direnac, aubec izenen dire atormentatuec consueloric bague.

Zuegui guertatuco zaicena zuen crueldadea gatic, eta ez iduquies piedaderic Purgatorioco Animequin arquicen dugu errepresentaturic Joseph Patriarcaren Anayetan; joan ciren aubec Egiptora garie erostera, ezautu cituen bere Anayec, eta manatu cioten onec bere⁷⁶⁰ soldadoegui eraman zezatela preso Guizon ayec. Yru egunes iduqui citusten garcelean deus ere entendacera eman bague. Nolacoac uste duze izenen cirela orduen guizon auben sentimentuec. Junteturic batac bercearequin erraten zuten suspiroequin Arrazioarequin padecicen dugu guc cergatic ofenditu guiñuen gure Anaye. Gu gara, icusiric gure Anaye Josefén trabajuec, eta escacen ciguleric misericordie eta piedadea, ez guiñuen casoric equin, eta ez guiñuen urriqueritu aren penetas;

argatic etorri zaigu orai aimberceco trabajuau: *et non audivimus, iocirco venit super nos ista tribulatio*: Bañe erran zadaze guizon tristeac, cergatic botacen estioze castigo orren culpe, zuen Anaye⁷⁷⁰ Rubene eguin duen luxurieco becatueri cergatic estuze pensacen izen deitequela castigo ori, zuen Anaye Simon eta Levieren crueldadea, eta coleraren gatic, vada argatic bota cion vere Aite Jacobec, vere maldicioa. Cergatic estuze erraten padecicen dugun au, da gure becatuen gatic, jaquiñic ciertoqui becatue dela calte eta trabaju gucien motivoa eta cause? Ha! aubec bacequiten ongui Justice Divinoaren ordenac apliquecen dituela castigoac, becatuen conforme. Aubec etzuten izendu piedaderic, eta misericordieric veren Anayerequin eta argatic confesacen dute iduquicea compasioric bague garcele artan, dela tratacea neurri arequin verarequin ceñequin tratatu zuten ayec⁷⁸⁰ beren Anaye Jose. Modu ontan cembat Anime arquicen direnac Purgatorioco garcelean negar eguiten dute, cergatic icusten diren Christio aubetas acenduric eta ezauzen dute au eldu zaizule cergatic oreicen estiren munduen ceudenean Purgatorioco Animetas, cembatec estituste gozacen Christioen oracioac, cergatic ayec apliquecen estitusten mundu ontan sufragioac Anime gaiso ayen favoretan. Cembat Anime afligicen ditu Purgatorioan verandu Mezac atraceas ayen favoretan; Cergatic verac icendu diren descuidetuec munduen obliguecio onequin cumplicen. Aubec erraten dute arracioarequin padecicen dugu pena au, cergatic guc ere ez guiñuen izendu misericordieric⁷⁹⁰ Purgatorioco Animequin.

Au bera guertatuco zaize zuegui, compadecicen eta veracen etzaratenac, Anime triste ayec padecicen dituten penetas, eta apliquecen etzaratenac ayen socorricera. Zuec quejatuco zarate zuetas experimentacen duzelaric desamparoric andiena. Bada alacoric guertatu estaquicen eta applique zeisten beala, Anime triste ayec socorricera, zuaste consideracio arequin Purgatorioco garcele artara. Urbildu zeiste zuen Gurasoen eta Adisquiden animen gana. An aituco duze Anime triste ayec, escacen dizelaric aimberce penaren alivioa: *Miseremini mei etc.*, eta izein de zuen artean aubec aitu esqueros veratuco⁸⁰⁰ estenic? Ycein de viozic ayen lamentuec aicearequin urtuko estenic? Yceinde persona racionalic, muguituco estenic misericordie eta piedadera. Berce orlaco llantuequin logratu zuen Flaviano Patriarcac veracea Theodosio Emperadorearen viotz cruela. Aizaze caso au: Determinetu zuen Emperadore onec jurementueren azpien, vicie quencea Antioquiaco Ciudadeco Persona andi, eta chiqui guciegui, cergatic ecarri etzioten bear cen errespetao, eta obsequioa aren estatua edo Ymigiñari. Ycusiric etzela moduric aplacaceco Emperadore onen colera pensatu zuen Flaviano Patriarcac maña au. Deitu cituen Musico ayec ceñec sonacen cioten Emperadoreari Musique, Maien jaten cegon⁸¹⁰ demboran, eta encargatu cion empeñu gucierequin, egun artan Emperadoreari Musique sonacen zuten de paso, cantatu zezatela tonu triste batean,

Antioquiaco Gendeac, penas veteric carriquec barrena, cantacen citusten cantu tristeac. Ya onequin mugui ceitequen piedadera Emperadorearen vioza. Jarricen au Mayen asi ciren Musicoac cantacen aiñ tonu tristeac, eta llantu icaragarriec, bada ecin iduquiric. Theodosioc vere negarrac asi cen suspiro tristeac botacen. Emen izendu cen non asi ceiquion Patriarca erraten; Jauna cergatic negar iten du orren Magestadeac. Jaquin beza Jauna, Musique onec errepresentacen duela Antioquiaco ciudadea negarres, esperacen duen castigoas. Eta⁸²⁰ orren Magestadea ala beracen badu ayen pena, eta dolorearen errepresentacioac, cer eguiñen du orren viocean icustea veguiequin aimberce desgracie? Au aicearequin mudetu cen Emperadorea, eta generosidade andie-
requin barcatu cioten guciegui, determinetu zuen castigoa.

Orai izulcen naiz erratera zuegui nere Christioac, zuastela consideracioa-
requin Purgatoriora, eta aicearequin ango otoiz tristeac, suspiro lastimosoac eta aiñ miñec iceiñ de aiñ pecho cruelic, aiñ viotz gogorric veratuco estenic, an Anime triste ayec padeicicen duten penac, eta tormentuec? Guacen Purga-
toriora obra onequin, oracioequin,⁸³⁰ limosnaequin, sacrificioequin, eta sufragio caritativoequin; bada ontara muguicen gaitu caridadeac au escacen du Justiciec, eta au eracusten digu gure interes propioac; bada esta duderic ala portacen bagada, logratuco ditugule gure ventajac, eta alcanzatuco dugule Jangoicoaren Misericordieren medios, Anime triste ayec goza dezaten Eterni-
dade bateco descansue: *Fidelium animae per misericordiam Dei requies cant in pace: Amen.*

Bibl.:

Muruzabalgo bilduma (JMS) argitaragabea. 4/5/5 orrialde.

J. M. SATRUSTEGUI. "Manuscritos vascos de Muruzabal (Navarra)". ASJU XVI (1982), pp. 5-23.

33. ZARAITZU (1780)

*Ia Hamar orrialdeko emaitza interesgarria dugu Zaraitzuko bi prediku haue-
na. 1780ko abenduaren bigarren igandeko hitzaldia osorik, eta Santa Ana egune-
koaren hasiera lortu abal izan ditugu. Orreagako bilduman agertu ziren.*

Honela diote:

I

Dominica 2.^a de Adviento. Año 1780.

Cum audisset Joannes in vinculis opera Christi, mitens duos de discipulis suis ait illi, tu es qui venturus est an alium expectamus.

Mat. 11, v 2

Avebati ebaquicen bazaizco egalac ecusten dizugu eztaitaquela bola ceren faltabaizayo gauzaric principalenac bolaceco; christiobatean retrato verdadero, Orabat duzu munducontan christiobat Jaungoicoaren leguezco mandamendu sanduac jaquingabe, eta guardatu gabe nola avebat egalic gave, cerengatic cala nola avebatec ezpaitroque bila vere alimentua, ezpaitroque conseqüi vere fina, zoinbaita bolacea egalic gave, cala christiobatec eztroquezu logra vere azquen fina zoin baita ceruco gloriara Jaungoicoaren leguezco mandamendu sanduac jaquin gave, eta guardatu gave, guardaceco bada mandamendu cuec necesario duzu jaqudea, eta esplicacioaren aicea: Amar dituzu Jaungoicoaren leguezco mandamendu sanduac; lena Jaungoicoa onesdezagula gauza guciac beño gueyago, cau duzu mandamentuetan den supremo eta¹⁰ principalena, cala erancizun Jaungoicoberac, eta esplicacen diaucuzu gure maestro Jesuchristoc escritura sanduan, San Lucasen amar garren capituloan iz quequin, *diliges dominum Deum tuum ex toto corde tuo, et tota anima tua, et ex omnibus viribus tuis, et ex tota mente tua* onesdezacie zuen Jangoicoa vioz guciarequin, arima guciarequin, zuen indarguciequin eta zuen entendimentu guciarequin; mandamentuconen gañan galdeguiten dizu catecismoac certa obligacen guituen mandamentuconec, eta resp¹¹ duzu obligacen guituela Jaungoicoaren adorazca corpuz eta arimaren reverencia andibatequin, ginesten eta esperacendugula aren baitan fede bicibatequin, prosequicen dizu norc vecatu eguitendu mandamendu conen contra, ginesten edo adoracenduenac idolo edo Jaungoico falsuac, edo erraten duenac drela²⁰ aniz Jaungoico; noro gueyago usacen duenac echiceria edo gauza supersticiosotan zoinbautaudu debetaturic Jaungoicoaren leguean cau duzu catecismo edo doctrinac erraten daucuna; usteducia dotrina esplicacio cau dela asqui len mandamentu conequin cumpliceco bada eztuzu asqui cerengatic manacenbaitu gueyago mandamentuconec.

Manacendiaucuzu lenic onesdezagula Jaungoicoa gauzaguciac veño guiago gure vioz guciarequin, naiduzu erran conec cain andi izanbearduela gure amorioac Jaungoicoarengana ezilenago beardugula permititu galcea gure fama, honrra, acienda, interes eta azquenean gure vicia ezi Jaungoicoa ofenditu, cala egon beardizu disponitric christioaren vorondateac Jaungoicoaren ones-

tra, eta verzala eztizu cumplicen mandamentu conequin, aizacie exemplo cau erregue batec intentatucizun³⁰ casamentu torpe desonesto bat, eta contacto bearzizun cavallero principalebaten consentimentua, deatucizun vere gana cavalleroa eta erran ciacozun baya casamentu cau beardiagu eguin eta eztic erremedioric emanbearduc ire consentimentua, respondatuciacozun cavallero virtuosoac Jauna concienziaz eztezaquet eman calaco consentimenturic, nola ezta asqui nic erratea, jauna ezpaneza Jaungoicoa ofendi eguinezaque vocic, baya parca veza eztroquet eguin zeren eguinen baitut vecatu mortale bat, eguin vearduzu edo verzala patrenduzu zure viciarequin, Jauna balimada Justiciaric contacto nayaco dizut vicia uzi ezi Jaungoicoa ofenditu, manatucizun eser cezayela calabozo batean obligaeraciceco vere consentimentraren ematra; eramancizien calabozoala cargatu cicien grillo eta cadenaz quendu⁴⁰ ziazcozun erreguec vere Palacio eta ontarzun Juciac cavallero miserable conen emaztea erdeten cinuen aflighturic, eta galdric bere seme guciequin, escatucizun Lic.^a vere senararen ecustra goateco, ematen diacocie, goancinuen vere seme guciequin presentatucinuen vere senararen alcinean nearrez eta erratendiacozu po(b)sibledaya enersenar maitea ecusdezazun cainberce lastima, eztituzua ecusten zure vioceco prenda cuec zure semecuec galdric baracendrela seculaco, eznuza ecusten ni aflighturic eta miseriac veteric seculaco eta guzia zure gatic, cer costacenzaizu consetra erregueren vorondatearequin cortan balimadago gure fortuna gucia, gure felicidadde gucia; eta alteratu bague caballeroac errespondatuciacozun vere emazteari Luisa ene emazte maitea zomat iragunendu fortuna correc edo felicidadde erraten⁵⁰ duzun correc 30 u 40 urte bien eta 30 u 40 urteren gatic naiduzua galdezagun Jaungoicoa, eta Jaungoicoarequin batean seculaco felicidaddea mercatari gasta zara zu, vesarcatucizun vere emaztea, baietara vere semac eta guciac nearrez despeitu zizan eta baratucinuen bere calabozoan, eta ecusten zuelaric erreguec cegola cain fuertea manatu zizun lepoaren gencea, eta cala uzi cizun vere vicia ez Jaungoicoa ofendiceagatic, cauduzu Jaungoicoaren onestea determinacea lenago vicia galdu ezi Jaungoicoa ofenditu.

Esplicacio edo exemploconequin ecustedizugu nola beardugun onesi Jaungoicoa, baya ecusibeardizugu claroago cer naidaucun erran conec onesdezagula Jaungoicoa gauza gucien ganetic; onesteco Jaungoicoa gauzaguciaobeño gueyago bearditugua⁶⁰ verce gañalaco gauzac despreciatu, beardugua uzi mundua, beardugua uzi gure aciendac gure ontarzun cainberce estimacenditugun gauza cuec, ez por cierto cerengatic ontarzun andiren artean, riqueza andiren artean cerviza eta onesdiaitequezu Jaungoicoa gauzaguciac beño gueyago, cor diaudezu Job, David, Abran. Job izancinuen ontarzun anditaco guizon bat, David izan cinuen erreguen, grandeza andien artean, bata eta bercea cinzan sandu eta vituoso ceren onesten baizuten Jaungoicoa veren

ontarzun eta riquezac beño gueyago; bada Jauna onesten ditugularic gauza cuec cainberce nola beardugu onesi Jaungoicoa gauza guciac beño gueyago edo cerda Jaungoicoaren onestea gauzaguciac beño gueyago; cer. egotea cristiobaten borondatea determinaturic lenago galzra gauza cuec gucioc ezi Jaungoicoa ofenditu;⁷⁰ eziaquizut asqui claro erratendutanez baya claroago zuen baitan igarecendren gauzaberequin beardauciet eman izagutra onestenducie-
nez edo ez gauzaguciac beño queyago; Jauna erranen dizu batec manacendia-
tazu mandamenduconec onesdezatala Jaungoicoa gauza guciac beño queyago
vioz guciarequin arimaguciarequin, eztuzu posible cau cerenbaitaucat nore
vioza, eta viozareq nore amorioa aniz gauzatan, nic beardizut onesi eta
maitatu nore senarra, cauduzu justo, nic beardizut maitatu onesi, azi eta
cuidatu nore semeac cauduzu obligacio, ene viciaren conserbacea, cauduzu
naturale, miracea nore honrra, reputacio eta famaren gatic cauduzu preciso
procuracea nore humeen, eta esaren sustentuarendaco eta mantenazeco cau
eztiaitequezu escusa, contaco obligaturic niozu trabajazra nore aciendara,
estimazra nore ontarzunac,⁸⁰ deseazra conbenienciatic, eta guisacontan ecus-
tenduzu Jauna ocupatric ene vioz gucia, atencio gucia cuetan, eta aniz aldiz
eznuzu oricen egun guzian avemaria baten errezarza, eta gueyago eramaten
dicie ene cuidadoa ene vioza gauza cuec ezi Jaungoicoac, eta nola beardut
onesi Jaungoicoa gauza guciac beño gueyago eztuzu posible. Ziaustie inocen-
teac cortan berean onesten ducie Jaungoicoa eta cervizazen ducie Jaungoicoa
ceren cumpligen baitucie zuen obligacioarequin, gauza Jaungoicoa gauzagu-
ciac beño gueyago edo ez, errandaztacie dagoa zuen borondatea determinatu-
ric galzra lenago senarra, semeac, acienda, eta ontarzunac ezi Jaungoicoa
ofenditubay edo ez cala balimadago zuen borondatea, onestenducie Jaungoi-
coa gauzaguciabeño⁹⁰. gueyago, eta berzala eztucie onesten Jaungoicoa ezetare
guardacen Aren leguea.

Manacen daucua mandam^{du} conec verce zomait gauza manacen diaucuz-
zu eta esercen obligacio eguiteco acto fede esperanza eta caritatezcoa, dificul-
tadea duzu jaquitea noiz eta nola eguin beardren actocuec; asentacendicie
bada autorec Cristiobatec duela obligacio acto cuen egitra tembraquetan 1.^a
llagacen denean usuarraciola zoin izaten baita zazpi urteen cumpliecartan
noizere sarcenbaizayo obligacio cumplieco eliza amasanduaren mandamen-
du guciequin. 2.^a urtean veguin. 3.^a ecustenduenbatec vere ilceco peligran, 4.^a
erdeten denean christiobat tentacio andibazuequin, virtutecuen contra, edo
egotendenean christiobat cain aborrecituric vere, viziaz, ezi peligracen baitu
fedearen galcea, orduan remedioric obenena duzu¹⁰⁰ baliacea acto fede espe-
ranza eta charitatezcobercz virtutecuen contra izaten ditugun tentacioen ven-
ciceco tembracuetan bada diaucazugu obligacio acto cuen eguitra; eta nola
eguin bear ditugu acto cuec Jaungoicoari gracia, onesten, ginesten eta espera-

cen dizugu Jaungoicoaren baitan, eztaya cau asqui obligacio conequin cum-
 pliceo, eztrayecuec acto fede esperanza eta caritatezcoac, eguiaduzu bayez
 baya dituzu acto interioreac edo viozezcoac, baya mandamenduconec mana-
 cen diauczuz¹¹⁰ acto exterioreac, naidizut erran ezi gure viozareqⁿ. ginesten,
 onesten eta esperacen dugunean Jaungoicoaren baitan tembraberean gure
 miarequin edo gure izequin vear dizu manifestatu viozaz deseacen dugun
 gauza bera, erranez ginestenduc Jaungoico aitaguziz poderosoaren izquec,
 zuen sosegutaco eta obligacioconequin cumliceo eman beardauciec erregla-
 bat facil eta clara; cierto duzu dugula preceptua, dugula obligacioa, baya
 eztutu cierto, noicetic noiceala obligacendaucun ilabetetic ilabeteala, edo
 urtetic urteala, conque cer erremedio ez faltaceo obligaciocontra acostumra-
 zaitetzte eguitra edo erratra acto contriziozcoa elizan sarcenzradien gucietan
 velauricatu eta bereala erran acto contriziozcoa intencionequin¹²⁰ cunplicheo
 acto fede esperanza eta caritatezcoeqⁿ. eta cau eguiten baducie, egon zaizque-
 ye segru zuen conciencian cumplenduciela zuen obligacioarequin baietaren
 Jaungⁿ. leguezco len mandamentu conequin asquiduzu dotrinaz proseguiuceo
 etc. Ave Maria.

Cum audisset Jaonnes in viculis mat. loco citato.

becatuan vicidena munducontan, eta duellaric ocasio ezpalimada elquicen
 vecatutic, eta apartacen vicio gastocartaric; dificultosoqui alcanzatrendizu
 calacoac Jaungoicoaren misericordiara, cerengatic declaracembaita Jaungoicoa-
 ren asai ecus baleza cristiobatec vere burua ilceco peligroan, ezlozquea dili-
 gencia andiac eguin libraceagatic vere burua peligro cartaric? eztuzuduaric
 contac eta berzala¹³⁰ erranguinioquezu eztuela deseazen vere osasuna, declara-
 cenduzu vereviciaren contrario eta ilenduzu vere peligro cartan; ilic diozu
 vecatumortalean dagonaren arrima, eta ezpalimadu procuracen vecatutic elqui-
 cea, eta cau lenbeñolen, eztizuquero naiduenean logratren vecatutic elquicea,
 oizu diozu Jesuchristo vecatarier *ne tardes converti de die in diem* eztezaciela
 uzi egunbatetic berceala zuen vecatuetic elquicea, eztezaciela luza egunbate-
 tic berceala comberticea ceren vecatubatec inclinacendidu gure apetitoa verce
 vecatubateala, eta carec vercebateala eta guisacontan imposibilitacenduzu gure
 salvacioa, ceren entregacembaita gure vioza desenfrenaturic munduco vicietra.
 Jaungoicoac libradezala Cristioa entregatic vecatu eguiteco viciobateala,
 ceren viciocartaric elquibeño len condenatren¹⁴⁰ dizu vere arimara, eguiadu
 eztala Jaungoicoarendaco gauza imposibleric combertidiatequezu Zomaiden
 vecatari, baya dificultoso duzu vecatariaren vioza apartacea aniz tembratz
 egotenbalimada becatu eguiteco constumbrebatean desengañaua diaucazugu
 ebangelion. Herodes erregue famosobat entregaturic vecatu eguiteco vicio
 bateala diaucazugu egungo asuntoan, baya calaco maneran ezi vizi baicen
 Jaungoicoaren beldurric gave, Justiciaren veldurric gave, vicinuen vecatu

publicoan, zeucalaric escandalo andibatean mundu gucia cain andicinuen guizon conen soberbiara, eta cain arimanic gave vizi cinuen vere vicioan, ezi ustevidecizun ezela Arendaco Jaungoicoaren leguea edo acaso uste videcizun cela Jaungoicoa beño gueyago; estado contra eraufuicen dizu arima pobreac vecatu eguiteco costumbre¹⁵⁰ maradicatuac baya guero recivicen dicie Jaungoicoaren castigu justoa; eta cer eguin cen erregue sovervio eta arimagavecau, baya cer eguinbearzuen vere viciac erratendizu, regularqui cala nola izatenbaita vicia cala izatenduzu ilcea; llegatu ciziaicozun, gucier llegatu veorzaicon vezala vere ilceco ordua, baya ezizun miserableac erden Jaungoicoaren misericordiara baicic vere arimaren condenaciona, onesi izanbalimalu Jaungoicoa munducontan, erdenen cizun piadoso ilceraco orduan, baya nola despreciatu Jaungoicoaren legue, despreciaturic izancinuen orducartan miserablea eta sentenciaturic ifernuco tormento inesplicable cayen seculaco padecizra, contan baracendituzu vecatarien izatea. Llegatu zizun errege conen atrevimentua Jaungoicoaren leguearen contra cainbercetra, ezi vizi baicen publicoan¹⁶⁰ amancebaturic, eta lujuriazco vecatu torpe eta desonestoan, eta norequi vsteducie norequinbaicic vere anayebaten emaztearequin escandalizaturic ciauczun mundugucia, nolabaicen erregue ta nolabaizuen dominio gauza gucien gañan, quenduciacozun bere aneye Philipori emaztea eta eramancizun veregana viciceco libertade guciarequin, eta cala nola izanbalu emazte propia vizicinuen lujuriazco vecatu continobatean cala nola ezipaliz Jaungoicoaren legueric; vada cer ecena iorere munducontan reprecidico, edo corregiceco vicio cau, elquicedien guizon cau estado gasto contaric, bacinuen baya ezizun casoric eguin nay baicic seguitu vere gustoer, alcabo determinatucinen S. Juan Jesuchristoren precari celoso cura ichiquiric Jaungoicoaren Amorioan, eta icusiric demonioec eraman bearzutela guizon caren arimara¹⁷⁰ ezipacen apartacen ocasio cartaric, corregizra eta reprecidizra publicoan erregue caren atrevienzara, eta erranciacozun jaquinzac erregue desonestoa debetaturic dagola Jaungoicoaren leguean lujuriazco vecatuan vizicea eta ezaic licito iduquicea sore companian emazte manzaba eta desonesta cori condenatu bearducie batorrec eta verceorrec ezipazradie apartacen vicio maradicatu cortaric eta ezipazradie converticen Jaungoicoaren gana, eta eguiten penitencia zuen vecatuez eta usteducia emendatucela Jaungoicoaren avisuconequin, esericzun preso santu glorioso, eta alcabo degollatu ceren predicatu baizuen eta errepreciditu Jaungoicoac manacenduena, arrapaturic ziauzcazun demonioac lujurioso cayen arimac, eta cala condenatucinzan viac¹⁸⁰.

O ene christioac zomat guerla eguitendaucun demoniac munducon principalqui izaguten balimadu gure naturalezara inclinacendela viciobateala candic veretic eserizendiacozu ocasioa eta tentacioa eta eztuzu baratren, eztuzu apartatren aliqueta vecatuan erorierazi arteo, baya o ene christioac llegatcen

duzu tembrateala zointan ezpaitu ez demonioac ceraniz tentatu, asqui demonio guituzu guaur ezi aceric gure Jaungoico Soberanoaz, azeric Jesuchristoz, ecustendugularic egunoro enclabaturic curuze cortan, gure arimen salvaceagatic guaurec vilacendizugu vecatua, guaurec ocasio eta peligroa, eta aniz aldiz ezquiaudezu content ezpalimadugu Jaungoicoa ofendizen elquiceagatic gure gogoac escacendaucunarequin, animazteye gucioc baya prinicpalqui gazteac zuen vicio eta inclinacio ciyen seguizra, zuec izanenduzie pagua;¹⁹⁰ galduric diozu mundua ceren ezpaitu pensacen iorquere vecatubaten eguitra doaie-nean ni cer eguitra noaie; baicic o oraisa meza enzuteagatic eztiagu viagea galdubear uzagun meza aldebat, juramentu falsu baten eguitean edo ez eguitean edo ez eguiten diozu logracea calaco conbenienciara, calaco fortunara, eguin zagun juramentu falsubat, ya que juntatubaicera orai iorc ecusten ezquituen lecuan erori bear nagun lujuriazco becatuan, bada cuec gucioc badiaquicie estado contan ilcenbadra beardutela condenatu, baya ó esperanza vanoac confesatren guituzu, eta correquin Jaungoicoac parcatren diauzcuzu gure vecatuac, ó esperanza vanoac vadaquia christiobatec vecatuan erorizgue-roz llegatrendenez edo ez confesazra segre dauca vere vicia, quemem sitenduzu ongui Abras abaricioso caren exemploa, Abras abaricioso conec azeric Jaungoicoaren legueaz,²⁰⁰ vere codicia eta abariciaren medioz juntatucizun bear eztenbidez ontarzun aniz, cainberce ezi gastaturic ere naizuen gucia sobratuic zizun vere vici guciaren igarececo ecusi cenean estado contan eguitencizun gala eta erraten ciazozun bere buruari ea triunfa eta gasta dezac orai gogoac escacendaucan gucia, viciadi convenienziarequin aseguratuic dauzac aniz urtetaco ontarzunac eta cer suceditu zizaicon; guacartan verean ilcinuen, eta ontarzunac baratu cinzan munducontan eta vera candiozu erre-cen infernuan, cer provechu elquizuen caballero conec juntatuaz cainberce ontarzun aniz urtetaco, galtatu balima dra urteac ontarzunen gozaceco.²¹⁰

II

Liber generationis Jesuchristi filij David, filij Abram abraham jenuit Ysac. Jacob autem jenuit Joseph virum Marie, de qua natus est Jesus, qui vocatur Christus. Mat. cap. I.

Cerengatic eguitenducie near S.ⁿ Joaquin eta Santa Ana gloriosoac? noladaude cain turbaturic zuen viozac eztraya acabatu Zuen desprecioac? eztrayaacabatu Zuen Susto eta desconsoluac eztaucacia Zuen besoetan alaba maiteMaria Santisima, aurora resplandeciente, Princesa Soberana cori bay porcierto, o gusto near eracarcenduena! o vi vioz amante cayen gozoa! o alegria incomprendiblea! egun bada ene auditorioa cain deseaturic Sortu izan

cinuen Maria Santissima Nazareteco Ciudadean, San Joaquin eta Santa Ana cain feliz nola dichoso cayen ganic, egun elquicinuen munduala aurora resplandeciente cau desterrazra bere claridadearequin²²⁰ obscuridade eta tiniebla guciac, consolazra Adanen Seme miserableac, libertazra esai infernalearen poderiotic gure arimac eta eserzra gucioc Salbacioaren videan, o egun feliz eta dichoso! baya nic cer erranen dut egun cain andi eta misterioz veteriz dagon contan? bearbalimadut minzatu acierto, eta propiedaderequin preciso guianazan escritura Sanduac, erreguen len libruan erraten dizu Philisteo natione sobervio carec emprenditu zuela guerla Ysraelita humildecayen contra, vi aldiz vencitu cicien Ysraelitac erdeten Zrelaric pobreac angustiatu-ric miseria contan determinatu cicien elquicea veren companian veneratric eta adoratric Zaucayen fedearen arca edo Sagrario misterio-osa, confiatric ayec ezroqueyena obratren zuela Jaungoicoac discurso admirablea contan ciozun²³⁰ ayen fortuna eta felicida.^a apenas elquibaizuyen Siloco Ciudadetic arca soberanoa, apen.^s ecusibaizuyen Ysraelitec sitencela ayen consolu eta faborea uziric aldebat beldur eta aliccionea erraten dizu testoac asi zrela alegriaz veteric sonacen trmpeta eta clarinac, pifano chirimia, eta atabalac, guciac batean calaco oyu eta demostracioarequin iduri zuela oyu eguiten zuela aizeac, resonacen zuela oyanec eta lurrac *vociferatus est Ysrael clamore valido ita ut personuerit terra: venit Deus in castra, venit Deus in castra*: aitu zutenean Filisteoec cainberce alegria eta demostracio izagundu cicien Jaung.^a cegola Ysraeliten faboretan, eta bereala iesi eguin cicien beldurtu-ric, eta baratu cinzan vencedore eta victorioso *venit Deus in castra* egun bada ene auditoria, egun M.^a Santissimaren debotoac, egun manifestacen duzu Jaung.ⁿ misericordia infinitoa, egun egorcen diaucuzu munduala Maria Santissima arca misterio-osa, custodia amoroso-osa baya cain misericordiosa eta valerosa ezi ez solamente baracen dituzu vencitu-ric Philisteo esay infernaleac, bayetare reconcialitu-ric cerua lurrarequin, vencatria jaung.ⁿ cala erraten dizu D.S. Buenaben *benedicta es Maria quia parte diabolus ab homine separatur; et homo Deo gratificatur*. delaric bada cierto segun S.ⁿ Juan Damascenoc ezi Maria San.ⁿ nativitatea izancela gure reparacio, eta Salbacioaren principioa beardizugu ecusi nola eta guiacen nuelaric evangelioa sarcen nuzur doctrinan.

Duzu articulo fedezcoa trinitate Sanduco.²⁵⁰

Bibl.:

Orreagako bilduma (JMS), 210 x 155. Hamar orrialde.

J. M. SATRUSTEGUI. "Textos salacencos del año 1780". *Symbolae L. Mitxelena* (1985), vol. II, pp. 1023-1043.

34. DONIBANE LOHIZUNE (1788)

Beran gertatutako ohointza baten ondoren, Iparraldera joandako zenbait gizonen urratsak jarrai nahi zituzten agintariek. Donibane Lohizuneko Tausin alkatearen erantzunak hau dio.

I

Egun martchuaren hogoy eta bederatcian m(ila) Saspí heun larogoy eta Sortcian, gure aintcinean.. Baile eta juratu Donibanen, aguertu da maistria Ramos Sortces Espagnola, hogoy eta hamabi urthetacoa, Donibaneco Barran lau urthe huntan travaillatcen deña, ceña egoten baita Ciburun pierres Bereret, Barraco Entreprenuraren baratce caiña baitan.

Declaratu daucu nola asteasquen Sandus travaillat(cen) celaric andre Duranen harrubian, Miguel Corbeña Espagnol batec, ceña orobat travaillatcen baita hemengo Barran eta egoten urrugnaco herrian suhia.. deitcen den guçon baten etchean, erran¹⁰ cioela pier(res) Belasteguy Espagnolac, ceña hiru urthe huntan Barran travallatcen baita eta egoten Echeverri Ciburuco organistaren ama guinarraren baitan.

...uela ...hanits, cer... erremu...

Dio nola harrubian lanean aicelaric astea ... Sandus aitu cuben travaillari guciei erraten o(rain) icendatu tugun borts guçon horiec eguin cuten ohointça: erran du oraiño nola Belasteguy bere lagunari eman dioen Valancieune deitcen (den) estoffa bat galtça parebaten eguiteco, eta hortaric Juanillo besta bat eguiñaraci du Victoriano deitcen den dendari Espagnol²⁰ ba(t) egoten baita donibanen Maria Espagnola harismendy Sariantaren etchiaren guibelian emendatcen du Miguel Corbeñac Ba... hunat ohointças Suspitchatuac diren guçon... direla herri huntaric, Jaunilloc hetaric erran dubela Sanguessarat soassilla. Aguertu da gure aintcinean Victor(iano) eta erran daucu Juanillo bere etcherat er(aman) dubela, eta erran den estoffatic yadan b... eguin dube... baitio tassa Silharresco bat bi guiderreta(co) erraten çubelaric cussina batec eman ci(ola) emaste hau entçayatu cela tassa harren Saltcerat, chede hortan yudu bati offreitu cioela, bainen ets cirela accordatu;³⁰ ondoan separatu cirela; esdaquiela yeussic guehiago.

Maria Joseph otcheteco Ceñas mintçatu baicare, presentian gure pressondeguian da accusu hau dela caussa; interrogatu dugu eta declaratu d(u) nola astelehen Sandus Verrarat gantcela confessatcer(a) eta

bidian bassa batian caussitu çubela tassa erran dena, Bayonan eman dubela emastequi bati Saltceco ceñac Salduric Remettitu baittiotça hama-bi libera; estubela essagutcen emastequi hur(a) eta haren icena esdaquie-la; ignoratcen dubela orobat nori tassa saldu dioen ...egunian.–

II

Beran ostutako katilu zilarrezko bat atzeman zuten Baionan.⁴⁰ Ostatu batean saldu zuen emakumea preso sartua zela, aditzera ematen du Tausin jaunak, baina lapurren berririk gabe jarraitzen dute.

Jauna

Çuc galdeguiten duçun arguia pablo Sarraten Sujetian, eçin pressentian eman deçaquet Satifationeric çeren Barbera egun goician donostiarat gana baita, hirur egunençat, handic etortçen den pontutic içanen dut çuri escribatçeco ohorea. hemen presso dugun emastequi hunec aitortu daut nola tassa cilar salduduben hura, magdalen eraten dioten espagnol Vrrugnan Elisaldebaitan egoten den batec eman çioela Baionan ostatu(an) Salçeco, guihiago⁵⁰ dena nola athorr(a) haren aintçinian, emancioen bere (...) Baionan nescato dagoenari eta h... çen Belasteguy eraten dioten Bera(n) eguin duben guiçon hetaric bat... hogoibat Sujet gaisto presso quitug(u)... esda batere borts ohoin hetaric, esp(ero) dut oraiño hartuco tustela çeinbat. Luretan balire Segura çintçaquet Jauna, guelditcen çure betico lejal Tausin maire. Donibanen apirilaren 1. 1788.

III

Lapurren atzetik zebilen justiziak Paul Serrat izeneko arrotz bat atxilotu zuen Etxalarren. Donibane Lobizuneko alkatea bere herritarraren alde atera zen, burua galdu eta etxetik kanpo zebilen gizon ona zela aitortuz.–

Jauna

Echalaren presso dagoen guiçon gaste hori da hemen dagon cascon harguin bat. Andres hartchabaitan egoten cen Cofesatcerat eliçarat gan eta buruba nahasi çajo, penetan guinen horen⁶⁰ Sortias, uste guinduben itsasorat ithotçerat gançen, horen casuban esdugu aditu nihori bidegaberic eguin dioela, ausarqui libra ahal desaquete; placer dugu jaquitias hor dela deitçen da paul Serrat, berac eran duben beçala.

Segura desasuque jaun Co... nic escribatçen tudanac egui... eta goraintçi ene partes... guelditçen nais betico, j... çure cerbitçari leja(l).

Donibanen apirilaren 2an 1788. Tausin, alcalde.

IV

Zilarrezko katiluarekin batera, Beran ostutako oihalez egindako atorra baten berri ematen da hurrengo testuan. Horrela, lapurrak Urruña aldean dabilzelako ustea indartuz doa.

Gutunaren arazo nagusia iluntasuna da, bigarren orrialdeko hitz asko desagertu baitira.

Jauna. Emastequi hemen presso dugun hunec declaratu daut tassa çilaresco bajonan salduba dena, Magdalen eraten dioten espagnol urruñan dagoen batec eman cioela salceco belasteguy⁷⁰ deitçen den espagnol batequin çela bajonaco ostatu batian, guihiago dena nola Magdalen diodan horec eman çioela atorabat, hunen ainçinian, bere alaba bajonan dagoenari. Segura da beraco ohointça eguin dutenac Vrrugnan direla, jaun Marquis de Caupenac emantu ordenac arrastaçeco, eçin oraino atçeman detçacete, baiñan uste dut atçemanac itcaren direla.

(...)

Eguiten diotca, eta ordena dugu castcec(o) esbalinbadugu guihiago-co declarationeric hargatic çuri Satifatione emateco atç(...) dut oraiño cembait egun. Jauna gulditcen nais betiereco ç(ure) Serbitçari lejal. Tausin alcalde Donibanen 12 avril 1788.

V

Erne ibili ziren Sarako arduradunak eta Urruñako baserri batean jaso zituzten lapurren oihalak. Baserriko nagusia atxilotua dutela eta zer egin behar den galdetzen du Urruñako agintariak.

Jauna. mariabaitaco borda miratudut andre horequin Eta eçagutu ditu bere oyaletic Eguinac bi attora eta declaratuda hango guicona andre horec bere oyala eçagutu dubenean pepitac. Saldu dubela oyal ori eta guicon hori preso hartu dugu eta hatorac alchatu hartuco tuçu pipitaren ganic declarationeac eta gastiatico... daroquçu cer Eguin guicon hortas

andre horec berac gauca guciac eraren darosquitçu presa du Erretiraceco. Vrrugnan 27'an 1788. prialle yurat.

Bibl.:

- Arch. Gen. de Navarra. "Cartas vascas del año 1792". Archivador de microfilm n. 76 (doc. varios). Referencia: *Libro de comptos*, n. 489 a 494.
- A. IRIGARAY. "Cinco cartas eusquéricas del Ayuntamiento de S. Juan de Luz al de Vera (de 1788)". FLV (1972), pp. 345-351.
- J. M. SATRUSTEGUI. "Correspondencia oficial vasca del siglo XVIII". FLV 47 (1986), p. 133.

35. ARRUITZ (17..)

Gurutze bidearen ospakizuna oso zabaldurik egon da gure egunetaraino Kristau herrian. Era askotako izkribuak baziren elizetan, eta haietako bat da Larraungo Arruitz herrian jasotakoa.

Hiru orri dira, hariz erditik josirik daude eta horrela sei orriskak egiten dute. Azken orrialdean hitz hauek irakur daitezke: "Los escribio Beltran de Galduroz para maior prouecho de las almas y bien de los que leen". Berau ote zen bertsoen egilea? Birrezkribatzaile hutsa ere izan zaitekeen.

Elizkizun honen egonaldiak hamalau dira eta paper hauetan hamabi bakarrik datoz. Itxuraz, lehen bi gurutzeak galdu egingo ziren, hirugarrenean hasten baita.

Ongi begiratuz, balare, egonaldien zenbakia gaiarekin ez dator bat. Hirugarrenak, berez, bigarrena adierazten du eta, era berean, beste guzien segida aldaturik dator. Jesusen hiru erorikoak, esate baterako, lau, zortzi eta hamargarrenean ezartzen dira, 3/7/9.gurutzeetan izan beharrean. Horrek esan nahi du, hasierako bi bertsoak ez baino, lehena eta azkena direla falta.

Nere ustez, Galduroz ez da bertsoen egilea, birrezkribatzailea baizik. Eskuetan zuen bildumak azaleko orria falta zukeen, eta bertan egongo ziren hasiera eta amaierako bertsoak.

Kopia honen egileak ez zakikeen eta gaizki zenbatu zituen.

Idazkeraren arabera hemezortzigarren mendeko izkribua da, baina jatorrizkoa zabarragoa izan zaitekeen.

Irugaren guruzea
Gurutce pisu vaten
Carga soin flacoetan
Ilceco vereartan
Iminicioten emen;⁵
Pensazazu cembat zauden
Jaincoari costea.
Ay Jesus dela posible
Berriz zu ofendicea.

Laugaren guruzea¹⁰
Cargac icaraturic
Gucia dezaquena
Ceruac egi(n) cituena
Lurrean eroriric
Chuticeco lagunic¹⁵
Eztuzu Jaun nerea...
Ay dela posible
Berriz zu ofendizea.

Borzgaren guruzea
Ona non topatucen²⁰
Ama Sanduarequin.
Nolaco penarequin
Maria gelditucen
Aren acean Jaun (juan) cen
O! cein guztis tristia;²⁵
Ay! Jesus dela posible
Beriz zu ofendizea.

Seigaren guruzea
Gueiago penagatic
Emancioten lagun bat³⁰
Viciric Calbariorat
Allegacea gatic;
Merchede egiteagatic
Etzen izan merchedea...
*Ay! Jesus dela posible*³⁵
Beriz zu ofendizea.

Zazpigaren gurruea

Cego bada beterit
Odolez haurtegia
Guelditu da guztia⁴⁰
Mengalan marcaturic
Bere pagua arturic
Doaie content Andrea;
Ay! jesus dela posible
*Beriz zu ofendizea.*⁴⁵

Zorcigarren gurutzea
Erorcen da lurrera
Berriz Jainco gurea;
Nola becataria
Emendacen etzara?⁵⁰
Zuc egin duzu bada
Ain pisu Gurutzea;
Ay! jesus dela posible
Beriz zu ofendicea.

Bederacigaren gurutzea⁵⁵
Bada eracusten zaizu
Emen negara eginten
Ezpaduzu icasten
Zuc viotzic ez duzu
Edo ain gogor daucazu⁶⁰
Nola dagon broncea.
Ay! jesus dela posible
Beriz zu ofendicea.

Amargaren gurutzea
Cein cruela zara zu!⁶⁵
Cein cruela diot berriz!
Erori da irrur aldiz,
Esta escuematen ez diozu:
becatuan egon nauzu,
O! Zure doacabia.⁷⁰
Ay! jesus dela posible
Beriz zu ofendizea.

Amecagarren gurutzea
Zauriac billustean
Jesuri berricen⁷⁵

Ta ezaizu erdiracen
Viotza au pensacen:
Ainbat gende aurean
O! Jesusen alquea.
Ay! jesus dela polsible
Beriz zu ofendizea.

Amabigarren guruzea
Bi ladronen artean
Jesus iminicen dute:
Zaticacen ereute⁸⁵
Ilcequin jostean;
Zuc culpa verricean
Verricen da colpea.
Ay! jesus dela posible
Beriz zu ofendizea?

Amirugaren guruzea
Lura da icarazen
Ilcean Jaun andia
Illunzen iguzquia
Arriac arrallacen;⁹⁵
Ta alare berazen
nola ezta biotz zurea?
Ay! jesus dela posible
Berriz zu ofendizea?

Amalauzarren guruzea¹⁰⁰
Josephec erauchiric
Bere Amac arcen du
Gorpuza eta icustendu,
Declaraceco ezta itzic,
Bere besoetan illic¹⁰⁵
Bere seme maitea.
Ay! jesus dela posible
Beriz zu ofendizea.

Bibl.:

Arruizko parrokian F. Ixurkok jasoa. Argitaragabea. 150 x 110 mm. 12 orrialde.

XIX. MENDEA

36. INTZA (1801)
37. ARALAR (1833)
38. GOLDARAZ (1833)
39. LAKUNTZA (1838)
40. HERNANI (1847)
41. IRUN (1854)
42. SUBILLA (18..)
43. LESAKA (1857)
44. ERRO (18..)
45. LUZAIDE (1869)
46. ORREAGA (18..)
47. ZUGARRAMURDI (1875)
48. BIDARRAI (1876)
49. LAKUNTZA (1865)
50. GÈRENDIAIN (18..)

36. INTZA (1801)

Nafarroako Araitz bailaran dago Intza izeneko herria. Aipatuak izan ziren, bertako lur-ikarak. Berez, lur-ebakiak izan ziren herria desagertarazi zuten gertaerak. 1714ekoan bi etxe bakarrik gelditu ziren zuti eta 1745ean ia hilabete batez joan ziren lurak astiro astiro erortzen herriaren gainera etorri arte. Iturri asko du lurpean eta azken erorketa horren ondoren ur garbien putzua sortu zen mendien sakan batean.

Euskal izkribu hauek C. Saralegi adiskideak jaso zituen eta 1974an eman zizkidan. 1802an 48 etxe zituen eta 336 biztanle bizi ziren herrian.

I

Natividad de Maria Santisima.

8 de Setiembre. Año de 1801

Liber generationis Jesuchristi, filii David, filii etc.

(Math. c 1, v 1).

Egungo evang. onetan, cein esribitu baizuen San Math. evang. manifestacen zaicu Marie Santisimaren, eta onen seme Xpren. ascendenci paregabe ure. Ematen digu bada adicera nola den Marie Sme. Guraso guztiz noble bazuen alava; Erreguen, Patriarcaren eta Santuric excelente, eta aundienaren linagecoa; eta izenic ain noblea naturaleza onen parteti, eztela ala ere au, Marie Smrn. excelencieric aundiena. Valgame Jaungoico Soveranoa! Cer diche aundiegoric izen dezaque batec,(esanen direzue) Erregueren, Patriarca, eta Santuetatic descendicea bañen? Ordena comun, edo naturalezaren parteti claro dago ecez, bañen bai, gracieren partetic; eta au de ceñec eguin izandu zuen¹⁰ Marie Sme. Erregue guztiec bañen nobleago, Patriarcac bañen exelenteago, eta Santu guciec bañen ere ilustreago.

Bada baldin Marie Smrnzat. baldin bada diche, orden Comun edo naturalezaren parteti, Erreguen, Patriarca, eta Santuetatic descendicea, Aundiegoa da bai oraindiquen, onen guraso, eta gañeraco ascendientearenzat, izatea bere linean aurcho bat, edo criature bat, ceñec bere Jaiocce dichoso, edo jaio cen den instante artati bereti ilustraturic uzten ditun Elize guztiec, ilustraturic triunfantea, cein den cerucoa, ilustraturic Militantea, cein den munducoa, eta ilustraturic Purgantea, cein den Purgatoriocoa. *Cunctas illustrat²⁰ ecclesias!* O aurcho, edo infanta, feliz, eta dichosoa! Norc esanen du ez

dela arrazoia aundie, cantaceco publicamente gure Ama Eliza santac, eta guc onequin batean, zure nacimiento, edo jaiocce dichosoac anunciatu, eta eman ciola mundu guztiri gozo aundi, eta contentu, edo consuelo particular bat? *gaudium annunciabit universo mundo*. Bai nere christio fielac, gaurco egune da, egun feliz, eta dichosoa gurezat. Gaurco egune da, Profeta santuec aunciñe pronosticatu ciguen egun ure, Patriarca santuec esperatu zuena, eta siglo guztieac allegaceco aimbeste deseorequin egondu cirena. Au de egune ceñetan (San Geronimo batec esaten dun bezala) iriquicen diren San Joaquin eta Santa Ana,³⁰ Virgiñe Marieren Guraso aien ate esteril aiec, emateco gure Redentoreari, ateric virgiñen eta divinoena. Eta ceñetati sartu bear zun Jaungoico bat corporalmente gure gaiz guztic remediaceco. Au de egune ceñetan descubritu zun Jaungoicoac bere escu propios labraturic ceuquen escallera vici ure, ceñetatic jechi bear zun Jaungoicoac berac cerutic, munduen vistatue izateco, eta trataceco munducoaquin, eta batetan esateagatic, eta obequi comprendiceagatic, Au de egune aguertu izanducenco, eta jaioc mundure Andre virgiñe Mari, Princesa, eta Erreguñe Soverana ori. Bañen nola pensacen dezue jaiocen dala?.

O balgame Jaungoico Soveranoa! ez beste criaturic jaiocen diren⁴⁰ bezala negarra, eta suspirioen artean, baiciquen arrebataturic extasis altissimo bateti esaten du, Ama Venerable Maria Jesus de Agreda batec: ez beste criaturec bezala, juicioric, eta discursoric bague, baiciquen gucie ilustraturic jaiocen den instantetic arrazoiaren arguieriquin, esaten du San Bernardino de Sena batec: Ez beste criaturec bezala graciric bague, eta pecatuen; baiciquen guztie pura, guztie ederra, guztie Santa, eta en fin guztie graciaz betea, esaten du Santo Tomasec.

Alegra zaresta bada Adanen semeac, cergatic eze, baldin Santueren bat jaiocen dan orduen (erocin delaric au), causacen badu mundu⁵⁰ guztien alegrie, ceren datorren guztion oneraco, motibo gueiagorequin bear degu guc alegratu, Andre Marie Virgiñe, Princesa Soverana ori jaiocceco egun onetan, ya ceren den ceruen eta lurrean arquicen den criatureric Santaena, bere seme maite, eta gure Salvadore J.C. landara, ya baita ere, ceren orren medioz logracen degun ateracea, gure lendabico gurasoen pecatueren medioz guztieac sumergituric arquicen guñen cautiverio Eternoarretati, egun onetan Ama Elize Santa bereraño manifestacen zacu bere errezo, eta cantuetan guztie alegre, eta gozos beteric, ceren virgiñe Andre Marie jaioccearequin logracen dun bere seme catolico (...) guztien salvacioa *per quam salus mundi*⁶⁰ *credentibus aparuit* eta encargacen ditu alaco instacierequin eta Erreguerequin bere Semeac acompañaceco gozo, eta alegri onetan, esan dezaquelaric Ysaías batec beste dembora batean bezala, *etamini cum Jerusalem*. (Hixos) Eliceren seme maiteac, ain Ama onaren semeac alegre zateste Amarequin batean, ceren Virgiñe

Mariaren jaiocac causacen dun alegrie Mundu guztin: Alegria zateste bai ceren jaio den ya campoco lore eder ure, ceñec produciu bear dun ez guchigoric ez pada munduco Redentorea. Trinidad Jaun Poderoso bereraño alegratu izandu zala esaten du Puente Venerableac jaioc dichoso onezaz. Alegratu cen Aite Eternoa ceren jaio ciecean alava bat jaio ditequean ederrena, Alegratu⁷⁰ cen semea ecustearquin jaioric munduric ecen dembora ezquero bere Amazat escogituric ceuquen emacume edo Andre dichoso ure, baita ere Espiritu Santu Jaune ecustearquin ya Munduen Doncelle virtuosa ure, ceñec izan bearzun bere esposaric Estimetuena, eta amatuena. Bada baldin ceruec berac, eta guztien criadorea alegratu baciren virgiñe Andre Marie jaiocaz, Arrazoa izanen da bada nere fiel amanteac gure alegraceco, jaioc dichoso onezaz gueiena interesacen dugun bezala; eta izen didin gure alegriau completoa, eta perfectoa, Elizec deseacen dun bezala,goazen orain ecustera virgiñe Andre Mari orrec Mundure etorteco izandu zuen fiñe edo motivoa.⁸⁰

Eguin zun pecatu gure lendabico guraso Adanec gucioc daquigun bezala, eta pecatu onen resulteti guelditu cen guizona ain estadu miserable batean, ece oñetic asi eta burureño esaten du Isaias batec ecizaiola guelditu gaue osoric, eta sanoric; guztie guelditucen llagas, enfermedades, dolores, miseris, desdichez, eta lastimez beteric, anime, eta corpucean, araco beste guizon pacienci aundico ure bezala, esan naidut Job Santubet bezala, arquicen cen orduen ocollu bastar arretan materituric, eta podre bat eguiñic, guztie expectaculoric orrosoena, eta espantagarriena eguiñic. Estadu lamentable onetan corritu zun munduec Adanen demporati, Jesuchristoren⁹⁰ etorreraño: experimentacen zularic bacuicere bere burueren gañean Jaungoicoaren escuti castigu, eta rigurosidaderic aundienac iñon ere amparoric ecin billetu zuela, ez ceruen, ez lurrean, ez ta ere infernuen ere: O cer demborac oc nere christioac ain lastimegarriec! Ciertamente causacen du orrosidade eta icara aundie, estendiceac batec bere biste Escriture Sagradure. Lendavico ojatic ezta adverticen beste gauceric, ez pada Jaungoico vengadore baten ire, guizonaren contra; apenas bada criatu zun guizona, nola bereala cicecan penatu criatue, eta au ez nola nai, baiciquen amenazacen ciolaric furiric aundienarequin biurtu bear zuela ecerecera, eta¹⁰⁰ arequin batean gaue guztie: eta efectivamente paracen zularic parte execucioan vialcen du dilubio bat ain orrosoa, eta anegacen da mundu guztie, gueldicen cirelaric tan solamente muenduen libreac zorzi persona: beste ocasio batean ondoren bialcen du su abrasagari bet ceruti, eta su onequin uzten ditu auz biurituric Sodomaco, eta Gomorraco ciudaceac, beren habitadoreaquin ciudace oetan bietan cometicen ciren pecatueren medioz irritaturic: eta en fin guztie cen rigurosidea dembora arretan, eta motibo onen gati izeguiten zularic Prof. Erregueac bere

Jaungoicoarequin esaten zion humildade aundi batequin: Jaune: non oculte-
tu, edo ezcutatu nateque verorren ire, eta¹¹⁰ indignacioti? baldin iocen banaiz
Cerure berorren iren iesi, an epacen dut guztie enojaturic, eta indignaturic:
baldin jesten banaiz lurrera, an arquicen da pnte.: baldin egan pasacen banaiz
ichasoaren beste aldera, an arrapacen nau berorren escuñeco escuc. Clamore
triste oetan, quexa lastimoso oetan, pasacen cituen gure antigocoac egunec,
eta gabec, aimbeste gaicerenzat remedio bat ecin epatu zuela; cergatic ece
ecen dempora infeliz autan lecuric, nora acogitu, edo arrimetu, amparaceco,
eta defendiceco, Jaungoicoaren justicieren golpetati, ezta ere iñor detenitu
zezaqueanic Jaungoicoaren besoco indarric, golperic eman ezezan pecatari
miserablen gañean: Eguie da nere christio fielac,¹²⁰ arquicen zala orduen ere,
orainche bezala Jaungoicoarengan piedadearen, misericordieren, vicieren, eta
salvacioaren iturrie: bañen cer importa da, esatendu, David Erregueac, baldin
iturri onetaco ubrec, baldin baceuzquen Jaungoicoac recogituric beregan?
Ceuzquen bai ubreoiec detenituric beregan estanque batean bezala, bañen cer
dugu cer extrañetu, nere Catolicoac, baldin ez pazun iturrionec dembora
arretan canalic, eta conductoric nondi comuniquetu bere ubrec? Au de bai
motiboa ceren cen dembora arretan guztie rigurosidadea: Bañen ya (Jaungoi-
coari graciec,) jaiocarequin virgiñe Andre Mariori egun onetan, comunicacen
dire abundantemente Jaungoicoaren justicieren¹³⁰ guilcec, beste dembora arre-
tan munducoarenzat encerraturic ceuzquen graci aiec: ya egun dichoso oneta-
ti aurrera, eguiten dire Jaungoicoarequin Pecatariaren arteco paqueac: ya egun
onetati, erori cen , eta puesquetu, Jaungoicoaren comunicacioa lurreraco,
detenituric ceuquen muralle fuerte, eta gogor ure, eta iriqui cicecan, eta
paratu francamente pasoa, cerueren, lurreren arteco comercioari.

Bai nere auditorio maitea bai, Virgiñe Andre Mari ori izandu cen
jaiocen instante artati bereti, abitu zana templacen Jaungoico Vengadore
baten ire, comberticen zularic ire au, compasio, eta misericordin: Virgine
Andre Mari ori izanducen, jaiocen egun feliz,¹⁴⁰ eta dichoso onetati propor-
cionatu cigune diche bat ain aundi, eta singularra; cergatic ece, penetracen
circularic bere Virginidadeco raio aien aiceac, sobrepujacen circularic Aingueru
guztieg, eta pasacen celaric egan astro gucien arteti, arquite izandu zuen
Verbo Eternoa bere Aite Eternoaren pechu celestial arretan, eta ateraric andi
eta sarturic bere virginidadeco pechun, obliguetu zun jestera lurrera, eta
modu onetan componcera gauce guztieg: orra claro jaquin dezazuen virgine
Andre Mari ori, Mundure etorteco izanduzun cause, eta motivoa, izateco
Arrigarriyac dira milagruac S. Miguelen medioz Jaunaren Majestadiac, obratu ditubenac³⁸⁰ arla Legue zarrian, nola berriyan, lecu gucietan, eta ez guti gure inguruban, eta asco Aralargo mendiyontan S. Miguel Ex̄s zan asco jaquinsuc esaten diobenes Legue zarrian jaunaren ordes Moises Santubari Orebo mendiyan aguertu, Ysraelgo erriya Faraonen mendeti ateraceco orde-

nac eman, Erregui onen ejercitua perseguicen citubena Moises eta bere gendia ichasuan ondatu, eta Ysraelgo Erriyan 40 urtian milagro aundiyen artian gordetu zubena; S. Miguelec lagundu cion jacob Patriarcari Aingueruzco ejercituarequi vere asaiyac vencicen; Orrec laugunducion Josue Valerosuari Jerico ciudade fuertiura menderacen; Orrec berac lagunducion Judas Macabeori Gedeon famatubari; S. Miguelec azquenic libratu zuben bi bidar Daniel Profeta Santuba Lionen azaparretati; eta beste bein Surtaco labegorritic batere miñic gabe baterere dañu gabe. Dabada S. Miguel Aingueruba guc³⁹⁰ Jaunaren aurrian M. S.^{em} aurrera izan eta iduqui aldezaquegun adisquide ta bitartecoric poderosoena; bada S. Miguelen baitan arquicen dira completamentian adisquide ta bitarteco poderoso izateco biardian condicio guciac; oyec dira Jaunagandi gurezat mesediac alcanzaceco valimentu aundi bat, mesedioiyec guri eguiteco vorondate on bat, eta amoriyo aundi bat; eta norengan arquitzzen dira irugauzoc obequiago ce S. Miguelen baitan? Norc, Mariaren urrena eguin dio bere debotuei Aingueru maitiorrec baño favore gueiyago? Norc dauque guizonarendaco vorondate prestago berarrec baño? Norc S. Miguelec baño valimentu gaiyago Jaunaren aurrian? Norc guganaco amoriyosco suba pistu edo viciyago? Yñorc ere ez N. C. Catolicuac Pantaleon devotuac digunas. Ain aundiya da jaquinsubonen⁴⁰⁰ iduriyan Miguelec Jaunarequin duben valimentuba laurriric eztubena becelacua.

Nola ezuben izan biar ain aundiya eta laurrigabia Miguelec Jaungoicua-requin dauquen valimentuba, baldin ezipaidute laurriric Ministro Leiyalonec Jaunari eguin dizquion servicio aundiyac: Nor S. Miguel baño celo aundiya-gotacoric Jaungoicuaren honrragatic? Nor len goratu zan Jaunaren alde Lucifer errevelatu cenian contra? Miguel lembicicua; Miguel len jaso zan esanaz *Quis sicut Deus*.

Ontan N. C. icusten da veguis vecela Miguelen celua Jaunaren glorias, Miguelen amoriyua dala aundirena Jaunaganaco Mariarenas landara. Eguiya bada Theologuac diyuenas jaunac santubei eta Ainguerubei ematen dien gloria, poderiya, eta valimentuba dala Jaunari berari Santubac eta Ainguerubac dioben amoriyuaren conforme, eta izanican esan dugun vecela, aundirena Miguelen Jaunaganaco amoriyua, esan biardugu Miguelen valimentuba dala⁴¹⁰ aundirena; Onen conforme cer faltatuco dio Juanac Principe leiyalorri? Cer inori ucatuco dio gure Jaunac Miguelec gurezat esscatu, edo erregucen badio? Nic Sinistacen dut Faraon Erreguiac Jose garvi laiyal Jacob Patriarcaren semiar bere Palaciyo eta erreinuco aguintasun eta escu gucia eman cizquion becela, Jaunac Miguel lenbico Ministruorri emanic dauzcala poderiyo eta facultadiac berdinic edo laurrigabiac: Nic sinistacen dut Asuero Erreguiac Mardoqueo leiyalari bere Paisano Ysraeldarren alde eman cion becela valimentu arrigarri bat, modubontan eman ciola Jaunac Miguel Ain-

gueru gucien principiorri izan deitequen valimenturic aundirena gure alde: Nic sinistacen dut azquenic eta gucioc biardezubie sinistatu ezdala graciatic, eztala guri convinidaquigun gauzaric Miguelec, Jaunac eman dion escubonequi, alcanzatu eztezaiquegunic, eta orgati esaten dion⁴²⁰ S. Vicente Ferrer Glo.^{ac} Jaunac mundubontara guri lagunceco salvaciyoco vidian bialcen dituen Aingueru gucien artian principal eta poderosoena dela S. Miguel Aigueruba *Inter omnes Angeles celi qui descendit in hunc mundum ad procurandum nostrum bonum, et salute maximus est nobis Michael.* Eta orgatic ere esaten digu beraren deboto Jaquinsu batec Jaunaren eta bere Ama Sma. mancharic gaviaren urren guc izan dezaqueguquen adisquide, bitarteco, eta Patroiri(c) onena, ta principalena dala, S. Miguel Aingeru Gloriosua. *Post Deum et ejus intemeratam Matrem Michaellem habemus maximum Patronum.*

Ez da milagro S.Miguel izatea M. S. urrena gurezat aldaitequen bitartecoric onena, cergatic beragan arquitzen dira ez bacarric guri lagunceco poderio ta valimentuba, bai ta ere gaiñera mesediac eguiteco vorondate ontasunez, erruquimentus, eta amoriyoz betetaco⁴³⁰ bat; bada izanic eguiya eta jaquiñacenbat eta gueiyago Santu, edo Aingueruren batec amatzen duben Jaungoicua, ainbeste gueiyago gu amatzen gaitubela, eta cenbates amoriyo aundiya-gua digun ainbestes gueiyago erruquitzen dirala gutas, eta erruquimentuba digubienarem dit bat mesediac alcanzacen empeñatzen dirala; S. Miguel Serafin gucien Principia izanic espositore, eta jaquinsubac diotenes, Jaunaren amoriyos errecea, eta urturic dagon Spiritu abrasatu bat, Nolaco amoriyua ezta izango guizonarengan? Eta orlaco amoriyuarequi nolaco erruquimentubarequi e(z)tigu beguidatuco gueren premiya estutasun, eta necesidadetan? Ainbeste erruquicen bada guizonaren premiyas, eta novedadiaz Nola ezta empeñatuco Miguel gu len bailen premia eta estutasuneti ateraciagati baldin viotzeti berari escatzen badiogu? Berac iduquiric, icusdegun becela, gure gaiz gucien erremediyua⁴⁴⁰ Jaunagandi alcanzaceco valimentuba Jaungoicuaren maiterena delaco, beste alde izanic guc vorondatia onen onena becelacua guri mesediac eguiteco, Nola estugu sinistatuco S. Miguel dala gure adisquideric fiñena. Guc conforme gueren premitan len lena Jesus, eta bere Amaren urrena S. Miguelengana? Edo naicinduque lembicicua icusi esperiencia S. Miguelen vorondatia viotcetic berari deitu diobienen alde? Bada ontan bada-gozuec izatia Principe Excelsuorren debotuac, beriala icusico duzubie milla modutara lagundu diola bere devoto guciei S. Miguelengandi errecibitu dituzte mesediac calidade edo condicio gucitaco devotuac: Patriarcac, Profetac, Emperadoriac, Erreguiac, Principiac, Generalac, Erriyac, Ciudadiac, Provinciac, Erreñubac, eta mundu guciac arquite izandu du, S. Miguel baitan laguntasuna; Chiqui ta aundiycac, pobreac eta aberasac, eriyac eta sanuac, justuac⁴⁵⁰ eta pecatariyac, iz batian esan dezagun, beragan erremedio billa

etorri diran guciac izandu dira aditubac: Eztago idiqui besteric escritura Santuco liburubac, guztia dago beteric S. Miguelen mesediaz, S. Miguelec lagundu dien condicio gucitaco sujetuaz. liburu santuotan icusten dugu lagundu ciola Principe Gloriosuonec Legue zarrarian Abraan, Ysaac, jacob, Josue, Gedeon, Ezequia, Daniel, Abacuc, eta beste ecin contatuala bere debotori: Eztago idiqui besteric El. Erreguietaco historiya, ta yeusico dugu Leon, izenontaco amalaugarren Aita Santubari lagundu ciola S. Miguel Ainguerubac Sarracenuen contra; Constantino Emperadoriari bere etsai guciac vencitzen; Casimiro Poloniaco Erreguia Alfonso Portugalgua eta beste asco Erregue ta Principez izandu dubie S. Miguelen premiya moruac eta beste gueiñaraco esaiyac menderaceco, Ygualmente Ciudadiac, eta Errenubac artu ditu(z)te⁴⁶⁰ S. Miguelen favoriec: Roma, Zaragoza eta beste asco atera ditu S. Miguelec estutasun aundiyetati; Francia Yguelezen mendeti, America bere contrariyotati. ¿Eta España? Ecin esan, eta ecin pensatu siquera deitezquen arin bat gueneraciyo gueizto infiel eta barbaroren menderatic. *Estiendase algo, maximè sobre esta parte.* Justuei cenbat modutara lagundu eztio S. Miguel Ainguerubac? S. Juan Evangelista, S. Pedro, S. Pablo, eta beste ecin contatualari lagundu cion milla aldetara beren carreran. ¿Eta Becatariyei? Becatariyac esperimentatu otedubie S. Miguel Excelsis onen laguntasa? Bai por cierto. ¿Eta norc gueiyago? N. Adizale devotuac? Esan dezala bestela Goñico Caballero Dn. Teodosio eguiyazco penitentiac; ¡Caballero Noblia! Cer favore, edo mesede recibitu ciñuben cere estutasunian Aingueru ederonengandi; Nic esanen dizubiet.⁴⁷⁰ Eztut dudatzen gucioc arricen zaridela ainbesteco S. Miguel Aingu(e)ruban laguntasun, eta mesedias bere devotuei eguin dizquionas: Baña ¿Ontan aitcen dirala uste dezube Principe Soberano orrec emen eguin dituben prodigio eta marabilla aundiyac? Ez N.C.T.E. Eztira emen acabacen; Orain asten dira esate bateco moduban; esan deciela bestela inguruetaco erriyac, vailliac, Nafarrua guciac bere ingurutaco Provinciaquin mendi temple gueiztocuontan aparecitu zan esquero esperimentatu ditubien gauza miragarriyac, esan dezala Templo Santuontaco Capilla santa orrec Cerutic etorri zan Ymagiña ederrorec, Presente milagrosuorrec, cembat gauza orden naturalian ezaudenac eguin diran emen S, Miguelen bitartez; Esan dezatela eriyac, mutubac, ta inchubac S, Miguelen bitar(tez) erremedyua emen alcanzatu dubienac: Yzegin deciela becatariyac S. Miguelen medios emen barcaciya alcanzatu⁴⁸⁰ dubienac; Yzegin deciela Justuac emen gracia eta ondasunac alcanzatu ditubienac Esan dezaigula Miguel d'Errazquiñec berac artucituben favoriac. Onenbeste eta ecin contala gueiyago izanic Principe Excelsuonec favoritubac, arla Leguezarrarian, nola berriyan beti denbora gucitan, lecu gucitan eta particularmente guretaco zoriyonian aparecitzan lecu santuban, beraren alabanzetan, beraren honrran goratuzan Templosantu bontan, eta beronen ingurutan ¿Nor izanen da satisfaciyo guciarequi necesidade gucitan S.

Miguel billatuko eztubenic? Nor S. Migueli deituko eztionic estutasun gucietan; Animo debotuac, emen daucazubie gaiz gucien erremedyua, emen daucazubie Dn. Teodosio dragacera atera zan dragona bertan acabatu zubena, emen Lucifer, edo Demoniua Jaunaren contra minzatu zenian Ynfernubaren ondarreraño bota zubena, emen, emen daucazubie S. Miguel Excelsis Jaunaren Ministro escogituba,⁴⁹⁰ emen, mendi altuontan Centiñelan zuben alde; emen dago alerta noiz deituko diozubien escuban erremedyua dubela; emen ezpatazarmaturic noizlagun biarzariden ceren esaiyen contra, eta Elizaren enemiguen contra: Eta oin celosua bada guretaco nor izaenda Aingueru Santuboni devociyo eztionic, edo gutchirenaz emendic aurrera izango eztionic? Nola da posible ez amatzia, honrratzia, eta ez nai izatia ainbeste graciarequin Jaunac aberastu zuben Principe maitagarri eta viotcecuori? Jaunaren Majestadia emeñaturic bere honrra eta gure provechutaraco graciosco ondasun guciaqui S. Miguel aberastucen, eta guc ezguera emeñatuko Jaunari gusto ematiagati ta gueren interesagati amaten ta honracen? S. Miguel da gure adisquideric aundirena, eta guc eztugu naizango izatia S. Miguelen adisquidiac? Bai por cierto, nai biardegu izan aundirenac Jesus eta vere Amas landara, Cergatic bera⁵⁰⁰ dan Jaungoicuaeren adisquideric aundirena, Jaungoicuan gueiyen gracias ondasunas aberastu dubena eta gure Jaunarequi valimenturic aundirena daucana Salva Maria re Jauna beraren Amac; Edozeiñec nai izaten dio adisquide on batei, Edociñec naidu beretaco valimentu eta poderiyo aundico bat, S. Miguelen baitan arquicen dira adisquideric onenaren cualidadiac, eta valimenturic aundirena Jaunaren aurrian, Cergati S. miguel da Jaunac distinguitu zubena 9. Aingueru santuben Corutaco Espiritu eder ayes eman cizquion doaiyac, eta gracia guciaqui aberastu zubena, S. Miguel da Aingueru gucien Principia, Lucifer pellañ vencitu zuen Capitan valerosua, Jaunac amoriyo gueiyena diona, gure Jaunaren adisquideric principalena, Emperadoriac, Erreguiac, etc. Erreñubac, Provinciac, etc. eren estutasunetan amparatu ditubena eta munduba marabillaz ta gauza miragarris bete dubena, onen conforme⁵¹⁰ ceñen adisquidetasuna izanen da guretaco onena, Ceñen valimentuba andirena? Ez dudatu, S. Miguelena ¿Marias landara S. Miguelena, Yzena bera Miguelena da Misteriosua, eta nor izanen da Miguel bera? Justamente mercedu bada Miguelec general.^{1c} mortal gucien amoriyuac devociyuac eta honrrac cergati Miguel den naturaleza humana degun gucien Defensoria: Justamente mercedu Christau gucien estimaciya, eta devociyuac, cergatican Migl. den Elizaguciaren Patroi eta Guardiaya Leiyala: Justamente mercedu Español guciena cergati bera dan Naciyo Catolicuontan fede divina conservacen diguna, eta Justisimamente mercedu estimaciya, honrra, ta devociyuac Nafartarregandi, Cergati honrratu guiñuzquiyeen bere presenciyarequi, bere Ymagiñarequi jarricelaric Aralargo Mendi altu ontan gucien defensore eta amparoric onena.⁵²⁰

III

Eccé Michael unus de Principibus primis venit in ajutorium meum; Danielis
cap. 10 v. 13

Ona emen non Miguel Principe gucietan principalenetatic bat etorri den nere favorean.

Aundia da Catolicoac, aundia eta gucis admirablea da objetoa, ceñen solemnidadeac ocupacen duen gaur Elizamasantaren atencio gucia, eta ceñec juntatu gaituen gu gucioc templo santu ontan. Ala da, zuec cristau valerosoac ezaituenac icaratu ez aldapac ez tempestadeac, aundia da zuec eguin duzuen sacrificioa, aundia zuen fedea; baño orañic gueyago mercedu Aingueru soberano arrec, ceñec ganaco devocioac ecarri zaituen mendi santu ontara Sn. Miguel diot Ceruco ejercitoan Principe deicen dion bezala Sn. Basilioc Aingueru soberano ori, ceñen formacioan manifestatu zuen Jaungoicoac bere poderic, Principe ura ceñen hizatea ensalzacen duen Jaungoicoac deicen diola bere ordescoa, Sn. Pantaleonec⁵³⁰ dion bezala, Capitan veleroso ori, bere ezpata zorrozarequin, Nor Jaungoicoa bezala venciyu zuen Lucifer eta vere Aingueru lagun gaiztoac, soberbias beteric alchatu ciranac Jaungoco beraren contra, Sn. Miguel diot ceñen hizenian comprendiyuric dagoan Jaungoicoarena, auda objeto aundia escacen duena gaur guere atencio eta errespeto gucia, dignoa da, guc alabacezo, eta honraceco gueren culto eta veneracioaquin.

Bay nere adizale maiteac, nic hizeguin bear dizuet gaur Daniel Pro(fe)ta-
ren hicequin, errespeto eta beneracio guciarequin, beguira zayozuela Aingue-
ru glorioso orri, gloriaren Erregueren principe orri ceñen lagunza eta poderi
arrigaria alcanzatuco degun guc gucioc, denoc Sn. Lorenzoc Justiniacoc esa-
ten digun bezala, empleacen baguera onen culto eta veneracioan devocio
eguiazcoarequin.⁵⁴⁰

Eguiazqui nere adizale maiteac, Espiritu celestial guciac, Angue(ru) guciac
dignoac badirare, honraceco guc gueren culto eta devocio gucia aquin, alare
Sn. Miguel Principe glorioso onec, escacen du gure devocio eta culto gucia,
ya considera dezagula onen dignidade escelentia, ya onen borondate ona
favorecico genero humano gucia, orrengatic ala nola Faraon Erregueren sub-
dito guciac, gusto aundiarequin alabatu bazuten José mutil gazte ura, arren-
gandic errecibiyu ciyuzten favoreagatic, denac amatu bazuten, denac obediyu
bazuten, arc ematen ciyien encargüetara, denac honratu bazuten, ecin gueya-
go, guise berean portatu beardegu guc, empeñacen guerala, honracen, eta
alabacen, Sn. Miguel Principe glorioso ori bere dignidade eta excelencia dala
medio, cumplícen yugula Jaungoicoac Sn. Miguelen medios encargacen gai-

yuen gauza guciac, amacen degula amorio⁵⁵⁰ particularrarequin, reverencia-cendegula errespetoric oberenarequin, eta egoten gerala beti prest cumplice-co Jaungoicoac Sn. Miguel Aingueruaren medios encargacen gaituen mandatu edo encargu guciac, eguiyen yugula Sn. Miguelen honran hizan deyezquen gauza guciac, ceñetan baitago edo consisticen baitu Sn. Miguelen ganaco devocioa, segun esaten digun santo Tomasec, ecin ucatu guc Sn. Miguelen honran eguiyen diren religioco obraric, bere dignidadea eta escelencie dala medio cergatic N. A. M. Nolascoa da Sn. Miguel glorioso onen dignidadea, nolascoa onen borondatea gure ganaco? edo Adanen seme gucienzat? ecusazue emen ceñ hizanen den nere asuntoa ocupatuco duena zuen atencio piadosoa momentu batean; Sn. Miguelen dignidadea et escelencia, Sn. Miguelen proteccioa edo amparoa guizonen ganaco esplicaceco bearbezala lagun zadazue alcanzacera graci divinoa, paracen degula viyarteco Aingueruen Erregiña M. S. saludacen degula Aingue(ru) Sn. Gabrielen salutacioarequin. Ave M.

Et ecce Michael unus de Principibus primis venit

Da egui bat da, cristau maiteac, segun esaten diguten Elizaco doctoreac, Jaungoicoaren⁵⁶⁰ divinidadere, eta bere misterio comprendiyu ezdiyequeñas landara, Jaungoicoac eguin yuen gauza gucietan audienac eta arrigarrienac, direla direla espiritu celestialac edo Aingueruac, criatu ciyuenac bera serviceco eta alabaceco eternamente Aingueru oc dira segun esaten digun Sn. Juan Damascenoc, sustanci espiritualac, eta entendimentu arguiac eta purisimoac, guizonaren entendimentu chiquiac ezin comprendiyu dechaquenac. Au da dudaric gave arrazoya cergatic Espiritu santuac esaten digun Salomon profetaren medios, ezgaiteza sartu curiosidaden jaquiyera gure entendimentuac cein alcanzatu dechaquen gauzac, bada Sn. Pauloc dion bezala, escribicen ciela corintioco gendeari esaten cien, guizona ezdela capaz ezaguceco Jaungoicoaren obra poderosoac.

Principio onen ezagumentue bacarric asquida comprendi dezagun gucioc, cenbatecoa⁵⁷⁰ den dignidadea eta escelencie espiritu celestial ayena, arquicen diranac Jaungoicoaren tronoan baño alare Ainguru guciac dignoa(c) badirare guc errespetaceco eta honraceco beren dignidade eta excelencias, Sn. Miguel Ainguerua da orrenga(tic) guc beguiratu eta consideratu bear deguna, gucietan dignona, gucién príncipe gucién burua bezala segun esaten digun Sn. Pantaleonec, Sn. Miguel berac deiyu cion bere buruari ceruco ejercitoan Príncipe, agertu cizayonean Josué valeroso arri, Jericoco campoan armaturic, *ego sum Princes exercitus Domini* Ni naiz Jaungoicoaren ejercitoan príncipe, au bera aseguracen digute Sn. Juan Crisostomoc eta Sn. Basilioc, deicen diotela Sn. Migueli, espiritu celestial gucién Capitan generala, gucién burua, au bera

adicerca ematen digu Sn. Lorenzo Justinianoc esaten digula, Ala nola Lucifer infarnuan baita espiritu gaizto gucien burua⁵⁸⁰ edo principala, ala Ceruan Sn. Miguel da espiritu on gucien burua edo principala gracias eta glorias beteric acompañacen dutenac Erregue gucien Erregue, Jaun gucien jauna, Beraci Aingueruen coru contacen dire, Serafinec, querubiñec, Tronoac, Dominacioac, Principadoac, Potestadeac, virtuteac, Arcargueruac, eta Aingueruac, eta denan directorea deicen dio Sn. Migueli Doctore Sofronioc, onela hizegui digute, nere adizale maiteac, onela hizaguiyen digute Sn. Miguel Aingueru glorioso ontaz, Elizaco Aita Santuac eta Doctore guciac.

Baño ezpaligutere esanen elizco doctoreac, cein aundia den Sn. Miguelen dignidadea eta excelencia ¿Jaungoicoac berac ezdigu manifestacen escritura Sagradotan? bai por cierto cristau maiteac, Jaungoicoa da Daniel Profetaren medios esaten diguna guciori,⁵⁹⁰ fijazazue zuen atencio gucia Sn. Miguelengan, eta icuszazue or Principe gucien artean Principalenetatic bat. *Ecce Michael unus de Principibus primis venit in auxilium meum.*

Sn. Miguelen devoto jaquinsu batec esaten digu, Aingueru au cela eta ez beteric, ceñec creacioarequin, erremediatu ciyuen Jaungoicoac Lucifer Aingueru reveldeac eguin ciyuen calteac, bada erri Judio arren gogortasuna convertiyu nai ezuen, erremediatu bazuen Jaungoicoac converticearequin gentillac, *postula a me et dabo tibi gentes*, judiac baño fielagoac, Judasen traicioa edo infidelidadea erremediatu bazuen Jesusec eligicearequin arren toquian Sn. Matias, Judasen condenacio errepa(ra)tu edo erremediatu bazuen converticearequin Sn. Paulo guise verean Lucifer Aingueru gaiztoarren galera⁶⁰⁰ alchatucena soberbias beteric Jaungoicoaren contra, erremediatu zuen Jaungoicoac, elegicen zuela Luciferren toquian Sn. Miguel Ainguerua, ematen ciela Aingueru santu gucieri gucien Principe bezala gucien buru, denetan aundiena.

Ez diyeeque dudatu N. A. M. ezdiyeeque dudatu, Sn. Miguel dela Aingueru santu ura ateracena Jaungoicoaren escuetatic abrasaturic amorio divinoan Serafinec bezala, arguitasunas beteric querubinac bezala autoridadez beteric Potestadeac bezala, representacen zuela Jaungoicoaren Sabidori infinitoa Dominacioac bezala, Jaungoicoaren poderie guciarequin reveztiyuric cumplicececo negocio guciac. Ni naiz jacoben Jaungoicoa esan cion ocasio batean Sn. Miguelec Moises Profeta aundiari, Ni naiz Jacoben Jaungoicoa, ez Sn. Miguel cergatic Jaungoicoa dalaco, baicic cergatic manifestaceco Jaungoicoac bere⁶¹⁰ edertasun infinitoa guizonari, eleguiyu zuelaco Sn. Miguel bere representatea edo imagina bezala, asco toquituan icusten degun bezala escritura sagradotan.

Bada egui on vistan, ezaguturic Sn. Miguelen dignidadea eta escelencie, nola ez dugu consideratu biar dignoa gure culto eta veneracio gucias, eta oso

dignoa hizateco guc devocioric andiena? Jose lenago esan dudan mutil gaste ura Faraon Erreguec eguin zuelaco bere lendavicico ministroa, honratu bazuen Egipto guciac, jarcencirala denac belaunico, deicen ciotela salvadorea, necesidade aundietatic libratu ciyuelaco, Ysraelgo erri guciac Medoac eta Persac honratu bazuten Mardoqueo Asuero Erregueren tronoan icusi zutenian, Principe gucietan principalena eguiñic, nola ezdugu honratu biar guc Sn. Miguel glorioso ori jaquinic dela Paraisoco principe, cein honracen edo distinguicen duten⁶²⁰ Ceruco habitante gucia gaur Eliz ama santac ca(n)tacen duen bezala Bay ner adizale maiteac au gucia, escacendu gure partetic Sn. Miguel Aingueru glorioso onen dignidade et escelenciec.

Orain anadicen dut Sn. Miguelen proteccio eta amparoac guer(e) favoretan escacen duela gure partetic devocioric fervorosoena edo oberena.

2.^a parte.

Eta eguiazqui cristau maiteac ezda posible contacea Sn. Miguelec eguin yuen favoreac, genero humanoaren favoretan. Predicadore cristiano guciac empeñatuco baliraquere ensalzacen Sn. Miguel protencia arrigaria, ezliceque posible hizanen contacea bat banaca Sn. Miguelec eguinyuen milagroac defendiceco guizonac; Earchazue zuen memorira siglo guciac, epoca guciac dembora guciac, eta ezdezue icusico ez siglo bat ez⁶³⁰ epoca ba(t), ez demboraric, ceñetan ezdan manifestatu Sn. Miguelen proteccioa edo amparoa ala justoanzat nola pecatarienzat.

Gure lendavicico gurasoac Adan eta Eva desterratuac hizandu baciren Paraisotic beren desobediencia zela medio, beren pecatuen castiguan, Historiadore sagradoac esaten digute, Sn. Miguel Ainguerue cela beren destierro(an) amparatu eta defendiyu ciyuena eracusten ciola Adani, nola trabajatu bear zuen lurra, irabazteco bere aurpeguiaco izardiarequin bere sustentoa, cein baicen castigua ceñetara condenatuac hizandu ciren beren pecatua zala medio. Bai historiadore oc berac esaten digute, Sn. Miguel zela diluvioa baño lenago visitatu eta consolatu ciyuena dembora artaco fielac, Sn. Miguel cen, Jauncoicoaren Aingueru au cen, diluvioaren ondorean libratu zuena Abrahan Patriar(ca) Moriac mendian⁶⁴⁰ ezezan sacrificatu bere seme bacarra Ysaac Sn. Miguel cen Ysraeletarran favoretan, sujetatu ciyuena Balaan impio arren empeñoac ezezan bota maldicioric, Sn. Miguel cen Judit emacume valerosa ura amparatu zuena, fortaleciyuzuena. Olofernes vencicen, Sn. Miguel cen Judas Macabeoari eman ciona valoreric asqui venciceco. Timoteo generalaren ejercito poderosoac; Azquenic Erri Judioac ere ezagutu zuen bere favoretan Sn. Miguel Aingueru onen amparoa.

Elizama santac beti contatu du Sn. Miguel bere protectoreric principalena ama virgiñas landara, Erromaco Aita santuac beren necesidadetan apuroric

aundienetan experimentatu du Sn. Miguel Aingueru glorioso onen poderie, eta mundu guciac bere necesidadetan acudiyu du, eta ez banoan, Sn. Miguelengana, libraceco gaiz guciatic. Nai banuque⁶⁵⁰ nic orain esan zueri nolaco favoreac nolaco lagunza experimentatu zuen Constantino Emperadoreac, Majencio tirano arren contra eguin zuen guerra artan vici valiz Dn. teodosio Goñico Caballero ura, cembat gauza ez liyigu esanen Sn. Miguelen protecçioa edo lagunzaren gañean? O! cristau maiteac or daucazue categorrac templo santu ontan berac ilce batetic cincilica, cer esaten dizue cate oyec, voza mutu baño arrigarriarequin esaten digute guciori Sn. Miguelen poderie Sn. Miguelen amparoa, Bano acudiyu gave batere dembora pasatuetara, guerroc ezdugu icusten edo experimentacen Sn. Miguel Aingueru glorioso onen valimentue edo poderie guizonen favoretan? Sarzaitetzte cristiandadeco Elizetan eta ezduzue apenas icusico villatuco duzue elizabat bacarric ezdagoena dedicaturic Aingueru santu oni edo ezdiona eguin aldare bat emateco culto eta beneracioa⁶⁶⁰.

Erriac berac eracusten arizaiquigu cenbatecoa den Aingueru santu onen poderie; beguira cristau maiteac; Jaungoicoac errepartiyu yu bere gracia eta doayac Aingueru eta Santietan, bazuei ematen die graci genero bat beste bazuei diferencia, bazuc pestearen contra, beste bati incendioan con(tra) Sn. Roque, santa Agueda, baño Sn. Migueli eman dio Jaungoicoac poderi generala gauz gucién contra, orrengatic acudicendute erriac Sn. Miguelengana gaiz guciétan, ez solamente gendien enfermedade edo necesidadetan, baizic baitare animalien enfermedadetan ere, Cer esan naidu onec baicic Sn. Miguel dela gauz gucién contraco Abogadu generala, ala nola den ceruco ejercitoan generala? Ez da posible esatea Sn. Miguelen eguin yuen favoreac particularrean, esan dezaqueguna da, Sn. Miguel⁶⁷⁰ vere devoto eguiazcoanzat, dela iturri bat aberasa aicen ezdena, puzu bat ondarric ezduena; Errazago lizaque dio Sn. Pantaleonec, errazago hizanen lizaque leurricea lurra edo mundu gucia eta contacea Ceruco hizarrac, ezena esan edo jaquin, beneficioac edo favoreac eguin yuenac Aingueru soberano onec genero humanoan favoretan.

Eta egui au vistan honracean honracen den bezala eche santu au Sn. Miguel Elcesis titulu edo hizenarequin, celebracean Elizama Santarequin Principe soberano onen solemnidadea Cer gauza justogocoric eta obequi pensaturic hizandiyequé baicic gucioc reuniyuric ofrecicea baño gueren culto eta veneracioric aundiena. Bai cristau maiteac Sn. miguel da Aingueru elegiyua Jaungoicoaren gandic favoreciceco genero humano gucia, eta ceni Jaungoicoac encomendatuyion destinoric honrosonac, cenén culto eta beneracioarenzat⁶⁸⁰ eguin yuen beste Aingueru guciénzat baño templo gueyago, da Azquenic Sn. Miguel, ceruco habitante guciac, honracen obsequiacen eta reverenciacen dutena, *quem honorificant Angelorum cives*. Dignoa da bada

Miguel guc honraceco gueren culto eta beneracioaquin, dignoa hizateco devocioric oberena.

Bibl.:

JMS-ren bilduma.

Argitaragabeak. 160 x 220 mm. 8 orrialde lehenak; zazpira besteek.

Fr. THOMAS de BURGUI. *San Miguel de Excelsis*, representado como príncipe supremo, etc. Pamplona, 1774 (2 vol.).

38. GOLDARAZ (1833)

Imotz bailarako herri txiki bat da Goldaraz. Zortzi etxe eta 84 biztanle besterik ez zuen 1802an. Bederatzi sermoi luze aurkitu ditugu Arruazuko parrokian eta horietako hiru plazaratzen dira hemen.

Arruazura nola joan ziren? Ez dakigu. Behar bada herri honetako semea zen egilea, edo bestela Goldaraztik Arruazura aldatuko zuten nagusiek.

*Bada berezitasun bat izkribu hauetan: bi lehenbiziko izkribuek **Goldaraz** herriaren izena daramaten bezala, hirugarrenak Eguilleta dio mintzaldiaren azalean. Esku beraren izkribuak dira, noski.*

Dominica prima adventus. Año 1833

Sobre el juicio universal. Goldaraz.

Tunc videbunt filium hominis venientem in nube cum potestate magna et majestate Luc. c. 21.

Egun daduqagu nere vioceco Cristabac Evangelioan J.C. gure Jauna vere discipulari instruccioac ematen, eta aiequin batean guri egui ecin faltatu daitequen vatena, cein sinestacen eta confesacen duen gure Religio Catolicoac, eta da allegatu bear duela eguna ceñetan J.C. Juez suprema bezala mundu gucie juzgacera etorri bear duena, baño egun au allegatu baño lenago, aseguracen digu aren Magestadeac, izan bear dutela siñale izugarri bazuec eguzquien, illarguien, izarretan, isasoan, eta criature gucietan, Eguzquiec erretiratuco dituela vere argui guciec, dio San Mateoc; illarguie odoletan convertituco dela dio San Joanec Ceruco izarrac erorico dirala dio San Marcosec

isasoa¹⁰ alborotatuco dela, eta emanen edo botaco dituela orro icaragarriec dio San Lucasec; enfin criatura guciec dio Espiritu Santuec armatuco direla pecatariaren contra, pecatari gauze guciec criatu cituen Criadore ofenditu zuten aien contra. O cer eguna au beñerere allegatu bear ezaion bezala bici direnanzat. Ybillico dirade guizonac seco, color gaiz, eta consuloric gabe, consideracearequin ecin contatualaco gaiz aldegucietatic inguracen dituenac, consideracearequin izan bear dutela purgatuac aien obra guciec, izac eta pensamentuac, eta aingueruetarañoco guciec dio San Juan Crisostomoc arri-tuco dirade, admiratuco dirade aparato bat ain aundie ecustearquin eta azquena²⁰ aguertuco da guizonaren semea, munduco Redentorea odai argui batean, podere eta magestade aundi batequin. Ebec dirade discipulu nereac esaten cien J.C. Ebec dirade señaleac juicio universalaren aicinetic etori bear dutenac, eta lance icaragarria guertacen denean ezaitetzela icaratu edo tristatu eraqui dichazute vai veguiec, eta alegra zaitetzte zuen redencioa urbil delacos: alegra zaitetzte cergatic allegatu den ya eguna, ceñetan atera bear duzuten munduco cautiverioti gorpuza, eta animarequin, errecibicera gorpucean eta animan premio eternoa, gloria Celestial arretan zuenzat reservaturic geldituric dauquena. O justoac eta Jaungoicoaren adisquideac. O anima munduan preso viciceratenac,³⁰ ucacen zaratelaric emengo gusto eta vanidadetara: O cein egun dichosoa izanen den zuenzat juicio universaleco egun ura. Somiñe eta losagarrie izanen da pecatari munduen aleguere vici diranzat baño consuelo eta gozos betea aditu duzuten bezala munduerenzat illic vicitu denarenzat, eta solamente viciric Jaungoicoarenzat vizitu denarenzat, aleguera zaitetzte zuen penetan, consolazaitetzte zuen negarretan, bada azqueneco etorrigo da egune guciec eternidade gozotan convertituco dena. Azqueneco acabacen du J.C. minzacen delaric esadudembazala vere discipuluequin eta aiequin batean gurequin: beguire dezazute badin picueren edo beste edocein arbolaren osto berdean ematen badigute⁴⁰ adicera primavera urbil dagoala; guisa berean esan ditude siñaleac ematen digute entendicera, aguiz urbil dagoala zuetatic Jaungoicoaren Erreinue, auda aguiz urbil dagoala dembora Jaungoicoarequin jua-tecoa erreinacera corpuz eta animarequin, eta lenago faltatuco dela posible baliz Cerue, eta lurra aren izac baño. Au da nere Cristabac Evangelioac decarrena, gucie dago redemituric aditu duzuten bezala azquen juicio universaleco egunas idea bat ematera, argatican bada izanen da gaurco nere asumptoa minzacea materi ain inportantearen gañean eta onetaraco recorrituco ditugu egun izugarri arretan guertatu bear zazquigun pasoenbazuec, manifestaceco zueri; eta paraceco beguien⁵⁰ aurrean mundu gucieri egun ura izanen dela gozo eta consuelo andicoa justoanzat eta por el contrario sentimentu andicoa pecatarienzat, eta au bear den bezala esplicaceco esca dizogun graci Divinoari Aita Eternoari, paracen diogula vitarteco Aingueruen Erregue cein saludatuco degun gucioc esaten degularic Ave Maria. *Tunc bidebunt filium hominis etc.*

Guizona jaiocen den instantetic, habiacen da caminacen prisaca azque-
neco egun Jaungoicuec señalaturic daduquen arretara, cein Apostoluac deicen
dion azqueneco eguna: Eguna da ure ceñetas minzatu nai zuelaric Joel
Profetac, abiatucen motelcen eta arrazoberequin eta⁶⁰ sustanciric emateco
moduric gabe esan zuen *á, á, á quia prope est dies Dominis* izanen da dio egun
andi bat, egun terriblea, ecin gueiago. Eguna izanen da au dio Profeta
Malaquiasec labe bat bezala isiquie, izanen da dio Profeta Safoninec, asarreta-
sunaco eguna, pena, miserie eta calamidadetaco eguna, izanen da dio Profeta
Ysaiasec, illuntasunaren eta indignacioaren eguna. Au da nere Cristabac
juicio universaleco eguna; au da eguna ceñec bete cituen desierto edo men-
diac Anacoretas, Erreligioac personas, Elicec Santues, eta ceñen aztuera tris-
teac, bete duen mundue, pecatues, eta infernue condenatues. Au da eguna
ceñetan J.C. Jaungoico eta Guizona illen eta vicien juez⁷⁰ chusena, etorri bear
duena contu arcera, Adanen seme gucieri pensamenturic den chiquienetara-
ñoco gucies. Au da eguna A ceñetan aus viurturic munduco cuidadu andiau
mii gucietan, adituco dena munduaren lau lau partetan Ainguerueren trom-
petaren voz izugarrie, ceñequin citacen edo deicen dituen illic dauden guciec
erresucitaturic presentatu daitezela Jaungoicoaren tribunaleco lecuen aurrean
surgite mortui et venite ad iudicium,iequizaitezte illac eta atozte juiciora. O
voza ciertamente, eguiasqui izigarria. Obedezituco diote manau oni Ceruec,
infernuec, purgatorioac eta limboac, eta entregatuco ditute aietan arquicen
ciraden animac: isasoac, lurrac, eta supulturac⁸⁰ izolico ditute, entregatuco
ditute aietan gueldituric ceuden animac San Juanec dion bezala: eta juntacen
ditutelaric Aingueruec justo eta peccarian causac Lamiza Venerabliac peccari-
enac Demonioac juntatuco ditutela vadio ere, organizatuco dirade gorpuzac
au da virtute Divinoas juntatuco dirade berriren verriro gorpuzac eta animac,
obra on eta gaiztoetan participante izanducirenac, izanditecen guisa berean
premioan edo castiguan. Gueldigaitecen emen pisquebat aicina pasatu gabe,
reflesiona dezagun pisco bat animac gorpucean eguiñen duten sarreraren
gañean, eta onetaraco iduridezagun eldu direla bi anima Eliza onetara bat
Cerutic eta bestea Ynfernutic, beren gorpuzac⁹⁰ seputura vietan billacera.
Nola beguiratuco lico condenatuaren animac bere gorpuz miserableari, ecusi-
ric ain ciquina, pisua, ustela eta usastua? O cer ansiec, O cer agoniec, cer
descansu, eta tormentuac? da posible esanen lico da posible egon bear dudela
garcela eta calabozo ciquin onetan eternidade acabararic beñerere eztuenean?.
O gorpuz desventuratua! Zu zara ambeste maitatucinuaceden ura ambeste
servitu ciñuceden eta ceñengatic galdunuen glorie, ceñetaraco izanduninzan
criatua? Madaricatuac izan daiteza emanitien gustoac, bada ain garestiec atera
zazquit. Madaricatuac izan dedilla ongarrisco zaque, bada irigustoa emateagati
eznioan eman Jaungoicoari, eta arquicen nauc¹⁰⁰ condenatua. Madaricatuac
izan dedilla anima errespondalezaque gorpuzac, madaricatuac izanadiela imdu-

quegularic arrazobearen frenoquin emen eguin nai izandu, zembat obe izanenuen lastimariq, compasioriq ez iduquicea, orduen, orain ecin esplicatu ditezquen tormento aietara ioatea baño. O seculen ezagutu ezpaindut siquiera. Ucinazac nera ar obequin lurrian, eta izuliadi infernuen engoan toquire. Modu onetan izanen dute naigabe eta repugnanci andibat gorpuzac eta animac elcarrequin juntacea, baño Demonioac, Jaungoicoaren justicico ministroac berac esanen diote modu onetan, elcarren lagunac izandu ciñeten gustotan atozte penetanere lagunac izatera. Ebec izanen dirade¹¹⁰ iz dulceac cenequin contestatuco dituten Demonioac bicitu ciraden demboran beren aragia beste amaneric, beste Jaungoicoric izandu ezuten aiec. Nor ezta bada arricen onetan pensacean bacarric nere Cristau eta adizale maiteac? arquicen oteda gure artean desdichaturen bat suertean izan bear duena, vide onetatic pasatu veiar duena?. Ojala ezpalice, baño zu juramentuguilla zu vengativoa, zu desonesto eta lujurioso, zu emaztequi vanoa munduco pompa eta vanidadetan, bestetan pensacen eztuzuna, zuc malicies pecatuec confesioan uacacen dituzuna, zuc pecatari andiezala publicamente, otorcen duzuna, eta deusetas ere, cere peccatus penitencio eguiteco baño cuidado guchiagoric eztauquezuna¹²⁰ ¿Nola izanen da posible nai dezazun experimentacea esai infernal aien crueldade eta asarretasuna? Aizu desdichatua baldin demborarequin ez padituzu erremediacen zure escesoac eta desordenac. Ai zure miserablea baldin ezpadezu eguiten negar eguiasqui aietas orain dembora dezunean orduen egonen zara errabies beteric, oroicen cerandenean emen cegoala pulpitu unetatic esanizun, au confesonario, ceñengandic igas eguiten ciñuen eriozatic bezala, eta ecusten duzunean beste aniz aprobechatu cirela sermon oretas, eta zuc eciñuela aprobechatu nai izandu, cer errabie. Goacen orain al contrario cer gozorequin eztio beguiratuco bienabenturatueren animac bere gorpuz dichosoari? Cer enorabuena ain¹³⁰ dulceec eztira izanen, eztitio emanen aren resurreccioco eta gloriaco dembora allegatu celacos? O nere lagun ona, esanen du animac ecustearrequin bere gorpuz ain ederra, ain alegrea, eta arguia, edo agradable; atoz nere adisquide fiela, atoz, eta eman dizaiozu besarca eta eternidade gucien dembora gucien demboretan izan bear duena. Bedicatuia izan zaitezela cergati sufritu cenduen barueguna, disciplina, pobreza, afflicioac, eta beste asco mortificacio vicituciñen demboran. Bedicatuia izan zaitezela, bada baterere erreparo eta beldurric confesaceco araco peccatu isusi ura ceñetan ceñetan eroricinñen miserable eta flacoa bezala, laster acabatu cen zure orduco¹⁴⁰ beldurra eta losa, eta ezta acabatuco beñerere ura confesatu ciñuelaco gozoa. Bedicatuia izan dedilla Eliza onetara etorri ciñen ordua sermona adiceagatic, Predicariari escuchaceagatic cein igorri zuen Jaungoicoac nere erremedioraco ori cegoan pulpitura cenetaic, aritu ninduen Jaungoicoac bere eguequin, au confesonarioa non izandu nincen absolutua nere peccatuetatic, au cen venerablea, ceñetan comecatunincen aniz aldiz erreverenciric

den andienarequin. Ea esanendio animac gorpuzari, Ea atoz, nere estimatue nere maitea, atoz participante izatera araco glori eder arretan ceñen irabazteco lagunduco ciñudan: eman dizquidazu escu oriec, cenequin erancicenion¹⁵⁰ sombrelua zu ofenditu cinucenari, eman dizedazquizu escu garbi eta liberalidade andierequin limosnac eman ciñucen oriec: eman dizquidazu escu jocura eta uquiera ciquinetara izuli eciren oriec: eman dizquidazu bada paratuco ditut diamanteac berac baño ederragoac. Eman dizquidazu begui munduco ciquinqueriec ez ecusteagatic ichiciraden oriec. Eman dizarazu ago juramentu, maldicio, eta lagun progimoarenzat gaizqui esateco idiqui ecenori, eman dizarazu ago ez chocarrietan eta iz alperretan ocupatu (e)cen ago ori; baicican Jaungoicoa alabacen, eta bedicacen empleatu cen ori emandizquirazu emandizquirazu zure miembro guciec eta guciec ecusico dituzu eguzquie bera baño¹⁶⁰ arguiegocoac. O mortificacio dichosoac, O penitenci felicidaderic den andianecoac. Eztaquit nere cristabac nola ezten iñor ebec imitacen dituenic, ambeste dichetera allegaceagatic. Aditu duzute resurreccio generaleco demboran pecatariec izanen duen pena, eta igualmente anima justoac izanen duen gustoa eta contentue. Acabaturic persona gucien resurreccioa edo erresuscitacea, joanen dirade guciec Josefetaco Vallera cein baita juicioco toquia Profeta Joelec esan zuen bezala, eta an aguertuco da J.C. Jaungoico eta guizona Aingueru gucien gandic acompañatua an verean egonen da prevenituric airean odaiesco Trono magestade andicobat, eta allegaturic arera gure Redentorea soberanoa,¹⁷⁰ paratuco du bere tribunalea ecin chusenagocoa mundu gucie juzgaceco gure Redentorearen aldamanean egonen da bere ama Maria Santísima glori ecin andiagocoa onen aldamanean beste trono bat beste Santu gucienzat aren Divina Magestadearen pasoac seguitu citutenanzat honra dignidadeac eta interesac abandonatu cituten aienzat. O nere Jaungoicoa, nor izanen da capaz esplicaceco pecatariec orduen iduquico duten pena, ecusiric munduen pobre vici ciradenac, despreciaturic acaso vici ciradenac trono magestade andico arretan, eta emen honra andien artean vicitu ciraden pecatariec osticoca eta lurra bera baño azpiago sarturic ecustean. O cein losaturic egonen diraden orduan¹⁸⁰ pecatari sobervioc, eta por el contrario cein consuelo eta gozo andias beteric anima santuac mundu gucieren aurean ain distinguituric ecusten diradenean, animo ona humillac, anima zaitezte zuen tristura eta neque penosoan artean, bada allegatuco zaizute eguna, ceñetan eduquico tuzuten zuen oinpean, orain manacen dizuten Erregue eta gañeracoac ezpalinbadire zuec bezala eta J.C. manacen duen becala humillac. Paraturic modu onetan Teatro izugarri ura manatuco die Juez Divinoac bere Ainguerueri beresdichatela gaiztoac onen artetic. O bereste losagarriena. Aldevatera joanen da garie, eta vesterac ciquinac, aldevatera arrai onac eta vesterac gaiztoac. Orain arquicen¹⁹⁰ dirade Elicen eta munduen onac eta gaistoac guciec elcarrequin, baño egun arretan ioanen da bacoiza bere lecura ongui

vicitudana escuñetaco aldera, eta gaizqui vicitudena ezquerretaco aldera. Cer izanen da ecustea San Efnoc dion bezala cer izanen da ecustea apartacea Obispoa Obispoagan, Sacerdotea Sacerdoteagandic? Cer izanen da ecustea apartacen Erreguec Erreguec gandic, Andreac senarrac gandic, humeac gurasoa-gandic, gurasoac umeagandic eta doacila bazuec escuñetaco aldera eta besteac ezquerretacora, bazuec Cerura eta besteac Ynfernura. O cer pena izanen duten orduen peccarierc. O nola lastimatuco diraden orduen araco peccarier munduen vicitu ciraden²⁰⁰ artean besteric deustan eduqitu ezuten aiec, Jaungoicoaren videtati cebilanari, munduraco enteramente illic vici ciren aieri eta solamente Jaungoicoarenzat viciric ceuden aieri, munduco diversiotatic apartaturic vici ciraden aieri; hipoqrita, embustero eta ridiculotaco zeuquitzen aiec ecusten ditutenean Jaungoicoaren semea numeroan arquicen diradela cer esanen dute? guero bazuc izandu quiñucean aiec ituen iaquinsunac. O cein eguiascoa cen aiec cerabilten videa glori eternoa suerte ona erdisteco, orain gozacen duten bezala. O nola gure gustoac, placerac izandu ciraden principio Demonioaren mendean erorceco; onela lastimatuco dirade desdichatu asco, baño probechurican²¹⁰ gabe. Baño por el contrario ¿cer izanen da justoac separacio edo berescunza ura ecusita artuco dutena? Cer gozo errecibituco dute mundu onetan humildadean vicitu diradela premioan ecusten dutenean Aingueruac berac colocacen eta paracen ditutela Jaungoicoaren escuñetaco aldean. O bedicatuac izan daitezela onelaco humillacio dignidade bat ain andia erdesicen dutenac. Eta egue esan bear badut betecen naiz losa andibates bildur andi bates consideracean badirela guizonac separacio edo berescunza ain balioso eta honrosoau galaco arriesgo claroan daudela ezaguturic, veren genio altivo eta soberbia garaitu nai eztutenac eta mundu desdichatu onetaco gustobat bacarrari²²⁰ ere barcatu nai eztietenac. Disponituric edo iarriric guciec bacoice bere toquien leituco dirade silencio edo isiltasun den andienaren artean guizon gucien Adanen gandic asi eta azquena jaioc denaren ganaco causac. Ydiquico dirade dio San Juanec libru concienicoarenac vici gucien ichiric egondu ciradenac, au da dio Aingueruec Sto. Tomasec, emanen diola Jaungoicoac iaquinduri bat bacoizari ceñequin ecusico dituen bere eta besteren concincico peccatuec, an ecusico dirade besteren concincico eta bereco obra on orduartaraco estaliric egondu ciradenac, an aguertuco dituela Jaungoicoac dio Profeta Davidec, justoan obra on gucie honraceco mundu gucieren aurean an²³⁰ aguertuco dituela aien baruegunac, penitencie, limosnac, asteragunetaco meza Santue enzuteac eta en fin beste obra on guciec. O cer poza, O cer gozoa, O cer alegria izanen den justoanzat. Bedicatuac esanen dute, Bedicatuac gure penitenciec, gure limosnac, gure baruegunac bedicatuac gure mortificacioac, bedicatuac enfin beste obra on guciec. Galde dizozula bestela San Lorenzori vere parrila eta suegatic, San Clementeri ogaita zorci urte tormentuetan pasatu cituen onengatic, eta esa-

nen dizute ¿Cer tormentu parrila eta su? Ezta ya memoriric pena ain andiaienic aiengatic irabaci quiñuen glorie ederra ecustearquin. Esan dezala San Hilarionec ea cer eguin diraden iruetan²⁴⁰ ogaita amarurteco vicimodu penitente eta erretiratua ura, esan dezala San Simeonec ea non diraden lautan ogaiturte, eta ebetati berrogaita amar pillare baten gañean tempestade guciec errecibicen cituela pasatu cituen urte aiec, eta guciec esanen dizue cer penitenci cer mortificacio eta cer tempestade? ya ezta arquicen eben memoriric deus ecen izandu au gucie glori eterno gozacen degun onequin comparaturic, pena, tormentu eta oñece aiec pasatu ciraden instante batean baño gloriau ezta pasatuco beñerere, cergatic iraun bear duen eternidade acabararic eztuen gucien. Baño al contrario cer desonra, cer confusioa, cer losa ezta izanen gaiztoanzat gucien aurrean aguercen²⁵⁰ diradenean aien iz guciec, obrac, eta pensamentuec.? An aguertuco eta ecusico dirade baztarretan eta illumbetan eguin ciraden desonestidadeac, an aguertuco dirade pecatu confesioan losas uci ciradenac, an ecusico dirade adisquide falsoac, traicio estalien eguiñac, guezurrac eta venganzac. O nola deseatuco duten dio San Efrenece, O nola deseatuco duten orduen gaiztoac lurrac irichi baliza ez ecusteagatic lance losagarri arretan. Ain andia izanen de aien ondoco losa dio San Basilioc, ece pena chiquiagocoa idurituco baizaie infernetan egotea aien pecatuec manifestacea baño eta eguie esateco baldin orain berean manifestatuco edo aguertuco balirade presentean²⁶⁰ arquicen gueradenetaco baten pecatuec ocultoac, asqui izanen licique ill aic erorceco, cer izanen dabada manifestacea mundu gucieren Aingueru eta gucien aurrean? O lance ciertamente izigarrie lancetan den icigarriena. Nor izanen da suerte eta lance ain triste onetatic igas eguiteagatic gurucearequin bertatic besarcata eztena bere pecatues negar eguiten, deustan ere bestetan pensatu gabe? Bada norbait onetara ucacen denic nere auditorio onetan? O eztezala permititu Ceruec, eztezala permititu Jaungoicoaren ontasunac allegatu dadien ambesteraño pecatarien ichustasuna. Eguiñic conciencien publicacioa, eta por consiguiente paraturic guciec ecusi dichaketan²⁷⁰ guisan Vacoicec vician demboran eguin cituen obra on eta gaiztoac pesatuco da gure Redentorea setenci merceduena ematera. O nere Jaungoicoa eta pasoau, nola egonen dirade orduen pecatari miserableac setenci azquenecoaren esperacen salvacioco esperanzaric izanen eztuenaren esperacen? O cein pensamentu somiñac izanen dirade aienac ecusten dutenean Jaungoicoac usacen duela aiequin bere justici rigurosoas, eta ez misericordies? Eztituela izulcen Veguiac aiengatic isurizuen odol precioso arreta, baicican bere ire edo asarretasunera. Eztaique arquite gauza izugarrigorico dio San Bernardoc, baño erremediorican gabe guertatu bear da eta erremediorican gabe²⁸⁰ sentenciatuocodu gure Redemptoreac, eta onetaraco izulico ditu beguieci J.C. Juez supremoac escañitaco alde arpegui veraz eta alegre batequin, eta voza aguiz tierno eta sucor vatequin esanen die dulzura andi batequin *venite*

venedictis Patris mei Atozte nere aitagandic bedicatuac, atozte glori eternoa (go)zacera, mundueren principiotic asieta prevenituric dagoana. O cer sentencie au. O cer sentenci ain gustosoa, poza eta dulzure bera ere acabatuco eztenas betea. Atozte gozacera, eta eztezazutela izan damuric padecitu duzutenas, atozte zuen baruegunean, zuen cilicio zuen penitenci eta disciplinen prenda vilcera, atozte trabajuetatic descansura, batallatic coronara,²⁹⁰ negarretatic gozo eta (..) beñerere acabatuco ez diradenetara, atozte bada acabatu ciraden trabajuac, oñaceac, desprecioac, pecatu eguiteco peligroac, eta galcecoac, atozte nere Aitagandic bedicatuac atozte. O sentenci trabajuric eta penitenciric den andienac mercedituzuna. ¿Norc au adiceagatic eztitu despreciacen munduco gusto instanteco acabacen diradenac? Norc eztitu sacrificatuco eta mortificatuco bere pasioneac, vere araguieac, sugetacen ditularic crudaderic den andienarequin? Deus ere elicique ematea mille vici adiceagatic J.C. agotic sentenci favorecoau. O cein suavidade andien resonatuco duen justoan artean sentenci onec dio Davidec, alabacen dutelariac gustosoac felicidadede edo³⁰⁰ dicha eternoa, an artuco dute posesioa glorie eternoco erreynuas, erreynu mundu onetacoa eztenas, baicican Jaungoicoarenas, erreynue, dicha eta alegri gucies beteas. Baño O pecatari, miserablean desgracie. Adi dezazute Cristabac penarequin bada ere aien desdicha. Aditu ondoan miserable aiec beren tormentu guciagotaco San Bernardoc dion bezala justoan sentencie, eta ecusi igualmente beren gustos, beren borondates, eta verac ala nai izanic felicidadede edo ongui izate beticoa, izulico da J.C. gure Jauna aien aldera aurpegui losagarri batequin, ira asarretasun eta indignacios beteric, eta voza izigarri batequin esanen die:*discedite a me maledicti in ignem eternum*³¹⁰ apartazaitzte neregandic madaricatuac, su eterno Luzvel eta aren banderac seguiacen ditutenanzat prevenituric dagoan arretara: apartazaitzte neregandic vainaiz zuen Jaungoicoa seculen gueiago ez ecusteco apartazaitzte neregandic vainaiz zuen ontasun gucie gueiago ez gozaceco: apartazaitzte madaricatuac, nere azqueneco fin arretatic ez conseguiceco beñere: apartazaitzte madaricatuac nere adisquidetasunetic, nelaguntasunatic: nere Erreñutic, nere ondasunetic, nere erregalotatic: apartazaitzte neregandic madaricatuac orain, veti eta guisa gucietan madaricatuac, bada eciñuten nai izandu nere bendicioa, Madaricatuac izan zaitzela³²⁰ animan, madaricatuac corpuzean, madaricatuac potencietan, madaricatuac egon bear dezuen toquien iraun bear duen eternidadean, eta madaricatuac izan bear dezuen compañien. Zuazte Madaricatuac baño nora? su eternora, eternora, eternora dio da lo mismo nola erratea ez milla eta milloncaco urtetaco, baicican beti beti esperanzaric eta alivioric gabe egoteco. O ner Jaungoicoa o eta nola erituco dituen sentenci revocacioric ezituen aren pecatari miserableac. O cer carrasiec ateraco dituten au adicearequin. O cer pena. O cer pesadumbrea. O cer errabie eta desesperacioa eduquico dezuen zure contra cergatic eguinciñuen pecatu, eta Jaungoi-

coaren contra cergatic³³⁰ ala castigacen zaituen. Au izanen da zere burue madaricacea, an madaricatuco dituzu zure gurasoac, zure gustoac: an Madaricatuco dezu Amac Maria Santisima, Juez Soberanoaren amaden bezala: an finalmente madaricatuco dezu blasfemic den izigarrienaquin Juez vetico condenacen zaituen ura. O pecatari miserablea, baldin orain ecin acuditu badezu sentenci ain cruel ain losatu gabe, cer izanen da experimentacera allegacen zaranean? Emen mutucen da nere mingaña eta illuncen da nere entendimentue, cergatic ezten posible esplicacea cein icigarrie den pena ura eta condenatuec berac ere eztrade capaz, pena au bear bezala esplicaceco. Esan dizarazu bada orain Cristaba uste³⁴⁰ duzu aditu duzun gucie zu engañaceco pensatu dudan contu bat besteric eztela, edo siñestacen dezu ecin faltatu daitezquen Cristandadeco eguiec diradela? Siñestacen dezu fede ecin faltatu daitezquenaquin onela guertatu bear duela? Siñestacen dezu zuc cerorrec ecusi ta aurquitu bear dezula juicio onetan? Siñestacen dezu experimentatu bear dezula arretan justoan gozoa; edo pecatarien penac orain aditu duzun bezala? Ezta medioric pecatarie edo servitu bear dizu gozo anditaco egun losagarriarrec, edo pena tormentutaco edo eresucitatu bear dezu glorioso gorpuz eta animan, edo pesadumbre eta tristezaz betea, edo aditu beazu sentenci bendicio eternocoa gustoric den andienarequin,³⁵⁰ edo por el contrario condenacio sentimenturic den gogorenarequin, gauza fuertea da baño eztago medioric. Izanican bada au zure fedea, zure siñestamentue, nola vici cerade ain azturic azote ain cruel onetas, Nola entregacen zara gueiago erreparoric gabe juramentu eta blasfemi orietara? Nola eztiezu paracen freno a zure sentidoari, zuc errien ematen dezun escandaloari particularmente amorio torpe desonesto edo lujurioso dezun personaren echera iuateari, eta ebec nola dabilcen iaquinic erremedioric ezpara orri, antes bien gusto andiarequin ametitu ori? Zure desdichatua, zure miserablea ezipalin badituzu idiquicen beguiec, escarmentuec idiquiaci baño lenago;³⁶⁰ zure desdichatua, bada ezta beste arbitroric izanen betico condenacea baicic. Noiz arteraño bada sorturic egon bear dezu Jaungoicoaren avisotara? Da posible ezaituela gueiago muguiaici eta beraztu bear trajedi an losagarriarrec? da posible eztezula caso gueiago eguin bear eternidade gucico bendicio artas edo condenacioas? Betico Satanasen eta bere Aingueruen aldamanera, edo J.C. eta bere Santuenera: Betico Jaungoicoarequin eta Maria Santisimarequin, edo betico Demonio eta bere lagunequin? Nor ezta arricen adicearequin bacarriq? Cer dau nere Cristau maiteac? Allegatu bear duela onelaco lancea gurezat? Norc bada vici naidu mundu desdichatu onetan? Norc eztitu despreciacen bertatic³⁷⁰ emengo gustoac, diversioac, eraqueriec eta pasatiempoac? Nor ezta bertatic armatuco guruce santu batequin? Ea bada Cristabac izuli gaitecen eguiesqui Jaungoicoarengana, naibalinbadegu aditu setenci favorescoa lance terrible arretan, izuligaitecen siñesqui eta artu dezagun damutasun eta urricamentu andi bat

aren Divina Magestadea ofendituas, eben erdesi dezagun glori eterno eta betico ura cein baita deseacen dizutadana.

II

Dominica 1. Quadragesime

Goldaraz año 1834.

Ductus est Jesus in desertum á Spiritu Santo ut tentaretur a Diabulo. Math. Cap. 4.

Gauza maravillosoa da Cigueña deicenden egazti batei guertacen zaiona. Naidituenean egazti onec atera humeac paracen du ezquildorrean gañean, adicen ditu ezquillec soñacen alegri andi batequin festividade edo Jai andirembat eldudenean adicen ditu³⁸⁰ soñacen tristeza ecin andiagocoarequin norbait ilcen denean, eta finalmente adicen ditu soñacen aritu andierequin tempestade andirembat eldudenean, baño beti dago bere cabien baterere mugitucen eztela; eztute pasarazten lecu batetic bestera ez soñu alegreac, eta ez tristeac eta ain guti aroitu andi adicen dituenac.

Au bera guertacen zaiote egungo egunean Cristau gueienari. Adicen dituzte maiz asqui confesorean, eta predicadorean oiur alegreac ia dela confesonarioan, ia dela pulpituan, esplicacen ditutenean Jaungoicoaren promesa eta misericordie andie, pecatutic sinesqui apartacea naidutenendaco: empenaturic dauque bada bere ice, eztiola inoriere faltatuco bere misericordie, none-ta bear den bezala escacen dion. Nai³⁹⁰ duzue nere Cristabac erdesi Jaungoicoarengandic misericordie? Atera zaitzte pecatutic, eguiten duzetelatic propositu sinesco bat, ez gueiago pacatuen erorceco, badaquizute bada Jaun soberanoac diola pecatutic atera eta berris peccature izulcen dena, eztela Ceruetaco Reinuraco ona, *nemo mitens manum ad aratrum et respiciens retro, aptus est Regno Dei.* O cein izigarrie den sentenci terribleau. Adicen ditute dembora ebetan oiur tristeac esplicacen direnean infernuco penac, araco edo onela personaren anima condenatu cela, cergatic pecatuen cegoalatic arrapatu anbeste guertatuco zaizu nere Cristau pecatutic atera nai ditute finalmente arroitu andiac misio-neac eguiten⁴⁰⁰ edo arquicen cirate aniz edo gueienac zeren pecatuetan; eta baterere muguicen eceratela ez soñu alegreac, ez tristeac, arroitu andiac pasarazten zaituzte pecatutic graciera. Adituzazte noble onetan arquicen cera-detenac orain baño lenago oiur alegreac, eta finalmente genero gucietatic, baño acaso arquicen ciradete ceren cabietan. Posible da Jaun Divinoa arqui-daitequen Cristaban artean ichutasun. ¿O nor eguin licequen nere beguiac bi

iturri abundante edo abarasac negar eguiteco gabas eta egunas onembeste ichutasum eta desdicharen gañean cion S. Pabloc. *quis dabit capiti meo aquam et oculis meis fontem lacrimarum, et flebo die ac nocte* Cer consuelorequin abitu bear dut⁴¹⁰ garicima santu onetan sermonacen edo predicacen?. Baño eztago Jaun Soberanoa beroren escuetan, ostinatu edo vioz gogor eta beñereere pecatutic atera gabe dauden oiec converticeco? Bai por cierto: ea bada convertitu viche, iz eguin bizote viocetara guztiec nai dute bada berorren ize aditu, eta pecatutic atera; *Loquere Domine ad cor quia audiunt servi tui*: convertiviche erraten dut, berris ere minza bequioten nere aita amorosoa favoreau escacen dizut, onetaraco paracen ditut interesero edo medianero zure ama Marie Santissime, Aingueruen Erreguia eta peccatari gucion amari alcanza dezan zure gandic graciau, eta au ezpadirazu conceditu nai eman dezarazu siquiera gracia⁴²⁰ desempeñaceco garaicema Santu onetan ongui nere desea dutena, ceimbaite predicacea Jaungoicoaren iza eta Ceruco videa eta nere auditori noble onetan arquicen diradenari berris juatea bidea barrena Ceruco gloriaren gozacera Ave Maria.

Ductusest Jesus in desertum a spiritu etc. Arquidezaten Cristabac Ceruco videa. Arquidezaten Cristabac Ceruco videa erraztasun andigoarequin ateracen da egungo egunean J.C. Magestadea eracustera botacen dituelaric lurrera infernuco vanderac eta quencen ditularic Demoniori indar guciec *umus princeps huius mundi ejicitur foras*. Ezagucen zuen ongui Jaun Soberanoac Ceruco videa barrena ioan⁴³⁰ bear dutenac trabajatu bear dutela aniz, castigacen dutelari ongui beren gorpuza eta guerra eguiten diotelaric beren viozari eta peccatueri. *regnum celorum vim patitur*; baño nor izanen da vide neqoso eta trabajoso au barrena ioanen ezdena ecusten duelaric doaiela aurrera Jesusen magestadea? Cein soldadu izanen da bere esaieri batalle edo guerra ematera ioanen eztena, ecusten duelaric aurrera doaiela bere Capitana? Eliceque aborrecitua edo despreciatua izanen gucien artean acera izulcen licequen soldadua? bai por cierto. Eta orañican gueiago bicieren penadu onelaco soldadu onrra gabeac Ai mundu onetaco Erregueac guardacen baditute guisa onetan beren legueac cer⁴⁴⁰ izanen da Ceruco eta lurreco Erregueren leguean contra faltacen dutenas? Cein aborrecitu izanenda Cristoren magestadeagandic, eta Ceruco cortesanoangandic Cristo Capitan valeroso oni seguicen ez dionac. Pensa bezan ori bacoizac. Ea bada nere Cristabac seguidizagun gueren Redentore eta Aitari; baño nora seguitu bear diogu? egungu evangelioac eracusten digu: *in desertum* desiertoa Certara? Ecustera nola peleacen den Demonioaren contra, eta icustera nola garaicen duen Batallerembat eman bear denean lembicico eguiteco gauza da lecuric bentajosoena eta onena billacea eta arega J.C. magestade capitan sabioac, eta usic eguin eztezaquenac bezala, billatu lecuric onena⁴⁵⁰ cein baita desiertoa, eta soledadea demonioa garaicico: *Duc-*

tus est Jesus in desertum. Mundue, Demonioa, eta arengue dirade gure esaiic andienac eta gogorrenac, baño irurac gueldituciraden garaituric egungo egunean Jesusen magestadeagandic. Garaituzuen mundue desierto izigarri batera ioatearequin: *Ductus est in desertum*. Garaitu zuen aragueie castigacen zuelariac bere corpuz delicatue desiertoco lur gogorraren gañean, cein elegituzuen bere oacetaco eta barucen celariac berrogei egun beren gabequin. *Et cum jejunasset quadraginta Diebus et quadraginta noctibus*. Garaitu zuen Demonioa batallie eman cion gucietan. Lendabico aldien tentatu cion Jesusen magestadeari guleren⁴⁶⁰ vicioarequin, erraten ciolaric converticichela desiertoco arriec oguitan. *dic ut lapides isti panes fiant*. O cer tentacioa goseac dagoan batendaco Jesusen majestadea cegoan bezala. Baño cereguin zuen gure capitán balerosoac botazuen paseacera demonioa erraten ciolaric ecelea guizona oguierequin bici, baicican Jaungoicoaren agotic eldu dan izequin, eta conversacioaquin: *non in solo pane vivit homo sed in omni bervo quod procedit deore Dei*. O gule infamea, atrebitue eta madaricatue, anima desdichatuac sacrilegios, eta peccatues veteric infernuco galdetara botacen tuzuna. Au da gure lendabico Aitari cein baitirade Adan eta Eva venenoa eman ciotena gularen bicioagatic,⁴⁷⁰ betezuen mundue trabajues, enfermedades eta eriozas. *in dolore, paries filios, et in sudore vultus tui besceris panem*. Au da bere gustoac eguiteagatic botacen dituena lurrera virtute guciec, eta anima infernuetara. Au da anima desdichatuec vicios (torpes) betecen dituena, eta desonestidadeco suerequin errecen dituena San Lorenzo Justinianoc esplicacen du vicio au guise onetan admiracio andibatequin: O gula gula, lujurieren su infernala, ceñen galda da sobervie, ceñen chingueie edo prasa dirade iz desonestoac, ceñen equea da infamie, ceñen ause da probeza, ceñen lecue edo paraderoa da infernue, eta acabacen du Santu onec berac testoa erraten duelariac acabatu bedigule eta acabatuco dire⁴⁸⁰ vicio abec guciec. *Dignis infernalis luxurie cujus flama supervia, cujus scintile praba colloquia cujus fumus infamia cujus cinis inopia cujus finis gehena: cohibe gulam et hec omnia cesabunt*. Ezta icican asco predicaceco vicio infernuco onec animatan eguiten dituen dañuec. O vicio madaricatua, cer aumentoa edo irabacie deraman dembora ebetan; cristau ebetan, eta particularmente erri onetan, bada apenas ecusten da beste gauzaric ala gaztietan, nola zar ejemploa eman bear dutenetan gula baicic, ordiquerie baicic, eta luxurie, direla iz desonesto edo amorosoac, direla deseo edo pensamentu consentituac, edo direla obrasco peccatu larriec bicio onen contra disponituric dauzqui J.C.⁴⁹⁰ magestadeac baru egunec, baru egunac sugetacen edo lurrera botacen ditu bicio guztieac Eliza ama Santuec garizemeco prefacioan contacen duen bezala: *corporali jeunio vicia comprimis* baru egunac goracen edo alchacen du Jaungoicoagana gure espiritue eta entendimentue: *mentem elevas* baru egunaren medios erdeisten dirade Jaun Soberanoagandic virtuteac eta premioac, *virtuten largivis et premia*. eta finalmente baru

egunetatic ateracen dirade pensamentu garbiec, borondate onac, eta conseju santuec, *de jejunio procedunt caste cogitationes rationabiles voluntates et salubria consilia*. Baño cer importacen du Jauna cer importacen du atera zaitecen aurrean capitan valerosoa,⁵⁰⁰ Ceruco videra eracustera lurrean lo pisque bat eguiten duzularic, berrogai egunas eta gabas barucen cerelaric: *quadraginta diebus et quadraginta noctibus*: Ezbalinbada iñor arquicen bidean barrena joan nai duenic? Escuses edo aiciquies beteric arquicen da mundue ez baruceco baño zure tribunalean Jaun Divinoa ez dute baliatcen aicequiec. Bazuec escusecen dire bidean joan bear dutela, erratearequin, adidezazu cristaba egun gucien edo gueien partean joan bearbadezu oñes, escusu baliatuco dizu, baño bi edo iru ordu besteric ioan bear ezpadezu ezaizu baliatuco, beste bazuec escusecen dirade trabajatu bear dutela erretearequin, baño entenditu⁵¹⁰ bear dezu trabajatu bear badezu baian, aizurrean, aizcoran iguiten edo beste onelaco lan penosorembatean, orduen baliatuco zaizu escusa, au da ezaude obligaturic barucera, baño gañeracoan bai, obligacen zaitu beste bazuec escusacen dirade erratearequin, bataio batean, eztaï batean, edo entierro batean, edo beste nolabaiteco funcionean allegatuzela, eta ezela posible barucea, eta cer motivo zinuen bada ezbaruceco? Jauna cer motibo, nic eznuen beste motiboric, baïcican urtean bein allegatu bear onelaco ocasiotan, au da tripa ongui betececo moduan, eta sentimentue eguiten ciraden ura galcea, eta ezaio iduri berorri motiboric asqui badela au? Ez por cierto eta pecatu⁵²⁰ mortala eguinen dute motibo ebeta(n) baruceco uzten duen guztiec eta condenatuco dire ezpalinbadirade aies escusacen eta arrepticen. Bigarren tentacioa, presentacion Demonioac Jesusen magestadeari esperanza bano batequin erraten ciolaric, botazac ere burue lecu edo mendi altu orretatic bera, eta Jaungoicoaren semea baldin baiaiz, Aingueruec libratuco aute, eztezaquen minican artu: *si tu filius Dei es, mite te deorsum, scriptum et enim, quonian angelis suis mandavit de te, et custodiant te in omnibus viistuis*.

O cembat anima desdichatu arquicen diraden infernuc galdedetan, guise onetaco tentacioembatengatic. Bazueri esaten diola enemigo falso⁵³⁰ onec, ebasi edo ostu dezatela onelaco edo alaco gauza, eguinen dutela errestitucioa izaten dutenean. Beste bazueri erraten diote eguin dichatela beren gorpuzaren gustoac, eta penitencie eguinen dutela, baño cer pagatu izanen dute onelaco gorpuz gaiztoac David profetac dion bezala: mundu onetan vici diraden arteraño paratuco ditiote Demonioac lazoa lazoaren gañean eztaitecen atera beren gusto, pecatu, vicio eta maldadetic, eta beste munduan regalatuec, edo premiatuec izanen dirade infernuc suerequin eta galda eta tormentu ezin izigarriegocoquin, cergatic eguin zuten Demonioac, manacen ciotena cergatic eman cioten Demonioari gustoa. *pluet super peccatores laqueos*⁵⁴⁰ ignis et sulfur et spiritus procelarum, pars calicis eorum. Zoaz

tabernara edo beste echeembatera guizon ichutue eta gastatu dichazu ordiquerien, eta galdu dichazu ioquen cere acienda edo ondasunac, eta etorcen ceranean cere echera, arizaita cere familiarequin ocasioan, eta Jaungoicoaren ofensan beguiredezazu ongui eta consideradezazu cer pagu izanen dezun gutienuste dezunean, infernuco sue galda, azufrea, plomue, piquea, eta Demonioaren compañie. *ignis et sulfur, et spiritus procellarum pars calicis eorum.*

Beste bazueri erranen diote conservatu edo egon daitecela beti desonestidadea dela pensamentusco, dela obrasco siquiera torpesco⁵⁵⁰ pecatuetan eta amorio edo amancebamentuen, Jaungoicoa dela misericordioso, eztuela nai iñor condenatu dedien emanen dutela dembora confesio on bat eguitemo eta pecatu vicio eta maldade desonesto edo castidadearen contraco oietatic ateraceco, eta cer guertacen da? lastima erran daitequen andiena cer guertacen da diot berrisere? fiaturic anima desgraciatu desdichatu, eta miserable ebec esperanza bano onetan, gutien uste dutenean, guciena descuidaturic daudenean, arrapacen ditu eriozac, eta arquicen du infernua tormentu icaragarri aien artean. Azqueneco tentacioa eman cion Demonioac Jesusen Magestadeari erraten ciolaric emanen citiola munduco erreinu⁵⁶⁰ eta ondasun guciec baldin belaurico iarriric adoracen bazuen. *hec omnia dabo tibi si procidens adoraberis me.* cenbat aldies galde eguiten dizut nic Cristau neri adicen zaudena cenbat aldis adoratu duzu Demonioa? Adoratu dezu por ventura munduco erreinue eta ondasun ofrecitu edo aguindutizun aiengatic? oiengatican ere cerbait bai, baño gueiago eta gueiago adoratu dezu eta adoracen dezu, zere gorpuz ciquin orri, gusto ciquin bat emateagatic. Acabatuco orain contacera noaien ejemploarequin. Joan cizaion edo aguertu cizaion aingueru bat monge edo religioso Jaungoicoaren servizoan cegoan bati, eta erraten ciolaric segui cizola, eramanzuen conventu batera. Claustroan sarcean⁵⁷⁰ ecusicituen ulien figuren ecin contatuala Demonio, ioan cen corura eta gañeraco conventuec cituen lecura, eta Claustroan bezala arquitec cituen lecu gucietan, baño considerazazue zebilcela Demonioac beñerere guelditu gabe. Conventu artatic eramanzuen Aingueruec monge ura eta atarien edo portalean sarcean erreparatu zuen cegoala Demonio bat, baño gueldi gueldie, admiraturic edo arrituric erran cion Ainguerueri religioso edo monge arrec, ea cergati cebilcen ambeste Demonio eta ain diligenci andiequin conventuen, eta cuidadoan bat bacarra eta ur(a) guelderico edo eguiteric gabe edo lanican gabe? Erresponditu cion conventuen fraile guciec ceuden oracioan eta Jaungoicoaren servicen,⁵⁸⁰ baño Ciudadean guztiecedo gueienac ceudela Demonioaren servizuan, eta motibo onengatic asqui cela bat. Cembat Demonio asquico ote dire edo arquitec ote dirade erri onetan aniz ala bat bacarra? bat arquicen da eta ura guelderico. *unum solum demonium sed otiosum,* eta ezta bota bear nere Cristabac batau bacarra? iduricen zait ezez emen arquicen diran escandalu eta desordenaquin,

maldade eta vicioquin, ezta votacen ez soñuc danza, siquiera torpe eta obrasco pecatu aietatic elduderenquin baicican orain humildadearequin eta errezoarequin eta guero tentacera eldu direnean erran dizogun Jaun Soberanoac erran cionn erran cion bezala: goaia Satanas ezaquela tentatu ere Jauna eta Jaun goicoa. *Vade*⁵⁹⁰ Satanas Dominum tuum adorabis, goaie Satanas eztezaquela tentatu Jaungoicoaren siervo au: Considera zazu Cristaba cein erremedio erraza eracusten dizun Jaungoicoac demonioaren garaiceco, baño zuc despreciacen duzu erremedio au cere pasioneari gustoa emateagatic, zere corpuz ciquiñeri gustoa emateagatic. Da posible nere cristabac orrela vici naiago duzutela? Cer ichutassun da zuena? Cer aicinacen duzute zeren placer eta gustoquin baldin allegatu bear bazaizute eguna placer deninocentenc ere servitu edo izan bear badute somintasun ecin sufritu daitequen batendaco? nere cristabac ezta vician bestetaco baicican gueren pecatuei negar eguiteco, eta salvacio⁶⁰⁰ eternoa, villaceco despreciacen ditugularic demonioaren agunzac, eta tentacioac; ceren esperoan edo cer ariceradete bada ia? nola eztirade zuen veguieci iturien merecirican ez infernubat baicican milla zuen pecatuegatic. Cer eguinen luquete condenatu miserableac, zuec bezala arrepentitu balitezque Jaun divino orren oñetara? cer eguinen cinuque zuc joanen baciñique infernuetara eta andican ateracea posible balice? O nolaco sentimentuerequin eguiñen ciñuquen negar cere pecatues. O nola aborrecituco cinuzquen munduco placere eta gustoac. O cer suspiroaquin escatuco cinuquen misericordie. Nola eztuzu bada eguiten orain? Nola ecirade arrepenticen eguesqui? Nola ecirade ilcen penas, eta⁶¹⁰ sentimentus?. Ea peccataria logra dezazu Jesu Cristoren piedadeac franquicen dizun ocasioau, badaquizu eta ecusten dezu zure delituegatic mercei dezuna bada ezta gutiago baicican infernubat iarzaitea bada humildade ecin gueiagoco batequi aren oñetara, baldin nai balinbadezu, barcacea, orain da bada misericordieco dembora, izan bedi bada orain negar sentimentu eta arrepentimentuenera orain Santuec intercedicen edo iarcen dirade vitarteco, orainnican Aingueruen erregue cenac Marie Santissime interesacen da ez ceitecen erori infernura ea bada anima zaite eguin zezu papaquiac Jaungoico dena ofendituarequin atera beita suspiroac zure viocetic arrepentimentuaren⁶²⁰ señalear.

Baño O nere Aita dulcea, O nere Jaungoico maitea nola da posible ni arrepentitunaitequela zuc ez palinbadirazu laguncen? Eman dizarazu Jauna indarra negar eguiteco lagun dichazu nere vioza eta ezpañac confesaceco Cerueren eta lurraren aiciñean, naiz losaz beteric atrebitu onec eguin zuela pecatu zure contra cein baicirade nere Jaungoicoa, zure contra cein baicirade nere Aita, zure contra cein baicirade nere Creadorea nere erreguea, nere arzaia nere Redemptorea, bai nere Aita eta Jaungoicoa zure contra eguin nuen pecatu nere pasioneari gusto emateagatic eta infernure ioateagati, baño

ay nere⁶³⁰ Jaungoico maitea, ay nere Aita misericordiosa, ya eguiñec eztu erremedioric, damu dugu vioz gucitic. O Aingueruen Erreyna, O pecatarien ama lagungaizazu Señora peticio onetan galduerac gara baldin Jaungoicoac usatu bear badu bere justicies; iduquizazu compasioa gutas, eta veguire dizaguzu Ama onac bere semeas bezala begui misericordiosoquin, onetaraco negar eguiten degu onetaraco deicen zaitugu suspiro eta negarraquin gueren pecatues arrepentituric bada norbait escusecen edo nai eztuenic? O eztetala permititu Ceruac, animo bada nere Cristabac, animo eta indar obligaceco Ama Maria Santisima eta bere Seme Soberano oni ez gueiago despreciatu J. Cristoren odol⁶⁴⁰ precioso, lenago il ece ez izuli berris ofendicera eta oraindeñooco eguin ditun pecatues escadizogun barcacioa erraten diogularic etc.

III

Dominica 21. Año 1839. Eguilleta

Radix omnium malorum est cupiditas aut furtus. Capt. 20

Ain frecuentea da personetan bere defectoac estalcea costumbrec ece, baitirudi heredatu guiñuela gueren lendabico aitagandi pecatu originalarequin batean. Bada picardi bat dio San Agustiñec Jaungoicoac ecin barcatu dezaquena cein da ori galdeguin dizozute? Eta eranzunen dio Santuec *Ipsa est defensio peccatorum*, au da⁶⁵⁰ bere pecatuec escusacea, eta defendicea. Apenas eguiten degun pecaturen bat, baldin falta bada vioceco humildadea, berla vezticen degu virtuterem baten trajearequin, edo alo menos pintacen degu ez den bezain isusie; Emaztequi maldicienteac naidu arindu bere costumbre zartua senarra olgazan bat, ordi bat, eta iocari bat duela esatearequin, edo ordicen dela, semeas desesperacicen dutela, dio maldicicen duela intencioric gabe esatearequin; Besteac guezurraren gañean eguin bazuen ere juramentue izandu cela gauza chiquieren gañean, eta iñoren dañuric gabe, seme, edo alaba altiboac escusacen dute beren pecatue aren aita eta amaren genio gaizto, eta charrarequin⁶⁶⁰ ecin aguantatu ditequela esatearequin, araco agravio embaten ondorean bere aideac tratatu nai ez tuenac aldamaneco lagun asarretu cenarequin tratatu nai eztuenac disimulacen du bere pecatue esatearequin, nic eztiot gaicic deseacen, Jaungoicoac neroni direla ari deseacen dioden gaiza. Desonesdidadeco pecatuen erori danac esaten du ezuela arrec nai, besteac paratuzuela, ezuela consentitu: baño escusaric gaiztoenac, eta ceñetic etorcen diraden dañuric andienac dirade Lapurreta, eta rrestitucioaren gañean ematen dituzutenac, cergatic iduricen zaizuten juicio gaizqui formatu baten medios ecela izandu injustoa, baici licitua besteren gauza

arcea, gordecea, estalcea, eta⁶⁷⁰ ucacea, eta ezagucen duztenean injusticie, eta restitucioa eguitemo obligacio berequin decarrena paracen, eta discurren dituzute alaco impedimentuec, ez pagaceco, restitucioric ez eguitemo, alaco moduen ece, balinbada pecaturic barcaceco dificultoso edo nequetanic, edo casi imposibleric, da lapurreta, edo besteren gauzaren deseoa, vicio ain mada-ricatua, alaco moduan ece baitaq vicio gucien zaña. Ez ostucea besteren gauzaric, eta ez estalcea, eta desacea manacen digu Jaungoicoac zazpigarren mandamentuen, eta amargarrenean, eta au bear bezala esplicaceco escadizogun gracie Aita Eternoari paracen degularic vitarteco Aingueruen Erreyña Ama Maria Santissima Saludacen degularic⁶⁸⁰ Ainguruen icequin Ave Maria.

Non furtum facies.

Arrazobe anicequin esan zuen San Tomasec ecela pecatu peligrosoagoric lapurretacoa baño, lendabicoa cergatic eztan erraz aborrecicea acio ure, cein eztuten ezagutunai injustotaco, antes bien iduricen zaiote licitoa eta justoa dela, bigarrena cergatic ezagucen badute ere eguin zutela, eta arquicen direla errestitucioa eguitemo obligacioarequin, eta esan eguiñen dutela, ala ere ezaio- te barcacen pecatue restitucioa eguin dezaquetelari ecpadute eguiten. Eztaba- da beste gauzaric lapurreta besteren gauza ocultamente jabearen borondatear- ren contra ebastea baicic, eta esaten da ocultamente,⁶⁹⁰ lapurreta, rapiñatic, edo bere beguire, eta presente dagoala ebastetic distinguceagatic, eta onetan arquicen dirade bi malici, baten gauzan eguiten zaion dañuerena, eta bestea personari berari eguiten zaionaren dañuarena, baño lapurreta ocultamente, edo jabeac ecusten eztuela eguitemo, ezta malici bat baicic. Lapurreta, da pecatu mortala bere naturalezas Santo Tomasec dion bezala, eta ez nola naicoa, baicican errestitucioa eguitemo obligacioa berequin deramana, eta cer cantidade bear den lapurreta pecatu mortala izateco, ezta erraz determinacea, eta eztut nic ere determinatua, baño bai esanen dut ostucea amar edo amavi erreal Erregue, principe, eta beste persona aguiz abaraseri⁷⁰⁰ izanen dela pecatu mortala, eta cantidade chiquiagoc ostucea izanen dela pecatu veniala. Beste persona bazuec badirade ongui samar vici diradenac, eta ostucea oieri lau erreal izanen dá pecatu mortala, eta gutiago izanen da veniala. Beste persona bazuec badirade beren trabajueren medios vici, eta mantencen diradenac, sastre, zapatero, jornalero, eta ostucea oberi vi erreal izanen da pecatu mortale, eta finalmente ostucea pobre bati erreal bat izanen da materi gravea eta por consiguiente pecatu mortala: eta gauzaric comunena, eta probablana, baño avertitu bear da aniz aldis cantidade chiquiagococ asqui izan daitequela pecatu mortaleraco, baldin artatic seguicen edo⁷¹⁰ etorri bear bazaio perjuicio andie lagun progimoari, gauza chiquie da orraz bat eta baldin quencen

bazayo sastre bati iaquinic eztuela gueyago lanean ariceco, eta vere familie alimentaceco, izanen da pecatu mortala; oro bat pluma bat balio chiquie du, baño quencen bazaio Escribau bati, iaquinic eztuela besteric, eta aren faltan galdu bear duela egun gucico jornala, edo irabacie, izanen liceque culpa grabea seguitucion perjuicioagatic. Asentaturic doctrina au, nai ditut paratu zuen beguien aurrean erregla generalac zuec descubritu dichazuten aietatic (bazuec) aniz vide disimulatu, eta oculo besteren interesetan cebaceco diradenac, prevenicen dizuterelatic, ece esaten⁷²⁰ dudenean ebasten dena dela pecatu mortala, entenditu bear dela ebasten dion cantidadea gravea delaric, lau edo sei errealen lapurreta asquiden edo ez decidicera sartu gabe. Lendabiccico regla generala edocein genero nai duen especitacoa izandadiela, edocein genero salcen edo erosten dena, saldu bear da dena den bezala, alaco moduen ece manifestatu bear zaio erostunari precisamente tacha, edo vicio oculo edo estalien dagoana, ala dio Santo Tomasec. Erregla onen contra eguiten dute pecatu mortala, eta restitucioa eguitemo obligacioarequin aniz oficialec, nola baitirade zapatero, zurguin, eta beste asco veren obra viciotua eta gaizqui trabajatua, edo calidade gaiztocoa salcen⁷³⁰ dutenac, ona balice bezala, edo ongui trabajaturic balego bezala. Ygualmente eguiten dute pecatu mortala mandamentu onen contra azuquere fiñe, eta beste onelaco mercaduri edo ona, gaiztoarequin nasita, gucie onabalice bezala precio goinecoan salcen dutenec: orobat eguiten dute pecatu mortala idiec, mandoa, edo beste edocein acienda tacha oculoarequin salcen dutenac, eta au precio justoan baño gueiangoan salcen ezpaduere baldin etorri bear bazaio perjuicioren bat erosten duenari, edo galdecen badu tachas oculo, edo estalies bada concienzien manifestatu bear zaio ala dio Santo Tomasec eta oro bat eguiten dute pecatu mortala ardoari, olioari, aguardiente, eta beste⁷⁴⁰ onelaco generoari ura emanda salcen ditutenac, alacoric ezpalu bezala, eta batere artas errelajatu gabe: oro bat eguiten dute pecatu mortala mostraraco genero bat ateracen eta eracusten dutenac, eta emateco demboran charragocoa, encajacen diotenac, igualmente eguiten dute pecatu mortala moneda, edo diru falsoa duela yaquinic onetaco pasacen dutenac, eta eztu balio esatea ari ere eman ciotela, bada zu engañatue izatea ezta motivoa, zuc bestea engañacecoa ezta arrazobea arrec gaizqui eguin zuelaco, zuc ere gaizqui obraceco, eta aren pasoac seguiteco. Bigarren erregla generala eguiten du pecatu mortala besteren hacienda, frutu, ianari edo ondasunetic pisquecan ostuceco⁷⁵⁰ intencioa arcen duenac, eta dago obligaturic ebasi zuenaren restitucioa eguitera, cantidade gravera allegacen denean. Baño obequi entendiceco iaquinezazute lapurreta chiquien eguin persona batec beste bati, por exemplo mutil edo nescato bere nagusiarì egun marabidibat, biar beste bat, eci bida ostucen ditionac bezala, edo eguin daquicola personabaten gandic, anici, por ejemplo araquin, botiguero, edo tabernari pisu chiqui edo falso, edo neurri escasarequin allegacen

den gucieri salcen dienac bezala, edo eguin ditezque lapurreta chiqui ebec aniz persohagandic batengana, por ejemplo anicec elcar arturic, edo bacoicec beren guisa ardance, alor,⁷⁶⁰ edo frutotan lapurreta, eguiten dutenean. Au onela delaric da doctrina eta regla seguroa, ece ostucen duenean batec aniz aldiz gauza chiqui bat, baldin aietaco bacoicean balin bazuen intencioa gauza grabea ostucecoa, eguiten duela pecatu mortala lapurreta chiqui, edo leve bacoicean, bada ala eracusten du espresamente San (Agustiñec) Antonino florencianoc, cergatic aren intencioan, bazuen borondatea lagun projimoari dañu grabea eguitecoa. Bigarrena esatera noaiena da, ece arau anitz cantidade chiqui batec, beste bati ostucen ditonean, nola mutil, edo nescame bere nagusi, edo echeco andreari bi maravedi, edo lau egunoro ostucen ditionac, baldinbacen onen intencioa allegacea⁷⁷⁰ materi gravera, lendabico lapurretan eguin zuen pecatu mortala, eta ala ematen du adicera Santo Tomasec, bada arrec bere vorondatean artu zuen lagun progimoari dañu grabea eguiteco, baño baldin lapurreta chiquiaiec eguin bacituen materi, edo cantidade gravera allegaceco intencioric gabe eztu eguinen pecatu (mortala) veniala baicic lendabico lapurretetan, eta ala egonen da obligaturic restitucioa eguitera, pecatu venialaren azpien, eta azqueneco lapurreta levea completacen duenean materi gravec eguiten du pecatu mortala, bada au beres levea, edo chiquia izanagatic, unituric besteaquin, allegatucen materi grabera eta argatic dago obligaturic restitucioa eguitera⁷⁸⁰ pecatu mortalaren azpien, ala declaratu zuen Ynocencio amicagarrenac. Yrugarrena esan bear dudena da ece ostucen duenean batec anici, eta bacoiceri cantidade chiquie, baño cantidade chiqui ebec juntoan cantidade larrie eguiten dutenean, olio, ardoa eta aragueie pisu chiqui, edo lecari escasarequin salcen ditutenac bezala, eguiten dute pecatu mortala, eta dago obligaturic restitucioa eguitera, bada bacoiceri dañu chiquie eguiten badio ere da dañu gravea erri, edo cominidadeari eguiten diona. Laugarrena esan bear dudena da, ece anicec elcar arturic cunce batera belar ostucera, edo alor batera patata, maice, eda baba, edo edocin grano genero ostucera joaten⁷⁹⁰ diradenean, baño errepartituric bacoiceri materi levea tocacen zaionean, ala ere eguiten du aietaco bacoicec pecatu mortala, eta dago obligaturic bacoice beres dañu gucieren errestitucioa eguitera, baldin ezpalin badute nai eguin besteac. Baño ezpalibacen unitu lapurretaraco baicican bacoicec beres ostu bazuen materi levea, besteas yaquin gabe, ezuen eguin inorquere pecatu mortala, cergatic ecen izandu lagun projimoari dañu gravea eguiteco intencioric, baño cembat ioaten ote dirade elcar arturic, edo naiz mancomunean ez ioanic ere, cembat ote dirade ioaten diradenac ya belar ostucera, ya maice, edo patata batera⁸⁰⁰ erreparoric gabe, eta ioan confesacera eta galdeturic confesoreagandic ea deus ostuduen serenidade andierequin errespondicen dutenac? Eta ez ote dirade ez frute oriec ebastera, dela sagr, udare, adan, eta particularmente gaztañetara, batere erreparoric gabe, eta

gauza andibat Jaungoicoaren aurreraco eguiten balute bezala?. Asi daquiela iñor reprehenden, berla iequicen dirade odayec baño gorago, vñiric irichi bear balute bezala, esaten dutelatic bazuetan Jaungoicoac gucienzat ematen duela, ezpalice munduen onelaco, edo alaco, edo errionetaco, edo besteco becñoac baño nobleagoric goseac illbearrac lirequela, pobrea errematacera tiracen dutela. Ona errespuestac, ona quejac, baño permititu dizarazutela onelaco oriec⁸¹⁰ galdemoduac eguitea. Esan dizarazu eztuzu zuc cerbait gauza acaso beste bazuec eztutena? eta baldin ostuco baliquezute zuri norpaitec eciñique queiatuco? Oranic gueiago eciñucen dotatu, edo erregalatu Jaungoicoac habilidades? dela segaracoas, dela layeracoas, dela iteracoas, jostecoas? Bai Jauna esanen dirazu. Eta baldin deituco baciñuzque peon egun bateco, edo bitaco alorrera, eunceaco eta gaztañediatic dituen batec esanen baliquezu baia Jaungoicoac gucienzat ematen du, edo egungo eguna debalde pasatu bear duzu, cer eranzunen ciñico? Ezaudela zu debalde trabajaceco jornaletic mantencen ceradela, eta mantecen, eta vezticen duzula zu eta familie, artatistic pagacen⁸²⁰ duzula eche tregutuec, eta gañeraco paga bearrac. Conque Jaungoicoac eztu guerostican ematen gucienzat, eta ala nola Jaungoicoac eman zizun zuri abillidadeori ecion bear bada besteari eman, eta aren lecuan eman cition alorrac, eunceac, eta gaztadiatic ceñen posesioan dagoan, eta cein bear dituen jornaleroac pagaceco bere burue, eta familie, seme eta nirabeac alimentaceco, bezticeco, eta soldata pagaceco, eta gañeraco pagabearrari, cein botacen diraden ondasunan conforme, satisfacio emateco, conque iz batean uci bestera dagoana dagoen toquien. Ay Jaune esanen du besteren batec nic eznuen pisco bat besteric ostu, zuc piscabat, besteac beste⁸³⁰ piscabat, besteac beste piscabat, eta onela guertacen da aniz aldies, gueldicea jabea eramaten dutenaren erdie, laurdena, edo quartoa gabe, perjudicaturic gravemente, eta eguin esquerostic dañau amancomunturic, edo naiz bacoicec beres, baño iaquinic arrec bezala beste ascoc ere ostucen diotela, eguiten dute maiz arrec ostuzuen gauza levea, edo chiquie izan pecatu mortala, eta por consiguiente egonen da obligaturic restitucioa eguitera pecatu mortalaren azpien opinio aquin probablean. Eta doctrina onetatic ezagun da claramente nola pacatu eguiten duten nirabe ya guisa batean, ya bestean beren nagusi, edo echecoandrearari sisacen diotenean, pisqueca, pisqueca lagun projimoaren ondasunetic⁸⁴⁰ arcen dutenac neurri escas, eta pisu chiquiequin, eta falsoquin ostucen dutenac, ure ardoarequin, aguardintarequin, eta guisa onetaco gauzaquin nasten dutenac. Baño materi onetan ez useguitico, seguroa da confesacea claridadearequin, bada modu onetan ecusico du confesoreac esamiñaturic circunstanciec noiz den pecatu mortala, eta noiz veniala. Solamente advertitu bear dut aniz niraberen desengañoaco, eztiradela guti baicican aniz asentues pecatu mortalean vici diradenac, cergatic beren alde ateracen dituten ceinbait conturequin, doaci pisqueca pisqueca bere nagusien gaucetatic, ya dela garitic, babatic,

maicetic, oliotic, ardotic, eta iz batean ian gauce gucietatic, sisatues⁸⁵⁰ bazuetan gala, eta pompetaraco eta beste bazuetan bere aide pobreac socorriceco. Nic esaten dut mutil, edo nescameac, nic aniz trabajacen dut, fiela naiz, eztut loricen ere eguiten echeco gauza, eta ondasunac aumentaceco deseoarequin, eztit pagacen nagusic nere abilidade eta trabajuec mereci duena, bada nic ere artu, eta eraman dizoquet soldata baño gueisago cerbait. Diot bada, vici eta daudela pecatu mortalean onela obracen dutenac, eta obligaturic restitucioa eguitera, eta confesoreac absolvitu ezdichequen moduen ezpadirade emendacen, eta nirabeas esan duden bezala, guisa berean esaten diot echeco seme, eta alabas, oc cerbait quencen badiote beren gurasoari, eta⁸⁶⁰ particularmente gauce grabea escatuta ere emanen ezlioquetena, eguiten dute pecatu mortala, Espiritu Santuec eracusten duen bezala, eta anices gueiago eguiñen dute pecatu mortala, baldin ostucen dutena gastacen badute malamente iocuen, ardotan, desonestidade, eta gañeraco gaucetan, eta daude obligaturic restitucioa eguitera, eta ezpalinbadute cerequin, abonatu bear diote beren anaiari ondasunen errepartoa eguiten denean perjudicatu cioten ura.

Orobat esaten dut emazteas, beren senarraquin bada gauza clara da, eta costantea senarran vorondatean contra eztezaquetela ondasun⁸⁷⁰ administracio, usufruto, eta dominio correspondicen zaien aietatic, eta andre ondasun ebetatic cantidade gravea bere senarrari guencen dionac eguiten du pecatu mortala, eta anices andiago baldin gastacen baditu bere senarraren borondatearen contra vanidade ordiqueri tripezaiqueri eta eraquerietan; baño eztu pecaturic eguiñen arcen balin badu bere familieco sustentu decentean empleaceco. Yrugarren erregla generala: Edocein persona advertenciarequin injustamente dañu graverembat causacen dionac, eguiten du pecatu mortala eta dago obligaturic restitucioara. Erregla onen contra eguiten dute pecatu mortala lendabicoa araco lagun projimoa injustamente perjudicatu ondoan, ya pasiones, ya embidies, edo venganzas, ya vere vicien,⁸⁸⁰ honran osasuna, eta haciendan, edo ondasunetan, ez solamente satisfacioa veiar dena ematen ez tutenac, baicican gastarazten diotenac pleitu, eta diligencietan, justificaceco, edo vere drechoa probaceco, eta por consiguiente guelditu libre causatu, edo eguin cion perjuicioa pagatu gabe.

Bigarrena eguiten dute pecatu mortala araco persona ezagaturic onelaco eche, alor, ondasun eta alaja eztela arena, edo fulanoc duela derecho guciago eta obea, alaere ucacen diotenac, cergatic ecin probatu duen testigu eta instrumentuequin, edo cergatic izanican bestea pobre bat, ecin seguitu dezaquen pleituristic, eta ala eguiten⁸⁹⁰ dute contentue friolera batequin. O cembat onelaco arquicen den munduen, eta desdichatu oc daude beti pecatu mortalean veren animac infernuetara botaric. Yrugarrena eguiten dute pecatu mortala nausi beren nirabeaquin, gornalero, eta oficieleaquin tratatu zutena,

faltacen diena aieri veren izardi eta salarioan pagamenta. O cembat eta arquicen dirade cuidadu andia arcen dutenac beren haciendari ianari, eta sustentoa ez faltaceas eta eztute casoric eguiten jornalero, nirabe, eta oficielean izardi desdichatu Cerurano clamacen duenas. O cembat aldís gueldicen diraden miserable aiec beren irabacie cobratu gabe, eta cobratu badute ere noizpait, eta orduen ere⁹⁰⁰ esquergaiztoan eta echean duen gauzaric gaiztonetic, eta garesti, O nola clamacen duen diot verrisere aien izardi tristeac, dio Santiago Apostoluec, escacen duelaric venganza Jaungoicoaren tribunalean. Laugarrena, eguiten dute pecatu mortala administradore, tutore eta heredero beren trampac estalceagatic, beren zorrac pagaceagatic, edo tripari emategatic, edo alperqueriegatic zorrac pagatunai eztutenac, contuec ajustatu nai eztutenas, arceco dutenan perjuicio grabearquin. Orobat diot difuntuec ucizuten manda, limosna, eta mezac bereala ateraceco aietas. Seigarrena eguiten dute pecatu mortala, alorretaco, euncetaco, eta oianetaco iguraiec, ceñec ecusiric dañu eguiten dutela,⁹¹⁰ eztute eguiten casoric, adisquea delacos, convidacen duelacos, eta escuec noicean noiz berocen tiolacos. Zazpigarrena eguiten dute pecatu mortala Erregueren Ministroac, beste Erreinu edo provincietic eldudiraden generoac tocacen zaioten drechoa pagarazteco, contrabandoac debecaceco, eta arrapaceco paraturic daudenac, eta ecusiric edo iaquiñic onelaco, edo alaco fulanoc erabilcen duela contrabandoa, veguiechucen ditutenac, ura icusita beste aldera ioaten diradenac, eta polsa ederqui betecen dutenac, ebec pecatu mortala eguiten dutenas landara daude obligaturic errestitucioa egitera Erreguean genero aieri correspondicen zaiena. Laugarren⁹²⁰ erregla generala arceco besteren gauza jabearen vorondatearen contra dauqueten aiec guciec eguiten dute pecatu mortala, eta dago obligaturic errestitucioa eguitera gauza ostua ez pada ere. Por ejemplo eman cion batec besteari diru cantidade bat urtebat garrenean izulceco condicioarequin cumplitucenda demhora, eta alaere zezaqueularic, eta zuelaric, eztu pagacen zorduena, reclamacen du jabeac, eta besteac eztio casoric eguiten, eguitentu diligenciec berrisere eta escusa bazuequin despedicen du, arabada gauza ostugabea, baño iduquicearequin, pecatu mortala eguiten dena, eta besteari etorri⁹³⁰ cequizquion dañuen restitucioa eguitera obligaturic dagoana. Onetatic contue atera daiteque, ece iduquiegatic pagaceco deseoa, eta errestitucioa eguiteco intencioa, emanagatic mille aldís iza confesoreari eguiñen duzula, dezaquezularic ezpadezu eguiten gaizqui confesacen cerade, eta arquicen cerade continuoco pecatu mortalean. Jauna obra gaiztoa eguiten zait pagacean, edo restitucioa eguitean? O aicequi infernucoac, eta cembat anima dauqazu calabozo infernal orietan. Yaquiñezazu bada ece zuc ostuziñuena, edo zor duzuna balinbadago especí berean, edo igualean ceñequin aumentatucinuen zure hacienda, edo ceñequin aborratucinuen beste gasturen bazuec, bereala eguin bear duzula errestitucioa, cergatic ezaizun eldu batere dañuric⁹⁴⁰ besteren gauzaren restitucioa eguitetic. Yaqui-

ñezazu baiere noneta pagacetic, edo zor diozuna izulcetic ez pazaizu segui-
 cen dañu anices andiagoa zu arceco zaituenari esperaceas baño, zaude obliga-
 turic pagacera, trabaju eta incomodua aniz artatic etorri bear bazaizuere, nola
 baita alasem bazuec enpeñatu bearra, edo gastues gutitu bearra, eta da arrazo-
 bea cergatic incomodidaderembat padecicecotan, lenago padecitu bear dezu
 zuc, zu arceco zaituenac baño. Jauna eta ostucenaren cantidadea eman daite-
 que limosna edo mecean? Ez nere Cristabac ez, jabeari eguin bear zaio
 restitucioa, edo aren herederoari, naiz urruti egon, eguiten diradelaric diligen-
 ci posibleac⁹⁵⁰ non dagoan iaquiteco, eta eguin restitucioa zor zaionarena.
 Besteren gauza iduquiceco nombreonetan comprendicen dirade alaja, edo
 gauza arquiteuac, eguie da eztela ostue, baño bai besterena, eta eztaiteque
 iduqui. Azqueneco besteren gauza injustamente iduquiceco nombre onetan
 comprendicen dirade Amarren primiciac Eliza ama Santac manacen duen
 bezala pagacen ezditutenac, beste asco ecin contactu alaco modu lagun proji-
 moari dañu, eta perjuicio eguiteco direnan artean procura beza bacoicec
 concienzie ongui esaminatu ondoan iñori eguin badio dañuric edo calteric
 pagacea, modu onetan erdeisteco eternidadeco glorie ala guerta dedille Amen.

Bibl.:

Arruazun jasoak. JMS-ren bilduma.

Argitaragabeak. 155 x 210; 165 x 220. 13,9 eta 10 orrialde.

39. LAKUNTZA (1838)

*Lakuntzako Parrokiako euskal predikuen bilduman bada Manuel Iriarte apai-
 zak 1838an beretzat ateratako kristau dotrina baten kopia. Lehen orrietan datozen
 lau atal orokorrenak hartu ditut eredutzat.*

I

Principio de la Doctrina Christiana

Ayta gurea, edo Paternosterra

Ayta guria ceruetan zaudena santificabedi zure Yzena, betor guregana
 zure Erreñuba, cumplibedi zure borondatia ceruen bezala, lurrean ere. Egun
 iguzu egunorosco oguiu barca izguzu guri gueren zorrac, guc gueren zordunei
 barcacen dioun bezala, ezcachazula uzi tentacioan erortera, baizic libra gai-
 chazu gaiz gucietatic. Amen Jesus:

Ave Maria Graciaz betea, Jauna da zurequin bedicatuba zu zera andre guzien artean, eta bedicatuba da zure sabeleco frutuba Jesus:

Santa Maria Jangoyquaren Ama, zuc erreguzazu gu becatarien gatic¹⁰ oray eta gueren eriozaco orduban Amen Jesus.

Credoa

Credo nic ginistacen dut Jaungoico Ayta Guztis Podorosoaren baitan, Ceruaren eta lurrearen criadorean baitan, eta arren Seme bacar Jesucristoren baitan, cein concebitu baizan ama birgüñaren entrañetan espiritu sandubaren obraz eta virtutes, jayo zan Amavirgüñaren gandic, padecitucuen pasio dolorosoa Poncio Pilatoren podorioaren azpian; Guruzian guruzificatu zen, ilzuten, orzizuten, jaychicen Yfernutara, andic irugarren egunean erresucitacuen il gucien artetic, iaucen ceruetara, an dago jarriric Aita Eternoaren escubietaco aldean; andic etorrico da azquen Juizioco egunean, vicien eta ilen juzgacera nic ala²⁰ ginistacen dut espiritu Sandubaren baitan, Eliza-Ama sandubaren baitan, Sanduben comunioan, becatuan, barcacioan, araguiaren resurreccioan, vicese seculacoan Amen.

Salve

Salve Jangoicoac salvacechala Reyna misericordiaren Ama, viziza, Dulzura eta gure esperanza Salve Jangoicoac salvacechala zure deyas gaude Evaren ume desterratubac ayes, negarres, suspirios beteric valle negarresco onetan, ea bada andrea, Abogada gurea izulichazu gure gana Zure begui misericordiascoac eta guero destierronetatic guacen orduan eracusi zagazu zure sabeleco frutua Jesus: O Clementisima, O Piadosa: O Dulce virgüña Maria erreguzazu gugatic Jangoicoaren Ama Santa mereci³⁰ dezagun alcanzacea Jesuchristoren promesac Amen Jesus.

II

Lakuntzan ikusi ditugun izkribu gehienak XIX. mendecaren bigarren erdialdekoak eta azken aldekoak dira. Bada, hala ere, hausterre eguneko hitzaldi labur bat, izengabea, zabarragoa izan daitekeena. Ez du, behintzat, besteen antzarik.

Uste horretan ematen dugu hemen.

Día de Cenizas

Para qué fin instituyó la Iglesia la Quaresma: se puede predicar el Domingo de Quinquagesima.

Eldudire (nere Cristaubac) Garicimeco egun santuec; egun tristiciac, eta penosoac gorputcerendaco; baño egun gozoac, eta consuelo andicoac animendaco; egun preciosoac Justoarendaco bere pecatuec derela medio Jaungoicoarequi eguin dituen zorrac pagatceco, mortifiqueren duela bere gorpuce varu egunequi, eta beste gañeraco obra onaqui: baño ascos preciosoagocoac egun santuaiec pecatari Jaungoicoas eta bere animes atcenduric dabillendaco, alcanzatceco Jaun Dinoaren misericordie, naibadu siñesqui combertitu Jaungoicoagana penitencie verdaderoatequi: ala cantacen du Elicec⁴⁰ austerre egunien Joel Profetaren Profecien *combertymini ad me in toto corde vestro in jejunio et in fletu, et in planctu. Conbertymini ad Dominum Deum vestrum.* Combertyzaitezte nere gana viotz guzti guztitic varu egunequi, negarrequi, eta suspirioaqui: Combertyzaitezte pecatari tristiec ceren Jaungoicoagana (esaten digu Profeta Santuec) cergatic Jaungoicoa da benignoa, misericordiosa, sufrimentu andicoa, *quia benignus, et misericors est. etc.* ala combidecenditu Jaun Divinoac Pecatari tristiec penitenciera Profeta Sanduonen agotic egun sandu auetan; gayego dena añaditcen du etzaitela icaratu zuben pecatuen anditasunes, bada andiec badire ere Jaun Divinoaren misericordie⁵⁰ andiegocoa da, *patiens, et multae misericordiae, et praestabilis super malitia:*

Ontara combidetcen ditu gure Eliz ama sanduec pecatari tristiec garicimeco egun sanduetan particularmente, baru egunequi eta beste gañeraco eliceco oficio, eta ceremonie tristiequi. Eta ala penitencie eguin naiduguleco demonstracioac, eta señaaliac ematen ditugu cristaubac Austerre egunien errecibierequi Aus vedicatue Eliceco Ministroen escutic; autse buruen arceco señaaliu beti izandude penitencieco señaalie ala legue zarrien nola verrien: eta ala Tamarrec, Amnonec eguin cion agravioa asco sentitu zuelaco demonstracioa emateco⁶⁰ betezuen bere burue autses,pena, eta sentimentu andierequi (lib. 2 Reg. cap. 13). Ni nerau acuseten naiz (esatencion Job Santuec Jaun Divinoari), eta eguiten dute penitencie autses beteriquen nere burue, *hago penitentiam in fabula, et cinere* (Job cap. 42). Ysraelgo gendie, icaraturiquen arrimetucenien Holofernes ayengana bere egercitu formidablierequi, aplacaciatgatic Jaungoicoaren ire ofrecitucitoten Sacrificioac Jaun Divinoari Sacerdotiec, eta beste gañeraco gendiec autses beteriquen beren buruec *et erat cinis super capita eorum* (Judit cap. 14). Mardoqueo icusi zuenien Amanec deseaten zuela Mardoqueoaren generacio guztie acabatie, eta Judio guztiec czpatan pasatcie⁷⁰ veztitucen penitencieco abituerequi betetcenzuela autses bere buru guztie, eta erregiñe Esterrec manatzuzuen eguin cezatela penitencie bere gende guztiec (penitencie) conseguitceco erregue Asueroren gandic gende guztieren libertadie, eta onequiñ conseguitu zuten deseaten zuten guztie (Ester cap. 4). Jeremias Profetac bere lamentaciotan esaten digu Siongo Ancianoac betecituzten beren buruec autses penitencie eguiteco beren pecatues, *conspererunt*

cinere capitas sua (Jerem. cap. 2). Danielec baru egunequi, eta oraciorequin batien betezuen bere burue auses bere gendieren contra Jaungoicoac zauquen ire aplacaceco. Erregue Ninivecoac aditu cionien Jonas Profetari⁸⁰ Jaungoicoa asarraturic cegoala bere eta beste gende guztien contra, demodo que acabatu naizuela berrogai egun pasatu orduco *aduc quadraginta dies Ninive subertetur* (Jon. cap. 3), amenaza icaraguirriau adituzuenien Profetaren agotic beztitucen penitencieco avituerequi bere burue austses betecten zuela, eta lo mismo eguin zuen beste gañeraco gende guztie; eta conseguitu zuten Jaungoicoaren misericordie. Macabeoac lo mismo barutuciren solemnidade andierequi betecen citutela austses beren buruec (Maca. cap. 3).

Legue berrien lo mismo izandu de constumbrie paratcie autse buruen penitencie eguiteco señaliec emateco. (Sn. Mate. cap. 11),⁹⁰ esaten digu nola Jesucristoc berac esan cioten Corazain eta Betsaidaco, gendie, ha! biotz gogorrecoac! zuben aurrien eguin dituten milagroac eguin banitu Tiron, eta Sidongo gendien aurrien duderic gave aubec eguiñenzuten penitencie beren pecatues (zubec baño obequi) cilicioarequi eta autseriqui *in cinere et cilicio penitentiam egissent*.

Ceremonie bedicatuau onela obserbatu da bada gure Elizama Sanduec legue zarrien, eta legue berrien Pecatarie penitencie eguiñ nai dutelaco señaliec emateco: eta ala vetiero Austerre egunien obserbatcen du ceremoniau¹⁰⁰ pecatarie penitencie eguiten asitceco Garicimeco egun sanduetan: lembicico bedicatcen du autse eliceco Ministroac Erramu egunien bedacatuciren erramubequi eguiñ ondoan: eta bedicacioau eguiteco dauzqui paraturic Elicec oracio particular bazuec, choil tiernoac; eta ala esaten dio Sacerdotiec Jaun Divinoari lembicico Oracioan: Jaungoico omnipotentie, ta eternoa udi-quiveza compasioa pecataries, eta barca zayozu pecatariei; igorrirazu Aingueru Santue Cerutic vedicatzera eta santificatcera Autse aubec; izan daitecen erremedioa zure icen sandue invocatcen duten guztiendaco: eta pecatariec dezela comfesarute, siñesqui damutasune arturic beroren Divina Magestadie ofenditues, berorren misericordieren bille¹¹⁰ humildadierequi eldudiren guztiendaco: eguizu (esaten dio Sacerdotie) zure icen sandueren invocacioa dela medio, autse aubec errecibicen dituten guztie alcazadezatela beren pecatuen barcacioa, eta baite ere gorputceren, eta animeco osasune (proseguicen du Sacerdotie) eta esaten dio: Jaun Divinoa, nai eztuzune pecatari tristiec condenatcie, baicic conbertitcie, udiqizazu compasioa pecataries; eta zure misericordies, begiuede hazu autse aubec gueren buruen paratcera guacenaubec onequin izan dezagun diche alcanzatceco zure misericordie dela medio gueren pecatuen barcacioa, proseguicen du Sacerdotie, Jaungoico ominpotentie, eta eternoa nai hizandu ciñuena barcatcie¹²⁰ Ninibitei cergatic eguin

zuten penitencie beztitu ondoan abitu penitenciecoarequi beteric autses beren buruec; concedizaguzu guri ere gueren pecatuen barcacioa ayec bezala arcendugun esqueros gueren buruetan autse ayec bezala penitencieren señaletaco..

Asqui lizaque (ner Cristaubac) consideratcia detencioarequi Oracio vedicatuautan Elizama Sanduec esatcen diona Jaun Divinoari, guc ezaguzeco nola empeñetcen den Elizama Sandue Pecatarie combertitute, y jardaitecen Ceruco vidian: Autse vedicatuta Cristaubei buruen paratcen asten denian Jaungoicoaren Ministroa, esaten dio bacochari¹³⁰ *Memeto homo quia pulvis es, et in pulverem reverteris*, acordaizaitte guizona autse zarala, eta auts viurtu biar duzule; acorda zaite emacumia autse zarala, eta auts viurtu biar duzule; Ytz losagarriec. Ytz terribiliec Jaun Joicoac esanac Adani pecatue eguin zuenien. Ytz aubequi naidubada Eliz ama Sanduec irezarriaraci Pecatarie Jaungoicoas eta bere animes atcenduric vicidena considera dezan bere estadu miserablie, eta consideratu ondoan detencioarequi eguin dezan Penitencie bere pecatues: eriotzaren consideracioa bada asqui lizaque bacochari arreglatceco bere vicicie; baño ontan consideratu faltan eguiten ditu Cristaubac pecatuec eta maldadieci ecin gayegos: Filosofo Gentillec Bracmanes daitcen ciren batzuec bere bicieci arreglatceco¹⁴⁰ udiquitcen cituten sepulturec idiquiric beren atarrietan acordatciagatic ichetic ateratcien eta sartceracoan eriotzas; beste batzuec jaten zuten guizonen calabazarqui eguñicaco cazoletan acordatciagatic jatien ere eriotzas, memorionequi arreglatceco beren bici modue. O! nola confunditcen dute Cristau flojoa Filosofo virtuoso aubec cer eguñen ezotezuten izandu balire Cristaubec esperatcen zutenac eriotzarequin batien Jucioa, eta Juciotic eternidadeco penac, edo Glorie eternoa?.

Baño gauza negargarrie por cierto! Cristioac ez pensatcie eriotzan eta gayego dena ez aditu nai izatie eriotzaren gainian itz¹⁵⁰ eguitie Jaungoicoaren Ministroac: Guizona arquicen bada peligroren batien estimatcen du norbaitec avisatcen badu peligroartas libratceco Peligrotic, eta ala videbatian badoye, eta norbaitec esaten badio Guizona etzuacela vide ortatic lapurrec esperandaude etc. General batec eman biarbadu Batalle bere enemigoaren contra estimatcen du abisetcen badu norbaitec cenbat gende dauquen bere enemigoac, cemat infanterie, cemat zaldisco, cer artillerie, cer posicio ocupecen duten bere enemigoac etc. Onequin trebe bada batalle emateco edo besetela erretiretceco: baño Cristioac eztu aditu nai eldudela eriotza ciertoa, eta ontaraco ezpada preparatcen galdue dela. Gauza negargarrie!¹⁶⁰ eragani paregabeco! Eriotzan ez pensatciec luzatubaleza Gure vicie bueno, edo ontan balego eriotza ez etorcie orduen arrozobie udiquilezaque, baño gure escuendago vicie luzatcie, eta ez etorcie? ez por cierto, eriotza da ciertoa, eta gure vicieci eztauque seguridaderic egun bateco ere...

Da ciertoa, da fedeco misterioa *estatum est omnibus hominibus semel mori post hoc autem iudicium* ala dago decretaturic Jaun Divinoaren decretoan: ezpaliz fedeco misterioare eguiatu dago ongui demostraturic esperienciarequi, nun dire gure aurrecoac? Orai 100 urte, orai 500, orai 1000 orai 2000 vici cirenac? illciren. Adan¹⁷⁰ vicitucen 930 urtes baño illcen. Malaleel 895. Jaced 962. Matusalen 969. Noe 950 urtien baño guztiec illciren. Gueroztic gucioc ill viardugu? eztago erremedioric, ezta escapatuco emendic guizon aberatsenbat bere interesaquei? ez Jaune, guizon jaquinsube bere jaquindurierequi? eztare.. Izanagati eriotza ciertoa: balu guizonaren viciec seguridade piscuat, orduen vicilaiteque bat descuidaturic, baño ezcaune eztauque seguridaderic egun batecore: Isaias Profetac esanen digu guizonaren vicie dela campoco belar, edo lorebat vezala. Job santuec arbola baten ostoa aiciac botacen duena bezala. Salomonec laiño piscoatequi comparecendu guizonaren vicie. Dabiddec que, edo¹⁸⁰ itzal batequi. San Crisostomoc dio lastercan doiela gure vicie eriotzaren bille postabat, edo corrio bat bere vidien bezala, edo balazoat fosilletic atera, eta blancora doyen becin ligero.. San Doroteoc dela gure vicie vide bat dena peligras vetia, San Basilioc dela comedie bat bezala: ola esplicacen dire Doctore Sanduec: Nola bada escapatuco da guizona eriotcetic? Guizonac naturalmente defenditu naidu bere vicie alimentuerequi, gaizquitcen bada medicamentuequi: eta cembatec opatu dute eriotza alimentuen, eta medicamentuen?. Plinioren demboran contatcen cituten Medicubec 300 emfermedade genero guizona illcecoac. Hebreo jaquinsuec contatu cituten 907 emfermedade genero¹⁹⁰ guizona illcecoac. Elementu guztiec dirade enemigoac guizona illceco urec itotcen du, subec erretcen du, aiciec acabatcen du, lurrec tragatcen du... nundic nai eldude eriotza nola eztaquiela. Nafarroco Erregabat arquitcen cen emfermo, eta Medicuec aguindu cioten empapatceco bere gorputz guztie aguardiente fuertes egunoro, operacioau eguiten aricela bere Medicue, lotu ondoan oyalac, edo mulluec arie ebquitceco etzauquen escueran Burice eta arrimetu zuen bela, eta onequin Polvorac bezala su artu, eta illic guelditucen. Ona nola ari betian egunducen Erregueonen vicie.

Emendic atera zagun contue zain laburra den gure vicie, eta zai²⁰⁰ combeniden preventuric bicicie nere cristaubac. *Ecce nunc tempus acetabile etc.*

Bibl.:

Lakuntzako parrokian dagoen bildumatik jaso.

Argitaragabea. 155 x 215. Lau orrialde.

40. HERNANI (1847)

Herritako maisuen egoera ezin bestekoa zen garai batean. Lazaro Ayerregaray, bernaniarrak, bazekien horren berri. Hogei urteko ofizioa eta hamabi seme-alabarekin miseria gorrian zeraman bere bizia.

Tolosan zegoela bertso paperak paratzea bururatu zitzaion, horrela txanponen bat ateratzeko. Argitara aurretik Elizaren baimena eskatu zuen, eta elizgizonek ukatu.

Agintariak Tolosako Furundarena apaizari eskatu zioten bere kritzia eta honek Altzoko Mintegigaray baten gain utzi zuen arazoa.

Elizaren dotrinari baino garrantzi gehiago ematen zaio, nonbait, hizkuntzari epailearen oharretan, eta bertsoak bezain jakingarria da gutuna.*

I

Corputza triste daucat
Penetan jarriya,
Animan sentitzen det
Gutzizco Egarriya;
Badaquit datorrela
Egun bat larriya,
Eman biar deguna
Contuba garbiya,
Ahi ura ordubaren
Ycaragarriya!¹⁰

Descuidatuba iltcia
Ezdu ascoc uste
Zarrac vici dirala
Juaten da bost gazte;
Guchic irauten baitu
Eun eta oguei urte
Ycusten dira cembait
Eriotza triste,
Beldur naiz guertatcia
Guri beste aimbeste!²⁰

* Mzo y Mayo 12

mi estimado Dn. Vicente: he recibido la tuya con los papeles que le acompañaban, (y que te los devuelbo) y he leído tambien la versificación del Mro. que fue de Pasages Lazaro Ayerregaray, á quien lo conozco, lo que respecta á la narracion de Dios y su creacion del mundo, apenas se advierte error y si conformidad con la sagrada historia del genesis, y en cuanto al Misterio de la trinidad, tampoco, sino es en el verso 4.^o linea 2.^a, donde dice, chit diferenteac, debiera decir, *chit distintoac*, porque en teología se llama y debe llamarse distincion real, y no difrencia, aunque veo no bien que en el catecismo nro de los niños suena tambien asi, no debiendo, sin que por eso se repate hergeia formal, y si solo material.

El sentimiento de Ayerregaray es bueno para que los fieles se ocupen de uno de los 4 novisimos, que es el de la muerte, pero en su pintura la espresion de su idioma tiene impropiedades, que deben desagradar á cualquiera, y abunda tambien en castellanismo ó españolismo, que nos ensucia nuestra lengua natural, por que nadie procuramos perfeccionarla. Se ensaña mucho contra la codicia, pero se guarda mucho contra elvicio de la destemplanza y borrachera; producto propio de un pobre desarreglado: manifiesta poca inteligencia de gramatica y del idioma nativo en varias partes, por ejemplo en el 2.^o verso no sabe el verbo bascongado *ouartu*, ú *oroitu*, y pone *uartu*: ha andado á caza de asonantes. Otro Maestro que ha sido de Amezqueta y hoy vive en San Sebastián con su hijo, Vicario de Sta. M.^a, versearia si quisiera con otra finura y correccion y acaso algunos pastores de Amezqueta.

El ilustrisimo nuestro á otra obrita mas interesante del Maestro de Elduayen no le dio su licencia pedida. Te he explicado mi juicio formado, sin reserva alguna, bajo confidencia, y haras el uso que te parezca de estas advertencias mandando lo que quieras á este tu afectisimo amigo etc.

Jose Antonio de Minteguinga

Zartu eta vista juan
Baita ere erdi gortu,
Gaztetasun artara
Naieta ecin biurtu;
dembora nola juan dan
Ez guera uartu,
Penitenciyaraco
Corputza biartu,
Pecatari tristiciac
Cer eguin biar du!³⁰

Pensa dezagun ondo
Mundura jayoac
Cembat maite gaituben
Gure Jaungoicoac;
Pecatu baten gatic
Ceruco Ainguerubac,
Errecibiturican
Daozca inferubac
Ascocho ditugunac
Atera contubac.⁴⁰

Calabazac demboraz
Dacarren loriac,
Enamora dezaque
Aren coloriac
Egunaz quentcen diyo
Eztiya Erliac,
Armiamac gabetan
Veneno fuertia,
Modu onetan dira
Gure virtutiac.⁵⁰

Au bera da gurequin
Pasatutcen dana,
Batzubec pecatu eguin
Bestiac obra ona;
Nere adizaliac
Ez da bada pena,
Guc ez escogitcia
Guerentzat on dana,
Obra onaquin juateco
Jaungoicoagana!⁶⁰

Ceruraco bi vide
Dira nere ustian,
Bata inocentciya
Persona gaztian,
Vide au ichi bada
Sayatu bestian,
Penitenciya da eta
Au erraz uztian
Pensa nola daducan
Anima tristia!⁷⁰

Bi guiltzaren azpiyan
Daucagu mingaña,
Barren daude ortzac
Campotic ezpañac;
Jauna alabatzeco
Emana da baña,
Aleguiña guciyan
Progimoa dañä,
Aurretic ongui esan
Atzetic engaña.⁸⁰

Cristabac bear degu
Gueren señalía
Gurutce Santuba eta
Yduqui fedía,
Baí eta onetan artu
Esperantza firmía
Baña fede utsa badu
Eta ez caridadea,
Yzango da arbola
Fruturic gabea.⁹⁰

Ez da Ceruban sartcen
Munduco Yzairic,
Progimoaren odola
Chupatcen dubenic;
Contubac atera ondo
Bacoitzac lendanic,
Anima garbitceco
Cer zayon conveni,
Eternidade arrec
Ycaratcen nau ni.¹⁰⁰

Altu eta estuba da
 Ceruraco escala,
 Pecatuz cargatuba
 Ygoco ezta ará;
 Juiciyo tremendotic
 Ez guindezque escapa,
 Larru gorriyan dago
 Jaunaren ezpata,
 Confesiyo on batequin
 Mudatcen es bada.¹¹⁰

Ea bada gendiac
 Ecarri gogorra,
 Norgatic Ysuri zan
 Jesusen odola;
 Mudatu nai badegu
 Orain da dembora,
 Aurrera espero dana
 Agudo Juango da,
 Ez dezagun iduqui
 Viotza ain gogorra.¹²⁰

Jaincoac deitcen gaitu
 Guc aditu nay ez
 Cein esquer gabia dan
 Criatura berez;
 Guregatican Jauna
 Josirican iltces
 Gurutce artain iltzan
 Usturic odolez,
 Nola viotza etzagu
 Partitcen dolerez.¹³⁰

Cein itsu vici gueran
 Baña cer beguiyac,
 Paratuco dizquigun
 Azque Agoniyac!
 Memoriyara etorri
 pecatu guciyac!
 Ecin illic despedidan
 Corputza icerdiyac
 Jaungocoari escatcen
 Misericordiya!¹⁴⁰

Au da lantce estuba
 Eta terriblia
 Danac pasa biagun
 Nai gabe tristia!
 Ez guera asco oroitcen
 dembora batian
 Zartu eta bederen
 Mudatu gaitian,
 Ez diteque Salvatu
 Ympenitentia.¹⁵⁰

Munduco despedida
 Etorrico zayo,
 Orra asé intereses
 Semiac adiyó;
 Adisquidiac ere
 Ez dute valiyo,
 Santo Cristo escuban eta
 Erregutcen diyo
 Baña au icusten du
 Ysil eta seriyo.¹⁶⁰

Agoniyán dagüenac
 Dudarican ez du,
 Anima larri eta
 Corputza dauca estu
 Gaizqui eraman badu
 Etzayo ere aztu,
 Herederuac escaca
 Buruba ere nastu
 Diabrubac onela
 Anima nai du ostu.¹⁷⁰

Guizon jaquinsuna eta
 Dirubac izanic,
 Ez diyola valiyo
 Esan dezaquet nic;
 Zaspí oiñ luze eta
 Beste bi zabalic,
 Enterratu eman gabe
 Munduco caudalic,
 Au da pobre tristia
 Ez badu obra onic.¹⁸⁰

Esplicatu det bada
Daquidan doctriña,
Gauza biarra da eta
Gutziz Atseguña;
Ycasi Jaungoicoa
Servitceco diña,
Nola vicitu gueran
Eguin examiña,
Penitencyarequin
Salvatcen vaguña.¹⁹⁰

II

Cerubac eta lurra
Criatu baño len,
Gure Jaincoa bera
Beregan cegüen;
Ycena zuben gaucic
Etzan an eta ez emen
Amoriyoac nonbait
Ventcituric arren
Danac eguin cituben
Sei bat egun barren.²⁰⁰

Etzan lurric, ez uric
Ez eta Ceruric,
Gure Jaincoa bera
Beregan besteric;
Baña onec nola etzuben
Artutcen lecuric
Espiritu purubac
Etzuben bearric,
Beregan cegüela
Ez dago dudaric.²¹⁰

Yzanic poderia
Eta facultade,
Reservatuba egon zan
Eracutsi gabe;
Nai batequin eguin zan
Guciyen autore,
Cerubac eta lurra
Criaturen jabe,
Norc examinatcen du
Ainbeste favore?²²⁰

Yru persona dira
Chit diferentiac,
Jaungoico bacarrian
Asiera gabiac;
Graciya ematen badit
Jaungoico maitiac,
Esplicatuco ditut
Ayen izatiac,
Comprenditciagatic
Gende inocentiac.²³⁰

Aita Eternoaren
Entendimentutic,
Seme Divinoa da
orain eta beti,
Espiritu Santuba
Amorez beteric,
Aita eta Semiaren
Vorondate osotic,
Yrurac izate bat
Naturalezatic.²⁴⁰

Adimentuba baño
lenago ez da Aita,
Vorondatia igual
Au eguiya baita;
Yzatian berdiñac
Onec ecin falta
Ala icasi guenduben
Jaungoicoac naita,
Yru persona baña
Jaungoicoa bata.²⁵⁰

Principiyo gabiac
 Ez dezaque izan
 Bere Autorerican
 Aguiri dan guisan;
 Guciyen eguillia
 Jaincoa bera zan,
 Beguira cein zucen eta
 Ordenan dabilzan,
 Yguzqui, Yllargui Yzarrac
 Poderiaren fuerzan.²⁶⁰

Jaincoac eguin zuben
 lenengo arguiya,
 Andicanche asi zan
 Beraren graciya;
 Bigarrena Ceruba
 Aingeruz jantciya,
 Jaquinduriz betiac
 Jauna iduriyac,
 Au degu bada obra
 Admiragarriya.²⁷⁰

Bi egun pasa eta
 Yrugarrenean
 Lurra eguin eta aldatu
 lecu apartian;
 Cergatic para zuben
 mundu au airian,
 Ceruba urruti eta
 Ynfernuba aldian?
 Cer peligroan gauden
 Oroitu gaitzan!²⁸⁰

Ceruetatic Lurra
 Pararic aparte
 urac onen gañian
 Seguituban daude;
 Ybai aundi chiquiyac
 Artcen dute parte
 Ytsaso Yzugarriya
 Formatutcen dute,
 Mundu guciya ez daquit
 Nola ez duben bete.²⁹⁰

Yguzquiya, Yzarrac
 Eta Yllarguiya,
 Laugarren eguneco
 Jaunaren graciya;
 Oyetan bacoitza da
 Misteriyo aundiya,
 Gure conservatceco
 Eguiña guciya,
 bestela acabo zan
 persona viciya.³⁰⁰

Zaspi colorequin
 Jaunac para zuban
 Yguzqui eder ori
 Ain lecu altuban;
 Cerequin formatzen zan
 Ycasi nai nuban
 Baña ez da cabitcen
 Guciyen buruban,
 Cierto jaquiteco
 Galdetu Ceruban.³¹⁰

Jaunac para cituben
 Bostgarren egunian,
 Egaztiyac airian
 Arrayac urian;
 Seigarren egun edo
 Biyaramonian,
 Animali guciyac
 Guizona Azquenian,
 Soberaniyarequin
 Lurraren gañian.³²⁰

Azqueneco despedidan
 Nua esatera,
 Guciyen autoría
 Dala Jauna bera;
 Argumento gueyago
 Ez det nay atera,
 Baldin ecin Sinistuz
 Ybilcen baguera,
 Demboraz dudatican
 Ateraco guera.³³⁰

Bibl.:

Arch. Dioc. Pamplona. Varios.

41. IRUN (1854)

Pierre Lafitte adiskide obiak eman zidan euskal izkribuen bilduman, Irungo zaindaria den Juncaleko Amaren izenean egindako sermoi bat agertzen da.

Liburu santuetatik hasi eta historian zehar ezagutzen diren pasaizo askoren atzetik, Irungo herriari dagozkion azken denboretako gertakizunak gogoratzen ditu bizlariak.

Esaten dituen gauzen arabera, 1854ko izkribua izan daitekeela, esan dezakegu. Hori bera zioen bere oharxoan Lafittek.

Juncal

Tu gloria Jerusalem, tu laetitia Ysrael, tu honorificentia populi nostri. Zu cera Jerusalengo gloria, zu Israelgo atseguña, zu gure errico honra gucia... (Judith c. 14 v. 10).

Asirioen aguintari odolguiro batec ceucan sitiaturia eta inguratua tropas Betulia ceisquion Ysraelco erria, goseas eta miserias estutuac, odolas eta corputz otzas icaratuac, etsuten ecusten barrengoac aldeguccietan berentzat ezpada eriotza baña ceruac erri edo erreino bat bere lurreco aleguin guciac aituta ere estuasun eta perilletic atera naiduenean, daqui billatzen bide bazuec guizon jaquinzueusat gordeac: emacume alargun gaste eder bat, doayez jancia, graciis betea, eta virtutes apaindua da erri leyal au libratzeco jaunaren bitartecoa gaur: asturic emacume baten beldurtasun eta icara naturala badijoa Judith ederra etsayaren billa, soldadu Asirioac ecusi eta esagutu¹⁰ zuten becin laister Betuliacoa zela, artu eta eramaten dute Holofoernes icaragarri arren aurrera, baña gausa arrigarria cristavac, Jaungoicoa dabil bere bideetan guizon gogor otsoa baño odolquiroago ura, emacume arren graciac, arrazoy eta itz estiac choratzen dute, eta ez bacarric ongui etorria eguiten dio baicic aguintzen die bere ondorengoari inor emacume arri ezdezayola eragotzi nay dube-
nean batera eta bestera ibiltzen eta egun artan convidatzen du bacarric bere mayan jatera. Holofernes soroac esagutu gabe Juditen virtutea ilusios eta poscarior betea uste gabean, edariac calte eguiten dio eta erortzen da errenditua lo pisu batean; Oh Judith ederra! emacume indartzua! Zure²⁰ ordua orain iritsi da! Zure erriaren azotea, zure Jaungoicoaren etsaya, zure anayen catea,

aurrean daucasu baña, etsaitu atseratuco tirano icaragarri orrec, lurra bera ere icarutzen duena eta bere aurrean beti daramasquina goseteac, negarrac, gue-rrac eta eriotzac? ez, bere espatas ebaquitzen dio lepoa, buru itsusi ura gorde eta iristen da Betuliara, eta ecusiric erritarrac triste eta valores eroriac zeudela, animatzen ditu andre onec esanas: Nere anay eta Erritarrac garaytu degu, orain animoa; ono emen Holofernesen burua, goacen bereala etzayaren billa, eta icusten diranean atacatuac eta guidariric gabe, emango dute errevelatuac eta icaratuac igasiari; ala³⁰ guerdutzen da, Asirioac deseguinaac dira eta Betulia-rrac pozas eta atseguñas betiac, denac esaten diote Judith ederrari *tu gloria Jerusalem, tu laetitia Israel, tu honorificentia populi nostri* zu zera Jesuralengo gloriya, zu Israelgo atseguina, zu zera gure errico honra gucia. Itz ederra cristavac, erri batec bere onguilleari esquerrac emateco, itz ederrac ceñac zuen aoan Irundarra, particularqui jarri bear luqueten gaur Mariari esateco, cergatic au da eguias erri onen amparoa eta honra gucia *tu honorificentia populi nostri*. Ezda Betulia bacarric sufritzen duana cristavac, Adanec pecatu eguin zuan esquerostic, arren ondoren tristiciac mundubac ongui probatzen ditu⁴⁰ eritasu-nac, miseriac, pesteac, eta eriotzac dira gure lagunac, alde gucietan ezda ez bada beldurra, eta negarra, eta Israelco nacioac arquite balin bazuen Judith ura, etsaigu guri etorrico, gure gaitzac sendatuco disquiguna, gure egun doacabeac arinduco dituana? Bay cristavac, profetaren promesac asi dira cumplitzen, patriarcac ichooten zuten dembora urbilzen da, Israelgo erreynoia ya erori da, Judaco erregueari cettoa escuetatic igues eguin die, Jaungoico falsoan aldareac erortzen dijoas, eta lurra iriquico da Mesias emateco, Asque-nean iritzi da ordu sori(o)nicoa, izar bat aguertu zan egunic ederrenaren aurreco, egusqui garbia lurraren illuntasuna arguitzeco;⁵⁰ Aetam eroriari aguin-dua 4.000 milla urtean negarrez zay cegoen libratzallee, Judith paregabea etorri da, cristavac, guretzat; Maria jayo zaigu: eta cerua onen jayotzan alegratu balin bazan, lurra poscarios eta atseguñes gaur bete bedi! baña gure poscarioa esagueraquin izan dedin nay nuque aldedan gusian esagutzera eman Mariaren jayotzac ecarri ditun ontasunac munduari eta gure erreynoari, eta erri oni dion proteccioa, ondaraco cristavac, nere indarrac escasac dira, beraren gracian ongui bearretan naiz, nere itzac escas dutena ere, zuen fedecac zarri dezela, lagun nazasute bada esaten angueruguei: *Ave Maria*.

Gogora (ecarri) ditzagun instante batean lenengo guizonaren pecatuac mundura ecarri zituan gaitz eta calteac, baña ez gueyegui luzececo utsi ditzagun alde batera pecatuac lurrean eguin zuan aldaira edo mudanza, jaungoicoac bere asarretasunean bota zion madaricioa, quendu zion ugarita-suna, guizonaren contra alchatu cituan elemenduac, sortu zituan pena eta aranzac egun gucietan; jayotzean eman zioscan malcoac, aunditzean nayga-beac, eta asquenean eriotza; oyec ez dira jaunaren gorrotuaren asiera baicic;

oraindic gueyagocoac guizonac berequin ditu Arrazoy garbiaren arguiac jaquinezteac edo ignoranciac itzali duzca, barreneco guerra bat (viotzean) jayo zayo paquearen⁷⁰ descansuan toquian, pasioaren indarrac arrazoya zapatu dio, viotzaren biguintasuna gaiztaquericac gogortu dio, eta vicioaren aunditasunac virtutea ere aspiratua dauca: uralde edo ibay aundi batec aurean arrapatzen duan gucia daraman becela, orobat pecatu jatorriscoac eraman cisquigun ontasan guciyac. Ecerere etzan munduban guelditu gaitz arren ondoren gabe, gay gucia corrompitua, eta Adanen Semeac mandaricatuac entregatu ciran itsusqueri lotzagarrietara, diluuioc ere etzuen gaitza piscabat guelditu besteric eguin eta arren ondoren bereala munduba berris erori zan loiqueri aundietan. Gizona astu zan bere izate gucias, religioaren loquian jarri du pasio gaistoan brida⁸⁰ gabetasuna, eta jaungoicoan aldarean bestiya itsusi bat; asqueanean, locatzetan dabilztein pistiyac, soroetaco landareac, eta ceruco izarrac dituste lurrean adoratzalleac; orduco jaquintzuac ere beren inguruco ejemploquin itsutuac ceuden, eta Grecia, erreyno mundo gucico escola, jaquindurian aunditasunes betea, belaunicatzen da Phedeseac eguin zuen arrisco idolo bati; ambicio cruela ere, ceñac erreyno bat aundiceagatic odolez, betetzen dituen beste guciac jaungoicotzac adoratua da, cristavac, Oh guizon itsua! dio Tertulianoc, eguiten ditusu jaungoico bazuec ceorren semeac nay etsiñusquenac imitazea!, onela creaturac ebatzi zeon jaunari,¹⁰⁰ berari bacarric zorritzayon gloria, itz vatean, mundubac galdu cituen vide on guciac, eta etzan iñor ere zuzen cebillenic, *non est usque ad unum* Oh nere jaungoico maitea! au gausa icusgarria zuretsat! au da zure escuetatic atera zan obra ederra, paquearen toquia eta virtutearen gordelequa? au da lenengo guizon doayez betea, munduaren erreguea, zure escuetatic irten ciren mirari gucien nagusiya? eta jauna onela utsico gaitusu beti penaren erdian, negarrezco valle onetan, beñere guretzat egun bat ederra aguertzen ez duela?, onela vici beardegu beti, esclavoaren guisa, azotean eta asarretasunean aspian, benere icusten ez degula zure arpegui ori alaya? ez, cristavac, ez, jaunac¹¹⁰ aditu ditu justuban otoitzac, gaitza aundia da baña erremedioa ere guciaquicoa, guizonac bere burua lotu du, baña badator cateac ausico dioscana Justiciasco egusquiya aimeste me(n)detan gordeta cegoena, asi da egunsentian bezela bere arpegui ederra aguertzen, gau illunean munduac ichooten zuen goueco izarra aguertu da, Maria jayo zaigu, eta bere jayozac infernua garaytu(co) du, ceruco ate ichiac irequi ditu, eta guizona orain jaungoicoaquin adisquedetuco da: ez guera gueyago infernuaren aspico cergatic Mariac emango digun salvazallea, ez guera gueyago Eva pecatariac semeac, cergatic ama berri bat amorios eta misericordias betea etorri da lurrera, ez guera gueyago gende¹²⁰ madaricatuac jaunac, cergatic nacio guciac bedeincatuco ditu ama onen semeac *Benedicentur in semine tuo omnes gentes terrae* Oh sorieneco ama! cer ontasanac ecarri ditusun mundura! Cer amoria eracutzi diozun Adanem semeaari! Cein

ederrac zaizquian zure ibillera denac Daviden alaba! *quam pulchri sunt gressus tui Filia principis*. Baña cristavac, mundubac denac probatu baditu gaurco egunaren ontasunac, Erreyno denac bete baditu Mariac graci eta doayes, ah nacio nere! zu izan cera denetan autatua *non fecit taliter omni natioi* Beti gogoan iduquico ditugu egun triste eta desolatu ayec, cenetan erremonoac ecarri cisquiguten espataren puntan bere legue gogorrac, edo gu lotzeco¹³⁰ cateac. Beñere ez dira astuco dembora illun ayec cenetan Norteco barbaroac, arrano goceac becela sartu cisaisquigun gure ontasunes eta odolas asetzera, purrucatuas aurean jartzen cizayoten gucia, erriac eta elisac erreas, virtutezco echeac profanatuas eta eriotzas beteac zebiltzen bideac. Egundaño etsaigu burutic joango mende negargarri ura Mahomaren soldadu odolguiroac desembarcatu cirana gure costetan, lapurrac becela arrapatzeco ez bolsa eta vicia bacarric, baicican doncella inocente asco, gurasoen esperanza bacarra, cates cargatu eta esclava deshonrratzeco, eta seme eder franco miserias eta azotes mazmorretan edo carceletan iltzeco. Oh nacio maitea! lutos, lutos¹⁴⁰ janci cinezque, zure erregueac illac edo iguez eguin dute, sure semeac derrotatuac mendietan gordeac daude, zure etsayac asco eta indarsuac dira, zure aleguin guciac garaytu ditu, etsasu besteric guelditzen zure religioa eta fedea ezpada. Oh urte tristeac! badirudi gure religioa eta Erreynoa agonian ceudela. Baña ez, cristavac, Mariac eracutsico du bere besoaren indarra, *fecit potentiam in brachio suo* munduaren arabera ecin litesquen victoriac erabacico dituste Jaungoicoaren esperanzan eta Mariaren proteccioas, garaytuco dute cergatic Mariac gogoracico diote Macabeoaren itz eder ayec esanac *Melius* etc.; obedegu milla bider ill esenez ecusi gure nore gure¹⁵⁰ aurrecoari aimbeste estuasunen ondotic, eta aleguin guciac acabatu onduan, garaytuac seudela, eman cioten ain valore eta indar aundia etsayaren contra joateco ezpada fedearen gar bici arrec eta Mariaren laguntzac? Norc contatu nacio onec cer zor dion Mariaren laguntzari jayo zan mendetic gure egunetaraño?. Guizon jaquinsuac ematen diote fede aundi bat munduco gausetan oroicarri edo monumento aspaldicoari, eta ayegatic cinesten dituste obeto contatzen diran lenagoco gausac, cergatic diran liburu escribitua bano siñisgarriagoac: ala S. Marcialgo ermita orrec erreberretzen digu, orain iruregun urte eta gayagoco batalla, nola aurren dagan tumba edo oroicarri orrec¹⁶⁰ gogoratzen digun orain.

Izen bat: Ah! eta cembait oroicarri billatzen dira gure erreynoan aditzera ematen dutenac Mariac digun proteccioa eta gure aurrecoac cioten eskuerra? Cer da Cobadongaco santuario, Madrico Atocha, Malagaco Victoria, Toledo-co sagrarioa, Zaragozaco Pillarea, Bilbaoco Begoña, Onatico Aranzazu, eta, cer da cristavac, nagoen templo au bera Mariari (Juncalecoac) izenenean, erri onec zor dioscan gracion oroicarria ez pada? Sinistu beardegu gure aitac

motivoric gabe alchatu zutela eliza au errian baster onetan, toquiric costucoenetan, eta alrrebesenean? ez, ez, ez gaitzela ain jaquinsuac eguin eta ayec ain¹⁷⁰ itsuac, errespeta dezagun gueyago gure gurasoen fedea et ez dezazutela ayen obra condenatu munduco jaquindurias, cergatic au da imagina zuen devocioco orrec autatu zun toquia, eta emen Juncal oyetan nay izan zun bere egon lecuca eguin, eta Irundarrac ejemploquin probatu beardet Maria Juncalecoac beti dizuten laguntza eta proteccioa? Escatu duzuten graciric beñere ucatu dizute?; eliza ontan oraindic izango da norbait oroituco dena nola 1800garren urtean eritasun aundi batec zaramaisquin erri onetaco ganaduac, famili necazarietara ecartzen zuela negarra eta miseria, aspertuac erremedioas eta gaitza beti au bera, asquenean oroitu ciran Ama Virgina Juncalecoas, atera zuten Procesioan, eta¹⁸⁰ gausa arrigarria! egun artan ganaduen pestea gueïditu zan: 1.803 eta 1.824 legorte luce batec galdu nay zitun campoco cosecha gucia, dempora cijuan aurrera eta etzan euriaren esperantzatic, ateratzen dute zuen imagina debota au, egusqui erre naizuen batequin, eta inon ere ceruan agueri etzala oderic, eta, nor sinistu lezaque icusi ez pecenduten, calearen erdira joan ciraneraco euri ugari eta eder batec imagina bera zar asi zuen eche batean; 1,828, 1832, 1853 ceoc cerate lecuco eta esan zazute Maria Juncalecoac ucatu ote cizuten escatutaco gracia urte ontan bertan Irundarrac, cer escatzeco atera cenduten imagina ori cale oyetan barrena? Eritasun icaragarri bat aisan urrutiyan negarra erriotan zabalzen, orduban fede (escas) uts batequin¹⁹⁰ gaitza urruti zelaco, escatu guenduban, eguiya Mri. libra zezela bere erriya azote izigarri ortatic, baña colera guerogo ta aurreago, asquenean icusi degu gure erriya etzai gogor ortas inguratua alde ontan eche bacoitzean corputz bat, bi, iru; emen ere chit urbil, baña gure lurra, naiz eraqutzi digun ez gaudela peligroric gabe, ichasoan asarrean arcaitz aundi bati bezela libratu du Maria Juncalecoac peste orretatic.

Bana, ahi! esdedilla gure fedea ostu, oraindic eta beti bearretan gaude, etsaya chit urbil daucagu, eta usteric guchienean etorri liteque, baldin Maria oraindano becela ezpadegu protectore. Bay ama²⁰⁰ maitea gure esperanza zugan beti aundia da, aimbeste bider aritu dezu gure otoitza gaur ere eracutzi digutsu sure preteccio aundia, nais pecatariac gueran, beinzac zure semiac guera, emansasu suc ere aurrera esagutzera cerala gure ama eta protectorea, Irundarrac pozas beteac Betuliatarrac bezela esan dezaten zugatic zu cerala errico ontaco gloria, atsequina eta honra gucia.

Bibl.:

P. Lafitte zenaren bilduma, JMS-k jaso.

Argitaragabea. 155 x 215 mm. (11 orrialde).

42. SUNBILLA (18.)

*Zabalkunde haundia eta harrera ona izan zuten une batez santuen bederatziru-
rrenek Kristau herrian. Urtean zehar banaturik, santu eta zaindari bakoitzaren
eleiz-festa girotzeko sortu ziren.*

*Ospe haundiko santuen elizkizunetan baziren goratarre eta kantu bereziak ere,
espreski horretarako eginak. Goratarre horietakoak dira “Gozuak” izeneko ber-
tsoak. Erdaraz egin obi ziren gehienetan eta euskarara itzulia izan zen bakarren
bat edo beste. Oraingo behintzat ez da asko ikusten.*

*Elizondon dagoen Baztango udal artxibotik datorkigu honako hau. Sunbillako
Larrakaiztarren bilduman aurkitzen da eta Juan Bautista Arrechea batek izenpe-
tzen du eskuizkribua. XIX.mendeko paper hau zabarragoren baten kopia dela uste
dut.*

*Erdal iturrien kutsua nabarmena izan arren, herriak ahoz eta gogoz errepika-
tutako zerbait da, euskararen lekukotasuna badu, eta Euskal Herriak munduan
zehar izan duen mezulari haundienaren izenean egindako bertsoak dira.*

San Francisco Jabier Yndietaco
Apostoluaren Gozuac.

1.^a Bada Milagro eguillia
Zara Apostolo Santuva
Yguzu Jabier escuba seguizeco etc.⁵

2.^a Zu Nafarruan Jayua
Parisen Maestru izanziñen;
Ygnacioren eguin ziñen
Parisen discipulua:
Poderoso izaitia¹⁰
Ceindeucan despreciatua.
Yguzu, etc.

3.^a Aita Sanduac Ygorreric
Nuncio, pasacenzara
Erromatic Yndietara¹⁵
Anunciatuz arguituric
Jesu Cristoren fedia
Vztenduzu plantatua.
Yguzu Jabier, etc.

4.^a Ogueita amar milla leguan²⁰
Predicazen ibilliric
Millaca batayaturic
Vztentuzu indietacoac,
Jende ascoren lengogea
Ynstantian minzaturic²⁵
Yguzu Jabier, etc.

5.^a Yguzquiya zuc gelditu,
Zerutic sua botatu,
Lurian instantebatez
Bi lecutan cen arguitu,³⁰
Ura, sua, lur, aiziac
Zeindeucan sugetatua.
Yguzu Jabier, etc.

6.^a Profeciac ziertuenac
Eun milla izanziran;³⁵
Yruoguei eta zorzi
Bistuziren illic zaudenac;
Asco Justuren javia
Dago zure predicuan.
Yguzu Jabier, etc.

7.^a Plebeyo eta nobliari
Dirua diozu aumentazen,
Ondasuna mejorazen
Aberas eta pobriari;
Vmeric eztuen andriac⁴⁵
Zugatic da Ama deitua.
Yguzu Jabier, etc.

Quisu bisciyac ezuen
Vquitu gorpuz zuria,
Zure medioz zure dulcia⁵⁰
Isasoac emanzen
Vztendezu ere libria
Izuria zen lecu.
Yguzu Jabier, etc.

8.^a Da nobenario zura⁵⁵
Zugatic inspiratua,
Milagroquin laudatua,
Faborez ere betia;
Norc duen umildadea
Fite izanen da aditua.⁶⁰
Yguzu Jabier, etc.

Bada milagro eguillia
Zara apostelu santua.
Yguzu Jabier, etc.

*La(u)s Deo.*⁶⁵

Bibl.:

Baztango udal-artxibua. Elizondo.

Palacios y casas de Baztan, leg. 69. Casa Larracoiz.

J. M. SATRUSTEGUI. "Gozos populares en vascuence", ASJU XIX-1 (1985), pág. 121.

43. LESAKA (1857)

Nafarroan mendialdeko bortz-hirietako bat da Lesaka. Aintzinako denboretatik izan du nortasun haundia. XIX.mendearen erdialdean baziren zazpi apaiz parrokian. Hogeita bost urteko Anastasio Echeverri zen 1857an gazteena. Urte bat egin zuen herrian eta denbora horretako hitzaldiak utzi zituen idatzita. Jaun hau Elizondon sortu zen; eskola-maisua zen bere aita baina jatorriz aezkoarra. Nola nahi ere, Lesakako euskara ezagutzen zuen, eta bizkuntza herrikoia egiten abalegintzen da.

Une hartan ez zen bi mila biztanleetara iristen herria. 1802ko berriak kontutan harturik, 322 etxe zituen eta 1806 arima.

Atal bonetan emandako izkribuen egilea nor den esan ondoren, ikus ditzagun bere predikuak. Hiruak Orreagako bilduman jaso nituen.

I

D.^a Santissimae Trinit.^{s}*

Docete omnes gentes, baptizantes eos in nomine Patris et Fillii et Spiritu Sancti.

Math. c. 28

Jesucristo gure Jaunaq, vere Apostolubey errancition azqueneco itzaq, ceneqn. acabatzen baitu S. Mateoq vere Evangeliyua, digute aditzerat ematen gaurco Misteriyuaren vesta; zuazte, erratten cion, eta eracutsizazube, instruitzatzube nacione guciyeq batayatzen ttuzubelariq Aitaren, eta Semiaren, eta Espiritu santubaren ezenian: Ytzoq claroqui digute eracusten Jangoico izayeran bat denaren battan vadirela iru persona distintuaq, eta Apostolubey J. Cristoq aguinyucionaq, digula aditzerat ematten, iru Persona Santuba oquin izenian garela vatayatubaq, eta ala viardugula ere izan, batayatubaq eguiyazqui izattecotan.

Bay N. A. M., batayatubaq gara, Aitaren eta Semiaren eta Espiritu Santubaren¹⁰ izenian: !Cer dicha au guq batere merci vague Jangoicuaq guri eguinziguna! Batayo santuban alistatu ganinyuben Jangoicuaq J. Cristoren banderetan, eta emangetzaigun onengatiq Christavaren izena, eguiñiq Christoren disciplulubaq. Oh! izena, ventaja dignidade eta gloriya guciya merci dubena: ioh izena, izen guciyen gañecua, eta guizoniq famatuben titulubaq chicatzen tfubena! Viño ha! N. A. M. izenau obligaciyoriq grabienaq paratzen ttubena, correspondittu biar badiogu izena oneq errannai dubenari.

Batayo santubaren graziaz edo mesediaz, J. Cristoren fediaz eta ejemplubaz participatzen dugun guziyeq, viar dugu gure obrequin aditzerat eman eta manifestatu, garela J. Christoren banducuaq, eta izenian Salvadoriaren²⁰ disciplulubaq garen vezala, bayetere garela ala vicitza moduban, onengatiq nere asunto guziya da zubey errattia certerat gattuben obligatzen Batayuan eman zetzaigun Christavaren izena oneq, baldin prestatzen badidazube zeben atencioa.

Asunto

Aunitz diré batayuan guereganatuganittuben obligaciyuq; lentavicicoriq, batayuan emangetzaigun Christavaren izenaz oroitzen, Cristabaq garela con-

* 1857-7 de junio Les. J. M. y J.
1858-29 Mayo Zug^{dt}.
1860-El día.

sideratzen dugun aldiyero, viardigu consideraciyu oneq, oroitzepeña oneq servittu espueletzat, guri Jangoicuaq eguin zigun mesede añ beressiyaren agradecimenturat muguitzeco; eta eguiyazqui. ¿Cer fabore añ estimagarriyau,³⁰ Jaungoicuaq gu eslegittu izanduba Christauteco, J. Cristoren federat tocatzeco, batere oneteraco gure battan merecimenturiq icusi eta izan vague, daudelariq amberze eta amberce millare guizon ondatubaq Gentillidadiaren itzala, illunbe eta utseguinētan? Ezaumentu eta agradecimentuba oneterat gattu exortatzen Apostol S. Pabloq, Colosensiey escribittu cion carta batian erratten digulariq ematziozube graziaq Jangoicuari eguin vaicaninyuben digno vere aguiyarequin Santuben suertiaren alderdirat sarzeco.

Arrazoyarequin deitzen dió Apostoluba oneq suertia, Christaven estadu dichosuari, ara nola suertian ezpaita consideraciyoriq izatten eztere berescunzariq suertia tiratzen dutenen artian, eztere suertia erortzen⁴⁰ baitzayo bati, yaquiña, aberetsa, noblia, edo virtuosua ceren den, baiziq verebat tocatu baitattequiyo ignorantiari, baxuari, pobriari edo viciosuari, ala guri ere suertez vezala, viño Jangoicuaren escu misericordiosuaz guiyatuvaco suertiaz, etzetzigun tocatu yayotzia, Turcuben, Yuduben edo Heregien artian, baiziq Cristaven artian, Christabaq izan ganyezen: etzen gure aldetiq onetaraco verze arrazoy, eztere verze merecimenturiq, baiziq araco Jaunaren borondate uts, utsa, ceñen escubetan baitaude suerte guciyeq, eta nayzandubaitzigun eguin, verze milloy eta milloy criyaturey ucatu dion mesede beresiyau.

Auche S. Agustiñen viyotz agradecittuba 30.garren Salmuaren explicaciyuan erratterat muguitzen zubena “Zure escubetan daude gure suertiaq, eztut⁵⁰ icusten, Jauna, merecimendu bacarbat, Zuq ni osasuna erdisteco estadurat eslegittutzeco, ateririq guizonaren cendenciyaren impiedade, gasstotasuna generalatiq; eztut icusten merecimenturiq bacar batere suertez ni Jesucristoren tunica uquitzerat, au da Jesusen fedia izatterat allegatzeco.

Eguiyazqui N. A. M. ¿cembat milla arima etzittuben Jangoicuaq sortuco gu yayoguiñen ordubartan, eta etariq ezin contala Gentillidadiaren Judaisuaren eta herejeriyaren utseguin tristien artian yayo cirenian, naizanduzuben Jaunaren Omnipotenciaq, guq errecibiganezan izayera aren Elizan, non baitugu Jangoicua gure Attatzat, aren Semia, Erredentoretzat, aren Sacramentubaq gure arimen enfermedadien erremedyotzat, Cerutiq yautsizen oguiya gure⁶⁰ yanaritzat, eta Eliza Catolicuaren batzarrian Ama tierna eta cariñosabat gure sabeletzat. iO eta ceñ agradecittubaq viardegun egon gure viziyaen egun guziyetan, guq gozatzen dugun, eta guretzat dichariq andiyenen Ytturriden, Cristavaren izena onetaraco.

Viño onetaz gañerat, viardu Cristabaq bere battan formatu Christoren imagiña, ceñen izena paratu baizetzayon Batayo santuban: Christaba izattiaq

erran naidu, dio catecismuaq, Christoren discipuluba izattia, eta onecheq du obligatzen Christoren leguia, seguitzerat, bayetere aren virtutiaq: N. A. M. daramagu guere battan izen bat J. Christo gure Capitana, humilla, castua, caritatibua, eriotzaraño obedientia, itz batian, aren virtute guziyen tropa Sagrada⁷⁰ guere beguien anzian paratzen diguna, digu izena oneq erratten, dettubaq garela seguitzerat, ez pecatuben illumbiey, baiziq Santidadiaren arguiyari: J. Cristoq guri utzi zigun testamentutzat eta aguinyu seguiganiozala, eta imitacioni au, ura vezala vizitzian da gauza precisua Cristabarenzat salbatu viar badu: onengatiq dio Apostol S. Pauloq, Jaunaq Ceruraco señalatuzubena ura, senalatu zuben ere, aren Semiaren imagiñaren confedadecua izatteco: Viarduba Cristabaq eramen vere viyotzian irachiya vere Attaren, vere redentoriaren, eta vere maestro divinuaren imagiña.

Viño hay! Cembat eta cembati Cristabaren izen apreciagarriya onetaz gloriyatzen direney, erran dattequion moduren batian Apocalipsiyaco Obispo⁸⁰ bati erran zezayona: “Zuq duzu viziyaeren izena, viño illa zaude, vada niq icusten dut, zure obraq eztaudela merezimentuz betiaq Jangoicuaren presenciyari” Dudariq eztu vere obraquin cristabaren izenari corresponditzen dionari, seguitturiq J. Christo, santidade guziyaeren modelari, dela orduban izenau, oneq Munduba onetan graziaz bete, eta eriotzian vetico viziya emanen diona, viño aunitzey izena oneq ezti emanen vetico viziriq,ceren eztioten corresponditzen, batayuan emanzetzayon izena oni, an orduban paratu zetzazquiyon legue eta obligaciyaq ez cumplittubaz: hoq unittu ziren J. Cristoren exerciturat soldadubaq vezala trabajatzeco, aguinzen zuben vezala Apostol S. Pauloq, viño ezta icusten equin obretan humildaderiq pacienciariq, garbitasuniq, araguiyaren⁹⁰ mortificacioryiq, eztere verze virtuteriq, ceñ baitire J. Cristoren miliciyaco armaq: hoq daramate evequin Christoren izena, viño ezta oquin vattan icusten Salvadoriaq obratu zuben accione bacar bat ere.

¿Cer erranen ganuque, baldin icusten baguenuque pareta batian pintatuba Demoniyuaren imagiña izigarribat, eta demoniyuaren azpico aldian escribittubaq onaco letra hoq “auche da J. Cristoren imagiña eguiyazcua? Erranen ganuque, ceñ gaizqui eldudiren itz hoq imagiña onequiñ edo borraratu itz hoq, edo quendu imagiñau bada auche vera da guertatzen araco persona, vere battan cristabaren tituluba, cristoren imagiña daramanequin, eta Batayuan Christori seguittuco ciola eman zuben itzarequin faltatzen dubenarequin, bada oneq vere¹⁰⁰ vizitza moduban du pintatzen Demoniyuaren imagiña vere maldadiequin, bada borraratu Christabaren izena, edo conformatu vizitza moduba, J. Christoren vizitza modubarequin.

Ez Ysraelguaq direla erratten duten guciyeq, dire Ysraelitarraq, eztere Aaronenganiq eldu diren guciyeq diré aren humiaq, erratten zuben Apostol

S. Pabloq; au erratten zuben Apostolubaq, Ysraelgo humien artian arquitzen zen diferenciya aditzerat ematteco, batzubeq eldu baitziren Patriarca Santubetatiq bacarriq araguiz, eta verziaq virtude eta piedadez: batzubeq ziren Ysraelitar eguiyazcuaq, ceren ez bacarriq even añiñacuen fedari, baiziq bayetere equin obrey zioten seguitzen, viño verziaq ziren Ysraelitarraq bacarriq¹¹⁰ Zendenciyaz, viño etzittuzten cumplitzen even anciñecuaq guardatu cittuzten Puebluco legue eta Mandamentubaq; auche vera erran dezaquet niq badirela vi cristau clase edo genero, batzubeq ala direnaq araguiz edo cendenciyaz, au da, equin Buratsoaq cristabaq izanaz, batayatubaq izandu direnaq eta Pueblo Santurat, Sacerdociyo erriklaren generacio eslegitturat batayaco atia onetatiq sartu zirenaq, viño hay iChristasuniq izenian verzeriq eztutenaq.

Ayta S. Jn. Crisostomoq, otaz mintzo delariq dió ¿errazidazu ¿nondiq ezautuco dut niq zarela Christaba? Toquittiq? bestiduratiq? Yatecotiq? Ytze-tatiq? edo negociyetatiq? Bada errespondizazu aditzen nauzuna. ¿Cein da zuq maizeniq acuditzen duzun itchia? Da Eliza norat viarbaitu acudittu cristabaq. Elizaco¹²⁰ funciyueterat Meza Nagusirat, Sermoyeterat J. Cristoren doctrina icasterat, edo da araco danza eta vilcuida nasiyen itchia ura, Yococo toquiya ura, ustatuba ura? ¿da zure bestidura honestua, modestua eta J. Cristo zure Mayestro divinuaren humildadia significatzen dubena, edo da indecenciya eta sobrañiyazco luxuz apanyuba? ¿Emplegatzen duzu zu mingañ Jangoicua honratzen, aren izen santuba alabatzen, zure lagun projimua instruitzen, edo juramentubaq eguitzen, erreguaq botatzen itz loy, torpe eta indecentiaq erratten, iñor engañatzen, murmuratzen eta guezurraq erratten? Escusatzen zara yan edan excesibuetatiq, edo gulaq, ordicariyaq dute erreynatzen zure battan? Zere tratu contratubetan, zure eroste eta salpentetan, zure negociyuetan, da icusten¹³⁰ zuzendadia, eguiya eta justiciya, edo guezurraq, enganubaq, usura eta ladronqueriya? Bada ala bada, eztuzu manifestatzen, zu cristaba zarela siñetsierazten duben testimoniyoriq batere, eztere, presentatzen zere obra eta itzetan Santidade guziyaren ejemplaria edo modela izanduzen Jesucristoren imagiñariq.

¿Naizube yaquin nor diruditen, araco cristau, ala direla Ytzequin erran, eta obrequin alrebes aditzerat ematten duteneq? Diduritte araco Exoduq pintatzen digun aldaria ura campotiq ederqui apanyuba, viño barrenian utsa zena ura diduritte araco salvadoriaq madaricatu zuben arbol Picua ura, ceren icusi zuben osto verdez estaliya viño fruturiq batere vague diduritte¹⁴⁰ viño excattezen enoitu, bacarriq cristabaren campoco iduriyarequin, bacarriq campotiq cristaba izattiaz contentatzen den ura, izena oneq escatzen duben, Santidadiaren fruturiq vague, bacarriq dela on betico suraco.

Badire berze batzubeq erdibanaco cristabaq dettudiozque gunaq, dembo-
ra berian Cerurat eta lurrerat veguiratu nai dutenaq belaunbatequin cucha

Santubari, eta berziarequin Dagonen idoluari cur eguitten diotenaq: diré gloriyatzen oq, ceren guardatzen ttuzten Jaunaren mandamenturen batzubeq, viño ezchuzte guciyeq guardatu nay, enzuten dute meza yay egunetan, etorcen dira sermoyaq aditzerat, eguitten ttuzte limosnen batzubeq, erretzatzen arrosariyuaq; viño ya hoy erraziozu baru dattezela garizman, eta Elizaq aguinzzen duben¹⁵⁰ verze egunetan, varcatu viar diotela etsayari, eguin viar ttuztela vaquiaq arequin, viar dutela sugetatu mingaña, ezi even araguiya, emiendatu even viziyaq, sugetatu even issiyaq, aldaratu ocaseyo eta lagun gaistuetatiq, ya au eztute entendittu nay, onarinecuan equin Cristau izattia, viño anberze molestiya sufritezco eztute cristautasuniq.

Da errattia, oq acompañaaten dutela Jesus Taborco mendian, viño eztutela probatu nay aren caliza, ceren miña eta dolorosua den; eztutela yuanay Calvariya, Christori vere Pasionian seguitzerat: au guciya da benereable Fr. Luis de Granadaren reflexionia.

Viño N. A. M. J. Christoq dio, ezin servi dattequiyola vi nagusiyey, eta¹⁶⁰ Christoq eztu admititzen, eztu consentitzen viyotziq, nonta ezten osua: Cristabaren izenaq ez bacarriq du arrapatzen mandamentubatzen cumplimentuba, baiziq legue guziyarena: Batayuan irachiqui zetaigunian J. Cristoren humien señaia, utzierazi zetaigun aldebererat Diabruba eta onen obra guziyeq, guziyeq bacarbat veressi vague; bada gure zorigasstozcuaq, gu presentatzen garenian J. Cristoren Tribunalerat, vizitza onetan, eta berzian, ezin borra dattequien cristabaren señaia onequin, au ezpada yuaten corresponditzen zazquiyon cristaben obretaz apanyuba: gure zorigastozcuaq, baldin ezpadugu erametten batayoco estola ura ssuriya, edo baldin ciquindu bazen, Penitenciya eta vizitza on baten urarequin garbittuba: asqui da.¹⁷⁰

Esplicatu dizubet Jangoicuaq guri eguin zigun mesedia, cristautaco escogitiaz, utziriz milloy eta milloy arima, gentillidadiaren Yudaismuaren herejeriyaren illumbe eta utseguin artian sortzerat: eguin zigun favoria, emattiaz Cristabaren izena Batayuan, eta eguitiaz J. Cristoren discipulo: viño demora verian bayetere presente eguin, Christoren banderetan alistatu eta soldadu eguin guinienian, guereganatu ganittuben obligaciyaq.

Acabatuco dugu gaurco Platica onaco Aita andi S. Leoneq J. Cristoren Yayatzian predicatu zuben Sermoi batian erranzittuben itzequin “iO Christaba, ezauzazu zure dignidadia, eta batayuaren medioz, naturaleza Divinuaren laguna eguintza onduan, eztedezezula itzuli nay, zure dignidadia deshonratzen¹⁸⁰ duben vizitza modubatequin zere lenagoco vileza arterat: Oroizattia zer burubaren miembra zaren, eta buruba oneq zu illumbien Poderetiq aterita onduban, izandu ziñela aldaratuba Jangoicuaren arguirat eta aren erreynurat: eztedezezula berriz entregatu nay zere buruba Demoniyuaren

esclavotasunarat: Oroizattia J. Cristoq, zu Diabrubaren esclavotasuna onetatiq ateritzeco, pagatu zuben preciyua izanduzela aren odola, eta ez gutiyago: Ojala consideraciyua oneq, eguiñerazten valettiguque, cristabaq garen vezala egoqui zazquigun obraq, obra oquin frutuba erditsi dezagun, ceñ baita betico viziya. Amen.¹⁹⁰

II

*Alde eguizazube**

Alde eguizazube ardiyen larrubarequin estaliyaq zuben ganat eldu diren Profeta falsubetatiq, eta even barrenetan diré otso arrobatzalliaq: otatiq batzubeq diré araco guizon libertinueq, guizon gasstueq, munduco guizona eq munduco atseguinaq maitettuztena eq, arima cristianetaz Persona devotuetaz burla eta irri eguitten dutena heq, ceñen contra eldu bainaiz gaur mintzatzerat.

Asunto

Yaquinazube N. A. M. viyotza osoqui gogortuba, eta bat condenaciyoco vezperetan dagolaco pruebariq andiyena dela, guziya menospreciatzia, eta ez guizonaq, eta ez Jangoicua errespetatzia, hoq diré impiyuaq religioniaren²⁰⁰ fondoriq eztutenaq, ceñ burlatzen baitiré Jangoicuaren siervo edo neravietaz, aren servitzallietaz, devociyozco actuetaz, gauza santubetaz, plática eta sermoyetaz, eta elizan den guazariq santubenaz: baldin bada nere auditoriyo onetan, onelaco desgraziyariq dubeniq, yaquin veza dela Jangoicuaren veguiyen ancinian gorrotagarriya: *abominatio est ante Deum omnis illusor*.

Jaungoicuaren semiaq sufrittu zittuben ultrage guciyetatiq, gueyeniq quexatzen dena salmuetan da, aren etsayaq, artaz eguitten cittuzten burla eta irriyetaz: ziren beiaunico yarzen, eta zioten salutaciyua eguitten erreguiari vezala, eta aditzera ematteco au ciotela eguitten burlaz, zittiozten matelezurrecuaq ematten, cittuzten even burubaq alde baterat eta verzerat²¹⁰ eraviltzen, eta zioten zorrozqui veguiratzen, faltosoa zela aditzerat ematteco eta deshonoratzeco; ala ere, eztuzube N. A. M. añberze asertuviar Jangoicuaren Semiaren etsayetaz burlatzen ziren Juduben contra, nola orañ artaz Ceruban gloriosua dagonaz, burlatzen diren Cristaven contra; ¿Nor da, erranen didazube J. Cristoz burlatzen den Cristaba? Orretaraco viardu hereje bat edo

* Sobre los que se mofan de las personas virtuosas.

1857. 21 de junio. 1860. F^{brc}

ateista bat. Doctore santubaq digute erratten, persona devotuetaz burlatzen zaratenian, duzubela ofenditzen J. Cristo, cergatiq, ara nola guq ematten baittugu guere burubaq ofendittuzat, gure familiyaco eio meneco personaren bat gaizqui tratatzen bada, ala ere Jangoicuaq daduca bere buruba ofendittuzat, burla eta irri eguitten denian aren hume eta sirvientietaz nola baitire²²⁰ persona virtuosaq, erratten digulariq vere Profeta Zacariasez: Zubeq yotzen zattuztenaq, yotzen ttu nere veguiyataco niñicuaq.

Orañiq gueyago dut erranen: burla au, dela maliziyazco becatubat casiq ezin zuzendu den pecatu bat, guizon bat erorzen denian pecaturen batian flaquezaz, edo tentaciyο bortiz vaten ondoriyoz, baldin vere buruba ezautzen badu, lotsatzen eta confunditzen bada, urriquitzen bada, da disimulagarria, eta barcaziyua merci dubena, viño pecatu eguinta onduan, arrepenittu viarrian, artaz gloriyatzen bada, eta onela gloriyatzen ez tirenetaz burla eguitten badu, da Jangoicuaren despreciyο formal bat, da izigarrizco lotsa vaqueri bat: verretu oni guisa onetaco burlatzalliau dela, gauza santubey zor zayon²³⁰ erresetuba, verziey galerazteco causa eta motivua, bada ttu paratzen espiritu cobardiyen, burla eq sufritezco valoreriq eztutenen viyotzian, desconfianzaren eta siñestamentubaren escastasunaren pensamentubaq, da arima virtuosaq aunitz obra on practicatzerat ez atrevitezco causa, ceren beldur diren arima debota hoq, guizon gassto eta malvaduboquin burlen asuntuba, eta irriyen afera izattia; erran dut direla guisa onetaco guizon oq, ezin correji eta chuchendattezquenaq icusi dezagun.

Yru gauzaq convertitzen dittuzte peccatarosiq andiyenaq: Jangoicuaren itzaq, virtuosuen ejemplubaq, eta Espiritu Santubaren inspiracione eta muguitziaq²⁴⁰; viño persona devotuen burlatzallioq, ttuzte even burubey cerratzen vide hoq guziyey, diré Ysaiaseq errattenttigon Juduba eq vezalacuaq. Profeta oneq cion ancin denetiq maiz aditzerat ematten Jangoicuaren justiciya, erratten ciolariq; Jangoicuaq dizube au nere minganaz aguizen, eta zeren etzen berila arq erratten zubena guertatzen, ziren artaz burlatzen, aren Profeciyeey cioten contra eguitten, eta ¿ezta auche vera impiuaq eguitten dutena? Predicadoriaq miachatzen ttuztenian Jangoicuaren juiciyuequin ¿eztute erratten “ori munduba espantatziagatiq” diré diren viño gueyagocuaq, por cierto gauza ederraq erratten ttiguzte: Confesoriaq ucatzen badiote absoluciyoa, dute burla eguitten tabernan edo elcarrequin yuntatzen direnian, baldin even amaq edo emaztiaq eguitten vattuzte presente even obligaciyaq, diote erresponditzen²⁵⁰, nasten eta durdatzen ttuztela añberzezco solasequin, sardattezela even eguittecuetan; viño adi cer dion Jangoicuaq Profeta Ysaiasez veraz guizon gasstua otaz, burlatuco dela etaz, diola pagatuco burla burlarengatiq, eta izanen direla preso eguiñaq, eta deseguiñaq: *ut vadant et capiantur et conterantur.*

Ha! N.A.M. baldin emen valitzeque burlatzallia otatiq bat, esnuque erreparoriq izanen aren anciñerat presentatzeco eta erratteco, zara impio bat, bada ez sermoyaq, ez instruccione publicuaq, ez Confesoriaren miachu eta avisubaq, zattuzte muguitzen, zara ezin corregigarri bat, bada persona onen exemplubaq, baitiré virtuterako continuo exortu bat, eztizute mellariq eguitten eta, ¿cergatiq? Ceren etaz zaren burlatzen, erratten duzulariq direla simple batzubeq, pobre miserable batzubeq, munduban nola vizi eztaquitten batzubeq; baldin humillaq badiré, diozu dela cobardia eta vaxeza: baldin caritatiuaq, diré ondasunen casatzallia; baldin yan edanian escusatubaq, dela hipocresia edo itchurazco virtutia; baldin devotuaq, dela enbusteriya, direla beatuaq eta benetaq, zara etaz burlatzen eta ttuzu equin istiaq eta gestubaq eguitten; eta onen guciyan onduan, baldin baduzu convertitzeco muguidura edo dese-yo on bat, zure viyotzian duzu ittotzen, cergatiq duzun lotza zuq burlatu zaren devociyozco obra eq practicatzeco, eta zaren beldur zuq eq eguitten battuzu zutaz ere direla burlatuco, eta onengatiq zara beti²⁷⁰ len ziñena.

Religioniarene fondoriq eztutenaq, persona prestu eta debotuetaz burlatzen diren lentavizico burla generua onetaz, bada ere berze bat, naiz ez izanagatiq añ gasstua, da aguiz caltezcu gure salvacyuarentzat, eta mal pecado comuna? eta ceñ da au? da araco Zerurat yuan nai dutenena, Jaunaren Mandamentubaq guardatu vague Apostol S. Pauloq digu erratten “Nere anayaq, Jangoicuaq eztu sufrittu nay artaz burla eguittia” *Deus non irridetur* Ad. Galat.c.6. eta du añaditzen, guizonaq vilyucodubela erein zubena: baldin laboreri bateq erratten baluque, niq naidut landa onetatiq vilyu arto cantidade andi bat viño eztut lurriq irauli nay, aratu, apanyu eta erañay²⁸⁰, ¿eslitzeque au izanen burla eguitte bat? eta iduritzen zaizube, errazago dela virtutiaq arimian sarzia, artua zuben lurrian vaño? Vereganatzia bateq Santubene yaquinduriya eta Zeruco ondasunaq lurraco aberastasunaq vaño! eta certan dago au? Ycusi dezagun, guq naigãnuque humillaq izan, viño humillatubaq izan vague, espírituzco pobriq, viño deus ere falta vague, obedientiaq viño gure inclinacyuen contra deuseriq equin vague; castuac eta garbiyac, viño araguiya mortificatu bague.

Confetsatzerat etortzen zaratenian, berzeren ondasuna zeben podorian duzubela, gorrotuba viyotzian conservatzen duzubela, pecatuco ocasiyuan²⁹⁰ zaudetela, iduritzen zaitzube dela penitentiaq izattia? ez por cierto vaiziq Jangoicuz burlatzia; duzube eguitten Jangoicuaren Semiaren ancinian, belau-nicatzen, eta ari matelezurrecuq ematten cittiozten Soldadubeq eguitten zutena ¿ezta burla eguittia, errattia, zubeq eguitten duzuben vezala “Cer necesidad da añberze tormentatzeco? Jangoicuaq ezcattu sortu galzeco, arq naidu guizon guziyeq salvadattezen; viño errazidazube eztaere eguiya, Jangoicuaq naidubela, munduban diren guziyeq vizi dattezen izan dezaten cer yan?

eta alere ¿Zubeq egotten zarate deus eguin vague eta eztuzube trabajatzen viziya irauzteco, zuben vizitza modubaq zubenganiq bacarriq dependitzen viluque vezala? niq zubey erratten vaniquizube ez laniq batere³⁰⁰ eguin zuben viziya ateritzeco, yarrizattezte Jaunaren Providenciyaeren escubetan, Jangoicuaq etzattuzte sortu zubetaz anzteco, naidu mundu guziya vizidadiyen, confia Aren battan eta utzi obra dezala ¿etzenidateque errespuesta emanen, Veurreq erran dubena ori guziya ongui da, viño guq seguitzen vaguenittuque Veurreren consejubaq, gu, eta gure familia illen guiñaque gosiaq: bada zubeq niri erresponditzen didazubena munduba onetaco ondasunetaz, ori bera dizubet erranen eternidadeco ondasunetaz.

Jangoicuaq prestatu du vere gloriya arima Cristianenzat, viño naidu eq trabajadezaten gloriya ura merecitzeco, eta artaz dignaq eguitteco; Apostolobaq dio, gauza biarra da trabajatzia veldurra eta icariyaerqn salvacioraco³¹⁰; eguiya da J. Cristoq encargatu digula vere Evangelio Santuban ezcaygatetzela inquietatu yan eta yauzi biar dugunarengatiq, viño ezta icusten encargatu digula, gure arimaz cuidadoriq ez izatteco, al contrarat dió Ceruba irauzteco precisua dela guere burubey borcha eguittia, eta merecitzeco inyarraz valiayatzia “*Contendite intrare*” Precisia da arri valioso bat erosteco vere ondasun guziya saltzen duben mercatari baten anzerat obratzia; Precisia da gure salvamentuba logratzeco yarzia oraciyuan, apalzia gure griñaq, emiendatzia gure viciyuetatiq eguittia obra onaq, eta verze guisatan obratu, ¿eta nay salvatu? ezta burla eguittia? eta norq eztaqui Ceruco gloriya zaigula aguinyu Pagamenta bat Coro bat vezala? gloriya ofrecittuba³²⁰ badago saritzat, alferrey etzayon ematten, baiziq trabajatzen dubenari: trabaja dezagun bada lurrian Jaunaren serviciyuan, descansa dezagun guero Ceruben aren gloriyan. Amen.

III

D.^a 4.^o post Pent^s

Jesus videns civitatem fleuit supra illam. Luc. c. 19

J. Cristo Gure Jaunaq, Jerusalengo Ciudadari vegiratu, eta aren gañian nigar eguitten zuben vezala, icusiriq ancindeneti q Ciudadari guertatu viazeztayona vere itsutasun eta obstriñaciyuarengatiq ceren etzuben ezautu Jangoicuaq ura visitatu nayzandu zuben dembora, eztere probechatu, J. Cristo

* – Dominica cuarta post pentecostes.

– J. M. y J. (Jesús, María y José).

– Predicado Lesaca 1857.

– Predicado Zugarramurdi 1858.

viyalziaz eguin zion favore estimagarriyaz, ala ere guq ere viardugu nigar eguin, anberze eta amberze Cristau gaisstuen desgraciya miserabliaz, casoriq eguinai bague jangoicuaren avisuetaz, aren grazietaz convertitzeco, illzen baitire pecatuco estado zorigasstozcuan: nigar viardugu eguin oquin desgraciya eguiyazqui nigargarriya onetaz, bada J. Cristoq errandigu veñ viño gueyagotan eta espresioneriq claruenetan, aunitz direla dettubaq, viño guti eslegittubaq,³³⁰ O egui izigarriya! gure atenciyo guziya escatzen dubena! guti direla escogittubaq: Proba dezagun.

I.^{er} Punto

Erratten dudanian guti direla salvatzen direnaq, esnaiz minzo gentilli dadian vizidiren Nazione Ynfieletaz; esnaiz minzo Ydolatriyan vizi diren Erreynubetaz, esnaiz minzo fedia galzeco desgraciya izan duzuten Puebluetaz: Cer eguinda Asia, eta Africaco amberze Probienzietaz, lentavizico mendietan amberze Obispo Santu izandu zittuztenetaz? Cer da gaurco egunian Ynglaterra verze dembora batian Martiren isla zena? Cer da Alemaniaco, Prusiaco, Moscoviaco, Sueciaco, Diñamarcaco zati bat? Ha! provinciya ocheq guziyeq casiq eztiré³⁴⁰ illen legione batzubeq berzeriq, ango habitantiaq, cisma edo heregeriyarengatiq aldaratu ziren ezqueroztig Elizatiq; utzi detzagun aparte toquiyoq guziyeq, metigattezen Eliza Catolicuan vizi direnequin, eta icusico dugu Escritura Sagradan, Aita Santubetan, eta arrazoyan verian gueyago direla condenatzen direnaq Christaven artian salvatzen direnaq vaño.

Yru ejemplo famosuaq ttut causitzen Escritura Sagradan justificatzen dutenaq, gueyago direla condenatzen salvatzen direnaq viño: lentavizicua da ubelde generalarena: orduban lurrian vizi zirenaq eguin ziren añ viciosuaq, eta gaizquirat añ issuriyaq, non costumbrien corrupcionia zen generala: aserturigo Jangoicua, goyen goyeniñecuan allegatuzen guizonen maliziyaz,³⁵⁰ deliberatu zuben biarzittubela destruittu uren ubeidebatequin. Aguinyucion Noeri eguin zezala cucha bat cen baita Elizaco Aita Santubaq diotenenaz, Elizaren, figura, nondiq campuan ezpaita salvacioriq: ¿cembat persona uste duzube salva cirela cucha artan dilubiyoco uretatiq? bacarriq zorzi dio nere atta S. Pedroq: Noé, onen emazia, oquin iru semiaq even emaztiequin, eta verze guziyeq ziren itto ubeldecu uretan. Bada baldin jangoicuaq ezpadió varcatu antiguco Mundubari, dio nere Atta S. Pedroq, eta baldin ezpattu salvatu zorzi persona berzeriq, erorerazirig Ubeldecu uraq gasstuen mundubaren gañerat ¿Pentsatzen duzube, zubeq Christabaq tratatuco zattuztela gogortasun ttiqiyaguarequin baldin eq cittuzten pecatubetan arrapatzen bazattuzte³⁶⁰ culpagarriyaq?

Bigarren ejempluba de Sodoma, eta Gomorraco habitantiena, oquin castiguba dio nere Atta S. Pedroq da, gaizqui vizi direntzat ejemplare andi bat: Jangoicuaq vere siervo Abrani ezautzerat eman zionian ziyuala galtzerat vi Ciudadia hoq ceñen pecatubaq igan baitziren Ceruriñecuan, Abraham urriquelduriq Sodomitarretaz, artuzuben presente eguitteco libertadia, eztubela galduviar justuba gasstubarequin batian, *Numquid perdes justun cum impio?* Gen. C. 18 y v. 23. Hay, Jauna, cion erratten Abrahameq Jangoicuari, baldin badire Ciudadia onetan verroquey eta amar justo, oq galduco diré verze guciyequin batian, eta eztiozu barcatuco Ciudadiari 50 justuboquein gatiq? Bay erran cion Jaunaq, baldin causitzen battut 50 justo Sodoma guziyan, oquingatiq barcatuco³⁷⁰ diot Ciudade guziyari: Errancion Abrahameq, asi naizen casuan seguittuco dut nere Jaunari mintzatzen, naiz ez izanagatiq autsa eta errautsa berzeriq: Verroquey eta amarreateraco borz falta baliraque, galduco duzu Ciudade guziya, ceren eztiren an berroqueita borz berzeriq? Eztut galduco Ciudadia, ceren eztiren an berroqueita borz baiziq, erresponddittu cion jaunaq: eta ezpadire causitzen berroquey berzeriq? Cer eguiñen duzu? eztut galduco Ciudadia berroqueyengatiq: azquenian allegatu zen amartiñecuan, eta erran cion Jangoicuaq, eztut deseguiñen Amar justo causitzen badire: gauza arrigarriya! Eztire causitzen amar justo Sodoma guziyan, eta ¿eztau prueba claro³⁸⁰ bat direla condenatuco direnaq aunitz eta salvatu viar dutenaq guti?

Yrugarren ejempluba ez lenagoco verze viyaq viño gutiyago espantagarriyagua da Ysraelitarrena; guziyeq zuten pasatu Ytsaso gorriya, Jangoicuaq eguinzittuben equin favoretan eq desiértuban egondu ziren demboran amberze milagro, alere S. Pauloq digu aseguratzen, Ysraelitarra otatiq guti izandu zirela Jaunaren gustucuaq eta cuasiq guziyeq, desiértuban perezittu zutela, 600, seitan eun millatiq, bacarriq bi Josué eta Caleb sartu ziren promisioneco lurrian. Ep.^a ad Corint. C. 10 v. 5 Numer. C. 14. Eztut onequin erranay, Hebreutarraotatiq vi berzeriq izandu etzirela salvatubaq, ez; eztere au dio S. Pauloq, baiziq gueyenaq zirela Jangoicuaren disgustucuaq, even murmuraciyo,³⁹⁰ esquer vaguetasun eta desleyaltadiarengatiq, eta onengatiq merecittu zutela ez sarzia promisuneco lurra artan, baizen Cerubaren figura bat, eta delariq au guciya guretzat eracuste eta advertenciya bat, biardugu beldurtu erorziaz gure gañerat desgraciya au bera, eta auche da chuchen chuchena Apostol S.Pauloq ateratzen duben arrazoya; viño nola Elizaco Doctore eta Aita Santubaq baitire escritura Sagradaren interpretiaq, examiñadezagun oq pentsatzen dutena puntuba onen ganian.

2.º Punto

S. Juan Chrisostomoq, ari zelariq predicatzen Antioquian, Syriaco buru⁴⁰⁰ edo Capitala, edo obequiyago erratteco iguzquiya ateratzen den toqui guzico

capitala “Amat. tom. 13” eta onegatiq egon baizattequien, gaurco egunian Madrilla dagon viño yendez poblatugua, bada arizelariq Antioquian predica-tzen eguin zuben onaco galdetzia au ¿Cembat persona, uste duzube direla ciudadia andiya onetan salvatuco direnaq? Baldin naibaduzube, niq zubey errattia goguan daducadana, eztut uste amberze millare personen artian salva-tuco direla eum (100); cergatiq, ezta maliziya eta corrupcionia berzeriq gaztie-tan, zabarcariya eta epeltasuna berzeriq zarretan; iñorquere eztu cuidadoriq vere humien criyanza eta educaziyuaz; iñorquere bere salvaciyuaren celo eta ansiyariq; guisa onetan cion mintzatzen Santubaq Antiocotarrey.⁴¹⁰

Eta N. A. M. da arquitzen gure mendiau, gutiyago gastatu eta corrom-pittuba S. Juan Chrisostomoren dembora artan ¿viño ceñetan orañiq irauten baitzuben lentavizico Christau fielen fervoriaq? Ay nere Jesus! Eguiñen dut niq S. Juan Crisostomoq predicatzen zuben Ciudadeco yendiey eguincion pregunta ura, cembat diré erriya onetan salvatuco direnaq? Ez, Nere Aditzalle Mattiaq, eztut eguiñen, niq gaur predicatzen dizubedan eguiya verez da izigarriya, gueyaco edatzeco viarriq eztubena, eta verze alde niq erranezaquie-naq servilezaque viarbada cembatten durdaciyoraco; contentatuco naiz errat-tiarequin botadetzagun, eta edatu gure veguiyaq Christandadia orañ arquitzen den estadubaren gañerat, eta icusico dugu eztela gauza eguiyazcuagoriq⁴²⁰ Salvianoq erraten zubena vino, Pecatubari izutasuna eta gorrotuba dioten Christau puisco batzebez landarat, cuasiq verze guziyeq direla abandonatzen viziyo eta desordeneterat; eta oran artiño erran dudana ezpada asqui consulta dezagun gure arrazoyarequin.

3.^{er} Punto

Zubeq daquizube ongui, iñorrere ezin salvadattequiela baiziq onaco vi vidia otatiq batetiq, edo inocenciyacotiq, edo penitenciyacotiq; oq oq verze videriq ezta Cerurat yuateco: eta ¿nun causittuco ttugu Batayuan errecibittu zuten inocenciyaco videz dabilzenaq? hoy! ezta iñoizere icusi orañ viño inocencia gutiyago; bada non causittuco ttugu ,batayoco santidadia oañiq evequin duten arima zorionecuaq? Religione Christianaren lentavizico⁵³⁰ men-dietan, ceñetan Christau fielaq, ezpaizuten viyotz vera, espiritu bat vera berzeriq cen gauza aguitz rarua eta gaitza causitzia, amberze ciudadobarequin lentavizico graziya conservatzen zutenaq, eta pecatuban berrecaidaq ezchit-tuztenaq, viño gaurco egunian, cristau gueyenen vizitza moduba, ezta confe-siyuen continuo itzuli ingurubat baiziq; allegatu da maliciya eta gasstotasu-na alaco gradurat, ya errandezaqueguque, Noeren demboran Jangoicuaq guizonen gasstotasunaz erran zubena, “*corrupta est terra et repleta iniquitate*” lurra gucyya da arquitzen corrompittuba eta maldadez vetia, ya ezta icusten dio Profeta

Oseaseq ez eguiriq eta caridaderiq, eztu erreynatzen Jangoicuaren misericordia-yaq, eta cuasiq ezta ezautzen Jangoicuaren Yaquinduriya;⁵⁴⁰ guziyeq autsi zittuzten inocenciya equin viyotzetan conservatzen zuten burdiñ barraq, blasfemiyaq, guezurraq, adulteriyuaq, eriotziaq eta verze delicto edo pecaturiq izigarriyenaq bete zuten mundu guziya: odolaq du odola uquitzen, Buratsuaq du humia escandalizatzen, senidiaq senidia eztu icusinay, senarraq naidu vere esposarequin veressi, ezta iñonere desordena berceriq causitzen, Ciudadia da verze Ninive Pecatari bat, non vizi baita bacocho vere deseyuen neurriyaren era verat, erriya da desierto espantagarri bat, non batzubeq ari baizazquiyo berziey autsiquica, elcar puscetzen, non abariciyaq envidiyaq eta gorrotubaq armaerazten battu batzubeq verzien contra; icusi bada emen salvaziyuaren lentavizico vidia baita inoncenciya, itsiya⁴⁵⁰ personen número andibatenzat.

Eztaba da guelditzen inocenciya galduezqueroz Ceruban sarzeco verze videriq, vaiziq penitencyacua; eta non diré gaurco egunian eguiyazco penitenciaq? non diré causittuco even vizitzaren zatiriq gueyena pecatubetan pasatu, eta Justiciya Divinuari satisfacciya emattia, trabajuben eta penitencya eguiyazco baten nigarren medioz even pecatubaq purgatzia pensatzen dutenaq? Hay eta cen veressi eta contatubaq diren! an guti diré non zuben erratten S. Ambrosioq persona gueyago cittubela causittu batayoco inocenciya conservatu zutenaq, eroriezqueroztiq, Penitenciya eguiyazcobat eguin zutenaq viño: S. Ambros. de Penit. lib. 6 C. 10.⁴⁶⁰

O sentenciya icaragarriya! Zer iduritzen zaitzube niq zubey presente eguinttizubedan Escritura Sagradaco ejempluben, Aita Santuben erranen, eta arrazoyaren eracustiaren vistan? Ha! gueyago direla Cristaven artian condenatzen direnaq, salvatzen direnaq vaño; eta cergatiq? Cergatiq gueyago diré gaizqui vizi direnaq, pecatuban dabilzenaq, ongui vizitzen eta virtutia seguitzen dutenaq vaño; bada nola vizi ala ill; nolacua vizitza alacua acavilla dio S. Bernardoq, *qualis vita finis ita*: guziyaren confirmacyoraco adi onaco ejemplu laburrau.

Digu contatzen S. Vicente Ferrerreq: Leon Franciyaco Canonge batez; erretiratu zen Canongiau desierto baterat, utziriq vere Canongetasuna; Ylzen⁴⁷⁰ S.ⁿ Bernardo ilzen egun artan; Yllta, aguertu zetzayon Canongiaren arima vere Obispuari. Obispua oneq galdetu zion vere arimaren estado edo suertiaz, eta errespondittucion guisa onetan “Ni ill ninzen orduba artan, ill ziren 30 milla persona. 30 milla persona otatiq bacarriq S. Bernardo eta ni yuan guiñen chuchen chuchena Zerurat, verze iru yuan ciren Purgatoriyorat, eta verze ogueita (29 mil) bederatzi milla, vederetzitan eun eta larogueita amaborzaq yuan ziren Ynfernurat betico; au erran cion Canongiaren arimaq vere Obispuari.

¿Nor da bada salvatuco? didazube erranen; izanen da araco Christaba ura, batayuan bereganatu cittuben obligaciyeu eraverat vizidena: izanen da⁴⁸⁰ araco penitente eguiyazcua ura, vere vizitza pasatuban eguiñeco pecatubetaz, gue(l)dittu vague nigar eguitten dubena ura; izanen da araco guizona ura, iñoriyere agraviyoriq eguitten eztion ura, viyotza zuzena, escubaq garbiyaq ttubena ura, eta vere Jangoicuaren leguia guardatzen dubena ura; izanen da araco guizon aberetsa ura pobriyen miseriyetaz urriquelduriq limosneterat aplicatzen dena ura; izanen da araco pobria ona ura, bere pobrezaco trabajubaq eta miseriyaq paciencyarequin sufritzen eta Jangoicuaren borondatiarequin eramentten ttubena ura; itz batian, izanen da salvatuba, pecatu eta pecatu ocasiyuaq utziriq Confesiyo on bat eguiñiq Jangoicuaren Mandamentubaq Elizarenaq guardatzen, vere estaduco obligaciyeuan cumplitzen ttubena, moduba onetan⁴⁹⁰ graziyan irauten dubena; eguin bada Jaunaq onela, nai baduzube izan Ceruban sarzeco escogittuben numerocuaq, ceñena izanen baita betico gloriya. Amen.

O Jangoico Santuba! O Jesus Samentatuba! Ycusi bazanuben dembora batian zuri humillqui escariyua eguitten Abrahan bateq Sodomitarren desgraciya sumatuta, uste dut gaurco egunian eztuzula despreciatuco Ministro indigno naizen vezalaco bateq orañ eguittera nuan súplica edo escariyua eta valdin ezpadut mereci nere pecatubengatiq zutaz aditzia, vederen dizut escatzen Calvarioco mendian, mundu guciyaren presentian eta lotsariq andiyenian issuri zanuben odol preciori q vaguiarengatiq, eta Sacramentu adoragarria⁵⁰⁰ orretan manifestatzen diguzun Amoriyo negurririq eztubenarengatiq. Zure ganiq misericordia Sodomitarrentzat Abran justubaq escatzen zizun vezala, alaber Jauna Sacerdote desleyal oneq dizu pretenitzen vere aditzalle guziyen salvaciya. Eztedezazula vada Jesus amorosua permitittu nere auditoriyo onetan dagon aditzalle vacar baten desgraciya au. Peligruban gaude, eguiya da eta onecheq durdariatzen gattu, berdultzen gattu viño espero dugu. Zure graziyetaz lagunduriq vencittuco ttugula pasioniaq eta tentacioneaq, eta moduba onetan aterico garela munduba onetatiq victorioso zure gloriyarat. Amen.⁵¹⁰

Bibl.:

Orreagako bilduma. JMS-ek jaso.

Argitaragabeak. 155 x 215 mm. (7/5 eta 7 orrialde).

44. ERRO (18..)

Hogei urte baino gebiago bada Erroko izkribu hauek nere eskuetan direla. 1965ean ekarri zizkidan Ana María de la Quadra Salcedo andereak. Fotokopiak

direnez, eta iskirione xehearengatik ulerkaitzak, orijinalen atzetik ibilia naiz. Hiru bat aldiz behintzat izan naiz Erron, baina fitxik lortu gabe. Lehenbiziko aldian, parrokiako artxibua begiratuko zuela hitzeman zidan herriko apaizak. Geroztik esandakoa hitz hauetan mamitzen da: “paper horiek noizbait hemen egon badira, desagertuak dira”.

Hiru sermoi dira eta bertan dagoena ahal bezain zehatz jasotzen ahalegindu naiz. Askotan irakurri behar izan ditut, noski, pasarte ilunenak argitzeko.

I

Cepiique Moyses explanare legem, et dicere. Deut. 1.

Escritura sanduaren lemissico capituloan erraten digu Jaungoicoac, Moises haviatucela legue sanduaren explicacen demboragartaco genderi erraten ciotela, aizacie dotrinagau cuidado eta atencio andiarequin beidazacie erratencio te legue sandugau dela zuen iaquintasun gucia eta doctrinagonequin beartuciela, pasatu eta garaitu bentaja andiarequin munduontaco berce gende guciac: *Haec est vestra sapientia, et intellectus coram populis*: Atendizacie erratencio te Moisesec, bada icasten baucie Jaungoico sanduaren legue sandugau, ereje guciac admiracio andiarequin erranendute zuengatic, cer gende dire evec? gende batzuc ain iaquinsunac, ain aituc, eta ain andiac? cinez gende andiac nere, Gende onac, Jaungoicoaren leguea daquitenac eta leguearen arabera obracen dutenac: Nic ere nainuque bada egun habiatu explicacen pisscabat¹⁰ legue sanduontaic, Moisses bezala, ez ainberce izpiritu, eta iaquintasunequin nola Moises, baiña bai ainberce deseoequin, ero gueiagoequin aprovecha dezanagatic zuen baitan cerbait: badaquit legue sandugonequin munduco legueac, ero munduac artuituenac eztirela ongui etorrico, eta gaizqui atraconaizcela nere contuetan, baiña alare eztezaquet cerbait errateco utci, bearbada norbait aprovechatuco da:

Baiña erranicien lemissian legue sandugonequin etcirela ongui etorrico munduontaco legueac cergatic dembora evetaco christauec urte gucian beressi barinbadute dembora pisscabat beren diversiotaco, negociotaco, escesotaco eta maldadetaco, da Abenduco dembora pisscagau, gucia da beilla, gucia da escesoa, eta gucia da maldadea; ez tut bada erranai nic eztaitecila divertitu, basic diberti daitecila honestoqui, eta Jaungoicoac manacen²⁰ duen bezala, becuric, eta escesotic guardacen direla, beren debocioequin, eta obligacioequin cumplicen dutela, prevenicen direla confesio onbatequin jesuChristo gure erredentorearen errecibiceco, bada au ongui eguiten badugu cumplituco dugu Jaungoicoaren legue sanduarequin, erdechico dugu munduontaco gracia, eta bercean gloria.

Misus est Angelus Gabriel ad Virginem desponsatam joseph. Luc. 1

Egun celebracendu gure Eliza Ama sanduac gure erreligionearen, ero legue sanduaren misterioric andienetaic bat, gure erreligionearen, ero legue sanduaren obraric andienetaic, eta sanduenetaic bat; Misteriogau, ero obragau ceñ andia eta sandua den oficialec eta materialec berec eracusten digute; Oficialec dugu Jaungoico Aita eternua, bere semea, eta Yspiritu sandua, Materialea dugu Maria santissima considerazagun bada orai nere³⁰ Gende onac, cer obra den au: egun celebracen dugu bada Maria Santissimac Jaungoico ayta eternuaren seme bacarra concebitu zuen eguna, Sn. Lucasec erratendigun bezala lemissico capituloan, *Misus est Angelus Gabriel* etc. Biali ciotela Ayguiru Sn. Gabriel mandatuarequin, ero embajadarequin erran cezola Maria Santissimari Jaungoicoaren partetic nola concebituco zuen seme bat Yzpiritu sanduaren obraz. libratuco zuela, eta Ycena emainciola Jesus: Yrur gauza eguincituen Jaungoicoac andiac eta admiragarriac, ceñetan eracuxi baicion munduari bere iaquintasuna eta bere poderea; lemisicoa eguina cituen Ceruac bere asentutaco, eta descansutaco Anguiruec eta justoec icusten eta beidacen diotela; bigarrena eguinzuen mundugau, garcelabat, ero desterrubat bezala; eta Yrugarrena eguin zuen Maria Santissima bere seme bacarraren depositutaco, bedraci ilabetez depositacen cela⁴⁰ andre gonon sabelean garcel batean bezala, eta azquenean bezticen cela guizonaren miseria eta trabaju guciez mundu tristegau erredimiceco: ¿cer Andre da bada au, nere Gende onac, ainberce fabore meressi izanduen, Jaungoicobat bere sabelean iduquiceco diña izandena? Aynguiru Sn. Gabrielec erraten digu itz gutitan cer andre den au: ave Maria gracia plena: Maria gracias betea: dudaric eztago Jaun goicoaren Amac bearcituela izan virtute guciac, gracia guciac, eta doi guciac, becatuaren mancharic secula izan etzuela; ala erraten digu Sn. Caietano Cardenalac; Maria Santissima bere Ama Santa Anaren sabelean izancela santificatua Jaungoicoaren gracias eta privilejioz, eta gracia gura secula etzuela galdu; etzunque bada gutiago eguin Jaungoicoac andregonequin, cergatic au autatu zuen, ero beressi zuen bere seme andiaren Amazac, eta alaco semearen Amaren baitan⁵⁰ aurquitu bearciren Jaungoicoaren gracia guciac goien goieneco puntuan, Jaungoicoaren privilegio eta favore guciac. Claro dago bada, nere Gende onac, Juangoicoac autacen badu, ero beresten badu presunabat oficio bateco ero estado bateco ematentiola oficio artaco, ero estado artaco beartuen calidade eta circunstancia guciac; dignoqui eta bearden bezala cumpli dezan bere estadoarequin, ero oficioarequin; ¿norc dudatuco du bada Jaunjoicoac autatu zuenaz gerostic, ero beressi zuenaz guerostic andre guciac eritean Maria Santissima bere seme andiarren Amazac emancitiola, ero beztitu zuela andregonen arima bere gracia, virtute eta privilejioequin goien goieneco punturaño? Ala bada andregonec izanzuen Patriarca guciac baiño fede gueia-

go; Profetec baiño iaquintasun gueiago: Apostoluec baiño cuidado hueiago: Martirec baiño paciencia gueiago: Confesorec baiño templanza⁶⁰ gueiago: Virginec baiño inocencia eta humildade gueiago: Maria Santissimaren baitan aurquitu cen Abelen inocencia, Noen justicia, Abranen fedea, Ysaquen bel-durtasuna, Jacoben perseverancia, Sn. Josepen honestidade, Moisesen mansotasuna, Josuen obediencia, Daviden humildadea, Salomonen iaquintasuna, Heliasen cuidadoa Jaungoicoaren honrraz, Ezequiasen negarrac, Job sanduarrren paciencia, Tobiasen misericordia, Ysaiasen sufrimentua, eta Sn. Juan Bautistaren sandutasuna: Arma fuerte eta eder(ra) evequin Veztitu zuen bada Jaungoicoac andregau bere izate naturalaren lemissico instantetic, cergatic baicequin fite ero laster atra bear zuela batallaco campora, Lucifer serpiente zar gaisstoarri burua austera, eta abarricacera: Luciferrec iaquin zuen bezain laster Jaungoicoaren errevelacioz, Donceilla gaztebatec concebitu zuela bere entrainetan Yzpiritu sanduaren obraz Jaungoico eta guizon⁷⁰ bat mundu gucian erremediacara elducena, bereala aviatucen conjuracen eta armacen Jesus aurraren, eta bere amaren contra, equencen citiotela viciac sorcenciren aur guciei, baldin Jaungoicoaren providenciaz eta avisus ezpace iiesi joan Maria santissima bere esposo Sn. Josequin: Ycusi cituen bai Jaungoicoac guizonaren miseriac, eta trabajuac, hure lemissico ama Evaren medioz etorriac Ezarri cituen Jaungoicoac Paraisuan Adan eta Eva pasea ceicela lecu eder artan, devecacen ciotela arbole bateco frutua bacarric ibaiña cer guertatu cen! sartu cen Lucifer gaistogura, eta erran cion Evari, baldin iaten bazuen debecatuic ceucan arbolearren frututic Jaungoicoac bezanbat iaquinen zuela, eta cer eguin zuen Evac, andrearena, beti bezala curiosac eta iaquin naiac, artuzuen debecatuic ceucan frututic ian zuen, eta ianaci cion bere senarrari, Adanei; eta ian zuten bezain laster⁸⁰ guelditu ciren bulussiric, Jaungoicoaren gracia galduric berendaco, eta beren ondoreco guciendaco, guelditu ciren Luciferren esclavo, eta eriocearen sujeto ero menean berac, eta beren ondoreco guciac: Ycusi cituen bada Jaungoicoac guizon tristearen miseriac, eta trabajuac, eta lastimatucen bere idurira, eta semejanzara eguinicaco guizon tristeaz; Determinatu zuen bada Jaungoicoac guizonaren miseria eta trabaju guciac erremediacea, even gucien erremediaceco, obequi estimaguindezanagatic favore andigau, biali cigun mundura bere seme bacarra, guizon eguiten cela Maria santissimaren sabelean Aytaren, semearen, eta Yzpiritu sanduaren obraz, cerbizacen zuela materialetaco, ero Jesuchristoren gorpuztaco Maria santissimaren entrainetaco odol piscabatec; au dabada, nere Gende onac, egungo misterio ero obra andigau, Jaungoicoaren semea guizon eguitea, eta mundura etorcea becatari⁹⁰ gucien salbacera, *Christus venit in mundum peccatores salvos facere*: Jesuchristo etorri cela mundura becatari gucien salbacera. ¿Cembat gracia, eta cembat esquer eztiogu bada zor, nere Gende onac, Maria santissimari favore onengatic? ¿eta nola ezquinduce alegratu bear egungo misterio

andiontaz? Bada Andre batec galdu bazuen mundua, berce bat jaiocen mundu guciaren erredimizalea eman duena Eva tristeac galdu bazuen Jaungoicoaren gracia; Mariac bilatu cituen guciac; Eva tristeac ezarri baguin duza Luciferren esclavo; Mariac eman digu libertade osoa; Luciferrec engaiñatu bazuen Eva, Mariac abarricatuitiote buruac infernuco Lucifer guciei: Zori onean jaio donceilla ederra; dichosa, eta milla aldiz dichosa zara zu, bedeicatuata andre gucien ertean; bedracitan egun urte bazuen, Eva tristearrec negar eguiten zuela bere becatuaz, beñere beguiac etciceizquiola chucacen; Aytuzuelaic¹⁰⁰ bada egungo misterioaren, ero obraren noticiagau nola alegratu eta consolatu bidecen Eva tristea; ¿cenbat consoluiqui, eta bozcarioiqui joan bidecen lasterca Maria santissimarengana gracia, esquerrac, eta enora buenain ematera; erratenciola, ay nere Donceilla gazte ederra, nere Ama zabala zuc zuc bilatuzu nic galdu nuen alaja preciosoa; zu izanzara bacarric digña andre gucien ertean nic eguintudan daiñu guciac erremediaceco: zure medioz bilatu dut galdu nuen gracia, eta zure medioz erdechico dut despreciatu nuen paradisua: itz evec, eta berce anizt alaco erraten cition Eva tristeac Maria santissimari: ¿cergatic eziogu bada guc ere egun eta vicigaren egunetan consoluz, eta bozcarioz beteric milla gracia esquer, eta enora buena emanen andregoni eguin digun favoreaz? Cer eztugu aimberce parte, eta interes obra gontan nola Evac? Bai nere gende onac, gucien gatic concebitu¹¹⁰ zuen, eta guciengatic eman zuen mundura bere seme maitea: ¿ceiñ izanda Christaua artuco eztiona Maria santissimari devociobat sandua bere avemarien, salven, eta letanien medioz? ceiñ izainda Christaua iduquico eztiona erreverenciabat eta errespetu bat andia? Bada Mariagau guelditucen munduontan, Evaren orde z gure Amataco, gure abogadataco, gure amparotaco, eta gure medianerataco: amagonen medioz beardugu erdechi munduontan gueren tristecetan consolua, trabajuetan paciencia, eta conformidadea, eritasunetan, eta naigabetan sufrimentua, obra onetan perseverancia. Eva (...) can Ama sandugon (...) (Virginem) bear dugu erdechi Jesuchristo bere seme bacarraren gandic munduontaco gracia, eta berceco gloria: *Quam mihi et vobis prestare dignetur in N. P. et F. et Es. S. Amen.*

II

valde mane una sabbatorum, veniunt ad monumentum, orto jam sole. (Marc. 16, 2.)¹²⁰

Sosegu andian, eta descuido gueiagorequin lo cegon Profeta Jonas Unciaren barren barrenean, dembora berean Unciontaco Capitan, Mariñel, eta Pasajero guciac aurquicen cirelaic munduontan pensa aldaizquen trabajuiz

andienetan: instante batetic bercera Yxasoaren boladac goiticen cituen ceruco odeietaraño, bereala sarcencituen Yxasoaren ondarreraño. Tempestadec eta tormentec arrallacen cuten Uncia, Aice Gaisstoec austen citioten Unciaren belac, eta cuerda guciac; aguercen ciceizquioten goibel belz bazuc oiñazturez, eta ortoxez beteric guciac arricen eta loxacen zustela; Yxasoaren orroec lazcacen cituela; Urec batac berceas golpe emanez, abuñaac ceruraño goiticen cirela, eta andic berceco Yxasoain ondarreco areac icusi artean urac particen cirela: Lancetrise, eta lastimosogontan, Trabajueven gucien erdian lo cegon Profeta Jonas sosegu eta descuido andiarequin; Baiña¹³⁰ Mariñel eta Pasajero guciac zabilzan aflighturic eta arrituric uncico carga guciac ixasora botacen, mercaduria guciac, eta oraiñic bear zuzten alimentuac ere, beren biciac libra-ceagatic; oiueguiten zutela negarrez Cerura misericordiaren eta socorruaren billa. Yratzarri cen badanoizbaitere Profeta Jonas, eta icusi zuelaic tempestade bat ain itxusia eta loxagarria, Mariñelac eta pasajeroac erdi ilic, beren biciez esperanzaric batrere etzutela; Habiaturcen oiuz Profeta Jonas gucien alcinean erraten zuela; ura cela medio moguitu cela tempestade-gura, eta nai bazuzten beren biciac libratu bota cezatela Yxasora, berce gaiñeracoan guciac galduac cirela: *per me orta est haec tempestas mittite me in mare*, neregatic sortu da tempestadegau nai baucie libratu bota nazacie Yxasora. Habiatur ciren bada tratacen cer eguinen zuten eta azqueneco determinatuzuten Yxasora botacea, eta botatu¹⁴⁰ zuten bezain laster aguertuen Balebat agoa idiquiric eta sartuzuen oso osoa bere tripan bereala sosegatucen Yxasoa, eta serenatu cen Cerua andic irugarren egunean eillegatu ciren Niniveco Portura, eta arara aguertu cen Baleare Profeta Jonas bere tripan zuela eta an bota zuen aicealdi batez idorrera Profeta Jonas biciric iru egunez bere tripan iduqui ondoan: Orai bada, considerazagun ongui, eta atencioarequin cer gustoa eta consolua artu zuten Mariñevec, eta Pasajeroavec beren buruac icustez osoic eta sanoic, peligro evetaic eta tempestade evetaic campoan, eta icusi zutelaic, Profeta Jonas biciric atracela Balean tripatic iru egunez orciric egon ondoan? Nornaic ezautucodu bada nere gende onac, Pasajegau, eta lancegau dela figurabat, ero semejanza bat ongui propioa egungo misterio andi eta sandugonena: Jesuchristo gure Redentorea guizon eguin baño len, munduontara¹⁵⁰ etorri baño len, iduri zuen lo cegola; eta dembora berean mundugau gucia cegon tormentaz, eta tempestadec beteric gure lemissico Aiten, Adanen eta Evaren becatua cela medioz: tentacio gaisstoen aiceac cebilzan furia eta errabia andiarequin, trabajuen Yxasoa cegon nasiric eta coleraturic pena, eta lastima guciac batean ematencituela; etce iñorere segur cegonic azquenean Patriarca sanduec, Profetec, eta Jaungoicoaren aisquidec senticen zuten, eta sufricen zuten trabajugau, eta desgraciagau, cergatic avec ilcearequin even arimac erausten ciren ero erocen ciren infernuco garcel ilunetara, Abranen calabozora Yratzarri cen bada noizbaitere Jesuchristo gure Redentorea etorri-

cen erran nai dut, mundura guizon eguinic, gure erredimicera, tempestade evetaic, eta tormenta evetaic libracera, Luciferren azpitic atracera. Habiaturcen bada disputacen Escriba eta fariseoequin, eta¹⁶⁰ pendencia cembait izan ondoan condenatu zuten, botatu zuten bere trabaju eta pasione sanduco Yxasora, emen izan zuen eriocearen Baleac, iru egunez bere tripan iduquicenzuela.

Ycusagun bada orai cer eguin zuen Jesuchristo gure redentoreac ilic egon cen iru egunevetan. Fede sanduac eracustendigu, eta christau guciecala confesacen dugu Jesuchristo erauchi cela infernuetara an ceuden arima sanduen libracera: lau infernu badira, lemissicoa, condenatuena barren barrenean dagona, bigarrena purgatorioa gracion ilcen diren arimen lecua, baina oraiñic becatuen manchetaic ongui garbitu eztirenac. Yrugarrena limboa aur bataiatu gabe ilcendirenen quartoa; laugarrena Abranen calabozoa, arima justoen garcela, lau lecuebetan bada manacenzuen Luciferrec autoridade, eta dominio andiarequin, berac iduquicen cituela¹⁷⁰ calabozo evetaco guilzac, aliqueta jesuchristo erauxi artean. Bazuen bada aicea Luciferrec, Profeta sanduec erranic, Maria santissimaren semebatec, Jesuchristo deicencioten Jaungoico eta guizon batec il bear zuela munduco gende gucien favoretan, eta erremediotan, onec erauchi bear zuela infernuco atarien idiquicera, eta Demoniari autoridadea eta potestadea equencera: bacequien eta etzuen sinestacen, baiña beti cegon duda eta beldur andiarequin: Lucifer bere beldurraiquin cegon atendicen eta barrendacen ia Jesuchristo eraustencen, eta icusi zuelaic Jesuchristoren arima gorpuza sepulturaren utciric divinidadea bietan aurquicencela, majestade eta autoridade andiarequin erausten cela infernuetara, itzulicen guibela lasterca oiuz bere lagunei¹⁸⁰ erratenciotela Demonioac arma zaizte, ersquigun atariac ongui, guc sinestatu nai ezquinduen eguietan atrauc, guc beldurra guinduen elduduc, gueren buruoc, eta condenatuoc berere segurazuigun: sartucen bada Jesuchristo Abranen calabozuan, arima justoen lecuaren gloriac beteric, arguicen ciotela calabozu ilunura, ainberce urtealetan deus ere icusten etzutela deseo andiarequin esperacen zutela mundu guciaren redentorea: Considerazagun bada orai piscabat, nere Gende onac, cembat consolu, cembat bozcario, eta cembat gusto artu zuten arima justo evec Jesuchristoren visita gonequin; cein itz berachac erraten bidecitioten Sn. Josei, Sn. Juan Bautistai, Dabidei, Abranei, Job sanduari, eta gure lemissico Aitei, Adanei eta Evay, erratenciotela tristeac eta miserableac consola zaizte, beidazacie cembat trabajutara botatu¹⁹⁰ ninduen zuen becatuac: Dembora berean Jesuchristoren visitagonec infernuetara Demonioendaco, eta condenatuendaco izancen tormentu gueiagotaco errabia, eta desesperacio gueiagotaco, Demonioei cergatic equencencioten autoridade eta dominio gucia condenatuei cergatic etcitceioten gueldicen infernutic atraceco esperanzaric batrere. Yrugarren egunean bada juntaturcen Jesuchristoren arima bere gorpuzarequiñ, eta atracen biciric

Profeta Jonas Balearen tripatic, viztucen Jesuchristo, errezucitatucen ez secula berriz ilceco: *resurrexit sicut dixit*: Bada jesuchristoc berac erranic ceucan Sn. Mateoin amabigarren eta berrogeigarren capituloan; ala nola Jonas egon baicen iru egunez eta iru gauetz Balearen tripan, ala arrec ere egon bear zuela iru egunez eta iru gauetz lurraren tripan: *sicut enim fuit Jonas in ventre ceti tribus diebus, et tribus noctibus: sic erit filius hominis in corde terre*²⁰⁰ *tribus diebus et tribus noctibus*.

Eta il bearzun bezper arraxean errancioten bere discipuloeri amorio eta sentimentura andiarequin nola guciec desamparatuco zuten ilceracoan; Baiña erresucitatu ondoan guciei esperacen ciotela Galilean an icusico zutela guciec: *Postquam autem resurrexero precedam vos in Galileam*: Egun goicean bada, argui astein, Yruzquia atra bezain laster balsamoac erosiric iru Mariac, negarez lastimaturic, guciei biozac particen, eta urcen citiotela jesuchristoren gorpuceco llaguen untacera: illegatucirelaic²¹⁰ supultura, eta icusi zutelaic etzegola an Jesuchristoren gorputza, orduan ciren bada andre even negarrac, eta lastimac, ustez norbaitec ebasi cioten, baiña particulazqui Maria Magdalena-renac, erratezuela; O nere Jesus, o Nere Maistru maitea, cer eguinendut bada nic zu gabe, nora joainaz zure bila cerc eremanacinindue ni bart zure oiñetaic, ojala emen egon baniz zure guardian, etcinduzcat utcico ebastera, O nere Jesus dulcea norat ereman zaituzte; ¿cer eztire contentatu zu ilceaz eta acabaceaz zure exaiac? orañic il ondoan ere eztizute descansuic emanai? itz evec erraten aicelaic beidacezuen maiz sepulturara, ustez beguiac engañacen ciceizquion, eta ontan cegolaic icusicituen iarrcen il obiain ezquer escuñetaic bi ainguiru zuriz beztituric, eta batec errancion bereala, andrea certaco negar eguintenduzu, consolazaita, alegra zaite, eztuzu cer loxatu, badaquit bilacenduzula²²⁰ Jesuchristo nazareno crucificatua, erresucitatuda ia, ezta emen, icusazu orci zuten lecuau; zoaci, errantzozute apostoluer, particularqui Sn. Pedrori, alegradaitecila eta consola daitecila nola Jesuchristo erresucitatuden, eta Galilean esperacentuela. Au dabada eguna, nere Gende onac, Jesuchristoc guciei erratendiguna alegragaitecila, eta consolagaitecila, arimaco eta gorpuceco bozcarioequin celebrzagula egun andigau; *haec est dies quam fecit Dominus exultemus, et letemur in ea*, cein izain dabada cristaua egun alegracen eta consolacen eztena, bere bici gucian graciac eta esquerrac ematentiola bere redentoreari egun errecibitu duen favoreaz? egun alegracen dire apostoluac, eta Mariac, ainguirua eta guizonac, justoac eta becataric, Cerua eta lurra eta azquenean infernua berare, cergatic egun libra centuen bere prisioneroac, aita sanduen arimac atariac idiquicentuela cerura iiateco,²³⁰ etzuen bada Jesuchristoc iñorere beressi favoregontaic guciei ceucan amorioaingatic il cen, eta resucitatucen ainberce pobregatic, nola abrasengatic, chiquiengatic, nola andiengatic, eta ainberce becatariengatic, nola justoengatic; Yñorquere eztu

cer achuquiaric, eta escusaric alegatu ezparinbadu faboregontaic provechuric atracen, berea da culpa, eta ez bercena, bera berestenda, eta apartacenda favoregontaic; Egun goicean, argi asiorduco len lemessicoa balsamoac erosiri-coan cen Maria sepulturara Jesuchristoren bila, eta ala lemessicoa izancen logratu zuena Jesuchristo erresucitaturic gloriac beteric icustea; sepulturain ondoan belaurico iarriric negarrez aicen oracio eguiten; eta aguertu ciceion Jesuchristo, erratenciola, Maria certaco negar eguiten duzu? bereala ezautu-zuen Maria Madalenac eta errespondatucion nere Maistru maitea, eta berce itic errateco biocic ez izanez²⁴⁰ eurtiqui ciceion lurrera oiñac adortu bearez. Berriz errancion Jesuchristoc, Maria uznazazu, prisaca nago, orañic eznaiz iian Cerura nere Aitarengana, an adortuco nauzu espaciorequin, orai zoaci zu berce bi Marietara, eta nere Apostoluetara errantzozute nola icusi nauzun erresucitaturic, baiña particularqui erranzozu Pedrori: ¡O cer pasajea au! ¡O cer itzac evec! nere Gende onac, missterio aniz dutenac. Maria Madalena egun ain goizter moguiceac Jesuchristoren bila; erran naidigu abada, guc ere nai barinbadugu, eta deseacen barin badugu icustea Jesuchristo erresucitaturic, goizic moguitu beardugula goizic eman beartogula graciac egunero eguitentigun beneficioez, eta favorez; au eguitenzuen bada Dabidec Jesuchristo erresucitatu baiño len, eta au eguin bear dugu christau guciec erresucitatu ondoan; bere egun eta emezorcigarren salmoan erratenduen bezala, *prevenerunt oculi mei*²⁵⁰ *ad tediluculo, ut meditarer eloquia tua*: Jauna nere beguiac iratzaric daude, eta lencen zaizquio Yruzquiai zure alabacera, eta graciac ematera: Jaungoicoac legueac ezarri citiolaric guizonari, deusere etcion ain erchiqui, escatu, nolabaita Jaungoicoaren escuetaic errecibicen zituen favoren, eta beneficioen agradecimentua, eta correspondencia: ala dio Sn. Juan Crisostomoc bozgarren salmoan: *oportet enim ad gratias tibi agendas solem prevenire*. Guizona graciac ematera Jaungoicoari lendu bearzaiola Yruzquiai, cergatic Jaungoicoac beti ematen digun esperacen dugun baño gueiago; Maria Madalenac esperacen zuen Jesuchristo llagaz beteric aurquituco zuela, bada lлага even untaceco erosi cituen balsamoac, Baiña icusi zuen gloriac ederturic; Job sanduac etcion berce gauzaic escacen Jaungoicoari, baissic justo justoan iceteco, eta bezticeco bearzuena munduontan, eta Jaungoicoac²⁶⁰ errancion, Job guti escacenduc, i izainaiz Yruzquia atracenden alderdico guizonic abraxena, eta (...) goicoa (...) eguinic logra besoetan iduquicea, eta besarca ematea: zaqueo guizon chiquittoac naizuen icusi Jesuchristo tropa andibaten artean (Jerichoco) bidean, bere chiquitasunez, eta obequi icustea-gatic iiacen arisbaten gaiñera, eta Jesuchristo eillegatucelaic pare parera beidatucion, eta erracion, Zaqueo erauchadi laster aritz ortaic, gaur ire echera noaiiec ostatacera: icusacie bada orai nola cumplicentuen gure deseoc, baldin ongui

262. Folio erdiaren eskubiko aldean lerroren bat gald da, eta hasierakoan hitzak erdizka datoz.

deseacen bada. Jesuchristoren erresurreccioac eracustendigu egun, guc ere beardugula erresucitatu, Baiña lenic escacendigu gueren arimen erresurrecioa, Baldin barinbadaude ilic becatu mortalain medioz, biztuzquigula confesio onbatequin, berce gaiñeracoan gaizqui alegratuco, eta consoltuco²⁷⁰ direla. Etcen bada contentatu Jesuchristo, Ainguiruac errateaz Maria Madalenari eremancezala noticia andigura Apostolueri; berac erraten dio bigarren aldiari; Maria zoaci nere dicipuloetara, eta errantzozute nola icusi nauzun erresucitaturic, baiña particularqui errantzozu Pedrori. Pedrori Jauna? orañic eztu-iru egun erratenzuela juramentuaiquin, deabruac ereman cezatela baldin ezaucen bazinduz, ¿cer ain laster eman naibioze consologua? orañic fresco dago becatua, utzazu guti bat negar eguitera: ez errantzozu. ¡O cer itzar evec, nere Gende onac, baldin ongui comprendi baguindeiza! Erran naidigu bada, den becatari andiena izanic ere, baldin eguiten badu penitencia, escacen badu misericordia, eta barcamendua, prest dagola barcacera eguitentioten ofensac, eta bereala acencendela; Pedro cegon iru egunaietan quarto batean bacarric negarrez, escacenzuela penitencia eta misericordia²⁸⁰ bere becatu eginaz, eta argatic dauca Jesuchristoc ainberce cuidado eremandezoten noticiagau, Ontan eracusten digu bada guriere, nola beartioguten guc ere barcatu gueren proximo lagunei eguiten diguten agravioac, eta ofensac, estalcentiogutela caridadea, eta sufricentiogutela pacienciarequin beren faltac, eta flaquezac; bai etare nola beardiogun escatu Jaungoicoari penitencia eta misericordia guerec eguitentiogunez. Maria Magdalena bacaric gueldicea belaurico iarric Jesuchristoren sepulturain ondori, erratenzuela etzela andic moguituco Jesuchristo bere Maistru maitea icusi artean, erran naidu, perseverancia. Baldin erdes ohi barinbaldugu Jesuchristoren gracia Bazcoa (...).

Persevera zagula Maria madalenac bezala munduontan gracion, eta guero espaciorequin adoratuco dugula secula seculacoz ceruan. *Quam mihi et vobis prestare dignetur in N. P. et F. et Es. S. Amen.*

III

His fieri incipientibus, respicite et levate capita vestra. Luc. 21.²⁹⁰

Vi vide dire solamente cerureco bata inocenciecoa, vercea penitenciecoa. Ynocencieco vide, da guciz suavea eta alegrea vide ontas doacinec, galdu gabe Bautismo sanduco gracie eta becatuen manchaic den gutienic gabe, dificultadeic gabe edequiq arrapatceute ceruco atarie. Al contrario, penenciaico videaguciz penoso, gucia trabajua ta dificultadea vide ontaz doacinec ez dute berce guise ceruco Atarie edequico, baicic castigatuz, ta Mortificatuz veren pasioneta inclinacio gaisto guciec. Eta cein bidetaz³⁰⁰ guaci gu? guaci

acaso inocencieco videaz? Badira acaso aniz gure ertean. Bautismo sanduco gracie conservatceutenac? Ah! zaumentue izan guiñuen bezain laster asiguiñen Jangoicoa ofenditcen eta gueiago dena, eztugu berceic iten baicic añaditu egunetic egunera ofensac. Ezta acaso Jangoicoan legueco edo Elizaco madamentuic, quebrantatu eztugunic. Cer bide guelditcen zaigu bada cerureco? Ez berceic, baicic penitenciecoa. Ezta erremedio(i)c, edo penitencie in beagu munduontan edo padecitu ta penatu eternidade batez vercean. Ontan ezta dudaic Penitencie consideratu daique, Sacramentue bezala, eta Virtutea vezala. Penitencie Sacramentue bezala ezta berceic, baicic confesio dolorosoat gueren becatuac sacerdotean absolucioaqui batean au da comunqui deitcendugune confesioa. Penitencie virtutea bezala, da biotcen dolore sentimentuet,³¹⁰ ceñen medioz aborrecitcen du guizonac becatue, cergatic den Jaungoicoan ofensa, permititcen diolaic satisfacio matea vere vicimoduen emiendaiqui. Ain inseparableac dire vi penitencioc bata bercean gandic, eci ezdiroque aprovechatu becatariei sacramentuec, vertuteic gabe, eta ain guti vertuteac Sacramentuic gabe. Orgatic naidiciet gaur manifestatu penitencien necesidadea, orretaco consideracen gaitu Eliza Ama sanduec, Avenduco dembora sandu ontan, paratcen tuelaic gure veguien visten azquen juicio egunean ailciñen izain diren señaie terribleaiec.

Penitencie necesarioa da Jangoico ofendituen aplacatceco. Ontaco iaquin beagu becatue dela injuria bat, despreciatcen duena Jangoicoan Magestadea. Cergatic dauque bai Jangoicoac debecatuic becatue, Vere autoridade guciaiqui, arren madamentuen contra³²⁰ obratcea, claro dago dela desprecio andibat verorren Magestadeai iten zaiona, eta posible valitz nailuque becatariec, becatueiten duelaic, eztaien icen Jangoicoic: argatic nailuque eztezan zautu arren becatue, edo eztezan aborrecitu, edo eztezan izan autoridadeic castigatceco: ezpalu Jangoicoac zautcen becatue, ez litceque infinitamente sabioa, ezpalu aborreciten, ez litceque izein infini.^{tc} Justoa, eta ezpalezoque castigatu ez litceque izeñ infini.^t poderosoa. Orgatic indignacioz beteic esclamatcen du Sn. bernardoc. *Crudelis plana et omnino execranda malitia, que dei sapientiam, iustitiam et potentiam perire desiderat.*

O malicia gurziz cruela becatuena, deseiatcen baitu acabatcea Jangoicoan Jaquiduria, justicia, ta Omnipotencia.³³⁰

Cusic becatuen crueldadea, iaquin beagu naiz ez posible izaniccau (?) criatuac bere satisfacio mandezan amberceco doloreaz (?). Orrequi guciaiqui Jangoico ofendituac eztu nai galdu vere drechotic, antes bien naidu satisfacio mandezagun azqueneco munduraño. Baño cer satisfacio mandioгу guc ez verceic, baicic penitencie eguiazcoa. Eguia da, gure penitencie den andiena izanic ere, consideratcen bada bera, vacarric, eztela capaz satisfacio mateco

Jangoicoai intiogun ofensaz, justice rigorosoatec escatcen duen bezala, baño capaz izain de juntatcen balin baugu JesuChristo gure Erredentorean pasio sanduco meresimentuequin batean; modu ontan bai mandezoquegu Satisfacio abundantea. Orgatic ofrecitcen diogulaic Jangoicoai gueren becatuen satisfaciotan, edocein obraon, edo trabaju, edocein penitencie, beagu in JesuChristoren pasio sanduco meresimentuequi³⁴⁰ batean. Au gabe, gure obraon guciac, untce bezala izain dire. Emacie cer inderra duen untcec pareta edo arbole baten arrimoan, dembora labur ioten da goitico esquiñeraño; baño quenzocie pareta edo arbolea, ta qusicocie ceñ humil guelditcen den. Guise berean gure obra onac, JesuChristoren pasio sanduco meresimentuequin batean, inder aundie dute, baño aiec gabe aguitz apal guelditcen dire. Penitencie necesarioa da, becatuen manchau borratceco, eta quentceco becatuen ondoren guelditcen diren resulec edo inclinacio gaistoac: barcatuagatic Jangoicoac becatue vere misericordie infinitue dela medio, eztu choill barcatcen becatuen gatic merci gui(nu)en pena *Dominus transtulit peccatum tuum* errancion Natan Profetac David Erregueay. Jaungoicoac barcatu dizu becatue, baño orrequi guciaiqui ill veardu zure Semea becatuen pena edo castigacio:³⁵⁰ *veruntamen, filius qui natus est tibi, morte morietur*. Becatuen ondoan guelditcen dire resulec edo inclinacio gaistoac, eta aien quentceco preciso da penitencie continuoat. Orgatic engañatcen dire anitz becatari, pensatceutelaic confesoreai erranez gueroztiqueren becatuac, ya eztela aietaz quidadoic izan bear, seculc iñ ezipalire baño gueiagoc. O cein diferentequi pensadutean penitente eguiazcoac dembora gucietan. Adan gure lenbico aitec aitu zuen Jangoicoan veran agotic, barcatcen ziola inzion ofensa, orrequi guciaiqui, bedratci sigloco penitencie continuoatequi, procuretu zuen aplacatcea Jangoicoaren suplica. Bazaquien David Erregueac, Profeta sanduec erranic, barcatu zitiola Jaungoicoac, incituen becatuac, orrequi guciaiqui, oguien lequen iaten zuen suco autsa, ta negarrez beguieic beteic escatcen cion Jangoicoai: iago ta iago guarvi zezala vere³⁶⁰ becatuen manchetaic. *Amplius lavame domine ab iniquitate mea, et a peccato meo munda me*.

IV

Ceci vident, claudi ambulat, surdi audiunt. etc. Math. C. 11, 5

Esplicatu ondoan egun zorci penitencien necesidadea, iaquin viaugu penitencie eguiezcoaten señaile principalenetaic bat dela, vici moduen mudanza. Au entendatcera maten digu egun Evangelio sanduec, erraten diguleic: Ytsuec custeutela, sorrac aitceutela, maingueic badabilcela, ta illec resucitacendirela: aude Dionisio Cartujacoac erraten digun vezala: Ytsuec custeute,

Jangoicoan graciën arguitasune dela mediante, guizonac zautcentutelaic veren utsiñoc: Sorrac aitceute, orai artio casoic ez mana egondirenac, aitceutelaic Jangoicoan voza: mainguieç badaviltza perezoso ta descuidatuic astendirelaco obra onac iten: *mortui resurgunt*, illec resucitatcen dire, becatariëc penitencie itautelaic. Au da mudanza penitencie eguiazcoatec escatcen duena.³⁷⁰

(Amaigabca)

Bibl.:

Eskuizkribu orijinala galdu da.

Kopia JMS-ren paperetan.

Argitaragabea. Folio-neurriko 9 orrialde, ezker-eskubi idatzirik.

45. LUZAIDE (1869)

Erdaraz valcarlos esaten dioten Nafarroako herriaz mintzo gara Luzaide aipatzean. Ibañeta mendarte gainean hasten da bere lurraldea eta Frantziako mugaren albotik doa, errekarri jarraituz, ia hogeï kilometrotan errepidea. Sakan estu eta bihurria da Auñamendiko ipar isurian Luzaideko bailara.

Bertako mintzairaren eredutzat jasotako izkribuak, Nikolas Polit apaizarenak dira. Auritzen sortua 1834eko abenduaren 6an, Iruñeko seminarioan ikastaroak amaitzean Luzaidera bialdu zuten nagusiek. 1887an Orreagako buru izendatu zuten, bere anaia Frantziskok kargua uztean. Zabala eta sakona izan zen bere denboran egindako aldaketa. Orreagako nagusi ospetsuetakoa omen da, adituen ustez.

1906ko ekainaren 3an utzi zituen bizi honetako ardurak eta Orreagan ehortzi zuten obore guziekin bere gorputza.

Bere eskuizkribuak lozorroan egonak dira denbora luzean beste puska askorekin Erret-etxeko gela ilun batean. Ber-antolaketaren bat egiteko hustu eta haltzari zabarrak erretzen ari ziren egun batez iritsi nintzen uste gabean eta niretzat bilduta zeuzkaten izkribuetaz jabetu.

beste idazle batzuren artean badira bilduma hoentan 239 orrialde Polit jaunaren eskukoak. Lehen begiradan ezagutzen da bere idazkera txukun eta ikusgarria. Edozein erakustokitan egoteko moduko letra da berea.

I

*Desamparo de Dios**

Egungo Evangelioaq erraiten daugu S. Juan Bautistaq erreprenditzen ciela Herodes Erreguia, vere conata Herodiasequin zaraman vicitza desonest eta escandalosarengatiq: bana Herodes impioaq, S. Juanen amonestacioniaq entzun, eta vicitzaz cambiatu behar vidian, manatu cien sar cezaten presundegui batian. ¿Eta certan iduritzen zaucie baratu cela, Yaincoaq S. Juan bautistaren medioz igortzen zazcon avisez, eguin cien desprecio ura? Aquituiq Yaincoa aren obstinacione eta rebeldiaz, desamparatu cien arima ingrat ura, privatu cien vere ausilioetaiq, eta ilez vere becatian yautsi cen erretzera Ynfernian eternitate batez.

Mement untan izan nahi nuque S. Juan Bautistaren celo eta izpiritia,¹⁰ cier errepresentatzeco cer estatu lastimagarrian erortzen diren Yaincoaren itzaz aprovechatzen ezitirenaq, concienciaco arrangura eta graciaren inspi racioniaq despreciatzen tuztenaq, ez tutenaq casuiq eguiten confesorren eta predicadoreen erreprentacionez, eta becatiaq becatien gainera emendatzen tuztenaq, vicitzaren cambiatzera veinguaz determinatu gabe. Orieq guciaq ordinariozqui izaiten dira azquenian yaincoaz desamparataiq Herodes bezala, eta precisqui izan behar dute acabantza edo finitze vera. Desgracia terrible untaiq preservatzeco, eracustera eman gogo dauciet egun yaincoaren desamparo ori dela aren Mayestatiaq, becatari bati igor dezaquen punimenduiq aundiena; eta dembora verian icusico ducie cer gauza ttipien gatiq erortzen²⁰ den estutu miserable untan.

Erran dut mundu untan becatari bati Yaincoaq igortzen ahal dacon punimenduiq aundiena dela vere arimaren desamparatzia edo abandonatzia. Punimendu unen comparacionian yeus eztira eritasun crudelenaq, dolore terriblenaq, prisione penosenaq, ez etare guerla peste eta gosia: orreq guciaq ez tu icustecoiq Yaincoaren desamparuaiquin, ceren azquenian gaitz orieq guciaq dira Yaincoaren avisaq, dira vere misericordia infinituaren deitze eta ausilioaq, amorocatican eta guizonaq ideq ditzan veguiaq eta urriqui dain vere culpez, guisa untan Ceria logratzeco: bana Yaincoaren desamparua da privatzia becataria auxilio gucietaz eta destinatzea Ynfernucos³⁰ eternalera. Eguia da maluros orieq vici diren vitartian yaten dutela, edaten irri eguiten, livertitzen, munduco untasunez eta plazerrez gozaten, eta guizon uros batzu iduri dutela; bana errealqui dira miserable batzu: vere arimaq daude Yaincoaz desamparataiq, eta bacariq falta da separa ditzen veren gorputzetaiq yausteco erretzera Ynfernian.

* 12. Dic. 1869. 1.^a

Eta nola iduritzen zaucie eltzen dela estatu lastimos untara? Cembait gauza gure idurico ttipi eta funsgabecuengatiq. Yzpiritu Saindiaq erraiten du nehor eztela gaisstatzen derrepente eta golpe batian, baicican emequi emequi eta falta ttipi batzuin medioz. Curiositatez leitzen den liburu gaissto bateq, idequitzen tu veguiaq iniquitate eta gaisstaqueriara. Compañia⁴⁰ gaissto bateq bereala eracusten du becatu eguitera. Exemplu gaissto bateq, icusi cen accione dorpe bateq entzun cen conversacione desonest bateq, uzten dute viotzian maliciaren acia. Aita amen lazaqueria bat, veren aurrer eman zuten libertate pussca bat izan ciren becatu eguiten asteco causa. Seme ura izanen cen beti virtuos eta atenta, baldin vere Aita-ameq ezpalirote permetitu gabaz echetiq ateratzera, eta yuntatzera bertze lagun gazte libertino eta educacione gaisstocuequin. Doncella ura izanen cen honesta eta erretiratia, baldin vere Ama gaisstuaq ezpalaco permetitu yuaitera vilcura nahasi eta reunione lanyerosetara. An icusi cien accione indecenta libertate desonesta, entzun cien cantu eta conversaciones arralleriazcoa, soin cien modara,⁵⁰ eta gauza orieq gucieq piztu zuten aren viotzian vanitate eta modetaraco aficionia eta bertzeer agradatzeo eta equin tratatzeco desiraq. Vista, conversacione, adissquidantza eta comunicacioneequin galdu cien ahalguia eta urgoitasuna; ya iduritzen zaco guti ezpadu eguiten bertzeeq eguiten dutena; entregatzen da liberticionetara, ya ezta beldurtzen lanyerrez, peligruez eta ocasionian ezarriiq vorchattia da becatian erortzera.

Vein ahalguia galdu eta lehemico becatia eguinez gueroz, ya etzaco iduritzen lehenago bezain itsusia, eguiten tu bertze natzu verritan, formatzen da costuma gaissto bat, eta ya eztu senditzen lehenago izaiten citien concienziaco arranguaq. Becatien errepeticioniaquin iluntzen da adimendia,⁶⁰ gracia divinoaren ausilioaq erretirutzen dira eta azquenian erortzen da arima viotzeo gogortasunian, ceina baita Yaincoaren desamparuaren seinaleiq clarrena. Ycusacie cer gauza lehemician ain ttipiengatiq gure idurico, erortzen den arima estatu nigargarri batian. Erran bezate bertzenaz aimbetze becatari escandalos eta ohoreiq gabecueq, cein izan cen vere erortze eta escandalen causa, eta aurquituco ducie izan cela bacarriq behatze edo soite bat, arralleriaco solas bat, eta accione indecent bat.

Anitz dira Escritura Saindiaq eracustera emaiten dauzquigun exempliaq; bana ez sobera luzatzeco fixa dezagun gure atencionia David Erreguiaren baitan. ¿Cerq iduritzen zaucie erorahaci ciela Erregue Saindu au adulterioan⁷⁰ Uriasen emaztiaquin? Etzen bada astapena izan maliciaiq gabeco soite imprudent bat becicq: soiteti q guertatu cen desira, eta desirari seguitu ciren adulte-

52. *bertzeer agradatzeo* hitzen ordeez, beste hauek zeuden: "ongui iduritzeco eta bertzeequin tratatzeco". Azken hitzok baztertuak izan dira, gero, marra batekin markatuz.

ria, Uriasen eriotzia eta Erresuma guciaren escandala. Eta baldin aimbertze efectu eta ain gaisstuaq causatu bacitien ya adinetaco guizon virtuos eta saindu batian, emaztequi baten vistaq, ¿cer efectu eztuzte causatuco Yaincoaren beldurtasuniq gabeco gazteetan soitiaq adissquidantzaq conversacionio- niaq arralleriaq eta libertatiaq emazte licenciosequin? iO eta cein casu guti eguiten den gauza orietaz guiristinoen artian! Calificatzen dira funsgabetasun eta aurquerietaco, eta pretenditzen da erre pasahaztia egungo eguneco costuma eta política edo urbanitatiaren⁸⁰ modaletaco, bana modale eta usaya orieq dira cembait aldiz anitz arimen condenacioniaren causa. iO familiaco aita- ama miserabiliaq! Comprendi zacie untsa au dela cien eta cien aurren perdi- cioniaren astapena.

Gauza lehemician ain ttipi eta funsgabecuengatiq desarrañatzen dira costumaq, eta vehin desarrañatuz gueroz arima, aisa laster eguiten du gauza gaiisto bateti q bertzera; ceren Yzpiritu Saindiaq dion bezala, becatu bateq deitzen du bertziari: Becatien erreverritze untai q formatzen da becatu eguite- co errachtasuna, eta arrachtasun orri seguitzen da segurtagen edo seguritate falsu bat ceinarequin vici baita becataria vere culpen erdian: culpeq ttipitzen dacote arrazoinaren arguia; Yaincoa erretiratzen da arenganiq⁹⁰ ecin sofitruz aimbertze becatu: ya eztu deitzen aren viotzari bertze aldiz bezala, eta orrengatiq becatariaq ya eztu ezautzen vere arimaco estatu tristia. Elduzgue- roz estatu miserable untara, ya eztu experimentatzen vere viotzian, lehenago sosegatzera uzten etzuten inquietamendu heq; ya eztu apenas senditzen con- cienciaco arranguraq, eta ementiq eldu da gueldiiq egoitia eta sosegatia vere becatietan, batere erremedioiq aplicatu gabe vere arima malurosari: Ycusacie emen becatari bat Yaincoaz desamparatia eta menturaz secula convertituco eztena, aurquitzen delacotz gogortia aren viotza, eta erori delacotz casi impenitencia finaleco estatu batian, ceina ezpaita barcatzen vicitza untan ez etare bertzian. Yaincoaz desamparatu¹⁰⁰ doon becatari batendaco, ¿cer erre- medio izan daiteque? Yaincoaz abandonatzen badu, ¿norq converti dezaque?

Sacramendieq eztacote aprovechatzen, eztu casuiq eguiten conseilu unez, mehachieq eztute lotsatzen, ezta beldurtzen punimendiez, eriotziaren memo- riaq eztu icitzen, ez etare icaratzen Ynfernuc pensamendiaq: itz batez, aplica ditezquen erremedioiq fierrenaq, dira arendaco inutilaq eta provechu- riq gabecuaq, ceren aren viotza doo insensiblia eta arri bat bano gogorragua. Guisa untaco viotza ya ezta verachten icusten badu ere idequiiq Ynfernia, eta eztaquit nehoiz convertituco den yin balaquio ere Ceruco Aingeru bat predi- catzera. Etzaciela pensa exageracioniaq direla: itzulacie¹¹⁰ vista Faraon, Anti- oco, Yudas eta Escritura Saindiaq citatzen tien bertze anitzer: considerazqui- tzie entzun zutzen mehachiaq, vere baitan experimentatu zutzen punimendiaq; eta vizquitartian il ciren vere becatian. Orrengatiq casi erraitecotan noo

Yaincoaz desamparatuq doon becatari bati desira dezazquegun gauzaiq favorableena de la vere Mayestate Divinoaq apresura dezan aren condenacionia, eta igor dezan ahaliq lasterrena Ynfernura, ceren mundu untan vici deno, emandatu eta multiplicatu behar tu vere becatiaq, eta aunditu guisa untan Ynfernucio tormentiaq.

¿Yduritzen zaucie becatari bat eldaitequela estatu lastimagarriago batera? ¿Eta etzizte eriotziaz veraz bano gueyago icaratuco Yaincoaren¹²⁰ desamparuaq? Bay, E. A. M. ceren den Yaincoaq becatari bati igor dezaquen desgraciaiq aundiena eta gaztigüiq terribleena. Beldur cizte veraz becatura itzultziaz; ceren lehemico eguiten duciena izan daiteque cien perdicioniaren acabantza: menturaz eguiten ducien lehemico becatiaq beteco du izaria, eta ordian ya ezta erremedioiq cientzat: bereala izanen cizte Yaincoaz desamparataq eta ilen cizte cien becatian. Converte cizte Yaincoari viotz gucitiq, ez gueyago becatuiq eguin Aita bat ain misericordios eta unaren contra: eta guisa untan espera dezaquecie barcamendia, gracia eta ceruco gloria.

II

Gurasoen exenpluaz

Egungo Evangelioaq erraiten daugu Virgina Saindia eta S. Jose¹³⁰ yuan cirela Yerusaleneco irira eta presentatu zutela Templuan J. Cristo ofredituz Yaincoari aur sortu verri ura Templuan aurquitzen ciren gucieq etzuten condutzen aur sortu verri artaz gauza miragarriaq beciq. Virgina Mariaren alegria izanen cen completa eta osua, baldin S. Simeoneq Yzpiritu Saindiaz arguituiq ezpalaco erran: Zuq presentatzen duzun aur au, baita oray zure consolu gucia eta guizon gucien gloria eta Salvazalia, izanen da egun batez zure viotzeco tormentia, eta vere doloriaren ezpataiquin izanen da traspatatia zure arima. *Tuam ipsius animam pertransibit gladius*. Au da Evanyelioaren historia: eguin dezagun oray aplicacionia. Lehenagoco leguiaren¹⁴⁰ arabera bada presentian costuma bat obligacionezcua izan gabe cieq ama q practicatzen eta conservatzen duciena, ceina baita cieq Elizara presentatzia aurra sortu onduan galdenuinez apezaren benediccionia eta otoitzaq. Ordian yiten cizte ordinariozqui alegriaz betiaq, bana gu arguitiaq baguina Yzpiritu Saindiaz S. Simeon bezala, cembat amer erran ahal guinezaque: oray aimbertzte alegria eta satisfaccione emaiten dauzun aur sortu verri ori izanen da demboraiquin anitz pena eta nahigabeen causa eta izanen da ezpata bat bezala pasatuco diena crudelqui aldian bertze zure viota. *Tuam ipsius...* ¿Eta cerengatiq eguin ahal guintzazque anuncio triste hoq? Aita-ameq veren aurrer¹⁵⁰ emaiten duten educacioneiq yeusere edo gutiarengatiq, nuntiaq eldu baitira,

anitz gaiz izpiritualez landa, familiaq atormentatzen tuzten afliccione pena eta nahigabe guciaq. Baldin cieq, aita-amaq, desiratzen baducie cien aurraq izan ditien cien consolia eta ez cien tormentia, educazquitzie proposatzara nuan iru erregla oon arabera: 1. icus ditzatela cien baitan exemplu saindiaq. 2. icas ditzatela cien ganiq maxima unaq; eta 3. errecibi ditzatela cien ganiq correccione prdentaq. Ycusten dut sobera luzatu behar nuquela esplicatu behar banitu iru erreglaq, eta ortacotz conentatuco niz egun mintzatziatz aita-ameq veren seme-alaber eman behar duten exemplu unaren gainian.¹⁶⁰

Aita-ameq veren seme-alaber eman behar duten exemplu una, da pun-duiq importantena een educacione un batendaco: exemplu un au gabe itzazo eracusteiq ederrenaq dira inutilaq; amodioa galtzen da, eta aurraq mehachu eta punimendiequin gueyago gaisstatzen dira. Bana exemplu una, oraino solasiq gabe-re da indartsia aurraq untsa educatzeco, bana exemplu una gabe, bere condu eta diligencia guciaq dira galdiaq, vanuaq eta aferraq.

Orrengatiq S. Pablo Apostoliaq (desiratuz) nahiz vere discipulu S. Timoteo izan zahin vere Elizan Aita izpiritual perfect bat, encargatzen zacon vere amodioaren indar guciaiquin eman cezala exemplu¹⁷⁰ una vere feligreser vere itzetan, eletan, caritatan, fedian eta garbitasunian: *Exemplum sto fidelium in verbo, in conversatione, in charitate, in fide in castitate*. (Thim. 4-12.) Consideratzen cien S. Pabloq aviso guciaq, predicu guciaq eta J. Cristoren ministroen mehachu guciaq izanen cirela inutilaq, baldin vere obra gaisstuequin deseguiten bazuten vere itzequin eracusten zutena. Ortacotz encargatzen zacon aimbertzte Apostoliaq S. Tito vere discipulu maitiari: *In omnibus te ipsum prebe exemplum bonorum operum*. ¿Nahi duzu zure feligresaq, zure hume izpiritualaq unaq izaitia? Oroitzite bada behar duzula yuan een (aitzinian) aitzinera vertute gucien¹⁸⁰ exemplu argui bat bezala.

Aita amen exempla izan da mende gucietan aurren obratze maneraren gauzaiq boteretsiena: ceren seme-alabeq comuzqui *faciunt quod vident*, pensatzen dute aita-ameq bezala, obratzen aita-ameq bezala. Baldin aita-amaq vici badira aferqueriari emanazq, vere hacienda edo untasunaq manejatua gabe, eheco lanetart aplicatu gabe, trabailiari lotu nahi gabe ¿izanen dira lanerat aplicatiaq vere semiaq? Baldin aita bada yocolari bat, vere irahazten tien yornalaq, ditien ditien diuriaq gaizqui gastatzen tien suerte edo fortunazco yocuetan, Elizaren eta legue civilaren disposicionez aimbertzte aldiz¹⁹⁰ defendiatiaq daudenetan ¿icasico du semiaq buruzaguien leguiaq obeditzen, Elizaren determinacione saindiaq errespetatzen, eta igues eguinien du untasunen galtzeco, costuma unaq corrompitzeco eta echeen destruitzeco becicq eztiren yocuetaiq? Aita bada edanari emana, ostatian vere yornala galtzen diena, berant echerat erretiratzen dena, eta ordian ere echerat yuan eta vici gaisstua

emaiten diena, arnegu eta madariccione esacandalosaq dariola, eta vere emaztia gaizqui tratatzen diena ñicasico dute aurreq amain errespetatzen eta costuma unaq corrompitzten tuzten itz gaisstuaq aborrecitzen? Ez: aurreq eguiten dute icusten dutena: *faciunt quod vident*: eta laster izanen da²⁰⁰ semia guisa untaco exemplu gaisstoequin afer bat, yocolari bat, edale bat, madariccione eta yuramentu eguile escandalos bat. Aita balin bada familien naaszale bat, pleitista betico bat, urguluz betia envidios bat, etsaitasunian doon bat, çizanen da semia eguiaren maitazalia, proximuendaco onguieguile bat, sufritia trabailietan, agravio eta persecucionetan pacienciazco bat, eta inyurien barcazale bat? Ez: *faciunt quod vident*. Orrengatiq niq eztut dudatzen disputaiq gabeco egui au segurtatziaz, ez bacarriq eguiten dutela becatu mortala aitaameq maiz guisa untan obratzen dutenian, ceren faltatzen duten Yaincoaren leguiari, baicican eguiten dute ere bertze becatu mortal²¹⁰ berri bat vere exemplu gaissto oquin aurrer emaiten duten escandalaingatiq, eman behar vidian exemplu una vere itz eta obretan.

Baldin ama bat bada vanitateen maitazalia çveztituco da alaba honestqui? Amari agradatzen bazazco liverticione lanyerosaq, behar ezten lecutara ateratzen bada echetiq necesitateiq gabe çalabaq vere adineren verdetasunian, vere pasioeen verotasunian, reprobato tu desorden hoq, igues eguinen du peligro otaiq gucietaiq, vicico da erretiratia complituz batayo Saindian, munduco pompa eta vanitatetaiq urrunduco cela, eman citien promesa heq? Ez: baicican nolacua den ama, ala izanen da alaba, dio Yzpiritu Saindiaq: *Qualis mater filia*. (Eceq.²²⁰ 16-44.) Amaq ezpatu errecibitzen Sacramendiaq, ardura murmuratzen badu, ardura garbitasunaiquin untsa eldu eztiren solasaq mintzatzen batu çizanen da alaba ichila, garbia itzetan, eta urbilduco da ardura Sacramendien errecibitzera? Ez: *faciunt quod vident*: eta ez sobera luzatzeco, erran dezagun S. Geronimoiquin familiaco ama bati erraiten zacona vere alaben educacione unaren gainian. *Nihil in te aut in Patre suo videat, quod si fecerit peccet*. Condu achicazu, erraiten cion S. Geronimoq, zure alabeq ezteza ten icus ez zure baitan ez etare vere aitaren baitan gauzaiq equin concienziaren garbitasuna galdaitequeniq: etzazula permeti anaya arrebac elgarrequin etzan ditzen adimendura eldu²³⁰ onduan; ez utzi gabaz echetiq ateratzera bacarriq principalqui alabaq eta gauza gucien gainian ez beinere consentitu tratu edo adissquidantza ecin gueyago peligros orieq. S. Geronimoq itz oriequin eztu erreprobatzen eta niq ere eztut devecatzen presunaq elgarrequin mintzatzia eta visitatzia, au eguiten bada beharrez eta honestqui; bana bay pretenditzen dut utzia presuna gazteen arteco conversacione luzaraco orieq, elgarrequin beharriq gabe egoite orieq: pretenditzen dut cieq, aitaamaq, unen gainian condu izanez, alde eguinahaz dezacien lanyer eta ocasioneti q cien aurrer: pretenditzen dut, cieq ez bacarriq eracus dezacien itzequin,

heq mehacha ditzacien, baicican²⁴⁰ exemplu una eman dezacien obrequin ere: pretenditzen dut etzizten contenta erranez: Zuazte mezain entzutera, zuazte predicura, arrosariora, coosatzera vezperetara, baicican desiratzen erran dezacien: guacen aurraq mezara, guacen predicura, arrosariora, coosatzera, vezperetara, itz batian, pretenditzen dut, desiratzen dut eta exortatzen S. Pablo Apostoliaiquin, izan cizten cien aurren exemplu una, fedian, castitatan, caritate edo amodioan, humilitatian, baquian eta vertute gucietan. *In omnibus te ipsum praeve exemplum bonorum operum.* iO baldin guisa untan porta balite aita-ama guciaq! iEta cein bertze maneran egon laitequen mundia! iCembat escandala²⁵⁰ gutiagio icus litezquen! iCembat gueyago veiratia izan laiteque garbitasuna eta iguestia desonestqueria! Oray aita-amaq quechatzen cizte mundia gaisstatu dela: orayco aurretan aurquitzen dela cien aur demboran bano malicia gueyago. ¿Norq ditu oberenaq? ¿Cer? ¿etzinuzten cieq gure adinian guq oray ditugun pasione veraq, gure inclinacione vera becatuta? ¿Norena da veraz falta? Aita-amena. Gure baitan aurquitzen bada gueyago malicia, da eztugulacotz icusten cien baitan, cieq cien aita-amen baitan icusi cinuzten exemplu unaq. Cieq pasatzen tucie gau osuaq behar ezten lecutan (echera yuan gabe), eta nahico ducie cien aurraq izan ditzen erretiratiaq. Cieq egoiten cizte²⁶⁰ ostatian. Meza eta Elizaco Oficioaq erraiteco demboran, eta nahico ducie cien aurraq yuan ditzen puntualqui cieq profanatzen tucien Elizondo Oficio orietara. Cieq etzizte coosatzen urtian vehin beciq edo menturaz ez beinere urtian, eta nahico ducie cien aurraq urbil ditzen ardura Sacramendien errecibitzera. Ezta, ez, ori posible: exemplia, exemplia aita-amentan da aculuiq fierrena eta boteretsiena aurraq...

Desengaña cizte aita-amaq, cien aurreq eguiten dutela cier icusten dutena eta mintzatzen cier aitzen dutena; eta ortacotz obligatiaq ciztela cien semeer exemplu unaren amaitera.

Azquenian aurraq untsa instruitu eta exemplu unaq eman onduan,²⁷⁰ ateratzen badira vizquitartian inclinacione gaisstocuaq, ordian behar tucie gaztigatu, utzi gabe secula segui ditzaten inclinacione gassto orieq; ceren obe da punitiaq izan ditzen emen Ynfernian bano. iAh cembat gueyago (erraiten ahal nuque) erran ahal nezaque niq oray obligacione oon gainian! iCembat erran ahal nezaque ere cembait aita-amen contra; permetitzen dutenaq atera ditzen echeti q bacarriq bay semiaq bay alabaq eta verdin ilun onduan gabaz condu achiq gabe nun eta norequin ibiltzen diren! ¿Au da aita-amen obligacioniaq complitzia? Bana eztut molestatu nahi cien atencionia sobera luzatuz: preferatzen dut gauza otaz mintzatzia bertze occasione batian.²⁸⁰ Considera zacie, aita-amaq, cein lanyer aundian aurquitzen cizten; eta eman behar duciela condu Yaincoari cien eta cien aurren arimetaz, eta baldin cien faltaz galtzen badira, cieq pagatuco duciela cien arimequin Ynstruizquitzie

veraz eta eracutsi gauza unaq, eta corregitu gauza gaissto guziaq: etzeeciela secula permeti errepostu gaisstoiq itzultzia, punizquitzie atrevencia orieq, eta gauza gucien gainetiq veira cizte untsa exemplu gaisstua emaitetiq cien itz eta obretan, amorocatican eta cieq eta heq consegui dezacien Yaincoaq guretaco destinatia dien eternitateco gloria.

III

Fedezco eguia den bezala behar dugula guciec il vein, *semel mori*,²⁹⁰ da ere fedezco eguia iltzen guiren pundian behar dugula izan yuyatuac eta sentenciantuac: *et post hoc iudicium*. Eta baldin eriotzea, sabant batec dionaz, balin bada gauza terribleen artean terribleena, bacarric ceren den gauza temporalen fina edo acabantza ¿cer izanen da consideratzen badugu dela ere gauza eternalen astapena?

Lancea da ain icigarria eriotzeari seguitzen den yuyamendu au nun, pensatzeac verac icarahaci izan tu Elizaco Sainduric aundienac. *iVe mihi de die illo terribili!* ¡Ay nitaz! ¡Ay nitaz! erraiten zuen S. Juan Crisostomoc, eltzen denean conduac emaiteco egun terrible ura! ¡Ay nitaz miserabilia! erraiten zuen icituric, S. Bernardoc (lotzaz); beldurrez betea ene³⁰⁰ conciencia becatuz cargatuarengatic, nola egonen naiz yuyamenduan burua apalduric icaratua Yaunaren presencian! Lance terriblea, guciz terriblea, dudaric eztu: bana da gauza ain importante aren consideracionea nun, bacarric au izan da asqui anitz becoros aundien convertitzeco. Egun veraz, E. A. M., eldu naiz unen gainean mintzatzeco intencionearequin.

Yuyamendu au terriblea eta icigarria eguiten duen lehemico gauza da Yuyazale divino aren aitzenean arimac presentatu izan beharrac. Ezpaineraric arima ateratzen den bezain laster aurquituco da Yaincoaren aitzinean: ezta munduco tribunaletan bezala izanen demborari pensatzeco, preparatzeco, otoizteco, influenciatic arartecotasunac ezartzeco. Ez: iltzeco azquen atsa³¹⁰ eman eta izan Yuyazale Divinoaren aitzinean presentatua; atera gorputzetic eta sartu Yaincoaren tribunalean, dena izanen da bat, dena guertatuco da golpe batean: *in ictu oculi*. Gorputzetic arima separatzen den lecu artan verean izanen da au yuyatua. An, J. Cristo gure Yaunac verac personalqui yinic, esperatuco du, escatuco dazco conduac eta sentenciatuco. Arima gass-toac, utziric vere lagun maitea gorputza, verala errecontratuco da vere Yaincoarequin ceinac erranen baitaco: Arima, emazquidatzu zure viciaren conduac: *redde rationem vilicationis tuae*. Zato unat, arima ingrata, erranen daco becatariari, emazquidazu conduac eguin dauzquizutan merchedez. ¡Oh! inolacoa izanen den arima orren (beldurra) icara icustean visean vis vere³¹⁰ reden-

torea coleraz betea! ¿Cer ihardetsico du carguari? ¡O mementu egiazqui icigarria! Dio S. Bernardoc gueyaco sofrituco duela arimac icustean J. Cristo coleratuá, guero Ynfernuañ verean bano.

Escritura Sainduac condatzen daugu Ester Erreguina presentatu cela egun batez vere senar Asuero Erreguearen aitzinean, au vere tronoan yarriric zagolaric, corona buruan, cetroa escuan, vere visaya edo vitartea mayestetez betea eta inguratua erresumaco yende aundi eta corteco presuna principalez; eta ain aundia izan cen escena imponent unec Erreguinañen baitan eguin zuen impresionea nun galdu zuen colorea eta erori cen desgaturic laguntzen zuen dama baten besotan. Eta adverti zacie Ester cela Asuero Erreguearen³³⁰ esposic maiteena, etzuen faltatu ezcontzaco fidelitateari, etzen batere sospecha edo arranguratic aren honestitateaz. Veraz Erregue baten mayesteteac guisa untan confunditu eta icaratu bazuen vere espos maite eta fidel ura ¿cer izanen da arima infidel batec, vere vician eguin tuen becatu guciez inguratua, fixatzen duelaric vere vista Yuyazale Divino coleratu artan? ¿Cer pena eztu sendituco icustean arima batec aimbertzec despreciatu zuen J. Cristo ura? Oray paciencia ain aundiarequin becatariac sofritzen tuen Yainco guizon ura, egonen da orduan iraz, furiaz betea, eta arimac icusico du estatu ain icigarri ortan, vere suplicac, otoitzac, nigarrac, guciac aren eztizteco eta viurtzeco asqui izan gabe, ceren pasatu cen misericordiaren³⁴⁰ dembora. Orduan, arima becataria, beldurrez, desesperacionez betea, ecin sofriztu zure Yainco eta Yuyazalearen vitarte terriblea erranen duzu Job sainduarequin. ¡Oh! norc eguin lezaquet Ynfernuañ gordetzeco merchedea zure furorea pasatu (vitartean) artio! *¡Quis mihi tribuat ut in inferno abscondas me donec pertranseat furor tuus!* S. Juan Evangelistac, J. Cristoc bertze Apostolu guciñ gaineñ maite zuen discipulu guciñ casto eta garbi arec. icusi zuen yuyamendu particular unen ichura edo iduri bat: icusi zuen artan Yuyazale Divino, cein baita J. Cristo, vi veguiac garra bezala piztuac zauzcala: visaya iruzquia vera bano arguiago eta aren ahotic ateratzen cela ezpata bat vi aldetaric chorrochtua picatzen zuena: *et de ore ejus gladius³⁵⁰ utraque parte acutus exibat.* Eta Evangelista Sainduac icusi zuelaric mayestetezco, furorezco seinale ain aundiarequin, icaraz erori cen desgaturic ila bezala: *Et cum vidissem eum cecidi ad pedes ejus tanquam mortuus.* Oray veraz, erran zadazu conciencia gabeco guiristinoá, S. Juan Evangelista bat, cein conservatu baitzen garbia eta castoa vere vici guciñ, guisa untan icaratzen eta beldurtzen bacen Yuyazale Divinoaren presencian, bacarric figuran edo representacionean izan cen yuyamendu artan, ¿cer izanen da cinezco yuyamenduan, eguiatzqui Yuyazale Divino coleratuaren aitzinean, zure burua icusten duzunean *zuc*, S. Juan baten garbitasuna eta castitateá eztuzuna, *zuc* desonestqueriaco loyan sartua vici cireña? ¿Zu adisquidantza dorpeetan³⁶⁰ nahasia aimbertzec dembora dela vici

cirena? ¿Cer eguinen duzu miserabilia? Eta zuc emazte escandalosa Satanasen instrument provocazalea ¿cer eguinen duzu yuyamendu artan aurquitzen cirenean? ¡Ay! oray nic badaquit eztuzula otaz casuric eguiten, ez confeso-reen avioez, ez Yaincoaren inspiracionez: oray, diozu zure baitan, yan edan dezagun, liberti guiten, vici guiten alegre, quenzquitzu ortic, eriotzeco yuyamenduco icaratzen duten pensamendu oriec: ¿nor vici laiteque orietan beti pensatuz? Oriec untsa yinen dira guero, adin batera eltzen garelaric, munduaz desenganatuac, aseac aurquitzen garenean; bana oray eman behar zaco demborari vereia ¡O mundu tzar maximac arimac milaca Ynfernurat eremaiten tuztenac! Eta baldin ideya orietan³⁷⁰ seguitu nahi baduzu, iay zure arima ortaz icusten delaric tribunalean Yuyazale Divinoaren (aitzinean) presencian!

Yuyamendu au icigarria eguiten duen vigarren gauza da artan escatuco den condua. Ezarria ya arima Yuyazale Divinoaren aitzinean ceinen presencian asistituco baitute Aingueruec eta Ynfernucac etsayec, batzu (defenditzeco) defensaren eguiteco, bertzeac acusatzeaco, escatuco zaco condu chehe bat adimendura eldu cenetic, erran, pensatu eta eguin duen guciac, dena escatuco da eta (izartu) nehurrituco delicatasun aundienarequin. Ain rigurosa eta ertsia izanen da becatarier escatzen den condu au nun, itz afer bat ere gueldituco ezpaita examinatu eta sentenciatu gabe. J. C. Yuyazale Divinoac lehenic³⁸⁰ escatuco daco condua eguin zazcon merchede eta favorez: nic, erranen dio, bertze anitz utziric, sortu eta ezarri cintuan munduan; nic zu salvatzeagatic guizonaren naturaleza arturic vici izan nintzan munduan pobrea, desprecia-tua, izan nintzan azotatua, elorritz coronatua, gurutze batean vi ohoinen artean ezarria nun eman bainuen ene vicia eta odola, ¿Cer eguin nezaquen zuregatic eguin dutana bano gueyago? Nic esperatu eta sofritu cintuan aimbertze urtez misericordia aundienarequin, ene adissquidantzarequin ceruarequin convitatzen cintuala: ihardetsazu, eman zadazu condu zuregatic ichuri nuen odolaz. Ycus dezagun nola corresponditu ote duzun; certan empleatu tuzun zure osagarria eta untasunac; cer eguin duzun ene ezautzeaco cinuen izpirituaz,³⁹⁰ nitaz oroitzeco cinuen memoriaz, ene maitatzeco cinuen viotzaz. Becataria, icaratua, trublatua acusacione eta cargu oquin, eztu yeusen ihardesteco (valore) curayaric izanen: eta orduan Yuyazale terribleac aguerturic aren becatu guciac emanen daco oriequin vitartera erraiten diolaric Daviden itz oquin: *Haec fecisti et tacui*. Zato unat, arima ingrata, ¿etzira oroitzen nola eldu cinelaric adimendura galdu cinuen Batayoan errecibitu gracia, zure adineco bertze lagunequin eguin cintuen ciquinqueriequin? ¿Etzira oroitzen nola hoc cofesatu behar videan gordetzen cintuen beldurrez, eta gaizqui cofesatzen cinen eta gaizquiago cominiatzen? *Haec fecisti et tacui*. Hoc eguin cintuen eta nic ichilic sofritu cintuan. ¿Etzira oroitzen nola adinean aitzinatuz⁴⁰⁰ bezala aitzinatu cinuen ere gaisstaquerian, nola seguitu cintuen iniqui-

tatezco videac? ¿nola entregatu cinen vicio eta becatuetara particulazqui desonestqueriara, doncellac ezconduac alargunac provocatzen cintuela, barcatu gabe zure lohiqueria eta lujurietan ez adinari, ez estatuari, ez etare condicioneari? *Haec fecisti et tacui*. Au gucia eguin cinuen, eta ni ichilic egon nintzan. Zuc (odiatu) astiatu cinuen proximo laguna, izan cinuen artaz mendecatzecho desira, beinere viotzetic etzinion barcatu. Zuc despreciatu cintuen Sacramendu Sainduac, errecibitzen cintuen gaizqui eta verant: creaturez valiatu beahar videan ene maitatzeco, etaz cervitzatu cira ene desoharatzeco; itz batez, izan cinen guiristinoa bacarric icenean eta ez obretan. *Haec facisti⁴¹⁰ et tacui*. Baña, ¿cer? ¿ustecinuen beti ichilic egon behar nuela? Oray artio egon naiz ichilic, sofritu citut pacienciarequin: *Tacui, semper silui, patiens fui*: bana oray alchatuco dut ene votza, zure atrevenciec merechi duten sententia emaiteco. ¿Cer ihardetsico duzu orduan, becataria? Yeus ere, yeusere; confunditua egonen cira ichilic ¿Bana ezta norbait alde ateraco? ¿Eznaute lagun-duco Aingueru guardiacoac, Apostoluec, eta ene iceneco sainduec; eztaut (logratuco) conseguituco misericordia Maria saindua becatarien Ama arec? Ez, ez: finitu cen misericordiaren dembora. *Non beata Virgo, non Angeli, non Apostoli propiciabuntur pereuntis*: denac egonen dira zure contra. ¡O becataria! Considera zazu untsa pausu au. ¿Cer pensamendu ibilico tuzu orduan alde gucietaric⁴²⁰ acusatua, condenacioneco sententia errecibitzeco punduan? ¡Ay eta cer turbacione eta icara azquenean Yuyazale Divino arec alchaturic vere tronutic sententia pronunciatzen duenean! “Aparta cite eneganic, madaricatua, zuaci betico sura; zuaci ementic, becatari aborrecigarria: emazte madaricatu eta soberviaz beta, zuaci ementic; eztuzu merechi ene presencian egoitea: zuaci betico sura”. Orduan zuc arima becataria, yaquinican ere eztuzula erremedioric, bana ecin etsituz libratu nahiz estatu ain terrible artaric, escatuco duzu auxilio eta proteccionea Maria Saindua, Aingueru eta Sainduer, particulazqui Aingueru guardiacoari. Lagun nezacie Aingueru Sainduac Maria Saindua ene Ama maitea, misericordiaren ama ciren bezala libra nezazu etsay⁴³⁰ otaric. Bana ihardetsico dauzute: ezta zuretzat misericordiaric. Ene Yesus Redentore maitea, izan zazu nitaz (misericordia) pietate, salva nezazu zure odolarengatic! Zuaci ene vistatic madaricatua, ihardetsico dauzu, zuaci betico sura, eta eremanen ciuzte Ynfernuc etsayec presundegui eternal-letara, eta etsico tuzte bortac secula verriz ez idequitzecho. ¡O pensamendua! ¡O egui terriblea! ¡O eternitatea! ¡O Ynferna! ¿Nola otan sinesten duzularic, ibecataria! duzu valore eta curaya becatuetan seguitzecho? ¿Nola menturaten cira becatuzco conciencia batequin zure Yaincoaren errecibitzera? ¡Ah miserabilia! ¿Determinaturic zaude ya aurtan ere gaizqui cofesatzera, indignoqui cominatzera, vicio, costuma, adisquidantza ori ez uzteagatic, becatu ori aimbertze⁴⁴⁰ (dembora) urte dela confesioan gordetzen duzun ori ecin menturaturuz beldurrez declaratzera? ¡Ay bada zutaz eriotzeac arrapatzen bazaitu

estatu ortan! ¡Ay zutaz ilen eta vicien Yuyazalearen aitzinean presentatzen bacira zure conciencia erreglatu gabe! ¡Ay zutaz eternitate gucian! Etzitela veraz izan cenzugabea: eguin zazu oray orduan nahico duzuna eguin izan bacinu. ¿Cer (emanen cinuque) eman cinezaque lance artan berriz mundura itzultzeagatic, cer, oray duzun dembora au izaiteagatic? Converti zaite bada oray Yaincoari; garbi zazu ahalic lasterrena zure conciencia becatuetaric confesione un baten medioz; amorocatican eta zure yuyamenduan ait deza-zun sententia uros bat seguidan yuan citen gozatzera eternitateco gloria.

Bibl.:

Orreagako bilduma. JMS-k jasoa.

Argitaragabeak. 132 x 205 (5,3 eta 4 orrialde).

46. ORREAGA (18..)

Elegi et sanctificavi locum istum, ut sit nomen meum ibi in sempiternum, et permanent oculi mei et cor meum ibi in sempiternum.

Autatu dut eta saildutu lecu au, ene icena conserva dain emen beticotz, eta egon ditzen emen ene veguiac eta ene viotza dembora gucietan.

Nahiz Yaincoac entzuten tuen gure otoitzac munduco lecu gucietan, vizquitartian liburu saildutan causitzen dugu Temploa dela lecu privilegiatu bat ceintan ichurtzen baitira ausarquiago Yaunaren misericordiac, eta curritzen abundancia gueyagoiquin vere graciac guizonen favoretan. Temploan eman citzacon Salomoni vere yaquitate miragarria: Temploan anunciatu citzacon Zacariasi S. Juan Bautistaren sortzea: temploan complitu cen Simeon Saindu veneragarriari eguin citzacon promesa, etzela mundu untaric partituco J. Cristo gure Salvazalia vere veguiez icusi gabe, eta Temploan entzuna izan cen eta yustificatua becatari publicanoa. Temploa da Yaincoaren echea, da Yaincoac autatu duen toquia guizonetaz Laudatua eta adoratua izaiteco,¹⁰ entzuteco gure otoitzac eta gu vere gracia eta doainez betetzeco. Ala icusten dugu Escritura Sainduan, ala eracusten daugu esperenciac, eta ala sinesten eta aitortcen dugu egun Eliza untan Orriagaco Ama Virginaren visitatzera vildu guiren guciac. Yaincoaren Ama eta becatarien Ararteco boteretsu orrec,

eguin izan tu dembora eta lecu gucietan eta presuna suerte gucier ecin estimatuzco gracia eta favore aundiac; bana nehon eztitu ichuri aimbertzte yenerositateiquin nola Eliza Saindu untan, ceintan fijatu baitzuen vere egoitza eta yarlecu vere gloriaren centro batian bezala. Emen?, Virgina miragarri orrec eracustera eman nahi izan du vere boterea: emen aguertu izan du vere viotzeco tendretasuna eta gureganaco amodio neurric gabecoa:²⁰ emen laguntzen tu eta favoratzen, bertzetan ez bezala, viotzez deitzen duten guciac: emen betetzen tu vere debotuac ecin condahala gracia favore eta merchedez, eta emen erran zuen gure aitzinecoen Yaincoac Salomoni erran ciona dedicatu zacolaric Yerusaleneco templo aundia: “Autatu dut eta saindutu lecu au, ene icena conserva dain emen beticotz, eta egon ditzen emen ene veguiac eta ene viotza dembora gucietan. *Elegi et sanctificavi locum istum, ut sit nomen meum ibi in sempiternum, et permaneant oculi mei et cor meum ibi cunctis diebus*”.

Bay, E. A. M., Virgina Mariac autatu du lecu au, Aingueruetaz veneratua guizonetaz laudatua eta Ynfernua Beldurtua izaiteco: autatu du lecu au³⁰ gure ganic urbilago egoiteco, gure miseriez urricaltzeco, entzuteco gure ototzac eta gure behar ordu guciac erremediatzeco. Eta icusacie ya declaratua nic egun ezautzera eman gogo daucietana. Orriagaco Ama Virginac eguin tuela ementic gauza miragarriac vere devoten favoretan: clarquiago: Ymagina miragarri ori aguertu da toqui untan vere devotac socorritzeco gorputzeco eta arimaco behar ordu gucietan.

Digna zaite, ioh Ama guciz amultsua! digna zaite ene adimenduaren arguitzea, zure gloria eta laudorioac publicatzeco, ez zuc merechi duzun bezala, ceren ori imposible baita ene indarrer eta ene ezautza ttipiari, baicican conveni den bezala inspiratzeco ene adizale gucietan zureganaco⁴⁰ devocione vici eta suhar bat, eta confianza oso bat zure baitan. Gracia au escatzen dauzugu guciac salutaten zaitugularic Gabriel Aingueruaren itzequin. Agur Maria.

Elegi...

Eliza, J. Cristoren Espos maiteac, beti ezautzera eman daugu Virgina Maria dela gure Ama, gure Ararteco eta consolazalea, eta erraiten daugu mariaren medioz erdiesten tugula Yaincoarenganic yausten diren doain guciac. Eta baldin norbaitec nahi balu ucatu, nic convenci nezaque Yaincoac Orriagaco Ama Virginari comunicatu dacon boterearequin. Bana icus dezagun lehenic nola aguertu cen emen Ymagina eder eta zoragarri ori. Eztucie ignoratzen cer estatu lastimagarrian aurquitzen cen España zazpigarren⁵⁰ mendearen acabantzan eta zortzigarrena asi cenean. Entregatuac españolac eta

yosiac guisa batez vicio eta becatuari, deshonestqueria eta bertze pasione ahalguegarrienen esclavo vilacatuac, escandalosqui separatuac Erregueac Elizaren eta Aita Sainduaren obedienciatic eta, immoralitate publico unen consecuencia edo ondorio natural bat beza(la), nacione gucia moruez atacatua eta dominatua, perseguitua Eliza eta crudelqui ilac Yaincoaren ministroac, Virginnac desohoratuac, destruituac, arrasatuac edo erreac templo catolico eta Aldare Sainduac, eta prorroscatuac eta osticatuac Ymagina sacratu guciac, Españac etzuen mement artan presentatzen mina miseria eta desolacionezco lecu nigargarri bat baicic. Bana Yaincoac etzuen permetitu⁶⁰ destruccione viotzerdiragarri artan izan zahin profanatuac Ymagina saindu ori, ceina gordea izan baitzen lurraren entrainetan cembait cristau fidez. Gordezaleac il ciren segretua nehoru aguertu gabe, eta egungo egunian seguituco zuen lur pean mundu guciac ignoratua, baldin Yaincoac, vere disposicioneco dituen moyen edo medio sobrenaturalez valiatuz, ezpalu Aingueruen ministerioaz ezautaraci aurquintze otan vici ciren artzainer, Yesus Aurra Betleheneco artzainer Aingueruez anunciatua izan cen bezala. Anitz urte pasatu ondoan, mendi otan vere aciendequin zabilizan artzainac ohartu ciren larumbat arrats guciez guertatzen cela gauaren ilumbeetan icusgarri arraro eta misterios bat. Ycusten zuten edertasun estrordinarioco⁷⁰ oreña deitzen den animale bat, vere adarretan distiadura miragarri bateco arguiac cituena: dembora verean aitzen zuten musica choragarri bat eta Aingueruec cantatzen zutela Salvia, eta au acabatzen cenean, desaguertzen cela oreña ederra, ichiltzen cele música eta lecu gucia guelditzen ilumbe eta ichiltasunean. Artzainec icusten tuzte eta aitzen gauza oc bein, bietan, anitz aldiz: parte emaiten dute urbilen errietara, bay eta ere Yruñera; bana nehon eztira sinetsiac. Vorchatuac azquenean eta guidatuac artzainez viltzen dira yendeac eldu direnac veren ustez, ez gauza miragarri baten icustera, baicican artzainen ilusione eta imbechilqueriaz irri eguitera: bana fite desenganatzen dira artzainec erran gucia eguia⁸⁰ dela, eta pensaturic lecu artan badela cembait misterio, arguitu deneco asten dira iturriaren ondoan sasia quentzen, lurra aitzurtzen eta errecontratzen dute arrizco arcu bat eta aren barnean Aldarean icusten ducien Mariaren Ymagina eder ori. Osoqui content fidelac, Ceruco present unequin, eguiten dacote Eliza bat ceintan ohoratua izan baitzen anitz urtez D. Sancho Erregueac eguin artio bertze Eliza bat anitez ederragoa, oray gauden au vera, ceintan veneratua izan baita continuoqui Ymagina miragarri ori, nahiz Yaincoaren eta vere Elizaren etsayec eguin tuzten indarric audienac desaguerrarazteco aren ohore eta veneracionea, ezautzera emanaz Yaincoac orrequin toqui au dela Virgina Mariac autatu duena vere egoitza⁹⁰ eta yarlecutaco eta gure behar orduac erremediatzeco.

Eguiazqui, E. A. M., Yaincoac placer artu zuen autatzeaz eta saindu eguiteaz Orriagaco lecu au, amorocatican eta Ama maitagarri orrec fija citzan

emen vere veguiac eta vere viotza, gure miseriac examinatze-co eta socorritze-co guizon aflightuac izanen diren vitartian eta mundua acabatu artio. Orren-gatic Orriagaco Ama Virginia da ur garbien Yordan bat ceintan Nahaman lepradunac purificatzen baitira vere gaitz gucietaric: da cisterna edo urpetegui bat Betlehenecoa bano anitzez osasungarriagoa, ceintaco ur valiosac ezpaitira emaiten izartuz eta tasatuz baicican abundanciaiquin: da piscina bat ceintan conseguitzen baitute osagarria ez bacarric¹⁰⁰ vere uretan lehenic sartzen dena, baicican unquitzen tuzten guciac eta eguiten duten aldi guciez. Bay, Orriagaco Ama Virginac idequico daugu vere viotza deitzen dugun lecu gucietan. Sunamitis emazte fede duna yuan cen lasterca Carmeloco mendira Eliseo Profetari present eguitera vere semearen desgracia: guc causitzen dugu nun nahi Ymagina miragarri ortan urricalmendu eta botere aundiagoco Eli-seo bat erier osagarria eta iler vicia eman duena. Eztu iduri baicican Orriaga aurquitzen dela lecu gucietan, ceren orotan entzuten tu Mariac deitzen dutenen suspiro eta nigarrac. ¿Ceren nor presente direnetan, nor erri untan, nor inguru otaco yendetan, nor izanen da ezautzera eman eztezaquenic cembait favore Orriagaco Ama amultsu¹¹⁰ orrenganic errecibitua? ¿Norc imploratu ote du vere proteccionea neque eta trabailutan, mendi eta vide orietan, eta aflightua egon den lecu gucietan, memento verean izan eztuenic vere consolu eta laguntza? ¿Norc, erran zadacie eguiaz, norc cien artean deitu du Yaincoaren Ama Orriagaco icen eztiarequin, vereala causitu eztuenic Raquel eder ortan bertze debora bat Sisararen contra, bertze Ester bat Amanen contra eta bertze Yudit bat Holofernesen contra? Etzaciela duda, E. A. M., Orriagaco Ama Virginia vilatzen duenac vereala errecontratzen da Yaincoaren Ama orrequin, eta causitzen duenac vereala aurquitzen du betico vicitza. Gucier behatzen du Ama baten tendretasunarequin distincioneic eguin gabe erresuma eta lenguayetana, eta¹²⁰ amodio veraiquin aderezatzen da espanolari nola Franciaco eta bertze nacionetaco devoter, baldin izpirituz eta eguiaz deitzen badute. ¿Cembat aldiz yaiqui ote da gabaz, espresione figuratu untaz valiatzea gatic, tenore artan vere devoten contra etsayec (preparatzen) arma-tzen tuztez videgabe eta persecucioneac ezeztatzeco? ¿Cembat aldiz Absalonen furiatic Yonatas gorde zuen bertze emaztequi yaquinsun arec bezala, libratu ote tu vere devotac veren vicia eta untasunac arruinatu nahi zuzten asesino eta ohoinen escuetaric? ¿Cembat aldiz Faraon Erreguearen alabac Moises uretic atera zuen bezala, atera bidestu vere devotac mundu untaco aimbertze irriscuen artetic, erran nahi dut, oyan bortu eta vide orietan aurquitzen diren aimbertze¹³⁰ peligro edo lanyerretaric, deitu dutelacotz aflic-cionearen erdian Orriagaco icen maitagarriarequin? ¿Cembat aldiz eztitu eta aplacatu ote du Yaincoaren colera osoqui ofensatua eta mendecatze-co prepara-tua bazter gucietan eguiten diren ainbertze becatuen gatic, erranez vere Seme Divinoari: etzazula descarga zure yusticia becatari orien gainian, icusa-

zu ene devotac direla? ¡Ay! favore oriec eta anitz gueyago cie edo casualitate edo errecontru edo efectu naturalendaco dauzcacienac obratuac izan dira Orriagaco Ama Virgina ortaz. Bay, Orriagaco devot fidelac, Ceruco Erreguina lorios ori izan da eta izanen da vere devotendaco vere etsayen furia eta persecucionetarie libratzeco ihes lecua, irriscu gucietan defenza bat,¹⁴⁰ eta consolu bat desgracia eta afliccionetan. ¡Ah! Demborac permeti baleza, igan nindaiteque mendez mende Yaincoaren disposicionez artzain inocenter agertu cen mement uros artarano eldu artio eta eracustera eman nitzazque bat bedera Eliza untarie vere devoten favoretan eguin tuen gauza miragarriac. Presenta nitzazque egui unen destimonio fede eguiten dutenac eta errefusa ezтитеzquenac, Ycusaraz nitzazque erreverrituac batzutan Naim eta Betaniaco obra miragarriac bertzetan Yerico eta Siloeco gauza extraordinarioac. Ezar nitzazque cien vistan conda ezтитеzquen victoriac moruen contra conseguituac Orriagaco Mariaren arartecotasunez. Eracustera eman nezaque Orriagaco Ama Virginaren laguntza boteretsua Turkiaco armaden¹⁵⁰ deseguiteco eta porroscazeco. Erran nezaque garren urtean Nafarra gucia libratu cela parteic gueyena heregeez formatzen cen Franciaco armadaz atacatua izaitetic, Ymagina Saindu orrec eguin zuen miraculu clar eta agueriaz, imposibilitatuz aitzina avanzatzia lano ordinariocoa bano anitzez cerratuago batequin, ceina ezpaizten alchatu zortzi egunez asi artio franciaco tropac vere erretirada Fuenterrabiaco partera nun errautsiac izan baitziren Españolez atzoco egunaiquin ceina baitzen Ymagina Saindu orri verechiqui consecratua... Bana ¿nola da posible nic declara ditzatan bat bedera Orriagaco Ama Virginac obratu tuen gauza miragarriac? Galdeguin zacie cien aita-amer eta ec erranen dauciete icusi¹⁶⁰ tuztela Eliza untan anitz oroitzapen eta seinale ezautzera emaiten zuztenac bertze aimberte miraculu Ama ortaz vere devoten favoretan eguinac.

Galdeguin zacie cien aita-amer eta ec erranen dauciete gomendatuz cristau fidelac Ymagina Saindu orri eta aguertu cen iturricu uretic edanez sendatu direla eritasun aundietarie. Galdeguin zacie cien aita amer eta ec erranen dauciete Orriagaco Mariaren proteccionere verechi batez libratu direla erri osoac calamitate eta desgracia aundietarie. Galdeguin zacie cien aita amer eta ec erranen dauciete desconsolatuac causitzen ciren emaztequiac Yaincoac etzuelacotz aurrequin benedicatu een ezcontza, icusi zuztela satisfatuac verenguticiac Orriagaco Ama Virginari voto edo promesas¹⁷⁰ egunez. Galdeguin zacie cien aita amer eta ec erranen dauciete fede vici batequin Orriagaco Mariaren arartecotasuna vilatu dutec artzainec icusi tuztela gaitz gucietarie sendatuac eritasunaz atacatuac edo pozoindatuac cituzten haciendac. Galdeguin zacie... Bana ¿norat nua? Eznezaque acaba, ezautzera eman behar banitu Orriagaco Ama Virginac eguin tuen obra miragarriac eta erran dezaquegu sabaco Erreguinarequin: Orriagaco Ama Virginaren miraculuen fama bano aundiagoac dira aren merchede eta favoreac.

Bana Ymagine lorios orrec eztu bacarric empleatzen vere boterea vere devotac gorputzeco behar ordutan favoratzeco; ceren izpiritualetan ere eztu escasten vere graciac. Eguiazqui: Maria Orriagacoa da argui bat¹⁸⁰ adimendu itsua guidatzen duena: da su bat vorondate epela verotzen duena. Ymagine sacratu orren presencian livertinoa sugetatzen da, heregeac aitortzen du vere utsa, deshonestac ihes eguiten du placer ciquinetaric, correitzen da guizon devoch edo licenciosa eta becatari guciac convertitzen. Orriagaco Ama Virginia da Sunamitis bat gure otoitzac entzuten eta gure suspiro eta nigarrez urricaltzen dena. Da Ester gracios eta amultsu bat, vere seme Asuero Divinoari presentatzen dena, errevoa dezan vere devot cembaitec vere erotasun eta cenzu gabetasunaren gatic merechi duen eriotzeco edo condenacioneco sententia. Bay Maria Orriagacoac comunicatzen tu ementic abundanciaiquin vere graciac, behar ordu izpiritualetan fede vici¹⁹⁰ eta devocione saindu batequin deitzen duten gucier. Vereguticia eta ocupacione gucia da gloria vertute, ideya saindu eta caritate perfectaren sendimenduac inspiratzea. Orriago erri urosa, mendi otaco Cristau zorihonecoac, *si scires donum Dei...* Ezaut bacinezate Ymagine miragarri au emen aguertuz, ciendaco preparatuac izan diren graciac... Comprenditzen bacinute Ceruco doain edo presentunen valios-tasun eta dignitate soberanoa... icer guticia cinuqueten vere favoreen ur garbiac gustatzeco! Erreguina lorios eta boteretsu orrec concebitu izan tu ideya aundiac: nahi du izan cien laguna, cien guidazalia: nahi tu icusi urbil danic cien behar orduac eta socorritu yenerositateiquin. Orriaga present soberano unequin convertitico²⁰⁰ da plazerrezco Parabizu batian: ezta toqui untara elduco infidel eta desonesta, eztu behatuco becatari bacar batec Ymagine saindu uni, barnetic viotza unquitua senditu gabe vere graciaren indarraiquin, ceren Virginia miragarri unec autatu zuen eta saindutu lecu au guizonen behar orduac examinatzeo eta vere miseriez urricaltzeo devocioneiquin deitzen duten dembora eta lecu gucietan, eta vere devoten esquer onac eternizatuco du aren oroitzapena, verificatuz guisa untan profecia famatu ura: *Memoria mea in generationes seculorum*. Cambiatuco dira Erresuma eta Ymperioac, acabatuco dira historiatic eta historiazaleac, pasatuco dira adinac eta demborac, bana Orriagaco Ama Virginaren icen eta gloria guelditucoda eta conservatuco²¹⁰ eternitate batez mende gucietaco yeneracionetan, ceren imprimatua dago borra ezтитеzquen letrequin, Orriagaco eta ondo otaco cristau devoten viotzetan: oriec publicatuco tuzte fidelqui Ymagine saindu unen vitartez Yaincoac obratu tuen gauza miragarriac eguinez aguer zahin mendi otan vere devoten gorputzeco eta animaco behar orduac socorritzeo, baldin deitzen badue fede vici eta devocione saindu batequin, baita nic ezautzera eman gogo nauciena.

Yaincoaren Ama Orriagacoa. Zure gana eldu guira seme bat, animale furios batez atacatua edo etsay crudel batez perseguitua, vere Amaren besoe-

tarayuaite den bezala. Nahiz gure culpec eguin gaituzten indigno²²⁰ zure semeac icendatzeco, vizquitartian zu zare eta izanen zare beti gure Ama ain amulsua nola maitagarria. Eracustera eman zazu veraz ala zarela zure amamodioaren efectuequin eta entzun zazu oray zuri eguitera nuan suplica edo galdeitza. *Sancta Maria, succurre miseris.* Maria Saindua Yaincoaren eta gure Ama; socorri gaitzazu pena eta miseriazco lecu untan, Adanen seme gucientzat larre eta sasisco lurra den mundu untan, ceintan nehor ezpaitaiteque escusa eta libra trabailu eta nahigabetariq; erdies zaguzu behar dugun paciencia resignacione saindu batequin sofritzeco. *Juva pusilanimis.* Lagun gaitzazu gure naturaleza gure pasione ta gure vicioengatic flacoac causitzen guirener, munduaren demonioaren eta araguiaren tentacioner²³⁰ erresistitzeco edo ihardoquitzeo, amorocatican eta iraun dezagun fermuqui Yaincoaren cervitzuan eta segui dezagun constantqui ceruco vide. *Refove flebiles.* Consola gaitzazu tristeciaco aimbertzecasionetan, aimbertzec desgracietan eta nigarra veguietarric maiz ecarrarazten dauzquiguten nahigabetan. *Ora pro populo.* Otoitz eguin zazu populoarengatic eztain gal impietateac eta immoralitateac edatzen eta barreatzen tuen ilumbeen erdian, baicic oray artio bezala conserva dezan garbia vere aita amenganic errecibitu zuten fedea. *Interveni pro clero.* Aplica zazu zure arartecotasun boteretsua Yaincoaren ministro gucier egungo egunian ain perseguituac Elizaren etsayez eta ceinaren doctrina eta exemplotic dependitzen baita²⁴⁰ Cristau fidelen eguiazco urostasuna. *Yntercede pro devoto femineo sexu.* Arquitzu ere zure proteccioniaren azpian emaztequi flacoac amorocatican eta izan ditzen zure imitazale fidelac eriritiramenduan, modestian, honestatian eta eguiazco devocionean, araguiaren placer ciquinez, munduco vanitatez, eta demonioaren tentacioneez engañatzera utzi gabe. *Sentiant.*

Esperimenta bezate guciac zure laguntza boteretsua eta principalqui Eliza untan zure sortze saindu eta aguertze miragarriaren celebratzera yuntatu guirenec, Ala izan dayela, Ama guciac ona, ala izan dayela guisa untan conseguituco dugu sainduqui acabatzea gure vicitza eta zure compañian gozatzea eternitateco.²⁵⁰

Bibl.:

Orreagako bilduma. JMS-k jasoa. Egilea: Nikolas Polit, Orreagako nagusi zena. Argitaraga-bea. 130 x 200 mm. (9 orrialde).

47. ZUGARRAMURDI (1875)

Nikolas Echeverri, Lesakako atalean ikusi duguna, Zugarramurdiko apaiz izan zen berrogeita hamar urtez. Berez elizondoa baldin bazen ere, bere bizia

Zugarramurdin igaro zuen, eta bertako euskara ongi darabil. Hemen jasotako hiru predikuak 1875 eta 1877-koak dira. Urte bat bakarrik igaro zuen Lesakan eta 1858an aldatu zen Zugarramurdira. Ia hogeitun urte bazaramatzen, beraz, izkribuok idatzi orduko.

Herrian bazen emakume aberats batek utzitako diru altxor garrantzitsu bat, zabarren, erien eta bestelako behar askoren erremediatzeko sortua, eta istilu asko sortu zion herrian.

Sermoi asko idatzi zuen eta bilduma nagusia Zugarramurdiko parrokiari bertan dago. Beste parte bat neuk jaso dut Orreagako bilduman.

I

Sermón sobre los bailes*

Exordio

Guelditzen da necazalea lanetic, bazterra edo bere ondasuna quisuztatu duenean? Eta ezpada lanetic guizona ura guelditzen ¿guelditu bear ote dut nic predicatetic Misione Santuarequin nere Erria verotu eta quisuarequin lurra bezala ondududanean? Ez, eznaiz gueldituco, baicic labradore onen guisa lotuco naiz lanari, predicacioneari albada azcarquiago emanden quisuaren fruitua vilececo eta conserbatzeco, eta baldin nere oyu miñec nior uquitzen eta enfadatzen badute, ceren eldunaicen maiz edo veti becatarien irazartzera verri charrequin eta loa pecatariari quentzen diotenequin, adibeza lenic Amos etc.

Dominus Deus locutus est: quin non proffetabit?
(*Ex. Amos, cap. 3*)¹⁰

Vatimalizaque, iñor, nitaz enfadatuco denic pecatariari, verri charrac ordinarioqui ecartzen ttidelacoz adibeza lenchago Amos profetaren erran

* Conviene leer el Compendio de Padre Guri en el Tratado de Virtutibus, párrafo 3.º de *Choreis*: para que, enterado bien de la materia, pueda el Ministro predicador optar convenientemente acerca de la conveniencia o inconveniencia de hablar a los fieles sobre el Asunto. Anastasio Echeverri.

—Predicado 2.ª vez en 4 de julio de 1875.

—1.º Sermón después de la S.ª misión.

—Barzia Serm. 42, tom. 2.

—Predicado en 1863, 17 de mayo.

A. M., *aditzale maitiac*. Egileak berak egindako oharra. Era berean, N. A. M., *nere aditzale maitiac* irakurri behar da.

bat. Cittuzten guti maitatzen profetac, Ysraelitar sineste guticubec, ceren maiz profetitzatzen citiozten eriotziac, carcelac eta fin gasstuac, ederqui erratien pretenditzen zuten dembora eta ocasiyuetan *Loquimini nobis placentia*: eta Amos profeta ateritzen da profeten alde eta vere burubaren defenditzera eta libratzera onaco itzaquin *Dominus Deus: ut supra* Mintzo vaguiñtez vorondate gastua eta zuben galgarriyaren deseyuz, au vay litzaquela gogorra eta miachagarria, viño erran viar vadugu Jaungoicubac diona ¿nola eztizubegu pronosticatu viar Jaungoicubac errañen dubena? N. A. M. Ez dudaric²⁰ izan, zuben salvaciyuaren deseyuz mintzo naizela: asqui penatzen naiz pecatariyari verri charrac ecarri izan viarraz; vino erratian Jangoicubac condenatuco dela, penitencia eguitten ezpadu, nondic nic erran diozequet verceric?

Emen guertatzen da, Acab Erreguiarequin, Miqueas Profetari guertatu zetzayona. Erreguia arc, deseyatzen zuben guerlarat ateratia, eta Erregue Josafaten consejuz, ceñec eman cion lagunduco zobelaco itza, consultatu edo galdetu cion Profetey, guerla aren suceso edo ondoriyua. Onetaraco, juntatucittuben laur egun urbill profeta falsu, au da Aztiyac, eta guciyec batian erracioten atarazattequiela³⁰ eta victoria logratuco zubela. *Ascende et dabit eam dominus in manu regis. 3 reg. 22.* ¿Ezta verze Profetaric? erran cion Josefatec; Bay, eranzun cion Acab erreguiac, bada verce ezin icusi dudan Profeta bat, ceren arizaidan beti, beti gauza tristiciac anunciatzen. Datorla vada oriyere. Aren esque viyali zuten mandatariyac, erregutzen cion profeta Miqueasi, conforma zadiyela verce profetac erregueri erran cioten arterat edo arequin. *Vivit dominus, quia quod cumque dixerit mihi Dominus hoc loquar* ⁽¹⁾. Vacar vacarric Jangoicubac erratten didana, orisse vera erranendiot. Erran cion bade Erregueri verce guciyen iduriyaren alrebes. Ec Erregueri, guerlan garay, victoriosu aterico cela erran cioten, eta Miqueasec, garaituba izanen cela. Ec Erregueri,⁴⁰ viciyarequin, guerlatic itzulico cela aseguratu cioten, Miqueasec verriz, yuaten edo ateritzen bacen, illen zutela. ¿Cer guertatu cen? Sartucen cen Erreguia arropac mudaturic, ezagutu etzezaten etsayec, sartu cen diot batallan Siriaco Erreguiaren contra, eta saeta batequin ill zuten. *Mortuus est.* Yllzen Acab, vegarriyetara ongui erran zion profeta falsuetaz fidatu celacoz, eta Eguiyazco Profeta, Jangoicubaren izenian mintzatzen zetzayonari siñetsi nai izandu etziolacoz, verac naizubena ez izanic ere.

¡Oh Cristabac! Gaur eguin biar dut Miqueasen oficiyua. Pecatariya davilla, nondic eguiñen duben vere gustuba, Jangoicubaren nayaren contra, Erregue Acab vezala: veti nailuque ateri veriarequin, eta azquenian gueldittu⁵⁰ ongui eta victoriyaq^{en} eriotzeco orduban. Onetaraco galde eguitten eta consejuba escatzen dió: Nori? Ez, eguiya erran diozequeten Jangoicubaren Ministrubey, vaicican, adulatzen, engañatzen duten Profeta falsubey. Badaquizube ceñi? demoniyua Mundua eta vere Araguiyari. Oc diote erratten, vizidadiela,

ibillardiyela nola nay, gogubac escatzen dion conformedaderat, eta azque-
nian victoriyarequin aterico dela. Oray bada, yarri viardu oquin alderdiyan
eta numeruban Jangoicubaren Ministrubac? Desgraciatura predicadoria au
eguiten dubena: Ori ez, dio Miceasec, eztut nic ori erranen baicic Jangoicu-
bac diona *Vivit Dominus*, etc. Atenciyua N. A. M. Naiduzube nic ere erratia.
Miqueasen conformedaderat eguiya villussiya eta den vezala⁶⁰ churia churi
eta gorriya gorri dela? bay edo ez? Dudaric eztéc... Ea bada, diot equivocatzeco
peligruric vague, ocasiyua eta peligrubac matte ttuztenac, pecatubetan,
erremedyoric eztu, erorico direla, eta ocasiyo eta peligruric urbillenecubetanic
bat direla danzac, vilcuida nasiyac eta yosteta guizaseme eta emacumien
artecubac. Ycusi dezagun. Ave María.

¿Nor izandu cen, du S. Efrene galdetzen, Cristabei accione itsusiya hoc
eracutsi ote cionac? Yzan cen S.ⁿ Pedro? Yzan cen S.ⁿ Juan edo vertze
santuren bat? Ez eguiazqui, baicic izandu cen Demoniyua, gure arimien
etsaya Verac eran cion Jangoicubaren sierbo bati; *leitzen* den vezala zazpi
doayetaco liburuban. Yaquin nay zuben zuben Religiosuba onec cein cen
Jangoicuba⁷⁰ gueyenic ofenditzen zubena, pecatuben incentivo edo gay veza-
la; eta *oraciyuan cengonian*, icusizuben, aricirela Elizan sarcen, danzan-*socan*
guizaseme bat, vertze anitzen artian, eta Elizari varnetic inguru bat eman
bezala, eritzen cituztela oñequin, gure Jesus Gurutzeficatubarenac: eman
zuten berce inguru bat, eta eritzen cituzten Jesusen Magestadiaren escubac;
berce inguru baten ondoban equencen cioten Corona burucoa, eta oñen
pean erabilli zuten: berce inguruban, irri eraguitzen zuten Jesusen dolorietaz,
ttuba lussttuba arpeguira cioten botatzen, sayetsa cioten idequitzen, eta aztaz
zuten blasfematzen. Zagon Religiosuba ura arrittuya pasatzen eta icusten
zubenarequin, eta ezin eramenez amberce injuria eta atrevimentuba, eta
yequicera⁸⁰ ciyuanian, etorri cetzayon guizaseme danzaren guidariya ura, eta
erratten dió: deseyatzen zanubelacoz yaquitia ceñ izan zattequiyen gueyenic
Jangoicuba ofenditzen duben gauza, eta aren ofensac provocatzen ttubena,
aren ordena eta nayez, Ni, bainaiz illumbietaco Principia, dantza eta yosteta
profanuben mayestruba eta guidariya, etorri naiz, zuc naizanubenaren eracu-
tsi eta manifestatzerat. Yaquinzazu, danzetan direla eguiten, Jesu Cristoren
contra, zuc icusi ttuzun gaizquiya eta maldadiya oyec guciyac. Zango edo
oñen muguimentu, eta zapata curiosubac aguerciarequin, ttuzte even redento-
riaren oñac ofenditzen: zabalduric besubac ibiltziarequin even Salvadoriac,
gurutzean idiquiac iduquicittubernarenac ttuzte despreciatzen: vuelta⁹⁰ edo
itzuliac, eta ematten ttuzten ingurubequin, osticatzen, oñpetzen eta injuria-

67. *Quis talia Christianos edocuit? Ephr. ap. March. hort. past. lib. 3 tr. 3 fine.*

68. *Non Petrus, non Joannes, non alius divino numine afflatus, verum ille draco antiquus suis voluminibus docuit. afr. ibid.*

69. *Nicol Dinclesp. lib. de 7 Donis, Specul. Mag.*

zen dute *aren* corona: even musica soñubequin, irria eta burlan daude, Jesusen Magestadiac eguiñeco nigarra eta padecittubaco doloria etaz: soñeco adorno eta veztidu lascibuequin, diote ttuba lusttuba, arpeguira J. Cristori botatzen: alegriya vanuarequin, sayetsa idequiten, eta even uquitze ciquiñequin dute blasfematzen. Onen gatic bada, despreciatuba izatten da Jangoicubaren Semia dancetan, eta, ni, baliyatzen naiz dittudan arma guciyetaz cristaben contra dancetaco ocasiyuetan.

Ycusten duzube *A. M.* nola aitoren duben demoniyuac dantzetaco Autore, mayestruba¹⁰⁰ eta guidariya dela J. C. gure Jaunaren deshonoratzeco? Ycusizazube gueyago: Dantza da, dio S. Agustiñec, círculo in^{8u} bat ceñen barna, centroa, *erdia* da demoniyua. Andic *artiquitcen botatzen* ttio bere sayetac arimei, eritzen colpatzen baitittu danzariyac, eta danzariey veguira daudene. An, ttu Demoniyuac, dio Guillermo Lugdunensec, amberce ezpata, non emacume danzariyac, soñeco lascivo eta provocalliz yaunciac acudittu direnac. An eritzen du ezpata villussiyarequin, ceren ezten mantu, honestidadiari servi diozequenic: An daude zorroztabac ezpatec, ceren apaintzen diren, majotzen diren plazarat yuateco, eta (y) dantza vera da errotaria, vere ingurubeqⁿ edertasunic ebatsiyena zorrozten dubena, torpecen incentivo, gay eta su gueyagoraco. Emacumia, doncella, hoc, diré, dio S. Antoninoc, araco Ynfernuco putzutic ateritzen cirela, quean nasiyac, S. Juanec icusicittuben *larrapot* langosta caltegarriya¹¹⁰ ec. Langostac, saltoca ari direnac, Erregue eta ec gobernadazequien arrozoyic vague: Larrapotiac, even apetito vanuaren ecin aseaz: Langosta caltegarriyac, even provocaciyuequin, galtzen itsusten baitittuzte Elizaco fruituben, au da, proposittu santuben edertasuna. Emacumia oc, diré, dio S. Basilioc, aizia even soñu lasaya, eta lurra even dantza ciquiñequin cutsaten corropitzen dutenac. ¿Au ezta ereguitia gasstaqueriyya eta corrupcionia? Veguira oray, ereiñatic vilyuco ttuzten ondoriyuac. Nola pisatzen eta ponderatzen zuben nere S. Francisco Salescubac! Dantza, vilcuida nasi, eta verce gabazco yosteta profanubec dacarzquite erribatian ordinarioz izatten diren pecatubac: aserreac, invidiyac, burlac, eta amodio torpe eta eroac. Cer seguidaitaque, dio Petraracac, escu lasay, vegui libre eta honestidade eta recatoric vague dabilzan oñ batzubetatic? Egercituba diré,¹²⁰ Jangoicubaren veldurtasuna eta lotsa santuba destruitzen urratzen dutena: Acullubac dirá, araguiaren verotasunac eta pasioniac circatzen ttuztenac. *Hi sunt libidi-*

102. *Chorea est quidam circulus, cujus centrum est diabolus.* S. Aug. ap. Pe bart. S. 46 domin. quinc.

111. *Et de fumo justei exierunt locustae in terram.* Apoc. 2 Prob. 30.

114. *Vanitate tripudiorum, viriditaten boni propositi quod est in hominibus auferunt, in lasciviam inclinantes.* Anton 2 p. tit. 6 c. y. v. 2.

115. *Aerem meretrices cantibus, terram vero pedibus lascibe saltando contaminaverunt.* Basil. ser. de ebri. et et luxur.

117. Franc. Sales introd. Vid devot. 3 p. c. 33.

119. *Haec sunt qua timorem, ac pudorem pellunt.* Franc. Petrar. dial. 24 de choreis.

num stimuli; eta onequi lassatzen diré, idequitcen gastaqueria eta loiqueriyaraco atiac. *Haec laxamenta licentiae*. ¿Norc eztu icusten, dio S. Ambrosioc, even salto eta muguimentu guciyequin mutil guizasemien arimetan eguitten dituzten calteac? Cernbat pensamentu gasstubac! Cernbat accione itsusiyac! Cernbat pretensione ciquiñac! Dudaric paratzen duzube ondoriyuba otaz?

Errambeza Ysraelgo Pueblubac nondic seguittu cen *Cecenaren, Bezerruaren*, idolatria añ Jangoicubaren desagrado eta gaitzesiya, eta oqueita iru milla Ysraelitarra equin eriotzia ec. Nondic even danza profanubetatic baicic? *Vidit vitulum et choros*. Arimac diré emen iltzen pecatubengatic, eta maiz asqui gorputzac ere naigabe disgustubengatic. Errambeza¹³⁰ Herodesec cergatic esquein eta ofrecitzen duben vere Erreinu guciyaren erdia, eta aguintzen moztldiozeta la lepua S. Jⁿ Bautistari. ¿Cergatic, dio S. Mateoc, Herodiasen alabaren danza provocativuaz baicic? Picatzen diote emen lepua Graciya divinuari (ori erran naibaitu Juanec) eta errenunciatzen du, ez erdia baicic Ceruco Erreyneu gucia, atseguin, gusto vano batengatic. Gueyago: cernbat vider aldiz, danzan aridirenac, galtzen diote erre(s)petuba ec corregitzen ttuzten Sacerdotiey? Ala guertatucen Eguberri arrats batian, Sajoniaco Erreynuban, Colbeche deitzen den errian, meza gab erdicoaren ematen aricen, Roberto deitzen cen Sacerdotiarequin. Ecin errancezaquiem meza deseyatzen zuben devociyua eta atenciyuarequin, urbillean danza errepican ariciren batzuben¹⁴⁰ gatic. Viyalicion avisubat issiltziaz eta guelditziac favore eguitteco, viño etzuten casoric eguin naizandu. Sacerdotiac eguitten dio Jangoicubari otoitza yendia equin escarmenturaco, arren iduquizetzala danzan gueldittuvague urte bat. Gauza arrarua! Urte bat ososua, yan edan vague, eta loric eguin vague egon ciren danzan gueldittu gabe, eguna eta gabaz, y guero ilciren gueyenac. Cernbatetan ezchuzte burlatzen Eliza eta Elizacubac? Ala eguin zuten Flandesen Mastrichco villan, zubibaten ganián berregun bat Guizacume eta emacume danzan ariciren batian. Pasatzen cen Sacerdote bat Gure Jaun Sacramentatubarequin carrica batian, equin vista eta ainciñetic, viño etziren dantzatic gueldittu baicic seguittu zuten evena artan. Laster izancen equin castigua.¹⁵⁰ Zubia eguin cen vi pusca, erori ciren gueyenac urera, eta itto ciren. Ycusten duzube seguitzen eta eldudena dantzatic?

Eta ¿cér erranen dugu, orraco berce yosteta eta zubeac deitzen ttuzuben liberticione, demoniyuac, ez bacarric erri andiyetan baicic oraiñ ttipietan introducittu edo sartu ttuben orietaz? Badaquizube ceñetaz naicen mintzo. Orraco diversio lotsa santuba galduerazten ttuzten orietaz. Orraco yostetaz

124. *De dechoro lubibrio spectat corona adolescentium, et sic miserabile theatrum*. Amb. lib. de Elia et Jefum, cap. 18.

134. *Saitavit filia Herodis in medio et placuit Herodi*. Math. 14.

144. Vinc. Bel. lib. 25 c. 10 Christ. Mas. Lib. Chro. 16 Alb. Krant. lib. 4 hist. Saxon 33.

148. Naul. in chro. March. ubi sup. contimp. lib. 2 ap. cap. 49.

ceñetan du doncellitac icasten (dio Petrarac) obiago izanen lizaquiya iracasten ezpalu; icasten baitu, aunitztan, honra, estimaciya eta castidadia galzeco gaya diren gauzac.

Orraco elcarrequin yuatia orietaz, guizasemiatic eta doncellaq besoz¹⁶⁰ beso, ceñen artian baituaz, *van*, vi Demonio lujuriaren suba aizatzen eta ernatzen; Jangoicubaren siervobatec icusi zuben vezala. Orraco vilcuida nasiyac ceñetan uste dute cillegi zazquiotela besarca musubac eta berce zube daquizquizubenac. ¿Cer da au? Deittu biarttuztela yocubac, cristabec, ciquinqueria eta loiqueriya verceric eztiren Demoniyuaren yosteta itsusiya hoc? Yostetac, torpezaren escola publicua direna eq?

Oh cer carguba eta icagarrico Juicio zozrotza esperozaigun, Sacerdotiac ezpaldin vadugu eguiñal gucian peste izurri, gastuba onen contra *clamatzen* eta oyuba eguiten!!! Veguira nolaco carguba eguitten zayon Apocalpsiyan Pergamoco Obispuari. *Habeo adversus ta paca: quia bages illic tenentes doctrinam*¹⁷⁰ Balaam: Apoc. 2. Ezagutzen dut zure Fedea eta virtutia, viño contu emazu Balanen doctrina seguitzen dutenetaz. Cer doctrinaz? Araco Balanec, Balaac erregueari Ysraelitarac pecatubetarat eroriarazteco eracutsi zionaz. Veldurra cion Erreguia onec, Jangoicubaren aldetic añ asistittubac eta favorecittubac zeunden Ysraelitarrey, eta Balaanec eman cion consejuba Erreguiari guerla eguin ziozela emaztequiequin, even edertasuna danza eta muguimendubequin becuraturatuc cittuztenequin: eta eguiyazqui ala guertatuzen, bada idolatrian erori ciren. Au premititzen du Pergamoco Obispubac? Eztu bada Salbatuco bere virtute propiyuac, añberze pecatuben ondoriyuac vere gañ dauzquiyelaric. Hay cer carguba gurea! cer carguba Sacerdotiena!¹⁸⁰

Ycus bezate ere Familiaco Buratso, even alaba (eta emaztiac si tambien bailan) danzara, yostetara yuateco, ez bacarric licencia ematten baicic, orañic componcen adornatzen ttuztenac. ¡O Buratso cruelac! Ura yuntatzen duzube loyarequin? Emazube, formatu den loyaz, contuba, eta y loya orretan erortzen diren guciyetaz! Cer da apaintzea alava, garra gueyaco eguitteco, egurri, oliyua votatzia vaicic? Cer orrembercetiñequan ancizarete, dio S. Ambrosioq, zuben alabaren estimaciyo honra eta arimaz? Qué eranzunen duzube Juicioan? Erranen duzube, ezconzac direla orrequin ajustaten eta componcen? Oh eta cembatetan diren facilitatzen pretensione eta accione torpe asco, esconzaco esperanzarequin!!! Errambeza verzala Amon principiatic, vere Arreba Tamarren amodioz¹⁹⁰ erittucenian. Deseyatzen zuben viziquia principia onec vere arreba Tamar ezagutu eta gozatu seigarrenecuban; otoizten eta eregutzen zuben aren deseyu ciquiñetara amor emunciozela, itz batian consentizezala... Ez Anaya, erratten dio arreba Tamarrec, becatu izigarriya izanen

162. Pelb. Domin. quinqa lit. T. Chris. ho. 49 in Matth.

litzaque ori; ez anaya. Goyen goyenez eguin dezaquezunaz da escatu eta galdetu emaztetzat Zure eta nere aita Davidi. *Loquere ad Regem, et non negabit me tibi*. Orobat izanducen ezcontzeco itza au aditzia non bereala pasatu cen obretara, eta indarrez gozatu zuben Tamarren nayaren contra naiz vere atrevimentuba au pagatubazuben guero Amon principi ac vere viciarequin. ¡Oh cembat ciquinqueria eguitten diren escontzeco esperanzarequin! Eman vezate Buratsobaq guciyetaz, eta even ondoriyuetaz contuba.²⁰⁰

Viño concedidezagun, eztirela burlatubaq guelditzen, francotan guerta-tzen den vezala: ¿Cer escontzac izandittezte orraco pecatuba vittartian izan-zutena oriyec? ¿Cenbat escontza añ desverdiña añ desvarataatubac etziren formatu danza eta yosteta oriyetatic Buratsoen naya gustuba eta vorondatia-ren contracuac, guelditturic Buratsuba oc aflightubac eta pesalumbratubac, even ababaz izaneco descuidubaren castiguraco?

Ycusi dezagun es^{ura}. Sagradan dacarren ejempluba au. Casatu eta acabatu urran cittuzten Venjamintarrac Ysraelgo verce Tribucoec, eta juramentu eguin zuten, arren, etzioztela eman viar even alabac emazteteco eriotzetic escapatu ciren guizoney. Seietan egun, viciyarequin libratu cirenetatic, lauregunc²¹⁰ villatucittuzten andre gayac, eta vertze verregun guizona ec escatu cittiozten doncellac emazteteco, Siloco ciudadeco habitantiey, viño eztziozcaten emanaizandu; cela eguiña zuducaten alabac ez uzteco juramentubaz, edo verce gauzaz, eta ona nola valiyatu ciren Venjamintar guizona ec even zarragocuben consejuz. Yarri ciren gordetubac ardance eta mastibatian, Siloco doncellac danzarat urtioro yuaten ciren paragebaten onduan, eta yosta eta descuidatubagubac arizirenian yequi ciren gordetubac zauden mastepetic eta ebatsicittuzten berregun doncella, bacoachac vere eta guero ezcondu ciren. Jud. 21. 23 *Juxta numerum suum rapuerunt sibi de his quae ducebant choros uxores singulas*. Ez otezuten erreparatu guizona ec eguin zuten atrevimentubaren ondoriyuey? Bay²²⁰ guartu ciren. Bada cer dute erranen Buratsoec equin alabac ebastiac icusi eta? Cer eztute eguiñen eta sufrittuco pesalumbriyarequin? Errambezate eta eguin bezate nai duten guciya, diote Benjamintarrec, ceren eurec izanen dute even doloria eta penaren culpa. Certan dago Buratsoequin falta? Escatu cittioztenian even alabac emazteteco, ez ematia artan? Viño ez: ec zuten yuramentubaz gañerat, zeunden venturaz obligatubac borchan even alabac ematerat? Adizazuben Josefoc cer dion: Buratsuben culpa egonducen, alabac ez ematiarequin, danzarat yuatera uzti artan; eta onengatic, esconcen badire Buratsoen naya eta vorondate guciyaren contra, eurec dute ondoriyua oquin guciyen culpa, bada utzi cittuzten ocasiyo eta peligrurat yuatera. *Ypsos in culpa esse, quia filias²³⁰ negligenter custodierint*. ¡Oh

224. *A vestra parte peccatum est*. Villarr. in Indic. 21 comet num. 6.

Buratsoac, eta ceñ cargu añ terriblia espera zaizuben! Yzanendiré cargu, zuben alabac eguiñen ttuzten becatuac; zuben alabac torpeza eta gasstaqueri-yeterat pretendittuco dittuztenenac, eta culpen eta dañu fiñerañocuban seguituco diren consecuencia edo ondoriyuenac, zuben culpaz, zubez zaratela medio usariyo gasto corruptionian ez casatu izandubaz, ez utzi izandubaz ez debecatu izandubaz... Oh nere Jangoico ona! amberce sufritzen duzuna!, ¿Noiz artiño aguantatuco duzu Buratso lazo eta descuidatuba oquin acholavaguetasuna eta Fede escasa? ¿Cer onela falta diozequete, araco escondu cirenian, humiac, izatten bacittuzten, Ceruraro azico cittuztela eman cizuten itzari?²⁴⁰

Etzatteztela Buratsoac engañatu... Eman dago sentenciya zuben contra. Juez justuba da Jangoicuba eta pagatuco ttuzube, zuben culpaz, zubez alaban danzetan, yosteta peligrsubetan eta vilcuida nasiyetan eguitten eta verciy eguinerazten ttuzten pecatubac. Erremedyua bada zubez onelaco estutasu-nean zebe burubac ez icusteco eta Juicio andiyan garbi aterizeco, eracusci-zube zuben alabey erretirua, ceren dancetan diren arima galzeco peligrubac millaca, ceren danzaz gañera diren verce anitz yostatzecono modu obiagocubac eta inocentiagocubac. Au eguinzazube, au consejazazube, au guciyey esracuszazube, eta onequin Jangoicuba izanen da zuben aldetic honratuba. Lurrian guero eternidade batian gozazeco Ceruban, guciyeri deseyatzen dizubedan²⁵⁰ vezala. Amen.

II

*Humildad**

Omnis qui se exaltat humiliabitur, et qui se humiliat exaltabitur. Luc. c. 14

Ezdaquit caustuco oteden Evangelioan bertce virtute bat maizago encargatcen zaicuna humildadea baño. Erran daiteque casic, guri humildadea eracustera bacarric etorri izan ceta Mundura Jaungoicoaren Semea, ongui yaquinic ainguiru becatarien eta gure lenvico guratsoen soberbiatic sortuac direla Munduaren lenetic acaballaraño gaitz guciac. Au dela medio dudaric gabe, gure Salvatzaleac, eldu baitcen Mundura becatuac eguinicaco calteac erremediatcera, eman nai izan zacun ejemplu ain aindia bere humildadeaz.

Eguiazqui examinatcen badira gure Salvatzalearen misterioac, eguiteac eta vici modu osoa, ezda nion ere caustuco anditasunic: bere escuan zaucan

* Predicado en 1877, 80, 86, 1900.

bere Amataco destinata zaucana, Munduan lenvicico Erreguiña izatea baño²⁶⁰ disponitu zuen izan zadiela, garbia eta Saindua bai, ecin gueyago, baño pobrea dembora berean, eta bere clase apalarengatic munduan guti zaguturic vici cena: Acierendaco destinata zagon paragea autatu zuen bere sor lecutzat, eta gambela siascataco; Zurguin pobre bat autatu zuen uatz Aitataco, ceñen cerbitzuan vici izan cen ogei eta amar urtez: igues eguiten zuen yendeenganic honratu nai zuten demboran; eta azquenic autatu zuen eriotce gucietan deshonoragarriena; Cein baitcen dembora artan gurutceco eriotcea. Orañic orai ere pasioneco Misterio guciac pasatu ondoan, Ceruan gloriaz beteric aurquitcen den demboran, gure vistara modu ecin gueyago humillean presentatcen, da, edo gurutcean itcez yosia, edo Aldareco Sacramentu Sainduan²⁷⁰ bere anditasun gucia hostia ttipi baten negurrira biurturic.

Obraz eta egemploarequin bezala, itcez ere etzaicu issiltcen gure Salbatalea humillac izan gaitecila aguintcetic Sn Mateoren Evangelioan erraten dacu: *Discite á me quia mitis sum et humilis corde*. Icasazue niganic ceñen humilla naicen. Salomon guizon yaquinsun aren medioz erraten digu: Cembatenez doai eta prenda gueyago autesten diozun cere buruari orduan eta humillago izan zaiteci: *Quanto magnus es, humilia te ipsum*. Eta gaurco Evangelioan gu humildadera gueyago muguitu naicic virtute untara exortatu ondoan parabola batequin erraten dacu azquenean, humillac izanen direla goratuac²⁸⁰ eta honratuac, eta soberbioac eta vanidadeari lecu ematen diotecnac despreciatuac eta beituac. *Omnis qui se exaltat etc.*

Saindutasunaren cimendua deitzen dio San Ciprianoc humildadeari. Cristauen artean lenvicicoic caustu bearden virtutea eta barrena, dio San Geronimoc, dela humildadea. Eta San Bernardoc erraten du humildadeac goardatcen eta zaintcen dituela bertce virtuteac. Humildadearen estalpean bai daude seguroenic bertce virtuteac: presuna humillac presente iduquitcen ditu bere faltac eta defectoac, eta guizonaren miseriac eta deuseza, eta ez diote hirriaric ematen baicic urricalmendua bertceen faltac eta disimulatcen ditu urricalduric. Humillac zagutcen du soil diferencia guti dugula guizon guciac elcarren artean: iturri beretic eta miseria berequin sortuac garela gucioc;²⁹⁰ desgracia beretan erortceco arrasscuan gaudela eta acaballa bera izan bear dugula. Eta humildadeac zaumendura au ematen dacun demboran, goardatcen gaitu progimo lagunaren caridadean eta libratcen gaitu niori ere desprecio eta burla eguitetic.

Humildadeac decarra baquea cergatic presuna humillac badaqui ceditcen eta ez ceditu nayac pizten ditu discordiac eta aserdurac: eta finean humillac ontzat artcen ditu eguiten zaizquion correccioneac, advertitcen zaizquion utsac, eta ematen zaizquion conselluac; eta bere buruaz ez bait da sobera

fidatcen, baitaqui adisquide eta Superioreen conselluac enzuten gusto, amorio eta modu andiarequin ematen da consellua, ongui enzuna izanen delaco seguridadea den demboran, oquen guciengatic nequez alderatcen da humilla zucen pidetic, eta uts edo macur bat eguinic ere lasterrago erremediatcen da bere falta.

Baño ventajaoc guciac humildadeari darraizcon bezala bertce aren bertce gaitzac yarraiquitcen zaizquio soberbiari. ¿Noiz zagutcen eta aitortcen du soberbio batec bere utsa eta macurra? ¿Nor atrevitcen da alacoari correccione bat eguitera, consellu bat ematera edo falta bat advertitcera? ¿Baño cer da soberbia? Soberbia da batec bere burua merci duen baño gueyagotan estimatcea: Soberbia da yendec honra dezatelaco deseyu min bat izatea: humildadeac eracusten dacu gueren faltei beguiratcera, eta eguiazqui humilla denac,³¹⁰ bere falta eta defectoen culpa bere buruari botatcen dio, eta bere baitan ventajatic causten badu zagutcen eta aitortcen du Yaungoicoari zor diola. Baño soberbia den lecuan dio Spiritu Sainduac, ezdela beñere falta quimera eta aserdura eta ondotic odioa. Soberbiari darrayo invidia ere, ceren bere buruaz, bere gaucetaz eta doai eta ventajetaz vanidadea artcen duenac ez dieceque beguiratu begui onarequin bertceen on eta ventajei: bere burua nailuque icusi bertce gucien gañetic, eta au dela causa tirria eta pena ematen diote bertceren onac.

Soberbia paratcen du Sto. Tomas Doctoreac vicio capitaletan lenvicicoa: badira vicio batzuec capitalac deitcen direnac, cergatic diren bertce vicio³²⁰ batzuen iturriac eta Amac bezala, eta alacoa da soberbia. Gueyago erraten du orañic Scriptura Sainduac. Vicio gucien iturria eta zaña dela soberbia. *Initum omnis peccati superbia.*

Eta eguiazqui, ¿Norc daqui cembat becatu causitcen duten Munduan soberbiac, vanidadeac eta presuncioneac? ¿Cembat guerla ezdu pizten manatu nayac eta cembat gaizqui ez du causitcen guerla batec? ¿Cembat odio eta invidia ez du sortcen bere burua bertceac baño goitiago icusi nai izatetic? Anditasunean bertceei yarraiqui nayac edo bertceac pasatu nayac, cembat trampa ezdecarra contutzaletan, cembat injusticia eta ebasco gobernazaletan, cembat zor eta guibelatcepen echeetan eta familietan?³³⁰

Vanidadiac eta soberbiac equentcen dehe merito gucia obra onei. Yaungoicoaren aiticineraco ere, bada deusere ezdute valio animaren oneraco vanidadez eta yendeen erranagatic eguiten diren baru limosna otoitz eta gañeraco obra onac. Eta oranic Munduonen estimuan ere prendaric ederrenac eta doaic baliosoenac galtcen dute beren lustrea ec berequin dituenari vanidadea autetsi ezgueroztic. ¿Baño cembat ezdu edertcen bere burua yaquinsun humillac, vanidaderic gabeco ederrac eta soberbiari lecuric ematen ezdion abera-

tsac eta nobleac! iMilla egemplu causten dira Escritua Sainduan claroqui aditcera ematen dutenac cembat maitatcen duen Jaungoicoac humildadea baño cein gauza gaitcesia duen dembora berean soberbia. Soberbia ceraman³⁴⁰ zuen Cerutic infernuco zolaraño Lucifer bere lagunequin eta Aita Eternoaren Semearen humildadeac eramaten ditu guizonac lurretic Cerura. Soberbiac galdu cion Adani paradisuan; eta humildadeac erdietsi cion gure Salvatzalarequin gurutificatu zuten ladron onari betico paradisua: Evaren soberbiac galdu quintuen eta Mariaren humildadeac erremediatu: Vere soberbiaren castigutan animale biurturic guelditu izan cen bezala Nabucodonosor, alasse ere bere humildadearen pagutan José legue zagarreco Patriarca ura gartcelatic lecura Egipto gucico miserregue eguina izan cen. Eta azquenic ¿cerc ecarri izan cion David erreguiari eta aren erreinuari iru egunetaco peste labur baño arrasagarri ura? Vanidarez yaquin nai izan zuen Davidec bere erresuman zaucan yendeen³⁵⁰ numeroa; baño Jaungoicoac instante berean gatzigatu cion Gad Profetaren medioz anitz ofenditu zuela vanidadeac, eta unen castigutan, auta cezala edo zazpi urtetaco gosetea, edo iru illabetetaco guerla edo iru egunetaco pestea: Beressi zuen pestea cergatic pesteac ezdecaran Jaungoicoa ofenditceco ocasioric goseteac eta guerlac bezala, eta ceren pestearequin arraiscu bera duten andiec nola ttipiec nola erregueec: bada iru egun iraun zuen pesteac eraman cituen aren erresumatic, 70 milla presuna. Escarmentu oc guciac ematen dute aditcera cembat gaitcesten duen Jaungoicoac soberbia, eta arrozoin andiarequin cergatic soberbioac eta vanidadetsuac naiduten berentzat Yaungoicoari zor zaizquion adoracionea eta errespetua. Unengatic dauca emaniq³⁶⁰ sentencia: soberbia izanen dela beittua eta etc. *Qui se exaltat etc.*

Baño bere burua ongui examinatcen duenac, ¿humildadez ala soberbiaz betetceco motivo gueyago caustuco ote du bere baitan guizonic abentajatuena?

¿Norenganic errecibitua ote ditu vanidarez eta anditasunez betetceco motivo ematen dioten onac? ¿Yzan du parteric ederrac bere edertasunean, ala du graziaz errecibitua? Guizonic abillenari ¿cer gueldituco litzaquioque demborari, eracustunei eta Yaungoicoac eman cion talento naturalari zor zayona eman ezgueroztic; Soberbia beti dago beguira bere onei eta ventajei eta ez du pensatcen equen zorric niori ere badiola, baicic dena berez erdiestua duela. iCer miseria eta itsutasuna au bera! Deus ere ez bereic; dena³⁷⁰ gucia bertceen ganic errecibitua eta siñetsi bear idena bere abileciac erdietsi duela! ¿Cer on presentatuco du guizonac Yaungoicoaren ganic errecibitu ez duenic edo parte gueyena bedere ari zor ezdionic? Baño icer diot parte gueyena! falta eta defectoetan ez bada, ¿badu venturaz guizonac parteric deusetan ere? iEdo beneizpen uca dezaque onic ttipiena ere zor diola Yaungoicoari, egunoroco vicia eta instanteroco ats artcearen ganic errecibitcen dituen demboran? ¿Eta

cer eguinenluque vicia gabe? ¿Cer animaco facultaderic gabe? ¿Cer corputceco mienbroric gabe? ¿Eta oc guciac norenganic eldu ote zaizquio ezpada Yangoicoaren ganic? Bere burua ongui examinatcen duenac milla miseria caustuco ditu bere baitan yende-en vistara aguertcen³⁸⁰ balire anitz solas emateco videa paratuco luquetenac. Viotz andi eta generoso eta entendimentu argui batec casu guti eguiten du bere ventaja eta doayetaz: gueyago beguiratcen dehe vere falta eta escasiera oc erremediatceco, eta au da eguiazqui humildadea erdiesteco videa. ¡Eta cein gauza maitagarria den humildadea!

Humildadeac edequitcen ditu Ceruco atea eta erdiesten Aita Eternoaren bendicioneac: humildadeari darrayo viotceco baquea: presuna humilla izain da urricaltia progimo lagunaren faltac disimulatceco, cergatic ongui consideratcen duen guizonaren miseria eta deuseza, eta baitaqui gure baitan causten den onic ttipiena Yaungoicoari zor zayola. Humillac ere beguiratcen dehe bai bere onei eta ventajei baño ez vanidarez betetceco baicic on gucien causitzale,³⁹⁰ Yaungoico gauza gucien eguileari esquerrac emateco. Etzayo ez autetsico humill eguiazcoari niortaz ere burla eguin nayic.

Baño on oc guciac erdiesteco ezda asqui humildadearen itchura: gauza erreza da yendeen vistan humilla iduritcea, baño guciz necosoa viotcez eguiazqui humilla izatea: Asco aldiz paratcen da empeñu andi bat Munduaren veguietan humil delaco fama erdiesteco, eta guertatcen da humildadearen estalpean soberbiaric finena gorderic egotea: ez da olaco humildade falsoa aditu duzuen bezalaco ventajac eta onac erdiesten dituenac, baicic viotcez eta ichuraz izan bear dugu humillac Munduan: cembatenez ttipiago eguiten garen gueren estimuan lurrean, vici gareneño orduan eta gueyago izanen gara⁴⁰⁰ Yaunaren beguietan: Yduqui detzagun bada presente gueren faltac eta izanen gara humillac guerentzat eta urricaltiac bertceren faltac disimulatceco: humildadeac erdietsico dazcu Munduan Yaungoicoa cerbitzatceco bear ditugun gracia, eta eriotcean edequico dazcu Ceruco atea. Amen.

III

*Meditación: Novísimos**

Qui non renunciat omnibus quae possidet, non potest, etc.

Causten cen aldin batez zure Salvatzalea Mendi gain batean zauzcalaric bere inguruan bere discipuloac; eta icusi zuen yende tropa andi bat eldu cela aren agoco doctrina saindua enzuteco deseyuarequin. Urricalduric Jesus mai-

* Predicado en 1877, 85, 88, 91, 1900.

tagarria eta mendi gañeraño igateco nequea escusatu naicic, atera citzayen bidez erdira errecibitcen cituelaric cariño andienarequin, eta eman cehen animen sustentu espirituala esplicatcen cehelaric Ceruraco doctrina.

Pensaturic equen corputzac ere sustengu beartuac caustuco cirela erran cion bere discipuloetaric Felipe deitcen cen bati ¿Non villatuco ditugu oguiac ainbertce yende-entzat? Guizonac bacarric andreac eta aurrac⁴¹⁰ contatu gabe allegatcen ciren bortz milletaraño. Felipec erresponditu cion: Jauna: berregun denariren edo peceten oguia ecarriric ere, apenas allegatuco zaye bocadu bana. Dembora berean erran cion Andres deitcen cen bertce discipulo batec: Yauna, bada emen mutil bat bortz ogui eta bi arrain dituenac, ¿baño cer ari gara unequin? Orduan manatu zuen Salvatzaleac yar zadiela yende tropa ura gucia eta bedecio botaric eta milagrosoqui berraturic ogui ec ase zuen yende gucia eta orañic soberante equin ere bete ciren amabi zare.

Dudaric gabe arritcecoa idurituco zaitzue milagro au: nic ez dut ucatuco ez dela ala; baño bai erranen datzuet urasse bezain milagro andia eguiten duela Yaungoicoac egunero nai badugu guc consideratu. Ez bortz milla⁴²⁰ eta bortz egun milla, baicic millonac millaca, eta oranic animaleac, egaztinac eta arrañac ezgaitu egunero mantenatcen Yaungoicoac? ¿Baño nola eguiten du au? Milagrosoqui ¿bada cer milagro andiagoric aci-ari fruitua urteero ecarraztea baño? Ea Munduco guizon abil guciec eguinen dituzten lurrac eta aciac eguiten dituzten lanac?

Baño ez da nere asmoa gaur egunoro guertatcen den milagro unen gañan minzatcea, baicic gure Salbatzaleac esplicatu cehen doctrinaren medioz eman cehen alimentu espiritualetic ocasioa arturic minzatu nai nuque animari gauza onetan pensatcen egotetic eldu zayon probechu edo sustengoaz. Presta zazue instante batez atencionea.⁴³⁰

Eta eguiazqui: Niondic ere etzayo animari etortcen ainbertce indar eta sendotasun nola gauza onetan pensatcen egotetic, eta uni deitcen zayo meditacionea. Agozco otoitza litzaque valiosoena gure mingaña Yaunaren laudatcen ari den denboran viotza ere artan balego pensatcen; Yaungoicoaren presenciac escatcen dituen devocione humildade eta errespetuarequin; baño aguerian dago milla aldiz gure otoitz ec Yaungoicoari placer baño disgusto gueyago eman bear diotela eta errateco moduan gure mingañac erraten duenari casu eguiteco gogoric ere ezduela izaten, gure pensamentua non dabilen icusi ta, eta ez dugula gueren burua premiatcen atencionea viltcera.⁴⁴⁰

Au dela medio; comuzqui probechu gueyago ateratcen du animac ordu laurden batez gure religione sainduaren egui-etan pensatcen, au da meditatcen egotetic, ecen anitz orduz errezatcen egotetic. Eta ¿cer bear guinuke

meditatu edo pensatu gueyenic eta maizenic? Gure Salvatzale adoragarriaren pasione Sainduac ocupatu bear luque gueyenic Cristabaren pensamentua: Una Nere Cristabac, una leitcen ez daquitenec ere lei dezaqueten liburua: unec ematen du aditcera cer den becatua eta cembat aborrecitcen duen Aita Eternoac, bada ain icigarriqui castigatu zuen bere Semea, bertce-en becatuengatic. Redentore maitagarri unen vicitzaren eta particularqui pasione Sainduaren historia da escolaric oberena virtuteac⁴⁵⁰ icasteco: emenche bai icas guinezaquela ematen diren leccione admiragarriequin humillac izaten; burlac eta befac sufricen; ofensac barcatcen lagun progimoa maitatcen eta Yaungoicoa gauza gucien gañetic cervitzatcen. Edocein virtuteen bearretan causten denac acudi dezala botica Saindu untara, eta emen caustuco ditu ejemplo arrigarriac eta viotza mugitceco indar andia dutenac.

Baño bego asunto au ere bertce aldia bateco bada ezda au ere nic gaurcotzat autatu duten asuntoa. Badire Cristau-arentzat bertce oroitzapen batzuec valiosac tentacioneac garaitceco; becatua utci-azteco, eta Munduco onetaraco guticia itzalteco indar andia dutenac; dira gure⁴⁶⁰ azquen fiñaren oroitzapenac, erraten duelic Espiritu Sainduac berac: Oroi zaite ceren azquen fiñaz edo suerteaz; eta etzara becatuan erorico: *Memorare novissima tua, et in aeternum non peccabis*. Oroitzapen oc maiz gogora eartcera bear zaituztet бага gaur exortatu.

Sines diazadazue Nere Cristabac: Meza batzuec enzun eta arrosario batzuec errezatcearequin etzatela deus ere ari: eguizue prueba; guti goztatcen da. Pasa citzue rato cembait eriotcean, Yaungoicoaren tribunalean eguin bear zaizcun yuzcamenean, seculaco penetan eta seculaco zorionean meditatcen: ezduzue untaco gasturic eguin bear: dembora da gauzaric merque-ena, eta icusico duzue nolaco mudanza causituco duzuen zuen viotcean,⁴⁷⁰ eta pensamentu oc berac, cer propositu firmeac eguinacico dazquitzen becatuan ez erortceco eta cerenganic tentacioneac erresqui aizcatceco. Ez da berdin erremedioric: ez dugu escaporic: gucioc arrapatu bear gaitu azquen acaballaco pasage tristeac.

Gure azquen fiñaren oroitzapenac animan causitcen duen lembicico ona da; itzaltcea viotcean Munduco onetaraco aficione ta pasione soberatua. Uste dute anitcec Munduco onen guticia unec ezduela calteric eguiten animan: deusec ere gueyago: Ontasunac berratu baicic itsutasun andi batequin dabillanari, nai badu berac aitortu guticia guti ematen diote bertce Munduco on-ec; bada guticia eta deseju guti ematen duten gauzac⁴⁸⁰ empeñu gutirequin billatcen dire eta milagroaz baicic erdiesten eta are gutiago erdiesteco necosoac badire: eta ¿gauza erdiesteco errecenetic eta guti importatcen duenetic oteda bada Cerua? Munduco onen atcean pasione andiarequin dabillanaren

viotcean beñere azdire falta vanidatea eta envidia; vi vicio soil ondorio tristeac dituztenac baño alaie ere conciencia examinatceco demboran caso guti eguiten zayenac: alacoac ez dute otoitz onic eguiten ecetare ongui confesatcen ceren beti dauzca viotcean eta pensamentuan Munduco gauzac eta particularqui codicia baita becatu gucien zaña eta iturria dion bezala San Pablo Apostoluac.

Alfer da Nere Cristabac: Munduco onen guticiac beteric dagon viotcean⁴⁹⁰ ezdago an lecuric Yangoicoaren amorioarentzat, bada alacoac cuidado guti iduquitcen du anima garbi eta virtutean eta animaco ontasunetan aiticinatceaz: Unengatic erraten du Jesucristoc bere Evangelioan: Ez duenac renunciatcen dituen gauza gucietara, ez daiteque izan nere discipuloa. *Nisi quis renunciaberit omnibus quae possidet etc.*

Yauna erranen du acaso nor baitec: beraz ezdugu maitatu bear Munduco onac? Ez dut nic erraten ez direla maitatu bear, baño bai ez direla sobera maitatu bear; au da, ezdugula etan gure viotza paratu bear, Ceruco onen caltetan.

¿Eta cer señaie emanen da Munduco onetaraco pasione soberatua den⁵⁰⁰ ala ez zagutceco? Emanen dazquituet bat baño gueyago. ¿Baduzu cere vicitza pasatceco adina eta alaie ere zabilta pasione andiarequin gueyagocoen atcean cere burua bertce guciac baño goitiago icusi nairic? ¿Arindu bear lecuac progimo cembaiten onac iluntcen datzute viotza? ¿Erreparu gutirequin irabaci cerbait eldu zaizulacotz; artcen duzu besta egunetan viageren bat edo bertce ocupacione edo tratu Elizaco funcioneac galazten dazquitzunac? ¿Gabaz eta egunaz, ametsetan eta idatzarriric zaude beti cere gaucetan pensatcen? Bada oc guciac dire señaieac animaco gauzac baño gueyago maitatcen direla Munducoac.

¿Nai duzu orai Cristaba erremedioa, Munduco onen ganaco amorio soberatu⁵¹⁰ au itzaltceco? Zoaz maiz pensamentuarequin eriotceco ordura: para zazu cere burua trance estu artan: contu eguinzu causten zariela goatce batean bertce Munduraco etsiarequin, eta erran diazazu. ¿Cer dira Mundu untan zuc gueyenic maitatcen dituzun gauzac? Guratsoac, aurrideac, humeac, cere esposa, ontasunac, cere hechea, haciendac, diversioneac? Bada preciso izanen da gauza maite oc guciac beticotzat uztea: eriotceac eremain zaitu cere alderdiaren ondotic: eriotceac ateraco zaitu cere guratso, aurride eta familia maitearen artetic berriz ez itzultceco: eriotceac utziacico datzu cere echea berriz ez artara itzulceco: ez duzu yaquinen cer escuetan, cembatetan eta nolacoetan ñbili bearra izanen den, eta finean⁵²⁰ eriotceac quenduco dazquitzu ontasunac, haciendac eta gauza guciac. ¿Eta uste duzue separacio unec berdin penatuco duela Munduco gauzac itsutuqui maitatu dituenari eta bere

negurrian indituenari? Ez Nere Cristabac ez: baicic permitituco du Yaungoicoac sobera maitatu dituenari cruelquiago penatua guerta dadien.

Eta ongui empletatua dago guizonaren viotza alcabo aimbertce penatu bear duten gaucen maitatcen? ¿Ezluque obequi eguinen maitatcea apuro artara laguntza eta consueloa eman diozoqueten gauzac?

Baño ez pensatu Munduan ainbertce maitatu diren gauzac utci bearrac ematen duen penan encerratcen direla eriotcearen samintasun guciac:⁵³⁰ beguiratcen badu ondocora eriotceco trancean causten denac, orañic gogoracio aren penagarriagoac etorrico zaizco burura. ¿Cer etorrico zayo bada? Etorrico zayo pensamentura ordu gutiren barrenean aren corputza eta anima animale batec azquen atsetan eguiten dituen demostracio tristeac eguin ondoan, Yaungoicoaren Ministroa uyuz dagoquiolaric, eta ezpañetara arrimatcen diolaric Santo Cristo baten imagiña adoratceco, dembora berean presente daudenece suspiro cembait botatcen dutela baño gauza oc guciac den gutiena autetsi gabe, apartatuco direla elcarrenganic: gueldituco dela orduan corputza itsutua eta tronco bat bailiz bezala gogortua, uquitcen duten guciac escuac garbitcen dituztela:⁵⁴⁰ finean ateraco dutela echetic len baño len botatcen duen usañarengatic cantu triste batzuen erdian, eta ezquila soñuan eta acaso ezquilic gabe eremanen dutela Campo Santora an lu(r)pean sartceco, berriz beñere yendeer vistara ez aguertceco.

¿Arinac zaizquizue pensamentu oc? Bada ez dire orañic eriotceco trancean causten denaren izpiritura etorrico zaizquion triste-enac. Animac izan bear duen suertearen casuz etorrico zaizquionac milla aldiz icigarriagocoac izanen diré. ¿Cer guertatu bear ote zayo bada nere animari? erranen dio bere buruari trance artan causten denac. ¿Cer icusteco otenago ni? Fedeac erraten daut azquen atsarequin batean Yaungoicoaren⁵⁵⁰ tribunalean presentatu bearra naicela. ¿Norc guiatuco otenau arat? ¿Non edo cer paragetan guertatuco oteda yuzcamen ura? ¡Ah! orainche bai asten dira guertatcen nere baitan bein baño gueyagotan predicarien agotic aditu izan ditudan gauza icigarriac. Yltceac icitcen nau eta eznaiteque espacatu eriotcetic: Yaungoico yustu, Yaungoico zucen, Yaungoico Saindu baten presencian nere vicitzaz contu ematera presentatu bearrac icaratcen nau, eta loturic eramanen nau arat Yaun poderosoaren escuac: icerdiac ematen daut eta odola ozten zait pensatceaz ere finic gabeco eternidade icigarri batean, eta edequiac icusten ditut daudela neretzat aren atea. ¡Ay oc apuroac! ¡ay au estura! ezbaita nere baitan alacoic beñere⁵⁶⁰ guertatu!

¿Eguia ote da nere Cristabac trance estu artan icusi bear ditugula gueren buruac? segurqui bayetz. ¿Nola bada ez da gueyago pensatcen? ¿Cer ari gara miserable triste oc pensamentu oc gogotic aizcatcearequin tristeac direlacotz?

Espiritu Sainduaren errana da: eriotceaz maiz oroitzen denari, ongui goanen zayola eriotceco orduan: *bene erit in stremis*. Eriotcean pensatceac, bai itzaltcen du Munduco onetaraco pasionea, nondic eldu baita Cerucoac ez billatcea. Ala pensatcen zuen Saladino General famatu Munduaren parte bat garaitu izan zuen arc; ceñec utci zuen atorra utsean eraman cezatela enterratcera, eta soldadu batec atorra⁵⁷⁰ aren egal bat lanza baten puntarequin goratcen zuela uyu eguin cezala erranez. “Una certara viurtu den Saladino famatuaren anditasun gucia.” felipe II. Españolaco Erregue andi eta piadoso arc, iltceco aiticinean deitu zuen bere semia Erreguea bearra eta estalquia goraturic bere pechoan formatcen asi citzaizcon arrac eracusten citiola erran cion: “Ycusazu semea certan acabatcen diren Munduco anditasunac”.

Bada eriotzaren oroitzapena ain gauza valiosa balin bada Munduco onequin ez sobera zoratceco; juicioaren eta infernuarena ez dira ttipiac becatuan erortcetic guardatceco eta becatuco estaduan causten dena arrasscu artaric ateratcera mugiazteco. Ceren ñorc esplicatuco du animari⁵⁸⁰ lotuco zayon daldaria eta beldurra Jesu Cristo bere Magestade gucian bere aiticinean icusten duelic?

Bi liburu edequico ditu Juez divino arc: Evangelioa eta concienciaren liburua. Evangelioaren doctrina saindua eracutsi onduan erranen dio: una cer eguin bear cinuen: una cer vici modua eraman bear cinuen: goacen orai icustera cer eguin duzun: leenic examinatuco dira obra onac: baño icembat arreatuco diren ustelac! Ustelac caustuco diré yendeen ongui erranagatic eguinicaco obra onac: ustelac Munduac icusteagatic eguinicacoac: ustelac devocioneric gabe eguin diren otoitzac: ustelac lausengoac mugituristic eguinicaco limosnac: bacarric eta bacarric Yaungoicoari⁵⁹⁰ agradatceagatic eguin izan direnac artuco ditu ontaco Juez riguroso arc: examina citzue beraz nere Cristaba; examina citzu obra onac; ea cer modutan, nola cer fiña eta miraiquin eguin dituzun: eguin ditezquenac, eguin alez gordean: yendeen vistan eguiten direnei soil errezqui lot daquieque vanidadea eta Munduaren estimacioa erdiesteco deseyua.

Eta ez pensatu dela doctrina au nere iduri edo estutasun bat: Evangelio saindua escuan daucala yuzcatu bear gaitu gure Juez Jesucristoc, eta evangelioan erraten dacu berac: ezdezala yaquin zure ezquerreco escuaz, escuñecoac eguin duen obra ona; eta aurpeguia garbi dezagula barugaren egunean, niorc zagutu ez gaitzan colore-etan baru garella: eta cuidado⁶⁰⁰ itz oquin; Jesucristorenac dira eta ez nereac.

Ondotic examinatuco dire becatuac: edo obequiago erranen dut: Yaungoicoac arguitasuna emanic, icusico ditu batec bere concienciaco becatu guciac ispilu batean aurpeguia icusten den bezain garbiqui, orai conciencia

examinatceracoan gueren soberbiac gordezten dazcunac; casuric eguin gabe uzten direnac, eta becatutaco artcen ez direnac ala artu bearrac. Anchen bai, an icusico du batec bere concienciaren ezcabia gucia: anchen mingain libre eta lañoac, maldicioa, murmuracioa eta itz lizuñac Jesusen icena baño maizago agotan artcen dituzten ec; aguerico da ea cein ausarqui erraten dioten Juez yusto ari ulaco eta alaco guaza ez⁶¹⁰ direla becatu: beldurric ez duten lecuana eta menecoei burla eguitea beren escuan daucatelata uste dutenac; anchen arrepatuco dute desamparatuen Aita eta pobre eta flacoen defenditzalea, enossent eta ignorante etarañoaco guciei eguinicaco irrietaz contua escatucoduena; ondotic vengantza arteco.

¿Norc espicatuco du animaren orduco apuroa, icusten duelaric Jesu Cristo illen eta vicien Jueza Magestade icaragarri batez batez bete; escuñeco escuan yusticiaren ezpata eta ezquerrecoan legue saindua dituela? ¿ainguiru guardiacoa aurpegi damugarri batequin alde batean, eta bertcean Demonioa ortzac irricaturic? eta lau orrietaric icara esperoan⁶²⁰ cer sententia aditu bear ote duen? ¡Oh jesus, eta ura apuroa!

Sententia cere favore aditu naico vide duzun Nere Cristaba, valia zaiteci presenteco demboraz penitenciaren medioz egun icaragarri artaraco prestatceco: ecar citzu maiz gogora guizonaren azquen finac guero urriquiac ez izateco: cuidado, anitzei guertatu zayela uste gabe au, eta eternidade osoan egoteco daude nigarrez beren uts eguinaz. Gueren escuan daucagu ez alaco desgraciari guertatcea: valia gaitecin orai confesione on baten medioz Yaungoicoarequin vaqueac eguiteco: artu deliberacione firme bat Yaunaren cerbitzuan seguitceco, bada nagusi maitagarri unen cerbitzuan causten da baquea vicitza untan eta guero errecibituco gaitu Ceruan. Amen⁶³⁰.

Bibl.:

Zugarramurdiko artxibuan, I eta III. 145 x 200 (9 eta 6 orrialde). J. Sanzberro, herriko apaizak erraztasun osoak eman ditu lan honetarako. Dantzen predikuan anitz ohar ematen du baina izkirione oso xehea denez ez da beti garbi ulertzen testua.

Orreagako bilduma. JMS.k jaso. II. izkribua bilduma honetakoa da.

48. BIDARRAI (1876)

Muga aldeko herri-agintariek han-hemengo mezuak euskaraz idazteko obitura izan dute Iparraldean; hegoaldean, behar bada, ez hainbeste.

Bidarraiko alkateak, 1876an, Baztango arduradunei idatzitako gutun bat jaso dugu Elizondoko udal gordailuan. Erratzu eta Arizkunekin batera baliatzen

zituen mugako bazkez ari da, eta ohizko baldintzen aldaketa batzu eskatzen ditu. Adibidez, muga inguruko lur horietan aziendari bere buruz ibiltzen uztea, egunez artzai frantsesik Baztango lurraldean sartu gabe, baina beroriek gauez artaldea biltzeko eskubidearekin. Arau horrek berak balioko luke noski, hegoaldeko azienda eta artzaientzat Frantziako lurraldean.

Baztandarrek ezezkoa eman zioten proposamenari.

Commune de Bidarray
monsieur le Maire de Bastan

Fagorebat galdacendut Bastango Juntary; herri hau mugacenda Termino pochibates Erraçu eta Hariscunequin badu faceria termino pochibat içendatua ardi bacarra bortz sos erranahidut bouruco soldobat pagatus. Orai artean huna galdatcen dudan diferencia:

1. Mugatic acinda bera utz eta arcainic ez libro ardien tratacera Espaigniaco lurrian eta gau etzatez Erretiratcera libro arcaina. Halahala franses ardiac sarçen badira nic Orai usthe dudan baino Espaigniaco Territorian barnago Espagnola guibelerat¹⁰ bultatçera libro eta ardi bacarra paga buruco Orai baino sos bat guehiau erranahidut soldobaten placan sei sos paga.

Gracia hori escatcendut urthebaten icusteco eta nihory Macurric écartcen badu dretcho duen beçela bastanec asquidu quencea berce urthean.

Salutaçen caitut beharden Errespetuez.

Bidarray le 5 Juin 1876. Le maire Cévarry.

Udaletan aurkitutako gutunak ez ziren bakarrak izango. Bankako paper zati batean honako ohar hau agertzen da:

Igorrasie placer badusie guibelerat francessez eguinic den paper hautaric bat ahal besain laster. Sinaturic: Guillermo Goyhenetche. Miguel Yturralde.²⁰

Bibl.:

Baztango Udal artxibuan. "Amojonamientos, límites y facerías" izeneko sailan. Baztan-Bidarray (1844-1914). Eskutitzak, 161-garren bilduma.

J. M. SATRUSTEGUI. "Correspondencia oficial vasca del siglo XVIII", FLV 47 (1986), pp. 125.

49. LAKUNTZA (1878)

Lakuntzako parrokian dauden euskal izkribuak egile askorenak dira. Hiru eredu desberdinak hautatu ditut:

I. Mariano Percaz Larraungo Oderitzen jaio zen eta 1862.etik 1877 arte izan zen Lakuntzako elizaren arduradun. Bertan hil zen 1877ko irailaren 18an. (Hildakoen 4. lib. 3. orrian). Berea da 1865ko predikua.

II. Percaz apaizaren atzetik, Martin Otermin Aldaya sartu zen Lakuntzako elizan, eta bertan egon zen hil arte, 1904-eko irailaren 18an. (Hildakoen 4. lib. 92.orrian). Berea da bigarren izkribua. Otermin, Intzan jaio zen.

Hirugarren atalak ez darama urterik ez egilearen izenik. Beste biak baino zabarragoa izan daiteke. Gipuzkeraren kutsu gebiago nabarmentzen zaio beste bi atalei baino.

I

Dominica 4. post Epifania para el an. 1865

Ecce motus magnus factus est in mari

Gaurco Evangelioac esaten digu Cristabac, egin ondorean Jesucristoc, asco milagro Galilean determinatu zula apartacea tierra artatic, ez adiceagatic gende ayen alabanzac, emateagatic guri egemploa ezgattecen fiatu munduco alabanza banotan, bada motivo onengatic enbarcatu cen Jesucristo bere discipuloequin. O munduco alabanza banoac, eta cein bildur izatecoa cerate, bada Jesucristo bera apartatu cen cuidado aundiarequin vicio maldito ontatic. O bana gloria, vicio infernala veneno dulce eta lapur secreto batec bezala, evasten ttuena birtutiaren ondasunac eta eguitten duana anima justotarañoco guciac galdu dezaten animaco gracia, ez badire bici¹⁰ cuidado aundiarequin, cuidadoa bada anima justoac, cuidadoa zuen obra onetan ere, ez dayttecen gueldittu manchaturic banidadearen bicio infame onequin.

Enbarcaturic esan duan bezala Jesucristo bere discipuluequin alborotatu cen ichaso ecin gueyago alaco modun ce barcu artan ciren guciac esi zuten galduco zirela, eta momentu artan lo cegoan Jesus, lo argui cen Jesucristo esaten digu S. Juan Crisostomoc, aundiago izanagatic discipulu cobarde ayen bildurra, bildur onen medios acudiceco Jesucristoren gana fervore eta Confianza gueyagorequin. O cembat aldiz egoten da Jesucristo lo bezala (gure)

arquicen gueranean²⁰ gu estutasunen batean, aumentacegatic guc gueren fedea, eta escaceco amparoa, esperanza bici batequin, ala guertatu cen Jesucristoren discipuluequin, bada beldurtasunac beteric, joan ciren iazarcera Jesucristo oyo gogorraquin esaten ciotela, salva gachazu Jauna, galdu guera bestela, et(a) discipulu desdichatuac, cerequin daucazute Salvadorea, eta ala ere bildur cerate, cerequin dauquezute vicia ematen duena, eta bildur cerate eriozaz. Baño ez da milagro ala guertacea, cergatic discipulu ayec ciren inoranteac, virtute eta fede guchi zutenac, Orrengatic reprendittu cittuen Jesucristoc discipulu ayec fede guchi zutela arren. O cembat aldiz eguitten du³⁰ Jesucristoc au gurequin icusten ez balittu bezazalala gure trabajuac, eta adicen ez balittu bezala gure suplicac. Icusiric Jesucristoc barcu arren peligroa, eta an ciren personena, bere boz arrigarriequin manatu cion aizeari gueldiceco, eta ichasoari loagaceco, eta instantia(n) obedittu cioten eta gueldittu cen ichasoa loagaturic. Ecuszazue Cristabac nola ez den faltacen beñere Jaungoycoaren amparoa, fede bici eta esperanza aundiarequin escacen diotenezat, gueldittu ciren arritturic milago (sic) onequin an ceuden gende guciac, esaten ciotela batat besteari: ¿Cer guizon dan aizeac, eta ichasoa obedicen diotena? berac adicera ematen digu guizona dela⁴⁰ eta aplacazea derrepente ichasoa adizeaquin onen boza seña da Jaungoycoa dela. Orrengatic J.C. da Jaungoyco eta guizon eguiazcoa, eta au sinistacegatic eguitten cittuen milagroac, au da Evangelio Santuc esaten diguna, Ychaso lecuc San Bernardo da mundu au, gure corpuza da barcu edo navio bezala, eta anima da corpuzaco barcu miserable ontan envarcacen dena, orrengatic claro dago munduan vici guera(n) vittartian navegacen degula munduco ichaso tempetatesco ontan, peligros inguraturi (?) alde guciatic, baño icus tcegun nolaco diren, munduco peligroac, bada au izanen da nere asuntoa.

Ave Maria

Ainbete dire ichasoco peligroac, ez baita momentu bat⁵⁰ seguroric, eta aimbeste dire gure animaren peligroec mundu ontan, ece esan baitittigu lo mismo, orrengatic esaten zuen David profetac aimbeste dirala munduco peligroac, nola erocen diren Cerutic ur tantac. Eguiazqui, consideracen badegu, gure vici gucia billatuco ttugu peligroac edade gucitan, peligroa corpuceco sentido eta potenci gucitan. O mundu desdichatua, Icusazue cembateco cuidadoa ez degun paratu bear libre ateraceco aimbeste peligroen artetic. Baño o guizonaren ichustasuna, guciac ezagucen dute egui au, gucia ezagucen dute peligro au, eta ala ere bicicen dira ain libertade aundiarequin

44. *esaten digu* S. Bernardoc. (azpimarratuak desagertuta daude testuan).

batere peligroric ez baliz bezala, badaquizue cergatic⁶⁰ atendizazue cer pasacen den ichasoan, loagaturic dagonean da ain alegrea eta ederra, ece edo ceñec deseacen du an sarcea, eta orañic gueyago bere edertasun falsoarequin engañacen dittu, prometien diela allegacea desgraciatic gabe deseac cen duten puertora, baño cer pasacen da? disimulacen ttuela bere barreneac ecar dittuen peligrac, au bera pasacen da mundu onetan prometien digu descansua, gustoa diversiotan baita ere salvacio baño momentu batean galcen da descansua gustoa ta acaso acaso salvacioa, au da motiboric principalena cergatic bici diren asco persona batere erreparoric gabe, ¿eta nolaco esperazarequin ofrecien diote salvacio? Ay Jauna, bazuc esaten die⁷⁰ emateco demborari zor zayona, gaztea empleatu bear dutela diversiotan, eta aspercen direnean guero eguiten dutela penitenci, beste bazueri conservaceco odioa, ez barcaceco, cergati ori dela onra galcea, beste bazueri esaten die, Jaungoycoac ez duela nay iñor bicizea icarace eta escrupulos beteric, entregaceco dio munduco asenguitasunatarra, eta ala ere ez dutela galduco Cerua. Ceren Jaungoycoac naidau guciac salvacea. Eta Evangelioco Ministroac ez dutela eguitten besteric baicic icaratu gende guciac. Azquenic prometien dio Munduari seguicen diotenay, alegria, descansua, honrra, bicia eta eriozan. Icuszazue nola presentacen zaygun munduau,⁸⁰ prometien ttigu consuloac, gustoac, eta alegriac baño O traidorie, ez digu ematen gaiz eta tristura baicic. Eguia da au munduco amazalia? Esan zairazue cer cumplittu du munduac ofrecien dittuen gauza guciatic. Cein izandu da munduari seguiceagatic errecibittu duzuen premia? Cembat lenago zuen adisquideac cirenac zuequin, averas zenaten demboran apartatu dire zuengandic, cergatic acabatu diren ondasunac eta empleoa. Jerusalengo Ciudadea averas cegonian David, Salomón eta beste Erregue bacuen demboran, guciac nai cioten asco, gucia errespetacen zuten; baño Etorri cirenean Romanoac,⁹⁰ eta destruittu zutenian, guciac abandonatu zuten, solamente Jesusen Profetac negar eguitten zuen Ciudade arren desgracias. O profecta Santua non dira Jerusalengo Ciudadea lenago aimbeste alabacen zutenac. Ez da izanen siquiera persona bat acompañaceco zure sentimentuan. Ez esaten du Profeta santuac guciac abandonatu naute, gucia despreciatu naute, au da munduan pague, onela cumplien dittu bere promesa guciac,(Cembatenes eta fielago iruricen zaygun, orduen dá traidore aundiago). Icuschazue munduco gauza guciac, eta deneta opatuco duzun desengañoa. Paracen battuzue zeren beguiac munduco honrra eta dignidate-tan, icusico duzue gaur alabacen zettuztela, eta biar despreciatu. Gaur esanen dizu J. C. tori bezala onac eta nobleac¹⁰⁰ ceratela, eta biar Barrabas baño gaiztogocoac; paracen battezu zueen beguiac munduco jan edanetan, icusico duzu nola Baltasar Erregea bera may ederretic jechi zela infernura; paracen battezu zuen beguiac munduco musique, eta diversiotan, icusico duzu guein comun convertien direla, asarretasun negar eta tristezetan. Paracen baduzue

zuen atencio munduco edertasun eta interesetan icusico duzu escacia bacarric dela erorcea tentacion dio San Pablo Apostoluec; paracen battuzue zuen beguic gusto pasagero eta delicitan, icusico duzu oyengatic etorri cela dilubio eta acabatu zuela, mundua, oyengatic biali zuen Jaungoycoa sua Cerutic, eta abrasatu cittuen Pentapolico¹¹⁰ bost ciudadeac; Azquenic paracen battuzue zuen beguiac eriozean icusico duzue cembatenes eta dulceago izandu den bicia, orduan da sominago dela erioza, bada San Gregorioc esaten digunean garviqui bicicen dena generalmente garviqui elcen dela, orrengatic esaten digu San Pabloc guizonaren azquen fiñie izanen dela bere obran conforme. Icusazue nola gauce gucietan enganacen gattuen mundu. (Judas traidoreac bezala musu amoroso batequin salcen gattuen),engañacen gaittuen, mundua bai beti izanda traidorea beti izandu da Judas traidore bezala ceñec musu falso batequin entregatu zuen bere Maestraua, Judiotara, beti izandu da eta izanen da Joab traidorea¹²⁰ bezala, ceñec saludacen ari cela bere adisquide bat, disimuloarequin sartu cion ezpata biocetic, peligrosoa da biciceco, eta dificutoso corteco prometizale falsoa, eta engañazale verdadera. Eta izanen da norbait paratuco duena Jaungoycoaren leguea munduaren leguearen azpian? Izanen da norbait galduco duena bere anima seguiceagatic munduco esperanza banoac? miserabilia zera peccataria fiacen bacera munduco aparencian; desgraciatua vician eta oranic gueyago eriozaco orduan bada mundu au ain alegre presentacen zaizuna zuc seguicen diozuna zu fiacen cerana, au bera izanen da tormenturic aundiena, lance triste artan. Orain esaten dizu erraz dela salvacioa,¹³⁰ misericordiosoa dela Jaungoycoa, entrega zattezquela peccatura, Ceruraco izan cerala criatua; confesio on batec barcacen ttuela peccatu guciac, baño ay cristabac orain, ain alegre presentacen zaizun au, izanen da zure enemigoric cruelena, mundu au bera izanen da zu juzgatu, sentenciatu, eta condenatuco zattuena. Ez da dudaric esaten du munduac pero seguittu citunetatic asco condenatu cirela, baño baita ere cierto da beste asco salvatu cirela, David esaten du munduac, David izandu cen adulteroa, Manases sacrilegoac, Magdalena escandalosoa, San Agustin izandu cen peccataria aundia, eta oc guciac salvatu ciren modu ontaz ez bacarric eguitten disqurra bera serbicen¹⁴⁰ dutenaz, baici baitare, uciric banidade salvacioco bidean sartu nay dutenay. Ezagucen du Cristau batec desgraci aundie dela arcea eriozac peccatu mortalean, eta izatia condenatua eternidade() gucico bildur onengatic arcen du resulucio firme bat atera bear duela peccatutic eta cer eguitten du munduac? paracen ttu milla dificultade ez dadien atera peccatutic, esan dezala bestenas Agustin batec posible da esaten cion munduac Agustini, posible da uci bear nazala? nola bici bear dezu gustoric gabe, ala guerta cen cen Agustinequin, eta ala esanen du munduas enamoraturic vici denac; ni bici bear dut beguiratu gabe gustoa duen gaucetara, amatu gabe neri nai direna, ez da posible, baño¹⁵⁰ ay onela pensacen dutenaz imposiblea bada ucicea

mundua, baita ere alcazacea salvacioa. Nic barcatu nere enemigoay, esaten du beste batec, eta nolaco cararequin presentadu bear dut Munduarengana? baño nolaco caraequin presentatu bear duzu juicioan, nic esanen du beste batec ni eguin bear dut restitucioa evasitaco gaucena? galdu bear dut nere reputacioa, baño cer obeda acaso engalacegatic zure honrra, galcea betico gloria? Icuszazue nolaco guerra eguitten duen munduac seguiceagatic bere banidadea, eta enganacen gaittuen. Bay peccatari, orain ezdittuzu senticen bicioaren somintasuna, baño allegatuco da ordua, ezagutuco duzuna zuri deliciec iduricen zaizquizonac, cirela¹⁶⁰ seculaco engaña, galde eguin zayozu miserable condenatuari eta errespondittuco dizu Espiritu Santuen agoas, ni ibilli nincen descansuric gabe gustoaren acetic ez izanic izala besteric. Cer da au Cristaba izala deicen diote orain lenago gustoac deicen cirenari, bay cristaba, bencittu beren corpuceco pasio desordenatua, gustutaco zeuzquiten gauzac convertittu dira ayenzat disgusto eta pisu gogorretan. Icusí dezan Catolicoaq munduco gauza guciac ez dirala engaña besteric, adittu dezu munduac ez dula cumplícen eceren prometícen duen gaucetan, eta solamen engañatu nay zattutzela condenaceco zuen anima, cerequin bear dezue bada, claro da, eguin bear¹⁷⁰ dezuena da apartatu munduco peligrótatic, ez dut esan nai erretiraceco desiértotara, baici bici zaitecila munduan, desiértuan becela, munduan ez bacinete bezala.

Munduac adoracen duen gucia direla onrrac, ondasunac, gustoac eta deleitea beguiratu bear dittuzue despécioaquin nai baduzue ez galcea zuen anima. Bada certaco esperacen dezue guizonaren Semeac Jaungoycoaren seme-janzara eguinac, bere Odol preciosoquin redemittuac, señalatuac izatecoc Aingueruen lagunac izatecoac. Noiz artian izan bear duzue bioz gogorrenac. Cergatic amacen dezun munduco gaucen vanidadea, esperacen dezutela billatu descansu beticoa, ez¹⁸⁰ badute eman munduco gauzac eta emanen seculan? posible ote da ez dittuzuela uci bear emengo gusto pasageroac, Ceruco glori ederragatic. Ceri esperancen diozu bada peccataria? penitencie bada N.C. momentu ontatic asita, penitencie, dolorea, pena eta negarrac barca dichan gure peccatuac, au da erremedio bacarra munducoari seguicean banidadea seguiceagatic Jaungoycoa ofendittu dutenenzat. Allegaratus bada peccatarie zure Jaun eta erredentoreangana, allegaratus humildade, eta arrepimentu eguiazcoquin nai bada arquittu consueloa; urbil zaitti fede biciarequin or dauqazu socorritu naizattuena, eta bici eman zuena zure erremedioagatic.¹⁹⁰

II

De la confesion general

Yte ostendite vos sacerdotibus. Lucae cap. 17, v. 14

Zijoalaric egun batez gure Jesus Jerusalengo ciudadera, N. Cristauac, epatu zen bidean amar leprosorequin, zeñec apenas ezagutuzuten zela Jesu-

Cristo, asi ciran olluca esaten zutela: Jesus munduco salvadorea indazu guzaz pidadea eta misericordia. Adituric Jesusec oen oracioa esan cien: zoazte eta manifesta dezazute ceren lepra sacerdoteari: *Yte osten dite vos sacerdotibus*. Obeditu zuen instante berean, eta vidian zijoazela geldituciran garvitua eta sendatua beren lepratic. Pensamentu triste bat ecarzen dit gauza ouec nere burura. Ezditequela pauso bat eman gaurco egunean opatu gave asco persona lepra ziquiñagoaz beteac Jesu Cristoc bidean billatu cituenac²⁰⁰ baño; esanai-det Cristau becatariac, ceñen anima dagoen estaliric pecatu mortalaren lepra izugarriarequin. Zembat arquitecu dira parroquionetan! Zembat acaso Eliza onetan? ¿Eta zer esango diet pecatari desdichatu oyeri? Ez besteric batic Jesusec bidean billatu cituen leproso aieri esan cien. Zuazte desgraciatua, zuazte billazera confesore bat eta manifestazayozute ceren conciencono estada. Ez pesatu acaso asqui dezuela confesazera, azqueneco confesio ezqueroztic egin dituzen pecatuac: au asqui izanen da cierto baldin bazaute onac izan dirala zuen oraindañoco confesioac; baño dudan arquizen bazerate zuen lenagoco confesioac, onac edo gaiztoac izandu²¹⁰ diran, ez dauquezute beste erremedioric sendazeco emfermedade izugarrian batic eguitea confesio general bat. Confesio generala! Aseoc esango dute au gauza dificulcosa confesio generala eguitea. Ez N. C., ez desmayatu, ez da confesio generala ain dificulcosa, nola ascori irurizen zaien. Animazaytezte becatariac, animazaytezte ez da confesio generala desmayatu bear zaytuztena: Aditu nazazute atencioarequin, eta equsten dezuenean confesio generalac ceñen provechu aundiac ecarzen dituen; cein necesidade aundian dauden asco persona eguiteco; eta azquenean ceñen erraz eguiten den; cierto nago ezeratela ateraco Eliza onetatic ne esidadeen arquizen zeratenoc²²⁰ eguiteco, determinatu gave eguitea.

Probatu

Confesio generala ongui egindaco batec parazen du anima bat ain garbia, nola batayatu zanean; ¿Eta nola eguelditzen da anima batayoco sacramentua errecibizen duanean? Geldizen da garvi mancha genero guztietatic, eta libre pena eternoa eta temporaletatic. Bada modu berean geldizen da anima bat confesio generala eguitearquin, geldizen da garvituric bere culpetic, eta adornaturic graciaren edertasunarequin; eta beti ezipazayo quenzen ere pecatuaren zor guztia, servizen du betico guchiceco eta ascotan oso pagatuze-co. Confesio generalarequin ez bacarric zuen animac conseguituco du graciaren²³⁰ edertasuna, baytare recobratuco dituzue pecatu dala medio gaizqui empleaturic dauquezuen urteac. Eguia da N.C. urteac ez ditezquela recobratu: bein pasatu esqueroz, ez da posible izultzera: baño alaere Jaungoicoac

prometizen dizue Joel profetaren agotic izulico dazquizuela urte galduac. ¿Eta zer urte dire oec? Badaquizute peccariac. Urte galduac izandu dira *autasunecoac*, zeñetan bicitu ciñeten azenduric Jangoicoaz; *Urtuc* galduac izandu dira, gazte demboracoac, empleatu ciñuztenac vicio eta peccatutan: Urte galduac izandu dira zartasunecoac, pasazen dituzutenac abandonoan eta obra onic eguin gave. ¿Bada nola da posible recobratuzera urte galduac ez²⁴⁰ baditezque izuli? Bada an imposiblea iruduana conseguizen da confesio generalaren medioz. Eguiten duanac confesio generala, bear dan bezalaco disposicioarequin, ecarzen ditu bere memoriera urte galdu ayec, aborrecizen ditu viozeco sentimentuarequin, eta sentimentu onec izulzen ditu urte pasatuac: Cergatic onequin Jaungoicoaz azenduric vicitu cen arte aiec eguiten ditu valiosoac, gaizqui empleatuac ziranac ongui empleatuac, eta lenago peccatuac ziranac premiaza mereci duteac. Ezda probechu au bacarra aterazen dena confesio generala ongui egundeco batetic, gañera da medio bat guztiz egocie empleazeco ongi balle negarrezco onetan falta zaion dembora. Confesio²⁵⁰ onetatic alchacen da anima propositu firmeagoquin eta deseo aundi batequin eramateco andic aurrera vici bat guztiz berria. Cergatic orduan anima dago casi cierto alcanzatu duela bere culporen barcacio; cergatic errecibizen duan graci bat guztiz abundantea; cergatic experimentazenduan paque eta gozotasun aundi bat, izanic señale claroac Jaungoicoarequin eguin dun amistadeanac, animazen dute amazera gero eta geiago Jaun amoroso ori. ¡O zenbat diran eguinic confesio general bat ona ez dutenac gueiago ofenditu beren Jaungoicoa peccatu mortal bat bacarraquin! Ez diteque bada dudatu aundiac dirala confesio generalac ecarzen dituen utilidade edo provechuac. Baño confesio²⁶⁰ generala ascorenzat ez bacarric dada probechosoa, bayetare precisoa. ¿Eta zein dira dira necesidade aundionetan arquizen diranac? Adidizazue: dira lendabico lequan peccatu mortala eguiteco constumbrea dauquenac, esanai det, erorzen diranac peccatu genero batean asco aldiz, pasazen ezdala illa bete bat, aste bat acaso egun bat bacarra erori bage bein edo asco aldiz peccatu genero auetan: oec guztiac arquizen dira necesidade aundibatean eguiteco confesio generala. Bigarren lecuan arquizen dira necesidade onetan, dembora lucean vicitu diranac beccaturaco ocasioan. Nai det iz eguin claro. Zu Cristauba juaten zerana ascotan eche artara, compani artara, diversio²⁷⁰ aytara, izan diranac asco aldiz motivoa erorzeo zu beccatu aundietan: ta ez diranac asco izandu zori ausia zizeco lazo infame oyec, ez zere concienccico remordimentuac, ez eta ere confesorean consegu onac: ¿Uste dezu precisoa ez dela zurezat confesio ge(ne)ral bat? ¿Eta zer esango det zutaz, guizon rencorosoa, zaudena urtetan odio, edo gorroto aundi batequin zu ofenditu ziñunan contra, ta ez diranac asco izandu acabazeco zure odio aundi ori, ez eguin dituzun confesioac, ez artu dituzun comunioac, ez eta ere cere enemigoac paqueac zurequin eguin naian emandazquizen señale amistosoac, pensa-

zen duzu urtu oec guzitaco confesio bat ez dela zurezat precisoa? ¿Eta zuec besteren gauze²⁸⁰ danquizutenac, edo dañuembat zeren progimoari eguin diozutenac, eta avisaturic asco aldiz confesoreac paratuzco zuen gauza ezdana bere gavearen escuetan, ta eguiteco eguin dituzen dañuaren restitucioa, alere escusez ta pretestoz beteric ez dituzutenac oraindic cumplitu, uste dezue pasatu zaitezquela eguin gave confesio general bat modu onetan vicitu zera- ten demboracoa? Eta zuec losaz edo maliciz isildu ditu zuenac becatuac zeren confesiotan, edo confesatu dituzuenac eguin gave beardan bezala examina concienccioa, edo viozeco doloreric gave, ¿pensazen dezue pasatu zaitezqueala confesio general bat eguin gave? Ez N.C. ez zaitezque pasatu ta esango cergatic. Cergatic zuec eguin²⁹⁰ dituzue confesio guztia vicitu zaraten demboran constumbre gaistoarequin, becuraco edo ocasio odio amodioarequin zeren progimoren contra edo avisaturic besteren gauza dembora lucean iruquitu dezuenen, edo eguin ez dezutena progimoari eguindaco dañuen restitucioa, edo isildu dituzenean becatuec zeren confesiotan, dembora artaco zuen confesio gaztiac izan dira sacrilegio aundi bazuec, eta deus valio ezdute- nac, ta confeso ayec reparazeco edo arreglazeco ezta beste erremedioric *baci* confesio general bat eguitea. Jauna esango du pecatari batec, ¿gaiztoac izan dirala esaten du gure confesioac cergatic egon geran dembora lucean costum- bre auetan,³⁰⁰ ocasio auetan, odio auetan edo besteren gauza bueltatu gave? Bay N. C. cergatic nic ecin det sistatu, confesio ayentan izan za bear bezalaco dolorea ta propositu firmea, argatic ez dean ecusten emiendaric eta frutu bet bacarric. ¿Nic nola sistatu bear det erremedio bat ona dela, arturic asco aldiz enfermoac alaere ezpadu sendazen? Modu berean ¿nola sinistatu bear det zuen confesioac onac izan dirala, ez badut ecusten zuetan mudanza- ric? Ez dezue bada beste erremedioric confesio gaizto aiec reparazeco, baicic eguitea confesio general bat. Justo aundiarequin eguingo nuque confesio generala esangoala batec, ezaguzen det aundiac dirala ecarzen ditun probe- chuac ta³¹⁰ arquizenazela necesidade eguiteco, baño izan bear du gauza bat guztiz dificcilla.

Badu bere dificciltadea ez de nai disimulatu, baño ez zuec uste dezuen bezalacoa. ¿Zertan dago confesio onen dificciltadea? Dembora lucean eguin diran becatu guztia bere memoriera ecarzean? Perecoa baliz acordazera becatu guztiaz bat banaca, nic erere ezaguzen dut au izango lizaquela gauza dificcilla ta casi imposibilea: baño ez da olacoric, confesio oetan arreglazen da alden moduan, esanai det ez baditeque jaquin eguin ditun becatuen guztien numeroa, asco da esatea zenbat demboran egon dudan *beatuan*, ta zenbat becatu eguin oizituan³²⁰ guchi bat gora bera, illabete batean, aste batean, edo egun batean; Cetan dago bada zuen dificciltadea, dolorea forma- zean? Arevizen naiz esatera, ez dela beñere ereisago formazen dolorea nola

confesio generala eguiten denean: cergatic orduan becataric ecusten ditu begiratu batean urte ascotaco culpa guztiac ta erresago humilzen da, ta arzen du viozeco sentimentu aundi bat dore Jaungoicoa ofendituaz, baño beste gañeraco confesiotan nola ez badu ecusten becatu embat edo beste bacarra besteric orduan, dificultea aundiago da arzea viozeco urriquimentua. ¿ Certan dago bada dificultadea confesazean? Ez tago ontan dificultadedic. Ontaraco arzen duzutenean asmoa confesio³³⁰ generala eguitecoa, procura dezazue elegizera confesore bat jaquinsua ta prudenta, eta orrec adituco du zuen confesio pacienci aundiarequin, berac animatuco zaitu confesazera losaric aundiena ematen dizuen pecatu ayec, berac lagunduco dizue acordazen zeren culpac, berac eracusico dizue dolorea formazen, berac emango dazquizeu erremedioac ez gueiago becatuen erorzeco, berac, iz batean esataco, bialduco zaituzte ceren echetara consolaturic ta eguiñic Jaungoicoaren seme ta ceruco heredero, ta orduan conservazen dezutela azqueneco orduraño, errecibitu dezuen gracia munduan, consegituco dezute seculeco dicha Ceruan. Ala izan dedilla.³⁴⁰

III

15. Amabost garren Doctrina. 1. Esperanza cer dan, eta cer aguintcen digun: 2. Cer eragozten digun: eta 3. nola egercitatatu bear degun.

Aditu cenduen orain urrengo aldian Fedearen virtutea cer dan: Fedeac cer aguintcen digun, eta cer eragozpen digun: eta nola fedea egercitatatu bear degun, arequin batera gure vici modua zuentceco, eta ceruco gloria, eta betico ondasunac iristeco, eta Fedeac eracusten digun betico zorionaren, edo Ceruco Gloriaren deseo egoquiac, eta Esperanza ona gucioc eduqui bear degun ezquero: Gaur Esperanzaco virtute onen gañean itz eguin bear dizuet: eta 1. esango dizuet Cer³⁵⁰ dan Cristauaren Esperanza, eta cer aguintcen digun: 2. Cer eragozten digun: eta 2. Nola gucioc virtute au egercitatatu bear degun, eternidade gucian eguiaz zorionecoac izan nai badegu.

1. G. Cer da bada Esperanza? E. Da Ceruco virtute, edo doaya bat, naturaleza gañera, edo sobrenaturala, Jaungoicoac Bateo Santuan sortu, edo eman ciguna: eta muguitcen gaituena ichodotera Jaungoicoagandic betico zoriona, edo betico gloria Jaungoicoaren beraren graciaren laguntasunarequin, eta gure obra onaquin, eta deitcen diogu virtute Theologala, edo Jaungoicozcoa, cerren onequin veguiratcen diogu Jaungoicoari gure zorion soberanoari, edo gorenari³⁶⁰ becela.

G. Eta cein da virtute orren actoa, equiera, edo egercicioa? E. Da Ceruco ereinoa gogotic deseateca, eta eduquitcea gure barruan betico zoriona, edo Gloria, eta ura iristeco medioac, edo laguntasunac gure Jaungoicoac ciertu emango disquigulaco ustea, edo Esperanza gure partetic ere aleguiñac eguin nai baditugu: eta esperanza onen motiboac dira. 1. Cerren dan Jaungoicoa bera gure ondasun soberanoa, edo gucien gañecoa, eta aren Magestadeac beraz gozatceco eguin gaitu: 2. Cerren dan gure amparazallea, edo lagunzalle guztiz poderosoa, eta Jaquinsua. 3. Cerren dan Misericordioso, eta erruquiz begui(gui)ratzen digun: eta³⁷⁰ 4. Cerren dan esqueni, aguindu, eta prometitu diguna cumplitzen gustiz fiela, eta leyal: eta aguinduric gauzca J. Cristo bere Seme maitearen icenean ondo escatu ezquero gure Animano salbaciocaco bear deguna emango digula.

G. Eta escatu, eta esperatu ditzaquegu Jaungoicoa gandic ondasun demoralac? E. Bai: bada gucien Javea Jaungoicoa da: baña escatu bear diozcagu gure Salbaciocaco ondoena dagoquigun neurrian eta moduan. G. Nolaco condicioarequin Ceruco Gloria aguindu gure Jaungoicoac? Fedeco virtutearen explicacioan esan guenduan becela aguintcen digu Esperanzaco Actuac eguitera: 1. Arrazoyaren arguira, eta gure betico³⁸⁰ zorionaren, edo betico Gloria-
ren ezaguerara fedearen vitartez eltcen gueranean. 2. Esperanzaco virtute oñen contraco tentacio fortitzac burura datozquigunean. Esperanzaco Actoa eguin bear degu tentacioa goiteco. 3. Eriotcaco peligroa datorquigunean orobat Esperanzaco Actoac eguin bear ditugu: alde batetic gure ecreza, eta argaltasuna, eta Jaungoicoa ganaco esquer gaiztoa icusiri, humillatu bear degu: baña bestetic Jaungoicoaren ontasun piedade, eta Misericordia cabu baguea, eta guzaz duen erruqui guztiz andia gogora ecarri bear degu: eta J. Cristoren icenean, eta aren Passio, eta eriotza Santuaren neurri begueco merecimentuac gatic Esperanza vici batequin escatu bear³⁹⁰ diogu gure pecatuen barcatcioa, eta eriotz ombaten gracia, eta orri darrayon betico gloria.

Eta 4. Ocasio oriezaz gañera, fedeco Actuac becela Esperanzacoac ere noicican bein sarricho eguiteco aleguinac eguin bear ditugu baña escrupuluric izan eztezazuen Jaquin ezazue, ce Aita gurea ondo, eta ezaguerarequin errezatcen dezuen gucian, eta orobat Acto contriciozcoa bear dan becela eguiten dezuen gucian esperanzaco actoa ere eguiten dezuela: eta baita ez oartu; edo acordatu arren, iguerri bague, eta isillic fedea, eta Esperanza ascotan egercitatutu oi ditugu ala confessatcen gueranean, nola Comulgatcen gueranean, nola Meza enzuten⁴⁰⁰ degunean, edo Errosario Santua errezatcen degunean; bada ecin gauza oriec, ondo eguin litezque, gure barruan fedea, eta Esperanza berritu bague: eta pecatuari contuz alde eguiteco: zuen gurari gaiztoac ecitceco, eta Ceruco gloriaren deseoarequin obra onac eguiteco aleguiñac eguiten badituzue, esperanza ona dauquezelaco señalear da.

2. Eta nor dira Esperanza ona eztuen Cristauac? Virtute onen contra eragozten duena eguiten duenac. G. Cer eragozten du bada Esperanzaco virtuteac? E. Pecatu mota bi, bata bestearen antic eztuenac eragozten ditu: bata da Esperanzaren falta, edo etsimena, edo desesperacioa, eta orri darrayon naguitasuna, eta alpertasuna, eta⁴¹⁰ bestea da Esperanzaren sobra, edo gueyegua, eta erabagueco presuncioa, eta bildur santuaren falta. G. Cer da Esperanza galdu eraguiten desesperacio, edo etsimeneco pecatua? E. Betico zoriona, edo bere Animaco Salbacioa iristeco, edo alcanzatceco eztuela etsitcea, eta uste orretan penitencia, eta obra onac eguiteari largatcea.

G. Eta nundic sortu oi da, edo dator etsimen, edo desesperacio ori? E. Uste izatetic Ceruco videa nequeza, eta estua dala: eta maite dituan erabagueco atsegiñac ecin utcico dituela: bere aztura gaiztoac ecin goituco, edo menderatuco dituela, eta virtuteari Jarraitceco eguin bear dituan lanac ecin eguingo dituala. G. Eta desesperacio,⁴²⁰ edo etsimen ori, cer pecatu da? E. Berez pecatu mortala: eta beste gucien artean peligro guztiz andicoa; bada Esperanza gucia galdu eraguiten du, eta azqueneco fiñaz, edo betico zorionaz etsitcen du eta ura iristeco medioac iguiditu, eta uzten ditu: eta orregatic ere da Espiritu Santuaren contra diran pecatu arrigarrietatic bat.

G. Nola izango ezta bada orrelaco pecatua guztiz peligro andicoa? Argatic San Isidoroc esan zuen (Lib. 2 de *sumo bono* cap. 14) Pecatu mortal bat eguitea Anima iltcea da: baña salbacioaz etsitcea Infernura Jarrea da. Baña ori gucia aditcen da etsimen, edo desesperaco ori vorondatezcoa danean; bada Cristauen artean, badira asco, bere⁴³⁰ vorondate, edo nayaren contra Esperanzaco virtute onen contraco tentacio, edo pensamentu guztiz gogaicariac edo penagarriac izantzen dituanac: eta esperanza galdu duelaco bildur arrigarri bat eduqui oi duena eta ori datorque ez erac ezaguerarequin, ala nai duelaco, edo consentitcen duelaco, ezpada cerren Infernucoc Deabruac erabagueco vildurcunde gueyeguirequin turbatcen dituan: edo erac barruco tristura, eta melancoliari lecu gueyegui emanten dioven; eta orrelaco persona vildurtiac (pecatua ezagutu ezquero igui badue, eta ala pensamentuac penatcen baditue) consolatu, eta alaitu bear due, eztue uste izan bear alaco tentacioac pecatu dirala, vorondateac igui dituan⁴⁴⁰ artean: eta eren argaltasuna, eta berez bacarric ecerezco gai eztirala ezaguturic, eren confianza gucia Jaungoicoaren cabu bagueco ontasan, eta Misericoragan, eta J. Cristoren Passio, eta eriotza Santuaren neurri bagueco merecimentuetan ipini bear degu: eta alditequegun obra on guciac eguiteco aleguiñac eguin bear ditugu.

G. Eta nundic gueyago sortu oi da Desesperacioco, edo etsimenezco pecatua? E. Fedearen contra dan ichumen gaizto batec : eta da uste duenean bere pecatuac ain arrigarriac dirala, nun ecin Jaungoicoac barcatu leizquiola,

edo barcatu naico eztiozcala: Cain gaistoac, eta Judas gaiztoac uste izan zuen becela: eta ala condenatu ciran,⁴⁵⁰ Esperanza galdu zuelaco, eta ori da ucatcea Jaungoicoaren cabu bagueco ontasuna, eta Misericordia: eta aren gucialtasuna, edo poderio neurri baguea: eta da batetan fedea, eta Esperanza galtcea: eta Herege ichutua, eta gogortua izate; bada gure fede santuco eguia eta Articulo principal, Credoan bertan Apostoluac ipiñi ciguena da pecatuen barcacioa: auda gure Jaungoicoac utci, edo eman diozcala bere Elizari pecatu mota guciac barcatceco erremedio eraguilleac pecataria bera bear becela presatcen, edo disponitcen bada penitencia eguiatzcoarequin.

G. Eta norc gueyago Esperanzaco virtearen contra pecatu eguiten⁴⁶⁰ due? E. Ceruco Gloria, eta betico vicitza zorionecoa viciro deseatcen eztuenac, eta ura iristeco medioac gogotic artu nai eztituenac: eta ala pecatu mortalean vici dira emengo ondasunac, emengo atseguñac, emengo vicitza albalue beti beti gozatu ani lituquenac, eta Cerucoac gatic trucatuco lituzqueanac; bada orrela-coen viotza Munduari Josiric dago: eta eren betico zorionaz ajolaric eztue: beda dan becela estimatcen eztue: eta ori da fedea, eta Esperanza illic eduquitcea, eta condenacioco estaduan egotea.

G. Eta cer gueyago eragozten du esperanzaco virtuteac? E. Presuncio alpera, eta banoa. G. Eta cer da, edo cein da esperanzaren⁴⁷⁰ contraco era baguezco presunciozco pecatua? E. Da modu ascotan: eta 1. da bates uste duenean bere indar usarquin Jaungoicoaren gracia (bague) eta Ceruco Gloria iristea: eta ala uste zuen San Agustiniñen demboraco Pelagianoac deitcen ciran Herege batzuac, eren ondar propioarequin Jaungoicoaren gracia bague, edo Ceruco laguntasun sobrenatural bague Mandamentu santuac gorde citzaqueala, eta betico zorioneco vicitza iritsi cezaqueala. Eta contrara, beste batzuac uste izan zuen, ezac penitenciaric eguin bague, eta obra onic eguin bague Jaungoicoaren ontasun infinitoac J. Cristoren merecimentu utsagatic salbatuco cituala: eta Esperanza ori viotcean eduquitcea asco zala⁴⁸⁰ salbacioa iristeco beste nequeric artu bague. Baña oriec guciac Eliza Ama Santac condenatu ditu Heregezat: eta eracutsi digu Jaungoicoaren itzaz conforme: salbacioa iristeco naita ez bear ditugula batetan Jaungoico aren gracia, edo Ceruco laguntasuna, eta arequin batera gure obra onac; bada San Agustinec esaten digun becela, ecez ezetic gu bague sortu, edo eguin gaituan Jaungoicoac, ez gaitu gu bague salbatuco: au da ematen digun graciarequin batera, aguintcen digun obra onac eguiten ezpeditugu.

G. Eta Esperanzaren contra iñorc gueyago presuncioz pecatu eguiten du? E. Bai: 1. eren salvacioraco Jaugoicoaren laguntasunean,⁴⁹⁰ eta gracion baño eren indarretan, eren Jaquindurian, eta eren aleguñetan confianza gueyago daucatenac. 2. Naiz osasuna iristeco, naiz ondasunac, edo nai lituz-

quean beste aurrera penac Munduan alcanzatceco Jaungoicoagan baño gueyago fiatcen diranac Munduco personetan, eta eren Jaquinduria, eta aleguiñetan; bada Jaungoicoac eztu nai beragan baño esperanza gueyago iñorgan principalmente eduqui dezagun, naiz Animaraco, naiz Gorpuzteraco bear ditugun, edo conveni zaizquigun gaucetan; bada bestela Jaungoicoagan baño esperanza gueyago Guizonetan ipinten badegu; nundic oei gusto emango diegun ivillico guera (guera): eta eren viciotan ere: eguia esan ordean, lausonjatuco,⁵⁰⁰ eta eren gustoa itz eguingo diegu, eta aen esan gaiztoac eguiteco prest egongo, guera. Orra cer dacarren Jaungoicoaz azturic Guizonetan principalmente gure esperanza ipintecac eta contrara Jaungoicoa gandic principalmente bear ditugun, edo ondo dagoquigun gauzac esperatcen baditugu, Jaungoicoaren bai, baña beste iñoren erabagueco bildurric izango eztegu: eta Jaungoicoari atseguin emateco (emateco) cuidado gueyago ipinico degu, eta aleguiñac ere eguingo ditugu.

G. Eta Esperanzaren contra presuncio gaiztoa, eta era baguea noiz gueyago guertatcen da? E. Pecatu mortalac eguitera oituric dauden pecatariac uste duenean Jaungoicoac guztiz erruquitsua, eta⁵¹⁰ misericordioso Danac becela ichongo diela erac nai artean, eta erdi gogoac ematen dienean penitencia eguingo duela, eta salbacioco videan Jarrico dirala: Eta orobat uste duenac eriotceco orduan confessio ombat, edo Acto contriciozco eguiazco bat eguingo duela: eta gucia batetan erremediato duela: bada orrelaco presumiduac uste due gauza guztiz erraza dala, eta istante batean eguin ditequeala Jaungoicoagana benetan biurtea: penitencia eguiazcoa eguitea: eta ala oiturac gaiztoaren mendean Jarri dira: eta orti eren buruac libratceco eguiazco aleguinac eguiten eztue: beti gueroco penitencia lutzatcen due, eta onelaco presuncio, edo uste temerarioac chit asco dauzca⁵²⁰ ondaturic Infernuan; Cergatic gure Jaungoicoac berac deitu dituanen aren ontasunaz eta Misericordiaz penitencia eguiteco valiatu ordean pecatu gueyago eguiteco valiatu diralaco: orrelaco presuncio duen eroai berariac bat batetan quendu oi die edo vicia, edo zenzua, edo untcen die, zor eztien laguntasuna particularra, eta eren peccatuen penitencia eguiazcoric eguin bague Jachi oi dira Infernura.

Eta orobat ere bagueco Presuncio arrigarri batean erorten dira pecatu mortala, edo Lujuriacoa, edo ordiqueriacoa, edo beste edocein eraquin oi dien peligro, edo ocasio guertuan eren borondatez Jarten diranac; peccaturic eguiteco asmorric eztaramelaco, edo Jaungoicoac⁵³⁰ lagunduco dietaco peccatuan erori eztecen: bada orrelaco ocassioa, edo peligro guertuan berac nai duela egotea, edo Jarrea da ya presunciozco peccatu mortal eguitea; bada peligro, edo arriscoa billatcen duena an erorico da, dembora gucietaco egempleac eracutsi duen becela. Ezpada gogora ecarzue nola erori ciran Sanson indarsua, David santua, Salomon jaquinsua, eta Aita San Pedro Apostolu

gucien burua: eta veguiratu ezazue etceratela zuec ez ain indarsuac, ez ain santuac, eta ain jaquinsuac: eta ala peligrotic beti alde eguizue, eta ceuroc nai eztezuela, uste bague, alacoric ofrecitcen bazazue, bereala Jaungoicoari laguntasuna, eta indarra escatu eguiozue, berac gordececo⁵⁴⁰ pecatuan erori bague.

Eta badira gueyago Presunciozco pecatuan erorten dirana? E. Bai: eta dira alaco Cristau alper batzuac, Ceruco Erreynua, eta Gloria iristea uste duenac; baña J. Cristo berac bere Evangelioan, eracutsi cigun vici moduari Jarraitu nai bague, eren passio, apetitu, eta griña gaiztoai guerraric eguin gabe: Debociozco gauzaren batzuac eguiten ditualaco, humildasuna, paciencia, mortificacioa, eta onelaco beste precisioco gaucetan egercitatceco neque-ric artu nai gabe, Jocu lucetan, Jostatce, eta conversacio alperretan, eta jan edanetan eren pensamentu guciac dauzcatela: Cristau bati dagoquion vici modu⁵⁵⁰ arreglatu bati jarrayo bague onelacoen esperanza da alperra, da presuncio vano; bada J. Cristoren beraren esanaz batera, Ceruco erreinua irabazteco indar eguin bear degu: gure vorondatea bere gurari gaiztoquin ucatu, edo eci bear degu: egunoroco gurutcea, edo guertatcen zaizquigun nai gave, edo atsecabeac, guchienaz pacienciarequin eramatera gucioc jarraitu, eta jarri bear guera, eta J. Cristori jarraitu bear digu: eta orretaraco guerez gai ez gualaco bere gracia, eta indarra gogotic, eta sarri J. Cristori berari escatu bear diogu: baña escaera orretan bertan ere sartu oi da Cristau ascogan era bagueco presuncioa, eta da bear dan prestaera gabe⁵⁶⁰ humildasun bague, confianza bague, eta erremediateco deseo eguiazco bague oracioa, erregua, edo escaera oituraz becela gueyago ezpañaz edo aoaz viotzaz baño eguiten danean; bada orrelacoac Jaungoicoa tentatcen due, esperanza alperra daucaeta escatcen duena iristen eztue, cergatic ondo escatcen eztuen.

G. Cer eguin bear degu bada gure esperanza ondo ejercitatceco, edo pistutceco, eta Jaungoicoac gureztat daucan betico Zoriona, edo Ceruco Gloria iristeco? E. Dembora gucietaco santuac eguin izan duen becela guere Fedearen arguiatz valiatu bear guera: eta Fedeac eracusten digun becela. Esperanzaraco ditugun motibo guztiz andiac gogoan ondo⁵⁷⁰ sarturic eduqui bear ditugu: eta batez ere tentacioac, edo naigabeac estutcen gaituenena, aequin valiatu bear guera.

Eta I. ondo ezaguturic, eta consideraturic eduqui bear degu, cein sari, edo premio guztizcoa daucagun Ceruco Glorian, orain cerbait Jaungoicoagatic, eta guero salvaciagatic necatcen baguea: eta batetic sariaren, edo betico Gloriaren anditasunac, eta aren betico iraupenac, eta bestetic nequearen laburtasunac alditu bear gaitu, Jaungoicoaren Mandamentu santuac chit contuz gordetcera: eta gure nai gabe gucietan paciencia andi bat eduquitcera: eta orretaraco bear degun gogo ona, eta indarra Jaungoicoari berari escatu bear

diogu. 2. Eta segura egon⁵⁸⁰ gaitezque, Ceruco Erreinua, eta ara daraman virtutea, gogotic, eta beste gauza gucien gañetic billatcen badegu, munduan bear ditugun mantenu, edo alimentua, soñecoa, eta ondo dagoquigun beste gauza guciac, Jaungoicoac gure Aita onac becela emango dizquigula acigarri, edo añadigarri becela: bada berac Evangelioan ala esaten digu, eta aguintcen digu, gauza oriec gatic ez gaitecela ansiatu, eta penatu, cergatic berac gure cuidadoa dauca: eta esaten digu: gure gogo andia, eta deseo gucia Cerura jaso bear degula, bada an dago gure Tesoroa.

Eta 3. Cerren gucioc guerez ecer ezac, ichuac, eta argalac guera, gaitera etciñac, eta miserableac, eta alde gucietaric Animaco etsayac⁵⁹⁰ guerra eguiten diguen: ezaguera onequin eztegu etsi bear, baicic humillatu bear guera, gure buruaz, eta indarraz fiatu bear ez guera: gure aldeti danez bilduz andi bat gure barruan eduqui bear degu; baña icusiric beste aldetic Jaungoicoaren ontasun, eta Misericordia neurri baguea, eta bere seme maite J. Cristo gure Jaunaren icenean gure salbacioc escatcen diogun gucia emango digulaco bere promesa, eta itza esforzatu bear guera, eta humiltasunarequin, eta confianza oso batequin escatu bear diogu sarri falta zacun indarra, eta gracia: eta Jaungoicoaren laguntasunarequin, eta gure equiera onarequin, gure passio, edo grña gaiztoac, eta Animaco etsayac, benetan nai badegu,⁶⁰⁰ goituco, edo menderatuco ditugu: Virtuteari Jarraituco diogu, eta batez ere Virtute gucien Ama, Erreguiña, eta vicitza dan caridadea: au da Jaungoicoaren, eta Progi-moaren amorio eguiac iritsico degu: eta orrec gure Fedea, eta Esperanza pistuco dizquigu: obra onac eraguingo dizquigu, eta orien sari guztizcoa, eta beticoa guero Ceruan goza eraguingo digu Amen.

Bibl.:

Lakuntzako parrokiako artxibuan.
Argitaragabeak.

50. GERENDIAIN (1888)

*Gerendiaingo parrokian eskuz idatzitako dotrina bat 1888an egina, aurkitu dugu. Euskara itzultzailea Bernardino Guerendiain, Iraizozko apaiza izan zela dio. Gero Iruñeko Erice eta Garcia-ren moldiztegian argitaratutakoaren orijinala da, baina argitaratuak ez du egilearen izenik ematen, hitzez-bitz honela dioelarik: “Cristau doctriñe Aite Gaspar Astetec erdaraz escribitue eta **Utzamaco apezac** balle ontan yarduquitzen den usquerara biurtue beren feligresan amorioz“. 1906. urteko argitalpena dut eskuetan.*

*Baina, Gerendiainen bertan bada beste eskuizkribu xume bat eguneroko otoi-
tzak dakartzana. Hasieran idatzitakoak, gero dotrina argitaratuaren modura zuzen-
duak dira. Idazkera zaharrean dagoena jaso dut.*

I

Aite guria

Aite guria ceruetan zaudena santificabedi zure icena, betor guregana zure errañue, eguiñ bedi zure borondatia ceruen bezala lurrian ere. Eman dezagu zu guri gueren egunezco oguiue, egun eta beti barcaizquiguzu guri gueren zorrac, guc zorgattuzteney barcatcen diogun bezala, ez gachazule utci tentacioan erortcera, baicic libra gachazu gaitz gucietatiq: amen.

Ave Maria graciaz betia Jaune dago zurequi, bediquetue zu zara andre gucien ertian eta bediquetue da zure sabeleco (frutue) Jesus.

Santa Maria Jaungoicoaren ama, zuq otoitz inzazu gu¹⁰ becatari-oquen gatic oray eta beti gueren eriotceco orduen: amen.

Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio et nunc et semper et in secula seculorum: amen.

Credo

Credo niq siñestatcen dut Jaungoico Aite guttiz poderosoaren baiten, ceruaren eta lurraren creazalian baiten, eta Jesu-Cristo arren seme bacar gure Jaunen baiten, cein concebitue icen baitcen Espiritu Sanduen obraz ta graciaz, yayocela Virgüña Mariaren gandi, padecitu zuela Poncio Pilatos Juezaren azpien, izandu cela gurutce-fiquetue, ille eta ortcie, yauxi cela limboetara, illte irugarren egunean²⁰ resucitetu cela illen erteti, bicietara, eta igan cela ceruetara, andola yarririq Aite guttiz poderosoaren escuñetaco aldian; andiq etorrigo dela azquen juicioo egunian illeq eta bicieq juzgatcera. Nic siñestatcen dut Espiritu Sanduen baiten, Elice ama Santa Catolicoan Sanduen Comunioan, becatuen barcatcioan, araguien erresurreccioan, bicitce seculicoan Amen.

Salvea

Salve Jaungoicoaq salva zaizala; erreguiña, misericordiaren Ama, bicitce eta dulzura gure esperanza; Salve zure deyez gaude, Evaren ume desterratuoa,

zure gana gaude suspirioz, sentimentuz eta negarrez,³⁰ negarrezco valle-onetan, ea bada Señora gure abogada itzuli dechazu gure gana zure begui misericordioso-oyeq, eta destierro onen onduan eracuxi dezaiguzu Jesus, zure sabeleco fruitu bediquestue. O clementisima! O piadosa! O dulce Virgiña Maria. Zuq erregutu dezazu gu gatiq Jaungoico-aren Ama Santa, mereci dezagun alcantzatcia, Jesu-Cristoren promesaq: Amen Jesus.

Ni becatarie

Ni becatarie, ni confesatcen atzayo Jaungoico guztiz poderoso-ari, Andre Marie beti Virgiñari, San Miguel Aingueru-ari, San Juan Bautista-ari, San Pedro eta San Pablo Apostolo-ari, Sandu gucieri⁴⁰ eta zuri nere Aite cergatic becatu aunitz eguin duten pensamentuz, itcez eta obraz, Jaune nere culpez, nere culpez, nere culpez guztiz aundiez, orgatiq otoiitz eguiten diot Andre Maria beti Virgiña-ari, San Miguel Aingu-ari, San Juan Bautista-ari, San Pedro eta San Pablo Apostolo-ari, Sandu gucieri eta zuri, nere Aite otoiitz eguin dezazule nitez Jaungoico gure Jaunari: Amen.

Jesucristo nere Jaune

Jesu-Cristo nere Jaune, Jaungoico eta guizon eguiezcoa, nere Criadoria eta nere Redentoria, zu nor-zarena izan -agatiq, eta cergatiq maitetcen zaituten gaue gucieq beño gueyago, damu dut Jaune,⁵⁰ damu dut biotz gucietiq zuri ofendituez, arcen dut proposito firme bat, ez berriz becaturiq eguiteco, eta eguiteco ocasiotiq apartatceco, confesatceco eta confesoriaq emanten diren penitencie cumpliteco, Jaune niq ofrecitcen dizquizut ne bicie nere obrac eta trabajuec, nere becatuen satisfecioetan, dauquet confianza aundibet zure ontasun eta mesericordie neurri gabecoan barcatico tirezule neri nere becatueq, zuq nere gatiq itzuri ciñuen odol precioso-aren gatiq, eta padecitu ciñuen pasio eta eriotcian gatic, eta emanen direzule gracie emendatceco eta perseveratceco zure servizu sanduen ill-artañoco dembora gucien: Amen.⁶⁰

II

Elizak Jesusen aitaordetako daukan Jose Santua arreta bereziaz ospatu izan du kristau herriak. Martxoaren 19an izaten zen bere festaburua. Aurreko zazpi igandetan, santuaren biziko zazpi nahigabe eta pozen pasarte nagusiak gogoratzen ziren. Harrera ona zuen gure artean igande arratsaldetako elizkizun honek.

Festa inguruan, bestalde, martxoaren 11tik aurrera, bederatziurrena egi-
ten zioten fededunek. Elizkizun honen eredu asko badira bazterretan. Hemen
datorren eredia Ultzamako Gerendiain-en jasotakoa da. Testu osoa luzeegia
delakoan, hasierako otoitza eta amaierako "gozoen" bertsoak bakarrik dakartzat.

Honelako lantxoaren bildumaren bat egin beharko litzateke noizbait, gai
suntsikorak eta apalak baitira.

Eguneroko otoitza

San José gloriosua, Mara Virgiña Jangoicoaren Amaren Esposo Virgiña;
eriotceco orduan aurquitcen direnen laguntzale guztiz beresia, zure esposa
Mariaren servizale gucien contuzale guziz lejala; Jesus eta Mariaren aurrian,
gaurdenetic autatcen eta artcen zaitugu guc gure Patrono eta Abogadutzat
erdistiagatic eriotze ombana; eta ofrecitcen dugu, gure biotz gucitic etzaitugu-
la utcico emendic aurrera; argachazu bada arren beticotz zure siervotzat; eta
sargachazu Maria zure Esposaren lagunzaren azpiyan; Eta Jesusen betico
misericordietan Gure obra gucietan lagunzaquizquigu, eta escatcen dizugu
humillqui, Jangoicoaren gloriaraco, eta zure honraraco, conveni⁷⁰ bada guc
erdistia Novena ontan escatcen duguna erdichi dezagula gracyau Jangoycoan
gandic; edo bercela escadezazula cerorrec gure animenzat gueyago conbeni
zaiguna, orai eta gure eriotceco orduan, ceñetan beressiric, escatcen dugu
zure laguntza erdichi dezagun, Zu bitarteco zarella guc guerez eciñ eguiñ
duguna. Amen.

Gozoak

Jose alegratcen naute
Zure gozo ta ondasunac
Jesusei diozcat esquerrac
*Ta Mariari placerac*⁸⁰.

Lembicicoa

Zure contentua gatic
Cenuenian adituEspiritu Sanduaren
Obraz zuela concebitu
Zure Esposac, ta cirela
Juan zure beldurtasunac
Jesusi diozcat esquerrac
Ta Mariari placerac. Pater Noster.

*Bigarrena*⁹⁰

Arzayac eman cizuten
Alegranza santuagatic
Adoratu zutenian
Jesus belaunicaturic
Aditu cintuenian
Ceruco musica ederrac
Jesusi diozcat.. Pater Noster.

Irugarrena

Dembora bete cenian
Bere icena paratceco¹⁰⁰
Jesus icentzat ceñion
Eman ta gu salvatceco
Etorri cela jaquin ta
Artu cintuen onac
Jesusi diozcat.. Pater Noster.

Laugarrena

Zure arimac artu zuen
Consuelu ta alegria
Profetac deitu ezguero
Jesusei Redentoria¹¹⁰
Garbitceco odolarequin
Gure biotz loi eguiñac
Jesusi diozcat.. Pater Noster.

Bosgarrena

Atseguñaz bete ciñan
Idoloac equsteaz
Lurrean denac autsiyac
Jesus zabillan bidean
Berac quentcen cituela
Egiptoco illuntasunac¹²⁰
Jesusi diozcat.. Pater Noster.

Seigarrena

Atera ciñan Egiptotic
Aingueruaren itzarequin

Cerequin artu ciñuen
Ama bere aurrarequin
Content asi ciñituen
Galileaco bide guciec
Jesusi diozcat.. Pater Noster.

*Zazpigarrena*¹³⁰

Atseguin arrigarria
Templo artan disputatcen
Arquitu cenuenian
Jauna bezala eracusten
Aditcera eman cituen
Bere misterio ederrac
Jesusi diozcat.. Pater Noster

Bibl.:

Gerendian-go parrokian.

Argitaragabeak. (1965ean eskuz traskribatu nituen lehen aldian. 1986an fotokopiaz hartu ditut bigarren traskribapena egiteko).

HIZTEGIA

ABAJA(TU). *edo zuba Cerutican abajacia, abajatu zen bezala Eliasen denboran* (31.104).
 ABARRICA(TU). *baicequin fite ero laster atra bear zuela batallaco campora, Luzifer serpiente zar gaisstoarri burua austera eta abarricacera* (44.68); *Mariac abarricatuittote buruac infernuco Luzifer guciei* (44.97).
 ABEC. *Vitoria andiarequin tentacio abetaco vatallan* (19.80).
 ABO. *vada zure aboan ezta arquizen beste gauzaric, juramentuac, maldicioac, murmuracioac* (19.213).
 ABRAS. *Aberats. Abras abaricioso conec azeric Jaungoicoaren legueaz* (33.200); *Ycusico tuze abrasac, nausi eta eheco andreac despreciazzen tustela beren nirabeac eta peonac* (23.310); *I izainaiz yruzquia atracenden alderdico guizonic abraxena* (44.261).
 ABRASAGARRI. *O amorioa abrasagarrie* (15.32).
 ABRASASTASUNA. *idalguiaren erretean eroricen dire gende andiac, abrastasunarenean avariciosoac, eta fama edo estimacioarencam eroac* (17.87).
 ABSOLBIO. *confesorean absolbioan medios* (24.206).
 ABUR. *Labur. naiz denbora aburrecoac* (37.136).
 ABUN. *Uhain, olatu. Urec batac berceas golpe emanez, abunac cerurano goiticen cirela* (44.128).
 ACABANTZA. *Amaiera. eta precisqui izan behar dute acabantza edo finitze vera* (45.17).
 AÇAROA. *Azaroa* (1501; 1.9).
 ACAVILLA. *Akabera. nolacua vizitza alacua acavilla* (43.466).
 ACCORDA(TU). *Hitzartu, Konpondu. Yudu bati offreitui cioela, bainanets cirela accordatu* (34.30).
 ACCUSU. *presentian gure pressondeguien da accusu hau dela caussa* (34.33).
 ACHAQUI. *baño ezion Jaungoicuac onian ereman achaqui au onelacua* (31.4).
 ACHIQUI. *Condu achicazu, erraiten cion S. Geronimoq, zure alabeq eztezen icus..* (45.327).
 ACHUQUI. *Aitzaki. Ynorquere eztu cer achuquiaric, eta escusaric alegatu eparinbadu faboregontaic provechuric atracen* (44.233).
 ACENDU. *Haydeac eta adisquideac urtes gutis acenduric* (1567; 8.7).
 ACIDENTE. *Acidenten azpien ongui estaliric aldare sandu orretan* (15.12).
 ACIENDA BELZA. *Herri huntaco particular bat plenitucen bere acienda Belzac Vtzamoco ezcurreerat caramatcila escapatu citzaizcola* (30.32).
 ACIENDABURU. *ceinetan obligatu ican baitcen lau acierendaburuen salcerat bertce gaineracoen libratceco* (30.38).
 ADAR. *adarrac emaiten dira Miraballesen* (1619; 10.1).
 ACULU. *exemplia aita-ametan da aculuiq fierrena* (45.366).
 ADARDUN. *Badela asienda adardun Mulzubat Babituac Aspilcoctaco berian* (30.2).
 ADEREZA(TU). *amodio veraiquin aderezatzen da espanolari nola Franciaco eta bertze nacionetaco devoter* (46.121).
 ADI. *Ay bezate nola erraten duen San Pedro Damianoc* (17.13); *aibezazuite bi sucesso prodigioso* (17.62).
 ADIMEN. *Ezagutzta. eldu zinelaric adimendura galdu cinuen Batayoan errebitu gracia?* (45.495); *Becatien errepeticioniaquin iluntzen da adimendia* (45.61).
 A DIOS. *A Dios nere Jesus ona! A Dios nere vnotzeco amorio dulcea! A Dios nere esperanza gucien seguridadea* (26.249); *usten dudala adios erangabe begniyen bista* (1664; 14.25).

- AFERA. *ceren beldur diren arima debota boq, guizon gassto eta malvaduboaquin burlen asuntuba eta irriyen afera izattia* (43.234).
- AGO. *confesaçea demonioac bere agos vere flaqueza* (24.128); *ez sollic alabaçeco agos Jangoicoa* (24.317).
- AGOR(TU). *ogui pusquec bear dire bota mantecara ia bazorzeraño* (28.47).
- AGUIR(TU). *Agertu. Aite Sandu au ill, eta cimbeil egunen buruen, descuideturic cegonean Confesorea, ara non aguirtu ceiquion aurpegui triste batequin* (32.86); *aguircen baliz Ainguiru bet* (32.102).
- AGUITZ. *cen gauza aguitz rarua eta gaitza causitzia* (43.432); *ez da errecibituco congregacio onetan, aguiz comun edo gujenean congregacioco egunetan assistituco ez duenic* (27.55); *eta aguiz gutiego beren gaizqueiquin besteri(c) gaiztacen dabilcenac ere* (27.57); *eta au da aguiz guti* (27.62).
- AGUNZA. *despreciacen ditugularic demonioaren agunzac eta tentacioac* (38.601).
- AHAIDE. *Haydeac eta adisquideac urtes gutis acenduric* (1567; 8.7).
- AICEQUI. *Escuses edo aiciquies beteric arquicen da mundue ez baruceco baño zure tribunalean Jaun Divinoa ez dute baliatcen aicequiec* (38.504).
- AICINA(TU). *Cer aizinacen duzute zeren plazer eta gustoaquin* (38.596); *Cerueren eta lurraren aicinean* (38.625).
- AIGUIE. *Egia. Bay aiguie da* (24.109).
- AILCIÑEN. *azquen juicio egunecan ailciñen izain diren señaie terribleaie* (44.317).
- AITARIYARREBA. *Zure Aita eta Ama baitira, nere Aitariyarrebac* (37.140).
- AITASANTUA. *Probeituac Matheo Burato jaunac, jueza aitasantuac señaletua* (1626; 13.15).
- AITEORDE. *obediçen dio San Jsh. bere Aiteordeari* (24.800).
- AITU. *Bukatu. Baña, ontan aitcen dirala uste dezube Principe Soberanu orrec emen eguin dituben prodigio eta marabilla aundiyac?* (37.473); *Dela iyurri bat aberasa aicen ezdena, puzu bat ondarric ezduena* (37.671).
- AITZINA(TU). *nola adinean aitzinatuz bezala aitzinatu cinuen ere gaisstaquerian* (45.500).
- AIZIÑEAN. *paracea bere aiziñean cantidade bat arri* (19.18).
- ALA. *ala galdu duzun eneganaco esperança ala cer erranen dut otoi bada çure baitan dudan esperanças* (1664; 14.38).
- ALABER. *alaber njc Pascoala çu Joannes arcen çaytut neure scnarçat* (1548; 4.15) *Alaver* (1552; 6.3).
- ALAMENOS. *Alamenos ezguendezaque hainbertce ardi eta bildox escas atceman gure artaldetan* (30.20).
- ALAROÇA. *Alarotza? Emakume ezkonlaguna. nic Martin y Joanna arcenaut neure alaroçaçat* (1547; 3.1).
- ALASA. *alasen bazuec emeñaatu bearra* (38.945).
- ALCINEAN. *Habiatucen oiuz Profeta Jonas gucien alcinean erraten zuela* (44.136).
- ALDIAN BERTZE. *Alderik-alde. Izanen da ezpata bat bezala pasatuco diena crudelqui aldian bertze zure viotza* (45.249).
- ALOJII(TU). *Maleza auen artian coba batian alojitzzen zan Dragon losagarri bat* (37.199).
- ALQUE. *Ahalge. elduce bere errire alquegorrituric* (24.167); *O Jesusen alquea* (35.79).
- AMA GUINAR. *Echeverri Ciburuco organistaren ama guinarraren baitan* (34.12).
- AMANDRE. *ebaitesela yzutu ama(n)dreac orela amenazatuagatic* (25.13); *Jangoicoari graziyac nere contra zure Ama(n)drea paratu vadute Muriyetan* (25.16); *nic oraindic esnaie zure coñataren ama(n)drea ibylzen chan besela ybili* (25.18).
- AMARREN. *Diezmo. animen cargue duenac zer errenta, amarren, derecho edo probechu duen* (29.43).
- AMARTIÑECUAN. *azquenian allegatu zen amartiñecuan, eta erran cion Yangoicoa, eztut deseguiñen Amar justo causitzen badire* (43.378).
- AMBATETA. *Ambateta gracia eta privilegio guciyago ematen badio ambateta escelencia aundiyagocua* (37.349).

- AMICAGARREN. *ala declaratu zuen Ynocencio Amicagarrenac* (38.781).
- AMIRUGUERREN. *S. Lucasec bere Evangelio Sanduen amiruguerren capn. erraten digume* (23.246).
- AMISTREZEN. *Sacramentuen amistrezean sanoai eta enfermoai* (29.58).
- AMODIO. *beguetaco sua gayzto dala amodioa, ychua dala* (1622; 11.32); *Ay nere semca, esaten didazu, dizuden amorioa* (15.21).
- AMOROCATICAN. *Amoreagatic. vere misericordia infinituaren deitze eta ausilioaq, amorocatican eta guizonaq ideq ditzan veguiaq* (45.28).
- AMULTSU. *Ob Ama guciz amultsua* (46.37).
- ANBESTERE. *zuc eguiñ ditzula anbestere pecatu* (19.188); *anbestere fauore eta beneficio nola eguiñ ditzizun* (19.210); *Anbestere pecatu* (19.227); *anbestere vider* (19.234).
- ANÇARA. *Ançarac vaceaquic deadarr eguiten* (1619; 10.38).
- ANCIN. *Profeta oneq cion ancin deneti q maiz aditzerat ematten Jangoicuaren justiciya* (43.241); *Esnuque erreparoriq izanen aren ancinerat presentatzeco* (43.256).
- ANCINDENETIQ. *icusiriq ancindeneti q Ciudadeari guertatu viazetzayona* (43.324).
- ANDI. *Ceru andietan cabitu ezinic* (15.8); *Eztadiela gloriatu España gloria andi ayes* (17.49).
- ANDI-MANDIAC. *oc dire Escribac eta Farisiuac (edo subec ezaten ducian bezala, gende andi mandiac edo errico aguntariac eta ez gende chiquiac, edo sensilluac, erritan batere aguinzen estulenac* (31.91).
- ANDURA. *Anduraz beteric magalac* (1619; 10.17).
- ANGERU. *Tristeric vaia noa neure angerua* (12.12).
- ANTIGUA. *Donostiako auzoa. bara Antiguada Juanginanean* (1761; 25.126).
- APARATO. *admiratuco dirade aparato bat ain aundie ecustearquin* (38.20).
- APARECIMENTUE. *Au de lendabissico aparecimentue Erresucitetu esqueros* (24.217).
- APRILLA. *Apirila* (1501; 1.4).
- ARAINIÑO. *eta orain ezaguturic gure arain niñoco procedimentu gaiztoa* (36.228); *Orain niño izandu naicena* (36.241).
- ARALAR. *eta andic Alargo mendira, eta arla nola Patriarca Noec conseguitu zuen salbacia dilubiyoco Utsetati Ararato mendiyar, modubontan Dn. Theodosioc conseguituzuben Nafarruan Alargo mendiyar descansoric aundirena* (37.195).
- ARARTECO. *Yaincoaren Ama eta becatarien Ararteco boteretsu orrec* (46.14); *Gure ararteco eta consolazalea* (46.45).
- ARARTECOTASUNA. *ezta munduco tribunaletan bezala izanen demborari(c) pentsatzeco, preparatzeco, otoizteco, influenciac arartecotasunac ezartzeco* (45.409).
- ARATEGUI. *Arateguico idieren birique edo beste erozein aragui bear du arrastatu* (28.61).
- ARBOLADI. *mendi ontara denborartan izugarriya beriontaco arboladi eta sasi eta malda gaizagatic* (37.198).
- ARCAINGUERU. *Arcainguerutan argui eder bat becela* (37.255).
- ARDANCE. *Edo bacoiecc beren guisa ardance, alor, edo frutotan lapurreta eguiten dutenean* (38.760); *Bigarren comparaçioa Jobena da ardanceetaco goardarena, bada onec eguiteco bere choza, ebaquiçen du arbola, eta onen ramas estalçen du choza* (20.25).
- ARDURA. *Maiz, askotan. Ardura garbitasunaiquin untsa eldu eztiren solasaq mintzatzen batu* (45.322).
- ARGUIZAGI. *Congregacioan ezda gasturic bat-ere arguizaguerena baicic* (27.61); *bañen limosna biltzen bada arguizariarenzat bear dena baño guçjago* (27.62); *limosneroac cuidatu bear du errecoçigen den limosnarequin congregacioco arguizaguie paraceas.* (27.190).
- ARIMA. *Cein beite arimen alimentu eta vestidure* (23.193); *eiñ acenduric J(ai)ncos eta beren arimes* (23.222).
- ARLA... NOLA. *Arla Emperadoriac nola Erreguiac, arla Ynfernuba nola munduba* (37.228).
- ARMIARMA. *Egunaz quentcen diyo eztiya erliac, armiarmac gabetan veneno fuerzia* (40.45).
- ARNEGU. *Arnegu eta madariccionc escandalosaq dariola* (45.296).
- ARQUEATU. *Erronda. eta beste pieza arqueatuac lo mismo bein bein punta belarriequin sartu elcean* (28.77).

- ARQUIN. *feligres edo vezino honrratu batec ere arquin bear du sollic edo eche(an), edo eliz(an)* (19.390).
- ARQUINCEN. *guciac ciquincen gara, eta arquincen garade ciquinduec, edo manchatuec, eta gure obra on guciac arquincen dirala tela bat edo oial bat manchaturic arquincen den bezala* (1751;23.124); *apenas arquin duco da entendamentu edo cenzu humanoric explicatu dezaquenic* (23.2).
- ARRA. *Ebagnizezu besoat gorpuceti, cer iquenen da beso ore? usteltasune, arrac eta corronpicioa* (24.573).
- ARRALLA(TU). *Arriac arrallacen, ta alare berazen nola ezta biotz zurea? (35.95); Tempstadeac eta tormentec arrallacen cuten Uncia* (44.125).
- ARRALLERIA. *entzun cien cantu eta conversacione arralleriazcoa* (45.50); *Arralleriaco solas bat* (45.67).
- ARRANGURA. *etzen batere sospecha edo arranguratic aren honestitateaz* (45.431).
- ARRAPOSTU. *otoi arapostuya arrapet estulut lequriq nabi bezala gastigazeco* (1664; 14.26).
- ARRAUTSE. *Zarretan conservacen da su onen arrautse ille urdiñen autserequin estaliric* (32.312).
- ARRAZIO. *ainguti arrazio igualarequi feligres edo vezino honrratu batec* (19.387); *eta ya baden arrazioric ez frequentaceco Sion celestialeco edo glorienco videac?* (23.170).
- ARRAZOBE. *Arazobe anicequin esan zuen Santo Tomasec ecela pecatu peligrasoagoric lapurretacoa baño* (38.682).
- ARRAZORE. *Cenbat motibo eta arrazore gueiyagorequin esandaiteque zutaz* (37.31).
- ARREPA(TU). *guciec arrepacen ditu vicio iususi onec* (23.360).
- ARROBA(TU). *Alde eguizazube ardiyen larrubarequin estaliyaq zuben ganat eldu diren profeta falsubetatiq, eta even barrenetan diré otso arrobatzalliaq* (43.191).
- ARROITU. *eztate pasarazten lecu hatetic bestera ez soñu alegreac, eta ez tristeac eta ain guti ar(r)oitu andi adicen dituenac* (38.383); *arroitu andiac pasarazten zaituzte pecatutic graciera* (38.402).
- ARTEAN. *Vici naycen artean* (1536; 2.2).
- ARTEO. *asiric lurretic allegatu arteo Trintate Jaun poderosoaren Jaureguiraño* (17.19).
- ASE. *Malezadun. Cepoa parazen badu lecu asean jango ditu saguec eta serpienteac pazcac eta ez du probechurican izango, bear du paratu lecu garbien sasiriric éztan lecuen* (28.70).
- ASENTUES. *Luzaroan. eztiradela guti baicican aniz asentues pecatu mortalean vici diradenac* (38.847).
- ASTAPEN. *Hasiera. Comprendi zacie untsa au dela cien eta cien aurren perdicioniaren astapena* (45.83).
- ASTELEGUN. *esayosu asteleguncan ez etorceco, jaiccan nai duenean* (25.93).
- ASTERA. *diversione gaistogau dela Satanasen laquio seguroa, eta Errietan aurquitcen diren becatu eta vicioen astera eta zaiña* (22.10).
- ASTERAGUN. *aguertuco dituela aien baruegunac, penitencie, limosnac, asteragunetaco meza santue enzuteac* (38.231).
- ASTIA(TU). *Gorrotatu. Zuc (odiatu) astiatu cinuen proximo laguna, izan cinuen artaz mendecatze-co desira* (45.506).
- ASTREGUN. *ez sollic astregunetan beicic aun sseietan* (23.325).
- ASTU. *iraquin emequi eta iragaci zapi zuri batean talaberazco onzi batera edo quicara batera eta tapatu ezdidin astu* (28.25).
- ATARI. *glorienco atari mear eta erchitic* (23.371).
- ATERI. *Atera. eta moduba onetan aterico garela munduba onetatiq victorioso zure gloriyarat* (43.509); *zu Diabrubaren esclavotasuna onetatiq ateritzeco, pagatu zuben preciyua izanduzela aren odola* (43.185).
- ATORRA. *Andre attorran sarttua saude Juanes Maria Latasa* (18.3).
- ATRA. *Atera. Atrazaitte beala Elice ontatic, utzi nazadazu ni bacarric becatari aubequin* (32.266); *Cembat escandalo estituste eman beren sartu atrarequin* (32.442).
- ATSARCE. *Obligeturic daude eta egonen dire azqueneco atsarceraña* (24.771).

- ASEGIN. *otoi eguiten deraçut har deçaçun baxeguin* (1644; 14.6); *cuc ere bitartean barçazu aseguin, otoi* (1664; 14.8).
- AUBA. *Aho. Iru guruce eguitea, copetan lenbicoa, auban gero bigarrena, yrugarrena bularretan... auban libraceco itzgastuetatic* (21.6).
- AUENDUA. *Abendua* (1501; 1.10)
- AUNDIMENDI. *Andia. dirigicen da bera catiac argolla eta guruciarequi Aundi Mendira* (37.193).
- AUNQUIE. *aunquie inçequela, beñe eç çaquela ozcariz in, beicic bere borondates arrimeçen ceionari sollic* (24.89).
- AUSARQUI. *Ugari. lecu privilegiatu bat ceintan ichurtzen baitira ausarquiago Yaunaren misericordiac* (46.2); *Ausarqui libra abal desaquete* (34.63).
- AUSE. *Ceñen ause da pobreza* (38.478).
- AUSTERRE. *ala cantacen du Elicec austerre egunien* (39.40).
- AUTSIQUI. *non batzubeq ari baizazquiyo berziçy autsiquica, elcar puscetzen* (43.448).
- AVIS. *Ohar. Azquenian gaitz orieq guciaq dira Yaincoaren avisaq* (45.27).
- AZARIE. *Azarieç arrapaceco errezeta ensuerara erreducituricaco modue* (28.1).
- AZE. *Ase. ezi aceric gure Jaungoico Soberanoaz, azeric Jesuchristoz* (33.186).
- AZIENDA. *cergatic dembora onetan arras-aldea chiquie den eta gendeac aciendaz edo ganaduez cuidadue eduqui bear duten* (27.109).
- AZTUERA. *ceñen aztuera tristeac bete duen mundue pecatues* (38.68).
- BACIN. *Ez luçete berce gauzeric errespondatuco Purgatorioco Animec galdeiten bacin dioce angopeña ta tormentues* (32.722); *galdeiten bacin dioque* (32.724).
- BAGUE. *Eta arras-aldean exercicioa izan bagueagatic, elicera etorri eta ordu erdicho bateco demboran oracioa eguin* (27.135); *Congregacioac duen fiñe da guc amore tierno, edo samur batequin correspondicea Jesusec guri digun amore andi comparacioric baguecoari* (27.35).
- BAHICUNZA. *Bahicunza pagaracy ciotela Bederatcy buruenzat* (30.33); *senticen abal ducue Jaunac Babicunza hori gogorra dela particular pobre batenzat* (30.37).
- BAITAN. *Ceiña egoten baita Ciburun pierres Bereret, Barraco Entreprenuraren baratce caiña baitan* (34.6); *Elisaldebaitan* (34.49); *Andres Hartchabaitan* (34.59); *Mariabaitaco borda miratudut* (34.81); *Siñestacen Jaungoico Ayta podore guciaduenabaitan...* (21.12); *Niq siñestatcen dut Jaungoico Aite gutziz poderosoaren baiten* (50.15).
- BALDIN. *nic ematen drauçut neure fedea valdin valdin jo baneça* (1552; 6.6).
- BALDIÑETARIAN. *eta entendaturic iduquico dute ordenatu nai dutenez ez iirela nioiz ere ordenatuco baldiñetarian danzaten badire* (1750;22.25); *Eta baldiñetarian norbait contra etorcen baliz* (22.44)
- BALEA. *botatu zuten bezain laster aguertucen Balebat agoa idiquiric eta sartuzuen oso osoa bere tripan* (44.141); *Arara aguertu cen Baleare Profeta Jonas bere tripan zuela* (44.143).
- BAPEDRA. *ezparinbada lagunz(ac) bapedra ezarzen dituela* (19.277); *manifestacen diola bapedrac bere c(on)ciencieco secretu guziac* (19.352).
- BARA(TU). *Geldi(tu). eserizendiacozu oçasioa eta tentacioa eta eztuzu baratren, eztuzu apartatren aliqueta vecatuan errierazi arteo* (33.184).
- BARACÉ CAIÑA. *Pierres Bereret, Barraco Entreprenuraren baratce caiña baitan* (34.6).
- BARAZCARI. *Chapocoquin barazaritara* (1619; 10.34).
- BARBERA. *Barbera egun goician donostiarat gana baita hirur egunençat* (34.45).
- BARIME. *Jan Goicoaren semea barime zara* (24.11); *egun guciçc barime dire ere Jangoicoanac, cerengatic incituen, au especialquiro deiçen da Jangoicoan egune* (24.6).
- BARRA. *Donibaneco Barran lau uribe huntan travaillatcen dena* (34.4); *Barraco Entreprenuraren baratce caiña baitan* (34.6).
- BARREDERA. *Au de sare barredera garbizcen duena glorieco videa.* (23.362).
- BARRUMBE. *baldin pasacen baguera tentacera orren barrumbea alaco moducen fortalecituric arquicen da, ece ez degu arquituco orrengan batere mancheric* (36.186).
- BARU(TU). *Barutu izanduzuen Christo gure Jaunac Desiertuan berroguçi egunean* (19.20).

- BASANABAR. *Yaquin eçaçu nola naizen basanabarren* (1664; 14.33).
- BASTIMENTU. *Sure abereac nondiq baytue otea Bastimentua* (18.9).
- BATERIA. *Lendabizico vateria edo tentacioa proponitu ciona* (19.17).
- BATU. *Josafat(en) baturen gara* (1567; 8.14).
- BAZCASARI. *Babicunza choillarentzat 60 Erreal eta bazcasariarentzat 13 erreal* (30.35).
- BEATU. *Norc veatu dezaque* (26.93).
- BEAURZU. *Lomismo inbeurzu zuc becatorea, erresucitetu beaurzu becatuen erioçetic, Jangoicoan gracia* (24.300); *Ssaquin beaurrcu ece cuen erredentoreac vçininduela batere fuerzaric bague* (24.125).
- BEAZ. *erran zuten guciac, au da Jangoicoaren beaza: Digitus Dei est hic* (32.632).
- BECALA. *senarrac eta emazteac ematen duten vequala* (1548; 4.4); *becala* (1548; 4.23); *egun vecala biar ere apartaçen direla becatuco peligrotic* (20.34).
- BECATORE. *Naizuelaric paçientissimo Jobec, entendiçera eman becatoreari cer dañua eguiten duen animan Demonioac* (20.14).
- BECATU(RATU). *guerla eguin ziozela emaztequiyequin, even edertasuna danza eta muguimendubequin becaturatuco cittuztenequin* (47.177).
- BEDIICIO. *Bedeicio botaric eta milagrosoqui berraturic oguic* (47.416).
- BEGIQUE(TU). *Bedeinkatu. Beguiquedechazu autse aubec* (39.117); *Autse vedicatuta Cristaubei buruen paratcen asten denian* (39.128).
- BEHA(TU). *Begira(tu). Eztu behatuco becatari bacar batec Ymagina Saindu uni, barnetic viotza unquitua senditu gabe* (46.202).
- BEIDA(TU). *Anguirruc eta justoec icusten eta beidacen diotela* (44.38).
- BEILLA. *Abenduco dembora pissagau, gucia da beilla, gucia da escesoa eta gucia da maldadea* (44.18).
- BELAURICO. *Baldin belaurico iarriric adoracen bazuen* (38.561); *Ssarrice belauriquo Maria Santissime* (24.209); *Veguirezace M.Ssri. belorico paraturic* (32.560); *Ondasuna abec guztiaç emango dizquizut valdiñ beaurico paratuta adorazen banazu* (19.63).
- BELDUR. *Ene anima Jangoycoagana beldurriqui partituric* (1567; 8.3).
- BENEIZPEN. *Edo beneizpen uca dezaque onic ttipiena ere zor diola Yaungoicoari?* (47.375).
- BENTURA. *çure bentura bada mendicuaequin ezco(n)çea* (1622; 11.1).
- BENZU(TU). *Demonioac procurazen duela venzuzca* (19.4); *Vaña sartuzan aren Magestade divinoa vatalla onetan seguridadearequiñ venzutuco zuela Demonioa* (19.5); *ezen ala nola venzutuzuen* (19.11); *venzuturic* (19.34).
- BEQUEIN. *Bezain. eiñgueruet ssarriric cegola monumentuen escubico aldean, elurre bequein churi cen bestidure batequi* (24.263).
- BEQUELA. *eta aren jaiocca izandu baze Azuzena edo Lirioarena bequela* (23.49).
- BERACH. *Bigun. cein itz berachac erraten bidecitioten Sn. Josei, San Juan Bautistai* (44.188); *ateratzen daquiyo aurrera Hermitaño moducobat idurizubena bere trajian, bere colore berachetan* (37.83).
- BERA(TU). *Bigundu. eguin ciozcan finecçen golpeaquin ezta beratzen* (26.145); *sarcea Judasen pechuban obeto beraceco viotz gogor ura* (26.151); *Au bera guertatuco zaize zuegui, compadecicen eta veracen etzaratenac* (32.792); *Logratu zuen Flaviano Patriarçac veracea...*(32.803); *çure çure ayta ory ondoena beratuco deçu* (1622; 11.6).
- BERBEA. *Medizinori eman etta lendabisico berbea* (1716; 18.27).
- BERERAÑO. *Egun onetan Ama Elize Santa bereraño manifestacen zacu bere errezo eta cantuetan guztie alegre* (36.57); *Trinidad Jaun Poderosoa bereraño alegratu izan zala, esaten du Puente Venerableac* (36.68).
- BERERE. *Leseyatcen dugu carbait berere erremediatzea ainberce calte* (22.9).
- BERILA. *Berehala. eta zeren etzen berila arq erratten zubena guertatzen ziren artaz burlatzen* (43.244).
- BERLACO. *Gu erredimitu eta berlaco dembra eietan começaçen cirela christioac egunoro* (24.330).

- BERORI. *Jaune, non ocultetu edo ezcutatu nateque verorren ire eta indignacioti? Baldin iocen banaiz Cerure berorren iren iesi, an epacen dut guztie enojaturic* (36.110).
- BERRA(TU). *Ugari(tu). bedecio botaric eta milagrosoqui berraturic oguiec* (47.416); *Ontasunac berratu* (47.478).
- BERRECAIDA. *pacatuben berrecaidaq ezchittuztenaq* (43.433).
- BESTALGAN. *Irugarena bestalgan santificadazagula* (21.45).
- BETERIA. *Veguictan daquila Beteria* (1619; 10.32).
- BEZAMBAITEAN. *Siñestia Jesuchristo gure Jauna guizontasunas bezanbaitean concebitucela Espiritusantuaren obras* (21.33).
- BIDEGABE. *Kalte. horen casuban esdugu aditu nihori bidegaberig eguin dioela* (34.62).
- BIGAL(DU). *Bidali. ez cerutican Miguelec bigaldubas, baicican bera, bera jaichizan cerutic bere debotua socorritzera* (37.211); *bagalbasquizu erespuestac Madalenequin mandazayarequin zin falta* (25.28); *obligachen naisan besela aita frailearequin bigalchera carta au* (25.33).
- BILDUR. *Ay! bidus ta borssa eguiten didate* (1548; 4.29).
- BILLUSI. *Zauriac billustean Jesuri berricen* (35.75).
- BIRMA(TU). *Bigaldu bear dirazu papera zure esqus eguina uirmachen* (25.9).
- BIRME. *eguina dago Jauza Justiya zu uirme egotearequin* (25.1); *sure yzean birme saude* (25.1); *Su, bazera mutila zure ychean uirme zaudena* (25.8).
- BIRMESA. *desula birmesa Justiyarequin* (25.9).
- BISORREIE. *Virrey. ceimbeitire Bisorreie eta guciñeraco Erregue erreprentaçen duten Ministroac* (24.561).
- BIZ(TU). *iauci cen infnuetara, eta irugarren egunean viztucen hiletaric* (21.17); *Araguiaren biztea* (21.22); *Boscarrena siñestea bistucela irugarren egunean yletaric* (21.39).
- BIZQUITARTEAN. *Meza eta elizaco oficioac bizquitartean* (22.19).
- BOLA(TU). *Avebati ebaquicen bazaizco egalac ecusten dizugu cztaittequela bola ceren faltabaizayo gauzaric principalenac bolaceco* (33.1).
- BORRERO. *Zuec erreparatu vide duze, cein diferencie andie guardacen duten ebaquicean Barberac, eta Borrero edo Berdugoac* (32.597); *ematen diozczazula vere pasio santissimoan borrero aiec eman ciozcaten tormentu andi ayec* (19.230).
